

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Garaziko euskararen hizkuntza- aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi

Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia

Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU



Aña Bizkaitxipiri, ene Garaziko amatxiri,

Pantxoari, ene aita espiritualari,

eta Potteri

Eskerrak emanaz

Heldu gara tesiaren bukaerara, eta beraz, heldu da azken urteetan pentsatzen aritu garen lerroak idazteko unea ere.

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet nire zuzendari Iñaki Caminori eta Juan Manuel Hernández-Campoy-ri, behar izan dudana aldi guztietan, beti agertu baitira niri laguntzeko prest. Asko izan da irakatsi didatena eta handia eman didaten babesak. Eskerrak master amaierako lanean tutore izan nuen Iñaki Gaminderi ere, berarekin finkatu nituelako lan honetako oinarriak, eta gerora ere, laguntzeko beti prest agertu baita. Milesker Varun de Arrazolari, hain pertsona ona izateagatik eta estatistikaren munduan eman diguzun laguntza amaigabeagatik. Halaber Ander Egurtzegiri, mezu guztiei erantzun eta aholkuak emateagatik.

Esker mila ene lagun garaztar eta baxenafartarrer. Zier esker Garaziren bihotza ezagutu ahal ukhan dut. Bide gudronatu ttipietarik zien etxaldeetarat arribatuta, sukaldian kafeño bat edo patxaran bat edanez, zien eskuara xoragarri horren intzuteko plazera ez da sosez pagatzen ahal. Pribilegioa izan da zien bizietan sartu ahal izaitia, eta Garazi beste begi batzuek ikhusi ahal izaitia; funtsian, nihaur ere garaztar senditzia, eta Garazirat noan aldi bakotx, etxerat noala pentsatzia. Ez da dudarik, elgarrizketen egiteko tenoria izan dela tesiko mementorik xoragarriena. Nik tut orriak ixkiatu, bena lan hau zietarik atheraia da.

Milesker handi bat lagundu nuzien guzietan, ez nuke izen bakhar bat ere ahatze nahi: Anjel Aintziburu, Maialen Inda eta Aitzurreko familia, Martzelino Luro, Erramun Auzki eta Erramun Muñoz (zena), Mari Angeles Caminondo eta Alaitz Urtasun, Peio Lapeire, Oihana Camino, Mikel Iribarne, Mirentxu Karrika, Daniel Iribarren, Jeannot Auzki, Mirentxu Auzki eta familia, Maddi eta Marie Agnes Gorostiague eta Jeannot Salaberri, Marie Jeanne eta Celine Miranda, Peio Bereterbide, Maia Iribarne, Allande Etxeberri, Antton Urrizaga eta bere amatxi, Irulegiko Gexan, Felixi, André eta Maiena Xangala, Mattin Apeztegi, Gillen Zaldunbide, Monique eta Mirentxu Mateo eta Elorri Lambert, Pauleneko Beñat, Intzaieko Kattin, Xaltoineko Jean Michel eta bere ama, Etxoineko Mariñoel eta Ximun Ihidoi, Eztatxu eta Iñaki Mailharo eta Indarteko familia, Anaïs Bizkaitxipi eta Silvia, Kattin Teisset, Mañex Larramendi, Maddi Migelgorri, Jeanne Unasobizkai, Michel eta Marie Pierre Lerissa, Beñat Jauregi, Mattin Lerissa, Joana Tafernaberri, Joana Ibargarai, Allande Ihidoi, Jean Bikain, Giselle eta Maialen

Duguine eta amatxi Mairrox, Alain Petotegi eta familia, Oihana Ollarburu, Iban Falxa, eta partikulazki, tesi hau eskeintzen dakotan Aña Bizkaitxipi eta familia osoa.

Memento gaxto eta hunetan ondoan izan zituztetan lagun guzietan ere ttinka eta pott handi bedera: Peio eta Matilda Charriton eta Aldameneko ekipa guzia, Maiana Irigoien eta Peio Arraspin, Mikele Duhalde, Eztitxu Berho, Maiana Etxeberri, Naia Etxart, Laura Perez, Éléonore Chambon, donaixtiar eta hoztarrak, eta bihotzeko Pantxoa, Itsaso eta Haize Agirre.

Inongo lotsarik gabe erranen dut tesi hau egitea ez zela posible izanen ostegunero Gasteizen bota ditugun parrandengatik izan ez balitz. Barrua askatzeko, irri egiteko, dantzatzeko, ligatzeko, lagunik hoberenetarik batzuk bilakatu diren pertsonak ezagutzeko, amesteko eta beste mila gauzetarako balio izan dute Kutxin eta Peoplen ordu txikitari ia hamar urtez igaro ditugun momentu deskribaezinek.

Nola ez, faltan botako ditut liburutegian igarotzen genituen ordu luzeak eta hainbeste sufritu duen *Dictionnaire Biographique du Canada III* liburu gaixoa. Lanean jarduten genuen, baina nola ez, baita bizia konpontzen, jendea ezagutzen eta kutzukatzen ere. Gogoan zaituztet, batez ere, Ane Eraña eta Leiane de Madariaga.

Eskerrak Gasteizko lagun guztiei: bihotzeko txokorik gordeenean zaituztedan erresidentziako lagunei, hamar urtez pisukide izan zaituztedan ahizpa guztioi, gaur egungo Gasteizko kuadrilari, Historiako lagunei, eta Hizki taldeko guztiei.

Lagun handiak aipatzen jarraituz, muxu handi bat erromerietako lagun talde osoari, batez ere, Jone Uriari eta Irati Arangureni, neure girorik kuttunena den horretan amets egiten laguntzeagatik. Bistan den bezala, besarkada bat nire Azpeittiko kuadrilako denei ere.

Azkenik, goguan diltut etxeak: txikittan utzi ninduen eta betirako markau ninduen aittajauna, ezautu ez naban amandria, Potte, oin dala gutxi jun jakun aitta, osaba-izekuak, batez be hilbarrixa dan bihotzeko Tia Kaxi, aman lehengusu-lehengusinak, neuriak eta Abeletzeko famelixa osua. Zuei esker, bestiak beste, gure basarriko euskeria eta kontu, ipuin eta leku izen mordo bat ikesi ahal izan diltut.

Eskerrak zuri irakurle, lan hau irakurtzeko erakutsiriko gogo eta interesagatik.

Aurkibidea

I. Eskerrak emanez.....	5
1. Sarrera	25
2. Marko teorikoa.....	28
2.1. Soziolinguistika bariazionistaren historia munduan	28
2.2. Soziolinguistika bariazionista Euskal Herrian	32
2.3. Hizkuntza-aldaketa.....	33
2.3.1. Aldaketa diatopikoa eta diastratikoa.....	34
2.3.2. Aldaketa diafasikoa	39
2.3.3. Hizkuntza-aldaketaren sorrera eta hedapena.....	41
2.3.3.1. Hizkuntza-aldaketa geolinguistikaren ikuspuntutik	42
2.3.3.2. Hizkuntza-aldaketa Laboven ikuspuntutik	44
2.3.3.3. Hizkuntza-komunitateak, sare sozialak eta praktika-komunitateak	47
2.3.3.4. Hizkuntza-aldaketa eta deigarritasuna	51
2.3.3.5. Prestigioa.....	53
2.3.3.6. Hizkuntza-aldaketaren aitzindari sozialak.....	54
2.4. Hizkuntza-jarrerak.....	59
2.5. Hitzunen oharmena.....	60
2.6. Hizkuntza-heriotza	62
2.6.1. Hizkuntza-heriotza Garazin.	66
2.6.2. Hizkuntza-heriotza Garaziko lekuko en ahotan	71
2.6.7.1. Euskara galtzen ari da Garazin?.....	71
2.6.7.2. Ze balio ematen diozu euskarari eta frantsesari/gaztelaniari?	74
2.6.7.3. Euskararen erabilera.....	76
2.6.7.4. Euskararen transmisioa	78
2.7. Dialektoen <i>levelling</i> -a edo berdintzea	79
2.7.1. <i>Levelling</i> -a euskarari	84
2.8. Garazi ibarra.....	89
2.8.1. Muga politikoa Garazin	96
2.8.2. Giza harremanak Garazin.....	99

2.8.2.1. Nongo lagunak dituzu?	100
2.8.2.2. Non egiten duzu/zenuen besta?.....	102
2.8.3. Garaziko euskararen inguruan eginak izan diren lanak	105
2.9. Aldagai askeak (aldagai sozialak eta aldagai geografikoa)	107
2.9.1. Geografia.....	108
2.9.2. Adina.....	113
2.9.3. Generoa.....	116
2.9.4. Hezkuntza-eredua	121
2.9.5. Praktika-komunitatea	122
2.10. Menpeko aldagaiak (hizkuntza-aldagaiak)	125
2.10.1. Bokal aferesia	128
2.10.2. Goranzko diptongoak.....	130
2.10.3. [o]→<u>/_[n] bilakabidea	133
2.10.4. Dardarkariak.....	134
2.10.5. [t]→<t̪>/_[i, j] eta [d̪]→<d̪>/_[i, j] bilakabideak.....	136
2.10.6. ∅→<ə>/C_## bilakabidea.....	139
2.10.7. Hasperena.....	140
2.10.8. [β]→<∅, f̪>/V_V; [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag.; [ɣ]→<∅>/V_V; eta [r]→<∅, f̪>/V_V bilakabideak	144
2.10.9. [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea.....	146
2.10.10. Bustidura: [n]→<ɲ>/[j]_ eta [l]→<ʎ>/[j]_ bilakabideak.....	147
2.10.11. Absolutiboa 3. pertsona plurala duten aditz laguntzaile iragankorrek ...	148
2.10.12. Jabego genitibo singularra.....	150
2.10.13. Etorkizuna -an-ez bukatutako aditzetan	152
2.10.14. [t̪]ik (ablatiboa)→<d̪>ik/[n]_ bilakabidea.....	153
2.10.15. [e]→<i>/[i]_ atzizkia (aditz laguntzaile iragankorretan) bilakabidea	153
2.10.16. Destinatiboa.....	154
2.10.17. Ablatibo mugagabe eta plurala.....	155

2.10.18. Adlatiboa	156
2.10.19. [o]/[e]-dun aldaerak <i>zoin/zein, zonbat/zenbat</i> eta eratorrietan	158
2.10.20. Datibo plurala	159
2.10.21. Soziatiboa.....	160
2.10.22. Aditz laguntzaile ditransitiboetako erroa	161
2.10.23. * <i>Edin</i> eta * <i>ezan</i> /* <i>iron</i> baldintzan	163
2.10.24. <i>an</i> (aditzoina)+ <i>ten</i> → <i>aiten</i>	165
2.10.25. - <i>a(u)</i> - vs. - <i>ai</i> - datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan	167
2.10.26. Tratamenduak.....	168
2.10.27. Aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea izatea	170
2.10.28. TOGen fenomenoa.....	172
2.10.29. <i>Uste izan</i> aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzailea	174
2.10.30. Atributuan artikulurik eza	175
2.10.31. Zehar galdera.....	176
3. Metodologia.....	178
3.1. Datuak bildu.....	178
3.2. Datuak prozesatu eta aztertu	183
3.3. Euskarari buruzko lan bariasionisten metodologiaren konparaketa	189
4. Datuen azterketa.....	192
4.1. Bokal aferesia.....	193
4.1.1. Geografiaren arabera	194
4.1.2. Adinaren arabera	196
4.1.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	198
4.1.3. Generoaren arabera.....	199
4.1.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	201

4.1.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	202
4.1.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	204
4.1.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa	206
4.1.6.1. Testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreragina	207
4.1.7. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza	208
4.1.7.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarreragina	209
4.1.8. Cluster analisia	210
4.2. Goranzko diptongoak: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea	212
4.2.1. Geografiaren arabera	213
4.2.2. Adinaren arabera	215
4.2.3. Generoaren arabera.....	217
4.2.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	219
4.2.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	221
4.2.6. Cluster analisia	223
4.3. Goranzko <i>diptongoak</i> : [e]→<e, i, j>/_[a] bilakabidea	224
4.3.1. Geografiaren arabera	225
4.3.2. Adinaren arabera	228
4.3.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	230
4.3.3. Generoaren arabera.....	235
4.3.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	237
4.3.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	239
4.3.6. Cluster analisia	241
4.4. Goranzko <i>diptongoak</i> : [o]→<o, u, w>/_[a] bilakabidea	243
4.4.1. Geografiaren arabera	244
4.4.2. Adinaren arabera	246
4.4.3. Generoaren arabera.....	248
4.4.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	250
4.4.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	252

4.4.6. Cluster analisia	254
4.5. [o]→<u>/_[n] bilakabidea	256
4.5.1. Geografiaren arabera	257
4.5.2. Adinaren arabera	259
4.5.3. Generoaren arabera.....	261
4.5.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	263
4.5.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	265
4.5.6. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza	267
4.5.6.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarreragina.....	268
4.5.6.2. <i>Kundatu</i> hitzaren eta geografiaren arteko elkarreragina	269
4.5.7. Cluster analisia	270
4.6. Dardarkariak	272
4.6.1. Geografiaren arabera	273
4.6.2. Adinaren arabera	275
4.6.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	277
4.6.3. Generoaren arabera.....	279
4.6.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	281
4.6.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	282
4.6.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	283
4.6.6. Cluster analisia	285
4.7. [t̪]→<t̪>/_[i, j] bilakabidea.....	286
4.7.1. Geografiaren arabera	287
4.7.2. Adinaren arabera	289
4.7.3. Generoaren arabera.....	291
4.7.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	293
4.7.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	294
4.7.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	296
4.7.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa.....	298

4.7.7. Cluster analisia	299
4.8. [d̥]→<d̥>/_[i, j] bilakabidea	301
4.8.1. Geografiaren arabera	302
4.8.2. Adinaren arabera	304
4.8.3. Generoaren arabera.....	306
4.8.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	308
4.8.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	310
4.8.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa.....	312
4.8.7. Cluster analisia	313
4.9. ∅→<ə>/C_## bilakabidea	315
4.9.1. Geografiaren arabera	316
4.9.2. Adinaren arabera	318
4.9.3. Generoaren arabera.....	320
4.9.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	322
4.9.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	323
4.9.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	325
4.9.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa.....	327
4.9.7. Cluster analisia	328
4.10. Hasperena hitz hasieran	330
4.10.1. Geografiaren arabera.....	331
4.10.2. Adinaren arabera	333
4.10.3. Generoaren arabera.....	335
4.10.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	337
4.10.4. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa.....	338
4.10.5. Cluster analisia	339
4.11. Hasperena bokal artean.....	340
4.11.1. Geografiaren arabera.....	341
4.11.2. Adinaren arabera	343

4.11.3. Generoaren arabera.....	345
4.11.4. Cluster analisia	347
4.12. Herskari hasperendunak.....	348
4.12.1. Geografiaren arabera.....	349
4.12.2. Adinaren arabera	350
4.12.3. Generoaren arabera.....	351
4.12.4. Cluster analisia	352
4.13. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, \text{fi} \rangle / V_V$ bilakabidea	353
4.13.1. Geografiaren arabera.....	354
4.13.2. Adinaren arabera	356
4.13.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	358
4.13.3. Generoaren arabera.....	360
4.13.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	362
4.13.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	363
4.13.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	365
4.13.6. Cluster analisia	367
4.14. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: $[\delta] \rightarrow \langle \emptyset \rangle / V_V, -t(z)en_ad.$ lag. bilakabidea.....	369
4.14.1. Geografiaren arabera.....	370
4.14.2. Adinaren arabera	372
4.14.3. Generoaren arabera.....	374
4.14.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	376
4.14.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	378
4.14.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru foniko vs. morfologikoa .	380
4.14.6.1. Testuinguru foniko vs. morfologikoaren eta adinaren arteko elkarreragina.....	381
4.14.7. Cluster analisia	382
4.15. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: $[\gamma] \rightarrow \langle \emptyset \rangle / V_V$ bilakabidea	384
4.15.1. Geografiaren arabera.....	385

4.15.2. Adinaren arabera	387
4.15.3. Generoaren arabera.....	389
4.15.4.1. Adinaren eta generoaren arteko elkarreragina	391
4.15.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	392
4.15.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	394
4.15.6. Cluster analisia	396
4.16. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: [r] → <∅, h>/V_V bilakabidea.....	398
4.16.1. Geografiaren arabera.....	399
4.16.2. Adinaren arabera	401
4.16.3. Generoaren arabera.....	403
4.16.4.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	405
4.16.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	406
4.16.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	408
4.16.6. Cluster analisia	410
4.17. [u] → <i>/_[a, e] bilakabidea.....	412
4.17.1. Geografiaren arabera.....	413
4.17.2. Adinaren arabera	415
4.17.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	417
4.17.3. Generoaren arabera.....	418
4.17.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	420
4.17.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	422
4.17.6. Cluster analisia	424
4.18. Bustidura: [n] → <p>/[j]_ bilakabidea	426
4.18.1. Geografiaren arabera.....	427
4.18.2. Adinaren arabera	429
4.18.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	431
4.18.3. Generoaren arabera.....	433
4.18.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	435

4.18.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	437
4.18.6. Baldintza linguistikoaren arabera: <i>huñez</i> hitza Garazi mendebaldean	439
4.18.7. Cluster analisia	440
4.19. Bustidura: [l]→<ʎ>/[j]_ bilakabidea.....	442
4.19.1. Geografiaren arabera.....	443
4.19.2. Adinaren arabera	445
4.19.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	447
4.19.3. Generoaren arabera.....	449
4.19.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	451
4.19.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	453
4.19.6. Baldintza linguistikoaren arabera: <i>oillo</i> hitza Garazi mendebaldean	455
4.19.7. Cluster analisia	456
4.20. Absolutiboa 3. pertsona plurala duten aditz laguntzaile iragankorrak (<i>tut</i> vs. <i>ditut</i> vs. <i>diztut</i>)	457
4.20.1. Geografiaren arabera.....	458
4.20.2. Adinaren arabera	460
4.20.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	462
4.20.3. Generoaren arabera.....	463
4.20.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	465
4.20.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	466
4.20.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	468
4.20.6. Cluster analisia	470
4.21. Absolutiboa 3. pertsona plurala eta ergatiboa 3. pertsona plurala edo 1. eta 2. pertsona singularra eta atzizkia duten aditz laguntzaile iragankorrak (<i>tuzte</i> vs. <i>duzte</i> vs. <i>diuzte</i> vs. <i>dituzte</i>)	472
4.21.1. Geografiaren arabera.....	473
4.21.2. Adinaren arabera	476
4.21.3. Generoaren arabera.....	478
4.21.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	480

4.21.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	482
4.21.6. Cluster analisia	484
4.22. Jabego genitibo singularra	486
4.22.1. Geografiaren arabera.....	487
4.22.2. Adinaren arabera	490
4.22.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	492
4.22.3. Generoaren arabera.....	496
4.22.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	498
4.22.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	500
4.22.6. Baldintza linguistikoaren arabera: 3. graduko erakuslea eta <i>nor</i> izenordain galdetzailea Garazi mendebaldean.....	502
4.22.7. Cluster analisia	503
4.23. Etorkizuna <i>-an</i> -ez bukatutako aditzetan.....	505
4.23.1. Geografiaren arabera.....	506
4.23.2. Adinaren arabera	508
4.23.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	510
4.23.3. Generoaren arabera.....	511
4.23.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	513
4.23.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	514
4.23.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	516
4.23.6. Cluster analisia	518
4.24. [t]ik (ablatiboa)→<d>ik/[n]_ bilakabidea	520
4.24.1. Geografiaren arabera.....	521
4.24.2. Adinaren arabera	523
4.24.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	525
4.24.3. Generoaren arabera.....	526
4.24.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	528
4.24.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	530

4.24.6. Cluster analisia	532
4.25. [e]→<i>/[i]_atzikia (aditz laguntzaile iragankorretan) bilakabidea	533
4.25.1. Geografiaren arabera.....	534
4.25.2. Adinaren arabera	537
4.25.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	539
4.25.3. Generoaren arabera	543
4.25.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	545
4.25.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	547
4.25.6. Cluster analisia	549
4.26. Destinatiboa	551
4.26.1. Geografiaren arabera.....	552
4.26.2. Adinaren arabera	554
4.26.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	556
4.26.3. Generoaren arabera	557
4.26.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	559
4.26.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	561
4.26.6. Cluster analisia	563
4.27. Ablatibo mugagabe eta plurala.....	564
4.27.1. Geografiaren arabera.....	565
4.27.2. Adinaren arabera	567
4.27.3. Generoaren arabera.....	569
4.27.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	571
4.27.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	573
4.27.6. Cluster analisia	575
4.28. Adlatiboa.....	576
4.28.1. Geografiaren arabera.....	577
4.28.2. Adinaren arabera	579
4.28.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	581

4.28.3. Generoaren arabera	583
4.28.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	585
4.28.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	587
4.28.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa	589
4.28.6.1. Testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreragina	590
4.28.7. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza.....	591
4.28.7.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarreragina	592
4.28.7.2. Aditzaren erregimenaren eta geografiaren arteko elkarreragina	593
4.28.8. Cluster analisia	594
4.29. [o]/[e]-dun aldaerak <i>zoin/zein, zonbat/zenbat</i> eta eratorrietan	596
4.29.1. Geografiaren arabera.....	597
4.29.2. Adinaren arabera	599
4.29.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	601
4.29.3. Generoaren arabera	602
4.29.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina	604
4.29.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	605
4.29.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	607
4.29.6. Cluster analisia	609
4.30. Datibo plurala.....	610
4.30.1. Geografiaren arabera.....	611
4.30.2. Adinaren arabera	613
4.30.3. Generoaren arabera	615
4.30.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	617
4.30.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	619
4.31.6. Cluster analisia	621
4.31. Sozietatiboa.....	622
4.31.1. Geografiaren arabera.....	623
4.31.2. Adinaren arabera	625

4.31.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	627
4.31.3. Generoaren arabera	629
4.31.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	631
4.31.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	633
4.31.6. Cluster analisia	635
4.32. Aditz laguntzaile ditransitiboetako erroa.....	636
4.32.1. Geografiaren arabera.....	637
4.32.2. Adinaren arabera	639
4.32.3. Generoaren arabera	641
4.32.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	643
4.32.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	645
4.32.6. Luzaiden, * <i>eradun</i> erroaren gainean eraikitako aditz laguntzaile ditransitiboak datiboa lehen pertsona singularra edo bigarren pertsona singular z/ <i>xukakoa</i> delarik.....	647
4.32.7. Cluster analisia	648
4.33. * <i>Edin</i> eta * <i>ezan</i> /* <i>iron</i> baldintzan.....	649
4.33.1. Geografiaren arabera.....	650
4.33.2. Adinaren arabera	653
4.33.3. Generoaren arabera	655
4.33.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	657
4.33.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	659
4.33.7. Cluster analisia	661
4.34. <i>an</i> (aditzoina)+ <i>ten</i> → <i>aiten</i>	663
4.34.1. Geografiaren arabera.....	664
4.34.2. Adinaren arabera	666
4.34.3. Generoaren arabera	668
4.34.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	670
4.34.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	672

4.34.6. Cluster analisia	674
4.35. -a(u)- vs. -ai- datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan	675
4.35.1. Geografiaren arabera.....	676
4.35.2. Adinaren arabera	678
4.35.3. Generoaren arabera.....	680
4.35.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	682
4.35.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	684
4.35.6. Baldintza linguistikoaren arabera: datiboaren pertsona Luzaiden	686
4.35.6.1. Datiboaren pertsonaren eta adinaren arteko elkarreragina	687
4.35.7. Cluster analisia	688
4.36. Tratamenduak.....	689
4.36.1. Geografiaren arabera.....	690
4.36.2. Adinaren arabera	691
4.36.3. Generoaren arabera.....	692
4.36.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	693
4.36.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	694
4.37. Aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea izatea	695
4.37.1. Geografiaren arabera.....	696
4.37.2. Adinaren arabera	698
4.37.3. Generoaren arabera.....	700
4.37.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	702
4.37.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	704
4.37.6. Cluster analisia	706
4.38. TOGen fenomenoak	708
4.38.1. Geografiaren arabera.....	709
4.38.2. Adinaren arabera	711

4.38.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	713
4.38.3. Generoaren arabera	715
4.38.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	717
4.38.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	719
4.38.6. Baldintza linguistikoaren arabera: objektu zuzenaren aditzarekiko kokapena	721
4.38.7. Cluster analisia	722
4.39. <i>Uste izan</i> aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzailea.....	724
4.39.1. Geografiaren arabera.....	725
4.39.2. Adinaren arabera	727
4.39.3. Generoaren arabera	729
4.39.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	731
4.39.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	733
4.39.6. Cluster analisia	735
4.40. Atributuan artikulurik eza	736
4.40.1. Geografiaren arabera.....	737
4.40.2. Adinaren arabera	739
4.40.3. Generoaren arabera	741
4.40.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	743
4.40.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	745
4.40.6. Cluster analisia	747
4.41. Zehar galdera.....	749
4.41.1. Geografiaren arabera.....	750
4.41.2. Adinaren arabera	752
4.41.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina	754
4.41.3. Generoaren arabera	755
4.41.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera	757
4.41.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera	759

4.41.6. Cluster analisisia	761
4.42 Cluster analisi orokorra	763
5. Hizkuntza-jarreraren eta hiztunen oharmenaren emaitzak	765
5.1. Galdera irekiak	765
5.1.1. Garaziko euskara adinekoengandik gazteengana aldatzen ari dela uste duzu?	766
5.1.2. Zeini ematen diozu balio handiagoa? Euskara Batuari, bertako euskarari edo biei berdin?	768
5.1.3. Garaziko parte kontsideratzen duzu Luzaide?	771
5.1.4. Berdin mintzo zarete luzaidarrak eta gainerako garaztarrak?	774
5.1.5. Galdera irekien ondorioak	775
5.2. Hiztunek beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmena	776
5.2.1. Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa?	777
5.2.1.1. Geografiaren arabera	777
5.2.1.2. Adinaren arabera	778
5.2.2. Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina?	780
5.2.2.1. Geografiaren arabera	780
5.2.2.2. Adinaren arabera	782
5.2.3. Hiztunek beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmenaren ondorioak	783
5.3. Erreakzio subjektiboen testak Luzaide ez beste eremuetan	784
5.3.1. Lehen grabaketa (Luzaideko adineko emaztea)	787
5.3.2. Bigarren grabaketa (Luzaideko emazte heldua)	788
5.3.3. Hirugarren grabaketa (Luzaideko emazte gazte gordetzailea)	789
5.3.4. Laugarren grabaketa (Luzaideko emazte gazte berritzailea)	790
5.3.5. Bosgarren grabaketa (iparraldeko batua)	791
5.3.5.1. Adinaren arabera	791
5.3.5.2. Praktika-komunitatearen arabera	793
5.3.6. Seigarren grabaketa (hegoaldeko batua)	794

5.4. Erreakzio subjektiboen testak Luzaiden	795
5.4.1. Lehen grabaketa (Gamarte-Ainhizako adineko emaztea).....	795
5.4.2. Bigarren grabaketa (Gamarte-Ainhizako emazte heldua).....	796
5.4.3. Hirugarren grabaketa (Hergaraiko emazte gazte gordetzailea)	797
5.4.4. Laugarren grabaketa (Gamarte-Ainhizako emazte gazte berritzailea)	798
5.4.5. Bosgarren grabaketa (iparraldeko batua).....	799
5.4.6. Seigarren grabaketa (hegoaldeko batua).....	800
5.5. Erreakzio subjektiboen testaren ondorioak.....	801
6. Ondorioak	803
6.1. Hizkuntza-aldakortasuna hizkuntza-alorraren arabera	803
6.2. Aldagai askeak eta hizkuntza-aldakortasuna	803
6.2.1. Hizkuntza-aldakortasuna geografiaren arabera	803
6.2.1.1. Hizkuntza-aldakortasuna hizkuntza-aldagaien hedaduraren arabera	804
6.2.1.2. Hizkuntza-aldakortasun diatopikoa Garazin.....	805
6.2.1.3. Eremurik gordetzaileena vs. eremurik berritzaileena.....	805
6.2.2. Hizkuntza-aldakortasuna adinaren arabera	806
6.2.2.1. Hizkuntza-aldakortasuna, adina eta hizkuntza-aldagaien sistematikotasuna....	807
6.2.3. Hizkuntza-aldakortasuna generoaren arabera	807
6.2.4. Hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren arabera	808
6.2.5. Hizkuntza-aldakortasuna praktika-komunitatearen arabera.....	808
6.2.5.1. Gaztetxekoen izaera berritzailea eta iparraldeko batuaz gogoeta	808
6.2.5.2. Gaztetxekoen izaera berritzailea eta sare sozialen teoria	811
6.2.5.3. Luzaidarren izaera berritzailea eta hegoaldeko batuaz gogoeta.....	811
6.3. Hizkuntza-aldakortasuna eta hizkuntza-/dialekto-heriotza.....	813
6.4. Behetik gorako eta goitik beherako aldaketak Garazin	814
6.5. Hizkuntza-aldakortasuna eta deigarritasuna	814
7. Aitzina so.....	816
Bibliografia.....	818

1. Sarrera

Tesi honen helburua Garazi ibarreko hizkuntza-aldakortasuna ikertzea da. Garazi Nafarroa Beherea probintziako hego-ekialdean kokaturik dago, Pirinioen iparraldean hain zuzen ere. Ibar honetako herri bat, Luzaide, Nafarroa Garaian dago, ipar-ekialdean. Landa-eremuan, bete-betean dago Garazi, Baionatik 52 kilometrora eta Iruñetik 74 kilometrora. Gaur egun, oraindik ere, indar handia du lehen sektoreak, batez ere artzaintzak.

Hainbat arrazoigatik deliberatu dugu lan hau egitea:

- Euskal Herriko iparraldea lurralde ahaztua izan da euskararen aldakortasunari buruz egin diren lanetan. Bizkitartean, euskararen azterketa osoa izan dadin, ezinbestekoa zaigu hemengo hizkerari ere arreta eskaintzea.
- Euskararen aldakortasunaz egin diren lan gehienek ikuspuntu diatopikoa izan dute, eta euskalkien sailkapenak egitea edo inguru bateko euskara deskribatzea izan dute helburu. XXI. mendetik goiti, geroz eta gehiago dira ikuspuntu diastratikoari ere arreta eskaintzen diotenak, eta lan hauek zabaltzeko bidean beste urrats bat egin nahi genuke. Ardatz geografikoa aintzat hartu badugu ere, garrantzi handia eman diogu hizkuntzaren aldakortasun sozialari. Aldaketa soziolinguistiko handiak bizitzen ari da euskara gure egunotan, eta ezinbesteko deritzogu aldaketa horien berri emateari eta ze norabidetan gertatzen ari diren ikertzeari.
- Arreta berezia piztu digu bi estatuen arteko mugak. Historikoki, geografikoki, linguistikoki eta kulturalki Garaziren parte da Luzaide, baina gainerako herriak ez bezala, Espainiako estatuan dago gaur egun. Muga politikoa euskararen aldaketaren norabidean izaten ari den eragina berebizikoa dela uste dugu, eta leku aproposa da Garazi hori aztertzeko.
- Gero eta usuago aipatzen diren iparraldeko batua eta hegoaldeko batua aldaera supralokalak definitzeko saiakera egitea interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaigu.
- Nazioartean geroz eta gehiago lantzen diren praktika-komunitateak deritzen kategoria mesosozialak euskal hizkuntzalaritzan aplikatzeko saiakera ere egin dugu.

Geografia, adina, generoa, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitateak izan dira kontuan hartu ditugun aldagai askeak, eta horien arabera hauek dira proposatu ditugun hipotesiak:

- Geografiari dagokionez, Luzaide eta beste herrien artean dagoen muga politikoa hizkuntza-muga ari da bihurtzen. Alde batetik, frantsesaren eraginez hedatzen ari diren aldaerak ez dira Luzaidera heldu. Bestetik, iparraldeko batura begira daude Luzaide ez beste eremuetan eta Heogaldeko Batura begira, berriz, Luzaiden. Horrez gainera, hizkuntza-aldaketan ohikoa denez, eremu murrizteneko aldaerak aldatzen lehenak eta eremu zabalenerakoak hondarrekoak izaten ari direla uste dugu. Azkenik, iruditzen zaigu hizkuntza-aldaera banatzaileen arabera, adinekoen artean ibarrean dagoen alde geografikoa neutralizatzen ari dela gazteengan.
- Adinari helduz, adinekoak *base dialect*-aren edo oinarri dialektalaren ordezkari dira. Gazteek, aldiz, Euskara Batuaren edo Batuen (iparraldeko batua edo hegoaldeko batua) eragin handia dute. Helduen eta gazteen arteko aldea adinekoen eta helduen artekoa baino handiagoa dela uste dugu.
- Emazteek belaunaldi bakoitzean izan duten egoera sozial desberdina dela eta, generoaren arabera, adineko emazteak gordetzaile dira eta emazte gazteak berritzaile.
- Hezkuntza-ereduari dagokionez, Ikastolako gazteek euskara estandarren eta iparraldeko batua/hegoaldeko batua aldaera supralokalen eragin handiagoa dute publikokoek baino, azken hauen euskara etxeko giroari, eta beraz, oinarri dialektalari lotuago baitago.

Azkenik, praktika-komunitateak deritzen kategoria mesozialek gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-eredua kategoria makrosozialak baino zehazkiago azaltzen dutela iruditzen zaigu. iparraldeko batuaren eraginez zabaltzen ari diren hizkuntza-aldaeren kasuan, gazterik berritzaileenak gaztetxeko gazteak direla uste dugu, eta hegoaldeko batuaren eraginez hedatzen ari direnetan, berriz, luzaidarrak. Gordetzaileenak besta komiteetakoak direla uste dugu.¹

¹ Besta komiteak herrietako bestak eta beste zenbait ekintza (pilota partidak eta mus txapelketak, kasu) antolatzeaz arduratzen diren elkarteak dira, eta gutxi gorabehera, 16 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute. Biztanle kopuru apaleko herrietan, besta komiteak bihurtu dira herrietako gazteek elkar ezagutzeko aukera ia bakarra.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenik eta behin oinarri teorikoak luze eta zabal azalduko ditugu marko teorikoan. Garazi ibarra ere aurkeztuko dugu, eta nola ez, aldagai askeei (aldagai geografikoa eta aldagai sozialak) eta menpeko aldagaiei (hizkuntza-aldagaiak) buruzko xehetasunak ere emanen ditugu. Ondoren metodologia azalduko dugu. Datuen azterketari helduko diogu ondotik. Jarraian, hizkuntza-jarrerak eta hiztunen oharmena landuko ditugu, ezinbestekoa baita lekukoen uste eta iritzien berri izatea, atera ditugun ondorio kuantitatiboak azalpen kualitatibo ahalik eta osoena emateko. Azken atalean, atera ahal izan ditugun ondorio guztiak eta aitzina so ditugun asmoak aipatuko ditugu.

2. Marko teorikoa

Marko teorikoan, lehenik eta behin, nazioartean egin den soziolinguistika bariasionistaren ibilbidea jarraituko dugu, gero gurera etorri, eta etxean egin dugunaren berri izateko. Ondoren hizkuntza-aldaketari helduko diogu, sorrerari eta hedapenari, hain zuzen ere. Ikuspuntu geolinguistikoa, labovarra, eta azken urteetan, besteak beste, Eckert lantzen ari dena jorratuko ditugu. Hizkuntza-jarreraren eta hiztunen oharmentaren inguruan nazioartean egin diren ekarri teorikoak landuko ditugu segidan. Garaziko hizkuntza-aldaketa ulertzeko funtsezkoak diren hizkuntza-heriotzari eta dialektoen *levelling*-ari edo berdintzeari buruz arituko gara ondoren. Garazi ibarra eta hango euskarari buruz egin diren ikerketak aurkeztuko ditugu jarraian, eta azkenik, lan honetan kontuan hartu ditugun aldagai askeak eta menpeko aldagaiak bedera-bedera azalduko ditugu.

2.1. Soziolinguistika bariasionistaren historia munduan

Gizartearen eta hizkuntzaren arteko interes argia erakutsi zuen lehen lana Gauchat-ek 1905ean Charmey-ko frantsesaz idatzi zuena dela erran liteke. Neogramatikoen arau fonetikoaren salbuespenik ezak ez zituen hizkuntzalari guztiak asetzen, eta aldaketa aliritzira gertatzen ez zela iritzita, Gauchatek hizkuntza-aldagai ugari adinarekin lotuta daudela frogatu zuen (Labov, 1999 [1994]: 19). Halaber, ondoren etorri zen ikusmolde soziolinguistikoaren aitzindari izan zen Martinet-en (1939) “Description phonologique du parler franco-provençal d’Hauteville (Savoie)”. Bertan, hizkuntzalari handi honek familia bereko hiru belaunaldiren mintzoa aztertu zuen. Garrantzizkoak izan ziren Weinreich-en (1954) eta John L. Fischer-en (1958) lanak ere. 60ko hamarkadara jauzi eginda, aipagarriak dira Reichtein-ek (1960) Parisko eskolatuen mintzoaz egina eta baita Ferguson eta Gumperz-ek (1960) idatzi *Linguistic Diversity in South Asia* ere.

Benetako aldaketa, ordea, Labov-ekin etorri zen, zehatzago errateko, 1966an, *The Social Stratification of English in New York City* lanarekin. Erran liteke bera izan dela Soziolinguistika bariasionistaren aita. Labov ez zegoen ados, besteak beste, Saussure-k edota Chomsky-k zuten hizkuntzaren ikuspegi immanentearekin; dialektologia rural tradizionala birdefinitu nahi izan zuen, ikuspegi urbanoa gehituz; hizkuntza kuantitatiboki aztertu beharra ikusten zuen; eta, nola ez, hizkuntzalaritza, soziologia,

etnografia edo antropologia bezalako zientziekin uztartu beharra zekusan (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 10-22).

Bariazionismoarentzat mugarri izan zen lanean, Weinrich, Labov eta Herzog-ek (1975 [1968]) aldakortasuna sistematikoki azter daitekeela frogatu zuten eta baita aldakortasuna hizkuntzaren barneko berezko osagaia dela ere (Labov, 1969: 728). Hizkuntza-aldaketa egiturazkoa eta funtzionala dela defendatu zuten autore hauek, hots, hizkuntza aldaketa sozialei eta hiztunen behar komunikatiboei egokitzen zaiela (Hernández-Campoy, 1999: 59).

Soziolinguistika labovarraren arabera, hizkuntza-aldagaiak, komunitateko hiztunen kompetentziaren parte direnez gero, gramatikaren arauetan txerta daitezke, eta horretarako, beharrezko izanen da talde sozial baten hizkuntzaren erabileraren azterketatik lorturiko datu estatistikoak, probabilitate teorikoaren termino moduan itzultzea (Etxebarria, 2000: 107).

Bariazionismoak ibilbide luzea egin du jada, eta ordutik gauzak zertxobait aldatu dira. Eckert andereak (2012) bariazionismoaren hiru olatu definitu zituen. Lehen olatua Laboven 1966ko lanarekin hasi zela uste du autore honek. Garai honetako lanek, adina, generoa eta batez ere klasea bezalako kategoria makrosoziologikoen arabera aztertzen zuten hizkuntza eta klaseari arreta berezia eskaintzen zioten. Hau izari soziologiko estandarren arabera, azpikategoriatan banatzen zen, eta horren arabera hiztunak pasiboki sailkatzen ziren batean edo bestean. Adinari zegokionez ere, urte tarte berdintsutako azpikategoriak banatzen ziren, martxan zegoen aldaketa *in vivo* aztertzeko. Erregistro arduragabetik zaindura iragan arau, *vernacular* deritzonetik estandarrera buruz egiten duen jauzian baino ez zen hiztuna agentetzat hartzen. Estiloa, beraz, mintzoari eskaintzen zaion arretatzat ulertua zen. Aldaketaren hatsarre orokor batzuk ere ondorioztatu ziren, hots, langile klase gorakoak eta klase ertain apalekoak, emakumeak eta nerabeak zirela hizkuntza-aldaketaren liderrak (Eckert, 2012: 88-90).

Bigarren olatuan, aldakortasunaren inguruko ikerketak metodo etnografikoak kontuan hartzen hasi ziren aldakortasunaren dinamikak hobeki ulertu ahal izateko. Lehen olatuko kategoria makrosoziologiko horien ordeztatuak, lokalagoak hasi ziren kontuan hartzen, errate batera, sare sozialak. Estandarraren eta *vernacular* delakoaren arteko hautua agentzia sozialaren ondorioa zela uste zuten bigarren olatu honetako ikerleek. Hain zuzen ere, *vernacular*-aren erabilera identitate lokal edo klase identitatearen

manifestazioarekin loturik zegoela uste zuten. Lan bat aipatzekotan, L. Milroy-ren 1980koa azpimarratu beharko genuke. Bertan, ikertzaile honek Belfasteko aldakortasun linguistikoa ikertu zuen sare sozialen bitartez. Ondorioztatu zuenez, langile klaseetan ohikoak ziren sare sendo eta askotarikoek arau lokalak indartzen zituzten, eta honek bertako *vernacular*-aren erabileran ondorio zuzena zuen (Eckert, 2012: 90-91).

Hondar urteotan sortu berria den bariasionismoaren hirugarren olatuak, azkenik, *nola* galderari erantzun nahi dio; hau da, nola bihurtzen den aldaera jakin bat New Yorkeko klase altuko norbaiten edota neska nerabe errebelde baten bereizgarri (Moore, 2011: 221). Hirugarren olatu hau Eckert-ek (1989a) Detroit-eko eskola batean egin ikerketarekin hasi zela erran liteke. Bertan, elkarrengandik zeharo desberdinak ziren bi gazte talde bereizi ahal izan zituen ikerlari honek, *Jocks* eta *Burnouts* izendatu zituenak. Lehenak klase ertainekoak ziren gehienbat, eskolako hainbat ekintzatan gogotsu parte hartzen zutenak, eta bigarrenak, berriz, langile-klasekoak, eskolatik ahal zuten bezain urrun zeudenak eta kalea bizitoki zutenak. Identitate hain markatua zuen talde hauetako bakoitzak bere identitatea hizkuntzaren bidez nola proiektatzen zuen ikertu zuen Eckertek. Ez zuen irakasleen bitartekotzarik erabili, baizik eta korridoreetan edota eskolaren kanpoaldean egin zituen behaketak, emaitza fidagarriagoak lortze aldera (Eckert, 2012: 92).

Bigarren olatuko ikerketek, lehen olatukoaren emaitzen perspektiba lokala eskaini zuten, kategoria makrosoziologiko eta kategoria lokal eta zehatzagoen arteko lotura eginez. Haatik, biek ala biek kategoria estatikoak zituzten aztergai, eta identitatea azpikategoria jakin bateko parte izatearekin lotzen zuten. Hirugarren olatu honetan, ordea, aldakortasuna identitate sozialen islatzat ulertzen da, identitate jakin bat adierazteko edota talde sozial jakin batean bere burua kokatzeko hiztunak egiten duen praktika linguistikotzat. Lehen bi olatu hauek aldakortasunaren erranahia espazio sozialaren ustekabeko ondorioztat hartzen zuten. Alta, hizkuntzaren ezinbesteko ezaugarritzat hartzen da hirugarren olatuan (Eckert, 2012: 93-94).²

Hau ez da halabeharrezko gertakaria, baizik eta hizkuntza-aldaerak erranahi sorta batekin etengabe lotzen dituen prozesua. Norabide anitzetan gara liteke, aldi berean

² Errate batera, mutil amerikarrek Amerikako beltzen (*vernacular*) ingelesari dagozkion ezaugarriak erabiliko dituzte maskulinitatea adierazteko (Bucholtz, 1999a; Cutler, 1999). Identitatea proiektatzeko beste kasu ezagun bat Martha's Vineyard irlako Chilmark-eko arrantzaleena da, irlako hizkuntza-ezaugarri tipikoa erabiltzen baitzuten euren nortasuna kanpotik zetozen turistekin aurrean indartzeko (Labov, 1972: 1-42).

edota denboran zehar. Momentu jakin batean, hizkuntza-aldaerei atxikitzen zaizkien erranahi horiek adierazle-eremu edo *indexical field* delakoa osatzen dute (Eckert, 2008); hots, ideologikoki lotuta dauden erranahien konstelazioa. Testuinguruaren arabera, adierazle-eremu horretako erranahi jakin batzuk edo beste batzuk atxiki ahal izanen zaizkio hizkuntza-aldaerari.

Estiloari erreparatzean, lekuko mintzo ez estandarrari eskaini zaio arreta lehen bi olatuetan. Hirugarren honetan, aldiz, hizkuntza-aldaerak zerk egiten dituen berezi jakin nahi da. Hain zuzen ere, hizkuntzari izaera soziala ematen dion erranahia ikertu nahi da.³ Hirugarren olatuan, hiztunak ez dira pasiboak eta egonkorak, agente estilistikoak baizik. Hizkuntzak ez du balio hiztuna ekoizpen sisteman zein posiziotan dagoen jakiteko, baizik eta hiztun bakoitzak bere identitatea eraikitzeke, talde jakin batekoa edo bestekoa direla adierazteke. Hizkuntza-aldakortasuna sistema semiotiko anitzez hedatuago baten parte da, eta talde jakin bateko identitatea markatzen du, musika zaletasun jakinek, janzkerak edo orrazkerak egiten duten bezala. Orain arte, estiloa gauza bera errateko modu desberdinen gisara ulertua zen, baina hirugarren olatuak ideologia hizkuntzaren muinean txertatzen du, erranahiaren eraikuntzan. Honek ondorio garrantzitsuak ditu hizkuntzaren teoriarentzat (Eckert, 2012: 94-98).

Schilling-en (2013 [2002]: 344-345) arabera, hirugarren olatuak ekarri dituen berrikuntzak handiak, erakargarriak eta tentagarriak izan badira ere, tentuz hartu behar dira. Interakzioaren ondoriozko portaerak eta identitate-kategoriak ez dira hutsetik sortzen, baizik eta ordena sozialetan eta ordena hauei buruzko iritzietan inplikaturatuta daude. Norbait langile-klase identitatea aldarrikatzen ari baldin bada, bere burua hierarkia sozio-ekonomikoan kokatzen ari da halaber. Halaber, gizonezko edo emakumezko identitate tradizionala proiektatzen ari den norbaitek ere, generoaren ordena hegemonikoaren barruan kokatzen du bere burua. Horrez gain, hitz egiten duten bakoitzean, hiztunak ez dira ari beraien identitatea proiektatzen, izan ere, batzuetan, modu automatikoan funtzionatzen dute. Azkenik, hiztunek hizkuntzaren bidez, beraien identitatea sor badezakete ere, hizkuntza-errepertorio mugatuarekin topo egiten dute, izan ere, hor dago hartzailea, eta honek igorleak erraten duena ulertu behar du. Beraz, alferrik ibiliko da igorlea etengabe hizkuntzarekin identitatea sortzen hartzaileak ez

³ Errate batera, bokal arteko /t/-ren aspirazioa askotariko baliabide estilistikoa da, femininotasunaren adierazletzat har litekeena (Bucholtz, 1996), judutar ortodoxoena (Benor, 2001), edo baita gizon gay-ena ere (Podesva et al. 2002; Podesva, 2007).

badu horren erranahia ulertzen. Hori guztia horrela izanik, Schillingen (2013 [2002]: 345) ustez, agentzia eta egitura, ekimena eta erantzuna, sortzailetasuna eta hizkuntza-mugak, eta hiztunaren asmoa eta hartzailearen ulermena, denak hartu behar dira kontuan. Hots, soziolinguistikaren hiru olatuak bata bestearen ondoren etorri direnez gero, hirurak aintzat hartu behar dira ikerketa soziolinguistikoa egitean.

2.2. Soziolinguistika bariasionista Euskal Herrian

Gurean, aldakortasunaz egiten ziren lan ia guztiak, dialektologia tradizionalaren ikuspuntutik eginak izan dira. Beraz, herriz herri zegoen desberdintasuna ikertzeaz, dialektoen mugak finkatzeaz edota dialektoen sailkapen berriak egiteaz arduratu dira (Ensunza, 2015: 7).

XXI. mendearen hasiera hauxe mugarria izan da euskal soziolinguistika bariasionistarendako. Hortik aurrera, euskal lan bariasionistak plazaratzen hasi zen hainbat ikerlari. Lehenak Haddican-ek (2003, 2005, 2007) Oiartzunen eta Garmendiak (2008) Zaldibian eginak izan zirela erran genezake. Ezin da ahaztu Aurrekoetxeak (2003, 2004b, 2006, 2008) eta Caminok (2005) kanpoko teoriak gurera ekartzen egin zuten lana, euskal ikertzaileak bariasionismoaren inguruan lan egitera bultzatu baitzituzten.

Halaber, berebiziko garrantzia izan zuen EUDIA ikerketa-taldea sortzeak. Ofizialki 2008an sortu bazen ere, 2001etik dihardu lanean. Bere helburuak euskararen aldaketa edo bariazioa ikertzea, bariazio hori sortzen duten faktoreak, sozialak zein bestelakoak, zein diren zehaztea eta bariazioa ikertzeko tresnak sortzea dira. Beraz, bariazio geolinguistiko edo diatopikoa, soziolinguistikoa edo diastratikoa eta bariazio diafasikoa ikertzen ditu (EUDIA, 2021). Aipagarriak dira, talde honek landu dituen EAS (Euskararen Atlas Sozio-geolinguistikoa) (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2006), EDAK (Euskara Dialektalaren Ahozko Korpusa) (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2011) eta GIU13/23 corpusak.

Ugari dira EUDIA taldeko ikertzaileek plazaratu dituzten ikerlanak. Hor ditugu, Perezek (2006) Beran, Ormaetxeak (2008) Otxandion, Ezenarrok (2008) Etxebarri eta Bolibarren egindako lanak, Santaziliak (2009) Luzaiden egina (gure lanerako bereziki interesgarria dena), Unamunok (2010) Gizaburuagan, Ariztimuñok (2010) Tolosan eta Ataunen, Ormaetxeak (2011) Otxandio eta Aramaion, Gaminde eta Romerok (2011) Bermeon eta Ensunzak (2012, 2014) Gernika-Lumon aldakortasun soziala aintzat hartuz

egin lanak. Hor dugu Unamuno et al.-ek (2012) EAS eta Bourciez corpusak konparatuz, aldakortasun sintaktikoaz egin lana ere.

Lan mardulagoei erreparatuz, honako lanak aipa genitzake: Gaminde et al.-ek (2012) adina eta generoa kontuan harturik egin Bermeoko euskararen deskribapena, Ensunzak (2015) Busturialdeko aldakortasun geografiko eta sozialaz egin doktorego-tesia, Lujanbiok (2012, 2014, 2016) Goizuetan eta Goizuetan eta Araitz-Betelun (2016) eginiko ikerketak, Etchebest-ek (2017) Zuberoako dardarkarien bariazio soziofonetikoaz egin doktorego-tesia, Gaminde et al.-ek (2017) adina eta generoa kontuan harturik egin Larrabetzuko euskararen deskribapena, eta berrikitan, Eguskizak (2019) Arratiako hizkuntza-aldakortasun geo-soziolinguistikoaz egin duen doktorego tesia.

Nahitaez aipatu beharra daukagu *Norantz* proiektua ere (Oihartzabal, 2009). Corpus honetan, euskararen ezaugarri fonetiko-fonologiko, morfologiko, morfonologiko eta sintaktikoen inguruko ezaugarri eskerga biltzen da. Inkesta bidez bildu ziren erantzunak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, adina, bizi-ingurunea (baserria edo hiria), sortzezko hizkuntza, eta eskolako hizkuntza aldagai askeak kontuan hartuta. Asmoak dira ikerketak ahalbidetuko dituen datu-korpus zabala biltzea eta iparraldeko hiztunen gramatika oinarrien norabidea antzematea, besteak beste (Oihartzabal, 2009).

2.3. Hizkuntza-aldaketa

Komeni da hizkuntza-aldakortasuna eta hizkuntza-aldaketa kontzeptuak bereiztea. Moreno Fernándezen (2009 [1998]: 21) arabera, hizkuntza-aldakortasunaren aitzinean gaude hitz bat edo bestea erabiltzeak ez dakarrenean inolako desberdintasun semantikorik. Hizkuntza-aldaketak, berriz, hitzaren eta erranahiaren arteko eten bat du ondorio. Beraz, aldaketa jaso duten pertsonak ez dute erranahia aldaketa jaso ez dutenen modu berean adieraziko (Labov, 1999 [1994]: 9). Aldakortasuna ez da aldaketa, hautu eta balorazio soziala baizik (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 130).

Aldaketa eta aldakortasunaren arteko harremana ez da bi norabideetan gertatzen, bakarrean baizik: aldaketa guztiek aldakortasuna dute ondorio, baina aldakortasunak ez du zertan aldaketa ekarri berarekin (Hernández-Campoy, 1999: 48). Perspektiba labovarraren ikuspuntutik, aldakortasunak aldaketara buruzko lehen urratsa erran nahi luke. Hizkuntzen egonkortasuna aldakortasunaren barne orekan datza. Beraz, aldaketa

oreka hori puntu jakin batean hausten denean baino ez da gertatzen. Desoreka nahitaezkoa da hizkuntza-aldaketa gerta dadin (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 135).

Hizkuntza-aldaketa motei dagokienez, aldaketa diatopikoa, diastratikoa eta diafasikoa bereiz genitzake.⁴ Aldaketa diatopikoa dialektologiak ikertzen du, eta espazioko gune batetik bestera hizkuntza nola eta zergatik aldatzen den azaldu nahi du. Aldaketa diastratikoa berriz, soziolinguistikak ikertzen du eta hizkuntza testuinguru sozialean nola erabiltzen den jakin nahi du, talde sozial batetik bestera dagoen desberdintasuna deskribatuz eta azalduz. Aldaketa diafasikoa ere soziolinguistikak aztertzen du eta estiloen arabera dagoen desberdintasuna du ikergai.

2.3.1. Aldaketa diatopikoa eta diastratikoa

Erran bezala, dialektologia da aldaketa diatopikoa ikertzeaz arduratzen dena. XIX. mendean zehar garatu zen, batez ere, Wenker-ek Alemanian eta Gilliéron-ek Frantzian eginiko atlasei esker. Britainia Handian, berriz, Wright-en izena aipatu behar litzateke. Erran liteke, hein batean, bederen, dialektologia tradizionalak zituen hutsune teoriko eta metodologikoetarik eratorri zela aldaketa diastratikoaren ikerketa. Dialekto kontzeptuaren arazoa eta leku jakin bateko dialekto puruaren bila aritzea izan dira hutsune horietarik zenbait.

Hsieh-en (1973: 70) arabera, dialektoaren kontzeptu tradizionala honakoa litzateke: hizkuntza baten erak edo aldaerak, elkarrenganako ulergarri direnak eta isoglosa multzo batzuek mugatzen dituztenak. Ez da adostasunik lortu, ordea, dialektoak definitzeko kontuan hartu beharreko isoglosen izaerari eta kopuruari buruz.

Chambers eta Trudgillen (1998 [1980]: 112) arabera, isoglosa batzuk garrantzi handiagokoak dira beste batzuk baino. Besteak beste, isoglosa batzuk kulturalki erranahi handiagokoak dira, eta batzuk egonkorak diren bitartean, beste batzuk iragankorrak dira. Caminoren ustez (2004b: 81), dialekto bat hobekien ordezkatzeko duten ezaugarriak eskusiboak, bateratzaileak, sistematikoak eta garaikideak diren berrikuntzak dira. Horrelako ezaugarriak atzematea errazagoa da muturreko hizkeretan, ez ordea, erdialdekoetan. Horrez gainera, ez dakigu era horretako zenbat ezaugarri behar diren dialektoak sailkatzeko.

⁴ Aurreko aldaketa motez gain, aldaketa diakronikoa ere badugu, hizkuntzalaritza historikoak aztertzen duena. Lanaren mugak direla eta, ez dugu hemen aztertuko. Garaziko hizkuntza-aldakortasun diakronikoaz gehiago sakontzeko, ikus Camino (2008).

Horrez gainera, isoglosek ez dituzte beti muga berdin-berdinak irudikatzen, eta usu, sortzen duten muga ere, eztabaidagarria izan liteke. Isoglosen hainbat eredu ditugu (Chambers & Trudgill, 1998 [1980]: 91-93):

1. Aliritzirako ereduak: isoglosek alde batetik eta bestetik zeharkatzen dute mapa, ibilbidean, batak bestearekin loturarik izan gabe. Dialektoen eremu argiak bereizi beharrean, eremu bateko nahiz besteko elementu dialektalen konbinazio andana bat sortzen dute, muga ezartzea ia ezinezko bilakatuz.
2. Isoglosen multzokatze ereduak: ezaugarri anitzen isoglosek bide bera jarraitzen dute, nahiz eta desberdintasun txikiren bat izan litekeen. Hori dela eta, isoglosa multzo horren alde batean edo bestean dauden barietateak desberdinak dira elkarrengandik.
3. Trantsizio guneak: gerta liteke eremu batean X aldaera erabiltzea, eta bestean, berriz, Y. Hala ere, eremu batetik besterako aldaketa kasu batzuetan, ez da bat-batekoa, graduala baizik; hots, gerta liteke bi eremu horien bitartean trantsizio-gune bat egotea, eta han, bi aldaerak, X eta Y erabiltzea. Era berean, trantsiziozko gune horretan, gerta liteke X eta Y-ren bitarteko aldaera bat erabiltzea ere, arlo fonikoan bereziki.

Muga dialektalak dakarren arazoak jabetuta, *continuum* dialektalaz hitz egin izan da usu azkenaldian; hots, eremu geografiko bateko bi muturretako mintzoa desberdina da, eta ulertzeko zaila, akaso, baina mutur batetik bestera desberdintasun graduala dago, eta ez bat-batekoa. Ikertzailea batetik bestera doanean, mintzoa poliki-poliki aldatzen doala ikusiko du, konturatu gabe, hasieratik erabat desberdina den beste mintzo batera helduz. Horixe bera gertatzen da Lapurdiko Hendaiatik has eta Zuberoako lehen herrira, Domintxinera bitartean. Oso desberdinak dira bateko eta besteko mintzoak, baina bidean, herri bakoitzeko norbaitekin hitz egiten badugu, Amikuzen has, eta Arberoa, Hazparne, Kanbo, Uztaritze, Senpere eta Donibane Lohizunen gaindi igarota, aldaketa hori, erabat graduala dela ikusiko dugu.

Arazoa ez da dialektoena bakarrik. Arazo berak ditugu hizkuntza definitzean, edo hizkuntzaren eta dialektoen arteko desberdintasuna zehaztean. Chambers eta Trudgillen (1998 [1980]: 4) arabera, paradoxikoki, hizkuntza ez da batere nozio linguistikoa. Konparazio batera, norvegiera, suediera, daniera eta alemana hizkuntza desberdinak

direla erratean, arrazoi politiko, geografiko, historiko, soziologiko eta kulturalak hartzen ditugu kontuan, arrazoi linguistikoekin batera, noski. Berdin gertatzen da Katalanaren eta Valentzieraren artean ere. Holandesaren eta alemanaren artean ere, ikuspuntu linguistikotik begiratuta, badirudi *continuum*-a dagoela, nahiz eta estatu politiko biek garatu dituzten estandarrek desberdintasun nabariak izan.

Dialekto eta hizkuntza bezalako kontzeptu lausoez sortzen dituzten arazoak direla kausa, Chambers eta Trudgill-ek (1998 [1980]: 5) aldaera kontzeptua proposatu zuten. Aldaera mintzo mota jakin bat entitate bakartzat hartzen duen termino neutroa da. Aldaera terminoak, dialekto edo hizkuntza bezalakoek duten lausotasuna bere gain hartzen eta onartzen du, baina ez du arazoa konpontzen eta ez da zehatza. Zientziak kategoriak behar ditu, eta Garaziko euskara, gipuzkera, errusiera edo indoeuropea aldaera direla erratea ez da praktikoa zientziarendako.

Paris eta Meyer-en arabera, era anitzetara konbinatzen diren hizkuntza-ezaugarrien multzoak baino ez dira existitzen. Ezaguna da ikertzaile hauen eta Gilliéron eta Antal bezalakoek joera tipofoboa, mintzoen arteko multzokatzeak eta sailkatzeak baztertzeko ohitura baitzuten (Camino, 2009c: 211). García Arias-en (1997: 50) aburuz, “sailkatzerakoan inoiz ez da aterabide perfekturik lortuko: hizkuntza *continuum* baten barneko eremuek ez dute mugarik; hizkuntza-bilakabide jakinek baino ez dute bakoitzak bere muga”.

Dialektoa edo hizkuntza bezalako kontzeptuak definitu ezinagatik, kontzeptu hauek ukatu eta ez definitzeak ere, ez dakar deus onik zientziarendako; izan ere, jendeak kategoria zehatzak erabiltzen ditu pentsatzeko eta ez *continuum* erako terminoak (Chambers & Trudgill, 1998 [1980]: 7). Honela dio Gimeno (1987):

Es cierto que los *continua* lectales originan una mayor inconsistencia y complejidad que la representación de unas variedades lingüísticas como entidades discretas, pero la afirmación categórica de la existencia de límites (geo)lectales, como la negación de variedades ante la ausencia de discontinuidades absolutas, supone actualmente una tremenda simplificación desnaturalizadora (695).

Horren guztiaren aurrean, gaurkotasun handikoa dugu oraindik Coseriuren baieztapen hau: “dialektoak ez dira “aitzinetik” existitzen, hizkuntza-ezaugarriak gertatzen diren eremuak aztertu “ondorengo” zerbait dira, abstrakzio bat, hizkuntzaren barreneko aldaera aniztasunaren gaineratik ezartzen diren isoglosa sistemak” (Camino,

1997: 24). Eta abstrakzio hori egiteko garrantzitsuak izanen dira mintzo horien historia, banaketa soziolinguistikoa, eta hiztunen jarrerak ezagutzea eta ikertzea (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 94). Baita prestigioa ere (Alvar, 1990; 1996: 15-21).

Gure iritziz, ez dugu pentsatu behar dialektoen definizio eta sailkapen objektiboa sekula lortuko dugunik. Horrek ez luke erran nahi, ordea, dialektoaren kontzeptua baztertu beharko genukeenik. Errealitatea ulertzeko, errepresentatzeko eta ikertzeko, errealitate hori kategoriatan banatu beharra daukagu, halabeharrez. Zeregin hori, ordea, gehiago ala gutxiago, subjektiboa izanen dela onartu beharko genuke. Erran nahi baita, hizkeren, azpidialektoen, dialektoen edota hizkuntzen sailkapena desberdina izanen da sailkapen hori egin duen ikertzailearen arabera. Bat egiten dugu Coseriurekin, beraz, dialektoa ikertzaileak egindako abstrakzioa dela erratean. Hizkuntzaren historia interesatzen zaion batek arkaismoak eta berrikuntzak lehenetsiko ditu. Soziolinguistikan ari den batek, aldiz, hizkuntza-ezaugarriak komunitatean indartsu egotea eta sistematikoak izatea bilatuko du sailkapena egitean. Dialekto batek gutxienez izan beharreko ezaugarri kopuruaren inguruan ere ez dugu uste adostasun objektiborik lor daitekeenik. Beraz, ikerlari bakoitzak, bere irizpideen arabera, ezaugarri gehiago edo gutxiago hartuko ditu kontuan.

Zernahi gisaz, garrantzitsua iruditzen zaigu sailkapenak egitean, oharmenezko dialektologia uneoro presente izatea. Finean, dialektoa hiztun-komunitatearen baitan dago, komunitateak du biziartzen, eta beraz, nahitaezkoa da bertako kideen uste eta iritzia aztertzea. Komunitatearendako zein ezaugarri diren garrantzitsu jakin beharra dago, eta batez ere, zergatik diren garrantzitsu.

Dialekto kontzeptuaren arazoaz aritu gara azken lerroetan. Jarraian, berriz, dialektologia tradizionalak xede izan duen dialekto puruak bilatzeari eta aztertzeari buruz arituko gara, baita afera honek dialektologia birplanteatzean eta dimentsio soziala txertatzean izan duen eraginari buruz ere.

Hernández-Campoy eta Almeidaren (2005: 15) ustez, dialektologia tradizionalan, eremuak modu indibidualean aztertu izan dira, eremu hauen ezaugarri bereizgarriak bilatuz, eta hizkuntzaz kanpoko eraginak baztertuz. Neogramatikoen hipotesiak onartuz, dialektoak entitate diskretutzat hartzen ziren, homogeenak balira bezala, muga dialektalek ongi banaturik. Gizartearen dinamismoa ez zuten kontuan hartzen, ezta beste eremu batzuekiko harremanak ere. Espazioaren funtzioa aldakortasun fonetiko-

fonologikoaren, morfo-sintaktikoaren edo lexikoaren distribuzioa mapetan errepresentatzera mugatzen zen (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 29).

Hiztunen aukeraketa arbitrarioa zen, eta ez zen gizartearen adierazgarria. Chambers eta Trudgillen (1998 [1980]: 33) NORMS siglak ongi azaltzen dute lekuko haien izaera: Nonmobile Older Rural Male Speakers. Dialekto puru eta egiazkoak aztertu nahi ziren, eta beraz, adineko gizonezkoak elkarrizketatu nahi ziren, landa inguruneetako leku isolatuenetakoak, ahalik eta adinekoenak, eskolan gutxi ibilirikoak eta, nola ez, gutxi bidaiaturikoak. Hori dela eta, gazteak askotan harritu egiten ziren, euren eremuko hizkera arrotza egiten baitzitzairen.

Azterketa hauek ez zuten aztertzen dialektoaren izaera sozialik; hots, adinaren, klase sozialaren, edota generoaren arabera dagoen aldakortasunik.

Industrializazioaren eta urbanizazioaren etorrerarekin, besteak beste, landa inguruneetako deskripzioak hankamotz gelditu ziren, ez baitziren gizarte osoaren adierazgarri. Hirietan atzeman zitekeen aldakortasun sozialari erreparatuta, dialektologia soziala izenekoa lantzen hasi zen autore anitz; errate batera, Rona, Alvar edo Blanch. Rona-ren (1972, 1974) ustez, ardatz diastratikoa eta diafasikoa (biak batera hartzen ditu), diakronikoa eta diatopikoa dituen ardatz tridimentsionala da aztertu beharrekoa. Faktore sozialak aintzat hartu zituen lehen atlasa Estatu Batuetako eta Kanadako Atlas Linguistikoa izan zen (Chambers & Trudgill, 1998 [1980]: 45).

Denak ez daude, baina, proposamen honekin ados. Moreno Fernándezen (1990: 205-206) ustez, aldakortasun oro aztertzen duen dialektologiaz baino, hizkuntza mintzatuaren hizkuntzalaritzaz hitz egin behar genuke, hizkuntza-kompetentziaren hizkuntzalaritzatik bereizirik dagoenaz, hain zuzen ere. Hizkuntzalaritza horrek bere barruan lituzke elkarrekin loturik dauden lau adabegi: hizkuntzalaritza geografikoa, hizkuntzalaritza historikoa, pragmatika eta soziolinguistika.

Dialektologia tradizionalak aztertzen zuen geografia eta hizkuntzaren arteko harremanari, osagai soziala gehitzeko beharretik sortu zen geolinguistika. Geolinguistika hizkuntzaren ezaugarri espazialez diharduen diziplina arteko ikerlerroa da, eta hiru eremu ditu aztergai: geografia linguistikoa (dialektologia tradizionala), dialektologia urbanoa (soziolinguistika laboarra) eta giza geografia (geografia) (Chambers & Trudgill, 1998 [1980], in Hernández-Campoy, 1999: 121).

Geolinguistika, dialektologia tradizionala ez bezala, zientzia soziala da eta Labovek proposaturiko hatsarre teoriko eta metodologikoak hartzen ditu kontuan. Dimentsio espazial dinamikoa eskaintzen du, izan ere, forma linguistikoen arteko interakzio espazialak berebiziko garrantzia du (Hernández-Campoy, 1999: 147). Britain-en ustez (1991: 11, in Hernández-Campoy, 1999: 148), ezinbestekoa da dimentsio espaziala eta soziala, biak kontuan hartzea, hots, ezinezkoa da geolinguistika eduki sozial gabe ulertzea, baina teorikoki okerra litzateke hizkuntzaren alderdi soziala aztertzea espazioa alde batera utzita. Geolinguistikak helburu dialektologiko eta soziolinguistikoak ditu, beraz. Hori dela eta, Chambers-ek (1993) “dialektologia soziolinguistikoa” deitu izan du, eta Trudgillek (1983b) soziolinguistikoki gidaturiko dialektologia.

Bat egiten dugu L. Milroy-rekin (1980: 2), honek dialektologia tradizionala eta soziolinguistika elkarren aurkako moduan ikusi behar ez ditugula dioenean. Bere ustez, lan soziolinguistiko gehienek dialektologo tradizionalak ondutako neurri handiko ikerketetarik atera dute informazioa, eta Labovek hizkuntza-aldaketaren hatsarre ugari azaltzen egindako lana ere, dialektologia tradizionalaren metodoen eraldaketatzat har daiteke. Horrez gain, dialektologia tradizionalak gaur egun galtzear edo galdurik dauden dialektoen berri eman digu, eta lan horiek gabe ezinezkoa zitzaigukeen hauen berri izatea.

2.3.2. Aldaketa diafasikoa

Orain arte, aldakortasun diatopiko eta diastratikoari eskaini diegu gure arreta, eta orain, berriz, aldakortasun diafasikoaz aritzea dagokigu. Norbanakoaren hizkuntza-aldakortasuna aztertzen du honek, estilo aldakortasuna, hain zuzen ere. Moore-k (2011: 222) Half Moon Bay Style Collective-n estiloaren definizioa ematen digu: “a socially meaningful clustering of features within and across linguistic levels and modalities”.

Urte luzez, estiloa eta erregistroa hizkuntza testuinguru sozio-situazional jakinetan erabiltzeko modutzat ulertu izan badira ere, bada bien arteko desberdintasunik. Erregistroak, Agha-ren (2007: 4) arabera, akzio-modelo kulturalak dira, ekintza sozial jakinak errepresentatzeko era estereotipatuak. Bizitza sozialean, era erreflexiboan definitzen eta negoziatzen dira. Erregistroak estiloak osatzen dituzten elementuak dira (*ibid.*: 186).

Aldakortasun sozialaren eta estilistikoaren arteko harremanari erreparatuz, erranenezake soziala dela lehenengo, eta honengandik eratortzen dela estilistikoa. Bell-en (1984) lanean oinarrituta, Labovek (2001b: 86) Bellen printzipioa deitu zuena definitu zuen: estratifikazio sozialaren maila estratifikazio estilistikoa baino handiagoa da, beraz, hiztunek hizkuntzaren erabileran dauden desberdintasun sozialen behaketatik eratortzen dituzte beraien eredu estilistikoak. Hori onartuta, aldakortasun estilistikoa aldakortasun sozialaren zein momentutan gertatzen hasten den litzateke hurrengo galdera, edo beste era batera erranik, zenbaterainokoa izan behar duen aldakortasun sozialak aldakortasun estilistikoa gertatzen has dadin. Laboven ustez, estilo aldaketa ez da ageri hizkuntza-aldaketaren hasierako etapetan, baina azkarrago bihurtzen da aldaketa aitzina joan arau eta oso garrantzitsu bilakatzen da hizkuntza-aldaketa amaierara heldu eta prestigioa edo estigma soziala lortzen duenean.

Estiloari ez zaio behar adinako tokirik eskaini soziolinguistikaren historian, baina, gaur egun, gero eta leku garrantzitsuagoa du. Eckert eta Rickford-en ustez (2001: 1), aldakortasun soziolinguistikokoaren baitan ezinbesteko lekua du, osagai nagusia baita aldakortasun linguistiko eta sozialarekin batera.

Estilo-aldaketa ulertzeko eta estiloa definitzeko era bat baino gehiago izan da soziolinguistikaren historian. Bellen (2014: 294-297) arabera, estilo aldaketaren mikroikuspegi tradizionala minimalista da eta estiloa sinpleki bereganatutako hizkuntza-aldagai multzo hertsizat ulertzen du. Aldagai hauen aldaerak ongi definitutako hizkuntza-inguruneen arabera aldatzen dira, eta arrazoi estralinguistikoak direla medio, informalitate formalitatean doan *continuum*-ean irregularki banatuta daude.

Estilo aldaketaren makroikuspegia, berriz, linguistikoki eta sozialki maximalista da, aukera zabalekoa eta eklektikoa. Estiloa sorta linguistiko zabal batetik egiten den hautu proaktibotzat ulertzen da. Itxura fisikoa, janzkera, musika edo postura bezala, hizkuntza ere iturri semiotiko moduan ulertzen da. Estiloa erranahia eraikitze eta talde eta norbanako jakin batzuekiko lotura eta solidaritatea eta beste batzuekiko desberdintasuna azaltzeko baitezpadako osagaia da. Hizkuntza hautu jakin batek, erranahi sinbolikoa dakar berarekin (Bell, 2014: 295).

Labovek (1966), estilo aldaketaren mikroikuspegiaren barnean, egoeran zentratutako ikuspuntuaren bidez aztertu zuen estiloa. Gaur egun, ordea, audientziaren diseinua eta hiztunaren diseinua dira gehien erabiltzen diren teoriak.

Labovek *continuum* estilistikoa bost zatitan banatu zuen, informalenetik formalenera, hurrenez hurren: estilo kasuala, estilo formala, pasarteak irakurtzeari dagokion estiloa, hitz zerrendak irakurtzeari dagokion estiloa eta pare minimoen estiloa (Hernández-Campoy, 2016: 77).

Laboven (1966) ereduak hiztun egozentrikoa hartzen zuen kontuan, faktore ez linguistikoek (egoerak) eskuarki baldintzatuta. Haatik, Bellek (1984) ondutako audientziaren diseinuak ekintza mintzatua fenomeno sozialtzat hartzen du. Hiztunak bertan aktiboki negoziatzen eta parte hartzen du, eta norbanakoaren eta taldearen identitateak aztertzen ditu (Hernández-Campoy, 2016: 115). Teoria honek hiztunaren jarrera (hiztunak audientzia jakin baten beharren arabera mintzoa proaktiboki diseinatzen du) eta jarrera horren arrazoa (hiztunaren audientzia) hartzen ditu kontuan (Meyerhoff, 2006: 42).

Hiztunaren diseinuak (Coupland, 2001, 2007a, 2007b; Schilling-Estes, 2002), berriz, aldakortasun estilistikoa hiztunek euren identitate sozial pertsonal eta interpersonala sortzeko eta proiektatzeko duten baliabidezat ulertzen du. Identitate hori ez da estatikoa, baizik eta egitura sozialak modelatu eta birmodelatzeko modua da, baita horietan hiztunek euren burua kokatzea ere (Schilling-Estes, 2002: 389). Cohen-ek (2000: 582) dioen bezala, “bat musulmana izan liteke meskitan, asiarra kalean, asiari britainiarra kanpaina elektoraletan eta britainiarra kanpora bidaiatzera doanean, dena egun berean”.

Artzelus (2020a) lanean, Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoa aztertu genuen. Horretarako, Irulegiko Irratian lan egiten duen irrati-esatari bat izan zen gure lekukoa. Estilo informala lortzeko, berarekin aurrez aurre, lagun arteko elkarrizketa izan genuen. Ikerlariak esatariarekin adiskidetasunezko harremana izateak estilo informala lortzea erraztu zuen. Estilo formala lortzeko, berriz, bere irratiko mintzoa izan genuen aztergai. 2.10. §-ean lan horretan lortu genituen emaitzak aipatuko ditugu, aldakortasun diafasikoaren berri izanez, aldakortasun diastratikoa hobeki ulertuko baitugu.

2.3.3. Hizkuntza-aldaketaren sorrera eta hedapena

Hizkuntza guztiak aldatzen dira denboran zehar. Ez dakigu zehazki zergatik gertatzen den hau, baina giza hizkuntza guztietan gertatzen den ezaugarria da (Tagliamonte, 2012: 8). Hizkuntza-aldaketa hizkuntzalariek atzeman duten fenomeno enigmatiko eta harrigarriena da (Trudgill, 1990: 7).

Zergatik gertatzen dira aldaketa batzuk hizkera batean bai eta bestean ez, aldaketa hori eragin dezaketen baldintzak bi hizkeretan egon badira? Zergatik gertatu da aldaketa hizkera batean, mende jakin batean, eta ez lehenago edo geroago, aldaketa eragin duen faktorea hizkera horretan mende luzetan zehar existitu baldin bada? (Camino, 1997: 6). Hizkuntza-aldaketaren teoriaren funtsari buruz diharduen gai hau “actuation problem” deitu zuten Weinreich, Labov eta Herzogek (1975 [1968]: 102).

Hizkuntza-aldaketaren sorrerari eta hedapenari eskainitako atal honetan, lehenik eta behin, aldaketaren alde geolinguistikoa azaltzen hasiko gara, gero, Laboven ikuspuntuarekin jarraituz, eta beraz, osagai soziala gehituz. L. Milroy-k sare sozialekin ekarritako ekarpena ere landuko dugu, eta honen ondoren proposatua izan den praktika-komunitatearen kontzeptuari ere erreparatuko diogu. Rácz-ek berriki aldaketa azaltzeko ondu duen deigarritasunaren kontzeptua ere azalduko dugu. Prestigioari ere arreta eskainiko diogu, eta azkenik, aldaketaren kanpo faktoreez arituko gara.

2.3.3.1. Hizkuntza-aldaketa geolinguistikaren ikuspuntutik

Faktore ugari eragiten dute hizkuntza-aldaketa gerta dadin, baina horietarik, ezagunena eta, hain segur ere, gehien ikertua izan dena, geografia da, hizkera desberdinak dituzten eremuen arteko kontaktua, hain zuzen ere.

Britain-ek (2010: 208-209) defenditzen duenez, hizkuntza-egokitzea (*accommodation*) giltza da gure eguneroko kontaktuaren emaitzak ulertzeko. Denboran zehar, egunerokotasunak eta kontaktuaren erregularitateak egokitzea jabekuntza bihur dezakete. Hizkuntza-egokitzearen teorizatzaile handienetarik dugu Giles (1980, 2009). Berrikuntzen hedapena dialektoen arteko kontaktutik dator Britainen ustez, eta kontaktuaren bidez sortzen dira, beraz, dialektoen supralokalizazioa, berdintzea edo *levelling*-a, eta hizkuntza-hibridazio mota ugari; hala nola, birbanaketa edo *interdialect*-en sorrera. Hedapena errazago gertatuko da jendeak kontaktua izan osteko komunitatean sare sozial estuak garatu dituenean (L. Milroy, 1980).

Hernández-Campoy-k (1999: 136) adopzioa eta hedapena bereizten ditu. Adopzioa berrikuntza akziorako estrategia optimotzat hartzea da, eta bere ezaugarri azpimarragarriena izaera indibiduala da. Berrikuntza beti baldintzatzen du adopta dezaketenek berrikuntza horren inguruan duten informazioak eta jarrerak. Bestalde, hedapena berrikuntzak beste pertsona batzuegana zabaltzen dituen prozesua da. Hedapena kontzeptu espazial eta tenporala da, adopzioa behin eta berriz gertatzen baita

denbora tarte batean eta espazioan zehar. Hedapena soziala da eta hautatzailea. Desberdina izanen da hedapenaz arduratuko direnen adinaren, klasearen edota sexuaren arabera. Bost faktorek eragiten dute berrikuntzen transmisioan: i) fenomenoak berak, ii) komunikabideen sareak, iii) distantziak, iv) denborak, eta v) egitura sozialak (Rogers, 1962 in Hernández-Campoy, 1999: 136).

Goodal-ek (1987: 237) berrikuntzaren hedapenaren barruan, honako faseak bereizten ditu: 1) hasierako fasea. Bertan, kontraste handia ageri da hedatzailearen inguruko espazioaren eta urrunekoaren artean; 2) hedatze fasea, non eta berrikuntzaren erabiltzaileen igoera azkarra gertatzen baita; 3) kondentsazio fasea. Kasu honetan, adopzio erritmoa berdintsua da eremu guztietan zentro berritzailearekiko; 4) saturazio fasea. Bertan, hedatze prozesua emekiago joaten da, gelditu arte. Berrikuntzaren erabileran igotze asintotiko motela gertatzen da, berrikuntza erabat onartu arte. Prozesuak, oro har, S formako eredua jarraitzen du; erran nahi baita, erreposkiago gertatzen da hasieran eta amaieran eta zaluago erdigunean.

Berrikuntzaren hedaduran olatuak eta hesiak aurki litezke, berrikuntza azkarrago edo polikiago hedatzea eragiten dutenak. Fisikoak izan daitezke, baina baita sozial eta psikologikoak ere, jarrerari dagozkionak (Hernández-Campoy, 1999: 138).

Hizkuntza-aldaketa geografikoaren dinamika azaltzen duen teoria klasiko eta ezagunenetakoa uhinen teoria da (Schmidt, 1872). Teoria honen arabera, berrikuntzak harri bat uretara bota, eta errekan uhinak zabaltzen joaten diren eran hedatzen da.

Denboraren poderioz, teoria hori lantzen eta garatzen joan da, eta gaur egun, hedatze geografikoa eta hierarkikoa edo ur jauzi erakoa bereiz genitzake.

Lehenbizikoan, hizkuntza-ezaugarria biztanleria eta ekonomia aldetik, nagusi den hiri batetik abiatzen da (Trudgill, 1983b: 52-87; Britain, 2002) eta uhin eran hedatzen da geografian zehar, era berdintsuan. Maila indibidualean, hiztunek parez pareko kontaktua dute ezaugarria jada eskuratu duten beste hiztunekin, eta beraiek ere ezaugarri hori eskuratzeko motibazioa sentitzen dute.

Chambers eta Trudgillen (1998 [1980]: 170) iritziz, era honetara zabaldu den hizkuntza-ezaugarria dugu /r/ ubularra Europan, nahiz eta tartean hizkuntza-mugak izan. Frantziako Parisen hasi omen zen berrikuntza hau, eta ez zen hedatu Frantzian zehar bakarrik, baita Alemanian, Danimarkan, Suedian edota Norbegan zehar ere.

Hedatze geografikoaren adibide garbia dugu Balkanetako Sprachbund-a ere. Kasu honetan, berrikuntzaren hedapena hizkuntza desberdinak mintzatzen dituzten eremu handian gertatu da, mugez gaindi, segurenik ere, hiztun elebidunen bidez (Camino, 2009c: 141-144).

Berrikuntza geografian zehar hedatzeko bigarren moduari, hierarkia erakoari dagokionez, fenomenoaren transmisioa zentroen arteko sistema ordenatu baten bidez gertatzen da. Beraz, lehenik eta behin, berrikuntza leku zentral batean hasten da, eta horizontalki maila berean dauden beste leku batzuetara hedatzen da. Ondoren, bertikalki, hierarkian apalago dauden beste puntu batzuetara zabaltzen da (Hernández-Campoy, 1999: 268). Lehenik, beraz, hiri handiak izanen dira aldaketa jasanen dutenak, eta azkenik, herri txikiak eta landa-inguruneak. Hori horrela izanik, hiriak berritzaile ditugu eta landa-inguruneak gordetzaille. Hori hiriek landa inguruneekiko duten nagusitasun ekonomiko, demografiko eta kulturalari dagokio, eta baita komunikazio sareen egiturari ere (Trudgill, 1983a [1974]: 170-172). Biztanleria apalena duten eremuak izanen dira berrikuntzari traba gehien jarriko diotenak, izan ere eremu populatuenetan jende multzo handiagoa bizi da eta erraztasun handiagoarekin komunikatzen da.

Nukleo urbanoen arteko hierarkia biztanleriari dagokio, baina baita hiri bakoitzak lurraldeari eskaintzen dizkion hirugarren sektoreko jardueren garrantziari ere. Hierarkia definitzeko garrantzitsuak izanen dira, errate batera, komertzioa, zerbitzuak, administrazioa, bankuak, hezkuntza, ikerkuntza, talde medikoa, garraioa, etab. Zerbitzu horien arabera, gehiago edo gutxiago joko dute inguruetako hiri edo herrietako biztanleek bertara (Hernández-Campoy, 1999: 278).

Hiri batek besteengan duen eragina neurtzeko formulak ditugu, grabitate ereduak, hain zuzen ere (Chambers & Trudgill, 1998 [1980], Hernández-Campoy, 1999): biztanleria potentziala, interakzio potentziala eta hizkuntza-eraginari dagokion formula. Hurbilpen interesgarria eskaintzen digute formulok, baina euskara hizkuntza gutxitua izateak eta Euskal Herrian ditugun muga administratiboek gurean aplikatzeko zailtasunak sortzen dituzte.

2.3.3.2. Hizkuntza-aldaketa Laboven ikuspuntutik

Ekarpen teoriko eta metodologiko anitz egin zizkion bariasionismoaren aitak hizkuntza-aldaketaren azterketari. Alde batetik, aldaketaren faseak deskribatzerako

orduan ikuspuntu berritzailea eskaini zuen. Horrez gainera, aldaketa sortzen den geruza sozialaren arabera, behetik gorako eta goitik beherako aldaketak zedarritu zituen. Hizkuntza-aldaerek hiztun komunitatearen oharmenean duten presentziaren arabera, indikatzaileak, markatzaileak eta estereotipoak ere bereizi zituen.

Labovek aldaketaren hiru fase hauek bereizten ditu: “transmisioa”, “hedapena” eta “jarraipena” (Caravedo, 2003: 57). Honela deskribatzen du aldaketaren prozesua: 1) amak edo haurtzainak eman herentzia da aldaketaren lehen urratsa, eta beraz, generoaren arabera dagoen desberdintasunaz da ohartzen lehenik haurra; 2) haurrek informal/formal polaritateen artean dauden desberdintasunak berrinterpretatzen dituzte; 3) egoera informalarik dagokion aldaera jakin bat maila apalagoko talde sozial batekin lotuko dute; 4) gazteek egoera informala araukiko inkonformismoarekin lotuko dute behetik hasitako aldaketa indartuz (atal honetan bertan jardungo dugu aldaketa mota honi buruz); 5) heldu zenbaitek forma inkonformista hauek onartuko dituzte (*ibid.*: 60).

Goodalek (1987: 237) geolinguistikaren ikuspuntutik egin planteamenduan bezala, Laboven proposamenean ere, aldaketaren transmisioak, hedapenak eta jarraipenak S itxurako forma hartzen dute. Emeki abiatzen da hastapenean, transmisioan. Azkartze handia gertatzen da erdi aldean, hedapenean. Azkenik, amaiera aldera, jarraipenean, berriro ere erritmo motela hartzen du, harik eta bukaerara heltzen den arte. Hasiera horretan, aldaketak ez du korrelatu sozial azkarrik. Hauek erdiko fasean bilakatzen dira adierazgarri. Hondar aldera, bariazio soziala berriro ere ahultzen da. Bukaerako fase honetan, desberdintasun sozialak berdindu egiten dira, eta desberdintasun gutxiago daude hierarkia sozioekonomikoan (Tagliamonte, 2012: 61).

Laboven (1972: 178-181) ustez, aldaketak behetik gorakoak edo goitik beherakoak izan daitezke. Lehen motakoen kasuan, aldaketak identitate berezia duen talde sozial jakin batean hasten eta hedatzen dira (gizarteko geruza goreneko taldeetan izan ezik). Belaunaldi berrietara transmititzen den arau, aldaketak arrakasta izaten badu, beste talde batzuetara ere hedatuko da, inkontzienteki, hizkuntza-komunitate osora heldu arte. Horrela, komunitate hori definitzen duen arau bihurtuko da.

Behetik gorako aldaketa hau anitz hedatu eta klase sozial guztietara heltzen bada, eta arau sozialak ezartzen dituztenen arreta pizten badu, behetik gorako zuzenketa izan dezake ondorio, eta aldaketaren norabidea ilun dezake. Aldaketa talde sozial apalago

batekin lotzen bada, estigmatizatua izan liteke, eta beraz, aldaera berriaren erabilera estatus sozialaren alderantziz proportzionala izanen da (Labov, 1972: 363-365).

Behetik gorako aldaketek honako ezaugarriak dituzte (Tagliamonte, 2012: 58):

- Hizkuntza-komunitatean espontaneoki garatzen dira.
- Hitzunak ez dira horretaz kontziente, batez ere hasierako faseetan.
- Linguistikoki motibatuak dira, eta sozialki motibatuak ere izan litezke.

Goitik beherakoen kasuan, ordea, aldaketaren abiatzaileak ardura, estatus gorako taldeak dira, eta horiek hedatzeko bitartekoak izan ohi dituzte, konparazio batera eskola edota hedabideak. Beste talde sozialek, prestigiozko aldaera horietara hurbiltzeko indarra eginen dute, eta horrela beraz, aldaketa hedaraziko.

Hauek dira goitik beherako aldaketen ezaugarriak (Tagliamonte, 2012: 58):

- Hizkuntza-komunitatearen kanpoaldetik inportatuak dira.
- Hitzunak hortaz kontziente dira.
- Sozialki motibatuak dira.
- Erabateko aldaketa ekar lezakete aldaketaren norabidean.

Aldaketa jasaten ari diren hizkuntza-aldaerek duten aldakortasun sozial eta estilistikoaren eta beraien inguruan eraikitzen diren jarreraren arabera, Labovek (1972: 178-180) indikatzaileak, markatzaileak eta estereotipoak bereizten ditu.

Indikatzaileak komunitate bateko talde sozialen arabera banaturiko hizkuntza-aldaerak dira. Modu inkontzientean erabiltzen dira, eta beti ber testuinguruetan. Normalean, ez daude aldaketa prozesuan eta ez dute erranahi sozial berezirik (Moreno-Fernández, 2009 [1998]: 79-80).

Markatzaileak hizkuntza-komunitatearen ezaugarri dira, eta beraz, bertako kide guztiengan atzeman litezke. Markatzaileak modu erregular eta estratifikatuan agertzen dira, bai sozialki eta baita estilistikoki ere, eta hitzunek hauenganako jarrera berdintsuak izan ohi dituzte (Moreno-Fernández, 2009 [1998]: 79-80). Chambers eta Trudgillen (1998 [1980]: 72) arabera, aldaera bat markatzailea dela salatzen duen ebidentzia argia komunitateak kontrako komentario bat egitea da.

Azkenik, estereotipoak sozialki eta kontzienteki oso aldaera markatuak dira. Talde sozial jakin batzuen ezaugarri dira, normalean apalenenak, eta estigmatizatuak izateagatik, komunitatean desagertzeko arriskua dute (Moreno-Fernández, 2009 [1998]: 79-80). Komunitateko kideak gai dira inolako zailtasunik gabe hauei buruz hitz egiteko (Chambers & Trudgill, 1998 [1980]: 75).

Indikatzailea, markatzailea eta estereotipoa kontzeptuak hizkuntza-aldaketaren prozesuaren barnean txertatuz, honako prozesua definitu ahal izanen guke: hatsarrear, hedapena inkontzienteki azpitalde batean egiten da eta hizkuntza-aldiera indikatzaile bihurtzen da, aldakortasun estilistikorik ez duen talde-ezaugarria. Aldiera hori beste belaunaldi batzuetara hedatzen delarik eta hauek berritzaileek baino haratago eramaten dutelarik behetik gorako hiperzuzenketa gertatzen da. Komunitate osora heltzen baldin bada, markatzaile bihurtzen da eta aldakortasun estilistikoaren barruan txertatzen da. Momentu honetan, egiturazko aldaketak jasan litzake, aldaketa berriei bide eginez. Goitik beherako hiperzuzenketa gertatzen denean, klase ertain-altukoak prestigiozko ereduak bereganatzera entseatuko dira, eta ondoren, eredu hauek beste taldeetara ere zabal daitezke. Horrelako kasuetan, beheko estatuseko taldeek hasi berrikuntzak mugatu eta estigmatizatu bihur litezke, hots, estereotipo (Moreno Fernández, 1990: 168).

2.3.3.3. Hizkuntza-komunitateak, sare sozialak eta praktika-komunitateak

Hizkuntza-aldaketa hiztunengan gertatzen da. Hauek dituzten harreman sozialen arabera, talde jakin batzuetan antolatzen dira. Hizkuntza-aldaketa gertatzen den oinarrizko unitate soziala litzateke hizkuntza-komunitatea. Tradizionalki, biziki aztertua izan da, baina sortzen dituen arazoak direla eta, beste unitate batzuk proposatu izan dira garai berriagoetan; hala nola, sare sozialak, eta areago, praktika-komunitateak. Unitate teoriko horietako bakoitza definitzen eta berarekin dakartzan arazoak azaltzen saiatuko gara.

Hizkuntza-komunitatearen definizio klasikoek bi ardatz dituzte: bata hainbat hiztunek egoera jakin bakoitzean, era uniformean hitz egitea da; eta bestea mintzo bat partekatzen duen hiztun taldea identifikatu ahal izatea (mintzoaren mugak identifikatuz, besteak beste). Definizio hauek oinarrizkoak, lausoak eta arazotsuak dira, ordea, eta badirudi hizkuntza-komunitateak ezin duela eurengandik alde egin (Patrick, 2002: 576).

Labovek berritasuna ekarri zuen kontzeptu hau definitzerako orduan. Hizkuntza-komunitatea identifikatzeko, partekatutako arauak eta uniformetasun linguistikoa

proposatu zituen (Patrick: 2002: 584). Arau hauek jarrera ebaluatzaile irekietan eta aldakortasunaren hatsarre abstraktuen uniformetasunean aurki daitezke. Errate batera, New York hizkuntza-komunitate bakarra zen Labovendako (1966: 355), arau ebaluatzaile multzo komunak lotzen zuelako.

Definizio honi egin izan zaio kritikarik. Konparazio batera, J. Milroy-k (1982: 46) galdetzen du ia zergatik suposatu behar dugun hiztunek hainbat maila sozialetan ebaluazio berak egiten dituztela. Kerswill-en (1994: 27) iritziz, berriz, Laboven modeloa kontsentsuan oinarritzen da fermuki, eta ez du arau aniztasunik onartzen.

Arazo hauek guztiak direla eta, Bucholtz-ek (1999b: 207) hizkuntza-komunitatea lan egiteko desegokia dela dio, honako arrazoietan oinarriturik: a) hizkuntza erdigunetzat hartzeko joera; b) komunitatea definitzen duen hatsarrea kontsentsua dela azpimarratzea; c) kide zentralak aztertzea eta bazterrekoez ahaztea; d) arreta taldean jartzea eta ez norbanakoan, e) identitatea kategoria estatikotzat izatea; f) ikertzaileen interpretazioa parte hartzaileek beraien praktiken inguruan duten interpretazioaren aitzinean jartzea.

Hizkuntza-komunitateek definitzeko eta mugatzeko sortzen dituzten zailtasunak direla medio, arazo hauei aurre eginen zieten bestelako kontzeptuak sortzen hasi ziren, errate batera, Milroy-tarrek garatutako sare sozialak.

Jendea era indibidualean jar daiteke beste batzuekin harremanetan, baina baita klaseak, kastak edo okupazio-taldeak bezalako instituzio egituratu eta funtzioaletan ere. Jendeak harremanak izateko duen egitura sozial hau genuke sare soziala (L. Milroy, 1980: 46). Sare soziala ontasunak eta zerbitzuak elkarbanatzeko mekanismoa da, baita egitekoak inposatu eta bertako kideei dagozkien eskubideak ematekoa ere (L. Milroy, 1980: 47).

Laboven ustez (1972-78 in Moreno Fernández, 1990: 167), berrikuntza sortzen dutenak hizkuntza-komunitatean estatus handieneko pertsonak dira, komunitate horretako aferetan funtzio garrantzitsua dutenak, hain zuzen ere. Beraiek dute interakzio sozialaren dentsitate mailarik handiena, eta baita komunitatetik kanpoko kontaktu kopuru handiena ere.⁵

⁵ Hala ondorioztatu zuen *Jet* deitutako hego-erdialdeko Harlem-go nerabe talde baten mintzoa aztertzean (Labov, 1973), eta baita Martha's Vineyard-eko mintzoa aztertzean ere, Chilmart-eko arrantzaleei

J. Milroy-k (1992: 215) kontraesankortzat ditu Laboven berritzaile linguistikoaren prototipoaren bi premisa definitzaileak; hots, estatus gorako norbait izatea komunitatean, baina era berean, kanpokoekin kontaktu ugari izatea. Ikerlari honen ustez, estatus gora izateak lotura azkarrak izatea dakar, eta hori horrela izateko, teoria soziologikoari jarraituz, kanpo-presioenganako erresistentzia egon beharra da. Berrikuntzaren hedapena gertatzeko, lehenik eta behin, berrikuntza hau kanpo mugetarik hartu behar bada, Labov deskribatzen ari dena, aldaketa errazen onartuko duen pertsona da, eta ez lehen berritzailea.

Le Page-n arabera, sozialki eta geografikoki mugikorrek direnen mintzoa nahiko lausoa izan ohi da (L. Milroy, 1980: 185). Hizkuntza egonkor mantentzea sare egitura sendoa izatearekin lotuta badago, hizkuntza-aldaketa gertatuko bada, egitura horretan haustura gertatu beharko da (L. Milroy, 1980: 190). Pertsona jakin batek lotura ahul ugari dituenean, eta lotura anitz izateagatik, hain zuzen ere, edozein taldetan bazterreko posizioa duenari, berrikuntza hedatzeko aukera ugari izanen ditu. Horregatik, L. Milroyk aldaketa abiatzen dutenak sare sozialetako periferiako kideak direla proposatu zuen. Bizkitartean, berrikuntza hori arinen onartuko dutenak taldeko kide zentralak izanen dira, lotura sendoak dituztenak eta taldeko araei atxikiak daudenak. Gure gaur egungo gizartean, lotura ahulak sendoak baino askoz ere ugariagoak dira, eta horietako batzuk berrikuntzak hedatzeko zubi izan daitezke (L. Milroy, 1980: 201-203). Hari honetatik tiratuz, J. Milroy eta L. Milroyren (1985: 375) arabera, aldaketaren erritmoa motela izanen da ongi finkatutako sare sendoak dituzten taldeetan, eta zalua lotura horiek ahulak direnean.

Azken urteotan, hizkuntzaren eta identitatearen artean dagoen loturaz ohartuta, hizkuntza-komunitateen ordez, praktika-komunitateez hitz egiten hasi gara. Honetan ere Eckert (1989a, 2000) dugu aitzindari, eta Detroit-eko eskola batean, *Jock* eta *Burnout* deitu zituen taldeen mintzoa aztertzetik sortu zuen termino hau. Honela definitzen du Meyerhoff-ek (2002: 526) praktika komunitatea: praktika-komunitatea bertako kideek beraien komunitatearen eta besteen arteko mugez dituzten esperientzia subjektiboan arabera definitzen da. Era honetan, hizkuntza, kategoria sozialen mugak eraiki, mantendu edo aldatzeko bitartekoa da, baita norbanakoa talde sozial horien barruan

zegokienez (Labov, 1972: 69). Berrikuntza sortu duen A taldea B taldearen erreferente da, eta beraz, berrikuntza hori hartu egiten du eta baita identitate ikur moduan nabarmendu ere, kanpo presioen erreakzio moduan (Labov, 1972: 71).

kokatzeko eta kanpo ezartzeko ere. Eckert eta McConnell-Ginet-ek (1992: 464), berriz, honako definizio hauxe eman zuten: “praktika-komunitatea ahalegin bat egitera engaiatzen den jende multzoa da. Praktikak elkarren arteko ahalegin horretatik ateratzen dira”.

Praktika-komunitatea existitzen dela suposatzeke, lehenik eta behin, kideen arteko engaiamendua nahitaezkoa da, hots, kideak nahitaez elkartu behar dira praktika sozial komun jakinetan aritzeko (Meyerhoff, 2002: 527). Wenger-en (1998: 77, 85) arabera, engaiamendu hori armoniatsua edo arazotsua izan daiteke, praktika-komunitatea ez baita baitezpada lagunen edo aliatuen talde bat. Bigarren baldintza kideek elkarrekin adosturiko helburua da, eta xede honetarako lanean aritzeak elkarren arteko erresponsabilitate harremanak sortzen ditu (Wenger, 1998: 77-78). Hirugarrenik, kideek partekaturiko erreperorioa dugu. Baliabide hauek (hizkuntzazkoak nahiz bestelakoak) barne negoziazioen emaitza dira (Meyerhoff, 2002: 528).

Wenger-ek (1998: 125-126) praktika-komunitatea honako ezaugarrien bidez ezagut litekeela dio:

- Informazio truke eta berrikuntzaren hedapen azkarra.
- Sarrera-formularik eza eta eztabaidatu beharreko arazoa mahai gainera fite ateratzea.
- Elkar era berdintsuan definitzen duten identitateak.
- Erreminta, errepresentazio, istorio eta umore baliabide jakinak.
- Argot eta laburpenak komunikazioan.
- Munduko ikuspegi jakina islatzen duen diskurtsoa.

Eckertek (2000: 222) dioenez, praktika-komunitatearen analisisia ez da egiten kategoria globalak baztertzeko, baizik eta hauei esperientzia pertsonala eta taldekoa atxikitzeke, aldakortasunaren egiturak egunerokotasunean zentzua izan dezan.

Meyerhoff-i (2002: 531) jarraituz, praktika-komunitateak harreman ona du sare sozialen nozioarekin. Hala ere, badira zenbait desberdintasun txiki. Errate batera, norbaitek sare sozial sendo bateko kide izatea halabeharrez edo egoera jakin batek hala baldintzatuta ikus lezake, baina hizkuntza-komunitateko kide izatea erabaki kontzientea da.

2.3.3.4. *Hizkuntza-aldaketa eta deigarritasuna*

Garrantzitsua iruditzen zaigu Ráczek (2013) ondutako deigarritasunaren edo *saliency* delakoaren teoriari lekua egitea, gure iritzian, hizkuntza-aldaketa ulertzeko giltzarria baita. Hizkuntzalaritza kognitiboaren eta oharmenezko deigarritasunaren inguruan egindako aurkikuntzak ditu bere teoria ontzeko oinarri.

Deigarritasun kognitiboaren eta sozialaren arteko bereizketa egiten du Ráczek. Lehen hitzari ohargarri zaion hizkuntza-aldakortasunaren propietate objektiboa da. Bigarrenak, berriz, aldakortasuna era orokorragoan aztertzen du, hots, jarrerak, estereotipo kulturalak eta balio sozialak. Deigarritasun kognitiboa soziala izatera nola igarotzen den azter dezakegu hizkuntza-komunitateak dituen jarreraren bidez (Rácz, 2013: 1-2).

Deigarritasuna mintzo desberdintasunaren propietateztat ikusia da. Dialektoak n aldaeratan izan litezke desberdin, baina horietarik, k baino ez dute hartzen kontuan hiztunek desberdintasuna azaltzeko. Desberdintasun hauek erreferentzia lexikoa edo soziala izan dezakete, edo biak. Lehenengoari dagokionez, argi dago *elefanteak* eta *bizkotxak* bi gauza desberdin erran nahi dituztela. Bigarrena ulertzeko, ordea, hiztunaren ibilbidea, identitatea edo asmoa hartu behar dira kontuan (Rácz, 2013: 2-4).

Foulkes eta Docherty-k (2006) diotenez, ez dago informazio linguistikoa besterik ematen ez duen enuntziatu naturalik, faktore sozialen bat adierazi gabe. Kontua da, ia adierazle sozial hau antzematen denez, eta ze faktorek eragiten duten antzemande hori. Ikusi berri dugun bezala, Laboven (1972: 178-180) arabera, markatzaileen kasuan, indikatzaileetan ez bezala, hiztunek hizkuntza-aldaera horren inguruko balorazio soziala dute, kontzientea ala inkontzientea (Rácz, 2013: 4-5). Bi aldaera moton arteko desberdintasuna ez da erabatekoa, graduala eta erlatiboa baizik. Gaur egun, soziolinguistikaren hirugarren olatuan, hizkuntza norbanakoak bere burua talde jakin batean kokatzeko eta bere jarrerak komunikatzeko tresnatzat ulertzen dela kontuan harturik, indikatzaileak ez lirakeke zeregin horretarako erabiliak. Bai, aldiz, markatzaileak (*ibid.*: 4-6). Deigarritasuna, beraz, hizkuntza-aldaera bat markatzaile izatea posible egiten duen hura da eta hizkuntza-aldaeraren propietatea dela ondorioztatzen da (*ibid.*: 6). Bere existentzia neurtzeko, jarreraren inguruko ikerketa egin liteke, hiztunek hizkuntza-aldaera bat geruza sozial edo leku geografiko jakin batekin nola lotzen duten ikusiz (*ibid.*: 8).

Honela definitzen du Ráczek deigarritasuna soziolinguistikan: segmentu bat kognitiboki deigarria da hizkuntza-input-aren multzo zabal batekin konparatuta, sorpresa-balio handia duenean. Komunitatean duen posizioaren eta komunitateko jarreraren arabera, kognitiboki deigarria den segmentu hori sozialki ere deigarri bihurtu ahal izanen da. Sozialki deigarriak diren aldaerak kognitiboki ere hala izanen dira, baina kognitiboki deigarriak direnek ez dute zertan sozialki hala izan (Rácz, 2013: 37).

Zenbat eta ezohikoagoa izan segmentu bat sekuentzia jakin batean, orduan eta sorpresa-balio handiagoa, eta beraz, seinale mintzatuan trantsizio probabilitate apala. Honela definitzen du Ráczek (2013: 37) trantsizio-probabilitatea: Y eta X segmentuen arteko trantsizio-probabilitatea $p(Y|X)$, X segmentua emanda, ondokoa Y izateko probabilitatea da, eta kalkulatzeko, corpus bateko XY -ren gauzapean guztiak X -en gauzapean guztiekin zatitu behar dira. Kontzeptu hau hizkuntzalaritzan erabili zuen lehena Zeilig S. Harris (1955) estrukturalista izan zen. Deigarritasuna trantsizio-probabilitate apalean datzala dio Ráczek (2013: 43). Aldaera bat deigarria izanen da, beraz, beste aldaera batengandik hizkuntza-erabiltzailearendako ohargarri izateko (sorpresa balio handia izateko) besteko desberdintasuna duenean. Deigarritasunaren kontzeptua bi dialektoren (edota soziolektoren) arteko konparazioaren testuinguruan ulertu beharra dago.

Johnson-ek (2005) unitateetan oinarritutako mintzoaren pertzepzioaren modeloa (*exemplar-based model*) erabiltzen du. Honen arabera, entzuleak enuntziatu guztiak zehaztasun fonetiko handiarekin gordetzen ditu. Gordetako enuntziatuak propietate auditorioen arabera kategorizatzen dira, baita kanpo-kategorien arabera ere, hala nola, identitatea, adina, generoa, testuingurua, etab. (Rácz, 2013: 41).

Unitateetan oinarritutako modeloaren arabera, entzuleak deigarri gertatu zaion aldaera bere gogoan gorde duen kanpo-kategoria edo kategoria sozial jakin batekin lotzen baldin badu, markatzaile sozial bihurtzen da. Deigarritasunak aldaera aukera murrizten du, markatze soziala indartsuago eta fidagarriago bihurtuz.

Bi premisa proposatzen ditu Ráczek (2013: 138): (i) aldaera deigarriek adierazgarritasun soziala dakartela beraiekin, eta (ii) adierazgarritasun soziala izateak hots aldaketa zedarritzen du. Ráczek ere, hizkuntzak talde-identitatea adierazteko duen garrantzia azpimarratzen du, eta beraz, identitate hori markatzeko adierazle sozialak

erabiltzen ditugula onartzen badugu, deigarritasunaren eta identitatearen artean lotura zuzena dagoela ondorioztatzen dugu.

Ráczek aurkeztutako deigarritasunaren teoria hau sare sozialetan oinarritutako hizkuntza-aldaketaren ikuspuntuarekin uztartzen da (L. Milroy, 1980), izan ere deigarriak diren aldaerek nolabaiteko prestigioa izan dezakete, erabiltzen dituzten sareen arabera, eta beraz, era desberdinean hedatzen dira. Hain zuzen ere, prestigiodun aldaera hiztun gehiagok eginen dute bere, hasierako taldetik fite hedatuz eta sare sozial berrietara helduz. Neutroa den aldaera bat emekiago hedatuko da, eta sortua izan den taldean gelditzea errazagoa izanen da (Rácz, 2013: 142-145).

2.3.3.5. Prestigioa

Hizkuntza-aldaketa ulertzeko, ezinbestekoa da prestigioaren ideiaz jabetzea, izan ere kontzeptu hau da hizkuntza-aldaketa baten hedapena edo atzerakada baldintzatuko duen faktore garrantzitsuenetakoa. Soziolinguistikak prestigioaren kontzeptuarendako eman dituen definizioetan, *jarrera* eta *estimua* edo *errespetua* dira, usu agertzen diren hitz gakoak.

Hernández-Campoy eta Almeida-ren (2005: 97) ustez, prestigioa soziolinguistikan, hizkuntza-forma jakin batzuen eretzeari hartu jarrera sozialek motibatzen duten portaera linguistikoa da: eskuratzen edota ematen zaien erreputazioaren ondorioz, hizkuntza-aldaketa jakinek lortzen duten estimuari dagokio. Erabat subjektiboa da, eta usu, aldizkakoa.

Caminok (2009c: 85-86) hauexek dio prestigioaren inguruan:

Gizarteko oharmenarekin, baloreekin edo sentimenduekin lotura duen adigai da. Prestigioa jokabide bat edo jarrera bat izan daiteke, norberak duen ezaugarri bat ala norbaiti aitortzen zaion izaera bat: zenbait ezaugarri dituzten norbanakoei edo gizataldeei aitortzen zaien begirunea edo estimua ere bada prestigioa eta norbanako edo talde horien jokabideak eta sinesteak imitatzea eragiten du (85-86).

Amorrortuk (2000: 214-217) aldiz, hizkuntza-aldaketa jakin batzuk erabiltzen dituzten hiztunen eretzeko jarrera estereotipatuetan oinarrituriko prestigioaren definizioa proposatzen du. Bere ustez, aldaera prestigiotsuak komunitateak miretsiriko horiek izango dira.

Gure ustetan, prestigioa eta boterea erabat loturik dauden kontzeptuak dira. Boterea duenak bere borondatea gauzatzeko bitarteakoak ditu, bere ideologia eta pentsamoldea besteenaren gainean ezarriz, eta zuzena, egokia eta jarraitu beharrekoa hori dela sinetsaraziz. Hori dela eta, boterea duten talde sozialak eta hauek erabiltzen dituzten hizkuntza-formak miretsiko ditu gizarteak (nahiz eta hein apalagoan kontrakoa ere gertatuko den). Hizkuntza-jarrerarekin lotuta dago prestigioaren kontzeptua, eta Irvinekin (1989: 255) bat eginez, jarrerak boteredun talde sozialek baldintzaturik daude (ikus 2.4. §-a).

Trudgillen (1972) aburuz, prestigioa argiki erakusten denean ageriko prestigioaren aitzinean gaude. Aldiz, mintzo ez estandarrarekin loturik dauden balio ezkutuek, modu irekian azaltzen ez direnek, prestigio gordea osatzen dute. Bere ustez, prestigio gordeak gure gizarteko baloreen eta honen barruko azpikulturen sistema islatzen du.⁶

2.3.3.6. Hizkuntza-aldaketaren aitzindari sozialak

Orain arte, aldaketaren prozesuari lotu gatzaizkio, sorrera eta hedapenari, hain zuzen ere, eta hau azaltzen saiatzen diren teoria batzuk ere aurkeztu ditugu. Hizkuntza-komunitateari buruz ere aritu gara, eta honek dakartzan arazoan aitzinean proposatu diren sare sozialak eta praktika-komunitateak ere jorratu ditugu. Azkenik, deigarritasunari eta prestigioari buruzko zertzeladak eman ditugu. Ondorengo ataletan, berriz, hizkuntza-aldaketa abiatzen duten aitzindari sozialei buruz arituko gara. Lehenik, ikuspegi tradizionala emanen dugu, eta ondotik, soziolinguistikaren hirugarren olatuan proposatu diren teoria berriagoak azalduko ditugu.

Ikuspegi tradizionalaren arabera, erran liteke hizkuntza-aldaketa bat gehien erabiltzen dutenak klase ertainekoak, emakumezkoak eta nerabeak badira, hizkuntza-aldaketa abian dela (Tagliamonte, 2012: 232).

Labovek (2001a) hizkuntza-aldaketaren kanpo faktoreen edo faktore sozialen hatsarre orokorrak zerrendatu zituen. Lehenengo hatsarrearen arabera, behetik gorako hizkuntza-aldaketak erdibideko talde sozialetan sortzen dira, hierarkia sozioekonomikoaren erdian kokatuak daudenetan, hain zuzen ere (Labov, 2001a: 188).

⁶ Labov-ek berak zioen bezala, New York-en (oh) aldagaiaren aurkako ebaluazio txarra hauteman zuen, eta hala ere, gero erabili egiten zuten. Ebaluazio horiek neurtzeko, ordea, testa erabili zuen ikerlari estatubatuarrek, eta beraz, baziren bere ustez, hiztunek modu irekian onartzen ez zituzten eta testean agertzen ez ziren beste balore gorde batzuk, aldaketa jakin horiek erabiltzera bultzatzen zituztenak (Labov, 1972: 228).

Horrez gainera, Labov (1966) ohartu zen langile-klase altukoek eta klase ertain apalekoek gizarteko geruza gorenetakoez erabiltzen zituzten prestigiozko ereduak bereganatzen zituztela, eta areago, exageratu ere egiten zituztela. Hori dela eta, usu, geruza altukoek baino ardurago erabiltzen zituzten aldaera prestigiotsu horiek. Kasu hau hiperzuzenketatzat aurkeztu zuen, eta klase hauen ziurgabetasun linguistikoa erabili zuen fenomeno hau azaltzeko: klase ertain apalekoek ez dute beren burua sozialki klase ertain altukoek bezain segur sentitzen. Era berean, ez daude langile klasetik behar bezain urrundurik beraiekin ez dituztela identifikatuko ziurtatzeko. Beraz, klase ertain apalekoek beraien mintzoa zorrozki kontrolatzen dutelarik, estatus soziala erakusteko ahalegin handia egiten ari dira (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 76).

Hurrengo hiru hatsarreek emazteen izaera berritzaileari eta arauaren aldeko izateari buruz dihardute. Bigarren hatsarrearen arabera, aldagai soziolinguistiko egonkorretan, emazteek aldaera estigmatizatuen proportzio apalagoa erakusten dute eta gizonezkoek baino proportzio goragoa prestigiozko aldagaietan (Labov, 2001a: 266). Hirugarren hatsarrearen arabera, goitik beherako aldaketan kasuan, emazteek hedatze bidean doazen formak gizonezkoek baino arinago onartzen dituzte (Labov, 2001a: 267). Azkenik, laugarren hatsarrearen arabera, behetik gorako aldaketan kasuan, emazteek gizonezkoek baino maiztasun altuagoa dute aldaera berritzaileetan (Labov, 2001a: 275, 292-293); cf. 2.9.3. §.

Adinari dagokionez, argi erran liteke nerabeak direla aldaketaren liderrak. Beraien sareek kontaktu gehiago izatea ahalbidetzen diete, eta gainera, identitate sozial desberdina izatea desio dute. Beraz, hori guztia hizkuntzan islatzen dute (Tagliamonte, 2012: 329). Labov (2001a) eta Eckert (1997) bat datoz puntu honetan. Nerabezaroa eta geroko belaunaldietan, joera berritzailea ez da jada hain nabarmena, izan ere, zaharragoen mintzoa aldaketaren aitzineko fasean egonkortu zen, forma berria ez zelarik hain ohikoa. Nerabeak baino gazteagoak ere ez dira hain berritzaileak, ez baitaramate denbora anitz aldaketan parte hartzen, eta beraz, ez baitute aldaketa asimilatu (Tagliamonte, 2012: 49).

Nerabeek hizkuntza aldaera bat ardura erabiltzeak ez du nahitaez aldaketa gertatzen ari dela erran nahi, adinaren arabera, mailakatzea edota *age grading* delakoa gerta baitaiteke (Tagliamonte, 2012: 47). Kasu hauetan, hizkuntza-aldaketa baten erabilera adin tarte jakin batekin loturik egon liteke. Beraz, aldaera bat nerabeek usu

erabil dezakete, helduek bakanago, baina berriro ere, adinekoek ardurago. Horretan zerikusi zuzena izan lezake norbanakoa lan-merkatuan aktibo egoteak edo ez; batez ere, aldaera estandarrei dagokienez. Adinaren arabera gertatzen den mailakatze honen eredu klasikoa V erako kurbatura da (Downes, 1984: 191).

Eckertek (2008: 455) aldaketaren liderren ikusmolde tradizional eta estatiko hau kritikatzeko; errate batera, emazteek, liderrak direnean, ez dute hizkuntzaren bidez “emaztea naiz!” aldarrikatzen, ezta “ez naiz emaztea!” ere, liderrak ez direnean. Eckerten ustez, baieztapen horietarik haratago sakondu beharra dago. Aldagai sozialek kategoria demografikoak zeharka adierazten dituzte; hots, aldaketa ekarri duen hizkuntza-aldaketa kategoria sozial orokorrekin identifikatzera heltzeko prozesua urratsez urrats ikertu beharra dago erranahi sozialaren eraikuntza behar bezala interpretatzeko. Eckerten (2008: 463) ikuspuntuaren arabera, estiloa da kategoria sozial horien eraiketan parte hartzen duen faktore garrantzitsuenetarik. Estiloa, bere zentzurik zabalenean, identitate jakin baten edo batzuen manifestaziotzat ulertu ahal izango genuke. Hizkuntza estiloaren erdi-erdian kokatzen da, eraikuntza ideologikoa eratzen duten beste hainbat zeinurekin batean. Egunez egun, bizitzan zehar, hiztunak egoera batetik bestera edo momentu batetik bestera mugitzen diren bezala, estiloak horrela edo hala modelatzen dituzte.


Hizkuntzak eta estiloak duten lotura estua aintzat hartuta, Silverstein-ek (2003) adierazle-eremuaren bidez, hizkuntza-aldaketa bat kategoria sozial orokor batekin identifikatzera nola heltzen garen azaltzen digu mailaz maila. Autore honek (1995 [1975], 2003) erreferentziako adierazleen (index) eta ez erreferentziako adierazleen arteko desberdintasuna egiten du. Lehenengo denotazioa enuntziatuaren testuinguruaren arabera da. Alta, bigarren denotazioak erranahi soziala du. Bigarren hauek dira erranahiaren transmisioan garrantzi handiko rol soziolinguistikoa dutenak, eta identitate sozial eta pertsonala sortzeko eta proiektatzeko balio dutenak.

Johnstone eta Kiesling-en (2008: 7) arabera, hiztun batek erakargarri zaion talde sozial baten estiloarekin identifikatu nahi duelarik, talde horrek erabiltzen dituen hizkuntza-aldaketa era errepikatuan erabiliko ditu, aldaera horiek talde horren izateko eta jokatzeko moduarekin erlazionatzen baititu semiotikoki. Ideologia lokal natiboetan oinarriturik, talde sozial horrek erabiltzen dituen aldaerei etno-metapragmatikoki

gibatutako interpretazioa ematen zaie, eta sozialki talde horren adierazle/deiktiko bihurtzen dira (Silverstein, 2003: 212).

Talde sozialek izan ditzaketan adierazle hauek guztiek, adierazle eremua osatzen dute, hots, ideologikoki elkarrekin loturiko erranahien konstelazioa. Beraz, hiztunak, proiektatu nahi duen estiloaren arabera, eskura dituen adierazle horietako edozein erabili ahal izanen du. Adierazle eremua ez da egitura estatikoa, baizik eta momentu oro egiten den berrinterpretazio prozesu jarraitua. Hizkuntza-aldaira batek jasoko duen adierazle-eremuko erranahia hartzailearen perspektibak eta hiztunaren estiloak baldintzatuko dute (Eckert, 2008: 466). Era honetan, Eckert-i (2008: 472) jarraituz, hizkuntza sozialki baldintzatua izateak ez du erran nahi aldairak kategoria sozial multzo itxi batekin loturik daudenik, baizik eta aldaira horiekin erranahi-eraketa ariketa egiten dela.


Har dezagun Midlan High-ko *tag question* delako hizkuntza-aldagaiaren adibidea (Moore & Podesva, 2009). Hauek ingelesez, adierazpenak edota egitura inperatiboak galdera bihurtzen dituzten egitura gramatikalak dira; errate batera, *you are John, aren't you?* bezalakoak. Beren adierazle eremua 1. irudian ikus dezakegu.



1. irudia: Midlan High-ko *tag question* delakoen adierazle-eremua (Moore, 2011: 231)

Erdi-erdian, *tag question* hauen erranahi pragmatikoa dugu, *conducive* edo hartzailereandako mesedegarri izatea, hain zuzen ere. Ondoren, erdiko laukiaren inguruan, hartzailereandako mesedegarri izatearen erranahi horri atxik dakizkikeen konnotazio sozialak ditugu. Maila orokorragoan, konnotazio sozial horiek talde sozial batekin erlazionatu ahal izanen dira, laukiaren kanpoaldean daudenekin, hain zuzen ere. Talde sozial hauek praktika-komunitateak dira. Azkenik, mailarik gorenean, praktika-komunitate hauek kategoria sozial estandar orokorrekin identifika daitezke, hizki larriz daudenekin, hain zuzen ere.

2. irudian, hizkuntza-aldagaiaren oinarritzko erranahia, kasu honetan, hartzailereandako mesedegarri izatea, kategoria sozial orokorrekin identifikatzera nola heltzen garen azalduko dugu



2. irudia: *tag question* delakoan erranahiaren adierazle mailak (Moore, 2011: 232)

Oinarri-oinarrian, n mailako adierazlea dugu, kasu honetan, *tag question* hauen erranahi pragmatikoa, hartzailereandako mesedegarri izatea, hain zuzen ere. $n+1$ maila mikrosozialean, hartzailereandako mesedegarri izate horri atxiki dakizkikeen konnotazio sozialak daude, adibidez *cool* edo *guay* izatea. Azkenik, $n+2$ maila mesosozialean, konnotazio sozial horiekin erlazionatzen diren praktika-komunitateak ditugu, adibidez, leku jakin bateko (adibidez, Midlan High-ko) talde *popular* edo ezaguna/entzutetsua. $n+2$ maila horretantxe, praktika-komunitateak kategoria

makrosozialekin lotu daitezke, hala nola, talde *popular* edo ezagun/entzutetsu orokorrekin (ez leku bateko talde ezagun/entzutetsu jakin batekin).

Beraz, erran liteke, Midlan Highko *popular* edo ezagun/entzutetsuek *tag question*-en mesedegarri nozio horren bitartez, *cool* edo *guay*-ak direla adierazten dutela, eta talde *popular* edo ezagun/entzutetsu orokorren kulturarekin engaiaturik daude.

2.4. Hizkuntza-jarrerak

Hizkuntza-aldaketa gertatzea ezinbestekoa da jarrerak eratzeko, baina, era berean, jarrerak ere hizkuntza-aldaketa sor dezakete. Hizkuntza-jarrerak hizkuntza-aldaketan duten garrantzia handia bada ere, jarrera-faktoreen azterketa baztertua izan da soziolinguistikan (Kristiansen, 1998: 120).

Hertsiki loturik dauden kontzeptuak dira jarrerak eta ideologiak. Ishikawa eta Morán Panero-ren (2016: 88) ustez, jarrerak praktika ebaluatzaileak dira, eta ideologiak, berriz, hauek informatzen dituzten elementuak. Hots, ideologiek eraikitzen dituzte jarrerak.

Hizkuntza-ideologiaren bi definizio aipa genitzake, bata Silverstein-ena (1979) eta bestea Irvine-ena (1989).

Silversteinen (1979: 193) ustez, hautemandako hizkuntza-egitura edo erabilera justifikatzeko edo arrazionalizatzeko hitzunek egiten duten hizkuntzaren inguruko uste multzoa dira hizkuntza-ideologiak. Irvinen (1989: 255) ustez, berriz, erlazio sozial eta linguistikoen inguruko ideien sistema kulturala dira, ideia horiek dituzten interes politiko eta moralekin batera.

Bi definizioak elkarren alde doaz, baina badira bien artean zenbait desberdintasun. Silversteinek ideologiak eraikitzerako orduan, motibazioa bilatzen du; hots, hautemandako fenomeno linguistikoen inguruko “istorioak” eraikitzen dituzte hitzunek. Irvineen ustez, berriz, interes politikoek eta bestelakoek hizkuntzaren kontzepzio kulturalaren eta mundu sozialaren arteko harremanak egituratzen dituzte (L. Milroy, 2004: 166).

Hizkuntza-ideologiak nola sortzen diren ulertzeko, baliagarri zaigu 2.3.3.6. §-ean aurkeztu dugun adierazle-eremua. Silversteinek (1992) lehen mailako eta bigarren mailako adierazleak bereizten ditu hizkuntza-ideologiaren eraikuntza ulertzeko. Lehen

mailan, hizkuntza-aldaera baten aktore sozialak talde sozial esanguratsu batekin lotzen dira. Bigarren maila, berriz, kontzeptu metapragmatikoa da, hiztunak lehen mailan gertatzen diren lotura horiez ohartzen baitira, eta horien inguruan eztabaidatzen baitute. Bigarren mailako prozesu horiek dira ideologia moduan sortzen direnak (L. Milroy, 2004: 167). Urrats bat aitzina eginda, ideologia egituratuak hiztunaren identitatearen eraikuntza izanen du bere fruitu (L. Milroy, 2004: 170).

Hizkuntza-ideologiak aztertzeke bi metodo ditugu: zuzenekoak eta zeharkakoak (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 185). Zuzenak elkarrizketa eta inkesten bidez neurtzen dira. Zeharkakoen kasuan, berriz, ez da ikergaia zehazten, eta beraz, informatzaileak ez du honen kontzientziarik. Hori dela eta, emaitzak fidagarriagoak dira. Zeharkako metodoen barruan ezagunena *Matched guise* delako teknika da. Honetan, informatzaileek hiztun desberdinak ebaluatzen dabiltzala pentsatzen dute, baina egiazki, hizkuntza-aldagai baten aldaera desberdinak darabiltzan hiztun bera ebaluatzen dute (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 103). Hain zuzen ere, hiztun horrek gauza bera erraten du bi aldiz. Batean, hizkuntza-aldagai baten aldaera jakin bat erabiltzen du, eta bestean, beste aldaera. Hizkuntza-aldagai horretarik landa, beste guztia ez da aldatzen. Gainera, tartean, beste hiztun batzuek erran gauzak sartzen dira lekukoa “nahasteko”. Lekukoek entzuten duten hiztuna ebaluatu behar dute lagunkoi izatearen, inteligentziaren, profesionaltasunaren, erabakimenaren edota erakargarritasunaren arabera. Amorrortuk (2000: 83), *matched guise* proba honetan hiztunen ahotsak baloratzerako orduan, estatus dimentsioa eta dimentsio afektiboa bereizten ditu. Lehena ezaugarri objektiboekin loturik dago eta bigarrena identitatearekin eta talde bateko partaide izatearekin.

2.5. Hitzunen oharmena

Oharmenezko dialektologia hizkuntza-erabiltzaileek hizkuntza nola hautematen duten ikertzen duen diziplina da. Hitzunen ustez, dialektoen arteko mugak non dauden, euren mintzoaren eremu geografikoa zein den, eta hizkuntza mintzatuaren aitzinean hiztunek dituzten erreakzioak ikertu nahi ditu. Hitzunean zentratuta dago, beraz, eta hizkuntza nola eta zergatik aldatzen den azaltzen laguntzen du (Montgomery & Beal, 2011: 121).

Hitzunen usteak eta pertzepzioak bazterrean utzi izan dira usu, Niedzielski & Preston-ek (2003: 1) dioten bezala, hizkuntzalariek “gu” vs. “haiek” ikuspuntua hartu

izan baitute (Montgomery & Beal, 2011: 122). Ikerlari askoren ustez, alabaina, hizkuntzalariarendako hiztunen oharmena eta usteak ingurune dialektala ezagutzeko berebiziko laguntza eskaintzen duten tresnak dira (Taeldeman, 1989: 162).

Diziplina hau Herbeheretan lantzen hasi zen, eta ondoren, tradizio japoniarra ere garatuz joan zen. 1939an egin zen nederlanderaren ikerketa dialektologiko batean, dialektoen oharmenezko mugak ikertu ziren (Montgomery & Beal, 2011: 123). Lehenik eta behin, non hitz egiten zuten beraien moduan galdetzen zitzairen, eta ondoren, berriz, ia non desberdin (Rensink, 1999 [1955]: 3). Datuak Weijnen-ek (1946 in Montgomery & Beal, 2011: 123) aztertu zituen, eta gezien metodoa ondu zuen (Preston, 1999: xxvi). Honen bidez, gezi multzo bat zuen mapa irudikatu zen, dialektoen arteko antzekotasuna hautematen zen herrien arteko lotura adieraziz.

Oharmenezko dialektologia garatu zuen tradizio japoniarrean, berriz, aipatu dugun metodoaz gain, informatzaileei *continuum* dialektalean desberdintasun mailak ematea galdegiten zitzairen, “desberdin”-etik has eta “ulertezin”-eraino (Montgomery & Beal, 2011: 124).

Aipaturiko metodo hauez gain, hizkuntza-jarrerak ikertzeko erabiltzen den *matched-guise* teknika ere erabiltzen da. Erreakzio subjektiboen testak ere baditugu (Giles & Bourhis, 1976; Giles, 1977; Paltridge & Giles, 1984). Proba hauetan, lekukoei grabaketa batzuk entzunarazten zaizkie, eta ondoren, horietan entzuten dituzten pertsonak zein herri edo hiritakoak diren galdetzen zaie. Montgomery eta Beal-ek (2011) frogatu zuten, besteak beste, lekukoek erakargarri eta prestigiotsuak iruditzen zaizkien lekuetako mintzoak beraienarengandik hurbil kokatu ohi dituzte, eta konnotazio aski negatiboa dutenak, berriz, urrun.

Garrantzitsua da Preston-ek (1999) oharmenezko dialektologian garatu duen hurbilketa ere, aipatu metodoekiko aski desberdina baita. Berak garatu berrikuntzak mugarri izan dira diziplina honen historian. Prestonek Ladden (1970) eta Orleansen (1973) tekniken bertsio garatua erabili zuen, eta informatzaileei eskuz mapa bat marraztea eskatu zien, bertan beraien ustezko dialekto mugak adieraziz (Montgomery & Beal, 2011: 127-128).

2.6. Hizkuntza-heriotza

Hizkuntza-heriotzak ondorio zuzenak ditu hizkuntza gutxituen gramatikan. Garazi ibarrean euskararen egoera ez da inondik inora frantsesaren eta gaztelaniaren parekoa, eta atzerakada agerikoa izaten ari da azken hamarkadetan. Hori dela eta, garrantzitsua iruditu zaigu gai hau lantzea. Diglosiaz, hizkuntza-heriotzaren kausa sozialez, ondorio linguistikoez, eta azkenik, euskarak Garazin izan duen atzerakadaz mintzatuko gara.

Elkarrekin kontaktuan dauden eta hizkuntza desberdinak mintzaten dituzten taldeek komunikatzeko beharra dutenean, aukera bat baino gehiago dituzte. Horietarik bat partekatzen duten *lingua franca* erabiltzea da. Bigarrena, talde bateko kide batzuek bigarrenaren hizkuntza ikastea da. Bi taldeen artean ez badago botere desorekarik, eleaniztasun egonkorra izanen da emaitza, baina elebitasuna asimetrikoa denean eta talde boteretsuenak menpekoari bere hizkuntza inposatzen dionean, emaitza hizkuntza-aldaketa edo galtzea da (Romaine, 2010: 320).

Txepetxen hitzetan (1991: 343), diglosia hizkuntza-boterearen distortsio politiko-soziala da. Hizkuntza-boterea, berriz, kontzientzia linguistikoak, kompetentzia linguistikoak eta erabilgarritasun funtzionalak osatzen dute. Botere politikoak distortsio soziala hizkuntzaren, hizkuntza-komunitatearen eta norbanakoaren mailan eragiten du:

- Hizkuntzari funtzio batzuk kentzen zaizkio, eta glotofagia izan daiteke emaitza.
- Hizkuntza-komunitatea desegituratzen da, hizkuntza arrotza bortxaz ikasarazten baitiete bertako kideei, eta beraz, beraien hizkuntzaren erabilpen osoa (eta ikasketa) galarazten. Haatik, hizkuntza inbaditzailearen talde sozialek egituratuak izaten jarraitzen dute.
- Norbanakoarengan, trantsiziozko elebitasuna sortzen du, eta desnatibizazioa du emaitza.

Hiru diglosia maila bereizten ditu Txepetxek (1991: 347):

- Semi-diglosia edo pseudo-diglosia: Fergusonek (1959) deskribatu zuen diglosia motari dagokio. Hizkuntza batek estandar nazionalaren funtzioa du (esaterako arabiar klasikoa Marokon) eta besteak, berriz, familiako hizkuntzarena (arabiar magrebiarra Marokon, adibidez). Egoera honetan, hizkuntza batek ez du hartzen sekula bestearen funtziorik.

- Diglosia partziala edo diglosia funtzionala: botere desoreka ageri da hizkuntza-eremuaren parte batean, edo bi eremuren arteko kontaktu gune batean. Halako egoerak aurki genitzake, errate batera, Yugoslavia zenaren eta Italiaren artean, edota Alemania eta Danimarkaren artean. Eremu politiko jakin batean hizkuntza-desoreka dago, baina ez eremu horren ondoko beste eremu politiko batean.
- Diglosia osoa edo eremu-diglosia: eremu diglosia funtzionala ere bada, baina kasu honetan, hizkuntza-desoreka ez da konponduko menperatuak izan diren erabilera eremuak berreskuratuz, baizik eta, fagozitatutako hizkuntza-eremu osoa birkonposatuz. Egoera horixe da Euskal Herrian aurki daitekeena. Euskararen funtzio batzuk frantsesak edo gaztelaniak hartu ditu, eta gainera, hizkuntza horiek eremu euskaldunaren barruan eta kanpoan, funtzio guztiak izaten jarraitzen dute.

Jendeak ez du bere hizkuntza bazterrean nahita uzten, transmititzen segitzen du, nahiz eta denboran zehar aldatzen joaten den. Hizkuntza-aldaketa eta heriotza, beraz, era askotako presioen (soziala, kulturala, ekonomikoa edota militarra) erantzuna da (Romaine, 2010: 320).

Alde batetik, hizkuntza-heriotza, batez ere, XX. mendearen bigarren erdian garatu den bizitzeko era modernoarekin hertsiki loturik dago. Mattheier-ek (1980: 146-147) Alemanian gertatutako modernizazioa eragin zuten sei faktore zerrendatzen ditu, gainerako herrialdeetarako ere baliagarriak direnak: i) garapen teknologikoarekin loturiko hazkuntza ekonomikoa, ii) funtzio laboral eta sozialak banatzea, desberdintasun soziala nabarmentzea, iii) mugikortasun sozial eta geografikoa handitzea, iv) komunikazio eta hezkuntza-sistemen hedadura, v) erabaki politiko eta ekonomikoetan parte-hartzea handitzea, eta vi) ezarritako arau eta baloreak era zabalean onartzea. Sobrero-k (1996: 105) Italiako egoera soziolinguistikoa aztertzean, modernizazio prozesu honi “ekonomia-mirakulua” deitu zion, eta 60ko hamarkada jarri zuen gizarte arkaikotik modernora iragateko mugarritzat.

Bizimodu modernoarekin batera, bizimodu urbanoa landa-eremukoari nagusitzea ere etorri da. Hain zuzen ere, Estébanez-en (1992 [1988]: 417-419) arabera, landa-munduaren eta ingurune urbanoaren arteko aldeak ez dira hain handiak gaur egungo munduan, bereziki herrialde industrializatuetan, garraioek landa-ingurunearen

isolamendua hautsi baitute eta mundu urbanoaren presentzia geroz eta intentsitate handiagoarekin bizitzen baita. Estébanezen (1992 [1988]: 399) aburuz, garapen urbanoa hiriak eta balore urbanoek dominaturiko mundua aitzina daraman prozesua da. Prozesu honetan, bizitza-estilo urbanoa landa-eremukoa ordezkatzeko ari da, hiriek geroz eta eragin bortitzagoa baitute gizartean (Hernández-Campoy, 1999: 325). Horrekin loturik, honela dio Moreno Fernández-ek (2009 [1998]: 53): “Los grupos sociales que no se ajustan a esta división (kapitalismotik at dauden taldeez ari da, laborariak kasu) son considerados como residuos de la economía capitalista, y están destinados a desaparecer”.

Bestetik, nazio-estatuaren eraikuntza da hizkuntza-heriotza eragiten duen beste kausa garrantzitsuenetarik bat. Haugen-en (1972: 244-245) arabera, nazioa akzio politiko internazionalaren unitate efektiboa da, eta eraginkorragoa izanen da sozialki ere unitate bakarra bada. Edozein unitatek bezala, bere barruko desberdintasunak gutxitzen ditu eta kanpokoak handitzen. Norbanakoaren identitate pertsonal eta lokalaren gainean, identitate nazionala ezartzen du. Beraz, norbanakoak bere egoa nazioaren barruko beste guztienarekin identifikatzen du eta naziotik kanpokoekin banatzen du. Hauxe da ideia: barne kohesioa eta kanpo desberdintasuna. Nazioarenganako leialtasunak komunikazio libre eta bizia eskatzen duenez, ideal nazionalak hizkuntza-kode bakarra behar du. Hori dela eta, hizkuntza gutxituak batasun nazionalaren indar banatzaile izan litezke. Nazioa eta hizkuntza elkarrekin hertsiki loturiko kontzeptu bilakatu dira, beraz (Haugen, 1972: 103).

Aipatu berri ditugun kausekin loturik, Zalbidek (Bengoetxea, 2012: 9-10) eta Fishman-ek (1991: 55-65) beste hauek ere zerrendatzen dituzte:

1. Hizkuntza ahula erabiltzeko (are defendatzeko) debekua.
2. Hizkuntza ahula fisikoki eten-urratzea (dislokazio fisikoa).
3. Biztanle kopurua gutxitzea (dislokazio demografikoa).
4. Urbanizazioa, lurralde-antolamendua eta dislokazio soziokulturala.
5. Giza arteko eten-urratzea (dislokazio soziala).
6. Dislokazio kulturala.

Dislokazio sozialaren bidez, erran nahi da hiztun talde gutxituko kideek gizarte berrian aitzina egingen badute, talde nagusiaren hizkuntzaren beharra sentitzen dutela, ez baitaude ekonomikoki edo hezkuntza aldetik talde nagusiko kideen ber mailan. Dislokazio kulturalaren bidez, berriz, gizarte eredu berriak eragin dituen bizimodu berria eta modernizazioaren berrikuntzak adierazi nahi dira, hizkuntza nagusiaren alde gertatzen direnak.

Hizkuntza-heriotza ez da bat-batean gertatzen den prozesua, eta ardura, zaila da hizkuntza horretako azken hiztuna zein den erabakitzea ere. Zalbideren (2008 in Bengoetxea, 2012) ustez, *continuum* baten aurrean gaude: hizkuntza-atrizioa, aldaketa, arriskua, kontrakzioa, zaharkitzea, galtzea, desagertzea eta heriotza.

Erran genezake, funtsean, fase batetik bestera igarotzean, beti gertatzen dela hizkuntza-atrizioa. Honela defini genezake: esposizio faltaren eraginez hasitako eta berregituratze prozesuek osatutako fenomeno (Riehl, 2015: 285). Frogatua izan da atrizio prozesuak (erabilera faltak eraginda) hurrengo belaunaldiaren inputean eragina duela, hau geroz eta aldakorrago bihurtzen baita (*ibid.*: 289). Adinekoek hizkuntzaren maila ona badute ere, erdiko belaunaldiak ez du input osoa jaso, eta ez du hizkuntza egunerokotasunean erabiltzen, ez bada espresio jakin batzuk errateko (*ibid.*: 268). Hitztun hauek hizkuntza gutxitua familia barnean ikasten dute haur denboran, baina eskolan sartzean eta hizkuntza nagusia ikastean, hizkuntza gutxitua eskusiboki beraiek baino zaharragoekin mintzatzeko erabiltzen hasten dira. Hauek hiltzean, hizkuntza aktiboki erabiltzeari uzten diote. Ez dute beraien lehen hizkuntza sekula landu eta ez dute sarbiderik hizkuntza horren erregistro idatzira (*ibid.*: 264-265).

Atrizioak hizkuntzaren gramatikan eta estilo aberastasunean ondorio zuzenak ditu. Tsitsipis-ek (1989: 119, 125) honako prozesu linguistikoak antzeman zituen *Low* posizioan zegoen Albanieraren Arvanítika aldaeran, osasun txarrean dauden beste hizkuntza batzuekiko ere aplikagarriak direnak: lexiko galera handia, baitezpadako oposaketa fonologikoak nahastea edo galtzea, eta paradigma gramatikalak sinplifikatzea, alomorfia nabarmenki murriztuz. Konplexutasun sintaktikoa ere, era nabarmenean sinpletzen dute hitzunek (Romaine, 2010: 331). Andersen-en (1982: 92) arabera, hizkuntza dominatzailean aurkitzen ez diren hizkuntza gutxituko bereizkuntza linguistikoak dira galtzen lehenak. Horrez gain, hitzun terminalek formula erako esaldiak erabiltzen dituzte.

Ikasteko zailtasunik handienak eskatzen dituzten alorrak dira galtzen lehenak, haurren jabeakuntza eteten baita edo ez baitu etxearen eta eskolaren babesa jasotzen (Romaine, 2010: 326). Hori dela eta, hizkuntza-atrizioa hizkuntza-jabeakuntzaren kontrako prozesua dela erran liteke (*ibid.*: 332). Horrekin batera, kasu anitzetan hiztunek hizkuntza nagusian eskuragarri duten ereduaren arabera, egitura berriak sortzen dituzte hizkuntza gutxituan. Egitura murrizketarekin batera, murrizte estilistikoa ere gertatzen da, hizkuntza-heriotza mugatze funtzionalarekin loturik baitago (*ibid.*: 326).

Elorduik (1996) mendebaldeko euskalkiaren barruan dauden hizkera batzuen azterketa egin zuen. Bertan, hizkuntza-atrizioaren eraginez, aditz sistema nola aldatu den ikusi zuen. Ondorioztatu zuenez, hizkuntzak bere gaitasun falta konpentsatzeko hainbat aterabide linguistiko hartzen ditu. Kasu batzuetan, hizkuntza menderatzailearen sistema zuzenean edo zeharka bereganatzen du, baina beste batzuetan, aldaketaren joera orokorreki jarraikiz, egitura linguistikoaren formarik oinarritzkoenak kontserbatzen ditu eta gainerakoak ezabatzen. Azken jokaera hau orokorrena dela dio. Hizkuntza menderatzailearekin berdintzera neurri apalagoan jotzen ei dute hizkuntzek (Elordui, 1996: 747-748).

Kode alternantzia ere, hizkuntza-heriotzaren ondorio linguistikotzat hartu izan da, nahiz eta oraindik ere, fenomeno honen eta hizkuntza-ordezkapenaren arteko lotura aski eztabaidatua izan. Zernahi gisaz, hizkuntza gutxitua mintzatzen dutenek nagusitzen ari den hizkuntzaren alternantziak txertatzen dituzte, baina aurkakoa ez da gertatzen.

2.6.1. Hizkuntza-heriotza Garazin.

Gatozen Garazi ibarrera. Ibar hau Frantziako estatuan kokatuta dago, Luzaide herriaren salbuespenarekin. Herri hau Espainiako estatuan dago. Ibar honetako euskaran berebiziko eragina izan dute lehenik Frantziako monarkiaren zentralizazioak eta ondotik Parisko errepublikarenak. Azken honek frantses kultura zentralizatua izan zuen ondorio, probintzien eta beste hizkuntzen gainbeherarekin batera. Espainian ere egoera bertsua gertatu zen boterea Madrilen zentralizatu zelarik, eta gaztelania hizkuntza nagusitzat ezarri zenean besteen kaltetan (Hernández-Campoy, 1999: 73-74).

Caminoren (2016: 32) arabera, XIX. menderako erabakita zegoen Frantziaren eta Espainiaren hizkuntza-jokaera, hizkuntza “baliagarri” bakarrak frantsesa eta gaztelania direla dioen erabaki politiko sendo eta orokorraren bidez. Frantzian, 1789ko iraultza

handiaren ondorioz, erregimen zaharretik errepublikara igarotzearekin batera, aldakuntza soziopolitiko eta operatibo ohargarriak bizi izan ziren. Besteak beste, hor ditugu frantsesezko eskolaren eta prentsaren zabalkundea, soldadutza orokorra eta herritar xumeen hauteskunde bidezko aktibazio politikoa, luzera begira ondorio sakona eragingo zuten berrikuntzak (Zalbide, 2007: 889).

Hexagonoa linguistikoki unformatzea aspaldiko helburua zen, baina 1789ko iraultzatik goiti, bereziki, Frantziako iritzi-sortzaile nagusien eta jarduera instituzionalaren esparru anitzetan argiki aldarrikatua izan zen. *Patois*-ak baztertu eta haien ordeztu frantsesa indartu nahi zen.

XIX. mendea orduko, euskara hutsean mintzaturik ere, euskarak ez zien euskaldunei ohiko arrantza, nekazaritza edo abeltzaintzatik haratagoko munduan aitzinatzea ahalbidetzen eta eskolan ere hizkuntza arrotzean jasotzen zuten heziketa haurrek (Camino, 2016: 33). Estatus gorako edozein testuingururi frantses kutsua zerion nabarmen.

Hala ere, XIX. mendean, euskalaritzaren ikuspuntutik aitzinamendu franko egin zen Iparraldean. Errate batera, mendearen hondarreko laurdenean, *Eskualduna* kazeta sortu zen Baionan (1887-1944), herri xeheari eskuindarren berri euskaraz emateko. Astekari honi esker, euskara idatziak lanketa literario handia izan zuen mende horren bigarren erdian. Euskara idazteko ortografia bateratua, hiztegia eta gramatika azalpenak ere landu zituzten garai hartan. Corpus plangintzaren *codification* eta *implementation stage* delakoetan aitzinamendu nabarmenak gertatu ziren, Hegoaldekoak baino aise handiagoak (Zalbide, 2007: 906).

Garai hartan, Iparraldeko jendeak euskaraz irakurtzen eta idazten zekien, anitzek euskaraz bakarrik, gainera (Zalbide, 2007: 910-911). Garaziko gure adineko lekuko zenbaitek ere etxean ikasi zuten euskaraz irakurtzen eta idazten. Hori pentsaezina zatekeen Hegoaldeko Euskal Herrian.

Ordura arte, idazle hauek Euskal Herria Frantziaren barne bazekusaten ere, kezkatuak ziren euskaraz, eta hau lantzeaz arduratzen ziren. “Aberri txikia”-ren eta “Aberri handia”-ren kontzepzioa existitzen zen; hau da, Euskal Herria eta Frantzia. Nahiz eta Euskara eta Euskal Herriaren aldeko kezka maila kultural edo folklorikoan gelditu, egin ziren aurrerapausoak ukaezinak dira. Lehen Mundu Gerrarekin, baina,

gauzak asko aldatu ziren. Frantziaren alde borrokatzera joan behar izan zuen makina bat euskaldunek, gerraren nondik norakoak ganoraz jakinen ez bazituzten ere. Frantziaren aldeko jarrera nabaria hartu zuen orduan makina bat euskaltzalek, euskararen alde hainbeste kezka erakutsi eta euskaraz hainbeste idatzi zuen Hiriart-Urrutiren “Biba Frantzia” *Eskualduna* kasetako artikuluan islatzen den bezala (Hiriart-Urruty, 1995). Bigarren Mundu Gerrak lehenengoak sortu sentimendua indartu baino ez zuen egin, hots Frantziarekiko identifikazio politiko, nazional eta sinbolikoa areagotu zen.

Hegoaldean ere, konbentzioaren eta independentziaren gerrek eta ondoren etorri ziren karlistadek ez zuten eragin positiborik izan euskararentzat. Besteak beste, ikusi besterik ez dago euskarak nolako atzerakada pairatu zuen Nafarroan, Orbaibarretik eta Izarbeibartik Iruñe pareraino etorri baitzen euskararen muga, gero Aezkoa-Ultzama-Irañeta lerroraino igotzeko. XX. mende hasieran, Bizkai-Gipuzkoetan, batez ere, Sabino Aranak garaturiko abertzaletasunak indar handia hartu zuen, eta Arturo Campión-en ideiek ere izan zuten oihartzunik Nafarroako lurlean. Hala ere, gero etorri zen Gerra Zibilak kalte itzela eragin zion euskarari eta euskal sentimenduari. Gainera, espainiar herritartasuna errotu zuen nafar askoren bihotzetan.

1960an, Ipar Euskal Herriko abertzaleak Enbata taldearen inguruan bildu ziren, eta izen bereko aldizkaria ateratzen ere hasi ziren. 1963an, gainera, lehen aberri eguna antolatu zuten Lapurdiko Itsasun (Camino, 2016: 48). Erabat frantsesa zen hezkuntza-sistemari aurka egin, eta haurrak euskaraz hezi nahian, 1969an, Lapurdin lehen ikastolak sortu ziren eta Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa ere eratu zen, Seaska, hain zuzen ere. Lehen ikastetxea Arrangoitzen abiatu ondoan, ondoko urtean, besteak beste, ikastola Donibane Garazin zabaldu zen (Camino, 2016: 48). Ez da ahazten ahal Irulegiko Irratiaren garrantzia ere. 1981an sortu zen Nafarroa Behereko bizia eta euskararen presentzia sustatzeko helburuarekin. Probintzia honetako irratirik entzunenetakoa da gaur egun.

Zernahi gisaz, egungo egunean, Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala, eta Frantziako estatuak Europako Kontseiluaren Eskualdeetako eta Gutxituriko Hizkuntzen aldeko Europako karta sinatu bazuen ere, ez du sekula onetsi eta praktikan jarri. Konstituzioaren aurka doala eta Frantziar gutxiengo nazionalik ez dagoela argudiatzen dute horretarako (Coyos, 2006: 4). Ikastolak, Euskal Irratiak, Kanaldude, Ipar Euskal Herriko Hitza eta *Herria* astekaria dira %100 euskaraz ari diren bakarrak Iparraldean.

Horietatik kanpo, euskara gorderik dago, ez du presentziarik; eta beraz, ez da baliagarria eta ezta beharrezkoa ere. Nortasun kolektiboari eta kulturari loturik dago erabat, balio funtzional eta praktikorik izan gabe (Coyos, 2006: 7-8). Vandekerckhove-k (2009: 101) dioen bezala, lurraldeetako hizkuntzei arnasa emateko egiten diren ekimenak Frantsesaren hegemonia ukalezina den testuinguru linguistikoan garatzen dira.

Luzaiden, estatus aldetik bederen, egoera hobea du euskarak. Herri hau Nafarroako eskualde euskaldunaren barnean dago. Euskara, beraz, ofiziala da gaztelaniarekin batera. Dena dela, Luzaidek euskara gorde badu, hein handi batean, muga ondoan egoteagatik izan da, Aezkoan edota Erroibarren galera aise handiagoa izan baita. Luzaidarrek ez zuten egunerokotasunean harremanak izatera behartuta zeuden arnegiarrekin edota donibandarrekin mintzatzeko euskara beste mintzorik. Gaur egunean, ordea, euskara praktikotasuna galtzen ari da. Iritzi berekoa da Montoya Luzaideri egite duten Zugarramurdi eta Urdazubi herrietako euskararen egoeraz aritzean. Ikerlari honek (2003) erranari jarraikiz:

Zugarramurdin eta Urdazubin euskarari ondo eusten zaion arren, egoera aldatuz doa, eta auzoekin oraindik nagusiki euskara erabiltzen badute ere, frantsesak eta gaztelerak gero eta indar handiagoa dute, eta beraz, gerta liteke urte batzuen buruan euskarak bere praktikotasuna galtzea eta harremanak egiteko nahitaezkoa izateari uztea (15).

Datu zehatzak ematen hasita, 1968ko erroldan oinarrituta, Pedro Irizarrek 1981ean, Euskal Herriko herri bakoitzeko euskaldun kopurua eman zuen argitara. Garazi ibarreko datuei bagagozkie, biztanleen %100 zen euskaldun Aintzilan, Behorlegin, Gamarten, Suhuskunen, Lasan, Arnegin eta Mendiben. %90 euskaldunetik gora zeuden Ahatsa-Altzieta-Bazkazanen, Buztintze-Hiriberrin, Zaron, Ezterenzubin, Izpuran, Jatsun, Lekunberrin, Eiheralarren eta Irulegin. %80-90 bitartean Duzunaritze-Sarrasketan, Lakarran, Donazaharren, Donibane Garazin, Anhauzen, Azkaraten eta Luzaiden. Azkenik, %70-80 bitartean euskaldunak ziren Ainhiza-Monjolosen eta Uharte Garazin (Irizar, 1981: 208, 211). Irizarrek berak Eiheralarrez erraten zuenez, haurrek etxean ikasten zuten euskara, baina eskolara joan eta alde batera uzten omen zuten (Irizar 1981: 208). Gure lekuko ugarik baieztatu ahal izan digutenez, egoera, inguruko herrietan ere berdintsua zelakoan gaude.

1979ko datuetara bagoaz (Siadeco, 1979), Garazin, garai hartan, %80-100 euskaldun zela ageri da Uharte Garaziren salbuespenarekin, herri honetan ehuneko

%60-80koa baitzen. Lafitte zenak zioenez, erdararen presentzia handia zen Donibane Garazi hiriburuan (Siadeco, 1979: 28-29). Behe Nafarroa osoa ere, salbuespen batzuk gorabehera %80-100 euskaldun ageri zen. Zuberoan berriz, Pettarra %40-60 bitartean zebilen, Arbaila %80-100 bitartean eta Basabürüa %60-80 artean.

EDB Euskararen Datu Soziolinguistikoen Biltegian ageri denez, 1996an Zuberoa eta Nafarroa Beherean, %64 zen euskaldun, 2001an %60,9, 2006an %55,5, 2011an %52,1, eta 2016an %49,5. Adinekoak dira beti euskara gehien dakitenak, eta gazteak berriz gutxien. Iparraldean, oro har, 15-34 urte bitartekoengan gorakada antzematen bada ere, Nafarroa Behere eta Zuberoaren kasuan, egonkortzea baino ez dugu ikusten. Datuok aztertuta, argi dago, beraz, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, tartean Garazi ibarra, euskararen atzerakada pairatzen ari direla. Ez dugu herriz herriko daturik, Frantziako estatuak ez baitu zentsuan euskaldun kopuruari buruzko daturik jasotzen.

Luzaiderako, honako datuak ditugu: 1996an %60 zen euskaldun eta 2001ean, berriz, %66. 2006 eta 2011ko daturik ez dugu. Ia euskaldunak, berriz, 1996an %17 ziren eta 2001ean %16. Euskaldunen gorakada izan zela dirudi Luzaiden, segurenik ere, euskara hutsezko hezkuntza-adarrari esker.

Kale erabilerari dagokionez, berri pozgarriagoak dakarzkigu EDB-k, Nafarroa Beherea eta Zuberoa izan baitzen kalean euskara gehien entzun zen eremua Iparraldean. 2011n %10ekoa zen kale erabilera, eta 2016an, berriz, %14,6ra igo zen. Garazi ibarrari dagokionez, 2011n Donibane Garazin egin ziren neurketak, eta 2016an, baita Donazarre eta Izpuran ere. Ez zen egin datuak erabat fidagarriak izateko beste elkarrizketa. Beraz, datuak orientatzeko baino ez daitezke har. Donibane Garazin, kale-erabilera %6,7koa zen 2011n eta %4,3koa 2016an. 2016. urtean, Donazarreko kale-erabilera %20,7koa zen eta Izpurakoa %15,7koa.

Aurnague eta Duguine-k (2004) Garaziko gazteen euskara-erabilerari buruzko ikerketa xehe bezain interesgarria plazaratu zuten. Aurnague-k egin zuen ikerketa lehenik 1982an, Garaziko kolegioetan ikasleei banatutako inkesten bidez. Hogei urte geroago, 2002an Duguinek errepikatu zuen eta emaitzak konparatu. Inkestak Zitadela eta Maiorga kolegio publikoetan eta ikastolako Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioan egin ziren. Azken hau Oztibarre ibarreko Larzabale herrian badago ere, Garaziko ikastolako ikasleak bertara joaten dira ikastera. Ikasleen adina hamaika eta hamasei urte bitartekoa izan zen.

Ikerlariek ondorioztatu ahal izan zuten, euskararen familiako transmisioa anitz apaldu da Garazin. Senar-emazte euskaldunak geroz eta gehiago ari dira frantsesez, eta hurrei ere gutxiago mintzatzen zaizkie euskara hutsean. Ahozkoan, euskara hutsaren erabilera anitz apaldu da frantsesaren eta bereziki jokabide “elebidunaren” alde. 1982an %46k euskara ongi zekiela zioen, eta %33k erabiltzen zuen. 2002an, aldiz, gaitasunaren ehunekoa %46n mantendu arren, %9k baino ez du euskara hutsa erabiltzen etxean. Horrek gaztetxoek euren gaitasuna gainbaloratzen dutela pentsatzera eramán gaitzake. Gurasoen tipologia ere aldatu da: 1982an gaztetxoek %84k bi gurasoak euskaldunak zituen, eta 2002an, berriz, %55ek. Gaur egun, familiako transmisioaren lekua eskolak hartu duela dirudi, eta instituzio hau onuragarri da euskararen gaitasuna mantén dadin. Hezkuntza-ereduari dagokionez, murgiltze ereduak, hots, ikastolakoak dira gaitasun eta erabilera handiena dutenak. Herrien arteko euskaldunen ehunekoen aldeak ere txikitu dira eta frantsesa mendi zokoetako herrietaraino sartua da jada (Aurnague & Duguine, 2004: 203-205).

2.6.2. Hizkuntza-heriotza Garaziko lekukoén ahotan

Zenbakietarik landa, Garazin euskara bizitzen ari den atzerakada hobeki ulertzeko, gure informatzaileei beraiei galderak egitea pentsatu dugu, egoera nola bizi duten eta ze iritzi duten jakiteko.⁷ Erran beharra da iritzi hauek ezin direla Garaziko populazio osoaren ordezkari hartu, gu laguntzeko prest agertu den jendea, beste anitz ez bezala, aski euskaltzale baita. Lau galdera pausatu dizkiegu: euskara galtzen ari da Garazin? Zergatik? Ze balio ematen diozu euskarari, eta frantsesari/gaztelaniari? Norekin erabiltzen duzu euskara? Erakutsi diezu euskara seme-alabei? Lehen bi galderen kasuan, iritzirik interesgarrienak ekarriko ditugu. Azken bi galderen kasuan, berriz, datuak kuantifikatzen saiatu gara.

2.6.2.1. Euskara galtzen ari da Garazin?

Luzaideko adineko emaztearen ustez, Donibanen lehenago beti euskaraz egiten zen, karríkan eta alde guztietan. Orain baino aise gehiago. Gaur egun, beharbada, gaztelania hobeki ulertzen dute euskara baino. Arnegin euskararekin segitu dutela iruditzen zaio.

Gamarte-Ainhizako gizon helduaren ustez ere, Donibane Garazin denetan ari ziren euskaraz lehen: epizerietan, optikalariarenean, kooperatiban, etab. Medikuren

⁷ Informatzaile kopuruari eta hauen ezaugarri soziolinguistikoei buruzko informazioa jakiteko, ikus 3.1. §.

batekin salbu, beste denekin euskaraz ari ziren %80n. Irulegi-Anhauzeko emazte helduaren aburuz, 1980 baino lehenxeago hasi zen jendea frantsesez mintzatzen.

Luzaideko egoeraren berri ematen digu bertako ikastolako gizon gazteak. Bere hitzetan, aita, auzoa eta haien lagunak beti ari dira euskaraz eta beraiek sekula ere ez. Lehen, segur da ostatueta, erdia baino gehiago ari zela euskaraz, eta orain, denak ari dira gaztelaniaz. Gurasoen falta da, telebistaren falta ere bai. Gauza anitzengatik da. Etxe anitzetan hautsi da transmisioa.

Arnegi-Lasako adineko emaztearen aburuz, bere adinekoak beti ari dira euskaraz. Alta, bere alabaren adinekoak beti ari dira frantsesez. Bestetan, etxe inguruak egiten dituztelarik ere, bakar batzuk baino ez dira euskaraz mintzatzen direnak. Hurrek frantses eskolatan ikasten dute, eta etxera arribatzen direlarik, frantsesez mintzatzen dira. Batzuetan, eskolara joan aitzin ere, aita-amak frantsesez mintzatzen zaizkie hurrei. Lehengo aita-amak laborari ziren, eta ez ziren etxetik ateratzen, beraz, hurrek horiekin euskaraz ari ziren. Alta, orain, aita-amek kanpoan lan egiten dute, eta han frantsesez ari dira. Gero hurrek eskolatik heldu direnean ere frantsesez jarraitzen dute. Beraz, frantsesa nagusitzen da etxean. Norbere falta ere bada; adibidez, dendetan lehen hitza frantsesez erraten baitute. Gaur egun, aldiz, berpiztea gertatzen ari dela iruditzen zaio. Kontzientzia hartzen ari da anitz gazte azken 10-15 urteetan. Euskara jakiteak ez duela inor ere gibelarazten ohartu da jendea. Adibidez, bere auzoan, guraso batzuk beti ari ziren hurrei euskaraz, baina hurrek frantsesez ematen zuten arrapostua. Amatzik beti erraten zien: “ez dakizie eskuara?” Orain, haur horietarik batek beste haur bat ukan duelarik, etengabe euskaraz ari zaio. Horra hor, itzulikamendua.

Galtze horretan eskolak izan duen garrantzia aipatzen digu Hergaraiko adineko gizonak. Berak dioenez, behin eskolan abiatu ezker, beraien euskarak gibelera egiten zuten. Oroitzen da jendakien etxera Behorlegira joaten zelarik, frantximanta zela erraten ziotela. Eskolagatik da galdu euskara hein handi batean. Hitz gutxiz, erakutsia zitzaie euskararekin ez zela urrun joaten ahal. Ikastolen lana oso baliotsua dela iruditzen zaio. Ikastolei esker da jendea ohartu euskara atxiki beharraz. Orduko hurrek, eskola utz eta, bizitza aktiboan sartzen zirelarik, euskara berreskuratzen zuten. Gaur egun, ordea, zaila da hori gertatzea. Eskola da euskara emendatzeko gakoa. Etxetik behar da partitu, baina ez da aski etxearekin.

Ezterenzubiko eta Arnegi-Lasako adineko emazteek euskaraz mintzatzen zenari eskolan “xirioa” ematen ziotela kontatzen dute. “Xirio” hori klase bukaeran eskutan zuenak zigorra jasotzen zuen, 100 lerro kopiatzea adibidez. Garai berriagoetan, Arnegi-Lasako emazte helduak dioskunez, errientsak gurasoei erraten zien hurrekin etxean frantsesez aritzeko, euskaraz ari izanez gero, frantsesaren ikasteko nekeziak ukanen baitzituzten.

Gamarteko adineko emazteak hiriak nagusitzea jotzen du euskara galtzearen arrazoi nagusitzat. Landa eremuko gazteak hirira joaten hasi ziren eta hiritarren pareko izan nahi zuten. Landa eremura itzultzean, hiriko ohiturak eta hizkuntza ekartzen zituzten.

Eskolaz gain, telebistaren eragina aipatzen du Hergaraiko emazte helduak. Garai hartan, ez ziren hain kontziente euskara galtzen ari zela, adineko guztiak ari baitziren euskaraz. Bere erranetan, gaur egun, badira Behorlegiko gazte batzuk euskara batere ez dakitenak. Badira arrunt euskararen kontra daudenak ere. Denak ez zeuden herrian ados berak eta senarrak haurrak ikastolan ezartzea erabaki zutenean. Orain, gauzak pixka bat aldatzen ari direla uste du.

Faktore gehiago azaltze aldera, gazteen mugikortasun handiagoa aipatzen du Hergaraiko gizon helduak. Horrekin loturik, ikasketak egiteko Frantziako hiri handietara joan beharraz aritu da Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gaztea. Gamarte-Ainhizako gizon helduak, berriz, kontzientzia falta, axolagabekeria eta administrazioa zerrendatzen ditu. Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak sare sozialen eta interneten eragina aipatzen du. Ongi erabil badaitezke ere, ez da baitezpada hautatzen ikusten dena. Momentu guziz eguneratzen da informazioa, eta jendeengan sartzen den edukia ia beti erdarazkoa da. Kanpoko kultura anitz barneratzen da, bertako kulturaren kaltetan. Kontzientzia ukan beharra dago tresna horiek ongi baliatzeko, eragin handia ukaiten ahal baitute gizartean. Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazteak mundu-gerlek euskalduna izatearen konplexua sortzean izan duten eragina azpimarratzen du.

Hiztun anitzek aipatzen dute ikastolei esker azken urteetan gertatzen ari den susperraldia, beti eta ikasle gehiago baititu ikastolak. Hala ere, gaur egungo egoerarekin kritiko ageri da Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea. Garaziko ikastolara joaten delarik, pena hartzen du, haur guztiak frantsesez entzuten baititu. Bere

garaian, ikastolan ikasten zutenak, denak ziren aita-ama militanteen seme-alabak, eta euskaraz ari ziren etxean. Beraiendako biziki natural zen euskaraz mintzatzea. Ongi iruditzen zaio aita-ama frantsesek haurrak ikastolan ezartzeko hautua egitea, baina horrek baditu alde txarrak ere, frantsesez ari baitira haur horiek, eta ingurukoak ere frantsesez ariarazten baitituzte. Etxean arrunt euskaraz ari diren haurrak nolanhika frantsesez entzuten ditu. Guraso frantsesek ere, euskaraz ikasteko eta aritzeko indar bat egin beharko lukete.

Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak dioenez, Ahatsan zahar guziek badakite euskaraz, baina bere aita-amen belaunaldikoetan eta bere adinekoetan, gutik biziki. Bi belaunalditan anitz galdu da. Euskaltzaletasuna zerbait arriskutsutzat ikusia zen. Kontzientzia faltagatik ere galdu da. Euskarak susperraldia izan du ikastolari esker, baina Garaziko ikastolako haurrak frantsesez ari dira ardurenean beraien artean. Badira bere herrian, euskara badakiten gazteak, familia euskalduna baitute, baina ingurune frantsesa dela eta, gero galtzen dute, eta ez dute erraztasunik mintzatzeko. Ez da erraza bere herrian euskararen aldeko ekintzak sustatzea. Bakarra da bere adintsukoen artean euskaraz bizi dena, eta nolabaiteko bazterketa bizi du euskaldun aktiboen kontra.

2.6.2.2. Ze balio ematen diozu euskarari eta frantsesari/gaztelaniari?

Hiztun gehienek balio afektiboa eta identitarioa ematen diote euskarari. Frantsesari edo gaztelaniari, berriz, balio praktikoa ematen diote.

Luzaideko adineko gizonak, adibidez, euskarari balio gehiago ematen dio, beraien betidaniko hizkuntza baita. Gaztelaniaz mintzatzeko ere, lehenik euskaraz pentsatu beharra du erran nahi duena. Alta, hegoaldera buruz, dena gaztelaniaz da, eta gaztelania jakin beharra dago edozer gauza egiteko. Iparraldera buruz, euskara gehiago baliatzen ahal da, baita frantsesa ere, bistan den bezala.

Arnegi-Lasako adineko emazteak dioenez, heldu den paperreria guztia frantsesez idatzia da, eta derrigortuak dira frantsesez arrapostu ematera. Hala ere, ez dezake onar euskara beraien artean galtzera uztea. Bere izatea euskalduna da. Nahiz eta frantsesez mintzatzera derrigortu, euskaldun sentitzen da.

Hergaraiko adineko emazteak diosku luzaz erran eta pentsatu izan dutela euskara ongi dagoela beraien arterako, baina norabait bizia irabaztera joateko, euskararekin ez

daitekeela urrun joan. Hau oso pentsamendu hedatua izan da, Garazin eta Euskal Herriko hainbat txokotan. Dudarik gabe, euskararen heriotza izan du emaitza.

Eleaniztasunaz kontzientziaturik daude gure lekukoetarik anitz, eta frantsesetik landa, gaztelania edota ingelesa ere beharrezko ikusten dituzte, Gamarte-Ainhizako adineko emazteak, adibidez.

Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gaztearen arabera, Euskara bihotza da, xoko hauek salbatu dituena. Bere hitzetan, guk euskara salbatzen dugu, baina euskarak salbatzen gaitu gu. Kultura hori izan ez balitz, mendi xoko hauek hustuak ziratekeen. Erabilpen automatikoa da euskararena. Alta, orainokoaan administrazioa frantsesez da. Frantziatik heldu dira laguntzak Euskal Herria ofizialki existitzen ez deino. Frantziak dakarrenarekin batera heldu da frantsesa. Hala ere, gaur egun, frantsesa baino garrantzitsuago dira gaztelania edo ingelesa.

Beste lekuko zenbaitek frantsesak edota gaztelaniak duen balio praktikoa gorabehera, erabateko lehentasuna ematen diote euskarari. Mundu abertzaleari lotuak dauden lekukoengan atzeman genitzake era honetako iritziak. Arnegi-Lasako gizon helduak Euskal Herria izugarri maite duela dio, bere burua euskalduntzat jotzen du eta euskarak frantsesak baino aise balio handiagoa du beretako. Etxean berean, frantsesera lerratzen direla ikusten du eta horrek kezka sortzen dio. Bere hitzetan, euskarak balio handia du, euskara gure lengoaia baita eta Euskal Herria gure lurra. Frantsesa behar da, momentuko, maleruski, Frantziaren peko baikara.


Ildo berekoa da Gamarte-Ainhizako gizon helduaren iritzia ere. Euskara bere hizkuntza da eta atsulutuki atxiki nahi du. Ez dio deus ere kendu nahi frantsesari, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe baita. Hala ere, ez dezake jasan frantsesak euskarari lekua ken diezaion. Biak ber heinean balira, kontent litzateke. Egun batez, administrazioa euskaraz baledi, euskara bere lekuan ezarri dugulako marka litzateke. Frantsesa frantsesen hizkuntza da, ez euskaldunena.

2.6.2.3. Euskararen erabilera

Lekukoek eman dizkiguten arrapostuak euskaraz usuago ari direnen eta erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) gehiago ari direnen artean sailkatu ditugu.

	Euskaraz gehiago		Erdaraz gehiago	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	10	83,33	2	16,67
Helduak	7	58,33	5	41,67
Gazteak	13	54,17	11	45,83

1. taula: euskararen erabileraren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




3. irudia: euskararen erabileraren ehunekoak adinaren arabera

Hiru adin taldeetan euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenak dira nagusi. Hala ere, gure lekukoen artean, Garazin egunerokoan atzeman genezakeena baino egoera aise hobe dugu. Funtsean, jende euskaldunarekin eta euskararen aldeko jarrerak dituenarekin mintzatu gara, uste izatekoa den bezala. Hala ere, belaunaldien arteko galera garbi ageri da. Adinekoak euskaraz bizi dira, nabarmen. Helduen kasuan, euskararen erabilera aski apaltzen da eta gehiago oraindik gazteen artean.

Orain, berriz, genero bakoitzari dagozkion emaitzak emanen ditugu 2. taulan eta 4. irudian.

	Euskaraz gehiago		Erdaraz gehiago	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	13	54,17	11	45,83
Gizonak	17	70,83	7	29,17

2. taula: euskararen erabileraren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera



4. irudia: euskararen erabileraren ehunekoak generoaren arabera


Generoaren arabera ere badago aldea. Euskaraz gehiago aritzen direnen ehunekoa aise goragoa da gizonen artean emazteen artean baino.

2.6.2.4. Euskararen transmisioa

3. taulan eta 5. irudian, euskararen transmisioari dagozkion arrapostuak erakutsiko ditugu.

	Bai		Ez erabat		Ez du seme-alabarik	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	8	66,67	2	16,67	2	16,67
Helduak	6	50	5	41,67	1	8,33

3. taula: euskararen transmisioari dagozkion kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




5. irudia: euskararen transmisioari dagozkion ehunekoak adinaren arabera

2.6.7.1. §-ean lekuko zenbaitek erran bezala, helduen belaunaldia da batez ere euskara galdu duena. Gainera, hauek dira euskara gutxien transmititu dutenak. Euskal Herriko beste eskualde batzuetan ez bezala, Garazin, kasu gutxitan gertatu da gurasoen erabaki espresagatik hurrei euskararik ez erakustea. Etxean euskara transmititu da, baina haurrak eskola publiko frantsesera joan direlarik, euskara alde batera uzten eta frantsesa etxera sartzen hasi dira, etxeko guztiak ere frantsesera lerraraziz. XX. mendearen bigarren erdian, estatuaren indarra bizitza publiko nahiz pribatuko eremu ia guztietara heltzearekin bat, helduen belaunaldiak euskara ahaztorratu du. Hori dela eta, helduendako errazagoa izan da beraien seme-alabekin euskaratik frantseserako jauzia egitea.

Generoaren arabera eskainiko ditugu emaitzak orain.

	Bai		Ez erabat		Ez du seme-alabarik	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	6	50	6	50	0	0
Gizonak	8	66,67	1	8,33	3	25

4. taula: euskararen transmisioari dagozkion kopuru eta ehunekoak generoaren arabera



6. irudia: euskararen transmisioari dagozkion ehunekoak generoaren arabera

Euskararen erabileraren kasuan bezalaxe, transmisioari dagokionez ere, emaitzarik okerrenak emazteenak dira, beraiek transmititu baitute euskara gutxien.

2.7. Dialektoen *levelling*-a edo berdintzea

Dialektoen arteko *levelling* edo berdintzeak sozialki edo lokalki markatuak diren aldaerak ezabatzea dakar, mugikortasun sozial edo geografikoaren eraginez sorturiko dialektoen arteko kontaktuaren ondorioz. Prozesu hau eskala handian gertatzen da. Sozialki egituratuta dauden hizkuntza-arau multzo konplexuak eta historian zehar mantendu izan diren sare sendo eta lokalizatuak haustearen ondorioztat har liteke (L. Milroy, 2003: 158). *Levelling*-a gertatzeko, hiztunek epe luzeko konbergentzia jarraitu eta errepikatua izan behar dute (Hinskens, 1998: 42). Hainbat dialektotako hiztunak elkarrekin harremanean jartzean, konbergentzia gertatzen den bezala, dibergentzia ere gerta liteke. Azken hau, halere, salbuespena litzateke Bellen (1984: 185) ustez, eta konbergentzia, berriz, araua.

Levelling-ak dialekto indibidualak homogeneousoago eta dialekto desberdinak berdina egiten ditu, eta beraz, hizkuntza-aldakortasuna urritzen du (Hinskens, 1998: 35-36). Besteekiko egokitze honetan, dialektoek euren ezaugarri nabarmenenak baztertzen dituzte lehenbizi (Auer & Hinskens, 1996: 9). Ereku zabalagoa dutenak zailagoak izanen dira berdintzen (Auer & Hinskens, 1996: 14).

Levelling-aren kausei helduz, hizkuntza-heriotza eragiten dutenen bertsuak direla erran liteke. Besteak beste, bateratze nazionalaren testuinguruan gertaturiko azpiegitura, ekonomia, politika eta kultura arloko aldaketen ondorioa da, baita industrializazioaren eta urbanizazioaren eraginez gertaturiko mugikortasuna handitzearena ere (Auer & Hinskens, 1996: 4).

Hernández-Campoy (2003: 23, 26; 2016: 59) nazio-estatua, eskola eta komunikabideak aipatzen ditu kausatzat. Nazio-eraikuntza eta identitate nazionalaren eraikuntza eta hautematea estatu-mailan kontzienteki planteaturiko proiektua izan da, eta hizkuntzaren bariedade estandarrak berebiziko garrantzia izan du horretan (Hernández-Campoy, 2003: 23). Horretarako, neurri handian, nazioa eskolaz baliatu da. Azken hogeita bost urteetan, alfabetatugabeen kopurua ikaragarri jaitsi da, eta bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasketak dituztenen kopurua hazi. Nola ez, ikasketak horiek guztiak estandarrean egin dira (Hernández-Campoy, 2003: 26).

Komunikabideek ere eragin nabarmena izan dute estandarren hedapenean. Informatzeaz gain, hezi ere egin dituzte ikus-entzuleak, hizkuntza-ideologiaren produktioa eta hedapena segurtatuz. Komunikabideek hizkuntza-kode, bariedade eta estilo batzuei garrantzia eman diete, eta beste batzuk, aldiz, baztertu egin dituzte. Ardura, gainera, aurkezleak hartzen dira egokitasun linguistikoaren modelo nazionaltzat (Hernández-Campoy, 2016: 59), eta horrek, beraz, eragina du hiztunen mintzoan.

Levelling kontzeptua ulertzeko, *base dialect* eta estandar kontzeptuak azaldu beharra dago lehenik. Bellmann-en (1998: 23) arabera, hau da *base dialect* edo oinarriko dialektoaren definizioa: “a variety spoken in a restricted, usually rural local place, and differing from the overarching standard in a maximum number of linguistic features”. Estandarren azpiko *continuum*-ean posiziorik apalena hartzen du. Kontzeptu hau *folk speech* delakoaren biziki iduria da. Aurrekoetxeak (2008: 17) oinarri dialektala izena eman zion euskaraz. Cassidy-ren (1988: 329) aburuz, etxean eta norberaren taldean ikasten den mintzoa da, familiakoekin eta lagunekin, hain zuzen ere; ez da

eskolakoa, eta ezta liburuetakoa edota kanpora begira dauden bestelako komunikazio erei dagokiena ere. Tradiziozkoa da eta erabat ahozkoa.

Estandarrari dagokionez, berriz, Penny-ren (2000: 194) arabera, estandarizazioa hizkuntza idatziaren barruan gertatzen den prozesua da, idatzirik gabe posible ez dena. Berdintasun “legitimatua” ezartzen du, nazio-estatuaren identitate batua (J. Milroy, 2001: 547), eta prestigio ekonomiko, politiko, historiko eta erregionala ziurtatzen ditu. Motibazio ideologikoak ditu, nazio-eraikuntza eta zentralizazio nazionalistara buruzko joera, hain zuzen ere, era sinbolikoan, barne integrazioa eta kanpo segregazioa bultzatzen baititu (Hernández-Campoy, 2016: 106). Estandartzat barietate bat hartzeak beste guztiei balioa kentzea dakar, estandarra zuzentasunaren eredutzat har baitaiteke. Hori dela eta, beste barietateak okerrak direla pentsatzen da usu (Hernández-Campoy, 2016: 58). Estandarra, beraz, erregistro formalarekin lotzen da eta dialektoak informalararekin (Hernández-Campoy, 2016: 38). Hernández-Campoyren (1999: 93) iritziz, ez da lotu behar barietate formala estandarrarekin eta informala ez estandarrarekin; izan ere, egoeraren arabera, edozein dialekto erabil liteke estilo formalagoetan edo informagoetan.

Goeman eta Jongenburger-ek (2009: 31) diotenez, dialektoa aldeztu da jendeak bizitzeko era tradizionala duenean, adinekoak, gizonak, ikasketa gutxikoak direnean, eta gutxi urbanizaturiko lurraldeetan bizi direnean. Dialektoan goiz sozializatzeko eta dialektoen biziraupenaren aldeko jarrera izateak dialektoak bizirautean ondorio positiboak ditu. Modernizazioak (tartean hezkuntza-maila gora izateak), aldiz, dialektoen erabilera baztertzen du (Goeman & Jongenburger, 2009: 61).


Estandarraren eta dialektoaren arteko *levelling*-a bertikalki edo horizontalki gerta liteke; hots, dialektoen estandarera buruzko konbergentzia gerta liteke (bertikalki), baina, era berean, hainbat dialektoren arteko distantzia ere gutxitu egiten da (horizontalki), hauek iduriago bihurtuz (Auer, 1998: 1-2). Usaian batera doazen prozesuak badira ere, posible da bereiz gertatzea; izan ere, dialektoak elkarren artean berdinduz litezke horizontalki, estandarretik desberdina den emaitza sortuz (Auer & Hinskens, 1996: 9; Hinskens, 1998: 48). Bateratzea bertikalki baino ez bada gertatzen, berriz, bateratze dialektal monozentrikoa gertatzen dela erran liteke (Aurrekoetxea, 2006: 136).

Konbergentzia bertikalaren eta horizontalaren ondorioz, estandarraren eta dialektoen artean, erdibideko barietate ugari sortzen dira (batzuetan, baita dialektoen artean ere). Erregiolekto, lekuko estandar eta barietate supralokal terminoak erabiltzen dira horiek izendatzeko. Hori horrela izanik, bi poloren artean, eskala jarraituan, diglosia beharrean, diaglosia da atzematen duguna (Bellmann, 1998: 23-24).

Estandarraren eta dialektoen arteko erdibideko formak garatzen direnez gero, erran liteke dialektoak hiltzen ari direlako *cliché*-a faltsua dela, erdibidean dauden barietate supralokalek hartu baitituzte dialektoek lehen zituzten funtzio sozial ugari; errate batera, talde barruko mintzo informalarrena (Auer, 1998: 5). Erregionalizazio honek eskualdea komunitate lokala ordezkatzeko ari dela erran nahiko luke, eskualdeko identitate eta afiliazioa sortuz. Horrek ez du erran nahi “toki” lokalak garrantzitsu izateari utzi dionik, baizik eta jendea “toki” anitzekin identifikatzen dela momentu berean; hala nola, herria, eskualdea, nazioa, kanpoko mundua.

Ikerketa ugari erregiolektoak sortzean hiri handiek duten garrantzia azpimarratu dute. Hiri hauetan, dialektoak aspaldi galdu ziren, eta erdibideko barietateak bihurtu ziren mintzatzeko era erregionalena (Auer & Hinskens, 1996: 10). Erdigune industrialak ere garrantzitsuak dira konbergentzia gertatzeko, inguruan sortzen diren herri periferikoak direla eta (Auer & Hinskens, 1996: 19).

7. irudian, dialekto tradizionalaren edo oinarri dialektalaren eta estandar nazionalaren artean gertatzen diren *levelling* edo berdintze motak erakusten dizkigu Røyneland-ek (2009: 9) Auer & Hinskensengana (1996) oinarriturik.



7. irudia: dialektoen *levelling*-aren modelo multidimentsionala (Røyneland, 2009: 9)

Aurrekoetxearen arabera (2006: 149), barietate erregional estandarra edo eskualdeko estandarra (*regional standard variety*) nazioko barietate estandarraren azpibarietatea da; hau da, eskualde bateko hiztunek hizkuntza estandarrean

dihardutenean mintzatzen dutena. Erregiolektoa (*regional dialect*), berriz, eskualdeko mintzoa edo dialekto erregionala litzateke, dialektoan arituz, herriko hizkeraren ezaugarri lokalenak baztertuz egina. Behetik hasi eta lehenengo bietan agentzia rola dialektoak luke eta hirugarrenean eta laugarrenean, berriz, estandarrak (Auer & Hinskens, 1996: 8).

RØynelandek oinarri dialektalaren, estandarraren eta erdibideko barietateen artean honako harreman motak bereizten ditu:

A eredia: erdibideko diglosia (estandar endoglosikoa dago, batez ere idatzia dena).

B eredia: diglosia mintzatua (estandar endoglosikoa dago, idatzia eta mintzatua dena).

C eredia: diaglosia (estandarraren eta oinarrizko dialektoaren arteko *continuum*-ean erdibideko barietatek daude).

D eredia: dialekto tradizionalak galduta daude.

Lau eredu hauek Europa ia osoko kasuak azaltzeko balioko lukete.⁸ Hala ere, Auer-en arabera, eredurik hedatuenak C eta D lirateke (RØyneland, 2009: 18-19). Badirudi, beraz, behinola atlas dialektaletan jaso ziren hizkuntza-barietate ugari galtzen dabilzala. Hala ere, eskualdeko barietate berriek dialektoak bizirautea bermatu dute, hein batean (Auer & Hinskens, 1996: 10).

Aurrekoetxearen (2006: 156) aburuz, zaila da jakitea zergatik sortzen diren erregiolektoak lurralde batzuetan eta ez beste batzuetan. Estandarretik dialekto tradizionalera dagoen hizkuntza-distantzia aipa liteke arrazoi moduan, baina lurraldearen historia, tradizioa eta kultura propioa ere kontuan hartzekoak dira. Auerrren (1998) arabera, dialektoen galera, *levelling*-a, eta erregiolektoen sorrera ulertzeko identitatea eraikitzeko moduak ulertu beharra daukagu:

In the opinion of the present author, we will not be able to fully understand the linguistic processes of convergence between standard and dialects and/or between dialects unless we consider how the variables involved are used by their speakers for social processes of affiliation and distancing, i.e.

⁸ Auerrren (1998: 2) arabera, adibidez, Danimarkan, dialektoak ia erabat galduta daude. Espainian, Alemanian, Herbehereetan, Suitzan edota Flandrian aski bizi daudela erran liteke, eta Norvegian, berriz, estandarrak ez dauka ia batere eraginik.

for “acts of identity” (Le Page) in a complex modern society in which group boundaries are no longer defined along geographical borders but have to be drawn in a dynamic social space. As a consequence, social dialectology has to be interpretative in nature, i.e.m it must not lose sight of the way in which speakers themselves look upon the variables and varieties in question, how they interpret them socially and how they employ them in everyday social life for whatever “acts of identity” they are involved in (8).

Errate batera, usu estigmatizaturik dauden arau lokalak sozialki boteretsuago diren hizkuntza-komunitateen presioen aitzinean mantentzea desberdintasuna atxikitzeko desiratzat har liteke (L. Milroy, 2003: 160). 1970etik goiti, dialektoak berpizteko saiakerak egin dira lurraldearekiko afiliazioa eta identitate erregionala erakusteko. Ardura, jarrera antizentralista dute gibelean. Etorkizunean, ikusi beharko da jarrera hauek dialektoak bizi daitezen balioko duten edota erregiolektoak indartuko dituzten (Auer & Hinskens, 1996: 5).

Taldeman-ek (1998: 20) dialekto flandriarrak ikertzean, dialektoek *levelling*-ari aurre egin diezaioketen honako egoerak bereizi zituen:

- a) Dialektoko egitura linguistikoa hizkuntza estandarrekoa edo prestigiodun dialektokoa baino naturalagoa denean.
- b) Polarizazioa: hizkuntza-aldaera bat testuinguru batean oso ohargarria bada, kolore lokalaren eta lurralde-identitatearen osagaia izanen da, eta beraz, *levelling*-a sahiestuko du.
- c) Isoglosa anitz pasatzen diren trantsizio-eremuetan, dialektoen arteko bereizkuntza egiten duen ezaugarri bat edo gehiagok identitate lokala izanen du berarekin eta *levelling* joerei aurre egingen die.

2.7.1. *Levelling*-a euskaran

Hurrengo galdera dialektotik estandarerako bide horretan, Euskal Herrian berean, ia erregiolektorik sortzen ari den izanen litzateke.

Besteak beste, hor dugu Labayru ikastegiak ondu duen bizkaiera batua. Bizkaiko eskualde bakoitzeko aldaera bereizgarriak baztertu dira, euskalki osoarendako komunak direnak aldeztuz. Hala ere, erregiolekto hau aski planifikatua da, eguneroko harreman informalean ez baita erabiltzen. Gaur egun, bizkaiera batuan mintzatzen dira Bizkaia Irratian, Bizkai mailako beste komunikabide batzuetan (adibidez Zamudioko udalaren

web orrian edota www.bizkaie.biz web orrian), eta erregiolekto horretan mintzaten entzuten dugu Bizkaiko pertsonaia publiko andana bat ere.

Aurrekoetxeak (2006: 152) dioskunez, Debagoiengan ere badabilta eredu propioa lantzen. Hala ere, gure ustez, bere indarra aski apala da; besteak beste, Goienkarian, Goiena telebistan eta www.goiena.eus atarian Euskara Batua erabiltzen baita. Egunerokotasunean, berriz, herri bakoitzeko aldaera (estandarren eragin gehiago edo gutxiagorekin) da erabiltzen dena.

Gure ustetan, Donostia aldekoa genuke azken hamarkadetan garatzen ari den erregiolekto garrantzitsuenetarik. Gipuzkerak duen indarra handia da, batez ere XVIII. mendetik aurrera, aita Larramendik egin zuen ekarpenari esker (Zuazo, 2000: 37-60). Euskalki honen eragina Nafarroa iparralderaino ere heldu da (Zelaieta, 2008: 38).

Gaur egun, Gipuzkoa da, alde nabarmenarekin euskara gehien hitz egiten den lurraldea, eta Donostia da, halaber, Euskal Herriko hiriburu euskaldunena. Donostian, EDB-ren arabera, kale erabilera %15,2koa zen 2016an, beste hiriburuetan kopuru hori %5era ere iristen ez zenean. Donostiako gazteek ez dute Euskara Batuan hitz egiten, baina euskalkian ere ez dira ari. Hala ere, denek hizkuntza-ezaugarri beretsuak darabiltzate, batzuk aipatzearren: *det* erako aditz laguntzaile iragankorrak; *zera*, *zerate*, *gera* erako 2. pertsonako eta 1. pertsona pluraleko aditz laguntzaile iragangaitzak; *zan*, *ziran* erako 3. pertsonako lehenaldiko aditz laguntzaile iragangaitzak; *zenuen* > *zenun* erako laburpenak; *azentua* [+2 izatea; *bezela* adberbioa; *ai* erako amaierak *ain* ordez (*arraia*, *artzaia*); edota *dakat*, *zekan* erako *eduki*-ren forma trinkoak. Horiek denak ia donostiar gazte guztiek erabiltzen dituzte sistematikoki.

Beste hiriburuetan ere saiatzen dira gazteak euskalkien ezaugarriak euren euskaran sartzen, Euskara Batuan falta duten informaltasuna lortzeko-edo, baina ez dute Donostian bezalako uniformetasunik.

Gainera, erranen genuke, inguruko herrietako gazteak ere, Donostiako eredu honetara lerratzen ari direla; adibidez, Hernanin, Lasarten, Andoainen edota baita Hondarribia eta Irunen ere. Azken herriotan, adibidez, adin batetik gorakoek *dut* erraten duten arren, gazte ugari entzun izan dugu *guk det* erraten, nahiz eta batuaren forma *dut* izan, bertako oinarri dialektalean bezala. Eragin hori Gipuzkoatik haratago ere badoa

Gasteizen, Algortan eta Iruñean entzun baititugu gazteak *det* eta *zera* erraten, nahiz eta ez izan familiakorik Gipuzkoan.

Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batua ere, erdialdeko euskalkira, edo euskalkien sailkapen berrira arte, gipuzkera deitu izan denera dago begira. Erran dugun bezala, beste probintzietakoarekin konparaturik, handia da Gipuzkoako euskaldunen dentsitatea eta bertan euskarak duen presentzia. Egia da euskara estandarren sorreran, erdialdeko euskarak izan zituztela oinarritzat, tartean, gipuzkera. Hala ere, gaur egun, Euskara Batuan forma bat baino gehiago onarturik dagoen kasuetan, erdialdeko euskalkian, edota erdialdekoan eta mendebaldekoan, bietan batera erabiltzen dena da erabat nagusitzen dena prentsan, telebistan edota eskolan. Joera hori nabarmena da lexikoan, baina baita gramatikan ere. Horrela, beraz, *deus ez* onarturik badago ere, *ezer ez* da ohikoa; *akitua* ordez, *nekatua*; edota *erran* ordez, *esan*. Gramatikan ere, ahoskera belarea dugu *jan*, *josi*, *jarri* bezalako hitzetan; *izanen* ordez, *izango* dugu; *etxeetarik* ordez, *etxeetatik*; *emazteendako* ordez, *emazteentzat*; edota *eginik* ordez, *eginda*. Eragin hori nabaria da Hegoalde osoan, baita Nafarroa ekialdean ere, batez ere euskara ahul dagoen lekuetan. Lan honetan, hegoaldeko batua deituko dugu erdialdeko (eta hizkuntza-ezaugarri batzuen kasuan, erdialdekoarekin batera, baita mendebaldekoa ere) euskalkira begira dagoen Euskara Batu hau. Auer eta Hinskens-ek (1996: 8) deskribaturiko *regional standard* mailakoa litzateke. Erran dugu gure hipotesietarik bat dela luzaidar gazteen artean hegoaldeko batuaren eragina dagoela. Hain zuzen ere, eragin hau izartzeko, Batuan forma bat baino gehiago onarturik dagoelarik, erdialdekoaren alde egiten den kasuak hartuko ditugu kontuan.

Iparraldean indar handia hartzen ari den beste erregiolekto bat Nafarroa-Behereko eta Lapurdiko euskalkietan oinarritua da, iparraldeko batua deitzen dutena. Honek izaera lokalagoa du, gure ustez, *regional dialect* mailakoa. Merezi du Oihartzabalen (1993) hitzak hona ekartzea:

Lehenbizikorik, oroitarazi behar da, Lapurdin eta Nafarroa Beherean mintzaira idatziaren berezitasuna (ahozkoaren eretzean) aspaldidanik onartua eta erabilpenetan sustraitua dela. Are gehiago, probintzia horietan mendeetan zehar landuak izan diren literatura euskarek euskalkien gainetikako idazketa baten kontzeptua beren baitan zekarten. Gisa batez, beraz, tradizio horri buruz, gaurko euskara batua jarraikian bezala heldu dela erran daiteke (79-80).

Zalbideren (2007: 984) ustez, XIX. mende amaieran sortu zen nafar-lapurtera, eta XX.ean zehar garatu. Inork ez zuen berariaz planifikatu baina eguneroko lanketa bidez

sortu zela erran liteke. Sorrera horretan berebiziko eragina izan zuten Larresoroko seminarioak, Belokeko monasterioak eta *Eskualduna* astekariak. 2.6.1. §-ean erran dugun bezala, XIX. mendea garrantzitsua izan zen euskara lantzeko eta eredu bateratu bati buruz aitzinamendu ugari egin ziren. Ordura arte, prestigioa zuen eta elizan erabilia zen lapurterak pisu handia zuen eredu horretan,⁹ baina idazle baxe-nafartarrek ere beraien ekarpena egin zuten.

Garatzen zebilen “protoestandar” harendako mugarri izan zen, dudarik gabe, Lafitte-n (1944) *Grammaire basque navarro-labourdin littéraire*. Xehetasun osoz deskribatu zuen euskalari handiak Lapurdin eta Nafarroa-Beherean garatzen zebilen eredia, eta nafar-lapurtera izena eman zion. Sekulako arrakasta izan zuen lan honek eta eredu bihurtu zen idazle anitzendako. Aintziburu luzaidarrak eta Etxarrenek (2002: 198) Lafitten ikasle batek erran hitzak ekartzen dituzte gogora: “jakiten ahal duzu liburu gotor hura eskuratu genuela fitekara anitzek; geroztik frangotan mahai gainean zabaldu dugu xehetasun balios baten bila, zalantza baten trenkatzeko. Horrela zaigu Lafitte gure bizi guziko erakasle bilakatu”. Aintziburu eta Etxarren-ek beraiek (2002: 11) *Luzaiden gaindi* liburuaren hasieran ere, honela aitortzen dute beren hizkuntza-erabakia: “Nahiz eta obra honetan ahal bezainbat jarraikitzen gatzaizkion Iparraldeko euskara idatziari Piarres Lafitte-k finkatu zuena”. Aipu hauek argi uzten dute gramatika hark ipar Euskal Herrian izan zuen eragina. Duny-Pétre (1959: 59) autore garaztarra bera ere, duela 60 bat urte ohartu zen Lapurdi eta Nafarroa Beherean gertatzen ari zen *levelling*-az.

Zuazoren (2000: 55) ustez, eredu honen garapenak hurbildu egin ditu bi probintziotako hizkerak. Arrazoi hori dela eta, besteak beste, Bonapartek (1863) hiru euskalki bereizten zituen lekuan, Zuazok (2008: 156-157) bakarria izendatu zuen, nafar-lapurtera, hain zuzen ere.

Dударик gabe, nafar-lapurteran oinarritua dago gaur egun beti eta gehiago aipatzen den iparraldeko batua. Hala ere, inork ez du deskribatu, eta beraz, ez dakigu zein diren zehazki bere ezaugarriak. Lafittek (1944) deskribatu nafar-lapurteraren sinonimoa da edo Euskara Batuaren eragin handiagoa du? Eta hala bada zein ezaugarritan? Momentuz, erantzunik gabeko galderak dira horiek, eta beraz, mugatik iparraldeko gazteek, batez ere gaztetxeetako giroan ibiltzen direnek, duten iparraldeko batuaren

⁹ Saroñhandy-k (1924: 608) gogorarazten digun bezala. Liburuetakoa euskara Lapurdikoa izan da mende luzez, eta elizetan igandero hainbat euskaldunek entzun duten euskara ere lapurtera izan da (Camino, 2018: 95).

eragina izartzean, Lafitten nafar-lapurteraren deskribapena (1944) hartuko dugu oinarritzat. Horrez gain, Iparraldeko Euskal Irratietan, Kanaldude euskal telebistan edota *Herria* astekarian erabiltzen duten euskara ere kontuan hartuko dugu, nahiz eta baden alderik esatari edo kazetari batetik bestera. Bien arteko muga ez baita argia, guk ere nafar-lapurtera eta iparraldeko batua terminoak aski era nahasian erabili beste erremediorik ez dugu. 2018an Baionan egin zen *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria* kolokioan ere, behin baino gehiagotan eman zen iparraldeko batua nafar-lapurteraren sinonimotzat.

Hainbat arrazoi ari dira eragiten erregiolekto hau hedatzea: alde batetik, euskaldun kopurua anitz jaitsi da Iparraldean, eta gehiago jaitsiko da oraindik ere. Hori dela eta, euskaldunek, euskaraz hitz egin nahi badute, herritik, eta areago, ibarretik ere irten beharra dute. Bestetik, Euskara Batua Hegoaldeko zerbait bezala dakusate Iparraldean, zaharrek ala gazteek. Dardarkari apikariak ahoskatzen dituzte, sudur mintzoa dute eta gaztelaniazko hitzak sartzen dituzte etengabe. Horiek izan dira Iparraldeko euskaldunek “Hegoaldeko” Euskara Batu hori deskribatzeko eman dizkiguten ezaugarri batzuk.

Aipatu berri dugun *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria* kolokioan arreta berezia eman zitzaion kontzeptu honi arratsaldean egin zen mahai-inguruan. Hauek izan ziren bertan parte hartu zutenak: Itxaro Borda idazlea, Peio Jorajuria *Herria* aldizkarikoa, Jose Luis Aizpurua Euskal Irratietakoa, Aines Dufau Ikas-ekoa, Joseba Garai AEK-koa, eta Naroa Gorostiaga Euskararen Erakunde Publikokoa.


Parte-hartzaile guztiek azpimarratu zuten Euskara Batuaren beharra, baina bertako hitz eta egiturekin osatu beharra zekusaten herriari sobera arrotz gerta ez dakion. Aines Dufau eta Joseba Garaik Ikasen eta AEKn, hurrenez hurren, nafar-lapurtera eta zuberera erabiltzen zituztela aipatu zuten. Argi zekusaten zuberotarrek beren euskalkia landu eta garatu nahi dutela, eta beraz, ez batak eta ez besteak ez zuten dudarik eskaintzen duten produktua errealitate horretara egokitzearen inguruan. Hortik landa, Lapurdi eta Nafarroa Behereari dagokionez, Hendaiatik Amikuzera nafar-lapurterazko ikas-material bera eskaintzen zutela adierazi zuen Dufauk. Ikasen izenean hitz egin zuen emazte honek murgiltze ereduan eta eredu elebidunean ikasten duten haur eta gazteen kopuru apala aipatu zuen, erranez, ez daitekeela kopuru horrendako euskalkiak versus Euskara Batua oposizioaren barruan lanean ari. Garaik, berriz, Euskara Batuak kutsu gipuzkoarra duela azpimarratu zuen, eta Iparraldekoendako ez duela sinesgarritasunik.

Hegoaldearen eta Iparraldearen artean sortzen ari den muga linguistikoa ere aipatu zuen, alde batean, gaztelaniazko hitzak mailegutzen baitira, eta bestean, berriz, frantsesezkoak. Gaur egun, Iparraldeko euskalgintzan ari diren agente nagusienetarik izan ziren Baionako kolokioko arratsaldeko mahai-inguruan parte hartu zutenak, eta argi gelditu zen hauen nafar-lapurteraren edo iparraldeko batuaren aldeko apustua.

2.8. Garazi ibarra


Garaziko ibarra Nafarroa Behereko hegoaldean dago kokaturik nagusiki, eta Luzaide herria, berriz, Nafarroa Garaiko Ipar ekialdean, Pirinioen iparraldean. Ibarrak kantonamendua osatu du orain dela urte gutxi arte. 2014. urtean, Frantziako lurralde-erreformarekin kantonamenduak berrantolatu zirelarik, Euskal Mendialdea izatera igaro da Baigorriko kantonamenduarekin eta Zuberoarekin batera. Bertako udalerriek Garazi-Baigorri herri elkargoa osatu dute. 2017. urtetik goiti, ordea, Iparraldeko eremu osoa hartzen duen Euskal Hirigune Elkargoaren parte izatera igaro da. Horrez gainera, Garazi Nafarroa Behereko eskualde historiko bat ere bada. Hiriburua Donibane Garazi da, Nafarroa Behereko hiriburu ere badena, nahiz eta administratiboki eta politikoki hiriburu izaera hori sinbolikoa baino ez izan.

Honako ibarrekin egiten du muga: iparraldean Iholdiko ibarrekin eta Oztibarrerekin, ekialdean Zuberoa probintziako Arbaila eta Basabürüa ibarrekin, ekialdean Baigorri-Ortzaizeko ibarrekin, eta hegoaldean Orreaga herriarekin eta Aezkoako ibarrekin. Garazi ibarra Euskal Herrian non kokaturik dagoen erakusten digu 8. irudiak.



8. irudia: Garaziren kokapena Euskal Herrian

19 herriok osatzen dute kantonamendu ohia: Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Aintzila, Anhiza-Monjolose, Arnegi, Behorlegi, Buztintze-Hiriberri, Donazaharre, Donibane-Garazi, Duzunaritze-Sarasketa, Eiheralarre, Ezterenzubi, Gamarte, Izpura, Jatsu, Lakarra, Lekunberri, Mendibe, Uharte-Garazi eta Zarok. Lasa, Azkarate, Anhauze eta Irulegi Baigorriko kantonamenduari dagozkio. Hala ere, Lasak eta Azkaratek lotura aise azkarragoa dute Garazirekin, eta hein apalagoan, baita Anhauze eta Irulegik ere. Suhuskune herria ere, Iholdiko kantonamenduaren barruan dugu administratiboki, nahiz historikoki herri garaztarra den (Arbelbide, 1987: 153-156). Luzaide, gaur egun, Nafarroa Garaiko Zangozako merindadearen barnean dago, Pirinioetako eskualdean, baina historikoki, Arnegi bere parte izan denaz gain, eta irizpide geografiko eta linguistikoak kontuan harturik, Garaziren barnean sailka genezake. 9. irudian, Garaziko herri guztiak ikus ditzakegu



9. irudia: Garaziko herrien mapa

Komunikabideei dagokienez, D918 errepideak Ortzaize, Arrosa, Lapurdi eta batez ere Baionarekin lotzen du ibarra; D15ak Baigorriarekin; D933ak hegoaldera buruz, Nafarroa Garaiarekin, batez ere Iruñearekin (Espainiako estatuan N-135a bihurtuz);

iparraldera buruz, berriz, Oztibarre eta Donapaleurekin; eta D422ak Irisarri eta Hazparnerekin. Errepide nagusi horiez gain, txikiago batzuk ere badira: D417 Mendibe eta Altzürükü lotzen dituen; D117 Mendibe eta Altzai lotzen dituen; D18 Mendibe, Iratiko oihana eta Larraineren arteko bidea egiten duena; D120 Duzunaritze eta Ibarlaren artekoa; eta D301 Ezterenzubi eta Larraine lotzen dituen. Ezin dugu bazter utzi, Donibane-Garazi hiriburua eta Baiona lotzen dituen trena ere.

Azvimarratu beharra dago Donibane-Garazi hiriburuak ibarrean duen indarra. Erdi Arotik hasita berebiziko garrantzia izan du ibarreko eta inguruetako bizian. Konpostelako bide ezaguneko nahitaezko geldialdia da, Orreagara buruzko mendi gogorrak igo aitzin. Horrez gain, merkatua izan du erakargarri nagusi, berebiziko garrantzia izan duena ibarreko eta inguruko bizian. Aezkoa, Baigorri edota Oztibarretik salerosleak trumilka etorri dira bertara astelehenero-astelehenero mende luzeetan zehar. Bateko eta bestekoak elkartzeko parada bikain horrek hizkuntza-berrikuntzak sortu eta hedatzeko testuinguru ezin hobea osatu du.

Gaur egun, merkatuaren garrantzia anitz jaitsi bada ere, ibarreko hiri eta zerbitzugune nagusi izaten jarraitzen du Donibane-Garazik 1580 biztanlerekin 2018an (Gaindegia, 2019). Gainera, azken urteotan beti goiti doa ibarreko hiriburuaren populazioa. Kontuan hartu behar da Nafarroa-Behere osoan, Donapaleuk, Baigorrik, Aiherrak, Bastidak eta Bidaxunek baino ez dutela 1000 bizilaguneko langa gainditzen.¹⁰ Garaziko gainerako herriek, bataz beste, 340 biztanle dituzte (Gaindegia, 2019). Beraz, ia erabatekoa bihurtu da Donibane-Garazirekiko menpekotasuna. Bertan zerbitzurik gehienak atzematen ahal badira ere, ohikoak dira Garazitik Baionarako joan-jinak.

Gaindegiaren (2019) arabera, 12690 biztanlekoa da Garazi eta Baigorri ibarretako populazioa,¹¹ eta biztanleria dentsitatea 19,9 biztanlekoa da kilometro karratuko. XX. mende hastapenean baino 6200 biztanle gutxiago bizi dira gaur egun. Azken hamarkadetan, ordea, hazkunde positiboa egonkortu egin da (%5,4). Anhaize, Lakarra, Irulegi eta Uharte-Garazi dira goiti ari diren herriak, baina Arnegiko populazioa oraindik ere beheiti doa. Zernahi gisaz, gazte eta haurren ehunekoa aski gora da, %15,6 haurrena eta %13,8 gazteena. Gazte gehien Behorlegin, Aintzilan, Gamarten eta Irulegin

¹⁰ Bastida eta Bidaxune probintziako periferian daude eta ez dira tradizionalki euskaldunak izan.

¹¹ Garazi eta Baigorriko kopuruari, Urepele, Aldude, Banka, Baigorri, Orzaize, Arroza eta Bidarraikoa kenduz gero, eta Suhuskuneko eta Luzaidekoa batuz gero, gure eremuaren populazioa 9011 biztanlekoa litzateke.

dugu. Hala ere, adinekoen presentzia ere handia da, zahartze-tasa %25,9koa baita, Euskal Herriko bataz bestekoa baino 4,2 puntu handiagoa. %13,7 da 75 urte baino zaharragoa. Donibane-Garazin, Izpuran eta Donazarren dugu adineko gehien.

Ekonomiari dagokionez, Donibane-Garazi da enplegu gune nagusia, 1400 enplegu baitaude bertan (Gaindegia, 2019). Haatik, enplegu nahikotasuna negatiboa da Garazi-Baigorri eskualdean, ez baitago landun (5200) bezainbeste enplegu (4700). Kopuru horri, gainera, langabezian daudenak gehitu behar zaizkio. Zernahi gisaz, datuak ez dira beste lurralde anitzetan bezain larriak. Enplegua Kostaldean eta Aturrialdean metatzen da, eta beraz, Iparralde barnealdeak enplegurik eza nozitzen du. Nekazaritza biziki garrantzitsua da eskualdean, bost lanpostutik bat eskaintzen baitu. Azalera osoaren %23,4 dago nekazaritzari bideratua. Eraikuntza ere indartsua da, eta gure ustez, Donibane-Garazin, baita turismoa ere. Enpleguaren %64 bertako beharrak asetzera bideraturik dago (*ibid.*).

Geografiari helduz, Garazi leku menditsua da, batez ere hegoaldea, han Pirinioak baititugu. Hala da ekialdea ere, Arbailetako mendilerroa baitugu inguru honetan. Ibarreko mendi gorena Okabe da (1466 m), eta azpimarratzekoak dira Errozate (1345 m), Urkulu (1423 m), Xardeka (1440 m), Hauskoa (1268 m) edota Behorlegi Tututuru (1265 m). Lekurik ordokienak Donibane-Garazi ingurua, Hergaraiko ibarra eta ibarreko iparraldea genituzke. Ibarreko iparraldearen eta Iholdi eta Oztibarre eskualdeen artean ez dugu muga geografiko handirik. Ezta ibarraren mendebaldetik Baigorri aldera ere. Uhalde aipagarriena Errobi da, Donibane-Garazi erdi-erdetik gurutzatzen duena, herriko ikuspeirik ederrenetakoa eskainiz. Laurhibar edota Arnegiko Errobi ere azpimarratzekoak dira.

Garazi toponimoari dagokionez, lehen aldiz, 1415. urteko gutun batean ageri da *garacicoec* idatzia (Orpustan, 1991: 117). Historiari erreparatuz, erromatarren garaiko herri bat zegoen gaur egungo Donazarren, *Immus Pireneus* izena zuena (Arbelbide, 1987: 57). Erdi Aroari dagokionez, ez dugu informazio fidagarriarik XI. mendera arte. Garai honetan, Antso Handia errege nafarraren boterea gailurrean zegoenean, Garazi, Arberoa, Iholdi-Armendaritze eta Ortzaizerekin batean, Lapurdiko bizkonderri handiaren barruan zegoen. Ordurako, Garazin 20-22 bat herri baziren, baina Monjolose eta Donibane-Garazi ez ziren oraindik existitzen (Orpustan, 1991: 118).

1131ko udazkenean, Aragoi eta Nafarroako errege zen Alfontso gudulariak Baionako aulkian jarraitzeari uko egin zionean, Lapurdiren eta Nafarroaren arteko bereizketa gertatu zen, nahiz eta Nafarroa Beherearen eta Iruñearen arteko orduko harremana ziurra ez den (Orpustan, 1991: 119). Arbeloaren (1993: 65) ustez, egun Nafarroa Beherea deitzen dugun lurraldeko jaunak, modu batean ala bestean, Nafarroako monarkiaren orbitan egon dira Antso Azkarraren garaitik goiti.

Konpostelako bidea ospea hartzen hasi zenean, Jondoni Mikelen monasterioa sortu zuten eta 1072an Leirekoari emana izan zitzaion. Rikardo Lehoi-bihotzek beilariekin ziren arazoak zirela medio, ibar osoa suntsitu zuen, tartean erromatarren denboratik zutik zegoen Donazaharre hiribildua. Hori dela eta, Nafarroako iparraldeko muga babesgabe gelditu zen (muga Galtzetaburun baitzen, eta Oztibarre eta Amikuze Nafarroatik kanpo baitziren). Beraz, Antso Jakintsuak *Immus Pireneus* (gaur egungo Donazaharre) zaharra Mendiguren izeneko gotorleku berri batez ordezkatu zuen, non gaur egun Zitadela aurki genezakeen. Haren azpian, Donazaharrerren santuaren izena hartu zuen hiri berria sortu zen, bortuak zeharkatu aitzineko base militarren funtzioa izanen zuena: Donibane Garazi. Era berean, Galtzetaburuko mugaren zaintzeko, xuxen noiz ez badakigu ere, gaskoieraz Monjolose deitu zuten bastida sortu zen (Orpustan, 1991: 120). 1264ean, astelehenarekin feria eta merkatua egiteko baimena eskuratu zuen Donibane-Garazik, hamabostetik behin, Donazaharrekin aldizka, harik eta 1719tik goiti, astero egiten hasi zen arte (Arbelbide, 1987: 76).

Ibarraren trinkotasunaren eta batasunaren adierazgarri, herri bakoitzeko ordezkariekin, ibarrean egiten ziren biltzar nagusiak aipatu beharra dago. Donazaharre hiriburu zaharrean biltzen ziren. Lehenik, Usakoako pentzean, gero Harrietako jauregian eta baita Madalengan ere (Arbelbide, 1987: 15).

XVI. mendera arte, erresuma bakarra osatu zuten bi Nafarroek. 1512ko uztailaren 25ean, ordea, Espainia gauzatzen ari zen Nafarroako konkistaren barruan, tropa espainiarrek Donibane Garazi hartu zuten eta Monjolose suntsitu (Arbeloa, 1993: 99). 1523aren hastapenean, Nafarroa Behere osoa bereganatua zuten (Arbelbide, 1987: 83), baina Carlos I enperadoreak, defenditzeko zaila zela eta, bere ber utzi zuen 1528 eta 1530 artean (Arbeloa, 1993: 113). Hori dela eta, Henrike II.a eremu murriz hartan erresuma berrezartzen saiatu zen. Egoera hark ez zuen luzaz iraun, Henrike III.a Frantziako errege ere bihurtu zenean, Nafarroako erresuma gero eta lotuago baitzegoen

Frantziakoari. Hain zuzen ere, 1620an, Luis XIII erregeak nafar instituzioen boterea mugatu zuen. Frantziako Iraultza ezkerro, zentralismoa eta frantziar nazio bakarraren ideia erabat indartu zelarik, Nafarroa Behereak gordetzen zuen autonomia apurra erabat desagertu zen. 1789ko abenduaren 13an, Donibane-Garazin biltzen zen Nafarroako biltzarrak Nafarroa Behereko eskubide bereziak uztea deliberatu zuen “denen ongiari behatuz” (Arbelbide, 1987: 86) eta 1790ean, Lapurdi, Zuberoa eta Biarnorekin batean, Pirinio Atlantikoen departamentuaren barruan sartu zuten (Arbeloa, 1993: 187).

Aipatu beharra dago Luzaideren kasua ere. Herri hau Nafarroa Garaiairen parte da administratiboki, Zangozako merindadean dago, Pirinioetako eskualdean, baina mapari erreparatu besterik ez dago inguru honetarik erabat urrundurik dagoela ohartzeko. 17 kilometroko errepide bihurgunetsu eta aldapatsua pasatu beharra dago Ibañetako mendi lepoan gaindi Nafarroa Garaiko ondorengo herrira, Orreagara heltzeko. Nafarroa Behereko ondoko herrira, berriz, Arnegira, hiru kilometro eta erdiko errepide zuzena dago. 1878an zabaldu zuten Auritz eta Luzaide arteko bidea, eta Aintzibururen (2009: 208-209) ustez, 1900ean hasi ziren egiazko komunikabideak bi herri hauen eta Luzaide eta Iruñearen artean.

Nafarroa Behere guztia Zangozako merindadeko parte zen, Donibane-Garaziren salbuespenarekin, bertako gaztelaua edo *castellanoa* Iruñeko administrazioaren menpe baitzegoen (Arbeloa, 1993: 83). Bi Nafarroa bat ziren garaian, ez zen, beraz, Luzaide eta Nafarroa Behereko herrien arteko merindade-mugarik. XI. eta XII. mendeen inguru horretan, Erroibarren parte zen Luzaide, Orreagarekin batean (Ibarra, 2000: 31). 1303an finkatu ziren Luzaideren mugak Okzitaniako Tolosan (Arbelbide, 1987: 134-135), eta Erroibartik bereizi zuten. Arnegi, Uharte-Garazi herriko Kataritze auzoa eta Anhauzeko Ontzorone ere, Luzaideren barnean zeuden orduan (Aintziburu & Etxarren, 2002: 14).

1530ean, Karlos V Espainiako enperadoreak Nafarroa Beherea bere ber utzi zuelarik banatu ziren, halaber, Luzaide eta Arnegi, muga Luzaideren azpiko aldetik, errekarri datxikola ezarri zutenean (Aintziburu, 2009: 127). Muga finkatu zutelarik, gaur egun Arnegi deitzen den leku horretan ez zen gauza handirik. Bazen eta bada etxe bat, Arnegizahar deitzen dena, gaur egun mugaren Luzaideko aldean dena (Aintziburu, 2009: 35). 1556an, berriz, Nafarroa Beherean protestantismoa hedatzen hasi zenean, Espainiako erregeak jadanik espainiarizat zuen lurraldea eliza aldetik ere Espainian sartu nahi izan zuen, ordura arte, Baionako diozesiko parte baitzen Luzaide.

Iruñekoari lotu zuen, beraz, era horretan protestanteen erasoei errazago aurre egiteko (Aintziburu, 2009: 36). Era horretan, mugaz bestalde zegoen Arnegin eliza egin behar izan zuten ondoren 1653 eta 1656 inguruan (Arbelbide, 1987: 137-138).

Luzaideren pare-parean dagoen Ondarrola auzoa Arnegira ekarri zuten, baina behin baino gehiagotan izan da administrazioaren aldetik Espainiako estatuaren parte ere. Zernahi gisaz, elizari dagozkion aferetarako, Luzaidera etorri izan dira Ondarrolako 32 etxeak, distantzia anitzez laburragoa baitute (Aintziburu & Etxarren, 2002: 36). Politikoki bitxia den egoera horrek ahar andana bat sortu du historian zehar, usu auzotarrei berebiziko kalteak eraginez. Kontuak kontu, Luzaidera jotzen jarraitzen dute adineko ondarrolarrek gaur egun ere eliza kontuatarako. Gazteagoak Arnegira joaten hasi direla jakin ahal izan dugu Luzaiden.

2.8.1. Muga politikoa Garazin

Muga politikoez berebiziko eragina dute lekuari buruz eratzen dugun ideian, eta gaur egun are gehiago. Horrez gain, zatitzen duen espazio geografikoan, alde batean nahiz bestean, hitz egiten den hizkuntzan ere eragin nabarmena izan dezake. Bereizki hunkitzen gaituen gaia da mugarena, Garazi erdi-erdiatik zatitzen baitu Luzaide gainerako herrietarik bereiziz. Horrek ibarrean eta ibarreko mintzoan duen eragina aztertuko dugu.

Omoniyi-k (2013) mugen inguruko lurraldeen mintzoa aztertu zuen. Bere ustez, muga-lurraldeak momentu jakin batean elkarren ondoan dauden eta nazio-estatuak bat etortzen diren espazioak dira. Era berean, nazio-estatuak sortu aitzineko tradizio lokalak elkartzen edo bereizten diren puntua ere badira. Beste era batera erranik, bi estaturen arteko ondokotasunak eragindako komunitateak edo espazioak dira muga-lurraldeak, mugaren bi aldeetara dagoen eremua, hain zuzen ere. Mugak, berriz, estatu soberanoek okupaturiko lurraldeak banatzen eta estatu horien baitan biltzen dituzten demarkazio geopolitikoak dira (Omoniyi, 2013: 10-11).

Omoniyi-k muga-lurraldea eta muga kontzeptuei, muga kontzeptualarena eta honetarik heldu den muga-lurralde kontzeptualarena gehitzen die. Funtsean, eraikitzen ditugun, eta beste norbanako, talde eta instituzio batzuekin harremanak izatean erabiltzen ditugun mapa mentalak dira (Omoniyi, 2013: 13).

Hizkuntza-plangintza lurralde eleanitzak “nazio” bihurtzeko erreminta izan da. Politikoki, kode linguistiko baten edo bakar batzuen inguruan bat etorrarazi dituzte hainbat hizkuntza zituzten herritarrak. Media eta hezkuntza elebakarrera buruzko estatuaren apustuak publiko elebakarraren ilusioa sortu du, eta linguistikoki eta kulturalki desberdinak diren lurralde bateko taldeek entitate nazional bakarra partekatzen dutelako irudia sortzen dute (Anderson, 1991 in Choksi, 2013: 48).

Haugen-en (1972: 245) ustez, Nazio-estatuaren eta hauen hizkuntza nagusien ikuspuntuaren arabera, estatuaren arteko bereizkuntza beharrak talka egin du kontaktu internazionalaren beharrarekin. Hain zuzen ere, nazio-estatuaren mugek errealitate lokal, nazional eta internazionalen arteko gatazkaren ideia dakarte beraiekin, existentzia eskizofrenikoaren zentzua emanez (Omoniyi, 2013: 12). Eskizofrenia hori argi eta garbi ageri zaigu Luzaiden; hala nola, hegoaldera (Aezkoa, Iruñea, etab.) eta iparraldera (Garazi) dituzten eremuak izendatzeko erabiltzen dituzten izenetan: *goiti* (Hegoaldea) vs. *beiti* (Iparraldea), *Iparraldea*, *Frantzia*, *beste alderdia*, *Garazi inguru hau*, *Baigorri eta gure alderdi hau* (Luzaide barnean sartuz), *España* (Nafarroatik hegoaldera dagoena izendatzeko, baina hiztun berak gero *Frantzia* erabiltzen du Garazirendako). *Hemen* hitzak zer erran nahi duen ere ez dago argi. Zenbait aldiz, Hegoaldea erran nahi du, baina beste zenbait aldiz, Iparraldea. Atentzioa deitzen du Luzaideko adineko emaztearen erranaldi honek ere: *Eskual Telebistan meza Frantziatik emaiten dutelaik, aiseo konpreintzen dixiu hemengoa bano*. Baita usu entzuten den beste honek ere: *gure eskuara frantsesa da*.

Mugaren alde banatako harremana maximoa izan daiteke mugaren inguruan afinitate kultural eta linguistikoak badaude eta kontaktu-eremu aberatsa bada (Momoh, 1989: 52); hots, mugimendua arazorik gabe gertatzen bada. Minimoa izan daiteke bi aldeetan afinitate kultural eta linguistiko urria badago, normalean ez 2-5 km-ko diametroa baino zabalagoa den eremuan. Azkenik, zero harremanen kasua dugu, erabateko blokeoa dagoelarik; adibidez, Ipar eta Hego Korearen artean (Omoniyi, 2013: 12), edota bi Karelien kasuan, Finlandia eta Errusia artean.

Maila internazionalan, muga politikoek dialektoen *continuum* zaharrak muga dialektal bihurtu dituzte (Auer & Hinskens, 1996: 4). Hots, dialektoen arteko konbergentzia dibergentzia bilakatzen da mugan. Mugak bereiziriko lurralde eta

hizkuntzen arteko hiru konstelazio proposatzen dituzte Auer eta Hinskens-ek (1996: 16-17):

- a) *Continuum*-a estandar ia berarekin: mugaren bi aldeetan estandar bera dago; errate batera, Austria eta Alemaniako mugaren kasuan. Hala ere, hizkuntzaren panorama desberdinak Austriako dialektoak Alemaniakoak baino kontserbatzaileago bilakatu ditu. Irlanda bezalako kasu konplikatuagoak ere baditugu: Irlanda burujabe den aldean ingelesa eta irlandera dira ofizial, baina Erresuma Batuko aldean, ingelesaren RP aldaerak du estatus hori eta irlanderari kasu gutxi egiten zaio.
- b) *Continuum*-a bi estandarrekin: Herbehereak eta Alemaniaren artean *continuum*-a da nagusi bertako mintzoen artean. Hala ere, mugaren alde banatan estandar desberdinari so daude.
- c) *Continuum*-a estandar bakarrarekin: *continuum*-aren alde bateko aldaerek estandarra garatua dute, baina bestaldekoek ez. Hori da gertatzen, errate batera, Altsazieraren kasuan, Alemaniako aldean aleman estandarra baitute, baina ez Frantziako aldean.

Luzaideren kasua hiru hauetako zeinetan sailkatu behar den erabakitzea ez da gauza erraza. Horretarako, lehenik eta behin, estandartzat zer hartzen dugun jakin beharko genuke (Santazilia, 2009: 241). Gogoeta hauxe egiten du Santaziliak (*ibid.*):

Euskara Batua (letra larriz) estandarra dela onartuz, mugaren bi aldeetarako sortutako estandarra genuke hori, a) taldekoa bezalakoa. Aitzitik, b) taldeko egoera islatu genezake, Iparralderako eta Hegoalderako bi estandar daudela onartuta: Luzaiden Hegoaldeko estandarra irakasten da eskolan, non Hegoalde osoko irakasleak biltzen diren; Iparraldean “iparraldeko batua” hedatzen ari dela pentsatuta (cf. Videgain 1995 edo Oihartzabal 1993), bi estandar badirela onartuko genuke. Azkenik, c) taldean litzateke Luzaide, estandarra Hegoaldean soilik hedatu dela baieztatuko bagenu. (241).

Santaziliak b) aukeraren alde egiten du. Bere (*ibid.*: 243) ustez, gainera, Luzaideko gazteek herriko euskara erabiltzen dute etxean, formakuntzaren zati bat Iparraldean jaso dutenak kapable dira iparraldeko batuaz ere aritzeko, eta Hegoaldekoekin hegoaldeko batua erabiltzen dute. Zenbaitek hiru sistema menperatzen dituzte, beraz.

2.8.2. Giza harremanak Garazin

Garaziko giza harremanen berri izateko lekukoei zuzenean pausatu dizkiegu galderak. Egun guziz, erosketen egitera, lagunekin zerbait hartzera edota medikuarenera nora joaten diren galdegin diegu, lagunak nongoak dituzten eta besten egitera nora joaten ziren edo diren. Belaunaldien eta praktika komunitateen arteko aldeari ere erreparatu diogu,¹² giza harremanek zerikusi zuzena baitute hizkuntza-aldaketaren norabidean.

Eguneroko harremanei dagokienez, Donibane Garazi da erabat nagusi. Bertara joaten dira edozer gauzatarako. Gainera, dependentzia hori geroz eta handiagoa bihurtzen ari da herri txikietako zerbitzuak hetsiz baitoaz emeki-emeki; hala nola, eskolak, ostatuak eta denda txikiak. Luzaiden berean ere, egunerokoan, Donibane-Garazira joaten jarraitzen dute gaur egun ere. Anhaize eta Irulegin erdi-erdi ibiltzen dira Donibane eta Baigorriren artean. Bat baino gehiago dira eskolara Baigorriera joaten direnak. Gamarte eta Ainhiza-Monjolosen, farmaziara Larzabalera joan ohi dira, eta Irisarrira kirol aferetarako, baina herri hauetan ere, ohikoena Donibanera jaitea da.

Bigarren mailan, Baionara joaten dira mugatik iparraldeko herrietakoak, batez ere jantziak erosteko edo erosketa handiren bat egiteko. Bada egun guziz hara lanera joaten denik, eta Lizeoko ikasketak egiten dituzten gazte guztiak ere, Baionara joaten dira astea pasatzera urte zenbaitez. Unibertitate ikasketak egiten dituztenek Baiona, Bordele eta Okzitaniako Tolosa hautatzen dituzte, baina bada Hegoaldera joaten denik ere.

Luzaiden, Iruñeak hartzen du Baionaren lekua, eta areago, Baionak Iparraldean baino presentzia handiagoa duela iruditzen zaigu. Administrazio aferetarako edo medikuarenera joateko Iruñera jo beharra dute bortxaz, nahiz eta oinarrizko beharrak asetzeko medikuaren kontsulta badagoen Luzaiden. Lanera egunero hara joaten denik ere bada. Gazte gehienek DBH Garraldan egiten dute eta Batxilergoa, berriz, Iruñean.¹³ Behin herritik aterata, anitzak ez dira itzultzen, han atzematen baitute lana, eta erran gabe doa, sobera urrun baitago Luzaide egunero joan-jina egiteko. Hori dela eta, azken urteotan batez ere, jendez husten ari da Luzaide, abiada bizian, gainera.

¹² 2.9.5. §-ean emanen ditugu Garazin atzeman ditzakegun praktika-komunitateei buruzko xehetasunak.

¹³ Gazte bakar batzuek ikasketak Iparraldean ikastolan egitea aukeratzen dute. Garazin egiten dute ama-
eskola, kolegioa Larzabalen edo Kanbon eta Lizeoa Baionan.

Maiztasun berean ez bada ere, Arnegi eta Ezterenzubiko zenbaitek ere badute Iruñeko magasinetera joateko usaia.


Jarraian, lekukoen lagunen jatorriari eta bestak egiten dituzten edo zituzten lekuei buruzko kopuru eta ehuneko zehatzak emanen ditugu.

2.8.2.1. Nongo lagunak dituzu?

Lehenik eta behin, belaunaldien arabera atzematen ahal dugun aldeari erreparatuko diogu, eta gero, berriz, praktika-komunitatearen arabera dagoenari. Tauletan eta grafikoetan, bi aldiz edo ardurago emanak izan diren arrapostuak baino ez ditugu erakutsi. Behin emandakoak azpian zerrendatuko ditugu.

	Herrikoak eta ondoko herriren batekoak		Garazikoak		Baigorrikoak		Iparralde osokoak		Nafarroa Beherekoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	8	61,54	3	23,08	2	15,38	0	0	0	0
Helduak	7	38,89	4	22,22	3	16,67	1	5,56	0	0
Gazteak	5	14,29	11	31,43	7	20	3	8,57	3	8,57

5. taula: lagun sarearen hedadurari dagozkion kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



10. irudia: lagun sarearen hedadurari dagozkion ehunekoak adinaren arabera

Arrapostu horiez gainera, lekuko banak beste hauek ere eman ditu:

Helduak: Pauekoak, Biarnokoak eta Hegoaldekoak.

Gazteak: aetzak, Berakoak, Iruñekoak, Zuberokoak eta Itsasukoak.


Lagun sarearen hedadura anitz aldatzen da adin talde batetik bestera. Herrikoak edo ondoko herriren batekoak dira adineko gehienek lagunak. Helduen artean, eremu honen ehunekoak jaitsi egiten da. Gazteen artean, azkenik, heterogeneotasuna da nagusi. Gazte gehienek ere Garazi eta Baigorri dituzte lagunak, baina baita Nafarroa Beherean eta Iparralde osoan ere.

Hegoaldeko lekuak izendatzen dituzten guztiak luzaidar gazteak dira. Mugaren bestaldean egoteak, Ibañetaz bestaldekoekin harremanak izatera bultzatzen ditu. Hori ez da gertatzen Luzaideko adineko eta helduen kasuan, bai, ordea, gazteenean. Muga politikoa, hein batean, muga sozial ere bilakatzen ari da, beraz.

Ondoren, praktika-komunitate bakoitzeko lekukoek eman dituzten arrapostuei erreparatuko diegu.

	Herrikoak eta ondoko herriren batekoak		Garazikoak		Baigorrikoak		Iparralde osokoak		Nafarroa Beherekoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeak	0	0	1	11,11	1	11,11	3	33,33	2	22,22
Komiteetak	3	16,67	8	44,44	5	27,78	0	0	1	5,56
Luzaidarrak	2	25	2	25	1	12,5	0	0	0	0

6. taula: lagun sarearen hedadurari dagozkion kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



11. irudia: lagun sarearen hedadurari dagozkion ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

Lekukoek beste arrapostu hauek ere eman dituzte:

Gaztetxekoak: Itsasukoak eta barnealdekoak.

Komiteetakoak: Zuberokoak.

Luzaidarrak: aetzak, Berakoak eta Iruñekoak.


Alde handia dago hiru praktika-komunitateen artean. Gaztetxekoen taldea aise mugikorreragoa dela ageri da, gehienek lagunak Nafarroa Beherekoak edo Iparralde osokoak baitira. Komiteetakoek anitzek lagun sare lokalagoa dute. Luzaidar gehienek herrian berean edo inguruan, eta Garazin dituzte lagunak, baina Ibañeta edota Izpegiz bestalde dituztenak ere badira.

2.8.2.2. *Non egiten duzu/zenuen besta?*

Kasu honetan ere, lehenik eta behin, belaunaldien arabera dagoen aldea ikertuko dugu, eta gero, berriz, praktika-komunitateei erreparatuko diegu. Kasu honetan, tauletan eta irudietan hiru aldiz edo ardurago eman arrapostuak baino ez ditugu erakutsiko. Gainerakoak azpian zerrendatuko ditugu.

	Herrian edo ondoko herriren batean		Garazin		Baigorri		Nafarroa Beherean		Lapurdin	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	6	42,86	5	35,71	2	14,29	0	0	0	0
Helduak	2	8,33	7	29,17	6	25	3	12,5	0	0
Gazteak	0	0	11	14,67	9	12	13	17,33	10	13,33
	Zuberoan		Hegoaldean		Baionan		Elizondon			
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Adinekoak	0	0	0	0	0	0	0	0		
Helduak	2	8,33	1	4,17	0	0	0	0		
Gazteak	9	12	8	10,67	3	4	3	4		

7. taula: lekukoek bestak egin dituzten lekuen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



12. irudia: lekukoek bestak egin dituzten lekuen ehunekoak adinaren arabera

Arrapostu horiez gain, behin edo bi aldiz, beste hauek ere jaso ditugu:

Adinekoak: Oztibarren.

Helduak: Auritzen, Aezkoan eta Orbaizetan.

Gazteak: Donezteben, Iruñean, Orbaizetan eta Oztibarren.

Alde handia dago hiru adin taldeek bestak egin izan dituzten lekuen artean. Adinekoak herrian bertan gelditzen ziren, edota ingurukoetara joaten ziren. Gehienez ere, ibarrean bertan mugitzen ziren. “Oztibarren” erantzun digun lekukoa Gamartekoa da, eta “Baigorri” erantzun dutenak, berriz, Irulegi eta Ezterenzubikoak. Helduak adinekoak baino urrunagora joaten hasi ziren. Herrian bertan eta ingurukoetan gelditu izan den gutxi dugu. Haatik, Nafarroa Behere osoan eta Hegoaldean zehar mugitzen hasi denik badugu. Azkenik, gazteak Iparralde osoan zehar mugitzen dira, eta bat baino gehiago dira Hegoaldera joaten direnak ere.


Besta egitera Orbaizetara joaten diren guztiak auzo-herria den Ezterenzubikoak dira. Auritz, Aezkoa, Elizondo eta Doneztebera buruz joaten direnak, berriz, luzaidarrak dira, heldu eta gazteak. Luzaidar adinekoak herrian berean gelditzen ziren, edota Garazi eta Baigorri aldera joaten ziren. Helduak eta gazteak Ibañetaz bestalde joaten hasi dira, nahiz eta muga fisikoa kendu dutenetik, gazteak berriro Garazi eta Baigorriara buruz

joaten hasi diren. Kasu honetan ere, azken belaunaldietan, muga politikoak duen garrantzi soziala azpimarratu beharrean gaude.

Segidan, praktika-komunitateen arabera, lekukoek eman dituzten arrapostuak aztertuko ditugu.

	Garazin		Baigorriin		Nafarroa Beherean		Lapurdin	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	0	0	0	0	8	30,77	8	30,77
Komiteetakoak	8	21,62	7	18,92	4	10,81	2	5,41
Luzaidarrak	3	25	2	16,67	1	8,33	0	0
	Zuberoan		Hegoaldean		Baionan		Elizondon	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	3	11,54	7	26,92	0	0	0	0
Komiteetakoak	6	16,22	1	2,7	3	8,11	0	0
Luzaidarrak	0	0	0	0	0	0	3	25

8. taula: lekukoek bestak egin dituzten lekuen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



13. irudia: lekukoek bestak egin dituzten lekuen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

Hauetz gain, lekuko banak erantzun hauek ere eman ditu:

Komiteetakoak: Iruñea, Orbaizeta eta Oztibarren.

Luzaidarrak: Auritz eta Aezkoan.

Kasu honetan ere, garbiki ageri da talderik mugikorrena gaztetxeoena dela. Nafarroa-Behere, Lapurdi eta Hegoaldean ibiltzen dira gehienik. Beste bi praktika-komunitateak, berriz, Garazi eta Baigorri aldean ibiltzen dira ardurenean. Luzaidarren kasuan, anitz dira Garazi eta Baigorritik landa, Elizondora joaten direnak.

2.8.3. Garaziko euskararen inguruan eginak izan diren lanak

Gutxi da, zinez, Garaziko euskarari buruz idatzi dena. Iparraldeko hizkeren azterketa dialektologikoaz Caminok (2004a) dioenak Garaziko egoera azaltzeko balio digu:

Ipar Euskal Herriko euskara gaitzat harturik, franko ikerketa egin dira, baina bertako dialektoez eta hizkerez diharduten ikerketak ez dira behar bezainbat egin: bertako ibarretako edo alderdietako euskaraz galdezka hasiz gero, berehalakoan ageri zaizkio hutsuneak filologoari edo dialektologialariari (447).

Irizarrek (1999a-1: 14) ekialdeko, erdialdeko, mendebaldeko, berezko edo *propia*, Landibarreko eta Oztibarreko hizkerak bereizi zituen Garaziko azpieuskalkiaren barnean. Ekialdekoaren barnean sartu zituen Ainhiza-Monjolose, Gamarte, Oztibarreko Ibarla, Sarasketa, Lakarra, Buztintze-Hiriberri, Lekunberri, Mendibe, Behorlegi, Aintzile eta Ezterenzubi. Erdialdekoan sailkatu zituen Eiheralarre eta Uharte Garazi. Mendebaldekoan sartu zituen Izpura, Azkarate, Irulegi, Anhauze, Arnegi eta Luzaide. Azkenik, Berezkoaren barnean sartu zituen Suhuskune, Jatsu, Donazarre, Duzunaritze, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane eta Zaro. Irizar, oro har, Bonaparteren sailkapenean oinarritu zen, baina hala ere, aldaketa txiki zenbait egin zituen. Bonapartek mendebaldeko behe-nafarreraren barnean sartu zituen Luzaide, Arnegi, Lasa, Azkarate, Anhauze eta Irulegiko mintzoak, Irizarrek ordea, *xuka* mintzo zirela eta, ekialdeko behe-nafarreraren barnean sailkatu zituen (1999a-1: 12).

1987 [1983]-koari darraikion 2004ko lanean, Nafarroa Behereko euskara bere osotasunean ikertu zuen Caminok. Amikuze ibarreko bilakabideak, Baigorriko berezitasunak, Mendebaldeko ezaugarriak, Nafarroa Beherea ipar/hego bereizten dutenak, eta Nafarroa Behere guztiko edo gehieneko ezaugarriak bereizi zituen. Azterketa xehea egin ostean, Zuazoren (2008) nafar-lapurtera euskalkiaren izendapenaren haritik, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko euskararen batasuna azpimarratu zuen, probintzia honetako hizkerek partekatzen dituzten hizkuntza-ezaugarri gehienak Lapurdikoek ere partekatzen baitituzte.

Bada erdialdera begira dagoen Lapurdiko kostaldeko euskaratik Nafarroa Beherekora alderik, baina alde hori bat-batekoa ez dela ere erran izan da, *continuum* erakoa baizik (Guiter, 1973 in Camino 2004a: 446). Dialektometriaren ikuspuntutik Aurrekoetxeak (2004a) Bourciez bildumako datuak baliatuz egin zuen Iparraldeko hizkeren azterketan ere, bat-bateko jauzi horren eza azpimarratu zuen. Lapurdiko mendebaldean eta Zuberoan batasuna nabari zen, baina ez Nafarroa Beherean. Mutur batetik besterako trantsizioa irudikatzen zuten lurralde horretako hizkerek. Guk bertako hitzunei entzun diegunez ere, muga argia ikusten dute Garaziko eta Zuberoako euskararen artean. Lapurdiko kostaldeko euskarari dagokionez, aldea badela dioskute, baina ez hainbesterakoa eta ez hain bortitza, cf. 5.2.2. §.

Probintzia honetako hizkeraren batasun ezaren aitzinean, hainbat irtenbide atzeman dituzte dialektologialariek. Bonapartek (1863) euskalki bat ez eta bi bereizi zituen, ekialdekoa eta mendebaldekoa, eta Irizar-ek (1999a) ere izendapen berari eutsi zion. Mitxelenak eta Azkuek behe-nafarrera izendapena erabili izan dute beraien lanetan, baina garai berriagoetara etorritz, Zuazok (2008) nahiago izan du, Lapurdirekiko duen batasunari so egin eta nafar-lapurtera izendapena erabili.

Iparraldeko hizkeren berri ematen digute “Bourciez” Bildumako Euskal Atlasak (Aurrekoetxea & Videgain, 2004; Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias, 2004, 2005), eta “Sacaze” eta “Bourciez” bildumetan oinarriturik Allières-ek (1960, 1961, 1977, 1986) egin atlasek ere. Halaber, Nafarroa Behereko hizkerak geroz eta hobekiago ezagutzen ari gara Camino azken urteetan egiten ari den lan eskergari esker. Hor ditugu, errate batera, Zuberoa ipar-mendebaldeko herrietako mintzoez idatzi zuen lana (Camino, 2009b), Oztibarreko euskarari buruzkoa (Camino, 2015a), eta Amikuzeko euskarari buruzko lan mardula (2009a, 2015b, 2016). Bestalde ezin ahatz genezake ikuspuntu diakronikotik Nafarroa Behereko euskara zaharraz egin lana ere (Camino, 2008).

Garazi gure ibarrari dagokionez, Luzaiden egin dira ikerketarik gehienak. XIX. mendean jada, Bonapartek (1881) interesa erakutsi zuen herri honetako mintzoarekiko. Hor dugu Kamino eta Salaberrik (2007) egin Luzaideko euskararen hiztegia, eta *FLV* aldizkarian atera zenbait lan (Kamino & Salaberrik: 2001a, 2001b, 2004 eta 2006). Baita Salaberrik (2000) “*Dialektologia gaiak*” liburuan argitaraturikoa ere. Bertan, Luzaideko euskara Erroibarkoari eta Aezkoakoari konparatzen die, eta eten esanguratsua dagoela ondorioztatzen du.

Soziolinguistikaren alorrean, azpimarratzekoa da Aurnague eta Duguine-n (2004) lana, cf. 2.6.1. §. Bariazonismoari hertsiago lotutako lana dugu Santaziliak (2009) egin zuena. Ikerlari honek adinaren eta generoaren arabera dagoen aldakortasuna ikertu zuen Luzaiden. Herri hau bi estaturen mugaren erdi-erdian egoteak erakarri zuen ikertzailearen arreta. Lexikoa, izen eta aditz-morfologia eta sintaxia aztertu zituen, EAS corpusaren galdetegia baliatuz. Orotara, 202 galdera pausatu zizkien bost lekukori. Aldakortasuna biziki txikia zela ondorioztatu zuen, eta hori, besteak beste, hizkeraren beraren erabilera esparruak murrizten ari zirelako dela ondorioztatu zuen; hots, adinekoek euskara erabiltzen dute egunerokoan, baina gazteek familiarekin baizik ez dute mintzo Luzaideko euskara. Beraz, euskalkiak trinkotzeko bidea hartu du (Santazilia, 2009: 241-242). Geografia, adina eta generoa kontuan harturik, lan honetan aztertuko ditugun hizkuntza-aldagaietarik batzuen hizkuntza-aldakortasuna ikertu genuen guk geuk ere (Artzelus, 2019). Aldakortasun diafasikoa ere aintzat hartu genuen (Artzelus, 2020a), eta baita Garaziko gazteen euskararen aldakortasun diastratikoa ere (Artzelus, 2020b). Azken lan honetan, hezkuntza-eredua (ikastola edo eskola publikoa) eta praktika-komunitateak (gaztetxeak, komiteetakoak eta luzaidarrak) aintzat hartu genituen.

2.9. Aldagai askeak (aldagai sozialak eta aldagai geografikoa)

Hizkuntza-aldagaiak aldagai sozialen arabera aldatzen direnez gero, lehenengoei menpeko aldagai erraten zaie eta bigarrenei aldagai aske. Erabiltzen dugun irizpidearen arabera, hainbat aldagai sozial edo aske mota ditugu. Aztertuenak adina, generoa eta klase soziala izan ohi dira, eta guk lehendabiziko biak hartuko ditugu kontuan. Garazi ibarrak, landa eremua denaz gain, ekonomikoki aski gizarte homogenea du, batez ere, nekazaritzatik bizi dena. Hori dela eta, ez diogu zentzu handirik ikusi lan honetan klase soziala aztertzeari.

Adinetik eta generotik landa, geografia ere aztertu dugu. Batez ere, Luzaide eta beste herrien arteko mugak ibarreko euskararen aldaketan duen eraginak pizten digu interesa, baina horrez gain, garrantzitsua da ikustea Garaziren barrenean ze eremu den gordetzailleena eta zein berritzaileena, baita eremu batetik bestera alde diatopikorik dagoen jakitea ere.

Hiru aldagai sozial edo aldagai aske horiez gain, gazteen artean, hezkuntza-eredua ere aintzat hartu dugu, izan ere, gazte zenbaitek euskaraz egiten dituzte ikasketak

ikastolan, baina beste anitz eskola publikora joaten dira eta han eredu elebiduna edo frantses hutsezkoa baino ez dute. Horrek, nola ez, beraien euskaran eragina du.

Lau aldagai horiek izaera makrosoziala dute, neurri estandar objektiboen arabera hautatuak baitira. Hala ere, bat egiten dugu Eckertekin (2008) estiloa eta identitatea hizkuntza-aldaketari buruzko teoriaren erdian txertatu behar direlako iritziarekin. Gure ustez ere, kategoria sozial orokorren eraikuntza nola gertatzen den da ongi ikertu behar duguna. Horretarako, kategoria mesosozialek makrosozialek baino aise informazio zehatzagoa emanen digutela uste dugu. Gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren arabera ikertzen hasi ginelarik, ohartu ginen kategoria makrosozial horrek ez zigula informazio handirik eskaintzen. Hori dela eta, praktika-komunitateen aldeko hautua egitea pentsatu genuen, emaitza zehatzagoak zein irizpidek ematen zizkigun ikusteko. Zernahi gisaz, adinekoen eta helduen kasuan, ez dugu uste kategoria mesosozialekin lan egiteak anitz balio dezakeenik, aski gizarte homogenea osatzen baitute.

Hau guztia kontuan harturik, beraz, geografia, adina, generoa, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitateak dira lan honetan kontuan hartu ditugun aldagai sozialak edo aldagai askeak.

2.9.1. Geografia

Geografia edo lekua, era batean edo bestean (nazioa, lurraldea, eskualdea, hiria, auzoa) hizkuntza-aldakortasunean aztertutena izan den aldagaietarik bat izan da (Johnstone, 2004: 65). Geografiaren izaera objektiboa eta soziala bereiz genitzake.

Izaera objektiboari dagokionez, gizakiaren kontzepzioetik at dagoen espazioa aztertzeari buruz ari gara (Camino, 2009c: 108). Honek baitezpadako eragina du berari buruz eginen den interpretazio sozialean, eta funtsean, hizkuntzan bertan. Adibidez, bi herriren artean 300 metroko mendilerro bat egoteak, gehiago ala gutxiago, herritarren kontzepzioan urruntasuna eragingo du, eta baita nolabaiteko desberdintasuna ere herri horietako mintzoan. Orografiari dagokionez, jendeen eta gizataldeen arteko elkarrekintza-maila areagotzen dute, oro har, eremu ordokiek; alta, klasiko bihurtu dira mendilerroekin batera doazen isoglosa-lerroen bilduma edo sortak (*ibid.*: 110). Hidrografiari helduz, gizakiak ibaiak ondoan dituzten leku lauak gogoko izan dituzenez, ohikoa da erreka ondoko herriek berrikuntzak jaso eta hedatzea, eta mendi zokoetan daudenek, berriz, forma zaharrak leialago atxikitzea (*ibid.*: 112).

1970eko hamarkadan, zenbait geografok lekuari buruz pentsatzeko beste modu bat proposatu zuten. Hain zuzen ere, lekuak gizakion bizitzan duen rola aztertzen hasi ziren. Diziplina honi geografia humanistikoa deitzen zaio. Giza geografiaren adar bat da eta espazioa eta lekua sozialki eraikirik daudela uste du (Johnstone, 2004: 68). Geografo humanistikoendako, lekuaren zentzua jendeak bere munduari itxura ematean egindako parte-hartzearen ondorio da (Seamon, 1979). Komunitate berean bizi diren populazioko kideek eremu edota unitate politiko berean bizi direla onar dezaketen arren, ez dute denek beren burua eremu edo unitate politiko horrekiko era homogeenan orientatzen (Eckert, 2004: 109). Johnstone-n (2004: 70) arabera, beraz, lekua interakzioaren testuinguru espazial eta tenporalaren elementu esanguratsuen moduan defini liteke: lekua ingurunea da, baina giza aktoreen ikuspuntutik ikusia da. Lekua fisikoa izan liteke baina beste era batera ere egon liteke eraikirik; adibidez, hor ditugu internet bidezko txat-ak bezalako ziberlekuak. Gainera, hiztunek hizkuntza erabilia, beren burua lekuarekiko modu desberdinean eta hainbat helburutarako orienta dezakete (Johnstone, 2004: 66).

Lekuaren ikuskera pertsonalizatu hori eratzean, faktore batek baino gehiagok dute eragina. Tuan-en (1975: 161-164) arabera, arteak, hezkuntzak eta politikak lekuaren zentzua sistematizatzen eta enfokatzen dute, trenkatu gabea den esperientzia begiarendako eta gogoarendako artikulatuz, eta talde osoko kideendako lekua “ikusgarri” eginez. Eckertek (2004: 111) eskolen eragina azpimarratzen du, eskolaren bidez kokatzen baitute nerabeek euren burua eremu zabalagoan. Gure eremuan, errate batera, Luzaide eta Garaziko gainerako herriek historikoki, geografikoki eta linguistikoki ibar bera osatzen badute ere, gaur egun, faktore horiek direla eta, desberdintzat dituzte lekuko gehienek 5.1.3. §-ean ikusiko dugun bezala.

Lekuaren ideia linguistikoki eratzeko prozesua nola gertatzen den azaltzen saiatuko gara segidan. 2.3.3.6. §-ean ikusi dugun adierazle-eremuaren antzera, Gal eta Irvine-k (1995) leku bateko parte diren hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak material sozial eta linguistikoaren bidez eraikitze hiru prozesu semiotiko bereizten dituzte. Ikerlari hauen ustez, dialektoen, hizkuntzen, lekuen eta kategorien arteko mugak *ezabaketa* prozesuaren bidez sortzen ditugu; hots, desberdintasun batzuei garrantzia

ematen diegu, eta beste batzuei, berriz, kentzen.¹⁴ Besteekiko desberdintasun hauek lehendik sorturiko kategorien barruan loturak eginez indartzen dira; hots, *errekurtsibitatearen* bidez.¹⁵ Azkenik, *ikonizazioaren* bidez, eraikiriko kategoriei erranahia ematen zaie, praktika linguistikoei estereotipo sozialak atxikiz. Atxikitze prozesu hori aldaera linguistikoaren eta hau erabiltzen duen jendearen arteko loturak eginaz eramaten da aurrera. Errate batera, lekuei ematen zaizkien etiketa sonatu eta herrikoiak tresna ezin hobea dira esperientzia eta orientazio partekatuak diren lekuen eraikuntzak aztertzeko (Johnstone, 2004: 69). Konparazio batera, Garazin buhameak bezala *xuka* mintzo direla erraten da, nahiz eta tratamendu hau ez izan ibar honetako ezaugarri eksklusiboa.

Lekua espazioaren eraikuntza soziala dela ikusi dugu. Hala ere, Giddens-en (1991: 14-21, 146, 147) arabera, bizitza modernoaren dinamismoaren eraginez, lekua espaziotik urrundu da, testuinguru lokaletako erlazio sozialak moneta edota teknologia bezalako sistema abstraktuagoen bidez berreraikiz. Hala ere, geografo kultural zenbaitek lekuaren erranahiaren garrantziak aitzina jarraitzen duela diote (Entrikin, 1991: 41). Hannerz-ek (1996: 26-27) honako arrazoiak ematen ditu lekua gaur egungo gizartean oraindik ere garrantzitsua dela justifikatzeko:

1. Eguneroko bizia lokala da, errepikakorra, eta beraz, beti leku berdinetan garatzen da. Behar praktikoei ohikotasunez erantzuteko oinarriak garatzeko modua eskaintzen du lekuak.
2. Leku batean gertatzen diren elkartzeak aurrez aurrekoak eta epe luzekoak dira. Horrela, giza taldeei elkar ulertzeko eta jokatzeko modu gehiago eskaintzen dizkie lekuak. Gainera, era honetako elkartzeak emozionalagoak eta esanguratsuagoak dira.
3. Jendearen hasierako esperientziak usu testuinguru lokaletan gertatzen dira.
4. Leku batean gertatzen dena sentsualki erreala da.

¹⁴ Errate batera, AEBn asiarraren izeneko arraza-kategoria sortzen ari da, korear, txinatar, laostar edota japoniarren arteko desberdintasun handiak bazterrerara utziz eta hauek guztiek europar-amerikar eta afrikar-amerikarrekin dituzten desberdintasunei garrantzia emanez.

¹⁵ Adibidez, arraza zuria eta beltza ari garenean, azalaren iluntasun erlatiboaren edota ile motaren arabera jendea talde jakin batean sailkatzen dugu, eta ondoren, kategoria horien kolorean islatzen diren hierarkia-erlazioen arabera, ebaluazioak egiten ditugu. Horiek arraza “zuria” edo “beltza”-ren erranahi sozialak lirakeke.

Geografo humanistikoek lekua paradigma berrian ikertzeko metodo berriak garatu beharraz dihardute. Ingurune fisikoak eta muga politikoek jendearendako zer erran nahi duten ikertu nahi duenak, jende eta erranahi jakinekin lan egin beharko du, eta ez espazio fisiko eta eskala handiko lurralde-politika hutsekin (Johnstone, 2004: 75-76). Johnstonek (2004: 75) etnografiaren iker metodo bereizgarria den behaketa parte-hartzailea erabili beharraz dihardu lan soziolinguistiko ona egin nahi bada, zer gertatzen ari den eta jendeari zer axola zaion deskubrituz. Etnografia iker prozesu osoan, giza jarrera ikertzeko galdu behar ez den ikuspuntua dela defenditzen du. Etnografia izan behar da hizkuntza-aldagaiak ikertzen hasteko lehen urratsa, eta ez alderantziz.

Garaziri dagokionez, ideala herri bakoitza ikertzea litzateke, baina ezinezko zeregina da, lanaren mugak gainditzen baititu. Hori dela eta, eremutan banatu dugu ibarra: Luzaide, Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze, Ezterenzubi, Hergarai eta Gamarte-Ainhiza. Donibane-Garazi ez dugu aintzat hartu, han bereko adineko, heldu eta eskola publikoko gazte euskaldunak atzemateko nekeziagatik. Bertan bizi diren gehienak ondoko herrietarik jinak dira, eta hangoak diren gazteen ia guraso guztiak ere, inguruko herrietakoak dira.

Lasa eta Irulegi-Anhauze Baigorriko ibarrari dagozkio, baina Garaziko euskararen barnean sailkatu zituen Irizarrek (1999a-1: 257). Luzaide, erran dugun bezala, mugaz bestalde dago, baina hau ere, Garaziko euskararen barnean izan dugu, orain arte bederen (*ibid.*).

Geografikoki, eremu bakoitza (Luzaide salbu) ongi bereizia da. Saroihandy-ren (1924: 608) arabera, hiru ibar nagusi ditugu Garazin: Hergarai (berak Mendibekoa dio),¹⁶ Ezterenzubikoa eta Arnegikoa. Lehenbizikoa Laurhibar uhaldeak bustitzen du, bigarrena Errobik eta hirugarrena Arnegiko Errobik. Gamarte eta Ainhiza-Monjolose, Buztintze-Hiriberri eta Lakarrarekin batera, iparraldera buruz ditugu, Donapaleuko bidean. Azkarate, Anhauze eta Irulegi, berriz, Baigorri bidean ditugu, Jara eta Munhoa mendien artean.

Eskola ere bada eremu hauek bereizten lagundu diguna. Eskola bakarra dute Hergarain, Ahatsa eta Mendibe herrien artean banatua, gaur egun, ixteko zorian dagoena. Duela urte batzuk arte eskola partekatu dute Gamarte, Ainhiza-Monjolose eta

¹⁶ Duzunaritze-Sarasketa, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Aintzile, Lekunberri, Mendibe eta Behorlegik osatzen dute Hergarai ibarra.

Lakarrak. Bizirik dago, oraindik, Ezterenzubi eta Eiheralarrek partekatzen dutena, eta duela urte gutxi, Arnegikoa eta Luzaidekoa elkartu dira. 80ko hamarkadan itxi ziren Irulegi eta Anhauzeko eskolak, eta ordutik goiti, Donibane Garazira edo Baigorriara joaten dira.

Eremu bakoitzak bere baitan eta inguruko ibarrekin dituen harremanak ere desberdinak dira. Gamarte eta Ainhiza-Monjolosek harremanak izan dituzte Oztibarrerekin, nahiz eta ardurago jotzen duten Donibane Garazira.

Hergaraik, eta batez ere ekialdeko herriek Arbailetako bortuetara jo dute artzaingoan aritzeko, Hauskunera bereziki. Han, adinekoek zuberotar artzainak ezagutu ahal izan dituzte. Harremanak izan dira urte luzez Behorlegi eta Hoztaren artean ere; hala nola, besten estakuruan eta Hergaraiko herrien eta Hoztaren artean izan den faziaren bidez. Gaur egun, elkarrekin ibiltzen dira Hergaraiko herri guztietako komiteak, eta urtean behin, herriz herri txandatu, “Hergarai Bizi” jaialdia ere antolatzen dute Hergaraiko herritarrek.

Ezterenzubik harremanak izan ditu Orbaizetarekin, besteak beste, artzaingoari esker. Ezteiak ere izan dira inoiz alde batekoen eta bestekoaren artean. Gazteak, oraindik ere, urte guziz, Aezkoako herri horretako bestetara joaten dira. Identitate azkarra dute Ezterenzubikoek, eta gaur egun ere, besta komite indartsua dute. Ezagunak ziren edozein bestatarik partitzen hondarrekoak zirelako, nahiz eta etxera itzultzeko biderik handiena egin behar zutenak beraiek izan. 80 eta 90eko hamarkadan izan zen euskal kultur elkarte bat ere, eta kontzertu eta ekintza andana bat antolatu zuen euskararen alde.

Arnegi eta Luzaide herri bera izan dira XVI. mendera arte, eta gaur egun ere, biziki harreman azkarrak dituzte. Hori izan da Luzaidek euskara atxikitzearen arrazoietarik bat. Arnegiz gain, mendiz, Ehuntzaron gaindi, Bankarekin ere lotura izan du Luzaidek. Hala nola, Espila etxaldekoak Luzaidera jiten ziren komisioneen egitera. Garai berriagoetan, Aezkoara joaten dira DBH egitera luzaidar gutiz gehienak, eta Iruñera joan beharra dute edozein beharretarako. Halaber, Espainiako estatuan egoteagatik, badira Tuteran edota Tafallan bizi diren luzaidarrak, edota Salamancatik Luzaidera bizitzera etorriak. Gazteek mugako bentetan lan egiten dute asteburuetan, eta hori aukera ezin hobea da mugaz bestaldekoekin harremanak izateko. Gainera, euskara da elkarrekin komunikatzeko hizkuntza komuna.

Elkarrekin harreman handiagoa zutela uste genuen Anhauzek eta Irulegik, baina ez da horrela, bakoitzak bere ber egiten baitu bizia. Garai batean, bien arteko mugara joaten omen ziren irulegiarrak eta anhautzarrak batzuek besteei irri egitera. Hala ere, biziki hurbil daude bi herriak eta errepide nagusiak marrazten duen mugak bereizten du bata bestetik. Baigorri eta Donibane-Garaziren artean ibiltzen dira eguneroko harremanetan, baina Irulegikoak usuago joaten dira Baigorriara, halere. Elizaz ere, Baigorriko parte da Irulegi.

2.9.2. Adina

Adinak hizkuntzaren aldaketan izan duen eragina, mende honetako bariazioaz ari izan diren lan gehienetan aztertu da. Aldagai honi esker, bariazionismoak abian diren bilakabide anitz identifikatu ahal izan ditu, hauen eboluzioa ikertzeaz landa. Moreno Fernández-en (2009 [1998]: 47) ustez, adina hizkuntza-komunitatearen erabilera linguistikoak indar eta argitasun gehienez baldintzatzen dituen faktore sozial nabarmenatarik da.

Hizkuntza-aldagai batek adinaren arabera duen estratifikazioak hizkuntza-komunitatean aldaketa gertatzen ari dela adieraz dezake (aldaketa historikoa) edota baita bizitzan zehar aitzina doan ber, hiztunak egiten duen mintzo-aldaketa ere (*age grading* delakoa). Lehenenbiziko motaren kasuan, adinaren arabera gertatzen den aldaketak denbora errealean gertatzen ari den aldaketa islatuko luke itxurazko denboran. Hau horrela izateko, hiztunaren mintzoa erlatiboki egonkorra izan behar da bizitza osoan zehar. Aldakortasunaren inguruko azterketek behin eta berriz erakutsi dute izaera gordetzailerak hazi egiten dela adinean goiti joan ahala. Bigarren aldaketaren kasuan, hiztunari gertatzen zaizkion familia-estatusaren inguruko aldaketek, genero harremanen ingurukoek, lan-estatusari dagozkionek, sare sozialek, bizilekuak, komunitatean eta instituzioetan parte hartzeak, edota merkatuan duen engaiamenduak bere mintzoan eragina dute, adinean zehar mintzoa aldaraziz.

Adina aztertzeke hurbilpen etikoa eta emikoa ditugu. Lehenean, adin-tarte bertsuetako informatzaileak hartzen dira kontuan, erabat arbitrarioki. Bigarrenean, berriz, informatzaileak esperientzia-faktore komunen arabera multzokatzen dira (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 45). Eckerten (1997: 167) ustez, estatus, rol, pribilegio, edo ardurak norbanakoarengan duten eraginaren arabera, hurbilpen emikoak

adinak sistema sozial guztietan duen erranahi berezia aintzat hartzen du. Hori da faktore ontogenetikoari zentzua ematen diona.

Beraz, Eckerten (1997: 152) arabera, adinaren estatus soziala da kontuan hartu beharrekoa eta ez bere estatus biologikoa. Adin jakin bat izanik, norbanakoak rol, askatasun eta erresponzabilitate jakinak hartuko ditu, eta era berean, zaharrak alde batera utziko. Adin sistemek norbanakoak bizitzan zehar duen ibilbidea markatzeaz gain, gizarteko arauen arabera garatzen den ibilbidea ere aintzat hartzen dute (Eckert, 1997: 155).

Sacks-en (1992) ustez, bizitzako etapak adierazle-kategoriak dira. Iritzi berekoa da Poullos ere (2009: 206). Bere ustez, adin kronologikoak ez du hiztunak adinarekiko duen identitatea azaltzen. Hori dela eta, adina, prozesu biologioa baino areago, sozialki eta testuinguruaren arabera baldintzatuta dagoela uste du. Era berean, hiztunek hizkuntzaren bidez era batera edo bestera adierazi ahal izanen dute beraien adinarekiko identitatea.

Batzuetan, adin kronologikoa bizitzako gertaera jakin garrantzitsuei lotuta dago, adibidez, erlijio-egoerari (bataioa, lehen jaunartzea, konfirmazioa), egoera instituzionalari (eskolako lehen eguna, erretiroa), familia-egoerari (ezkontza, lehen haurra), edota estatus psikologikoiari (lehen hortza galtzea, lehen hilabetekoa). Gertaera hauek bizitzako faseekin loturik daude: haur denbora, nerabezaroa, helduaroaren hasiera, bizitzaren erdia, zahartzaroa. Hauek dira hiztunen jarrerak azaltzeko, oro har, kontuan hartzen diren faseak (Eckert, 1997: 156).

Hizkuntza-komunitatean gertatu aldaketa sozial garrantzitsuak ere mugarri izan litezke, adin batetik gorakoek forma jakin batzuk eta adin batetik beherakoek beste batzuk erabiltzea eragin baitezakete. Aldaketa sozial horietarik izan litezke gerrak, adibidez.¹⁷ Beste aldaketa handi bat, hezkuntza orokortzea ere izan liteke.¹⁸ Halaber, mugarri izan litezkeen aldaketa garrantzitsuak ditugu; errate batera, momentu jakin batean gertatu den urbanizazio masiboa, edota emigrazio masiboa sortu ahal izan duen krisi ekonomikoa ere.

¹⁷ Garazi ibarrarendako ere, 2.6.1. §-n aipatu dugun bezala, gerrek eragin handia izan dute frantsesa hizkuntza-komunitate euskaldunean sartzean.

¹⁸ Garazin heldu-gazteek unibertsitate-ikasketak egin ahal izateak ere atek zabaldu dizkio frantsesari.

Eckerten (1997: 167) aburuz, adinaren inguruan eragina duten faktore sozialen sarea konplexua da, eta soziolinguisten xedea faktore hauek guztiak kontuan hartzea izan behar da, adin kronologikoa alde batera utzirik. Horrela, adinak hizkuntzan duen egiazko eragina aztertu ahal izanen da.

Garazi ibarrari dagokionez, euskararekiko harremana, modernizazioa, mugikortasuna, ikasketak, nazio-estatuarekiko harremana, lagun-sarea edota bestak egiteko lekuak izan dira adinaren arabera taldeak bereizteko kontuan hartu ditugun irizpideak. Beraz, adinekoak (70 eta 85 urte bitartean), helduak (45 eta 60 urte bitartean) eta gazteak (20 eta 35 urte bitartean) izan dira bereizi ditugunak.

Adinekoak inguru erabat euskaldunean hazi eta hezi dira, %100 euskaldunetik hurbil dagoen gizartea ezagutu dute. Beraz, gaurko egunean ere, beraiek aitortzen diguten bezala, lehenik euskaraz pentsatzen dute anitzek, frantsesez mintzatu baino lehen. Jatorrizko euskal ahoskera hobekien gordetzen dutenak dira, eta gainera, ahoskera hori frantsesez mintzatzean ere ageri zaie. Etxaldeari eta laborantzari erabat lotuak bizi izan dira, eta herrian berean egin dute bizimodua. Mezara herriko elizara joan dira eta herriko ostatuan eta bestetan libertitu izan dira ahal ukan duten heinean. Astelehen gutxi pasatuko ziren Donibane Garaziko merkatura hurrandu gabe, batez ere gizonezkoen kasuan. Udan artzain joaten ziren gizonak bortura, eta han beste ibar batzuetako jendeekin gurutzatzeko mentura izaten zuten. Soldadutzatik landa bakan atera dira ibarretik.

Helduak berriz, ingurune euskaldunean jaio dira, euskara mintzatzen duten guztiek etxean ikasi eta erabili dute, baina bizimodu modernoaren garapenarekin batera, frantsesa beti eta presentzia handiagoa izaten hasi da beraien bizietan. Hori dela eta, zenbaitek euskara erabat bazterrean utzi dute, beraien eguneroko bizian, gurasoekiko harremanera mugatuz, eta batzuetan, ezta horretara ere. Helduena eskola handiagoak egiten hasi den belaunaldia dugu. Baxoa duen heldu franko atzeman genezake, baina oraindik ere nekez aurkitzen dira unibertsitate ikasketak dituztenak. Irizarrek (1981: 208) erraten digun bezala, euskara jakinda joaten ziren eskolara, baina ahaztu egiten zuten bertan. Haur edo gazte zirela sartu zen telebista etxeko sukaldean, eta orduan ziren egin bide gudronatuak etxe atariraino. Ezagutu dugu Brevet-aren egitera Donibane Lohizunera, Pauera edo Garazitik kanpoko herriren batera joan den heldurik ere. Etxeetara traktoreak etorri ziren, frantses gobernamentua (eta neurri apalagoan

espainiarra Luzaiden) laborantzako makineria erosteko primak ematen hasi zen, bastimenduak eraiki ziren etxaldean ondoan, eta kabaleak emendatu. Heldu anitz, oraindik ere, laborantzatik bizi da.

Azkenik, Garazin, Iparralde osoan bezalatsu, gazte anitz ez dira euskaraz mintzo, zailtasunak dituzte, edota badakite baina bakan baliatzen dute. Badira euskaraz bizi diren gazteak, euskara jakin eta erabiltzen dutenak, baina hauek ingurune frantsesean hazi dira, gizartearen parte handiena frantsesez bizitzen ezagutu dute. Beraz, euskara sortu duten euskaldun sare trinkoari esker erabiltzen dute, dela ikastolan, euskal kutsuko ostatueta, euskal giroko bestetan edota familian. Unibertsitate-ikasketak dituzte, eta Bordele edo Tolosa bezalako hiri handietara joan dira, gainera, ikasketok egitera (Luzaidekoen kasuan Iruñe aldera). Garazi, eta oro har, Euskal Herria txiki gelditu zaie. Era berean, euskara eskolan sartzen ikusi duten lehendabizikoak dira. Beraien belaunaldian emendatu dira euskara hutsezko ikastolak. Komunikazioaren munduari erabat loturik bizi dira, eta internet beraien eguneroko biziaren parte da. Erreferentzia kultural ugari sare sozialetarik heldu dira, eta erran beharrik ez da, mundu hori frantsesezkoa, gaztelaniazkoa edo ingelesezkoa dela parterik handiengan.¹⁹ Laborantzarekiko lehen haustura nabaritzen hasi da, eta gazte anitz hirugarren sektorean hasi da lan egiten. Hori dela eta, horietarik anitzek etxondoa utzi dute Donibane Garazi edo beste herriren batean apartamendua alokatu edo erosteko.

2.9.3. Generoa

Generoa ere, soziolinguistikaren historian usu aztertua izan den aldagai soziala da. 2.3.3.6. §-ean, aitzindari sozialen ikuspuntu tradizionalaren arabera, emazteek aldaera prestigiotsuen alde eta forma estigmatizatuen aurka egiten dutela erran dugu. Soziolinguistika bariasionistaren historian garrantzi handia eman zaio joera honi. Hori dela eta, Labovek (1990, 2001a: 291) “generoaren hatsarrea” izena eman zion, eta Fasold-ek (1990: 92) “generoaren hatsarre soziolinguistikoa”. Zergatik dira, ordea, emazteak berritzaileago?

Chambers & Trudgillek (1998 [1980]: 84-84) honako arrazoi hauek ematen dituzte:

¹⁹ Bengoetxea (2012: 103-105) ere kezkatu ageri da Gipuzkoako arnaguneetako gazte anitzek kultura parterik handiengan gaztelaniaz eta ingelesez kontsumitzen dutelako.

1. Gure gizartean gora egiteko, emakumeek aukera gutxiago dituzte, eta hauek lortzeko euren estatus soziala itxuraren eta portaeraren arabera agerrarazi beharra dute.
2. Lan aukera txikiagoa dela eta, sare sozial ez hain sendoetan parte hartzen dute emakumeek. Taldearen presioa ez da beraiengan hain handia, eta egoera formaletan ardurago aurkitzen dute beraien burua, hitz egiten duten jendeekin ez baitute hainbestearinoko konfiantzarik.
3. Generoen arteko rolak oso bereizirik dauden gizarteetan, emazteek mugikortasun handiagoa izan ohi dute.
4. Onarturiko jarrerari dagozkion arauen aldeko dira; batez ere, haurrak hezteko ardura emazteek hartzen dutelako.
5. Jarrera gogorra edukitzea eta arauak haustea ongi ikusia dago gizonezkoengan. Alta, emakumezkoak zuzen, diskretu, isil eta edukazio oneko izatera presionatuta daude.

Eckertek (1989b) generoaren hatsarrearen inguruko ikuspuntu aldaketa errotu zuen. Bere ustez, sexua eta generoa bereizi beharra dago. Lehena edozein gizartetan rolak, arauak eta aukerak desberdintzeko oinarritzat erabiltzen den kategoria biologikoa da. Bigarrena, berriz, rol, arau eta aukera hauek osatzen dute, sexuaren eraikuntza soziala da. Hau da lan soziolinguistikoek ikertu beharrekoa (Eckert, 1989b: 246).

Eckerten (1989b: 247) iritziz, genero desberdintasunak ikaragarri konplexuak dira, batez ere, emakumeak lan-merkatuan beren lekua egiten saiatu diren eta genero rolak zalantzan jarri dituzten gizarteetan. Genero rolek eta ideologiek, bizitza, kultura eta gizartea esperimentatzeko bide desberdinak sortzen dituzte gizon edo emakumeentzat. Beraz, ez dago generoaren eta aldakortasunaren artean erlazio konstantea eta sinplea dagoela sinesteko arrazoirik. Soziolinguistikan, historikoki, generoa oposizio moduan hartu izan bada ere, dikotomia huts horrek ez du zentzurik. Akatsa ez da bakarrik emazteak gizonezkoak baino berritzaileago edo kontserbatzaileago direla erratea, baizik eta edozein motatako eredu bat generoarekin loturik dagoela onartzea (Eckert, 1989b: 248).

Labovek (1990) eta Trudgillek (1972: 182-183) generoen arabera, mintzoan dagoen aldea komunitatean indarrean dauden prestigio-arau desberdinen ondorioz gertatzen dela ondorioztatu zuten. Eckertek (1989b: 253), ordea, generoak komunitatearen portaera linguistikoan efektu uniformerik ez duela argudiatu zuen. Bere ustez, adina, klasea edota etnia diren bezala, generoa ere eraikuntza soziala da eta beste fenomeno sozial batzuekin interakzioan dago.

Emazteek estatusa behar dute boterea erdiesteko. Estatusa ez da, ordea, hierarkikoki bakarrik definitzen. Hain zuzen ere, norbanakoaren estatusa partaide den taldearen edo gizartearen arabera, norbanako horrek duen lekua da. Erranahi zabalagoko estatus hau da emazteek baliabide sinbolikoen arabera aldarrikatuko dutena. Aldarrikapen hau estatus hierarkikoarena izanen da, baldin eta hierarkia ohargarria (*salient*) bada. Emazteen portaera berritzailea edo gordetzailea, beraz, parte hartzen duen komunitate guztietan bere partaidetza aldarrikatzeko beharrean datza (Eckert, 1989b: 256).

Botere arrazoiengatik, femeninitasuna boterearen ukapentzat ulertzen da eta maskulinitasuna, berriz, boterearen aldarrikapen moduan. Lehena, beraz, bortxakeria gutxirekin, mugimendu delikatuarekin, ahots isil eta maiztasun altukoarekin, jendetasunarekin eta izaera lagunkoiarekin lotzen da (Eckert, 1989b: 257). Bigarrena berriz, ausardia, bortizkeria, sentimenduen agerpen urriarekin eta indarrarekin.

Neska nerabeak goi-eskolara heldu eta, boterea edukitzera heltzeko gizonezkoen ber aukera ez dutela ohartzen dira. Mutilek boterea eta estatusa ekintza zuzenaren bidez lor dezakete, ausardia fisikoaren bidez, errate batera. Neskek, aldiz, beste baliabide batzuk erabili beharko dituzte, hizkuntza tarteko. Gauzak horrela, Detroit-eko institutu batean egin zuen azterketa ezagunean, nerabeek ez zuten “generoaren hatsarrea” zehazki segitzen, baizik eta neskek taldearendako garrantzitsuenak ziren *Jock* edo *Burnout*-en arteko desberdintasun sinbolikoak hartzen zituzten kontuan, hauek berrikuntzak edota estigmatizatutako formak ziren kontuan izan gabe (Eckert, 1989b: 258-259).

Areago, badira emazteak gordetzaile diren kasu zenbait ere, batez ere, landa-eremuetan. Hala gertatzen zen Villadepera de Sayagon (Borrego-Nietok, 1981: 15-16) eta baita Euskal Herriko bereko zenbait eskualdetan ere (Camino, 2009c: 299). Horrek

ere emazteen izaera berritzaile edo gordetzailea botere-harremanetan eta gizarte bakoitzaren egitura sozialean bilatu beharra dagoela oroitarazten digu.

Gero eta autore gehiago dira, bi genero femeninoaren eta maskulinoaren artean *continuum*-a dagoela pentsatzen dutenak, eta orientazio sexualari dagokionez, berriz, heterosexualetarik at dauden kolektiboen mintzoak ere aztertzen dituzten autore andana bat dugu. Bestelako identitate sexualak kontuan hartzen hasi ziren lanak ditugu, adibidez, Leap-ena (1996) edota Livia & Hall-ena (1997). Horietarik abiatuta “hizkuntzalaritza Queer-a” sortu zela erran liteke.

Queen-en (2013 [2002]: 377) ustez, generoa interakzioaren ondorioa da, eta honetan eragina dute instituzioek, arau kulturelek, balore sozialek eta beste milaka prozesuk. Hori dela eta, hizkuntza-aldakortasunaren, generoaren, sexuaren, sexualitatearen eta genero-identitatearen arteko harreman-sare konplexua eratzen da. Eckertek (2008) proposatutako adierazle eremuaren eta hizkuntza-aldakortasunaren arteko loturaren harira, Ochs-en (1992: 337) arabera, generoa ez da era zuzenean adierazten, baizik eta portaera, ekintza sozial, eta bestelako eraikuntza sozial jakinen bitartez. Hauek, arau konbentzionalek lagundurik, generoa den kategoria makrosoziala izan lezakete emaitza.

Norbanakoak bere generoa modu anitzetan eraiki dezakeela onartuta, Goffman-ek (1977: 304) genero-identitate kontzeptua aurkeztu zuen: “Insofar as the individual builds up a sense of who and what he is by referring to his sex class and judging himself in terms of masculinity (or femininity), one may speak of *gender identity*”. Genero-identitatearen kontzeptua generoaren kontzeptu prototipikoan oinarriturik dago (Biemans, 2000: 11). Norbanakoa prototipo maskulinoaren edo femeninoarekin bat etor liteke era argiagoan edo ilunagoan. Norbait prototipikoki femeninoagoa izan den talde sozialeko beste kide femeninoekin bat datozen ezaugarriak baditu. Bistan den bezala, ber gauza erran liteke maskulinitasunaren kasuan ere. Fischer, Van Frankenhuyzen, Rojahn eta Willemesen-en (1993: 304 in Biemans, 2000: 11) arabera, femeninitasuna edo maskulinitasuna definitzen duena eskala lerrakorra da, eta prototipo kulturalen arabera da. Eskala horretan, maskulinitasunaren edo femeninitasunaren aldaera guztiak elkarren artean loturik egonen dira. Pertsona baten identitatea prototipikoki femeninoagoa edo maskulinoagoa izatea, pertsona horren haur denborako sozializazioaren eta munduarekiko harremanaren, eta helduaroan egiten duen

garapenaren araberakoa izanen da. Prototipoek gure burua femeninotzat edo maskulinotzat adierazteko balio digute, baina baita beste pertsona batzuk epaitzeko ere. Genero-identitatea sexu biologikotik aparte dago, bai emakume eta bai gizonezkoek izan baititzakete prototipo maskulino eta femeninoen ezaugarriak (Biemans, 2000: 11).

Queenen (2013 [2002]: 383) aburuz, (i) generoa, sexua eta sexualitatea ez dira kategoria sozial estatikoak, (ii) generoa hizkuntza-aldakortasunean eta hizkuntza-aldaketan zuzenean edo zeharka inplikaturatuta dago, (iii) generoa hainbat emaitza hautemateko manipulaturatuta izan liteke, (iv) generoa fenomeno aldakorrek azaltzeko erabiltzen da, nahiz eta aldakortasunaren iturria ez izan eta (v) generoa, sexua, identitate sexualak eta sexualitatea bata bestearekin era harrigarrian edo aurreikusgarrian egon litezke loturik.

Garaziko ibarrera etorrita, genero maskulinoaren eta femeninoaren arteko bereizketa soziala nahiko argia da. Emazte izatea jokaera, ekintza, pentsamolde eta janzkera jakin batzuekin lotuta dago, eta gizon izatea beste batzuekin. Nekez atzeman liteke bi kategoria prototipiko horien arteko eskalaren erdi aldean era irekian dagoenik. Halaber, biziki gutxi dira jokaera heteronormatibotik ateratzen direnak ere. Dikotomia horretarik ateratzen diren bakar horien artean, are gutxiago dira euskaraz bizi direnak, eta euskarazko estilo berezia erabiltzen dutenak komunikatzerako orduan. Horregatik, lan honetan generoa aldagaiaren barruan emazteak eta gizonak baino ez ditugu bereiziko.

Adinekoen kasuan, gizonezkoak merkatura, feriara edo bortura joaten ziren, baina emazteak gehienetan etxean egoten ziren. Beraiek arduratu dira haurren zaintzaz, eta gizonezkoen menpean bizi izan dira, erabat. Ikasketa handirik ere ez dute izan. Emazte helduen kasuan, aldaketa nabari da. Ikasketa luzeagoak egin ahal izan dituzte, eta gizonezkoenak ziren ardura batzuk bereganatu dituzte. Errate batera, ezagutu izan ditugu etxaldean jabeak diren eta hauek aitzina atera dituzten emakume helduak. Halaber, ezkondu eta gero ere, etxetik kanpo lanean aritu diren emazte helduak ere badira. Gazteen kasuan, neskek eta mutilek, biek egiten dituzte ikasketa luzeak, berostatueta ibiltzen dira, desagertua da neskek gauz festan ibiltzeko zuten debeku soziala eta biek ekintza sozial eta kulturaletan parte hartzen dute. Hala ere, oraindik ere, argi dago Garazin zer den emazte ala gizon izatea, nola jokatu behar duen horietako bakoitzak, zer dagoen ondo ikusia emazte batendako edo gizonezko batendako.

Berdintasunetik urrun gaude oraindik, eta Garazin ere, gizonek botere sozial eta ekonomikoa duten gizarte baten aitzinean egoten jarraitzen dugu.

2.9.4. Hezkuntza-eredua

Aldagai sozial hau eta ondokoa gazteen artean baino ez ditugu izartuko. Hezkuntza-ereduari dagokionez, adinekoek eta helduek frantses hutsean jaso dute hezkuntza. Bizkitartean, euskara desagertzeko arriskuaz arranguraturik, 1970ean zabaldu zen ikastola Garazin (Camino, 2016: 48), eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da azken urteetan. Gaur egun, gazteek euskara hutsean ikasteko aukera bakarra da, euskara ofiziala ez izanik, Iparraldean ez baitago Hegoaldean D eredia deitzen duguna bezalakorik hezkuntza publikoan. Ezterenzubi eta Eiheralarrek partekatzen duten ama-eskola (Hegoaldeko lehen hezkuntzaren parekoa) salbu, beste guztiak elebidunak dira gaur egun Garazin, baina kontuan hartu beharra da berriki hetsi den Lakarra-Ainhiza-Gamartekoa frantses hutsezkoa zela, eta baita Arnegikoa ere, Luzaidekoarekin bildu aitzin.

Behin kolegiara (Hegoaldeko DBH-ren parekoa) iraganik, Donibane Garaziko bi kolegioetan (Maiorga kristaua eta Zitadela publikoa) eredu elebiduna badago ere, gutxiago dira klase elebidunean segitzen duten gazteak, frantses hutsezkoari konparatuz. Berdin gertatzen da Navarre eta Frantsesenia lizeoen (Hegoaldeko batxilergoaren parekoa) kasuan ere. Frantses hutsean ikasten dutenek, badute euskara ikasgai moduan hautatzeko mentura, halere. Ikastolaren bidea segitzea erabakitzen dutenak Larzabalera joaten dira Manex Erdozaintzi-Etxart kolegiara eta Baionara Etxepare lizeora.

Egoera hau dela eta, eskola publikoan ikasi duten gazteen artean, euskara ongi mintzatzen duten gazte bakarrak beren kabuz landu dutenak, edo/eta etxean familiakoekin mintzatzen dutenak dira. Funtsean, profil hori dute elkarrizketatu ditugun eskola publikoko gazte guztiek. Oro har, ikastolakoek kompetentzia hobea dute euskaraz, eta usuago mintzatzen dute eskola publikoetakoek baino. Era berean, ikastolakoek Euskara Batuaren edota iparraldeko batua erregiolektoaren eragin handiagoa dute, hauek baitira gazteek egun guziz, ikastolan entzuten eta lantzen dituzten euskarak. Publikoek, berriz, oinarri dialektalaren eragin handiagoa dute, etxea baita euskara erabil dezaketen eremu ia bakarra.

Berriki arte, sozialki, aski gaizki ikusia izan da ibar honetan haurrak ikastolara igortzea, ikastolak abertzaleen bilgunetzat eta herriko eskola publikoak hesteko

mehatxutzat ikusiak baitziren. Ondorioz, gazte bat baino gehiago sentitu izan da herrian besteengandik pixka bat aparte ikastolan ikasteagatik. Gaur egun, egoera uzkaile dela erran liteke, ikusi besterik ez baitago ikastolek azkenaldian duten arrakasta.

Luzaideren kasuan, 90ko hamarkadaren amaiera aldera etorri zen D eredu bertako eskola publikora. Ordura arte, gaztelania hutsezkoa zen han ere eskola. Gaur egun, Euskara Batua da Luzaideko eskolan lantzen dutena, baina ez da mugaz bestaldeko ber Batua. Erran bezala, iparraldeko batua erregiolektoa da mugaren beste aldean indarra hartzen ari dena, eta bizkitartean, erdialdeko euskalkian oinarrituriko Euskara Batua edo hegoaldeko batua da Hegoaldeko, eta beraz, Luzaideko eskoletan lantzen dena. Eskola publikoko gaztetzat hartuko ditugu eskolan gaztelaniaz ikasi zutenak, 30 urte inguruko bi gazte. Ikastolako gaztetzat hartuko ditugu, berriz, herrian, euskaraz D ereduan ikasi zuten 30 urtez azpiko beste bi gazte.

2.9.5. Praktika-komunitatea

Praktika-komunitateei buruz luze eta zabal aritu gara 2.3.3.3. §-ean. Aski gizarte uniforme dugu adinekoen eta helduen artean, eta ez da aise, beraz, praktika-komunitate argirik bereiztea. Gazteen artean, hizkuntza-desberdintasuna hezkuntza-eredua kategoria makrosozialak baino areago, garaztar gazteek osatzen dituzten praktika-komunitateek azal dezaketela ohartu ginen. Garazin, badira gaztetxeetan ibiltzen diren gazteak, herriko bestetako komiteetan ibiltzen direnak, eta azkenik, bere ber ibiltzen diren luzaidarrak. Gure hasierako ustea zen ikastolako guztiak ibiltzen zirela gaztetxe giroan, eta publikokoak, berriz, komiteetako giroan. Alta, gerora ikusi dugu ikastolako anitzak komiteetan ibiltzen direla eta gaztetxetik nahiko urrun daudela. Halaber, ohartu gara badagoela publikoko gazte bakar zenbait gaztetxeko giroan ibiltzen baita. Luzaideko gazteak, berriz, besteengandik aparte aztertu beharra dagoela kontziente gara, ez baitira sobera nahasten beste garaztarrekin.

Garaztar gazteen arteko talde hauek biziki ongi egokitzen zaizkio praktika-komunitatearen definizioari, izan ere praktika sozial jakin batzuetan engaiatzen dira, eta xede horrekin, elkarren arteko erresposabilitate-harremanak sortzen dituzte. Gainera, talde bakoitzak estilo desberdina eta markatua du.

Gaztetxeko gazteak, gaztetxeko ekintzen inguruan biltzen dira. Gaztetxeko antolakuntzaren barruan daude, egon dira noizbait, edo gaztetxean ibiltzen den jendearengandik hurrant daude. Gaztetxearen helburua garaztar gazteendako gune

askatzailea sortzea da, besteak beste, euskararen eta euskal kulturaren aldeko ideiak dituenak, eta ildo horretako ekintzak dira antolatzen dituztenak. Euskal kultura kontsumitzen dute eta anitzak sortzaile ere badira, musika alorrean, bereziki. Beste gaztetxe batzuetako edota herri jakin batzuetako (adibidez, Sara, Itsasu, Larzabale, Makea, Aiherra) bestetara joaten dira, Nafarroa Beherea eta Lapurdi osoan gaindi, eta Hegoaldera joateko ere usaia handia dute, oro har. Donibane Garazin, lan honetan, Gaineko Ostatua izenordea emanen diogun ostatuan biltzen dira. Denek dakite euskaraz, eta gehienek ardura erabiltzen dute lagunen artean.

Komiteetakoak herriko besta-komitean parte hartzen duten gazteak dira. Herri txikietako eskolak eta ostatuak hesten ari diren honetan, besta-komitea herriko gazteek elkar ezagutu ahal izateko aukera bakarrenetarik da. 16 bat urtetan sartzen dira herriko gazteak komitean eta 30 bat urtera arte han jarraikitzen dute. Komiteen helburu nagusia herriko bestak eta horien inguruko zenbait aktibitate antolatzea da, herriaren biziartzeko xedearekin, beti ere. Talde moduan, ez dira baitezpada abertzale, nahiz eta kideen artean baden orotarik. Gure lekuko zenbaiten kasua den bezala, badira komiteetan ibiltzen diren, euskararen aldeko kontzientzia duten, abertzale diren eta euskal kultura kontsumitzen duten gazte batzuk.

Badira aski euskaldun diren komiteak, baina gehienetan, euskarak ez du presentzia handirik, eta frantses giroa da nagusi. Gehienek euskara ulertzen badute ere, anitzak ez dira gai edo ez dute usaiarik mintzatzeko, ingurune frantsesak hala eraginda. Garazi eta Baigorriko herri txikietako bestak egiten dituzte, eta bakan ateratzen dira handik. Donibane Garazin, lan honetan, Azpiko Ostatua izenordea emanen diogun ostatuan ibiltzen dira. Laborantza munduari aski loturik daude anitzak.

Azkenik, luzaidarrena aski praktika-komunitate heterogeneoa da. Hala ere, herriarekiko harrotasunak eta maitasunak elkartzen ditu. Besteak beste, Bolant Eguna erranahi sinboliko handiko besta da beraiendako, eta han parte hartzen dute gazte guztiek Bolant Dantzak dantzatuz. Mutiletarik anitzak ihiziak ere elkartzen ditu. Biziki jarraikiak dira, eta larrazkenean, herriko ekintza nagusienetarik da ihizia. Egungo egunean, gaztez husten ari da Luzaide. Gehienak batxilergoaren egitera Iruñera joaten dira, eta han lana atzeman eta, ez dira itzultzen, ez bada asteburuetan. Herriko gazte gehienak elkarrekin ibiltzen dira, eta herriko ostatu batean edo herriko elkartean afaltzen dira. Ondotik, besta egiteko tenorean, Garazi eta Baigorriko herrietara jausten dira

ardurenean, baina Aezkoa edo Baztan aldera joateko ere usaia handia dute. Eskola dela eta, gehienak (Garaziko ikastolara joan direnak salbu) aetzekin gurutzatzen dira Garraldan DBH egitean, eta gainerako nafarrekin Iruñean batxilergoa egitean. Asteburuetan mugako bentetan lan egiten dute gutiz gehienek, eta han, Nafarroa Behereko gazteak ezagutzen dituzte. Denek euskara badakite ere, oso presentzia apala du herrian, eta gaztelania erabat nagusi da.

Praktika-komunitate hauen artean desberdintasunik sentitzen duten jakiteko, lekukoei beraien iritzia eman dezaten galdegin diegu. Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztearen arabera, gaztetxekoak euskaltzale aktiboagoak dira, euskaraz irakurtzen dute, eta besta egitera Nafarroara edo Gipuzkoara aise joaten dira. Euskal Herriko ikuspuntu hori ez duten komiteetakoak ez dira hainbeste mugitzen. Talde horien arabera, hizkuntza aldatzen dela iruditzen zaio. Baigorri jendeak gehiago nahasten dira, eta euskaldunagoak dira. Komitean ere, denek dakite euskaraz. Denak euskaraz mintzatuz gero, errazagoa da nahastea.

Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak Gaineko Ostaturkoen eta Azpiko Ostaturkoen artean desberdintasun handia ikusten du interes mailan eta arte mailan. Beraiek euskal musika edo euskal zinemaren xerka joaten dira. Besteek errazago hartzen dute xerkatzeko orde. Badira ikastolako batzuk ez direnak beraien mundu horretan batere egoten. Ikastolako batzuk Azpiko Ostaturko giroan ibiltzen dira, eta eskola publikoko batzuk Gaineko Ostaturkoan. Azken giro horretan, aise euskara gehiago entzuten da.

Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak Gaineko Ostaturkoen eta Azpiko Ostaturkoen arteko desberdintasuna atzematen du. Azpiko Ostaturkoak frantsesez ari dira ardurenean. Gehiengoa ez da arrunt goxoki sentitzen euskaraz. Badira ikastolako anitz ez baitira Gaineko Ostaturko giroan ibiltzen. Halaber, bada norbait eskola publikokoa izanik ere, Gaineko Ostaturko giroan ibiltzen baita. Ez da ohikoa, baina badira nahasketa ttipi batzuk bi taldeen artean. Gaztetxeetan ibiltzen direnen eta herrietako bestetan ibiltzen direnen arteko desberdintasuna egiten du berak. Gaztetxeetan ibiltzen direnak ere joaten dira herriko bestetara, baina ez ber herrietara. Gaineko Ostaturko da gaztetxekoaren bigarren bulegoa, bilkuretarik landako lekua. Lokalik ez zutelarik, ostaturko horretan egin izan dituzte bilkurak.

Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea komitean sartu zen, baina ez zuen batere maite giroa, ezta erraten zituzten gauzak ere. Desberdin sentitzen zen. 13-14 urtetan haiekin ibiltzen zen, baina ohartu zen ez zuela maite giroa, hizkuntzagatik, egiten zituzten gauzengatik eta pentsatzeko maneragatik, besteak beste.

Gure lanean, gaztetxekoen eta komiteetakoen praktika-komunitateak ez daude kopuru berean ordezkatuak eremu bakoitzeko, baina errealitatea ere desberdina da eremu batetik bestera. Biziki erraza izanen zaigu gaztetxekoak atzematea Gamarten eta Ainhiza-Monjolosen, baina ezinezkoa Ezterenzubin. Gure lekukoek ere hala dakusate egoera. Adibidez, Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak, Lasa ez bezala, herri “euskalduntzat” dakusa Ainhiza-Monjolare. Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak, berriz, ia exotikotzat ditu Ezterenzubiko bestak.

Artzelus (2020b) lanean, Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasunaren berri izateko, praktika-komunitate hauen arabera egin azterketak hezkuntza-ereduaren arabera egindakoak baino emaitza xeheagoak ematen dizkigula frogatu ahal izan genuen.

2.10. Menpeko aldagaiak (hizkuntza-aldagaiak)

Modu ugarritan ager litekeen hizkuntza-elementu, ezaugarri edo unitateari hizkuntza-aldagai izena ematen zaio. Horrela bada, hizkuntza-aldagaia elementu beraren agerpen multzoa da eta aldagaiaren agerpen bakoitzari aldaera erraten zaio (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 21). Hizkuntza-aldagaia zein den erabakitzeke irizpidea aldaera bat edo bestea erabilirik, honen erreferentziatzko erranahia ez aldatzea da (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 46).

Zein hizkuntza-aldagai aztertuko ditugun erabakitzeke, Labov (1972) eta Trudgillen (1974: 80) irizpideetan oinarritu gara. Labov-i (1972: 36) jarraituz, lehenengo eta behin, maiztasun handiz agertzen den elementua interesatzen zaigu, elkarrizketa espontaneoan agertzen dena, eta elkarrizketa labur eta testuinguru ez egituratuetan aztertu ahal izanen duguna. Bigarrenik, egituratua izan behar da: zenbat eta integratuago egon elementua funtzionamendu-unitateen sistema handiagoan, orduan eta interes handiagoa gure ikerketarako. Hirugarrenik, ezaugarriaren banaketa sozialki estratifikatua izan beharko da. Trudgillen (1974: 80) arabera, berriz, erranahi sozialaren maila eta hizkuntza-desberdintasunaren maila hartu behar dira kontuan hizkuntza-aldagai bat aukeratu eta aztertzerakoan.

Hizkuntzaren arlo guztietan atzeman genitzake aldakortasuna ikertzeko balioko diguten aldagaiak, baina hala ere, arlo jakin batzuetan lan egitea nahiago izan dute bariazionismoan aritu diren autoreek. Moreno Fernándezek (2009 [1998]: 25) aldagai fonetiko-fonologikoak ikertzeko errazak direla dio, elementuen alternantziak erranhian aldaketarik ekartzen ez duelako, maiztasun handia baitute, sistema itxietan integratuta baitaude, eta estilistikoki eta sozialki estratifikatuta baitaude.

Aldakortasun fonetiko-fonologikoaz gain, morfologia funtzionalari dagokiona da gehien aztertzen dena, elementuek maiztasun handia baitute, sistema egituratueta parte baitira, eta sozialki eta estilistikoki banaturik baitaude (Moreno Fernández, 2009 [1998]: 28).

Aldakortasun sintaktikora jauzi eginez gero, ordea, gauzak konplikatatu egiten dira, izan ere aldaera bat edo bestea erabili, erranhia ez da beti bera izaten, eta gerta liteke semantikoki ñabarduraren bat izatea (Tagliamonte, 2012: 235).

Azkenik, aldakortasun lexikoari dagokionez, biziki zaila da aldaeren arteko baliokidetasun semantikoa aurkitzea, erabat sinonimoak diren hitzak izatea teorikoki biziki konplikatua baita (Salvador, 1984 in Moreno Fernández, 2009 [1998]: 32).²⁰

Guk arlo fonikoa (1-10 aldagaiak), morfonologia (11-15 aldagaiak), izen-morfologia (16-21 aldagaiak), aditz-morfologia (22-27 aldagaiak) eta sintaxia (28-31 aldagaiak) hartu ditugu aintzat. Orotara, 31 hizkuntza-aldagai aztertuko ditugu, beraz, eta gure kasuan ere, arlo fonikoa da ordezkatuena.

Garrantzi handia eman diogu hizkuntza-aldagai bakoitzaren eremua zedarritzeari, izan ere, 2.7 §-ean ikusi dugun bezala, eremu murrizteneko aldaerak dira desagertzen lehenak eta eremu zabalenekoak atxikitzen dira hobekien. Hizkuntzaren alor bakoitzean, hizkuntza-aldagaiak hedadura zabalena dutenetarik murriztena dutenetara ordenatu ditugu.

²⁰ Har dezagun Almeida-ren (2003 [1999]: 76-77) beste adibide hau. *Nola deitzen zaio bikotelaguna ez den batekin harremanak izateari?* Galdera horri emandako erantzunak ondokoak izan ziren: *adulterioa egin, adarrak jarri, engainatu, infidela izan*. Ikerlaria ohartu zenez, hitz hauek erranahi erreferentzial hutsa emateaz gain, nolabaiteko konnotazio kulturala ematen zuten. *Infidela izan* eufemiatzat hartua izan zen, *adarrak jarri* disfemiatzat eta *engainatu* neutrotzat. Interesgarria da, hala ere, talde sozial bakoitzak hitz bakoitzari zein erranahi ematen dion ikustea, edota talde bakoitzak hitz jakin bat edo beste zergatik eta nola erabiltzen duen aztertzea.

Lehenik eta behin, hizkuntza-aldagaia aurkeztuko dugu, ondoren, bere hedadura zehaztuko dugu. Jarraian, aldagaia aztertzerako orduan harturiko erabaki zenbait aipatuko ditugu. Aldakortasun estilistikoari buruzko xehetasunak emanen ditugu gero. Artzelus (2020a) lanean, hizkuntza-aldagai gehienek aldakortasun diafasikoa aztertu genuen. Horretarako, Donibane Garazin kokaturik dagoen Irulegiko Irratian lanean dabilen irrati-esatari baten mintzoa aztertu genuen. Berarekin ikertzaileak laguntasunezko harremana duenez, aurrez-aurre izan genuen elkarrizketa hartu genuen mintzo informal eta arduragabearen ordezkarietat. Mintzo formala eta zaindua lortzeko, berriz, aski izan zen bere irratiko jarduna ikertzea. Ikerketa hartan ukan genituen emaitzak hona ekarriko ditugu; izan ere, Bellen printzipioaren arabera, hizkuntza-aldagai batek aldakortasun estilistikoa izateak aldakortasun soziala izatea ere badakar berarekin (Labov, 2001b: 86). Gainera, hizkuntza-aldagaiak aldakortasun sozial eta estilistikoa baditu, markatzailea da, komunitateko kideak hartaz kontziente diren ber. Besteak beste, 2.3.3.2. eta 2.3.3.4. §-etan ikusi dugun bezala, markatzaile izateak garrantzi berezia du hizkuntza-aldagai horrek komunitatean duen presentzian eta bere etorkizuneko norabidean. Ildo beretik jarraituz, markatzaile izaera hori egiaztatzeko xedez, hizkuntza-jarrerak ere aintzat hartu ditugu. Horiek ongi ikertzeko badakigu egokiena *matched guise* froga egitea litzatekeela, baina lanaren mugak direla eta, lekukoengandik eta beste hiztun zenbaitengandik jaso ahal izan ditugun iritziak ekartzen saiatu gara. Azkenik, lekukoek eman adibide batzuk zerrendatu ditugu. Uneoro saiatu gara hiztun berak hitz beraren aldaera desberdinekin eman adibideak aipatzen, horrek erran nahi baitu hiztun berak bi aldaerak barneratuak dituela.

Arlo fonikoari eta morfonologiari dagokionez, argi dago bilakabide jakin bat gauzatu ondorengo forma bilakabidea gauzatu aitzinekoa baino berriagoa dela; hala nola, aferesia gauzatu ondorengo *man* berriagoa da *eman* baino. Halaber, $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset \rangle$, $f_i \rangle / V_V$ bilakabidea gauzatu ondorengo *iraazi* berriagoa da *irabazi* baino. Gure hipotesia da talde sozialik berritzaileenek Euskara Batuaren, garatzen ari diren bariedade supralokalen eta euskara idatziaren eraginez, forma osotuen alde, hots, bilakabideak gauzatu aitzineko formen alde egiten dutela. Hori dela eta, linguistikoki, talde hauek gordetzailer direla erraten ahalko litzateke. Haatik, azkenaldian hedatzen ari diren eragin-foko berriei jarraituz zaizkien ber, alderdi sozialari erreparatuz, berritzaile direla erranen dugu lan honetan.

2.10.1. Bokal aferesia

Bokal aferesia hitz hasierako bokala galtzean datza, errate batera, *ekarri* → *karri* edota *ikusi* → *kusi*. Mitxelenaren (2011 [1961]: 128-129) arabera, bigarren silaban doan azentuaren eraginez gertatzen da. [e] eta [i] bokalen galera da ohikoena (Ibarra, 1994: 136). Gure hipotesia da aferesia gibelera ari dela Garazin euskara idatziaren eta Euskara Batuaren/Batuen (iparraldeko batua/hegoaldeko batua) eraginez.

Euskal Herriko ekialde osoan zehar dago bokal aferesia hedaturik, Zuberoan salbu. Euskara nafarraren ezaugarri eksklusibotzat hartu zuen Zuazok (1998: 215). Mendebaldeko mugari dagokionez, Larresoron (Epelde, 2004: 63), Zugarramurdin eta Urdazubin (Montoya, 2003: 39), Irunen eta Hondarribian (Sagarzazu, 2005: 62-63), Basaburua Nagusian eta Imotzen (Apalauza, 2012: 274), eta Sakana erdialdean (Erdozia, 2001: 134) jada ez da ohikoa. Lafitte-k (1944) deskribaturiko nafar-lapurtera literarioan ez dugu aferesiaren adibiderik atzeman, ezta fenomeno honen inguruko azalpenik ere.

Gaur egun, bokal aferesia ez da emankorra Garazin, eta fosilizaturiko hitz batzuetan baino ez da ageri: *karri*, *kasi*, *kusi*, *kuzi*, *man*, *maztea*, *purdia*, *turria*, *zarri*, *zaun*, *zautu* eta *zuzkia*. Hitz hauek baino ez ditugu aztertu. Lan honetan ez ditugu *kasu man* eta *pentsa man* aditz lokuzioak kontuan hartu, hitz bakar baten moduan lexikalizaturik baitaude. Ez ditugu aintzat hartu hitz baten bukaerako bokala eta ondorengoaren hasierakoa berak diren kasuak ere; errate batera, *ze ekarri duxu* bezalakoak, bi bokalen artean gerta litekeen neutralizazioa dela eta, ez baita aise bokal aferesia gauzatu den edo ez jakitea. Bokal aferesiaz gain, berranalisiaren adibide banakaren bat jaso dugu Behorlegin, *ekendu* ‘kendu’ hitzean, hain zuzen ere.

Testuinguru fonikoa ere aintzat hartu dugu: aferesia gauzatzen den hitza erranaldi (ingeleseko *utterance* adieran ulertuta) hasieran dagoen, kontsonantez bukatu hitz baten ondotik heldu den edota bokalez bukatu hitz baten ondotik heldu den. Jauregiren (2008: 346) arabera, CV erako silabak izan ohi dira naturalenak. Hori dela eta, bokal aferesi gutxien kontsonante ostean gauzatuko dela uste dugu, (C)VC.CV erako silabak sortzen baitira, eta hauek ez baitira ahoskatzeko artikulatiorioki batere errazak. Errate batera, har dezagun *nik ezarri dut* esaldia. Aferesia gauzatuz gero, honela ebakiko litzateke: [nik.ʂa.ri.ðut], hots, CVC.CV.CV.CVC. Aferesia gauzatu gabe, ordea, bersilabifikazioa gertatu eta lehen silabako azken kontsonanteak bigarren silabako

bokalarekin batera, silaba bera osatuko luke (C)V.CV. erako silabak sortuz: [ni.ke.ʃa.ri.ðut]; hots, CV.CV.CV.CV.CVC. Era berean, eremu prosodikoen hasierak artikulatorki indartsuak izan ohi dira eta baita hautemangarrienak ere (Jauregi, 2008: 347). Hori dela eta, bokal aferesi gehien erranaldi hastapenean gauzatzen dela uste dugu, CV.CV sekuentzia (adibidez, [ʃa.ri]) V.CV.CV (adibidez, [e.ʃa.ri]) baino indartsuagoa eta hautemateko errazagoa baita.

Analisi estatistikokan, hitza ausazko efektutzat hartzea erabaki dugu,²¹ hitz jakin batzuek aferesia gauzatzeko joera handiagoa izanen dutela uste baitugu. 4.1.7. §-ean erakutsiko ditugu hitz bakoitzean bokal aferesiak dituen gauzatze eta ez gauzatze kopuru eta ehunekoak.

Garaziko euskararen azterketa diafasikoan (Artzelus, 2020a), elkarrizketatu genuen Irulegiko Irratiko esatariak irratiko estilo formalean, aurrez aurreko estilo informalean baino bokal aferesi aise gutxiago gauzatzen zuela ohartu ginen. Horrek erran nahi luke hiztun hau hizkuntza-aldagai honen aldakortasunaz kontziente dela, eta estiloaren arabera, aldaera bat edo bestea erabiltzearen aldeko hautua egiten duela. Hori dela eta, Bellen printzipioaren arabera, aldakortasun soziala izatea ere esperoko genuke. Hala balitz, markatzaile izaera izaten ahalko luke aldagai honek. Ez dugu lekukoengandik aferesiaren inguruko iritzirik bildu.

Lujanbiok (2014: 58-63) ere, aferesiaren aldakortasun soziala aztertu zuen Goizuetan. Erdialdeko euskararekiko harremana, adina, ikasketa-maila eta generoa izan ziren kontuan hartu zituen aldagai sozialak, eta baita testuinguru fonikoa ere. Lekukoa eta aditza ausazko efektutzat hartu zituen. Datuen azterketan, guk lortutako emaitzak Lujanbiok ateratako konparatuko dizkiegu.

Tagliamontek (2006) *super-token* deitzen ditu esaldi berean agertzen diren hizkuntza-aldagai baten aldaera desberdinen adibideak. Lujanbiok (2016: 126) euskaraz *adibide bikain* izena ematen die. Esaldi berean ez agertuagatik, hiztun berak hitz berarekin emanak dira honako hauek: *kasi* vs. *ikasi* (Gamarte-Ainhizako adineko gizonak), *maiten* vs. *emaiten* (Hergaraiko adineko gizonak), *maztia* vs. *emaztia* (Luzaideko adineko gizonak), *kusi* vs. *ikusi* (Ezterenzubiko adineko emazteak).

²¹ Ausazko efektuak zer diren aztertuko dugu 3.2. §-ean metodologiari buruz aritzean.

2.10.2. Goranzko diptongoak

Mitxelenaren (2011 [1961]: 137) arabera, lehenengo osagaia [j] eta [w] duten goranzko diptongoak bigarren mailakoak dira ardurenean euskaraz. Batez ere, erdal maileguetarik heldu dira, baina baita elkarrekin kontaktuan dauden bokaletarik ere.


[i], [e] eta [o]-ren gainean eraturiko goranzko diptongoak baino ez ditugu aztertu, izan ere Garazin [u] gehienak [i] bihurtzen dira [a] eta [e] aitzin. Honela formula ditzakegu bilakabide hauek:

- [i] → <j> / _[a, e, o, u].²² [i] bokala (aldaera ez diptongatua) [j] irristaria (aldaera diptongatua) bihur liteke, [a], [e], [o] edo [u] bokalen aitzinean; errate batera, *eg[i]a* → *eg[j]a*.
- [e] → <ɛ, i, j> / _[a]: [e] bokala (erdiko aldaera ez diptongatua), [ɛ] ez silabikoa (erdiko aldaera diptongatua), [i] bokala (goiko aldaera ez diptongatua), edo [j] irristaria (goiko aldaera diptongatua) bihur liteke [a] bokalaren aitzinean; adibidez, *etx[e]a* → *etx[ɛ]a*, *etx[i]a*, *etx[j]a*.
- [o] → <ɔ, u, w> / _[a]: [o] bokala (erdiko aldaera ez diptongatua), [ɔ] ez silabikoa (erdiko aldaera diptongatua), [u] bokala (goiko aldaera ez diptongatua), edo [w] irristaria (goiko aldaera ez diptongatua) bihur liteke [a] bokalaren aitzinean; hala nola, *ots[o]a* → *ots[ɔ]a*, *ots[u]a*, *ots[w]a*.

Azken bi bilakabideen kasuan, aldaera diptongatuaz gain, bokalaren garaiera ere alda liteke; hots, erdiko bokalak goiko bihur litezke. Gure hipotesia da, aldaera diptongatuak eta goiko aldaerak atzerabidean doazela aldaera ez diptongatuen eta erdiko aldaeren alde. Datuen azterketan, bilakabide bakoitza bere ber aztertuko dugu.


3. §-ean azalduko dugun bezala, oharmena izan da aldaerak bereizteko erabili duguna. Dudako kasuetan, hala ere, lagungarria izan zaigu espektrogramek eskaini informazioa. Aldaera bat edo bestea den argi izan gabe jarraitu izan dugun kasuak ez ditugu aintzat hartu. 14. eta 15. irudietan, [e] aldaera ez diptongatuaren eta [ɛ] diptongatuaren espektrograma bana erakutsiko ditugu.

²² Labov-ek proposatutako arau aldagarriaren arabera, < > ikurren bidez, gauza litekeen hotsa adierazten ari gara; hau da, kasu honetan, [i] → [j] bagenu, [i] beti [j] bihurtzen dela ondorioztatuko genuke. Alta, [i] → <j> izanik, [j] bihur litekeela erraten ari gara, baina baita [i] bere horretan gelditu litekeela ere.



14. irudia: [e]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen [e] aldaeraren espektrograma

Ikusten dugun bezala, [e] aldaera ez diptongatuaren formakinek egonkor diraute [a]-ra buruzko trantsizioa hasi baino lehen.



15. irudia: [e]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen [ɛ] aldaeraren espektrograma

Espektrograma honetan ageri denez, [ɛ] aldaera diptongatuaren formakinek ez dute egonkortasunik. Ahoskatzen hasi eta ia berehala hasten da [a]-ra buruzko trantsizioa.

Mitxelenak (2011 [1961]: 167) dioenez, goranzko diptongoen maiztasuna ez da bera euskalki guztietan: gipuzkera, bizkaiera eta zuberera dira honelako diptongoak gutxien onartzen dituztenak. Lapurteraz, behe-nafarreraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz, berriz, ohikoak dira. Mitxelenak gaineratzen duenez, zaraitzueraz, [ɛ̞] eta [ɔ̞] ez silabagileak ere baditugu. Sakana, Imotz, Baztan eta Irun-Hondarribiak marrazturiko lerrotik ekialdera ditugu goranzko *diptongoak* (Zuazo, 1998: 222). [e] → [i] eta [o] → [u] hersketak, berriz, Euskal Herri osoan barna, eremu trinkorik ez duten ezaugarritzat dauzka Zuazok (1998: 224).

Nafar-lapurtera literarioari dagokionez, honela dio Lafitte-k (1944):

Dans le langage populaire, on entend les dipthongues *ua* et *ia* (prononcez comme l'anglais *watt*, ou le mot *yatagan*): mais elles sont le résultat des contractions phonétiques. Ainsi la rencontre d'un *o* final avec l'article suffixe *a* donne *ua*: *arto-a*, 'le maïs', se prononce vulgairement *artua* (13).

Bere lanean beti *e* eta *o* idazten ditu Lafittek.

Lan honetan, diptongoa eratzea posible duten eta elkarren segidan doazen bi bokal hartuko ditugu kontuan, eta ez hots baten galeraren ondorioz sortzen ahal direnak, horiek azterketarako orduan zailtasunak ematen baitizkigute. Errate batera, *akit[w]ik* hitza kontuan hartuz gero, horren baliokidea litzateke *akit[u]ik* aldaera ez diptongatua, baina baita *akiturik* ere, beraz ez geundeke aukera bitar baten aurrean.

Bestalde, erdaraz (gaztelaniaz nahiz frantsesez) diptongo hauek dituzten mailegu berrienak kontuan ez hartzea pentsatu dugu, izan ere, tradizionalki goranzko diptongorik ez den hizkeretan ere, halako maileguetan diptongoa gordetzea posible da.

-*a* galdera marka gehitzean sortzen diren *direa*, *xirea*, *girea* bezalakoak ez ditugu kontuan hartuko [e] → [i] hersketa aztertzeko, Garaziko euskaran, **diria*, **xiria*, **giria* bezalakoak ez baitira posible. *Entseatu* hitza ere ez dugu aztertuko, ez baita erraten *entsiatu*. *Manuelenia*, *Mokosailia*, *Luisenia* bezalako etxe eta ostatu izenak ere ez ditugu aintzat hartu, lexikalizaturik daudelako. Ezta alokutiboan atzematen ahal ditugun *d[j]akixut*, *d[j]akoat*, *n[j]akoxun* erakoak ere, beti diptongatuak baitira.

Azterketa diafasikoan (Artzelus, 2020a), gure informatzailea izan zen Irulegi Irratiko esatariak aldaera ez diptongatuak eta erdiko [e] aldaera hobetsi zituen irratiko jardun formalean. Lekukoen artean, *e* eta *o* idatzi behar dela entzun diogu Gamarte-Ainhizako gizon helduari, berezko formak horiek direla argudiatuz. Bellen printzipioari jarraituz, aldakortasun estilistikoa duen hizkuntza-aldagai batek aldakortasun soziala izatea ere espero izatekoa da. Horrela balitz, kasu honetan ere markatzaile baten aitzinean egon ahal izanen ginateke.

Hona hemen hiztun berak hitz berarekin eman adibide batzuk: *eur[j]a* vs. *eur[i]a* (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *basurd[ɛ]a* vs. *basurd[j]a* (Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako gizon gazteak), *desfil[e]a* vs. *desfil[ɛ]a* (Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak), *art[o]a* vs. *art[ɔ]a* (Irulegi-Anhauzeko adineko emazteak).

2.10.3. [o]→<u>/_[n] bilakabidea

Mitxelena (2011 [1961]: 43-45) dioenez, [o] → <u> itxiera gerta liteke [n] aitzin oinarriaren amaieran edo oinarriaren barnean [n]-ren ondotik kontsonante bat heldu delarik; errate batera, *hontan* → *huntan* edo *hon* → *hun* (on) adibideetan. Badira bestelako adibide isolatuak ere, nekez sailkatzen ahal direnak. Berrikuntza honen gibelean biarnesaren eragina egon litekeela aipatzen du Mitxelena. Iritzi horretakoa da Haase (1990: 407) ere, gaskoineraz, [o] hertsu eta [o] azentugabeak [u] bihurtu baitziren. Mitxelena intentsitate handiena zubereraz duela aipatzen du, nahiz eta Nafarroa Beherean eta Lapurdin ere gertatzen den. Mugatik hegoaldera, Baztanen eta Bidasoaldean gertatzen da, baina ez Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkarin. Gure hipotesia da Euskara Batuaren eraginez, [o]-dun aldaera ari dela nagusitzen.

Zuazok (1998: 211) ere, bilakabideak intentsitaterik handiena Zuberoan duela dio. Gaineratzen duenez, lehen graduko erakusleetan Baztanen, Bertizaranan eta Bortzirietan ere gertatzen da. Azkenik, aldaera jakin batzuetan, *nun*-en kasuan, adibidez, Hegoaldean zehar ere lekukotzen dela gaineratzen du. Caminok (2004a: 250) ere, bilakabide hau Iparralde osoan gertatzen dela diosku, nahiz eta intentsitaterik handiena Zuberoan izan.

Nafar-lapurtera literarioari dagokionez, Lafittek (1944) *u* idazten du lehen graduko erakuslearen gainean eraikiriko formetan. *Nun* hitza bietara idazten du, eta honakoa dio hitz honetaz (Lafitte, 1944: 98): “de *non*, on dit très souvent *nun*, et logiquement: *nundik*, *nunbait*, *nehun*, *nehundik*, etc.”. Beste hitz batzuk beti *o*-z idazten ditu; errate batera, *kondatu* eta *on*.

Egin ditugun elkarrizketetan, honako hitzetan aurkitu dugu aztergai dugun bilakabidea: *nun*, lehen graduko erakusleen gainean eraikitako formak, *hun* (on), *kundatu*, *kundu* (kontuak, matematikaren adieran, frantsesezko *compte*), *hundur* (azken), *huñez* (oinez), *Undarla* (Arnegi-Luzaideko Ondarroa auzoa), *unartu* (onartu), *ungarri* (ongarria, zimaorra), *xaun* (xaboi), *nihun* (inon), *hunanbeste* (honenbeste), *untzi*, *makiñun* (tratante, frantsesezko *maquignon*), *kamiun*, *miliun* (milioi), *bidun* (bidoi), *pietun* (postari, frantsesezko *piéton*), *prunt* (prest, *pronto*-tik etor daitekeena), *xitun* (txiton, isilik), *buxun* (tapoi, frantsesezko *buchon*), *untasun* eta *Oizun* (Orizon mendia). *Untsa* eta *arrunt* ez ditugu aintzat hartu, [u]-rekin lexikalizaturik baitaude, eta inor gutxik erraten baitu *ontsa* edo *arrant*. Hitz bakoitzak bilakabide hau gauzatzean

edo ez gauzatzean izan dezakeen eragina dela eta, analisi estatistikoan, hitza ausazko efektutzat hartzea erabaki dugu.

Irulegi Irratiko esatariarekin egin genuen ikerketan (Artzelus, 2020a), hiztun honen irratiko estilo formalaren eta aurrez aurreko estilo informalaren arteko aldea ez zen estatistikoki esanguratsua izan.

Hiztun berak erranak dira *Undarla* vs. *Ondarla* (Arnegi-Lasako adineko gizonak), *undarrian* vs. *ondarrian* (Ezterenzubiko emazte helduak) eta *hun* vs. *on* (Gamarte-Ainhizako emazte helduak, Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak eta Luzaideko publikoko gizon gazteak).

2.10.4. Dardarkariak

Mitxelenaren (2011 [1961]: 827) arabera, euskalki guztiek ezagutu dute *r/R* (ahul/bortitz) oposizioa, biak ere hobikariak. Ikerlari honek diosku gaur egun lehenengoa bakun eta bigarrena anizkun gauzatzen dela, mihiaren puntak egiten duen dardara kopuruaren arabera. Gaur egun, [r] hotsa dardarkari anitza dela diogu, eta [r], berriz, ttak-a (Euskara Institutua EHU, 2020).

Bien arteko bereizkuntza bokal artean baino ez daiteke gerta, izan ere kontsonantearen aitzinean (/h/ izan ezik) eta hitzaren amaieran, dardarkari anitzaren aldeko neutralizazioa gertatzen da (Mitxelena, 2011 [1961]: 827). Horrez gainera, hitz hasieran eta kontsonante ostean ere, dardarkari anitzaren aldeko neutralizazio joera ageri da gaur egun, nahiz eta badakigun kasu hauek berankorrek direla euskaran (Bradley, 2001a: 18; Bradley 2001b: 101).

Lan zenbaitetan (Txillardeggi, 1980: 161; Hualde 1998 [1991]: 15, 2003), dardarkari anitza hobikaria dela erran izan da, eta iparraldeko aldaera ubularra salbuespentzat hartu da. Egoerak, ordea, aldatzen diharduela dirudi. Mitxelenaren arabera (2011 [1961]: 328), *grasseyement* frantsesa delakoa gertatu da garai berrienetan Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskaran, hots, ttak-ak hobikari izaten segitu du eta dardarkari anitza, berriz, ubular izatera pasatu da. Zuberera da, Mitxelenaren (2011 [1961]: 328) hitzetan, berrikuntza hau gutxien hedatu den euskalkia; hau da, hobikaria hobekien gordetzen duena. Caminok (2016: 194) dioenez ere, Amikuzeko adinekoengan dardarkari hobikariak dira nagusi. Zuazoren (1998: 211) hitzetan, Lapurdin izan da ohikoena ahoskera ubularra, baina gaur egun, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere bada.

Epeldek (2004: 58-59) Larresoron dardarkari anitzak ebakera ubularra duela aipatzen du. Geografikoki eta linguistikoki Lapurdi diren Zugarramurdi eta Urdazubin aldaera ubularra ez da batere ohikoa, baina noiztarik noiztara entzuten ahal da (Montoya, 2003: 59). Salaberrik (2000) honela dio Luzaidez:

Luzaiden inork ez du dardarkari anizkuna frantses ofizialaren moduan ebakitzen, baina oso oker ez bagaude ebakera ubulare hori aski zabaldua dago legez Frantziakoak diren Garaziko gainerako herrietan, Arnegi eta Ondarrolaraino. Honek, dudarik ez dago, Luzaideko hizkera Hegoaldekoetara hurbiltzen du eta Garazikoetatik hastantzen (237).

Oñederra, Jauregi eta Epeldek (2014: 88-91), belaunaldiz belaunaldi gertatzen ari den aldaketari erreparatu zioten. Horretarako Norantz corpusean bildutako datuetan oinarritu ziren. Adinekoen %53,3k zerabilten hobikaria, helduen %25ek eta gazteen %12,5ek. Gure hipotesia da Luzaide ez beste eremuetan ere, frantsesaren eraginez, ebakera ubularra erabat nagusitzen ari dela.

Harrigarria da bi aldaerak erabiltzen dituzten lekuko gutxi daudela. Aldaera hobikaria edo ubularra erabiltzen dute hiztunek, baina bakan biak batera. Badira bi aldaerak nahasten dituztenen kasu batzuk, Caminoren (2016: 665) Ostankoko berriemailea adibidez, baina kasu isolatuak dira.

Gure lekuko izan zen Irulegiko Irratiko esatariak ez zuen estiloaren arabera aldakortasunik erakutsi fonema honi dagokionez, bere fonema inbentarioan barnearatua baitu aldaera ubularra (Artzelus, 2020a).

Lekukoek hizkuntza-aldaera baten eretzean jarrera argiak erakutsi badituzte, honako honen kasuan izan da. Hergaraiko adineko emazteak dardarkari hobikariengatik “erre itsusi horiek” erran zigun. Gamarte-Ainhizako adineko emaztea, berriz, erabiltzen dituen dardarkari hobikaeriez harro dago. Frantses eskola publikoan dardarkari ubularrak frantses “ontzat” hartuak izan dira, eta beraz, ahalegin berezia egin dute hobikariak desagerrarazteko. Irulegi-Anhauzeko emazte helduak erran zigun, konparazione, bere ahizpa punitua zela usu, aldaera ubularra ez zuelako behar bezala ahoskatzen. Lekuko eta lagun gazteekin izan ditugun elkarrizketetarik ondorioztatu ahal izan dugunez, gaur egunean, Iparraldekoendako dardarkari hobikaria mintzo “hegoaldetarraren” ezaugarria da, eta Hegoaldekoendako ubularra da “iparraldetarraren” ezaugarri. Gazteen artean, hizkuntza-aldagai hau mugaren alde batekoa ala bestekoa

izatearen markatzaile dela erran genezake, beraz. Afera honi arreta handiagoa eskainiko diogu 5.3. §-ean.

Erran dugun bezala, hiztun gutxi dira bi aldaerak batera erabiltzen dituztenak, baina hiztun berak hitz bera lehendabizi aldaera hobikariarekin eta ondoren ubularrarekin ahoskatzearen hiru adibide baditugu, Ezterenzubiko adineko emazteak emanak lehendabiziko biak eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak hirugarrena: *kongregazione* vs. *kong[R]egazione*, *berdin* vs. *be[R]din*, *e[r]ain duzu* vs. *e[R]ain duzu*.

2.10.5. [t̥]→<t̥>/_[i, j] eta [d̥]→<d̥>/_[i, j] bilakabideak


Euskaraz, /t/ eta /d/ fonemak herskari horzkariak direla diote lan gehienek; errate batera, Hualdek (1998 [1991]: 15), baita apikariak direla ere (Txillardeggi 1980: 87; Hualde, 2003). Gaur egun, ordea, belaunaldi gazteenek, frantsesaren eraginez, Iparraldean bestelako ebakera dutela erran liteke, ahoskune hobikaria duena, afrikatu edota herskaria ahosmoduari dagokionez, eta mihiaren lepoarekin ahoskatua. Honela deskriba genitzake bilakabide hauek: [t̥] eta [d̥] herskari horzkari apikariak [t̥] eta [d̥] afrikatu/herskari hobikari lepokariak bihur litezke [i] bokalaren eta [j] irristariaren aitzinean, adibidez, *be[t̥]i* → *be[t̥̥]i* edo *aki[t̥]a* → *aki[t̥̥]a*.

Frantsesaren fonetikari buruzko lan ugaritan –errate batera, Donohue-Gaudet (1969: 156, 159); Abry eta Veldeman-Abry (2007: 34); Bretos, Tejedor eta Bénit (2006: 19, 21)– /t/ eta /d/ herskari eta horzkari moduan deskribatzen dituzte. Carton-ek (1974: 26) herskari, hobikari eta horzkariak direla dio, eta Léon-ek (2011: 93) herskari eta horzkari izateaz gain, apikari ere badirela dio. Aldaera afrikatu/herskari, hobikari eta lepokari horiei buruz bilatzen hastean, Québec-eko frantsesarekin topo egin dugu. Iduriz, aldaera hauek bertako frantsesaren ezaugarritzat, eta areago estereotipotzat ere hartu ohi dira (Friesner, 2010: 27). Russell-en (2010: 1357) arabera, [i] eta [y] aurreko bokal itxien aitzinean eta [j] et [ɥ] erdi-kontsonanteen aurretik ahoskatzen dira. Honela deskribatzen du bilakabidea Poirier-ek (2009: 376 *in* Russell, 2010): “hersketaren laxatze progresiboa, kontsonantearen (geldiunearen) hondarreko zatia luzatzea ondoriotzat duena, horregatik hautematen dugu hots igurzkarri azkarra”. Frantziar estatuko frantsesean entzuten den ebakera ez da Québecekoa bezain igurzkaria, baina Poirieren azalpenak aldaera berri hauen izaera ulertzeko balio digu.

Lan honetan apikari deituko ditugu euskarazko jatorrizko aldaerak: herskari, horzkari eta apikariak. [t̥] eta [d̥] moduan adieraziko ditugu. Frantsesaren eraginez


hedatzen ari diren aldaerak, berriz, lepokari deituko ditugu: herskari/afrikatu, hobikari eta lepokariak. [t̥] eta [d̥] moduan adieraziko ditugu.

Ladefoged eta Maddieson-en (1996: 23) arabera, hizkuntza batek kontsonante herskari apikaria eta lepokaria baditu, bigarrena afrikatuagoa izan ohi da. Bien arteko desberdintasuna espektrogrametan ageri da, bigarren hotsak duen afrikazioa agerian gelditzen baita, hersketaren laxatzeak sortzen duen hots turbulentzia beti eta handiagoaren bitartez (Stevens, 1998: 422).



16. irudia: [t̥] → <[d̥]/_[i,j]> bilakabidearen aldaera apikariaren espektrograma

16. irudian, aldaera apikariaren hersketa agerikoa da.



17. irudia: [t]→<ṭ>/_[i,j] bilakabidearen aldaera lepokariaren espektrograma

17. irudian, berriz, aldaera lepokariari dagokion afrikazioa ikus dezakegu, hersketa ez baita hain argia, eta ondotik, afrikazioa salatzen duen hots turbulentsia baitugu.

Hizkuntza-aldagai hauei buruzko bibliografiarik ez dugu atzeman euskarari dagokionez. Hala ere, Iparralde osoko gazteen ahotan entzun ahal izan ditugu guk aldaera lepokariak.

/t/ eta /d/ fonemak aparte landuko ditugu datuen azterketan. Testuinguru fonikoa aintzat hartzea ere garrantzitsua iruditu zaigu. Hain zuzen ere, [i]-ren eta [j]-ren aitzineko posizioak bereiziko ditugu. Gure ustez, ondotik heldu den [j] irristaria [i] baino goikoagoa denez, aldaera lepokariaren ahoskune hobikaria erraztuko du, hortzobiak hortzak baino gorago baitaude.

Aztergai izan genuen Irulegiko Irratiko esatariak ez zuen aldaera lepokaririk erabili irratiko estilo formalean, bai ordea, aurrez aurreko estilo informalean. Aldea estatistikoki garrantzitsua izan zen. Bellen printzipioari jarraituz, estiloaren arabera aldaera bat edo bestea erabiltzeak hizkuntza-aldagai honek aldakortasun soziala izanen duela pentsatzera garamatza.

Aldagai honi buruz Garazi eta inguruko gazteekin izan ditugun elkarrizketek aldaera lepokariak “pijotzat” hartzen dituztela pentsatzera eramaten gaituzte. Usu, irri egiten dute eta beraiek ez direla horrela mintzo diote, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, aski ohikoak diren aldaera hauek bertako gazteengan. Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteari, gainera, iruditzen zaio Lapurdin ardurago erabiltzen dituztela lepokariak. Hizkuntza-aldagai hauek aldakortasun estilistikoa dutenez, eta hiztunek beraiekiko jarrera esplizituak dituztenez, markatzaile direla uste dugu.

Adibide batzuk emate aldera, hiztun berak erranak ditugu honako hauek: *geroz[ʎi]k* vs. *geroz[ʎi]k* (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak) eta *kan[ʎj]a* vs. *kan[ʎj]a* (Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak).

2.10.6. Ø→<ə>/C_## bilakabidea

Frantsesez, oro har, ez da kontsonanterik ebakitzen hitz bukaeran; hots, *chien* (txakur arra), *chat* (katu arra) eta *port* (portua, kaia) [ʃjɛ̃], [ʃa] eta [pɔʁ] ebakitzen dira. Idatzian, ondotik *e* heldu delarik ebakitzen dira kontsonanteok: [ʃjen] (*chienne*, txakur emea), [ʃat] (*chatte*, katu emea) eta [pɔʁt] (*porte*, atea edo *eraman* aditzaren lehen pertsona singularra). Bistan den bezala, badira salbuespenak, batez ere toponimoetan. Kate mintzatuan, gibeletik beste hitz bateko hots bat heldu delarik, *e* grafemari dagokion [ə] hotsa ez da ebakitzen usaian: [laportefɛʁmɛ] (*la porte est fermée*). Bai, ordea, erranaldi edo *utterance* bukaeran dagoelarik: [elefɛʁmɛlapɔʁtə] (*elle est fermée la porte*).

Hori dela eta, frantsesaren eraginez, mugatik iparraldera dagoen Euskal Herrian, euskaraz, erranaldi bukaeran dauden kontsonanteak frantsesezko kontsonante+[ə] segida moduan berrinterpretatzen dituzte hiztunek. Beraz, *ni jin niz* (ni etorri naiz) [nijiniʃ] ebaki beharrean, ohikoa bihurtu da [nijiniʃə] ebakitzea. Honela azal dezakegu Ø→<ə>/C_## bilakabidea: deus ez dagoen lekuan [ə] bokala gauza liteke kontsonante ostean eta erranaldi bukaeran (erranaldi bukaera adierazi nahi dugu ## ikurren bidez); hala nola *hemen* → *hemen[ə]* eta *hortik* → *hortik[ə]*.

Euskarari dagokionez, ez dugu bilakabide honi buruzko bibliografiarik atzeman, baina Iparralde osoan, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin entzun ahal izan dugu.

Ez da zeregin erraza bokal protetiko hau azalpenak bilatzeko erabiltzen den *e*-tik bereiztea. Luzera eta intonazioa erabili ditugu bereizgarritzat. Beraz, bokal luzeak eta M% intonazioa dutenak ez ditugu kontuan hartu. Beti bezala, dudako adibideak ez ditugu aztertu. Erranaldi bukaerako kontsonantearen ahosmodua azterketan kontuan hartzea pentsatu dugu, horrek bokal protetiko hau gauzatzean edo ez gauzatzean izan dezakeen eragina dela eta.

Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasun diafasikoaz egin genuen ikerketan (Artzelus, 2020a), ez genuen aldagai hau aztertu. Hizkuntza-jarrerei buruz, ordea, zerbait bildu ahal izan dugu. Hain zuzen ere, laguntzeko beti prest izan genuen Luzaideko gizon batek erran zigun Irulegiko Irratian eta, usu erabiltzen zutela [ə] hotsa, eta esatariak imitatu zituen. Hots hori itsusitzat eta desatsegintzat zuen.

Garaziko lekukoengandik honako adibideak jaso ahal izan ditugu: *etzen* vs. *etzen[ə]* (Hergaraiko emazte helduak), *eztakit* vs. *eztakit[ə]* (Irulegi-Anhauzeko emazte helduak), *etzen eleka aizan bear* vs. *etzen eleka aizan bear[ə]* ‘ez zen hitz egiten aritu behar’ (Hergaraiko adineko gizonak).

2.10.7. Hasperena

Koldo Mitxelenak (2011 [1961]: 203) dioenez, Larrasquet-i jarraituz, ahoa zabalik dela ahoskatzen da hasperena, mihiak ondoko bokalaren posizioa hartzen du eta diafragma kontrakzio handi bat egiten du ufada sendo eta handia sortuz. Ahoskabea da hitz hasieran, baina bokal artean, gehienetan ahostuna da. Bokal sudurkarien artean berriz, sudurkaria da. Ondoko testuinguruetan aurki genezake:

- a) Hitz hasieran; errate batera, [hari, hawɾ].
- b) Bokal artean; konparazio batera, [ãñãlke, lefiũ].
- c) Diptongo eta bokal artean; hala nola, [awfier, ojñan].
- d) Bokal aurretik eta ozenen ostean; adibidez, [ʒenfiar, ylhuyn, urfie].
- e) Euskalki hauetan gainera, herskari hasperendunak ere badira, [p^h, t^h, k^h] hurrenez hurren ([p^harka, t^hy, ak^her]). Ahoskabe dira, zubererazko salbuespen batzuk gorabehera.

Euskal Herria banatzen duten bi estatuen arteko mugari erabat jarraitzen dio hasperenak, mugatik iparraldera ahoskatzen baita eta ez hegoaldera (Mitxelena, 2011 [1961]: 204). Bonaparteren arabera (1869 *in* Mitxelena, 2011 [1961]: 204), mugatik hegoaldera, Zugarramurdin eta Akerdin baino ez omen zen entzuten, baina ez Urdazubin. Gaur egun, Montoyaren arabera (2003: 56), erabat galduta dago bi herriotan. Lapurdiko kostan ere, orduko jada ez omen zen ahoskatzen, eta oro har, Lapurdin ez omen zen Nafarroa Beherean eta Zuberoan bezain ohikoa. Larresorori buruz, honela dio Epeldek (2004: 51): “Larresoron ez dut behin ere entzun herskari hasperendunik, ezta adineko jendearen ahotik ere. Hasperena bera ere adin batetik aurrerakoen artean bakarrik gordetzen da, eta hiztun horietan ere ez beti”. Mitxelenak (2011 [1961]: 204) mugaz hegoaldera, lan honetan aztergai dugun Luzaiden eta Kintoan ere ahoskatzen dela dio. Salaberrik (2000: 34) hasperena Luzaideko hizkera Hegoaldekoetarik bereizten duen ezaugarri garrantzitsuenetakoa dela dio. Hala ere, ikertzaile honek ez zuen ozen osteko hasperenik eta herskari hasperendunik atzeman Luzaiden. Santaziliak (2009: 245) adinekoengan hasperena atzeman zuen, baina ez sistematikoki. Helduek gutxiago ahoskatzen zuten, eta gazteek batere ez. Herskari hasperendunei dagokienez, Garaziz, honela dio Duny Pétré-k (1959) :

Le ph est très légèrement aspiré chez le conteur. Il semble qu'il en soit ainsi pour d'autres mots commençant par un a suivi d'un p, tels que: apho 'crapaud', aphal 'bas, peu élevé'. Mais dans la génération actuelle, cette particularité a tendance à disparaître, et l'on prononce tout simplement: apez, apo et apal (50).

Guk Garazin ez dugu ozen osteko hasperenik entzun. Bai, ordea, hitz hasieran eta bokal artean. Herskari hasperendun gutxi entzun dugu, baina adibide batzuk bildu ditugu, halere. Hiru testuinguru hauek bereiziko ditugu, beraz: hitz hasiera, bokal artea eta herskari hasperendunak. Hiru testuinguruak bere ber landuko ditugu datuen azterketan.

Oro har, Garazitik iparraldera, hasperenaren egoera hobea dela ohartu gara, eta herskari hasperendunak eta ozenen osteko hasperenak entzun ahal izan ditugu Oztibarre, Arberoa eta Amikuzen. Caminok (2016: 238-245) ere bildu ditu halakoak Arberoa eta Amikuzen.

Hasperenaren galerari dagokionez, Mitxelenaren (2011 [1961]: 204) ustez, garai batean, euskalki guztietan existitzen zen, eta nahiko berandura arte kontserbatu zen

mendebaldean (Bizkaian, Araban eta Errioxan). Dena den, desagerturik ageri da jada XVI. mendeko dokumentuetan. Galera Nafarroa Garaian hasiko zen, Aragoieraren hasperenik ezak eraginda, eta gero hegoaldeko beste lurraldeetara hedatuko zen. Zernahi gisaz, Manterolak (2015: 506-513) hasperenak Nafarroan uste baino beranduagora arte iraun duela uste du, eta horretarako, besteak beste, Beriain idazlearen erakusleetan eta Baztan eta Ameskoako adibide zahar batzuetan oinarritzen da.

Jauregi eta Epeldek (2013) hasperenaren galera ikertu zuten Iparraldeko euskarari, eta horretarako Norantz corpuseko datuez baliatu ziren. Hitz hatsarrekoak eta bokal artekoak banatu zituzten ikerketa lana egitean. Ikertzaileek ondorioztatu ahal izan zuten, gazteen herenak baino ez zuen ebaki hasperena hitz hastapenean, %31k hain zuzen ere. 70 urtetik gorakoek kasuan, berriz, %74k ahoskatu zuen hasperena testuinguru honetan. Bokal arteko emaitzei dagokienez, hitz hasieran baino bakanago gauzatu omen zuten lekukoek. 70 urtetik gorakoek %53k ebaki zuen. Gazteen artean, ordea, %29k baino ez. Egileek gaineratzen dutenez, etxeko hizkuntza nagusia frantsesa duten eta euskara murgiltze sisteman bereganatu duten gazteek ez zuten hasperenik ebaki. Ereku geografikoari dagokionez, azkenik, gehienik Zuberoan atxikitzen dutela ondorioztatu zuten, maila apalagoan Nafarroa Beherean eta oraindik ere apalago Lapurdin.

Hasperena galtzearen arrazoiei dagokienez, autoreek arrazoibide fonetiko-fonologikoak aipatzen dituzte alde batetik. Lehiste-ren 1964ko (*in* Jauregi eta Epelde, 2013: 257) aipu batean oinarrituz, hasperena ahoskatzeko, ez ahoskatzeko baino indar artikulatorio handiagoa egin beharra dagoela azpimarratzen dute. Hasperena ekoiztean, ondoren heldu den silabagune ahostuna sortzeko baino sei bider aire gehiago behar dela zehazten dute. Horretarik landa, intentsitate analisi batek erakusten duenez, energia artikulatorio gehiago erabili arren, hasperenaren intentsitate espektroa ondoren duen bokalarena baino anitzez apalagoa dela aipatzen dute. Artikulazio moduari begiratuta, beste kontsonante jarraikorraren artikulazio moduetan gertatzen ez den bezala, laringearen edo glotisaren kokapena ez da behar bezain egokia turbulentsia azkarra sortzeko, eta beraz, oharmenari dagokionean ere, sortzen den unitatea ez da hain ziurra (Jauregi eta Epelde, 2013: 257). Labur errateko, badirudi hasperena ahoskatzea artikulatorioki nekezagoa dela, eta gainera, oharmen aldetik ere, ez dela hautemateko beste hotsak bezain erraza.

Horretarik landa, hor ditugu kanpo-erdarak ere, euskaran berebiziko eragina dutenak (Jauregi eta Epelde, 2013: 258-259). Frantsesez, hain zuzen ere, ez dugu hasperenik ezta gaztelaniaz ere. Kanpo-erdarez gain, euskalkietan beti eta eragin handiagoa duen eta erdialdeko euskaran oinarriturik dagoen Euskara Batuan ere ez da hasperenik ahoskatzen.

Lan honetan, beste behin, testuinguru fonikoa hartuko dugu aintzat hitz hasierako hasperenaren kasuan: hasperena erranaldi hasieran dagoen, eta aitzineko hitza kontsonantez edota bokalez bukatzen den. Aferesiaren kasuan azaldu dugun bezala, silabarik naturalena CV da. Hori dela eta, aitzineko hitza kontsonantez bukatzen delarik genuke hasperenik gutxien, (C)VC.CV erako silabak baikenituzke (adibidez, [ʃuk.ha.ʃi.ðu.ʃu]). Artikulatorioki zaila da halako silabak elkarren jarraian ahoskatzea. Kasu honetan, hasperenik ez ahoskatzea anitzez errazagoa litzateke, bersilabifikazioa gertatu eta lehen silabako azken kontsonantea bigarren silabako bokalarekin silaba berean ahoskatuko litzatekeelako, (C)V.CV erako silabak osatuz (adibidez, [ʃu.ka.ʃi.ðu.ʃu]). Era berean, aferesiaren kasuan ere erran dugun bezala, eremu prosodikoen hasierak artikulatorioki indartsuak eta hautamateko errazak dira. Hasperena ebakiz gero, CV.CV erako silabak genituzke; errate batera, [ha.ʃi]. Hasperenik gabe, berriz, V.CV bezalakoak; errate batera, [a.ʃi]. Azken sekuentzia hau aitzinekoa baino ahulagoa da artikulatorioki eta hautamateko zailagoa. Hori dela eta, erranaldi hasieran esperoko genuke hasperenik gehien ahoskatzea.

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoaz egin genuen lanean (Artzelus, 2020a), ez genuen estilo formalaren eta informalaren arteko alde esanguratsurik atzeman.

Hiztunengandik bildu ahal izan ditugun jarrera eta iritziei dagokienez, oro har, ez zaigu iruditzen hiztunak hasperenaz eta honen galeraz sobera ohartzen direnik. Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak erran zigun hizketa-erritmo mantsoarekin eta hitz jakin bati indarra ematearekin lotzen zuela hasperena, nahiz eta gero, berak ia inoiz ere ez ebaki. Halaber, Santaziliak (2009: 245) ondorioztatu zuen hiztun ia guztiek ziotela Luzaiden hasperena ahoskatzen zela eta beraiek ere erabiltzen zutela, nahiz eta horietarik batzuek adibide bat ere ez zuten gauzatu.

Honako adibide hauek bildu ahal izan ditugu lekukoengandik: *hemen* vs. *emen* (Luzaideko adineko emazteak), *hoitahamabi* vs. *oitamabi* (Ezterenzubiko adineko gizonak), eta *ehunaindako* vs. *eunaindako* ‘ehuneko, %’ (Hergaraiko adineko gizonak).

2.10.8. [β]→<∅, h>/V_V; [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag.; [ɣ]→<∅>/V_V; eta [r]→<∅, h>/V_V bilakabideak

Mitxelenaren (2011 [1961]: 186) ustez, kontsonante ahostun hauen ebakera igurzkaria ([β, ð] eta [ɣ]-z ari da) bokal artean eta beste testuinguru ireki batzuetan, erabat galtzera hel liteke hizkera modernoetan. Antzinako bilakabidea da, gainera. [r]-ri dagokionez, erabat galtzea zubereraz gertatu dela diosku, baina bere ahultasuna beste leku anitzetan ere agerikoa dela gaineratzen du (Mitxelena, 2011 [1961]: 271).

Horrez gain, zubereraz, [rh] bilkurak [h] izan du emaitza (Mitxelena, 2011 [1961]: 270) eta Nafarroa Beherean ere arrunta dela iduri du. “Bourciez” Bildumako Euskal Atlasean, *ehaztun* (eraztun) ageri zaigu Zuberoan eta Nafarroa Beherean zehar sakabanaturik (Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias, 2004: 171). Amikuzeri dagokionez, Caminok (2016: 245) hasperena igurzkari baten ordain ager litekeela zehazten du. Guk Garaziren kasuan, [β]-ren kasuan baino ez dugu lekukotu halakorik. Oztibarreko euskarari buruzko lanean (Camino, 2015a: 22), Nafarroa Behere osoko [β] → [h] bihurtzearen adibide ugari ematen dizkigu.

Igurzkariak eta hurbilkariak ahosmoduan ñabardura garrantzitsuak dituztela jakinik ere, hurbilkari terminoa erabiliko dugu lan honetan [β, ð, ɣ] hotsez gain, [r] ttak-a ere barne hartzeko. Honela azal ditzakegu bilakabide hauek: [β, ð, ɣ, r] hotsak bokal artean desagertu litezke. Horrez gain, [β] eta [r] hotsak [h] ere bihurtu litezke ber testuinguruan. Hona hemen adibide batzuk: *i[β]ili* → *iili*, *i[h]ili*; *ina [ð]ut* → *ina ut*; *pa[ɣ]atu* → *paatu*; *o[r]itu* → *oitu*, *o[h]itu*. [ð]-ren kasuan, galera bokal arteko testuinguruaz gain, -t(z)en [-burutu, -geroaldi] aspektu-markaren eta absolutiboa 3. pertsona singularra duten aditz laguntzaile iragankorren orainaldiko formaren artean ere gertatzen da; hots, testuinguru fonikoaz gain, testuinguru morfologikoa ere badu bilakabide honek (*zautzen dute* → *zautze ute*). Testuinguru horretan, lehenik, -t(z)en markaren [n] ere galtzen da, ondoren bokal arteko [d] herskaria [ð] hurbilkari bihurtzen da, eta gero desagertzen da. Analisi estatistikoan, [ð]-ren kasuan, ausazko efektutzat hartu dugu testuingurua. Datuen azterketan, bilakabide bakoitza bere ber landu dugu.

Gure hipotesia da, euskara idatziaren eraginez, batez ere, hurbilkariak ezabatzea gibelera egiten ari dela.

Salaberriren (2000: 238) ustez, Luzaiden maizago erortzen dira [β] eta [ɣ] Mezkiritzen baino. Iritzi horretakoak gara gu ere. Aezkoan ere, euskal hizkera guztietan bezala, hurbilkariak bokal artean desagertzea gertatzen da (Camino, 1997: 347-348), baina Garazin gaindi galera sistematikoagoa dela erranen genuke. Entzun izan dugunagatik, ez dugu uste [β, ð, ɣ] hotsak zubereraz ere, Nafarroa Beherean bezain ardua galtzen direnik. Amikuzen, erorketak indar handia duela diosku Caminok (2016: 256-262), baita Garazitik mendebaldera ere (Epelde, 2004: 73-74; Montoya, 2003: 64-66; Salaburu, 1984: 135). Sistematikotasunari dagokionez, bederen, Garazi eta Nafarroa Garaia eta Zuberoaren artean, isoglosa marrazten ahal genukeela iruditzen zaigu.

Ez da erraza bilakabide hauek zein kasutan gertatzen diren jakitea. Hitzaren eta talde klitikoaren barruan gertatzen dira: bai hitzaren barnean, eta baita *dut*, *duzu*, *dute* (absolutiboa 3. pertsona singularra duten orainaldiko aditz laguntzaile iragankorrekin), *bat* eta *batzu* klitikoekin ere. *Guzia* determinatzaile orokorrarekin ere entzun ahal izan ditugu. Ez dira gertatzen, salbuespenak salbuespen, hiru silaba baino gutxiagoko hitzetan. Badira hiru silabako kasu batzuk ere, bilakabidea ez baita gertatzen; errate batera, *denbora*. Bilakabideak gertatzen ez diren kasu hauek ez ditugu kontuan hartu.

Garaziko hizkuntza-aldakortasunaren azterketa diafasikoa egin genuelarik (Artzelus, 2020a), ohartu ginen gure informatzaile izan zen Irulegiko Irratiko esatariak aurrez aurreko jardun informalean, irratiko jardun formalean baino aise ardurago ezabatzen zituela [β, ð, ɣ, r] hurbilkariak. Estilo formalean aritzeak, hotsik ez ezabatzea erran nahi du esatari honendako. Garaziko hiztunengan ere, ideia bera hauteman dugu guk; hots, hurbilkariak ezabatzea mintzo arduragabearekin, eta areago, traketsarekin lotua dago, fite mintzatzearekin eta hitzak “jatearekin”. Hori dela eta, markatzaile batzuen aitzinean gaudela iruditzen zaigu.

Hona hemen, hitzunik eman adibide batzuk: *Ontzoone* vs. *Ontzorone* (Anhauzeko auzoa) (Arnegi-Lasako adineko emazteak), *Beorlei* vs. *Beorlegi* (Hergaraiko emazte helduak), eta *maite ut* vs. *maite dut* (Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak).

2.10.9. [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea

Honela azalduko genuke bilakabide hau: [u] bokala [i] bihur liteke [a] edo [e] aitzin, adibidez, *gat[u]a* → *gat[i]a* edo *akit[u]a* → *akit[i]a* ‘nekatua’. Bernat Etxeparek (1545) *ui* forma erabiltzen zuen. Beraz, badirudi bilakabidea [u] eta [a, e] bokalen artean [i] bokala txertatzen hasi zela. Uste horretakoa dugu Mitxelena (2011 [1961]: 121). Ondoren, [u] bokalaren ezabatze edo asimilazioa gertatuko zen [ia] formara heltzeko. Caminoren (2021 [2016]) ustez, abiapuntua [y]+[a, e] → [yja, yje] izan zen, eta ez [u]+[a, e] → [uja, uje].

Monosilaboetan [uj] gordetzen da; errate batera, *bluia*, *suia* eta *t(h)uia*. Irainetan ere joera hori dago (Salaberri, 2000: 231): *deurruia*, *kakazuia* eta *aluia*. Hala ere, horiekin batera ditugu *deurria* eta *kakazia* ere, baina sekula ere ez **alia*. Gure hipotesia da [i] aldaera indarra galtzen ari dela euskara idatziaren eta Euskara Batuaren/Euskara Batuen eraginez.

Zuazok (1998: 209) ekialdeko bereizgarritzat du ezaugarri hau. Lapurdi mendebaldean hasi eta Zuberoara arte luzatzen dela dio. Lafon-en (1937: 76-77) arabera, [i] aldaera zubereraz eta Nafarroa Behere ia osoan agertzen da. Arberoan *uya*, *üya*, *ü* eta *i* ahoskatzen zirela erran zuen (*ibid.*: 1937: 77). Caminoren (2004a: 464) arabera, Heletan ere [y] dugu, eta Alduden, berriz, [uj]. Nafarroa Beheretik harat, Lapurdin, [uj] dugu Beskoitze, Urketa, Arbona eta Arrangoitzen (Duhau, 1993: 13). Larresoro aldean Epeldek (2004: 59-61), [u], [uj] eta [yj] dakartza, eta [u] + [a] testuinguruan, [y] ere ageri dela dio. Hazparne, Lekorne eta Makea aldean ere [y] entzun ahal izan dugu guk. Aipatu ditugun Lapurdiko herrietarik mendebaldera [u] soila baino ez dugu.²³ Lafittek (1944) *u* erabiltzen du sistematikoki nafar-lapurtera literarioa deskribatzen.

Bilakabide hau ez da gertatzen ahal lehenago jada beste bilakabide bat gertatu denean, adibidez *murru bat* → *murru at* izatera igarotzen bada, ondoren ezingo da **murri at* izatera pasatu. Baditu bilakabide honek salbuespen batzuk, lana aitzinatu arau agertu zaizkigunak. Hauexek izan dira guk aurkitu ditugunak: *eskuara* eta honen eratorria den *eskualduna*, *batzuetan*, *eguerdi* eta *hiru+atzizkia*. Salbuespen horietarik gehienetan bilakabide hau ez gauzatzearen arrazoia lehenago beste bilakabide bat gauzatu izana da: *eskuara* < *euskara*-tik heldu da, *eguerdi* < *egun+erdi*-tik, eta

²³ Areago, Lapurdiko itsasagian, [w] tartekatzen da [u] eta [a] artean.

hiru+atzizkia < *hirur*+atzizkitik. Horietarik landa, euskal hizkera gehienetan *abendua* [u]-rekin ahoskatzen eta idazten badugu ere, Garazi aldean, bederen, *abendoa* erraten eta idazten dute, eta beraz, ez da [u] → [i] gertatzen. Kasu hauek ez dira, beraz, kontuan hartu.

Garaziko euskararen aldakortasun estilistikoaz egin genuen lanean, Irulegiko Irratiko esatariak estilo formalean aise ehuneko apalagoan gauzatu zuen bilakabide hau. Hitzunen ahotik entzun ahal izan dugunagatik, mintzo laster eta arduragabearekin lotzen dute [i] aldaera. Jatorrizko aldaera [u] dela eta horrela idatzi behar dela uste dute anitzek. Hori dela eta, Bellen printzipioari jarraituz, hizkuntza-aldagai honek aldakortasun estilistikoa duenez, aldakortasun soziala izatea ere espero genuke. Hala balitz, markatzaile baten aitzinean geundeke.

Hizkuntza-aldagai honetan ez dugu hitz berak hitz berean, batean aldaera batekin eta bestean bestearekin eman adibiderik. Bilakabidea gauzatzearen adibideak ditugu hauek: *lotiak* (Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak), *sortia* (Gamarte-Ainhizako emazte helduak), *negian* (Luziadeko adineko emazteak). Ez gauzatzearenak dira, berriz, beste hauek: *konzertuak* (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak), *pastua* (Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak), *kantuen* (Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak).

2.10.10. Bustidura: [n]→<n>/[j]_ eta [l]→<ɺ>/[j]_ bilakabideak

Honela azal ditzakegu bilakabideok: [n] eta [l] hobikariak [ɲ] eta [ɺ] sabaikari bihur litezke [j] irristariaren ondotik, azken honen [+goi] tasunak eraginda; errate batera, *artza[jn]a* → *artza[ɲn]a* eta *otsa[jl]a* → *otsa[jɺ]a*. Beste hizkera batzuetan ez bezala, Garazin, bustidura [j]-ren ostean baino ez da gertatzen, eta ez [i]-ren ondotik. Zernahi gisaz, badira salbuespen zenbait, *i[ɺ]oba* hitza, adibidez. Gure ustez, gazteen artean, atzerabidean doa bustidura.

Honela dio Caminok (2016: 252): “Baxenabarreko ekialdean ez da harritzeko beheranzko diptongoen osagai den *i*-k ondoko *n* eta *l* palatalizatzea, baina ezker *i* bokalikoa duten *n* eta *l* kontsonanteek busti gabe diraute”. Bere hitzetan, Amikuze, Bardoze, Landibarre, Oztibarre eta Garazi palatalizatzaileago dira, eta Arberoa-Iholdi eta Baigorri dugu palatalizazio edo bustidura gutxien (Camino, 2004a: 456). Larresoro aldean ere ez dugu bustidurarik. Areago, despalatalizazioa atzeman genezake (Epelde, 2004: 70-71). Aezkoan ere ohiko fenomeno da hau (Camino, 1997: 333-335). Garazi

mendebaldean, despalatalizazioa entzun izan dugu, *zoinatu* (frantsesezko *soigner*-tik) hitzean, adibidez. Baztan aldean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan bezalaxe, [j] ostean dugu bustidura (Salaburu, 1984-2: 158-159). Oronoz-Mugairi (Zelaieta, 2008: 159), Ultzama (Ibarra, 1994: 294, 311) eta Lapurdiko kostatik (Zuazo, 1998: 202) mendebaldera hasten da bustidura [i]_ testuinguruan gertatzen.

Bustidura gauzatzen ez den eremuetan, *uñez* eta *ollo* (eta beraz, *ollasko*, *ollar*, *olland*, etab.) hitzetan, ohikoa da. Hori dela eta, ausazko efektutzat hartu ditugu hitz hauek batetik, eta gainerakoak bestetik, Luzaide, Arnegi-Lasa eta Irulegi-Anhauze eremuetan.

Gañekoleta bezalako toponimoak ez ditugu kontuan hartu, gure ustez, bustidurarekin lexikalizaturik baitaude. *Koñata* hitza, aldiz, kontuan hartu dugu, jatorrizko bustiduradun formarekin batera, *koinata* despalatalizatua ere erabiltzen baita. *-tzaille* atzizkia ez dugu aintzat hartu, Garazin bere baliokidea ez baita *-tzalle*, *-(t)zale* baizik Datuen azterketan, bereiz landuko ditugu [n] eta [l].

Estiloaren arabera, aldea ez zen estatistikoki esanguratsua izan azterketa diafasikorako elkarrizketatu genuen Irulegiko Irratiko esatariaren mintzoan. Lekuko hau Garazi mendebaldekoa da, 4.18. eta 4.19 §-etan ikusiko dugun bezala, bustidura gutxien gauzatzen den eremukoa, hain zuzen ere. Beraz, estilo informalean ere ez du gauzatzen.

Hiztun berak hitz berean erranak dira honako adibideak: *sasoñ iten* vs. *sasoin iten* (Hergaraiko adineko emazteak), *gaiñian* vs. *gainian* (Ezterenzubiko adineko emazteak), *gandeaille* vs. *gandailu* (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *Mokosailia* vs. *Mokosaile* ‘Lasako etxea’ (Arnegi-Lasako gizon helduak).

2.10.11. Absolutiboa 3. pertsona plurala duten aditz laguntzaile iragankorrak

Orainaldiko aditz laguntzaile iragankorren hasierako *di-* galtzea biziki ohikoa da euskal hizkera anitzetan. Absolutiboa 3. pertsona plurala denean gertatzen da hori. Beraz, *ditu*, *ditut*, *dituzu*, *ditugu* bezalako ordez, *tu*, *tut*, *tuzu*, *tugu* bezalakoak ditugu. Ergatiboa 3. pertsona plurala delarik, *tuzte* eta *dituzte*-tik landa, *duzte* eta *diuzte* ere baditugu. Azken bi kasu hauetan, hitz berean bi [t] daudenez, dismilazioz, lehena ezabatzen da (Camino, 2016: 458). Halaber, ergatiboa lehen pertsona singularra edota bigarren pertsona singular *tokakoa* delarik, eta aditz laguntzailearen bukaeran atzizkia dagoelarik, *tuztan/duztan*, *tuzkan/duzkan* bezalakoak ditugu. Erdoziak (2001: 135)

aferesizat hartzen du *di-* galtze hau. Caminok (2016: 458) dioenez, “ia-ia aferesi dei ditzakegu, baina ez dira zinezko aferesiak, aditz nagusiaren ondoko atalaren galerak dira”. Datuen azterketan, batetik, ergatiboa 3. pertsona plurala (*tuzte* vs. *duzte* vs. *diuzte* vs. *dituzte*) edo lehen pertsona singularra eta bigarren pertsona singular *tokakoa* eta atzizkia (*tuztan* vs. *duztan* vs. *dituztan* eta *tuzkan* vs. *duzkan* vs. *dituzkan*) duten kasuak landu ditugu, eta bestetik, gainerako kasu guztiak (*tut* vs. *ditut*). Lehen kasuan, adibide gutxi bildu ahal izan dugu, eta Irulegi-Anhauzeko emazte helduaren kasuan, batere ez. Beraz, itzulpen bidezko inkestari esker bildu dizkiogu arrapostuak lekuko honi. Gure hipotesia da eredu idatzia dela eta, forma laburtuak (*tut*, *tuzte*, *duzte*, *diuzte*) gibelerara ari direla Garazin.

EHHAK *tu/ttu/tü/tto* dakar ia Iparralde eta Nafarroa osoan; hots, Euskal Herriko ekialdean. Hala ere, *ditu* dakar Luzaide, Arnegi, Baigorri, Bidarrai, Irisarri, Makea, Itsasu eta Jutsin. Ergatiboa 3. pertsona plurala delarik, berriz, *tuzte* bildu zen Bidasoa aldean, Baztanen, Zilbetin, Mezkitzen eta Abaurregainean, eta Lapurdi eta Nafarroa Behere gehiengan. *Diuzte* bildu zen Ezterenzubi eta Behorlegin eta *duzte* Nafarroa Behereko hainbat herritan eta Bardozen. *Dituzte* dakar azkenik, *ditu* bildu zen ber herrietan eta Alduden. Gainerako Nafarroa Garaiko herrietan, *ttute*, *ttui*, *ttu*, *ttuye*, *ttuye* eta *ttubei* bezalakoak ditugu. Zuberoan, berriz, *tie*. “Bourciez” Bildumako Euskal Atlasean, *duzte* eta *diuzte* Nafarroa Behere eta Lapurdi osoan zehar sakabanaturik ageri dira (Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias, 2004: 77). Lafittek (1944) *ditut*, *dituzte* erako forma osotuak baino ez ditu erabiltzen nafar-lapurtera literarioa deskribatzean.

Ezterenzubin, forma horiez gain, *diztut*, *diztu* bezalakoak ere bildu ditugu amaseme batzuegandik. Caminoren (2016: 452) arabera, horrelako formak ohikoak dira Nafarroa Behereko iparraldean eta Aturrialdean.

Aditz nagusia [i]-z bukatzen den kasuak ez ditugu aintzat hartu, [ikušitut] bezalakoetan, ez baita aise jakiten ahal *ikusi tut* dugun, edota [ð]→<Ø>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidearen eraginez, *ikusi ditut* → *ikusiitut* → *ikusitut* gertatu den. *Ba-* aurrizkia duten formak ere ez ditugu kontuan hartu, horrelakoetan, lekuko batzuk *baitzu* (*badituzu*-tik heldu dena), *baitzit* (*baditizit*-etik heldu dena) bezalako formak eman dizkigutelako, nahiz eta gainerakoetan, erregulariki *tut* erakoak erabili.

Tratamendu neutroan, *tokakoan* eta *xukakoan* eman adibideak aztertu ditugu *tut* vs. *ditut* erakoetan, baina ez *tuzte* vs. *duzte* vs. *diuzte* vs. *dituzte* erakoetan, alokutiboko

txie, tie, tine erako formetan ez baitezakegu jakin *tuzte, duzte* edo *diuzte* dugun. *Tut* vs. *ditut* erakoei dagokienez, *ditxit, ditxiu* bezalakorik ez dugu entzun *xukako* tratamenduan, bai ordea, *ditiat, ditiau* bezalakoak *tokakoan*. *Tut, tuk, tu, tuzu...* paradigmari *tut* izenburua emanen diogu datuen azterketan; *ditut, dituk, ditu, dituzu* paradigmari *ditut; tuzte, tuztan, tuzkan* formei berriz, *tuzte; duzte, duztan, duzkan* formei *duzte; dituzte, dituztan, dituzkan* formei *dituzte*; eta azkenik, *diuzte* formari *diuzte*.

Garaziko euskararen azterketa diafasikoa egitean (Artzelus, 2020a), ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu. Hiztunek, beste behin, *tut, tuzte* bezalako forma laburtuak mintzo zaluaren eta arduragabearen sinonimotzat dituztela uste dugu, hitzak jatearekin loturik daudela, hots. Beraien iritziz, forma egokiak, idatzian erabiltzen direnak dira, *ditut* eta *dituzte* bezalakoak.

Tut erako forma laburtuen adibideak ditugu honakoak: *ttipiak emen tuk* (Ezterenzubiko gizon helduak), *puluak deitzen tunak guk* (Gamarte-Ainhizako gizon helduak), *inen tut ogoitabat* (Hergaraiko ikastolako eta komiteetako gizon gazteak). *Ditut* erako forma osotuen adibideak ditugu, berriz, honako hauek: *bakotxak guaun otoak ukan ditugulaik* (Ezterenzubiko gizon helduak), *egiten ditugu webguneak* (Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazte gazteak), *badira erri batzuk, eztakit, ikusi dituztalaik* (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea). *Duzte* eta *diuzte*-ren adibideak ditugu, azkenik, hauek: *inak diuzte animaleko bestak* (Luzaideko ikastolako gizon gazteak), *orik bear duztela kendu* (Luzaideko adineko gizonak).

2.10.12. Jabego genitibo singularra

-aren jabego genitibo singularreko forma *-ain* bihurtzen da Euskal Herriko ekialde zabalean. [r] lotura kontsonantea erortzen da lehenik [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidea dela eta. Ondoren, [e]-k silabagiletasuna galtzen du, [a]-rekin batean silaba bera osatzeko. Diptongatze horretan, disimilatuz joaten da [j] bihurtu eta [aj] diptongoa osatzeraino. *-ain* formaz gain, *-aen* eta *-an* ere atzeman ditugu. Hona hemen adibide batzuk: *maztearen* → *mazteaen, maztean, mazteain* eta *gizonaren* → *gizonaen, gizonan, gizonain*. *-arren* ere badugu, *nor* izenordain zehaztugabearen eta 3. graduko erakusle singularraren kasuan (*norren, harren*). Gure iritziz, euskararen eredu idatzia dela eta, Garaziko oinarri dialektaleko *-ain* forma gibelera ari da eta *-aren* goiti.

Zuazok (1998: 200) Euskal Herri erdiguneko eremu murriztagoko bereizgarritzat hartzen du ezaugarri hau. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Nafarroa Garaiko ekialdea hartzen ditu bere eremutzat. Zuberoan, orokorrak *-an* eta *-aen* direla dio, nahiz eta *-ain* ere baden. Mendebaldeko mugari dagokionez, Bidasoaldean (Zelaieta, 2008: 188), eta Ultzaman (Ibarra, 1994: 362), *-an* daukagu jada. Horrez gain, Hazparne aldean, *-aan* berrikuntza hedatu da (Camino, 2016: 284-285), eta Uztaritze (Epelde, 2004: 88), Beskoitze (Duhau, 1993: 43, 45) eta Orzaizeraino heltzen da. Aita Lafittek (1944: 58) nafar-lapurtera literarioan, *-aren* dakar jabego genitibo singularraren formatzat.

Singularraz gain, mugagabeen edota izen bereziekin ere gertatzen da *Vren* → *Vin*: *batzuin* (< *batzuen*), *amatxiin* (< *amatxiren*), *Elorriin* (< *Elorriren*). Kasu hauek ere kontuan hartu ditugu. Horrez gain, Garazi mendebaldean 3. graduko erakusle singularrarekin eta *nor* izenordain zehaztugabearekin ez da ohikoa *Vren* → *Vin*,²⁴ eta areago, *-arren* dugu lehen kasuan (*harren*). Beraz, Luzaide, Arnegi-Lasa eta Irulegi-Anhauzen kasu hauek alde batetik eta beste guztiak bestetik ausazko efektutzat hartu ditugu.

Aztergai izan genuen Irulegi Irratiko esatariak irratiko estilo formalean aurrez aurreko informalean baino anitzez gehiago erabili zuen *-aren* forma (Artzelus, 2020a). Iruditzen zaigu Garaziko hiztunengan, beste behin, *-ain* hizketa lasterrarekin loturik dagoela. Iritzi berekoa da Montoya (2003) ere, Zugarramurdi eta Urdazubiri dagokienez:

Gaur egun, *-ain* erabiltzea hizkera arruntarekin lotzen da Zugarramurdi eta Urdazubin, hiztun batzuk saiatu direlako astiro eta dotore hitz egiten eta hauek, zenbaitetan, *-aren* erabili dutelako. Hau horrela balitz, aldaera diafasiko baten aurrean geundeke, estiloari lotutako aldaera baten aurrean (92).

Gure ustez, beraz, aldaera honek markatzaile izaera du.

Hona hemen *-ain* formaren adibide batzuk: *medikiain etxean* (Luzaideko emazte helduak), *ateratzen astiaikin* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gazteak), *taldeaikin tzira* (Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak). *-aren* formarenak ditugu beste hauek: *frantsesaren uzteko* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gazteak), *naturaren babesteko* (Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta

²⁴ Garazi ekialdean *hain*, *haen*, *noin*, *noen* formak ohikoak dira, eta Garazi mendebaldean, berriz, *haren/harren* eta *noren/(norren)* formak nagusitzen direla uste dugu.

gaztetxeko emazte gazteak), *entseatzen dugu erriaren mugitzea* (Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak).

2.10.13. Etorkizuna *-an- ez* bukaturiko aditzetan

[n] eta [l]-z bukatzen diren aditz nagusien etorkizuneko marka *-en* da Euskal Herriko ekialde osoan. [n] aitzin dagoen bokala [a] den kasuetan, *-anen* bukaera genuke. Bi [n] elkarri hurran egonik, disimilazioz lehendabizikoa erori egiten da. Ondoren, jabego genitiboaren kasuan bezala, [e]-k silabagiletasuna galtzen du, eta disimilatu joaten da, [j]-ra heldu eta [aj] diptongoa osatu arte. Horrela, beraz, *-ain* etorkizuneko forma izatera heltzen gara. Bi formen erdibidean dagoen *-aen* ere bildu ahal izan dugu Garazin, baita Hazparne aldeko *-aan* ere. Azkenik, gazte zenbaiten artean, [n]-z bukatzen diren aditz nagusien kasuan ere, mendebaldeko *-go* ezaguna da. Hona hemen adibide batzuk: *izanen* → *izaen*, *izain*, *izaan* eta horiez gain, *izango*; *emanen* → *emaen*, *emain*, *emaan* eta horiez gain, *emango*.

-ain aldaera Nafarroa Garaian eta Nafarroa Beherean erabiltzen da, Amikuzen barne (Camino, 2016: 262-263). Lapurdi barnealdean ere ezaguna da, baina Hazparne aldean (Orzaize, Beskoitze, Bardoze eta Izturitzerraino) *-aan* dugu (Camino, 2004a: 461). Epelderren (2004: 76) arabera, *-ain* dugu Larresoron baina *-aan* Uztaritzen. Zuberok ez dugu *-ain* formarik, *-anen* edota *-aen* baizik (Camino, 2016: 262-263). Behin Zaraitzura ezkerrean ere (Camino, 1997: 166), *-anen* dugu. Lafittek (1944: 230) *-anen* forma baino ez du erabiltzen nafar-lapurtera literarioa deskribatzean.

Garaziko euskararen aldakortasun diafasikoaz egin genuen lanean (Artzelus, 2020a), Irulegiko Irratiko esatariak *-anen* forma osotua aurrez aurreko mintzo informalean baino aise ardurago erabili zuen irratiko jardun formalean. Hiztunengandik jaso ahal izan ditugun iritziak, jabego genitiboaren kasuan bezalaxe, *-ain* forma mintzo lasterrarekin eta arduragabearekin lotzen dutela pentsatzera eramaten gaituzte. Hori dela eta, kasu honetan ere, markatzaile baten aitzinean gaudela iruditzen zaigu.

Adibideak aipatzen hasita, Ezterenzubiko gizon helduak *errain* vs. *erranen* eman zigen. Horrez gain, *-ain* formaren adibideak ditugu hauek: *egoin gintukan ba etxean e gootik* ‘egonen gintuan bai etxean ere gogotik’ (Irulegi-Anhauzeko adineko emazteak), *emain tiat* ‘emanen dititat’ (Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak). *-anen* formarenak dira beste hauek: *eztakiat gai izanen nizanez* (Hergaraiko publikoko

eta komiteetako gizon gazteak), *joanen ginaizke ba* ‘joanen ginateke, bai’ (Arnegi-Lasako emazte helduak).

2.10.14. [t]ik (ablatiboa) → <d>ik/[n]_ bilakabidea

Euskal hizkera gehienetan ohikoa da ablatiboko *-tik* morfemako [t] ahostuntzea [n]-z amaitzen den adberbio baten ondoren. Garaziko oinarri dialektalean, ordea, ez da horrela. Beraz, *hementik*, *hantik*, *nuntik* eta *hurruntik* bezalakoak ditugu ohiko *hemendik*, *handik*, *nondik* eta *urrundik* ordez.

Mitxelenak dio (2011 [1961]: 189-190) herskari ahoskabeak ahostundu egin zirela euskal hizkera gehienetan [n] eta [l] ostean. Zuberera eta erronkaria dira posizio honetan herskari ahoskabeak dituzten hizkerak. Mitxelenak (2011 [1961]: 291) berak aitortzen du, ordea, fenomeno hau berrikuntza izateko aukera ere badagoela. Autore ugari dira bigarren aukeraren alde egiten dutenak (Camino, 2016: 135; Lakarra, 2014 [2011]; Urrestarazu, prestatzen). Nafarroa Behere osoan [n]-ren ondotik eta ablatiboarekin baino ez dugu [t] ahoskabea, beste kasu guztietan ahostuna baitugu. Caminoren (2004a: 457) arabera, [nt] bilkura dugu Amikuzen, Oztibarren, Landibarren, Garazin eta Irisarri-Izturitzen. Baigorri, Armendaritze, Hazparne, Makea eta Lapurdi barnealdean jada [nd] dugu. Guk Izturitzen ere [nd] entzun ahal izan dugu. Aita Lafittek (1944) nafar-lapurtera literarioa deskribatzean, *d* erabiltzen du beti *n* ostean.

Lekuko bakoitzak hizkuntza-aldagai honen adibide gutxi eman ditu, eta Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazte gazteak batere ez. Hori dela eta, inkesta bidez, hiru itzulpen egiteko eskatu behar izan diogu lekuko honi.

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoaz egin genuen azterketan (Artzelus, 2020a), estiloaren arabera, aldea ez zen estatistikoki esanguratsu izan hizkuntza-ezaugarri honi dagokionez. Hiztunengandik ere ez dugu iritzirik jaso.

Hiztun berak emanak ditugu honako adibide hauek: *nuntinahi* vs. *nundinahi* (Hergaraiko adineko emazteak), *ementik* vs. *emendik* (Irulegiko gizon helduak).

2.10.15. [e] → <i>/[i]_atzizkia (aditz laguntzaile iragankorretan) bilakabidea

Hizkera batzuetan, aditz laguntzaile iragankorretako [e] [i] bihur liteke atzizkiaren aitzinean. Bilakabide hau gertatu ahal izateko, lehenik, [u] → <i>/_[a, e] gertatu beharra da. Beraz, lehenik, *nuen*, *zuen*, *genuen* → *nien*, *zien*, *ginien* dugu, eta ondoren, *nien*, *zien*, *ginien* → *niin*, *ziin*, *giniin* gerta liteke. Jarraian, bokal luzea laburtzea ohikoa da,

hots, *nin*, *zin*, *ginin*. *Niin* eta *nien*-ez gain, Garazin badugu, beraz, *nuen*, eta egiaztatu ahal izan dugun bezala, baita erdialdeko *nun* ere. *Nien*-en bidez, *nien*, *zinien*, *zien*, *ginien*, etab. paradigma osoa adieraziko dugu datu azterketan, *niin*-en bidez, *niin*, *ziniin*, *ziin*, *giniin*, etab. paradigma, *nuen*-en bidez, *nuen*, *zenuen*, *zuen*, *ginuen*, etab. paradigma, eta azkenik, *nun*-en bidez, *nun*, *zenun*, *zun*, *genun*, etab. paradigma.

Caminok (2016: 228-229) dioenez, bilakabide hau Nafarroa Behereko ipar-ekialdean baino ohikoagoa da Arberoan. Amikuzen ohikoagoak dira *nien* bezalakoak, eta ibarreko mendebaldean ageri dira *niin* erakoak. Bere hitzei jarraikiz, EHHA bildumako etnotestuetan *niin* ageri omen da Baigorrialdean, Iholdiko kantonamenduan, Garazin, Oztibarren, Hazparne aldean, Beskoitzen eta Bardozen. EHHako arrapostuei erreparaturik, *nien* erakoak ageri zaizkigu Nafarroa Behereko ekialdean eta *niin* erakoak mendebaldean eta Lapurdiko Aturrialdean. Probintzia hau erdiz erdi, bitan zatitzen du hizkuntza-aldagai honek. Uztaritze aldean *nuin* bezalakoak ditugu eta handik mendebaldera *nuen*. Nafar-lapurtera literarioaren gramatikan, sistematikoki *nuen* erabiltzen du Lafittek (1944).

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoari buruzko lanean (Artzelus, 2020a), ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu. Ohartu ahal izan garenez, hiztun zenbait hizkuntza-aldagai honen aldakortasun diatopikoaz kontziente dira. Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak Gamarten *nien* eta Baigorriin *niin* erraten dutela aipatu zigun. Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak, berriz, beraiek *nin* eta Gamarten bere lagun batek *nien* erraten zuela jakinarazi zigun.

Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak *uste nien* vs. *uste nin* erran zigun. *Nien* erakoen adibideak ditugu hauek: *berak bost urte zitielaik* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gazteak), *joan bear ginielaik* (Arnegi-Lasako emazte helduak). *Niin* erakoen adibideak, berriz, beste hauek: *aitak e erraiten tzin* (Arnegi-Lasako emazte helduak), *aitak dila geienik atxiki* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gazteak).

2.10.16. Destinatiboa

Garaziko oinarri dialektalean *-endako* da destinatiboko forma (*haurrendako*, *jendeendako*, *langileendako*). Forma hauxe erabiltzen da Euskal Herriko ekialde zabalean, besteak beste, EHHAn ikus dezakegunez. *-endako* eta *-entzat* batera ditugu Lapurdi barnealdean (Epelde, 2004: 103), Urdazubi eta Zugarramurdin (Montoya, 2003:

95) eta Imotz eta Basaburua Nagusi gehiengan (Apalauza, 2012: 316). Behin Beskoitzera (Duhau, 1993: 45) edota Bortzirietara eta Zubietara (Zelaieta, 2008: 135, 145) ezkerre, *-tzat* baino ez dugu. Sakanan zehar, mendebalderago ere heltzen da *-endako*, Araba (Zuazo, 2012: 113), Goierri eta Deba ibar aldera.

Lapurteraz ohikoa izan da *-entzat*, eta urte luzez prestigioa izan duen euskalki honetan oinarriturik, *-entzat* da nafar-lapurteraz erabili izan dena ere (Lafitte, 1944: 61). Erran dugun bezala, azken eredu honetan oinarritu da iparraldeko batua, eta honen eraginez, Garazin ere, *-entzat* nagusitzen ari delako hipotesia dugu.

Irulegi Irratiko esataria izan zen gure lekukoak irratiko jardunean aise ardurago erabili zuen *-entzat* aldaera, eta aurrez-aurreko mintzo informalean, berriz, *-endako* (Artzelus, 2020a). Ez dugu Garaziko lekukoaren artean hizkuntza-aldagai honekiko iritzi argirik jaso, baina iruditzen zaigu *-entzat* aldaerak prestigioa duela.

-endako aldaeraren adibideak ditugu hauek: *Arnei urrano zen guetako Uarte bano* (Arnegi-Lasako gizon helduak), *ni Baionan eon niz sosaaindako* (Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak), *guretako mundia hau zian, Eztengile zian* ‘guretako mundua hau zen, Ezterengibel zen’ (Ezterenzubiko gizon helduak). *-entzat*-enak ditugu beste hauek: *zaila izan da beretzat* (Irulegi-Anhauzeko emazte helduak), *bai, baina gauza ttipientzat* (Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeke emazte gazteak), *emen inguruko enpresentzat lanean* (Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeke gizonak).

2.10.17. Ablatibo mugagabe eta plurala

-etarik da Garazin, Euskal Herriko ekialde osoan bezala, ablatibo mugagabe eta pluraleko morfema, *etxeetarik* edo *herrietarik* adibideetan ikus dezakegun bezala. Zuazok (2008: 220) Nafarroa ekialdeko eta Ipar Euskal Herriko ezaugarritzat du. EHHAn Hendaia, Zugarramurdi, Baztan eta Alkotzek marrazten duten mugatik ekialdera agertzen zaigu *-etarik*. Bidasoaldean (Zelaieta, 2008: 192), eta Oskotz eta Etxalekutik mendebaldera (Apalauza, 2012: 320) *-etatik* baino ez dugu. Nafar-lapurtera literarioari dagokionez, ablatibo plural eta mugagabearen forma *-etarik* dela aipatzen du Lafittek (1944: 62).

Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasun diafasikoari buruzko ikerketan, hizkuntza-aldagai hau ez zen estatistikoki esanguratsu izan. Hiztunen artean ere, ez dugu honi buruzko iritzirik jaso ahal izan.

Hona hemen *-etarik* aldaeraren adibide batzuk: *solfe[ɜ]a banien beatzi urtetaik goiti* ‘solfoa banuen bederatzi urtetarik goiti’ (Gamarte-Ainhizako publikoko eta komiteetako gizon gazteak), *eldu ziren bazketarik* (Hergaraiko gizon helduak), *amar ontaik eguerdi terdi artio* ‘hamarretarik hamabiak eta erdira arte’ (Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak). *-etatik* aldaerarenak ditugu beste hauek: *bakarrikan iten dugu hamaika terditatik iru terdita* ‘hamaikak eta erdietarik hiruak eta erdira arte baino ez dugu egiten’ (Luzaideko ikastolako emazte gazteak), *ni oono lagunetatik ez, baño re* (Luzaideko ikastolako gizon gazteak), *ya gure urtetatikan unat anitz* (Luzaideko publikoko emazte gazteak).

2.10.18. Adlatiboa

ra aldaerarekin batera, *-rat* da Garaziko oinarri dialektalean erabiltzen dena. Bien artean bada desberdintasun semantikorik. Hain zuzen ere, Gèze-n arabera, *-ra*-k “mouvement vers un lieu pour en revenir promptement” adierazten du, eta *rat*-ek, berriz, “mouvement vers un lieu pour s’y établir ou du moins pour y faire un séjour” (Coyos, 1999: 172). Zentzu berean, honela dio Lafitte-k (1944):

La désinence *-rat* est très souvent réduite à *-ra*; beaucoup d’auteurs ne voient pas de différence de sens entre les deux formes, pourtant *banoa Pariserat* veut dire: *je vais à Paris, sans retour*, et *banoa Parisera*: *je vais à Paris, simple aller et retour* (60).

Zuazok (1998: 210) Iparraldeko ezaugarritzat du *-rat*. EHHAn ere Iparralde osoan ageri da *-rat*, nahiz eta *-ra* ere ageri den zenbait herritan, batez ere Baigorriko ibarrean eta Lapurdin. “Bourciez” Bildumako Euskal Atlaseko gramatikan (Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias, 2004: 17-19) ere, bai *-rat* eta bai *-ra* agertzen dira. Zuazok (1999: 256) dioenez, biak daude Iparraldean, baina aldaera batek edo besteak ez du berarekin erranahi aldaketarik ekartzen. Norabide adlatiboan, hedadura zabalagoa izan du *-rat*-ek, Nafarroa Garaiko ekialde zabalean erabiltzen baita, eta garai batean, baita Iruñerrian ere (Camino, 2016: 311).

Lafittek (1944: 62) *-rat* eta *-ra*, biak aipatzen ditu nafar-lapurtera literarioaren deskribapenean, baina bien artean dagoen ñabardura semantikoa argi utziz.

Aldaera horiez gain, honela dio Lafittek (1944: 60): “après les thèmes en *a*, on peut remplacer *-ra* et *-rat* par *-la* et *-lat*”. Guk Garazin, adibide banaka batzuk baino ez ditugu atzeman. *-la* eta *-lat* ohikoak dira Zuberoan hitza edozein bokalez bukatuta ere, eta hala zen lehenbizikoa Zaraitzun ere (Camino, 2016: 307). Nafarroa Beherean, [a]-z

bukatu hitzetan ageri da, salbuespenak salbuespen. Probintzia osoan ageri da *-la(t)* Baigorriko ibarrean salbu (Camino, 2004a: 458). Guhaurk Hazparden entzun ahal izan dugu *-lat*, baita herriko etxez Gamarte baina elizaz Ibarrola den etxalde batean eta Donaixtin ere.

Badira, gure ustetan, kasu batzuk *-ra*-ren aldeko joera eragiten baitute; errate batera, adlatiboa aditzaren erregimena denean; hots, adlatiboaren morfema aditz izenaren ondotik heldu delarik. “Bourciez” Bildumako Euskal Atlasean, adibidez, kasu horretan, *-a* edo *-ra* ageri da Nafarroa Behere gehiengan. Lapurdin, *-at* eta *-rat* gehiago ditugu. Larresoron, kasu honetan, ohikoa da *-rat* (Epelde, 2004: 95). Lafittek (1944: 217) ere bi aldaerak dakartza kasu honetan. Aditzaren erregimenaz gain, entzun ahal izan dugunez, gazteen artean, izen berezietan eta *gainera* lokailuaren kasuan, *-ra* erabiltzeko joera dagoela erranen genuke. Testuinguru horiek ausazko efektutzat hartuko ditugu datuen azterketan, baina kopuruen eta ehunekoen berri emanen dugu.

Testuinguru fonetiko ere aintzat hartuko dugu. Ablatiboaren ondotik heldu den hitza kontsonantez hasteak *-ra* izatea aldeztuko duela uste dugu, CV.CV(C) silabak genituzkeelako, errate batera, [e.tʃe.ra.ʒar.tu]. *-rat* bagenu, CVC.CV(C) genuke, eta horrek artikulazioa zailduko luke ([e.tʃe.rat.ʒar.tu]). Ondoko hitza bokalez hasten delarik, *-rat* izatea espero dugu, bersilabifikazioa gertatu, eta amaierako [t]-k ondoko bokalarekin batera CV erako silaba osatuko bailuke, CV.CV.CV(C) segida emanaz ([e.tʃe.ra.ta.ri.βa.tu]). Erranaldi bukaeran ere *-ra* naturalagoa litzateke, indar artikulatorio gutxiago galdegiten baitu *-rat*-ek baino. Lehen kasuan CV silaba genuke, eta bigarrenean, CVC.

Adlatiboaren ondoko hitza [t]-z hasten den kasuak ez ditugu aintzat hartuko, *-rat*-en bukaerako [t] eta ondoko hitzaren hasierakoa bakar batean biltzen baitira.

Hizkuntza-aldagai honi dagokion aldakortasun diafasikoa ez zen estatistikoki esanguratsua izan (Artzelus, 2020a), eta lekukoen ahoetarik ere ez dugu iritzi argirik bildu ahal izan.

Honako adibide hauek hiztun berak emanak dira: *batetarat* vs. *batera* (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *Zarorat mugitu* vs. *Zarora mugitu* (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak), *Koloradorat* vs. *Koloradora* (Irulegiko Irratiko esatariak aurrez aurreko estilo informalean). Aditzaren erregimenean, berriz,

honako hau ere bildu dugu: *ardi deizterat* vs. *ardi deiztera* (Gamarte-Ainhizako adineko gizonak).

2.10.19. [o]/[e]-dun aldaerak *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrietan

Garaziko oinarri dialektalean euskal hizkera gehienetan ditugun *zein, zenbat* eta eratorrien ordeztu, *zoin* eta *zonbat* ditugu, segurrenik ere, *nor* izenordain galdetzailearen analogiaz (Camino, 2016: 347).

Caminoren (2016: 347) hitzetan, Erronkari, Zaraitzu eta Iparraldeko aski eskualde zabalean ditugu halakoak. Lapurdiko hego-mendebaldean hasten zaizkigu agertzen *zein* eta *zenbat* (EHHA; Montoya, 2003: 108). Aldudeko ibarrean ere, *zein* eta *zenbat* ausarki entzun ahal izan dugu. Zernahi gisaz, idazki zaharretan, Garaziko zen Etxeparerenetan (1545) kasu, *zein* eta *zenbatetan* ditugu. Garai berrietan, *zein, zenbat* → *zoin, zonbat* gertatu da, beraz.

Lafittek (1944: 97-98) *Grammaire Basque, Navarrolabourdin Littéraire* lanean, *zein, zein-nahi, zenbat, zenbat-nahi, edozein* ematen ditu, baina honakoa gehitzen du ondoren: “au lieu de *zein* on dit très souvent *zoin*, et logiquement: *zonbait, edozoin, zoin-nahi, zoin ere, zonbat, zonbait*”. Gaur egunean, ohikoak dira *zoin* eta *zonbat* bai Euskal Irratietan, bai Herria astekarian eta baita Kanalduden ere, baina *zein* eta *zenbat* ere ausarki atzeman daitezke. Euskara Batuan, berriz, *zein* eta *zenbat* dira onarturik dauden forma bakarrak. Bat egiten dute nafar-lapurterak eta Euskara Batuak *zein* eta *zenbat* aldaeretan. Barietate hauen eraginez, [e]-dun aldaerak Garazin indarra hartzen dabilzala uste dugu.

Azterketa diafasikoari dagokionez, hizkuntza-aldagai honen kasuan, estiloaren arabera, aldea ez zen estatistikoki esanguratsua izan, esatariak ardurenean *zoin, zonbat* eta eratorriak erabili zituelako. Ez dugu lekukoengandik iritzi argirik jaso ahal izan.

Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazte gaztearengandik, *edozein* eta *edozoin* bildu ahal izan genituen ber elkarrizketan. Adibide horiez gain, hona hemen [o] eta [e]-dun aldaeren beste zenbait: *zenbat eoliena den Españan!* ‘zenbat haize-errota eoliko dagoen Espainian!’, *seurro aldi zonbaitez ba!* ‘hain segur ere, aldiz zenbaitez bai!’ (Hergaraiko adineko emazteak), *pollitena zein den?*, *zomaitzuk erten dute egonen direla* ‘zenbaitzuk erraten dute egonen direla’ (Hergaraiko emazte helduak), *zenbait aldiz zukria re ba, erresidentzia zonbaitetan e!* (Luzaideko adineko emazteak).

2.10.20. Datibo plurala

Garaziko oinarri dialektalean, *-er* da datibo pluralaren morfema. Koldo Zuazok Euskal Herri Ekialdeko bereizgarritzat du datibo pluraleko *-er* morfema hau. Caminok (2004a: 467) Nafarroa Behere osoan erabiltzen dela dio, nahiz eta probintziako mendebaldean, noiztarik noiztara *-eri* ere entzuten den. Aezkoan (Camino, 2016: 283-284), Larresoron (Epelde, 2004: 85-86) eta Beskoitzen (Duhau, 1993: 43-46) jada, ez dugu *-er* aldaerarik.

Honela dio Lafittek (1944) datibo pluralari buruz:

La forme classique du datif pluriel est *-ei*; mais chez les modernes on trouve une *r* euphonique intercalée entre les deux voyelles *-eri*; bien plus, le *i* disparaît et l'*r* finale sert souvent de désinence dative *-er*. Ainsi le datif pluriel de *buru* se présentera sous trois formes *buruei*, *burueri*, *buruer* (60).

Epeldek (2004: 86) ez du Lafitten *-eri* > *er* bihurtzeko azalpen honen alde egiten, besteak beste, Mitxelenak hitz bukaerako *-i* (2011 [1961]: 111) aski ongi gordetzen dela baitio.

Lafittek hiru formak aurkezten baditu ere, nafar-lapurtera literarioaren gramatikan, *-eri* baino ez du erabiltzen datibo pluraleko adibideak ematerako orduan. Ezin dugu ahaztu lapurtera modernoko aldaera honek prestigio handia izan duela Iparraldean, besteak beste, euskalki hau izan delako elizan erabili izan dena. Gaur egun, Iparraldeko euskalaritzan, biziki erabilia da forma hau *-ei*-rekin batean, Euskal Irratietan, Kanalduden edota Herria astekarian kasu. Horrek ez du erran nahi, zernahi gisaz, *-er* sekula ere agertzen ez denik, baina *-eri* eta *-ei* dira nagusi.

Hizkuntza-aldagai honen agerpena ez da biziki handia mintzo espontaneoan. Adibidez, Luzaideko publikoko gizon gazteak ez zuen adibide bakar bat ere eman. Hori dela eta, itzulpen bidezko inkesta bidez lortu behar izan ditugu lekuko honen datuak.

Garaziko euskararen aldakortasun diafasikoaz egin genuen azterketan ere (Artzelus, 2020a), egiaztatu ahal izan genuen Irulegiko Irratiko esatariak aise ardurago erabiltzen zuela *-eri* aldaera irratiko jardun formalean, nahiz eta aurrez aurreko mintzo informalean ere ez izan batere arrotza. Lekukoengandik ez dugu iritzi argirik bildu ahal izan.

Hona hemen Garaziko lekukoei bildu dizkiegun *-er*, *-eri* eta *-ei* aldaeren adibide batzuk: *her leitzen eta kundatzen eakustea* ‘haiei irakurtzen eta kontatzen erakustera’ (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak); *bere etxean biloak eta pikatzen tzitin xaarrer ta* ‘bere etxean ilea mozten zien zaharrei eta’ (Arnegi-Lasako emazte helduak), *errana nian ale idazler* ‘errana nian hala ere idazleei’ (Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak), *Iruñen bizi zieneri beste prezioan* ‘Iruñean bizi zirenei beste prezio batean’ (Arnegi-Lasako emazte helduak), *naiz ta aitamek jakin, ez die elarazi sobera beren aurrei* ‘nahiz eta aita-amek jakin, ez ditek sobera helarazi beren haurrei’ (Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak).

2.10.21. Soziatiboa

-kilan da, *-kin*-ekin batera, Garaziko oinarri dialektalean erabiltzen den soziatiboko morfema. Honela dio Caminok *-kilan*-en hedadurari eta izaerari buruz (2004a):

Ekialderat joanik *-kilan*-en agerraldien maiztasuna goiti doa: guk bildu datuetan, Larzabalen, Landibarren eta Arbotin bederen, erabiliagoa da *-kin* soilagoa baino. Arberoa-Iholdi alderdian eta Garazin ere erabiltzen da, Lapurdin ere ageri da: Irantzu Epeldek dioenez (2004: 298), Larresoro, Ezpeleta, Zuraide, Itsasu, Hazparne eta Makea alderdi horretan erabiltzen da. Aldiz, Baigorri bildu erabilera guztiak *-kin* dira hiru salbuespen izan ezik; berrikuntza baten itzaltzearen aitzinean gaude, egun ez baita emankorra *-kilan* Baigorri, bakandu da, garai bateko zaharrek aise gehiago erabiltzen omen zuten (457).

Caminok (2016: 290) dioenez, Amikuzeko ekialdean bada *-ki* zaharra ere. Ez dugu halakorik Garazi eta inguruan.

Lafittek (1944) honela dio berak *unitif* deitzen duen soziatiboko morfemaren aldaerei buruz:

La désinence de l’unitif se présente sous diverses formes que ne sont en somme que des cas différents de l’élément unitif *-ki*: nominatif *-ki*, inessif *-kin*, adlatif *-kila* et la forme surdéclinée *-kilan*.

ki n’est employé qu’en Soule, chez nous, il sert uniquement à faire des adverbes.

kin marque l’union réalisée

kila marque un mouvement pour se joindre à quelqu’un

kilan es emphatique pour *-kin* ou *-kila*.

Beaucoup de Basques ne respectent pas ces nuances (60).

Guk ere ez dugu halako erranahi desberdintasunik atzeman: badira, adinekoen artean beti *-kin* erabiltzen dutenak eta baita beti *-kilan* erabiltzen duen bakar zenbait ere.

Nahiz eta aldaera horiek guztiak deskribatu, *-kin* da Lafittek lan osoan zehar erabiltzen duen bakarra. Gaur egun, Iparraldeko euskal munduan ere, *-kin* da ia beti erabiltzen dena.

Caminoren (2016: 292) hitzetan, “hitzak lotzeko eginkizunean *-kila* atzizkiak jokaera sintaktikoa du, izen sintagma konplexuak era ditzake”, ondoko adibide honetan kasu: *kaalekilako afera untan* ‘kabaleekiko afera honetan’ (Hergaraiko adineko emazteak). *-kin* aldaera erabiliz, bere baliokidea *kaalekiko* litzateke. Kasu honetan, *-kin* baino ohikoagoa da *-kilan* aldaera. Lafittek (1944: 62) *hirirekiko* forma ezohikoa dela dio, eta *hirirekilako* usaiakoa.

Aztergai izan genuen Irulegiko Irratiko esatariak ia beti erabili zuen *-kin*, eta beraz, estiloaren arabera, aldea ez zen estatistikoki esanguratsua izan. Lekukoek ere ez digute iritzirik eman hizkuntza-aldagai honi buruz.

Hona hemen, hiztun berak eman bi aldaeren adibide zenbait: *borturat ardiekilan* vs. *borturat ardiekin*, *amekila* vs. *amekin* (Ezterenzubiko adineko gizonak), *mutiko atekila* vs. *mutiko atekin* (Arnegi-Lasako gizon helduak).

2.10.22. Aditz laguntzaile ditransitiboetako erroa

Garaziko oinarri dialektalean, **eradun* erroaren gainean eraikiriko aditz laguntzaile ditransitiboak erabiltzen dira.

Iparralde ia osoan ditugu **eradun* erroaren aditz laguntzaile ditransitiboak. Baita mugako Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan (Camino, 1997: 245), Erroibarren (Ibarra, 2000: 172), Artzibarren (Artola, 1992: 117),²⁵ eta Baztanen (Zelaieta, 2008: 196) ere.²⁶ Hazparne, Makea, Lekorke eta Luhusotik hego-mendebaldera, **i* agertzen hasten da datiboa 3. pertsona singularra delarik (Epelde, 2004: 311) eta Lapurdiko hego-mendebaldean, gainerako pertsonetan, datiboaren lekualdaketa gertatzen da.

²⁵ Erroibarren eta Artzibarren, datiboa 3. pertsonakoa denean baino ez da/zen erabiltzen **eradun*.

²⁶ Baztanen datiboa 3. pertsonakoa denean, **i* dugu, eta beste kasu guztietan, **eradun*.

Garai batean, hegoaldean ere erabiltzen zen **eradun*. Hain zuzen ere, XVI eta XVII. mendean Nafarroa Garaian ohikoa zen **eradun* erroa, baina Mendiburu eta Joakin Lizarragak jada, **i* erabiltzen zuten (Kerejeta, 1991: 168). Gipuzkoan, objektua plurala denean, Salmo Misererean lekukotua dago, eta Lazarragagan **eradutsi* ere badago (Mounole & Lakarra: 431-432). Gaur egun, Burunda, Etxarri-Aranatz eta Ergoiena ibarretan gordetzen da (Zuazo, 1998: 202), baita Larraungo ipar-mendebaldean eta Araitz-Betelun ere, objektua plurala denean (Apalauza, 2012: 360).

Lafittek (1944: 245-246) **eradun*-en gainean eraikiriko formak deskribatzen ditu nafar-lapurtera literarioan, baina **i* erabiltzen du sistematikoki datiboa 3. pertsona delarik, nahiz eta *dako* eta *dakote/dee* formak ere badirela aipatzen duen. Gaur egunean, ohikoa da Iparraldeko Euskal Irratietan edota Kanalduden *dauzut*, *dauku* edo *daut* erabiltzen duenak *dako* ere baliatzea. Haatik, datiboa edozein pertsona izanik ere, **i*-dun formak biziki sartuak dira.

Datiboa lehen pertsona singularra (tratamendu neutroan) edo bigarren pertsona singular *zukakoa/xukakoa* delarik, **eradun* > *-au-* bilkuraren ordeztu, zenbait aldiz, *-ai-* dugu Luzaiden. Salaberrik (2000: 244) ere lekukotzen du aldaera hau *eman dait* (eman dit) adibidean. Guhaurk Aezkoako Abaurregainean ere entzun ahal izan dugu *daixut* (dizut) adizkia, baita Caminok (1997: 299) ere. Iparralderago, Arberoa, Hazparne eta Aturrialdean ere badira halakoak (Camino, 2004a: 462). Datuen azterketan *-ai-*dun forma hauei ere arreta eskainiko diegu.

Lan honetan ez dugu kontuan hartuko *diexut* (diet) *xukako* forma, ez baitago argi *deet* (**eradun*-en gainean eraikia) → *diexut* gertatu den, alokutiboan txertatzen den *-i-* ren bidez, edota *diet* (**i*-ren gainean eraikia) → *diexut*.

Aldakortasun diafasikoari dagokionez, estiloaren arabera, **eradun* eta **i* erroen arteko aldea ez zen estatistikoki esanguratsu izan (Artzelus, 2020a). Garaziko lekuko batek baino gehiagok, bertako “euskalkiaren” markatzailatzat ditu **eradun*-en gainean eraikiak dauden adizkiak. Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazte gazteak, adibidez, erraten zigun berak Hegoaldeko lagunekin bere euskalkiko aditzak erabiltzen zituela. Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak, berriz, nongo euskara iruditzen zaion berearengandik desberdina galdetzean, kostaldekoa ihardetsi zuten. Lekuko honen ustez, berak *daut* eta *zaut* erraten du, eta kostaldean, berriz, *dit* eta *zait*. Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak euskara Garazin

adinekoengandik gazteengana aldatzen ari den galdetzean, baietz erantzun zuen, baina hala ere, bertako gazteak ez zirela erabat Batuan ari ere zehaztu zuen, bertako aditzak erabiltzen baitituzte.

Bi aldaeren adibide zenbait ekarriko dugu segidan: *bakixu eta ze erran tzakon?* ‘badakizu zer erran zion?’ (Arnegi-Lasako adineko emazteak), *ezpaxinen arraňatzen etxinakon saltzen* ‘ez bazinen ados jartzen ez zenion saltzen’ (Luzaideko gizon helduak), *ene amak erran data* ‘ene amak erran dit’, *erakasleek erran ziguten* (Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak), *joanen naiiz artzen badidate Biarritzeat* (Luzaideko ikastolako emazte gazteak).

2.10.23. *Edin eta *ezan/*iron baldintzan

Garazin, baldintza hipotetikoko (alegiako baldintzako) protasian, **edin* eta **ezan* erroen gainean eraturiko formak gordetzen dira; errate batera, *joan banindai* ‘joanen banintz’ eta *ikus baneza* ‘ikusiko banu’. Era honetako baldintzako protasia *irrealis* baldintzaren era zaharra deitzen du Caminok (2016: 399).

Baldintzaren apodosian, berriz, *izan* eta *edun* erroen gainean eraikiriko formen ordeztuak (*joanen nintzateke*, *ikusiko nuke*), **edin* eta **ezan*/**iron* erroen gainean eraikirikoak ditugu (*joan nindaike*, *ikus nezake/ikus niro(ke)*). Ahalera hipotetikoko formen analogiaz sortuak izan daitezke azken forma hauek, nahiz eta gaiak ikerketa serioagoa mereziko lukeen.

Lafittek (1944) forma hauen inguruko zehaztapen interesgarriak egiten ditu:

Conditionnel présent. - Le conditionnel présent est symétrique de l'imparfait modal à sens présent: *hausten luke, il le casserait* (mais il ne le casse pas); *jiten nintzateke, je viendrais* (mas je ne viens pas).

Il faut cependant reconnaître qu'il disparaît de plus en plus: il n'existe que dans quelques localités et on lui substitue l'infinitif radical accompagné du conditionnel de *dadi* ou *deza*.

Ex.: *hauts lezake, il le casserait; jin nintke, je viendrais*.

Il est trop tard pour remonter le courant, et il faut accepter le système: “*jakiten banu, egin lezake; jiten balitz, joan nintke*”, *si je l'apprenais je le ferais; s'il venait, je m'en irais* (380).

Baldintzako protasian, **edin* eta **ezan* erroak erabiltzea arkaismoa genuke, eta apodosian, berriz, berrikuntza. Talde sozialik berritzaileenak, baldintzako *izan* eta *edun*-en alde egiten ari direla uste dugu. Horren arrazoiak Euskara Batuaren eragina;

euskara “zuzena” mintzatzeko xedez, ahalerako eta baldintzako paradigmak bereizteko nahia (Euskara Batuan, **edin* eta **ezan* ahalerarekin lotzen baitira); eta paradigma gramatikalak sinplifikatzea lirateke. Hain zuzen ere, *banu*, *banintz*, *nuke*, bezalako formak *baneza*, *banindai*, *nezake* baino errazagoak dira ikasteko, iraganaldi arruntekoen iduriak baitira. Hori dela eta, talde sozial horiek sozialki berritzaile direla erranen dugu.

Forma horiez gain, iraganaldi arrunteko formak ere entzun daitezke gazteenen artean, sinplifikazio gramatikalaren eraginez, gero eta gehiago erabiltzen baitira. Hala nola, *banien/banin/banuen* (banu), *banintzan* (banintz), *nintzan* (nintzateke), *nien/nin/nuen* (nuke).

Hizkuntza-aldagai honen hedadurari buruzko xehetasun zenbait ematen dizkigu Caminok (1997: 456-457). Berak dioenez, Luzaide, Garazi, Erronkari eta Zaraitzuko literaturan eta hego-nafarreraren lekuko bikaina den Joakin Lizarragagan atzeman daitezke **edin* eta **ezan*-en adibideak. Caminok Aezkoan ere bildu zituen. Ibarrek (2000: 162, 199) *baledi* eta *baleza* erako protasiko formak jaso ahal izan zituen Zilbetin, Usetxin eta Lintzoainen, eta apodosian *ekarriko nezake* ere atzeman zuen Mezkititzen. Perpetua Saragueta idazle mezkiriztarrak (2011) ere ugari darabiltza. Iparralde osoan, oro har, ohikoak dira (Camino, 2016: 401; Lafitte, 1944: 380-381). Epeldek (2004: 115) Larresoro eta Hazparne aldean ere bildu zituen. EHHAk *baladi/baledi* dakar Zuberoa eta Nafarroa Behere osoan, baita Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar eta Esteribarren ere, eta Lapurdin *balitz*-ekin batera. Eremu berean dugu *baleza*, baina Lapurdin hedatuago.

Alde batetik, **edin* eta **ezan*/**iron*-en gainean eraikiriko formak (*banindai*, *baneza*, *nezake*, *niro(ke)*) bereiziko ditugu; bestetik, baldintzako *izan* eta *edun*-en gainean eraikirikoak (*banintz*, *banu*, *-ko/en nuke*); eta azkenik, iraganaldi arrunteko formak (*banintzan*, *banien/banin/banuen*, *-ko/en nien/nin/nuen*).

Nahi eta *behar* aditzekin eta *bezala* adberbioaren aitzinean, ez dugu **ezan*/**iron* errorik. Ber gauza gertatzen da *edun* aditz laguntzailea ez delarik (mendebaldean *eduki*-ren gainean eraikiriko forma trinkoak esperoko genituzkeen kasuetan), *hogoi urte banitu* erraten baita, eta ez **hogoi urte banitza*. Kasu hauek ez ditugu datuen azterketan kontuan hartu.

Bestalde, erran beharra da baldintzako apodosian, Lapurdin eta Nafarroa Beherean, *izan*-dun formak erabat galdurik daudela; hots, ez dugula *joain/joanen*

nintzateke bezalakorik, baizik eta *joan nindaike* edo *joain/joanen nindaike*.²⁷ Kasu honetan, aditz nagusian, *-ko/en* markarik ez dutenak **edin* eta **ezan/*iron* aldaeraren barnean sailkatuko ditugu, eta *-ko/en* marka dutenak, berriz, baldintzako *izan* eta *edun* aldaeraren barnean, hauen jokabide morfologiko bertsua baitute.

Azkenik, aditz laguntzaile ditransitiboan kasuan, biziki ezohikoak dira bai **ezan/*iron*-dun formak eta baita baldintzako *edun*-dunak ere. Horien ordean, iraganaldi arruntekoak erabiltzen dira. Datuen azterketan ez ditugu kontuan hartu.

Badira zenbait adibide hibrido, Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako emazte gaztearen hau, errate batera: *emango nezake alere euskarari inportantzi geiago* ‘euskarari, hala ere, inportantzia handiagoa emanen nioke’. Horrelakoak baldintzako *izan* eta *edun* aldaeraren eta **edin* eta **ezan/*iron* aldaeraren adibide bana balira bezala kuantifikatu ditugu.

Hizkuntza-aldagai honen biziki adibide gutxi eman ditu lekuko bakoitzak, eta Luzaideko emazte helduak eta herri bereko publikoko emazte gazteak batere ez. Hori dela eta, kasu jakin hauetan, itzulpen bidezko inkesta bidez lortu behar izan ditugu adibideak.

Garaziko euskararen azterketa diafasikoan ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu (Artzelus, 2020a). Hiztunengandik ere ez dugu iritzirik bildu ahal izan.

Hona hemen aldaera bakoitzaren adibide batzuk: *ta sekula jin balai su bat oai, jiten al baita, partitzen al baita, erri guzia erre laikexu* ‘eta sekula sua etorriko balitz orain, etortzen ahal baita, abiatzen ahal baita, herri guztia erreko litzateke’ (Luzaideko gizon helduak), *ez takixut salda re osoik in lezaketen* ‘ez dakit salda ere osorik egingen luketen’ (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *ikusten dut norbait eta errango nuke: nik onengatik ez nintzateke bueltatuko unat* (Luzaideko ikastolako emazte gazteak), *joanen nintzan gustian e, egun batez* (Luzaideko ikastolako gizon gazteak).

2.10.24. an(aditzoina)+ten→aiten

[an]-ez bukatzen den aditzoinari *-ten* [-burutu, -geroaldi] aspektu marka gehitzean, *aiten* da emaitza Garazin. Trasken (1990) hipotesiaren arabera, euskarazko burutuaren

²⁷ Luzaideko gazteen artean, ezagunagoak dira baldintzako *izan*-en gainean eraikiriko *nintzateke*, *ginateke* bezalakoak.

marka zaharra *n-i* zitekeen (**emani*, **egoni*, **igani*). Hipotesi horren arabera, *n-i* marka horri *-ten* gehitzean, [n] erori eta gero, [i] gordeko zen, *-aiten* emanaz. Urgellen (2018: 800-801) arabera, burutuaren marka+*te* da aditz izena sortzeko arau zaharrena, eta gaur egungo *eman* **emani*-tik heldu da [i]-ren galera erregularragatik. Ondoren, [i] hori erori egin da bi silabatik goitiko elkartu eratorrietan (hala nola, **etorriten* → *etorten*).

Zuazok (1998: 199) dioenez, Ipar Euskal Herri gehienez erabiltzen da *-aiten*, Lapurdiko Hego Mendebaldean salbu. Larresoro eta Uztaritzen hasten zaigu *-aten* agertzen, beti ere, *-aiten*-ekin batera (Epelde, 2004: 119). Behin Zugarramurdi eta Urdazubira ezkerreko, *-aten* baino ez dugu (Montoya, 2003: 168). Mugatik hegoaldera, Erronkari ibarrean bazen, eta Basaburua Txikian, Leitzan eta Orozkon ere badira halakoak.

Nafar-lapurtera literarioari buruz, honela dio Lafittek (1944: 204): “les classiques ne connaissaient guère que l’infinif nominal en *-te*; actuellement les formes en *-ite* sont devenues courantes”. Lapurterak, besteak beste, elizaren bidez izan duen prestigioa dela eta, biziki erabilia izan da *-aten*. Lafittek bere gramatikan, biak erabiltzen ditu adibideak ematerako tenorean, baina gaur egun, *-aiten* usaiakoa bihurtu da, besteak beste, Iparraldeko Euskal Irratietan, Kanalduden edota Herria astekarian.

Garaziko euskararen azterketa diafasikoan, hizkuntza-aldagai honen aldakortasuna ez zen estiloaren arabera esanguratsua izan, Irulegiko Irratiko esatariak ia beti *-aiten* erabili baitzuen, bai aurrez aurreko mintzoan eta bai irratikoan.

Erran beharra da, fenomeno hau ez dela aditz guztietan gertatzen. Adibidez, ez da **jaiten* edota **edaiten* erraten. Hori dela eta, ez dira aditz hauek kontuan hartu. *O-z* amaitzen den *jo* ere ez dugu aintzat hartu, nahiz eta *joiten* erraten den.

Hona hemen, *-aiten* eta *-aten* aldaeren adibide zenbait: *Donianeko mezaa ni joaiten bainiz* (Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak), *joaitia aat erditzen ai zuelaik* ‘hara joatea erditzen ari zirelarik’ (Gamarte-Ainhizako gizon helduak), *Garralda joaitea gogorra* (Luzaideko ikastolako emazte gazteak), *bidian emaiten daixu errespetia* ‘bidean errespetua ematen dizu’ (Luzaideko publikoko emazte gazteak), *orke erria izateko da anitz* (Luzaideko ikastolako emazte gazteak), *izaten dira bemeubiak arrun pollitak diela* ‘BMW-ak (autoak) izaten dira, arront politikak direnak’ (Luzaideko publikoko emazte gazteak).

2.10.25. *-a(u)-* vs. *-ai-* datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan

Garazin, datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, *nor-nori* deitzen direnetan, *-au-* edota *-a-* bokalak ditugu Euskara Batuko *-ai-* ordez; hots, *zat*, *zauzu*, *zako*, *zau* ditugu *zait*, *zaizu*, *zaio*, *zaigu* ordez. Datiboa 3. pertsona plurala delarik, *zee* dugu.

Caminorekin (2016: 430-431) ados gara, *-a(u)-*ren gainean eraikiak dauden adizkiak aditz laguntzaile ditransitiboen analogiaz sorturik daudelako ustearekin; hau da, *dauzu* eta *dau-*ren eraginez, *zaizu* → *zauzu*, *zaigu* → *zau* gertatzen dira. Ikerlari honek dioenez, Etxepare garzarrak (1545) *zait* baina *zauzu* zuen, baina XVIII. mendetik goitiko idatzietan jadanik bada *zaut*.

Caminoren hitzei jarraikiz, Zuberoan ezezaguna da berrikuntza hau, baita Lapurdiko mendebaldean ere. Hori dela eta, Bonapartek mendebaldeko behe-nafarreraren ezaugarritzat hartu zuen, eta Zuazok (2014: 136) nafar-lapurteraren sortaldeko azpieuskalkiaren bereizgarritzat. EHHAn ere Zuberoako Domintxinen, Nafarroa Behere osoan, Luzaiden eta Lapurdin, Makea, Uztaritze, Arrangoitze eta handik ekialdera ageri da *-a(u)-*. Epederen (2004: 127) arabera, bi aldaeren arteko lehia dago Larresoro aldean.

Lafittek (1944: 262-263) *-ai-*dun formak baino ez ditu erabiltzen, nahiz eta datiboa 3. pertsona singularra denean, *zako* ere badela aipatzen duen. Gaur egunean ere, *-ai-*dun formak ohikoak dira Euskal Irratietan, Herria astekarian edota Kanalduden. Hala ere, ez da harritzekoa *-a(u)-*dun aldaerak atzematea. Azterketa diafasikoan, gure lekukoa izan zen Irulegiko Irratiko esatariak, adibidez, beti *-a(u)-*dun formak erabili zituen, bai aurrez aurreko estilo informalean eta bai irratiko estilo formalean.

Lekukoen jarrerei dagokienez, 1.11.22. §-ean erran dugunak kasu honetarako ere balio du. Erran nahi baita, lekukoek Garazi eta inguruko “euskalkiaren” markatzailetzat dituzte aditzak. Ez dute bereizketarik egiten, gure ustetan, bederen, ditransitiboen edota datibodun iragangaitzen artean.

Erran dugun bezala, aditz ditransitiboetako erroa **eradun* delarik, datiboa lehen pertsona singularra (tratamendu neutroan) edo bigarren pertsona singular *zukakoa/xukakoa* den kasuetan, zenbait aldiz, *-ai-* eran agertzen da erroa Luzaiden eta bere auzoa izandako Ondarrolan. Datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan ere, datiboan pertsona hauek ditugularik *-ai-* erabiltzeko joera dute luzaidar eta ondarrolar

lekuko zenbaitek, nahiz eta beste pertsona guztietan *-a(u)-* baino ez izan. Hori dela eta, datiboaren pertsona ausazko efektutzat hartu dugu Luzaiden, alde batetik lehen pertsona singularra eta bigarren pertsona singular *zuka/xukakoa*, eta bestetik, beste guztiak bereiziz.

Hona hemen *-a(u)-* eta *-ai-* aldaeren adibide zenbait: *etzaat iduri* (Hergaraiko adineko gizonak), *inportanto zauku guk indar pixkat emanikan e zonbait urtez* ‘inportanteagoa zaigu guk indar pixka bat emanik ere zenbait urtez’, *etzait iduitzen* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gazteak), *sartzen bazaizkit berriz gogoak pues inen dut filologia frantsesa* (Luzaideko ikastolako emazte gazteak), *eni berdin tzait* (Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak).

2.10.26. Tratamenduak

Euskalki guztietan ezagutzen dira *toka* eta *nokako* tratamenduak. Horiez gain, Garazin, bada *xukakoa* ere, eta *zukakoaren* arrasto zenbait ere atzeman ahal izan dugu. *Zuka* aipatzen dugunean, ez gara ari tratamendu neutro edo eztabadakoaz, *zuka* alokutiboaz baizik; hau da, *nintzun* (nintzen), *nizin* (nuen) eta *niakozun* (nion) bezalakoez.

Euskal Herriko hizkera gehienetan, ber testuinguruetan erabiltzen dira *toka* eta *noka*, hurbiltasunezko harremana dutenen artean, hain zuzen ere. *Toka* ohikoa da adin beretsua duten gizonen artean, eta hala zuzentzen zaizkie zaharragoak gizon gazteagoei ere, adibidez, gurasoak semei. Ohikoa da adin batetik goitiko arrebak anaiei *toka* aritzea ere. *Noka* gutxi entzun dugu Garazin, gehienik adin bateko amak entzun ditugu beraien alabei horrela mintzatzen. *Xukak* hurbiltasuna eta goxotasuna markatzen ditu. Gizonak emazteei zuzentzean edota emazteak elkarren artean, *xuka* ari dira usu. Adinekoei ere *xuka* mintzatzen zaie, gizonei nahiz emazteei, baita haur txikiei ere. Ezkondurik dauden bikoteak ere *xuka* ari dira elkarren artean usu. Aski ezohikoa da adin bereko gizonak elkarrekin *xuka* entzutea, baina badira kasu zenbait. *Zuka* alokutiboa Gamarte-Ainhizako adineko gizonari baino ez diogu entzun, eta berak ere ez du aditz guztietan erregulariki erabiltzen. Ibar auzoa den Oztibarren, ezezagunei mintzatzen zaie *zuka* alokutiboan eta tratamendu neutroa erabiltzen da pertsona bat baino gehiagori batera zuzentzeko. Garazin, berriz, ezezagunei zuzentzeko tratamendu neutroa edo eztabadakoa erabiltzen da.

Gaur egun, atzerabidean doa alokutiboa, batez ere ikastolan ez baita erakusten. Desberdina da Oztibarreko egoera. Hango gazteek *xuka*, *toka* eta *noka* mintzatzen dakite, eta hala ari dira beraien artean ere, bertako ikastolan ikasten eta lantzen baitute. Arberoako ikastolan ere, *toka* eta *noka* ari dira hurrekin.

Gu *xuka* mintzatu gara gu baino zaharragoekin, gizon ala emazteekin. *Toka* mintzatu gara, berriz, gure adineko mutilekin. Gizon helduak tratamendu neutroan edo eztabadakoan zuzendu zaizkigularik, gehienetan gu ere *xukatik* eztabadakora lerratu gara haiekin. Halaber, gizon heldu batzuek nahiago izan dute *toka* mintzatu, eta beraz, gu ere *toka* hasi gara haiekin.

Xukak eta *zuka* alokutiboak berebiziko garrantzia izan dute sailkapen dialektologikoa egiterako tenorean. Hori izan zen Bonaparte printzearen arrazoietarik bat mendebaldeko behe-nafarreraren eta ekialdeko behe-nafarreraren arteko bereizketa egiteko. *Zuka* alokutibotik heldu da *xuka*, palatalizazio adierazgarriaren bidez, [ʃ] → [j] gertatzen baita. Gaur egun, *zuka* alokutiboa galtzear den ibar zenbaitetan, *xuka* baino ez dugu, Garazin berean, errate batera.

Xuka Zaraitzun (hango euskara itzali arte), Aezkoan *xuka* ez alokutiboa, Garazin (Irulegi eta Luzaide barne), Oztibarren, Irisarrin (baina ez Orzaizen), Iholdin, Heletan, Arberoan, Hazparnen, Beskoitzen eta Mugerren badela zuzenean entzun edo kanpotik jakin ahal izan dugu. *Zuka* alokutiboa, berriz, garai batean hedadura zabalagoa izan bazuen ere, Zuberoan, Erronkarin (hango euskara itzali arte) Amikuzen eta Oztibarren dugu.

Ez du zentzurik tratamendu jakin batean entzuten dugun aditz bakoitza kuantifikatzeak, usaian, tratamenduaren arabera, aditz guztiak sistematikoki aldatzen baitira. Hori dela eta, tratamendu jakin bat entzun dugun aldi bakoitza zenbatu dugu. Lekuko baten ahotik entzun ahal izan ditugun tratamendu guztiak izan dira kontatu ditugunak; hots, lekuko bat gurekin *xuka* aritu bada, baina *noka* alabarekin eta *toka* semearekin, behin kontatu dugu horietako bakoitza. Beste norbaitekin izandako elkarrizketa gurera ekartzean, tratamendu jakin bat erabili badute, hori ere zenbatu dugu. Gertatu izan zaigu lekukoek etxean edo lagunen batekin *xuka* ari direla erratea, baina kasu horiek ez ditugu aintzat hartu, ezin izan baititugu egiaztatu. Lekuko gazte anitzek *xuka* mintzo direla diote, baina usu, *xuka* ez alokutiboan ari dira praktikan. Zenbatzen duguna, tratamendu bat entzuten dugun aldi bakoitza denez, adibide gutxi

dugu talde sozial bakoitzeko, eta hori dela eta, ez dugu analisi estatistikorik egin. Kontziente gara lekuko bakoitzak tratamendu bat edo bestea erabiltzeko usaia desberdina duela, eta denek ez dutela gurekin harreman bera. Halaber, lekuko guztiek ez dute gure aitzinean beste norbaitekin elkarrizketarik izan edo ez dute beste norbaitekin izandako elkarrizketarik gurerara ekarri. Hala ere, emaitzek gertatzen ari den bilakaeraren ikuspegi orokorra ematen digutela uste dugu.

Azterketa diafasikoan, ez genuen tratamendurik aintzat hartu (Artzelus, 2020a). Zernahi gisaz, Irulegiko Irratiko esataria *xuka* mintzatu zen gurekin aurrez aurreko elkarrizketan. Irratian, berriz, tratamendu neutroa erabiltzen du ardurenean. Inoiz, elkarrizketaren batean edo bestean, *xuka*, *toka* edo *noka* mintzo da. Erran zigunez, *xuka* erabiltzeagatik ohar txar batzuk jaso izan ditu entzule zenbaitengandik, bereziki Baigorri aldetik. Oro har, literaturan, komunikabideetan edo eskolan (Oztibarren eta Arberoan salbu) ez da ohikoa *xuka*, *zuka*, *toka* eta *noka* entzutea.

Zalantza izpirik gabe, Garaziko euskararen ezaugarri markatzaile eta eskusibo nagusia da *xuka* lekukoendako. Zenbaitendako, gainera, “euskalkian” hitz egitearen sinonimoa da *xuka* aritzea. 5.2.2. §-ean ikusiko dugu ondoko hizkeretik alde aipatzean, *xukako* tratamenduak lekukoendako duen garrantzi handia.

Hona hemen *xukako* eta *nokako* tratamenduen adibide bana Arnegi-Lasako adineko emazteak emana: *petatxatu nixie edo ez takixut ze, bana beti emen* “‘petatxatu’ naute, edo ez dakit zer, baina beti hemen’, *arroltze dozena at bainat* ‘arrautza dozena bat badinat’. *Tokakoaren* adibidea dugu Ezterenzubiko gizon helduaren hauxe: *emen kartierreko eskolan bagintian... ni abiatu nuk lau urtetan* ‘hemen auzoko eskolan gintuan... ni lau urtetan hasi nauk’. Azkenik, *zuka* alokutiboari dagokiona dugu Gamarte-Ainhizako adineko gizonaren hauxe: *ba, aniz bazuzun denbora artan* ‘bai, anitz zen garai hartan’.

2.10.27. Aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile irangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea izatea

**eradun* erroaren gainean eraikiak dauden aditz laguntzaile ditransitiboetan eta datibodun aditz laguntzaile irangaitzetan, datiboa lehen pertsonakoa delarik (singular edo plurala), horri dagokion morfemako lehen kontsonantea ahostuna da Garazin, baldin eta gibeletik bokal bat heldu bada. Ondoren, hots hori ezabatu egiten da bokal artean:

zaan < *zadan* (zidan), *dau* < *dagu* (digu), *zitzaan* < *zitzadan* (zitzaidan), *zitzaun* < *zitzagun* (zitzaigun).

Gaur egunean, Garazi iparraldeko ibar anitzetan, ahoskabea dugu; hots, *za(u)tan*, *dauku*, *zitza(u)tan*, *zitzaukun* erako aditzak ditugu. Garazin, arkaismo baten aitzinean geundela uste genuen, baina Etxeparek (1545) ahostunak nahiz ahoskabeak darabiltza: *baitzaigu*, *zaidanian*, *derautazu*, *zauku*. Beraz, ez dago hain argi hala den.

Garazi, Oztibarre, Baigorri eta Aezkoan ditugu ahostunak, eta Zaraitzun ere baziren adibideak datiboa 1. pertsona singularra delarik. Landibarreko Jandonamartiritik goiti hasten dira ahoskabeak agertzen (Irizar, 1999a-1: 411), Amikuzen ere ahoskabeak ditugu (Irizar, 1999a-2: 14-18), eta baita Irisarrin (Irizar, 1999a-3: 14, 16, 19), Iholdin (Irizar, 1999a-3: 59, 61, 64) eta Orzaizen (Irizar, 1999b: 136, 138, 141) ere. EHHAk *daazu* (didazu) dakar Uharte-Garazin, Gamarten, Larzabalen, Behorlegin, Ezterenzubin, Arnegin eta Alduden. Haatik, *dautazu* dugu Baigorri eta Luzaiden. *Haan* (hidaan) dakar Jutsi, Larzabale, Behorlegi, Ezterenzubi, Arnegi, Luzaide eta Alduden. EHHAk datuetan, ahoskabea erabiltzen duten Garaziko herrien kasuan, gaude hiztunak ez ote zirenez saiatu prestigioko ereduari jarraitzen.

Eredu idatzi nafar-lapurtarrari dagokionez, Lafittek (1944: 287) ahoskabeak baino ez dakartza. Gaur egun ere, neke da Euskal Irratietan, Kanalduden edota Herria astekarian ahostunak entzutea. Hori dela eta, *zaan*, *dau*, *zitzaan* eta *zitzaun* bezalakoak atzerabidean daudela uste dugu.

Aditz laguntzaile ditransitiboetan **eradun* erroaren gainean eraikitako adizkiak eta datibodun iragangaitzetan, *-a(u)*-ren gainean eraikiak baino ez ditugu kontuan hartu, **i* eta *-ai*-rekin beti ahostunak baititugu Euskara Batuan; hots, ez dugu *zaitan* edo *zaukun* bezalakorik bildu. Luzaideko emazte gazteak beti **i* eta *-ai*- aldaerak erabiltzen ditu. Hori dela eta, ez dugu berarengandik hizkuntza-aldagai honi dagokion adibiderik jaso.

Tratamendu guztietan eman adibideak hartu ditugu kontuan. *Xukakoan* ez dugu Irisarritik iparraldera ohikoak diren *dataxu*, *zataxu*, *daukuxu* bezalako ahoskaberik atzeman. *Tokakoan*, ordea, *zatak*, *zaukuk*, *zaukuian* bezalakoak entzun ahal izan ditugu.

Hiztun batzuegandik adibide gutxi bildu dugu, eta Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztearengandik batere ez. Hori dela eta, itzulpen bidezko hiru galdera egin behar izan dizkiogu adibideak lortzeko.

Irulegiko Irratiko esatariak forma ahoskabeak erabili zituen eztabadako tratamenduan edo neutroan. *Xukakoan*, berriz, ahostunak gramatikalizaturik ditu. Estiloaren arabera, aldea adierazgarria izan zen, baina estilo bakoitzean erabili zuen tratamenduari dagokio, aurrez aurre *xuka* mintzatu baitzen, eta irratian, eztabadaka. Ez dugu lekukoengandik hizkuntza-aldagai honi buruzko iritzirik bildu.

Hona hemen aldaera ahostunen eta ahoskabeen adibide zenbait: *aitatxik eskuaraz leitzen erakutsi ziauxun* ‘aitatxik euskaraz irakurtzen erakutsi zigun’ (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *hola ta ola gertatu zia* ‘horrela eta horrela gertatu zaidak’ (Irulegi-Anhauzeko adineko emazteak), *ta eakusten tzaaten* ‘eta erakusten zidaten’ (Hergaraiko adineko gizonak), *or justuki ikasle batek idatzi zaukun* ‘lehengoan, hain justu, ikasle batek idatzi zigun’ (Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak), *aitamek erran zautaten* ‘aita-amek erran zidaten’ (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak), *erraiten daukute: bai ziek euskaldunak...* ‘erraten digute: bai zuek euskaldunak...’ (Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako emazte gazteak).

2.10.28. TOGen fenomeno

Menpeko perpaus jokatu gabeetan, menpeko aditzak *-t(z)e-* marka duenean, objektu zuzenak absolutiboa beharrean, genitiboa hartzen du Garaziko oinarri dialektalean, adibidez, *Pello ogiaren egiten ari da* (Peio ogia egiten ari da).

EHHAn *ogiaren eroatera* ageri zaigu Zuberoan eta Nafarroa Behere ia osoan, Lapurdiko sortaldean, Abaurregainean, eta Luzaiden *ogia eroatera* formarekin batera. Zuazok (1997: 116) fenomeno hau Baztan-Esteribar lerrotik ekialdera eta Iparralde osoan gertatzen dela dio. Hala ere, hedadura-eremuaren mendebaldean ez du indar handirik (Montoya, 2003: 116; Ibarra, 2000: 208-210; Ibarra, 1994: 518-519; Zelaieta, 2008: 183). Zuberoan fenomeno honen intentsitatea handiago da, *-t(z)e-* markatik landa ere, aditzoinarekin edota burutuaren markarekin gertatzen ahal baita (Heath, 1972: 64). Horrez gain, zubereraz, *-t(z)e-* markaren ondotik, inesiboa eta soziatiboa ditugularik ere gertatzen da (*-tzean*, *-tzearekin*), ez ordea, Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Epelderren (2004: 201-202) arabera, Larresoro aldean, murriztapen hauek betetzen dira, baita

Zugarramurdi eta Urdazubin ere (Montoya, 2003: 117). Garazin, ordea, ez dago hain argi. Errate batera, adibide hau eman digu Ezterenzubiko adineko gizonak: *ardien trukatzian* (ardiak trukatzean). Epeldek gaineratzen duenez, fenomeno hau Larresoron ez da erabat sistematikoa, gertatzen ahal den kasu guztietan ez baita gertatzen, ezta Garazin ere.

Iraganean, Euskal Herri osoan zehar zabaldurik zegoela dirudi. Hain zuzen ere, Lakarrak (1986: 659-660) bizkaiera eta gipuzkera zaharreko TOGen fenomenoaren adibideak dakartza. Hori dela eta, “badirudi mementuren batean erregela orokor eta optatiboa zen honek bi aterabide izan dituela: 1) hedatu eta mantendu zenbait euskalkitan (ekialdekoetan) eta 2) ezabatu gainerakoetan, hots, B. eta G.n”.

Nafar-lapurtera literarioari dagokionez, Aita Lafittek (1944: 221) “infinitez nominala” (-t(z)e- markadun menpeko aditz jokatu-gabea) aldi berean, izena eta aditza dela dio, eta hori dela kausa, autore batuzek izentzat hartzen dutela, eta beraz, osagarri zuzena genitiboan ezartzen dutela kasu guztietan. Beste batzuk, berriz, aditzat hartzen dutela uste du, eta beraz, ez dutela inoiz osagarri zuzena genitiboan ezartzen. Zernahi gisaz, gramatika osoan zehar, genitibodun eta gabeko formen adibideak ematen ditu Lafittek.

Objektu zuzena menpeko aditzaren aitzinean edo ondoren dagoelarik, bi kasuetan joan daiteke genitiboan. Hala ere, iruditzen zaigu aditzaren aitzinean badago, maiztasun handiagoan hartzen duela genitiboaren marka. Hori dela eta, objektu zuzenaren aditzarekiko kokapena ausazko efektutzat hartu dugu. Zernahi gisaz, baldintza linguistiko honi dagozkion kopuruak eta ehunekoak emanen ditugu.

Zenbait aldiz, osagarri zuzena mugagabearen egon ohi da, errate batera, *ogi epaiten* (garia mozten) edota *gasna iten* (gazta egiten), *sasoin iten* (sasoikako lanak egiten) adibideetan. Kasu horiek ez ditugu aintzat hartu, ez baitute genitiboaren markarik hartzen.

Hona hemen, TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen adibide batzuk: *hanbeste indar iten haren konprenditzeko* ‘hainbeste indar egiten hura ulertzeko’, *ai niz erten gauzak* ‘gauzak erraten ari naiz’ (Luzaideko adineko gizonak), *laborantxain kurriazten* ‘laborantza aitzina eramaten’, *hur ua bera ez galtzeko* ‘ur hura bera ez galtzeko’ (Gamarte-Ainhizako adineko emazteak), *joan bear bainin zangoen*

arreñatzeko ‘zangoak konpontzera joan behar bainintzen’, *iten etxe ttipi bat* ‘etxe txiki bat egiten’ (Irulegi-Anhauzeko adineko emazteak), *eskuaraz iteko Baxoain* ‘Baxoa euskaraz egiteko’, *erregretatu ixit española ez kotsia kastia* ‘gaztelania pixka bat ez ikastea damutu zait’ (Ezterenzubiko adineko gizonak).

2.10.29. Uste izan aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzailea

Uste izan aditz nagusia delarik, menpeko perpaus konpletiboko aditzak hartzen duen konplementatzailea *-(e)n* da Garaziko oinarri dialektalean, baldin eta *uste izan* horrek ziurgabetasuna adierazten badu. Iritzi ziuerra adierazten badu, berriz, *-(e)la* da menpeko aditzak hartzen duena. Lafittek (1944: 395) dioenez ere, zalantza adierazten duten iritzizko aditzekin *-(e)n* dugu nafar-lapurtera literarioan. Egoera bera atzeman zuen Montoyak (2003: 211) Zugarramurdi eta Urdazubin ere. Egokiena datuen azterketan, ziurgabetasuna adierazten duten perpausak eta iritzi ziuerra adierazten dutenak bereiztea litzateke, baina ez da aise xehetasun semantiko horiek testuinguruaren bidez atzematea; beraz, ez dugu bereizketarik egin. Zernahi gisaz, gure hipotesia betetzen bada; hots, *-(e)la* konplementatzailea ziurgabetasuna adierazten duten kasuetara ere hedatzen ari baldin bada, aldaketaren berri emanen digute datuek.

Zuazok, Euskal Herri ekialdeko ezaugarritzat du hau, Nafarroa Garaia eta Iparraldekotzat, beraz. Gainera, Irun eta Hondarribia ere, *-(e)n* konplementatzailea duten hizkeren barnean kokatzen ditu. Aldaera honen mugari dagokionez, Goizuetan, Beintza-Labaienen eta Saldiasen (Zelaieta, 2008: 91) *-(e)n* dugu, baita Imotz eta Basaburu Nagusian ere, baina ez Berueten eta Larraunen (Apalauza, 2012: 396-397). Sakana erdialdean, Erdoziak (2001: 374) ez du hizkuntza-aldagai honi buruzko zehaztasunik ematen, baina *uste izan* aditzarekin ekartzen dituen adibide guztietan *-(e)la/-(e)nik* konplementatzailea baino ez da ageri.

Atzeman eta *iduritu* aditzek ere, *uste izan*-ek bezala, ziurtasun falta adierazten dutelarik, zenbait aldiz, *-(e)n* konplementatzailea galdegiten dute menpeko aditzean. Hala ere, joera ez da hain sistematikoa; beraz, lanean *uste izan* aditza baino ez dugu kontuan hartu.

Bestalde, konplementatzailea ez da aldatzen baiezko eta ezezko perpausetan, beti dugu *-(e)n*. Beraz, gazte batzuek ezezkoetan erabiltzen duten *-(e)nik* konplementatzailea *-(e)la*-rekin batera ber aldaeran sailkatuko dugu.

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoan (Artzelus, 2020a), ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu. Lekukoengandik ere ez dugu iritzirik bildu ahal izan.

Hona, beraz, besterik gabe, adibide zenbait: *uste uzia hanbeste kanpo iaultzzen zutela beiekin eta mandoekin?* ‘uste duzu hainbeste sail iraultzen zituztela behiekin eta mandoekin?’, *a nik uste bear den bermatu ba oai* ‘nik uste dut orain bermatu beharra dagoela’ (Hergaraiko adineko gizonak), *gimnasio nik uste ez tuten* ‘ez dut uste gimnasia badutenik’, *ta uste ixit beti zeit olako pastuko dela* ‘eta uste dut beti horrelako zerbait gertatuko dela’ (Luzaideko emazte helduak), *ez tut uste Batua jakitea Luzaideko eskuara bano borta geio idekiko tin* ‘ez dut uste Batua jakiteak Luzaideko euskarak baino ate gehiago irekiko dituenik’ *ene ama uste ut Iruñan zela deia* ‘uste dut ene ama, jada, Iruñean zegoela’ (Luzaideko ikastolako gizon gazteak).

2.10.30. Atributuan artikulurik eza

Adjektibo sintagmaren funtzio gramatikala atributua denean, artikulurik ez izateko joera dago Garaziko oinarri dialektalean; errate batera, *etxea biziki eder duxu*. Hori ez da gertatzen adjektiboak izenarekin batean ber sintagma osatzen duelarik: **etxe biziki eder da*.

Garazitik iparraldera, Amikuzen badira halakoak (Camino, 2016: 274). Larresoron, aditz kopulatiboaren ondoan, adjektibo soila baino ez dagoenean ohikoa da; adibidez, *gaxto da, neke da, dorpe da, goxo da, eder da, on da* (Epelde, 2004: 206). Lafittek (1944: 123) nafar-lapurtera literarioan, atributuak artikulua duela dio. Artikulurik gabeko eta artikuludun formen arteko bereizketa Zuberoan egiten dela zehazten du. Berak dioenez, zubereraz, *karta hau on da* perpausak *cette carte est bonne* erran nahi luke, eta *karta hau ona da* perpausak, berriz, *cette carte est la bonne*. Lapurteraz, lehenbiziko perpausa *karta hau ona da* erranen litzateke, eta bigarrena, berriz, *karta hau da ona*. Hala ere, perpausak zentzu orokorra duenean, Lafittek deskribatzen duen nafar-lapurteran ez da artikulurik ageri; adibidez, *eskolatzea on da, harrigarri da zoin nekhez ikasten duten*. Era honetakoak dira Epeldek ematen dituen Larresoroko adibideak ere. Azkenik, lanbideekin ere ez zaigu artikulurik ageri; adibidez, *Baionan bikario da*. Garazin, Lafittek Zuberoarako ematen dituen adibideetan bezalatsu, artikulurik gabe atzeman ahal izan dugu atributua.

Lan honetan, *izan* aditzarekin doazen atributuak baino ez ditugu aztertu, ez *iduritu*, *bilakatu* edota *atxeman*, *harrapatu* (*iduritu*, *uste izan* adierarekin) aditzekin doazenak, *izan*-en agerpen maiztasuna besteena baino aise handiagoa baita eta aditz bakoitzarekin sistematikotasun desberdina baitu artikulua izateak edo ez izateak.

Lafittek dakarren *karta hau ona da* (*cette carte est la bonne*) adibidearen erako perpaus zehatzak ere ez ditugu kontuan hartuko beti artikuluekin agertzen baitira.

Azterketa diafasikoan (Artzelus, 2020a), ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu. Hiztunengandik ere ez dugu iritzirik jaso ahal izan.

Besterik gabe, bada, hona hemen hiztun berak emaniko artikuludun eta artikulurik gabeko adibide batzuk: *etxu urruneko ez* vs. *etxu urrunekoa ez* (Ezterenzubiko adineko gizonak), *pollit duxu* vs. *pollitak txu* (Luzaideko gizon helduak), *irringarri zen* vs. *irringarria zen*, *eder da* vs. *ederra da* (Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak), *zabalago zuxun* vs. *zabalagoa zuxun* (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gazteak), *ez da berdin* vs. *ez da bate berdina* (Luzaideko ikastolako gizon gazteak).

2.10.31. Zehar galdera

Bai/ez arrapostua duten zehar galderen marka *-(e)nez* da (inoiz baita *-(e)netz* ere) Garaziko oinarri dialektalean, *-(e)n* orokorrarekin batera.

Caminoren (2016: 477) arabera, *-(e)nez* ageri da Euskal Herriko ekialdean: Erronkarin, Zaraitzun, Zuberoan, Nafarroa Beherean (Baigorri aldean salbu) eta Lapurdiko ekialdean. Lapurdi erdialdean eta kostaldean ez dugu, ezta Aezkoan (eta handik mendebaldera) ere. Larresoron badela dio Epeldek (2004: 187), baina ez da erabat sistematikoa. EHHAn *-(e)nez* ageri da Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdiko ekialdean. Salbuespenak, ordea, bat baino gehiago dira. Nafarroa Beherean, errate batera, *-(e)n* ageri da Jutsi, Armendaritze, Bidarra, Arnegi eta Luzaiden.

Lafittek (1944: 447) nafar-lapurtera literarioaren gramatika bi formak, *-(e)n* eta *-(e)netz* erabiltzen direla aipatzen du, baina ez du bien arteko desberdintasun semantikorik edo diatopikorik aipatzen. Gaur egun ere, Euskal Irratietan, Kanalduden edota *Herria* astekarian, biak entzun daitezke.

Hiztun bakoitzak hizkuntza-aldagai honen aski adibide gutxi eman dizkigu, eta bakar bat ere ez dugu bildu ahal izan Irulegi-Anhauzeko adineko gizonaren mintzo espontaneotik. Hori dela eta, itzulpen zenbait egiteko galdegin behar izan diogu.

Garaziko euskararen azterketa diafasikoan (Artzelus, 2020a), ez genuen hizkuntza-aldagai hau kontuan hartu. Hiztunen artetik, berriz, ez dugu iritzirik bildu ahal izan.

Jarraian, bi aldaeren adibide batzuk emanen ditugu: *ortan tzen eztabaida, ean bear zenez kolegiotik asi aipatzen EHZ* ‘horretan zen eztabaida, ia kolegiotik behar zen hasi EHZ aipatzen’ (Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak), *baina orduan eztaikit bazenez euskara* (Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak), *eztaixit bizi bat denez bi oren pastia egun guziz otoan* ‘ez dakit bizi bat den bi ordu pasatzea egun guziz autoan’, *eztaixit gauzak anitz aldatuko tin* ‘ez dakit gauzak anitz aldatuko dituen’ (Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gazteak), *etziaixut untsa errana den* ‘ez dakit ongi errana den’ (Luzaideko adineko emazteak), *enuxu oit punitiak ginen* ‘ez naiz oroitzen zigortuak ginen’ (Arnegi-Lasako adineko gizonak).

3. Metodologia

Jarraian, datuak biltzeko, prozesatzeko eta aztertzeko erabili dugun metodologia azalduko dugu.

3.1. Datuak bildu

Lehenik eta behin, laginari buruz arituko gara. Ez da galdera erraza ia zenbat hiztun aukeratu behar diren datuak adierazgarriak izan daitezen, eta ikertzaileek eman dituzten erantzunak ere desberdinak izan dira. Lujanbiok (2016: 22) orain arte azterketa bariazionistetan erabili izan diren lagin batzuk zenbatekoak izan diren adierazten digu.

ITURRIA	BIZTANLE-KOPURUA	LAGINA	
		N	%
W. Labov. 1966. <i>The social stratification of English in New York City</i> [Lower East Side]	100.000	81	0,081
P. Trudgill. 1974. <i>The social differentiation of English in Norwich</i>	118.610	60	0,05
G. Perissinotto. 1975. <i>Fonología del español hablado en la ciudad de México</i>	7.000.000	110	0,0016
H. López Morales. 1983. <i>Estratificación social del español de San Juan de Puerto Rico</i>	485.084	105	0,02
J.A. Samper. 1990. <i>Estudio sociolingüístico del español de las Palmas de Gran Canaria</i>	216.250	87	0,04
J.C. González Ferrero. 1991. <i>La estratificación sociolingüística de una comunidad semiurbana: Toro (Zamora)</i>	6.609	39	0,6
M.A. Calero. 1993. <i>Estudio sociolingüístico del habla de Toledo</i>	36.417	37	0,1

18. irudia: azterketa bariazionistetan erabili diren laginen neurriak (Lujanbio, 2016: 22).

Emaitzak fidagarriak izan daitezen, populazio osoaren %0,025 kontuan izan behar dela erran izan bada ere, Hernández-Campoy eta Almeidaren (2005: 60) ustez, ez da kontsentsurik lortu laginaren izariaren inguruan. Hori dela eta, informatzaile kopurua lan bakoitzaren helburuei, ikertzailearen denborari eta ahal ekonomikoei egokitu behar zaiela esan izan da (Silva-Corvalán, 1988: 20; Tagliamonte, 2006: 33). Bistan den bezala, aztertuko diren aldagai askeen kopuruak ere baldintzatuko du ikertzailearen erabakia (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 60). Gure kasuan, denera, 48 lekuko elkarrizketatu ditugu. Aztertu dugun eremuaren populazioa 9011 biztanlekoa dela kontuan harturik, ibar osoaren %0,53 da.

6 eremu geografiko hartu ditugu kontuan, eta eremu bakoitzeko 8 lekuko elkarrizketatu ditugu. Adinari dagokionez, berriz, hiru adin talde bereizi ditugu:

adinekoak, helduak eta gazteak. Orotara, 12 adineko, 12 heldu eta 24 gazte ditugu. Gazteen kopurua bikoitza da, hauen barnean, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitatea aldagai sozialak aztertu baititugu. 24 gizon eta 24 emazte elkarrizketatu ditugu. Hezkuntza-ereduari dagokionez, gazteen artean, 12 ikastolako eta 12 eskola publikoko ditugu. Praktika-komunitateak aztertzea gerora hartua izan zen erabakia da, eta beraz, ez dugu talde bakoitzetik lekuko kopuru bera. Zernahi gisaz, erran dugu 2.9.5. §-ean ere, eremu geografiko batzuetan ezinezkoa dela gaztetxekorik atzematea, Ezterenzubín kasu. Beste batzuetan, berriz, anitzez errazagoa da, Gamarte-Ainhizan, adibidez. Beraz, gaztetxeko 8 lekuko ditugu, komiteetako 12 eta 4 luzaidar. Aldagai aske guztiak konbinatuz gero, azpitalde bakoitzeko pertsona bakarra dugu.

Lagina aukeratzeko orduan, ausazko hautaketa eta zentzuzko hautaketa erabili izan dira. Izenak dioen bezala, lehenengoan, informatzaileak alirizira aukeratzen dira, eta bigarreanean, berriz, aldagai aske bakoitzeko, informatzaile kopuru jakin bat elkarrizketatzea aurreikusten da. Nolabait errateko, ikertzaileak irizpide jakin batzuen arabera aukeratzen ditu. Azken metodo hau da bariasionismoan erabiliena (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 59). Zentzuzko hautaketaren barruan, *elur bola efektua* edo *lagunaren laguna* deitzen den teknika erabili dugu. L.Milroyk (1980) jarri zuen praktikan Belfasten egin zuen ikerketan. Metodo honetan, ikertzailea lagun batzuegandik abiatzen da, eta hauen sare sozialez baliatzen da haien lagunak diren beste informatzaile batzuk bilatzeko (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 59). L.Milroyk (1980: 56) dioenez, *lagunaren laguna* metodoak hiztuna testuinguru informalean elkarrizketatzea ahalbidetzen du.

Guk ere hautu hau egin dugu, mintzo *vernacular*-a ikertzea izan baita gure helburua uneoro, eta elkarrizketa lagun artean, testuinguru informalean egiteak anitz errazten du estilo hau erabiltzea. Honela definitzen du Labov-ek: “the style in which the minimum attention is given to the monitoring of speech” (Labov, 1972: 208). “Eguneroko mintzo” (Sankoff, 1980: 54), eta “egiazko hizkuntza-erabilera” ere deitu izan zaio (J. Milroy, 1992: 66). Egiaztatu ahal izan dugunez, gure lagunaren lagunekin harremanetan jartzean, noren lagunak ginen errateak anitz erraztu du informatzailearen eta gure arteko komunikazioa. Gainera, hiztun horietarik anitzekin, elkartzen ginen bigarren edo hirugarren aldian egin ditugu elkarrizketak, eta horrek konfiantza handiagoa izatea bermatu digu. Horren erakusgarri izan da lehen aldian tratamendu

neutroa erabili arren, elkartu garen hurrengo aldietan lekukoek *xuka* edo *toka* erabiltzea guri zuzentzeko.

Vernacular-a erdiesteko asmoz, betiere, elkarrizketa erdi-gidatua eta librea erabiltzea pentsatu genuen. Egia da inkestaren bidez, nahi dugun hizkuntza-aldagai guztien berri izan dezakegula, eta denbora ere aurrezten dela. Ensunzak (2015) itzulpen bidezko inkestaren alde egin zuen bere tesian, honako arrazoiak emanez:

Batetik, erantzunak zehatzak direlako eta, gainera, beti dagoelako aukera hiztunari momentuan galdetzeko benetan horrela esaten duen edo beste modu batera ere esango ote lukeen; eta bestetik, konparagarriak diren datuak eskaintzen dituelako (26).

Hala ere, inkestak baditu desabantailak. Hernández-Campoy eta Almeidak (2005: 122) horietarik zenbait zerrendatzen dituzte. Guri hauek iruditzen zaizkigu garrantzitsuenak: a) *token* edo adibide gutxi biltzen ditugu hizkuntza-aldagai bakoitzeko; b) formaltasuna areagotzen du, usaian, informatzaileak urduriago egoten direlako; c) hiztuna prestigiozko ereductara hurbiltzea ohikoa da. Errate batera, EHHAK Luzaiden, lapurtera klasikotik hasita, prestigioa izan duen *-eri* datibo pluraleko forma bildu zuen. Haatik, *-er* da hango adinekoek erabiltzen duten forma bakarra. Elkarrizketa erdi-gidatuak eta libreek alde txar hauek gutxitzen dituztela iruditzen zaigu. Lehenegoetan, ikertzaileak hitz egiteko gai eta galdera orokor zenbait aukeratzen ditu. Bigarrenetan, aldiz, gaiak ez daude aurreikusita, eta beraz, elkarrizketa aitzina doan ber, espontaneoki sortuz eta aldatuz joaten dira. Elkarrizketa erdi-gidatuak dira bariazionismoan erabilienak (Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 135).

Elkarrizketa erdi-gidatuak eta libreen desabantaila nagusia da, alde batetik, minutu anitz grabatu beharra dagoela. Labovek (1984: 32) aholkaturikoaren haritik, guk lekuko bakoitzarekin, ordu eta erdi eta bi ordu arteko grabaketak egin ditugu.²⁸ Beste aldetik, batzuetan, lekukoak ez du bilatzen dugun hizkuntza-aldagaiaren adibiderik ematen (Eguskiza, 2019: 56). Kasu horietan, grabagailua hilik genuelarik ere, arretaz jarraitu dugu lekukoak zioena, eta momentu horretan hizkuntza-aldagai jakin hori erabili badu, apuntatu egin dugu. Hori izan da gero kontuan hartu duguna. Horrela ere ez badugu biltzerik lortu, azken hautu bezala, erdarazko hiru esaldiren itzulpena egitea galdegin

²⁸ Arlo fonikoko hizkuntza-aldagaiak maiztasun biziki handiz agertzen dira, eta hori dela eta, grabaketako lehen 20 minutuak baino ez ditugu erabili aferesia, [o]→<u>/[n] bilakabidea eta bustidura salbu, gainerako arlo fonikoko hizkuntza-aldagaiak aztertzeko.

diegu. 2.10. §-ean, hizkuntza-aldagaiak aurkeztu ditugunean, aipatu dugu zein hizkuntza-aldagaitan erabili dugun bide hori.

Elkarrizketa erdi-gidatua euskararen egoerari eta hizkuntza-aldaketari buruzko iritziak jasotzeko, giza harremanen berri izateko eta hizkuntza-jarrerei eta oharmenari buruzko galderak egiteko erabili dugu. Gainerakoan, elkarrizketa librea izan da nagusi. Elkarrizketa horietarik zenbait, Master Amaierako Lanerako, orain dela lau urte egin genituen, eta beste batzuk, berriz, orain dela urte bat edo bi egin ditugu.

Halaber, mintzo *vernacular*-a erdiesteko, elkarrizketak lekukoaren etxean berean, edo 2.9.5. §-ean aipatu dugun Gainerako Ostatuan egin ditugu. Ostatuaren kasuan, grabaketak egiteko egokia den gela isil bat baliatu dugu.

Bariazionismoaren historian, garrantzi handia eman zaio behatzailearen paradoxari. Honela azaldu zuen Labov-ek (1972: 209): “komunitatearen ikerkuntza linguistikoaren helburua jendea sistematikoki behatua ez delarik nola mintzo den jakitea da; eta hala ere, guk datuak behaketa sistematikoaren bitartez baino ez genitzake eskura”. Horrekin loturik, honela dio Montoyak (2003: 18): “ezin dugu ahaztu lanaren zehaztasuna utopia izan daitekeela, eta hasieratik onartu behar dugu azterketarako oinarritzat hartuko ditugun grabazioek eta inkestek ez dutela, askotan, bertako eguneroko hizkera naturala islatuko”. Kontuan hartu beharra da, gainera, kasu honetan, ikertzailea ez dela bertakoa, Bergaran sortua eta Azpeitian hazia baizik. Erran beharrik ez dago, ikertzailea aztergai den eremuko bertakoa izateak anitz errazten duela *vernacular*-a lortzea. Nahiz eta hangoa ez izan, Garazi ondoko Oztibarren eta Arberoan bizi izan ginen orain dela sei urte eta lau urte, eta bertan ez bizi izanik ere, erregularrak izan dira Garazira eta Nafarroa Beherera egin ditugun joan-jinak azken sei urteetan. Bertan lagun sarea izateak ere anitz erraztu du Garaziko komunitatean integratzea.

Paradoxa honek dakartzan kalteak ahalik eta txikienak izan daitezen, irtenbide andana bat proposatu izan da (ikus Labov, 1972: 266-267; Silva-Corvalán, 1988: 33; Tagliamonte, 2012: 107). Hauek guztiak kontuan hartuta, besteak beste, elkarrizketetan behatzaile partehartzaile izatea erabaki dugu, Hernández-Campoy eta Almeidak (2005: 142-143) aholkaturikoari jarraikiz. Hortaz, informatzailearen komunikazio-arauak geure egiten eta bere sare sozialetan sartzen saiatu gara. Era berean, aktiboki parte hartu dugu elkarrizketan eta geure gorabeherei buruz ere naturaltasunez hitz egin dugu beharrezko kontsideratu dugunean. Anitz dira metodo honetaz baliatu diren lanak soziolinguistika

bariazionistan (ikus Hernández-Campoy & Almeida, 2005: 143). Hainbat alde on ditu L. Milroyren ustez (1987: 78-79): a) lortzen zailak diren datuen kalitate handia; b) komunitateko arau sozial eta komunikatiboen berri izatea; eta c) hiztunek taldearen barruan duten posizioa zein den errazago jakitea eta ulertzea.

Duela lau urte, ordenagailuarekin egin genituen elkarrizketak, honi *Sony* markako mikrofonoa atxikiz, *Audacity* programaren bidez. Duela bi urte, berriz, mugikorraren aldeko hautua egin genuen. ZTEBLADEA511 eta Galaxy A20e mugikorrak erabili ditugu, gailu hauei estekatzen ahal zaien mikrofonoaz lagundurik. Mugikorrak ere, behatzailearen paradoxa gainditzen eta *vernacular*-a lortzen lagundu digula uste dugu. Gaur egun, gailu honen presentziara ohituak daude lekukorik gehienak, baita adinekoak ere. Horrek, beraz, grabagailuaren presentzia fisikoa anitz txikitzen du. Grabaketak 44100 Hz-ko maiztasunean egin dira *.wav* formatuan.

Hiztunen jarreraren eta oharrenaren berri izatea ezinbestekoa iruditu zaigu hizkuntza-aldagaien azterketatik ateratzen ditugun ondorioak berresteko edo baztertzeko. J. Milroyk (1992: 5-10) dioenez, hizkuntza-aldakortasunaren azterketa ez da osoa izango hizkuntza-jarrerak kontuan hartu ezean. Guk zenbakietan ikusten duguna lekukoek ere hala dela sentitzen badute, ondorioek sendotasun handiagoa izanen dute. Lehenik eta behin, jarreraren berri izateko, galdera orokor zenbait egin diegu lekukoei. Ondoren, oharrenaren berri izateko, alde batetik, Herbeheretako oharrenezko dialektologiaren tradizioari jarraituz, informatzaileei galdegin diegu, beraien ustez, non mintzo diren beren herrian bezala eta non desberdinki. Bestetik, hala nola, Giles & Bourhis-ek (1976), Gilesek (1977) edota Paltridge eta Gilesek (1984) onduriko erreakzio subjektiboen testa ere egin dugu. Mugatik iparraldeko lekukoei Luzaideko adin desberdineko lau lekukoren ahotsak entzunarazi dizkiegu, baita iparraldeko batuaren eta hegoaldeko batuaren ordezkarietat hartu dugun lekuko banaren botzak ere. Ariketa bera errepikatu dugu Luzaiden, baina kasu horretan, Gamarte, Ainhiza eta Hergaraiko adin desberdineko lau lekukoren ahotsak izan dira entzun dituztenak. Azken bi botzak berak izan dira. Ariketa honen bidez, lekukoendako muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari denez, eta iparraldeko/hegoaldeko batuarekiko duten onarpen eta identifikazio maila zenbatekoa den ikusi ahal izan dugu, cf. 5. §.

3.2. Datuak prozesatu eta aztertu

Datuak prozesatzerako orduan, fonetika-fonologiako lanetan hain ohikoa den *Praat* programa (Boersma eta Weenink, 2020) erabili dugu hizkuntza-datuak anotatzeko, etiketatzeko eta transkribatzeko. Transkribaketa ez dugu hitzez hitz egin, besteak beste, biziki grabaketa luzeak ditugulako. Horren ordez, sinboloak erabili ditugu aztergai dugun hizkuntza-aldaera bakoitza adierazteko. Konparazio batera, *th* sinboloak herskari hasperenduna gauzatu dela erran nahi du, eta *th0* sinboloak, berriz, ez dela gauzatu. *List* aukeraren bidez, sinbolo guztien zerrenda lortu ahal izan dugu. Lekuko guztien sinboloen zerrendak txukundu, ordenatu eta datu-basea sortu dugu *Excel* programari esker.

Argi utzi nahi dugu arlo fonikoan, zehaztasun handiko emaitzak lortzeko, azterketa akustiko zehatza egin beharko genukeela; errate batera, [o] → <u>/_[n] bilakabidean, [o] aldaera edo [u] dugun jakiteko, edota [t̥] → <t̥>/_[i, j] bilakabidean, [t̥] edo [t̥] aldaera dugun izartzeko. Horrek, ordea, tesian aldagai bakar batzuk, edo areago, bakarra aztertzea eramanen gintuzke. Alta, guk Garaziko euskararen aldakortasunaren ikuspegi ahalik eta osoena izan nahi dugu, eta horretarako, beharrezkoa zaigu esanguratsuak iruditzen zaizkigun hizkuntza-aldagai ahalik eta gehienak aztertzea. Beraz, oharmenez baliatu gara hizkuntza-aldaera baten edo bestearen aitzinean gauden jakiteko. Usu, espektrogramek ematen diguten begi bistako informazioa ere baliagarri gertatu zaigu. Dena den, dudako kasuak ez aztertzea erabaki dugu.

Analisi estatistikoa egiteko, *R* programa erabili dugu. *Mixed Logistic Regression* deritzon analisi estatistikoa egin dugu, *Generalized Linear Model* delako frogaren bidez. Horrek erran nahi du aztertzen ditugun hizkuntza-aldagaiak binarioak izan behar direla; hots, bi aldaera baino ezin dituztela izan. Aldaera bati 0 balioa ematen zaio, eta besteari 1. Beraz, bi aldaera baino gehiago dituzten aldagaien kasuan, aldaeren arteko aldeak binaka izartu behar izan ditugu.²⁹ Jakin badakigu, horrelako kasuetarako, *Multinomial Logistic Regression* delakoa erabil dezakegula, baina modelo honek ez digu uzten ausazko efekturik gehitzen.

Fixed effect efektu finkotzat hartu ditugu aldagai askeak edo sozialak; hots, geografia, adina, generoa, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitatea, eta *random effect*

²⁹ Demagun, A, B, C eta D aldaeren arteko aldeak izartu nahi ditugula. Lehenik, A eta B-ren artekoa izarrtuko dugu, ondoren, A eta C-ren artekoa, eta azkenik, A eta D-ren artekoa.

edo ausazko efektutzat hartu dugu lekukoa, eta zenbait kasutan, baldintza linguistikoa.³⁰ Ausazko efektuak aldakortasunean eragina duten halabeharrezko faktoreak dira; hots, gerta liteke, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, lekuko batek hizkuntza-aldagai baten aldaera jakin bat besteek baino gehiago erabiltzea. Halaber, posible da hitz jakin batekin (baldintza linguistikoa) ere, beti aldaera bat erabiltzea. Ausazko alde horiek ausazko efektuen bidez neutralizatzen dira. Horretarako, modeloak *intercept* bana kalkulatu du, kasu honetan, lekuko edo hitz bakoitzeko.

Lehenik, geografia+adina+generoa efektu finkoen arabera egingen da azterketa, eta ondoren, hezkuntza-eredua+praktika-komunitatea efektuen arabera. Bitan bereizi behar izan dugu; izan ere, adina eta hezkuntza-eredua eta praktika-komunitatea ez dira bateragarriak, azken bi prediktoreak edo aurreikusleak gazteen artean baino ez direlako kontuan hartzen.

Efektu finko baten eta bestearen artean, + ikurra erabili dugu (adibidez, geografia+adina+generoa); beraz, aurreikusle bakoitzak bere aldetik aldakortasunean duen eragina kalkulatu ahal izan dugu. Bi aurreikusleren artean lotura egon daitekeela uste izan dugunean; adibidez, geografiaren eta adinaren artean (demagun uste dugula adinekoen artean geografia ez dela esanguratsua eta gazteen artean bai), * ikurra ere erabili dugu. Ikur horrek aurreikusleek elkarren artean duten harremanaren berri ematen digu.

Emaitzak 9. taula bezalakoetan erakutsiko ditugu:

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.42893829	0.42445704	-1.0105576	3.122282e-01
Arnegi-Lasa	-0.03382971	0.49177026	-0.0687917	9.451554e-01
Irulegi-Anhauze	0.59968883	0.50803629	1.1804055	2.378390e-01
Ezterenzubi	-0.60874866	0.47839782	-1.2724738	2.032048e-01
Hergarai	-0.21419772	0.48740272	-0.4394676	6.603227e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.54666000	0.48185392	-1.1344932	2.565877e-01

9. taula: analisi estatistikoaren emaitzen adibidea

Intercept delakoa modeloak analisia egiteko hartzen duen oinarria da, kasu honetan, Luzaide litzateke. Gure modeloan, geografia+adina+generoa efektuak kalkulatu ditugularik, *intercept*-a Luzaideko adineko emaztea izanen da. Gazteen

³⁰ Baldintza linguistikoa ausazko efektutzat noiz hartu dugun, hizkuntza-aldagai bakoitza aurkeztean zehaztu dugu 2.10. §-ean.

artean, hezkuntza-eredua+praktika-komunitatea kalkulatzeko dugularik, berriz, *intercept*-a ikastolako eta gaztetxeetako osatuko dute.


Estimate aldaera bat erabiltzearen probabilitate logaritmikoa da.

Ondoren *standard error* dugu. Guk aztertutakoetan landa, beste hainbat faktorek ere baldintza dezakete aldakortasuna, baina denen berri izatea ezinezkoa da. *Standard error* delakoak *estimate* batez besteko hori kalkulatzeko, tronpatzeko dagoen aukera azaltzen du.

Statistic edo *t value* delakoak adierazten du aurreikusle jakin batek (Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze, Ezterenzubi, etab.) duen esangura estatistikoa menpeko aldagaiak duen aldakortasuna azaltzeko tenorean, eta horretarako, *intercept*-aren eta aurreikusle horren artean, *standard error* unitate bakoitzeko dagoen aldea azaltzen du. Aurreikuslearen *estimate* eta *standard error*-en arteko zatiketaren bidez kalkulatu da *statistic* (Winter, 2014b: 10). Zenbat eta balio altuagoa izan, orduan eta probabilitate txikiagoa egongo da hipotesi nuloa egia izan dadin.

Azkenik, *P value* hipotesi nuloa egia izateko probabilitatea da (Winter, 2014a: 5). 0,05 baino txikiagoa izateak aurreikuslea menpeko aldagaiaren aldakortasuna azaltzeko esanguratsua dela erran nahi du, eta 0,05 baino handiagoa izateak, berriz, ez dela esanguratsua. Estatistikoki esanguratsu diren aurreikusleen *P value*-ak beltzez adieraziko ditugu, ez ordea, *intercept*-arenak, *intercept*-tzat hartu den aurreikuslearen eta besteen arteko aldeak baitira interesatzen zaizkigunak.

Analisi estatistikoaz gain, hezkuntza-aldagai ia guztien aldaera jakin batean, lekuko guztiek dituzten ehunekoak ere kalkulatuko ditugu. Ondoren, talde sozial bakoitzeko (eremu bakoitzeko, adin talde bakoitzeko, genero bakoitzeko, etab.), lekuko ehuneko horien erdiko balioak edo medianak, eta sakabanaketa edo dispersioa kalkulatuko ditugu. Mediana da datu zenbait txikienetik handienara ordenaturik daudenean, erdian dagoen datua. Sakabanaketa, berriz, daturik txikiena eta handiena bitartean dagoen tartea da. *Boxplot* izena duten era honetako grafikoetan erakutsiko ditugu datuok:




19. irudia: lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioen eta sakabanaketaren adibidea

Goian hizkuntza-aldaera zein den ageri da. Kasu honetan, [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [ɔ] aldaera da (*ots[ɔ]a, send[ɔ]a, etab.*) Behean eta horizontalean, aztergai ditugun talde sozialak ageri dira. Kasu honetan, adin taldeak. Erdiko marra lodiak erdiko balioak dira, eta karratu zuria goitik eta behetik mugatzen dituztenak, berriz, kuartilak. Behekoak lehen kuartilak dira, eta goikoak hirugarren kuartilak (bigarren kuartila erdiko balioa da). Erdiko balioa txikienetik handienera ordenaturik dauden datuetan, erdian dagoen balioa da, eta lehen eta hirugarren kuartilak, berriz, lehen laurdenean eta hirugarren laurdenean dauden balioak dira. Karratuetarik ateratzen diren marren goiko puntetan maximoak ditugu eta beheko puntetan, berriz, minimoak. Horiek baino urrunago dauden puntu beltzak muturreko maximo/minimoak dira, edo bestela erranik, puntu urrunduak (gure kasuan, lekuko urrunduak). Minimoa izanen da [lehen kuartilaren balioa - 1,5*kuartila arteko ibiltartea edo rangoa] formulatik ateratzen dugun balioa baino handiagoa den lehena, eta balio hau baino txikiagoak diren guztiak puntu urrunduak izanen dira. Halaber, maximoa izanen da [hirugarren kuartilaren balioa - 1,5*kuartila arteko ibiltartea edo rangoa] formulatik ateratzen dugun balioa baino txikiagoa den lehena, eta balio hau baino handiagoak diren guztiak puntu urrunduak izanen dira.

Grafiko hauek biziki interesgarriak dira hainbat arrazoigatik:

- Lehenik, erdiko balioek edo medianek ehuneko arruntek baino informazio zehatzagoa eskaintzen digute, izan ere ehuneko arrunta muturreko balioen eraginez anitz handi edo apal liteke. Gainera, adibide kopuru handia duen lekuko batek ere, eragin dezake ehuneko arrunta handitzea edo apaltzea. Horrelako kasuetan, erdiko balioak datu fidagarriagoa eskaintzen digu.
- Bigarrenik, lekukoen sakabanaketak taldea heterogeneoa edo homogeneoa den azaltzen digu. Taldea homogeneoa izateak lekuko guztiek ehuneko bertsuak dituztela erran nahi du eta taldea heterogeneoa izateak, berriz, talde horretan berritzaile eta gordetzaile diren lekukoak daudela eta lekuko horiek oso ehuneko desberdinak dituztela adierazi nahiko luke. Garrantzitsua iruditzen zaigu hori jakitea.
- Hirugarrenik, zenbait aldiz, bi talde sozialen ehuneko orokorren artean alde handia egonagatik, P . balioa edo P . *value* ez da esanguratsua. Grafiko hauek laguntzen digute horren zergatia ulertzen. Alderatzen ari garen bi taldeak biziki sakabanatuak direlarik, ehuneko arrunten artean alde handia egonik ere, alde hori ez da esanguratsua, lekukoen artean bariazio handia dagoelako. Lekukoa ausazko efektutzat hartzeak aldea esanguratsua ez izatea eragiten du. Haatik, ehuneko arrunten artean aldea handia ez izanik ere, taldeak aski trinkoak badira, hots, sakabanaketa txikia badute, aldea esanguratsu izateko aukera handia da, lekukoen artean bariazio txikia dagoelako. Emaitza estatistikoak interpretatzen laguntzen gaituzte, beraz, grafiko hauek.

Azkenik, cluster analisiak eginen ditugu *ward* metodoa erabiliz. Hauek ere lekuko bakoitzaren ehunekoak oinarritzat harturik eratzen dira. Hain zuzen ere, ehunekorik idurienak dituzten lekukoek multzo bera osatzen dute. Mailarik zehatzenetik orokorrenera, multzoak elkarri lotzen joaten dira, gero eta multzo heterogeneoagoak osatuz. Multzokatze honen bidez, lekukorik gordetzaileenak eta berritzaileenak zein diren jakin dezakegu. Halaber, multzorik homogeneoenak osatzerako orduan, faktore sozial batek edo bestek eraginik baduen ere ikus dezakegu. Cluster analisiaren adibide bat dakargu 20. irudian.



20. irudia: cluster analisiaren adibidea

Hiztunak honela izendatu ditugu: lehenik eremua aipatzen dugu; errate batera, Gamarte-Ainhiza, Gamarte bezala laburtua. Ondoren, hizki larriz, adina. A hizkiak adinekoa erran nahi du, H-k heldua eta G-g gaztea. Hizki larriaren ondotik heldu den e-k emaztea erran nahi du eta g-k gizona. Honen ondotik heldu den i-k ikastolakoa erran nahi du eta p-k publikokoa. Azkenik, hondarrean dugun g-k gaztetzekoa erran nahi du, k-k komiteetakoa eta l-k luzaidarra. Beraz, GamarteGeig-k Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetzeko emazte gaztea erran nahi du.

3.3. Euskarari buruzko lan bariazionisten metodologiaren konparaketa

Metodologiaren atala bukatu baino lehen, soziolinguistika bariazionista ardatz izan duten Haddicanen (2005), Ensunzaren (2015), Lujanbioren (2016) eta Eguskizaren (2019) lan mardulen metodologia gurearekin erkatu nahi izan dugu, dauden desberdintasunak eta berdintasunak erakusteko asmoz.

Lehenik eta behin, laginaren izariarekin hasiko gara. Haddicanek ez du Oiartzungo populazioaren zer ehuneko elkarrizketatu duen aipatzen, baina orotara, 52 informatzailek emaniko informazioa aztertu zuen. Ensunzak Busturialdeko populazioaren %0,086 ikertu zuen, 40 lagun, hain zuzen ere. Lujanbiok, berriz, Goizueta eta Araitz-Beteluko %2 galdezkatu zuen, 38 lagun. Eguskizak 48 lekuko, Arratia osoaren %0,409. Azkenik, Guk Garaziko %0,53 hartu dugu kontuan, 48 informatzaile.

Aldagai aske guztien konbinazio bakoitzeko lekuko kopuru irregularra hartu zuen kontuan Haddicanek. Lekuko bakarra elkarrizketatu zuen Ensunzak. Lujanbiok bost lekuko bereizi zituela dio konbinaketa bakoitzeko, baina banaketa hori egitean, adina eta generoa baino ez zituen kontuan hartu eta ez beste aldagai aske batzuk; errate batera, ikasketa-maila, Goizuetan bizitzeko nahia, erdialdeko euskararekin harremana eta herria. Eguskizak bi hartu zituen, eta Guk, berriz, hiztun bakarra.

Laginaren hautaketari dagokionez, Haddicanen kasuan, gazte oiartzuarrek gidatu zituzten elkarrizketa gehienak, eta haien lagun eta ezagunak izan ziren elkarrizketatu zituztenak. Beraz, erran liteke “lagunaren laguna” teknika erabili zuela. Ensunzak ausazko hautaketa erabili zuela dio, baina lekukoak aurkitzerako orduan, herritarren laguntzaz baliatu zela gaineratzen du. Lujanbiok zentzuzko hautaketa erabili zuela zehazten du. Eguskizak ez du puntu honi buruzko zehaztapenik ematen. Azkenik, Guk “lagunaren laguna” metodoaz baliatu gara.

Datuak lortzeko metodologiari erreparatuz, elkarrizketa erdi-gidatuaz baliatu ziren Haddican eta Lujanbio. Itzulpen bidezko inkestak egin zituzten Ensunzak eta Eguskizak, eta elkarrizketa erdi-gidatuak eta libreak tartekatu ditugu Guk.

Elkarrizketak eginak diren lekuei helduz, lekukoen etxera joan da ardurenean elkarrizketatzailea Haddicanen, Ensunzaren, Eguskizaren eta gure kasuan. Guk zenbaitetan, ostatu jakin bat ere erabili dugu zeregin horretarako.

Ikertzaile guztiek ez dute zehazten zenbat denborako elkarriketak egin zituzten. Lujanbiok 30 minutu transkribatu zituen. Guk, berriz, ordu eta erdi eta bi ordu artekoak egin ditugu.

Azterturiko aldagai askeetara igarota, Haddicanek adina, generoa, auzoa, eta batzuetan, ikasketa-maila hartu zituen aintzat. Ensunzak geografia eta adina baino ez zituen aztertu, eta Eguskizak baita generoa ere. Lujanbiok adina, generoa eta ikasketa-maila hartu zituen kontuan, baina erran beharra da ikerketa alde batetik, Goizuetan egin zuela, eta bestetik, Araitz-Betelun. Lehen herrian, Goizuetan bizitzeko nahia eta erdialdeko euskararekin harreman-maila ere aztertu zituen, eta bigarrenean, berriz, herria. Guk, azkenik, geografia, adina, generoa, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitatea aztertu ditugu.

Menpeko aldagaiei dagokienez, 5 aldagairi erreparatu zien Haddicanek: arlo fonikoko bakarra eta gainerakoak aditz morfologiakoak. 19 aldagai aztertu zituen Ensunzak, arlo fonikokoak eta izen eta aditz morfologiakoak. Lujanbiok 20 aldagai aztertu zituen Goizuetan eta 12 Araitz-Betelun, eta hizkuntzaren alor guztiak ukitu zituen. Eguskizak 44 hizkuntza-aldagai hartu zituen kontuan: lexikoa salbu, gainerako alor guztietakoak. Guk, azkenik, 31 aldagai aztertu ditugu, eta gure kasuan ere, lexikoa izan da aztertu ez dugun alor bakarra.

Grabaketak egiteko moduari erreparatuz, Haddicanek *Sony* markako grabagailu digitala eta cassette grabagailua erabili zituen. Ensunzak, berriz, Olympus VN-2100PC eta Olympus LS-100 grabagailuak. Lujanbiok ordenagailua erabili zuen Samson C01U mikrofonoa eta *Praat* programa baliatuz. Eguskiza ere ordenagailuaz eta Boya BY-M1 mikrofonoaz baliatu zen. Guk, azkenik, ordenagailua *Sony* mikrofonoarekin eta *Audacity* programarekin, eta ZTEBLADEA511 eta Galaxy A20e mugikorrek mikrofonoarekin izan dira erabili ditugunak.

Programa eta proba estatistikoei dagokienez, Haddicanek Goldvarb programarekin *multivariate analysis* deritzona egin zuen. Ensunzak Diatech programa erabili zuen sailkapen geografikoa egiteko, eta SPSS adinaren eragina izartzeko. Similaritate mapak, cluster analisia eta distantzia-matrizeak egin zituen Diatech-ekin eta Khi karratuaren proba SPSS-rekin. Lujanbiok *mixed effect model* deritzona aplikatu zuen Rbrul-ekin. Eguskizak SPSS eta Ginkgo erabili zituen. Lehenbizikoarekin Khi karratuaren proba eta cluster analisia egin zituen. Bigarrenarekin, berriz, K-

batezbestekoaren eta FCM algoritmoaren arabera egin multzokatze analisia kalkulatu zituen. Guk, azkenik, R erabili dugu, eta *mixed logistic regression* delakoen barruan, *Generalized linear model* proba erabili dugu. Horrez gain, lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa erakutsi ditugu *boxplot* deritzen grafikoetan, eta cluster analisia ere erabili dugu informatzaileen sailkapena egiteko.

4. Datuen azterketa

Datuen azterketari helduko diogu orain. Emaizak hizkuntza-aldagaika emanen ditugu, eta bakoitzaren barnean, aldagai askeen eragina bereiz aztertuko dugu. Lehenik geografiari eskainiko diogu arreta, ondoren adinari, gero generoari, hezkuntza-ereduari, eta praktika-komunitateari. Bi aldagai askeren arteko elkarreraginari ere eskainiko diogu arreta beharrezkotzat jotzen dugunean. Baldintza linguistiko jakin batek aldakortasunean eragina izan badezake, hori ere aztertuko dugu. Azkenik, cluster analisia egingen dugu.


Aldagai aske bakoitzaren barnean, lehenik eta behin, kopuruak eta ehunekoak erakusten dituen taula erakutsiko dugu, ondoren ehunekoaren grafikoa, emaitza estatistikoak etorriko dira gero, eta azkenik, lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa erakusten dituen grafikoa.

Bukaeran, hizkuntza-aldagai guztiak aintzat hartuta, lekuko guztien cluster analisi orokorra egingen dugu.

4.1. Bokal aferesia

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
2118	53,02	1877	46,98

10. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




21. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

Datuek erakusten digutenez, bokal aferesi eza ia bokal aferesiaren ber ehunekoetaraino heltzen da. Bokal aferesia entzutea ez entzutea bezain ohikoa da, beraz, gaur egun Garazin.

4.1.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	515	74,85	173	25,15
Arnegi-Lasa	327	48,37	349	51,63
Irulegi-Anhauze	385	64,49	212	35,51
Ezterenzubi	513	72,87	191	27,13
Hergarai	196	31,92	418	68,08
Gamarte-Ainhiza	182	25,42	534	74,58

11. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




22. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.3750909	0.5630817	-4.2180220	2.464548e-05
Arnegi-Lasa	1.3751881	0.5329259	2.5804491	9.867190e-03
Irulegi-Anhauze	0.7460002	0.5338632	1.3973621	1.623047e-01
Ezterenzubi	0.1849369	0.5362802	0.3448514	7.302061e-01
Hergarai	2.3443841	0.5341290	4.3891722	1.137829e-05
Gamarte-Ainhiza	2.8766675	0.5376614	5.3503332	8.779245e-08

12. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Garaziko mendebaldean bokal aferesia aise sistematiagoa da ekialdean baino. Hala, Luzaide, Irulegi-Anhauze eta Ezterenzubin, bokal aferesia bokal aferesi ezari nagusitzen zaio. Ehuneko bertsuetan ditugu bi aldaerak Arnegi-Lasan, eta azkenik,

Hergarai eta Ainhiza-Gamarten bokal aferesi eza gailentzen da. Hori horrela, bokal aferesia Garaziko ibarrean ezaugarri banatzailea dela erran genezake. Luzaide eta Ezterenzubi dira arlo fonikoko eta ekialde zabaleko hizkuntza-aldaera hau gehien gauzatzen dutenak, eta gutxien gauzatzen duena, berriz, Gamarte-Ainhiza. Bi aldaeren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da Luzaide eta Arnegi-Lasaren, Luzaide eta Hergaraiaren eta Luzaide eta Gamarte-Ainhizaren artean




23. irudia: bokal aferesia gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa geografien arabera

Luzaidek du erdiko balio altuena, eta Ezterenzubikoa ere hurren du biziki. Apalena, berriz, Gamarte-Ainhizak du. Bi eremu hauek dira trinkoenak. Bi hauen tartean daudenak, berriz, anitzez sakabanatuagoak dira, bereziki, Arnegi-Lasa. Horrek erran nahi luke, eremu honetan, hiztun batzuek, ibarraren mendebaldeko joerarekin bat eginez, bokal aferesia usu gauzatzen dutela. Era berean, lekuko berritzaile ugari ere badira eremu honetan, ez baitute bokal aferesia usu gauzatzen.

4.1.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	743	65,52	391	34,48
Helduak	480	54,48	401	45,52
Gazteak	895	45,2	1085	54,8

13. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




24. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.3750909	0.5630817	-4.2180220	2.464548e-05
Helduak	0.8361159	0.4352668	1.9209274	5.474086e-02
Gazteak	1.2737483	0.3782803	3.3672074	7.593357e-04

14. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoengan bokal aferesia bokal aferesi ezari aise gailentzen zaio. Helduengan ere, bokal aferesia nagusitzen da, baina bi aldaeren arteko aldea txikiagoa da. Azkenik, gazteen kasuan, bokal aferesi eza da bokal aferesiari nagusitzen zaiona. Adinekoengandik helduengana dagoen aldea eta helduengandik gazteengana dagoena berdintsuak dira. Adinekoen eta gazteen arteko aldea, estatistikoki esanguratsua da. Hedadura zabaleko hizkuntza-aldaera baten aitzinean bagaude ere, gazteek egunerokoan lantzen duten euskara idatziak eta Euskara Batuak /Batuek bokal aferesi eza gailentzean eragiten dutela uste dugu, forma osotuen alde egiten baitute.

Lujanbioren (2014: 58-59) Goizuetako emaitzei erreparatuz gero, hiztunek erdialdeko euskaldunekin duten harreman maila izan zen emaitza onenak eman zituen aldagai soziala. Hala ere, adina ere estatistikoki esanguratsu gertatu zen eta adinekoak izan ziren aferesi gehien gauzatu zutenak. Dena dela, adinekoen eta gazteen arteko aldea Goizuetan baino handiagoa da Garazin.




25. irudia: bokal aferesia gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

14. taulako eta 25. irudiko datuak berretsiz, erdiko balio altuena adinekoek dute, apalena gazteek, eta helduena bien erdian dago gutxi gorabehera. Hiru adin taldeak aski sakabanatuak ageri zaizkigu, hiruretan baitaude aferesia usu gauzatzen duten mendebaldekoak eta bakan gauzatzen duten ekialdekoak. Homogeneoena, adinekoen taldea da, gordetzaileenena, hain zuzen ere. Heterogeneoena, berriz, gazteenena da. Horrek erran nahi luke, helduen kasuan eta batez ere gazteen kasuan dagoela hiztun gordetzaileen eta berritzaileen arteko kontrasterik handiena.

4.1.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	130	74,71	139	78,09	246	73,21
Arnegi-La.	85	73,28	82	62,6	160	37,3
Irulegi-An.	178	84,76	39	35,45	168	60,65
Ezterenzubi	207	86,25	107	63,31	199	67,46
Hergarai	73	41,24	31	31,63	92	27,14
Gamarte-A.	70	32,26	82	42,05	30	9,87

15. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez



26. irudia: adinaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez

Ez dugu analisi estatistikorik erakutsiko modeloak ematen dizkigun konbergentzia arazoak direla eta.


Adinekoen kasuan ageri da geografiaren arabera dagoen mendebalde/ekialde bereizketa argien. Helduen kasuan ere, bereizketa horrek jarraitzen du, oro har, baina Irulegi-Anhauzeko lekuko helduak biziki berritzaile ageri zaizkigu. Gazteen kasuan ere, mendebaldekoen eta ekialdekoen arteko desberdintasuna bada, baina kasu honetan, Arnegi eta Lasakoak bokal aferesi ezera lerratzen dira, eta Gamarte-Ainhizako gazteen bokal aferesia gauzatzearen ehunekoa ere aise apaltzen da. Erran genezake, mendebalde/ekialde bereizketa geografikoa berdintzen doala adin talde batetik bestera,

nahiz eta gazteen beraien artean ere bizirik dirauen. Arnegi-Lasa eta Irulegi-Anhauzen dugu belaunaldien arteko alderik handiena.

4.1.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	897	45,56	1072	54,44
Gizonak	1221	60,27	805	39,73

16. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




27. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.3750909	0.5630817	-4.2180220	2.464548e-05
Gizonak	-0.9738275	0.3087463	-3.1541346	1.609748e-03

17. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Datuek erakusten digutenez, emazteak berritzaileago dira gizonak baino. Emazteen artean, bokal aferesi eza nagusitzen bada ere, gizonen artean bokal aferesia da bokal aferesi ezari gailentzen zaiona. Aldea, gainera, estatistikoki esanguratsua da. Emazteak forma osotuak ahoskatzearen alde agertzen direla erakusten digu hizkuntza-aldagai honek, gazteek erakutsi bidearekin bat eginez.

Lujanbiok (2014: 59-63) ondorioztatu zuenez, berriz, Goizuetan generoaren arabera dagoen aldea ez zen estatistikoki esanguratsu gertatu. Hala ere, emazteek gizonak baino aferesi gehiago gauzatu zuten. Garaziko kontrako joera ageri da, beraz, Goizuetan.




28. irudia: bokal aferesia gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Ikusi berri ditugun datuekin bat eginez, emazteen erdiko balioa gizonena baino aise apalagoa da. Emazteen artean, sakabanaketa handiagoa da erdiko balioaren eta maximoaren artean. Gizonen kasuan, berriz, handiagoa da erdiko balioaren eta minimoaren artean.

4.1.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	334	62,2	219	48,13	344	35,21
Gizonak	409	68,51	261	61,27	551	54,94

18. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez



29. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5737982	0.6146630	-4.1873321	2.822527e-05
Gizon helduak	-0.1512813	0.8565923	-0.1766083	8.598161e-01
Gizon gazteak	-0.7206337	0.7431324	-0.9697246	3.321838e-01

19. taula: bokal aferesian generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa


Adinekoengan, generoaren arabera, aldea ez da hain handia, nahiz eta kasu horretan ere emazteak izan berritzaileenak. Belaunaldietan beheiti goazen ber, alde hori handitzen doala dakusagu. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsu.

Lujanbioren (2014: 61-62) arabera, Goizuetan, adineko emazteek adineko gizonen baino aferesi gehiago ahoskatu zuten. Gazteen artean, berriz, generoaren arabera, aldea oso txikia izan zen.

4.1.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	428	42,25	585	57,75
Publikokoak	467	48,29	500	51,71

20. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




30. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.4360835	0.5869100	2.4468545	0.0144108992
Publikokoak	0.4928871	0.6903958	0.7139195	0.4752769376

21. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Eskola publikoan ikasi dutenen artean, bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak bertsuak dira. Ikastolako kasuan, bokal aferesi eza bokal aferesiarri nagusitzen zaio, egunerokotasunean lantzen duten eredu idatziaren eraginaren erakusgarri. Hala ere, aldea ez da handia eta ez da estatistikoki esanguratsua.




31. irudia: bokal aferesia gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

31. irudiak erakusten digunez, bokal aferesia gauzatzeari dagokionez, ikastolakoaren erdiko balioa publikoan ikasiena baino zertxobait altuagoa da. Hala ere, lehen taldekoen kasuan, lekukoak sakabanatuago daude erdiko balioaren eta lehen kuartilaren bitartean. Aldiz, bigarren taldekoen kasuan, sakabanaketa handiagoa da erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren bitartean. Hori dela eta, publikokoek bokal aferesia gauzatzearen ehuneko handiagoa dute.

4.1.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	155	25,41	455	74,59
Komiteetakoak	494	47,78	540	52,22
Luzaidarrak	246	73,21	90	26,79

22. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




32. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.4360835	0.5869100	2.4468545	0.0144108992
Komiteetakoak	-1.5491810	0.7728920	-2.0043952	0.0450277466
Luzaidarrak	-3.0479792	0.8981884	-3.3934741	0.0006901208

23. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Praktika-komunitateek hezkuntza-ereduak baino azterketa zehatzagoa eskaintzen digute. Gaztetxeakoen eta luzaidarren emaitzak erabat aurkakoak ditugu: gaztetxeakoen bokal aferesi ezaren alde erabat egiten dute, eta luzaidarrek bokal aferesia gauzatzen dute kasurik gehienetan. Komiteetakoak kasuan, ehuneko bertsua dute bokal aferesiak eta bokal aferesi ezak. Euskara idatziaren eragina, eta forma osotuak erabiltzea gaztetxeakoen artean dago errotuen. Luzaidarrak, berriz, gordetzaile ageri zaizkigu. Linguistikoki bakartuta daude luzaidar gazteak. Ibañetaz bestalde joatean, gaztelania da

erabiltzen duten hizkuntza. Ibarriari beheiti joatean, aldiz, muga administratiboarekin topo egiten dute, muga sozial ere bilakatu dena. Beraz, hori dela eta, euskara etxeoketik harremanera mugatzen dute usu. Hori litzateke, gure ustez, gazte hauek kasu honetan gordetzaile izatearen arrazoiak. Praktika-komunitateen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




33. irudia: bokal aferesia gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxekoen erdiko balioak ehuneko apala du biziki, eta luzaidarrenak, berriz, biziki alltua. Bien bitartean dugu komiteetako taldea. Gaztetxekoen eta luzaidarren taldeak trinkoak dira komiteetakoei konparatuz. Azken talde hau, heterogeneoagoa da, eta beraz, hiztun berritzaile anitz daude, baina baita gordetzaile direnak ere. Gaztetxekoen taldekoen erdiko balioa minimotik hain hurbil egoteak adierazten digu hiztun gehienek bokal aferesia gauzatzearen ehuneko apalak dituztela. Sakabanaketa anitzez handiagoa da erdiko balioaren eta maximora bitartean. Beraz, badira besteak konparatuz, gordetzaileago diren gaztetxeko gazteak.

4.1.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Erranaldi hasieran	492	61,04	314	38,96
Kontsonante ostean	751	46,16	876	53,84
Bokal ostean	875	56,02	687	43,98

24. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera



34. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.3750909	0.5630817	-4.2180220	2.464548e-05
Kontsonante ostean	0.9313272	0.1148596	8.1083930	5.129359e-16
Bokal ostean	0.2890894	0.1148608	2.5168669	1.184035e-02

25. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera


Uste genuen bezalaxe, erranaldi hastapenean dugu bokal aferesia gauzatzearen ehuneko handiena. Apalena, berriz, kontsonante ostean dugu. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Lujanbiok (2014: 59) Goizuetan, kontsonante osteko eta bokal osteko testuinguruak bereizi zituen, eta ez zuen testuinguru fonikoaren arabera, alderik atzeman.

4.1.6.1. Testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Erranaldi hasieran	169	71,01	94	59,87	229	55,72
Kontsonante ostean	253	54,18	180	48,91	318	40,15
Bokal ostean	321	74,83	206	57,87	348	44,79

26. taula: testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez



35. irudia: testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.20552715	0.5800356	-3.8023993	1.433015e-04
Kontsonante ostean helduetan	-0.26810306	0.3199913	-0.8378448	4.021179e-01
Kontsonante ostean gazteetan	0.05649388	0.2624727	0.2152372	8.295824e-01
Bokal ostean helduetan	0.24671245	0.3275182	0.7532786	4.512825e-01
Bokal ostean gazteetan	1.02620155	0.2716568	3.7775659	1.583686e-04

27. taula: bokal aferesian testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa


Testuinguru fonikoaren arabera, alderik handiena adinekoen taldean atzeman genezake. Gainera, bokalaren ostean bokal aferesi gehiago gauzatzen dute erranaldi hasieran baino. Helduen kasuan aldeak txikiagoak dira, eta erranaldi hasieran bokal

aferesi gehiago gauzatzen dute bokal ostean baino. Azkenik, gazteek ere erranaldi hasieran dute bokal aferesi gehien, eta kontsonante osteko eta bokal osteko posizioen arteko aldea txikitu egiten da. Adinekoen erranaldi hasierako testuinguruaren eta gazteen bokal osteko testuinguruaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.

4.1.7. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Zautu	442	69,61	193	30,39
Zarri	262	60,79	169	39,21
Mazte	125	65,79	65	34,21
Man	187	31,75	402	68,25
Kusi	645	53,62	558	46,38
Kasi	310	43,91	396	56,09
Karri	123	62,76	73	37,24
Besteak	22	51,16	21	48,84

28. taula: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hitzaren arabera



36. irudia: bokal aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hitzaren arabera

Zautu hitzean gauzatzen da bokal aferesi gehien. Gutxien, berriz, *man* hitzean. Oro har, bokal aferesia gauzatzearen aldeko dira *zarri*, *mazte* eta *karri*. Bokal aferesia ez gauzatzearen aldeko, berriz, *kasi*.


Goizuetan, berriz, Garazin ez bezala, *eman* (%83) aferesia gauzatzearekin oso lotuta zegoela frogatu zuen Lujanbiok (2014: 59-60), eta baita *etorri*, *esan* eta *ekarri*

(%85) ere. *Ikusi* (%43), *izan* eta *ibili* aditzetan, berriz, aferesi gutxiago gertatzen zela ondorioztatu zuen. Datuetan ageri den bezala, Garazin ere, *ikusi* aditzean, aferesia gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak ez daude elkarrengandik oso urrun.

4.1.7.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarrengandik

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Zautu	133	85,26	99	65,56	210	64,02
Zarri	86	56,58	66	69,47	110	59,78
Mazte	85	78,7	28	66,67	12	30
Man	84	51,53	39	26,17	64	23,1
Kusi	160	65,57	128	56,64	358	48,77
Kasi	135	62,21	83	50,61	92	28,31
Karri	49	59,76	36	72	38	59,38
Besteak	11	91,67	1	25	11	39,29


29. taula: hitzaren eta adinaren arteko elkarrengandikaren kopuru eta ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez



37. irudia: hitzaren eta adinaren arteko elkarrengandikaren ehunekoak bokal aferesia gauzatzeari dagokionez

Oro har, *zautu*, *zarri* eta *karri* hitzetan gauzatzen da bokal aferesi gehien belaunaldiz belaunaldi. Aldiz, jaitsiera gertatzen da *mazte*, *man*, *kusi* eta *kasi* hitzetan, batez ere lehenbizikoan.

4.1.8. Cluster analisia



38. irudia: bokal aferesiari dagokion cluster analisia

Bokal aferesi gutxien gauzatzen dutenak 4. multzoaren barneko gaineko multzoan ditugu. Hergarai eta Gamarte-Ainhizako hainbat gazte ditugu bertan, baita Arnegi-Lasako gaztetzeko eta ikastolako emazte gaztea ere. Azpialdean, heldu zenbait ere badugu: Hergarai eta Gamarteko emazte helduak, eta baita bokal aferesi gehien gauzatzen den eremukoak izateko, berritzaile diren Irulegi-Anhauzeko emazte heldua, eta Ezterenzubiko gizon heldua ere. Gamarte-Ainhizako adineko emaztea ere hemen dugu, baita berritzaile ageri den Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gaztea ere. Hiztun hauen guztien bokal aferesia gauzatzearen ehunekoa %20tik behera dago.

3. multzokoek bokal aferesia gauzatzearen ehuneko altuagoak dituzte, %30-%50 bitartean gutxi gorabehera. Hemen ditugu Hergaraiko adinekoak, Gamarteko adineko gizona, eta berritzaile diren Arnegiko emazte heldua, Luzaideko ikastolako emazte gaztea, Irulegi-Anhauzeko bi emazte gazteak, Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea, eta Arnegiko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea. Bi multzo hauek bokal aferesia gauzatzearen ehuneko apalenak dituen 1. multzoan elkartzen dira.


5. multzoan %55 eta %80 bitartean gauzatzen da bokal aferesia. Aski multzo heterogeneoa da. Ehunekorik apalenak azpiko multzoan atzeman genitzake. Bertan ditugu Arnegiko adineko emaztea, Irulegi-Anhauzeko gizon heldua, Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako emazte gaztea eta Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea. Nahiz eta bokal aferesi gutxien gauzatzen den eremukoak izan, bertan ditugu, halaber, Hergaraiko eta Gamarte-Ainhizako gizon helduak eta Hergaraiko ikastolako eta komiteetako gizon gaztea. Gaineko multzoan, ehuneko altuagoak dituzten lekukoak ditugu. Bokal aferesi gehien gauzatzen duten eremuetako adineko gehiago agertzen dira bertan: Luzaideko eta Irulegiko adineko gizonak eta Ezterenzubiko adineko emaztea. Luzaideko helduak ere bertan dira, eta baita gazte zenbait ere, gizonak hirurak, eta komiteetakoak bi: Arnegi-Lasako publikoko komiteetako gizon gaztea, Ezterenzubiko ikastolako komiteetako gizon gaztea, eta Luzaideko publikoko gizon gaztea.

Bokal aferesia gauzatzearen ehuneko altuenak dituzte, azkenik, 6. multzoko lekukoek, %80tik gorakoak. Adineko gehiago dugu talde honetan: Luzaideko adineko emaztea, Arnegi-Lasako adineko gizona, Ezterenzubiko adineko gizona eta Irulegi-Anhauzeko adineko emaztea. Talde honetan daude gordetzaile ageri diren Ezterenzubiko emazte heldua eta Arnegi-Lasako gizon heldua. Garazi mendebaldeko gazte gordetzaileenak ere hemen daude, gizonak eta publikokoak gehienak: Ezterenzubikoa (komiteetakoa) eta Irulegi-Anhauzekoa (komiteetakoa), Luzaideko ikastolakoa, eta baita Luzaideko publikoko emazte gaztea ere. 5. eta 6. multzoko lekukoek 2. multzoa osatzen dute, bokal aferesia gehien gauzatzen duena, hain zuzen ere.

4.2. Goranzko diptongoak: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
3659	90,3	393	9,7

30. taula: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




39. irudia: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

Garazin, [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea ia beti gauzatzen dela erakusten digu 39. irudiak. [j] aldaera diptongatua da nagusi, beraz.

4.2.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	552	86,25	88	13,75
Arnegi-Lasa	542	90,79	55	9,21
Irulegi-Anhauze	460	88,8	58	11,2
Ezterenzubi	745	90,85	75	9,15
Hergarai	616	91,26	59	8,74
Gamarte-Ainhiza	744	92,77	58	7,23

31. taula: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




40. irudia: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.94903593	0.3849199	-5.06348445	4.116620e-07
Arnegi-Lasa	-0.32299351	0.4258083	-0.75854214	4.481265e-01
Irulegi-Anhauze	-0.23021207	0.4302034	-0.53512375	5.925643e-01
Ezterenzubi	-0.40033476	0.4203937	-0.95228546	3.409522e-01
Hergarai	-0.58457425	0.4297644	-1.36022022	1.737602e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.52757203	0.4246403	-1.24239743	2.140900e-01

32. taula: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremu geografikoen arteko aldeak hutsalak dira, eta 32. taulan ikus dezakegun moduan, ez dira estatistikoki esanguratsu.




41. irudia: [i]→<j>/[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Luzaidekoa da multzorik sakabanatuena. Badira, halaber, batez ere Luzaiden, baina baita Irulegi-Anhauze eta Gamarte-Ainhizan ere, [j] aldaeraren ehuneko apalagoak dituzten *outlier* edo lekuko urunduak.

4.2.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1097	89,62	127	10,38
Helduak	1008	93,16	74	6,84
Gazteak	1554	89	192	11

33. taula: [i]→<j>/ [a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




42. irudia: [i]→<j>/ [a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.94903593	0.3849199	-5.06348445	4.116620e-07
Helduak	-0.47873530	0.3510140	-1.36386380	1.726104e-01
Gazteak	0.02640028	0.2966499	0.08899473	9.290861e-01

34. taula: [i]→<j>/ [a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Belaunaldien arabera ere, aldeak txikiak dira biziki, eta ez dira estatistikoki esanguratsu. Ondoko erdarek, bai frantsesak eta bai gaztelaniak, [j] irristiarekin osaturiko goranzko diptongoak badituzte, eta horrek baduke eraginik Garaziko euskarari, hizkuntza-aldagai honi dagokionez, adinaren arabera alderik ez egotean.




43. irudia: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Hiru taldeek dituzte erdiko balio berdintsuak. Bokal aferesiaren kasuan bezalaxe, gazteena da talde heterogeneoena, eta sakabanatuena dauden hiztunak erdiko balioaren eta minimoaren artean kokaturik daude. Hiru taldeetan daude lekuko urrunduak, eta urrunduena daudenak gazteen taldean aurki genitzake.

4.2.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1696	90,45	179	9,55
Gizonak	1963	90,17	214	9,83

35. taula: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




44. irudia: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.94903593	0.3849199	-5.06348445	4.116620e-07
Gizonak	0.10352271	0.2477410	0.41786673	6.760446e-01

36. taula: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Datuak ikusita, ez genezake erran bi generoen artean alderik dagoenik ere. Estatistikak ere hori frogatzen du.




45. irudia: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi multzoak biziki iduriak dira, nahiz eta gizonena sakabanatuxeagoa den. Bietan ditugu lekuko urrunduak, baina urrunduago daude gizonen kasuan.

4.2.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	790	91,01	78	8,99
Publikokoak	764	87,02	114	12,98

37. taula: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




46. irudia: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.1314872	0.2442720	-8.7258769	2.641260e-18
Publikokoak	0.8338114	0.3412949	2.4430815	1.456245e-02

38. taula: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Bi taldeen arteko aldea txikia izanagatik, estatistikoki esanguratsua da. Publikoan ikasiek [i] aldaera ez diptongatuaren ehuneko altuagoak dituzte.




47. irudia: [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

47. irudian dakusagunez, bi multzoak dira trinkoak, baina publikokoena sakabanatuagoa da. Hirugarren kuartila eta erdiko balioa biziki hurbil daude, beraz, hiztun gehienek bilakabide hau gauzatzearen ehuneko altuak dituzte. Erdiko balioaren eta lehen kuartilaren arteko sakabanaketa handiagoa da, eta ehuneko apalak dituzten bi lekuko urrundu ditugu. Ikastolakoen kasuan, berriz, sakabanaketa uniformeagoa da erdiko balioaren bi aldeetara. Hori dela eta, nahiz eta bi taldeek erdiko balio biziki iduria izan, publikokoan [i]→<j>/_[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen ehunekoa apalagoa da ikastolakoena baino.

4.2.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	479	88,7	61	11,3
Komiteetakoak	879	92,62	70	7,38
Luzaidarrak	196	76,26	61	23,74

39. taula: [i]→<j>/[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




48. irudia: [i]→<j>/[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.1314872	0.2442720	-8.7258769	2.641260e-18
Komiteetakoak	-1.1154213	0.3827841	-2.9139693	3.568649e-03
Luzaidarrak	0.3546658	0.4287467	0.8272152	4.081151e-01

40. taula: [i]→<j>/[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Komiteetakoek dute [i]→<j>/[a, e, o, u] bilakabidea gauzatzearen ehuneko gorena, ondotik heldu dira gaztetxeakoak, eta azkenik, ehuneko aise apalagoarekin luzaidarrak. Gaztetxeakoen eta komiteetakoaren arteko aldea, gainera, estatistikoki esanguratsua da. Luzaidarrak ditugu, beraz, kasu honetan berritzaileen eta komiteetakoak gordetzaileen. Hezkuntza-ereduaren bidez egin azterketan, publikokoak izan dira berritzaileak, nahiz eta, komiteetakoaren ber norabidean, gordetzaile izatea


espero genuen. Publikoan ikasi luzaidarren eta Gaztetzekoa den Gamarteko publikoko eta gatzetzeko emazte gaztearen [j] aldaeraren ehuneko apalek eragin dukete alde hori.



49. irudia: [i]→<j>/[_a, e, o, u] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Komiteetako erdiko balioa da bilakabide hau gauzatzearen ehuneko altuena duena. Apalagoa da gatzetzekoena, eta are apalagoa luzaidarra. Halaber, komiteetako taldea da trinkoena. Sakabanatuago ageri zaigu gatzetzekoena, eta besteei konparatuz, biziki sakabanatua da luzaidarra. Komiteetako trinkotasunean aurki genezake gatzetzekoena eta talde honetako arto aldea estatistikoki esanguratsua izatearen arrazoiak.

4.2.6. Cluster analisia



50. irudia: [i]→<j>/_ [a, e, o, u] bilakabideari dagokion cluster analisia


Multzoetan behetik gora egin ahala, [j] aldaera diptongatuaren ehunekoak igotzen doaz. Ehuneko biziki apalak dituzte Luzaideko publikoko gazteek eta Irulegiko adineko gizonak. Aipatu beharrekoa iruditzen zaigu, azken lekuko honen kasua. Baigorri eta Aldudeko ibarretan eta Hazparne aldean badakigu ez dela ohikoa bilakabide hau gertatzea. Hitzun hau Irulegikoa denez, iruditzen zaigu [i] aldaera ez diptongatua ehuneko altuetan erabiltzea Baigorri aldeko hizkeraren eragina dela.

Gainerakoan, ez dugu multzoen artean ikastolakoen eta publikokoen edota gaztetxekoen eta komiteetakoen arteko bereizketa argirik egiten ahal.

4.3. Goranzko diptongoak: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidea

[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
148	7,78	623	32,74	90	4,73	1042	54,76

41. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




51. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

[j] aldaera da Garazin erabiliena dena. Ondotik heldu da [ɛ], eta azkenik [e] eta [i] aldaera ez diptongatuak. Aldaera diptongatuak dira, beraz, alde handiz, erabilienak. Era berean, goiko aldaerak dira artekoei nagusitzen zaizkienak, baina kasu honetan, ez hain alde handiarekin.

4.3.1. Geografiaren arabera

	[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	24	6,22	126	32,64	20	5,18	216	55,96
Arnegi-Lasa	32	10,56	103	33,99	15	4,95	153	50,5
Irulegi-Anhauze	11	3,91	90	32,03	27	9,61	153	54,45
Ezterenzubi	21	7,12	83	28,14	11	3,73	180	61,02
Hergarai	19	6,46	77	26,19	11	3,74	187	63,61
Gamarte-Ainhiza	41	11,92	144	41,86	6	1,74	153	44,48

42. taula: [e]→<ɛ, i, j>/[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



52. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.39581318	0.3521650	6.80309770	1.023932e-11
Arnegi-Lasa	-0.51028761	0.3808464	-1.33987775	1.802851e-01
Irulegi-Anhauze	-0.24349204	0.3907165	-0.62319369	5.331572e-01
Ezterenzubi	-0.16267793	0.3929196	-0.41402341	6.788570e-01
Hergarai	0.01025594	0.3976458	0.02579164	9.794235e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.20520387	0.3850453	-0.53293440	5.940790e-01


43. taula: [e]→<ɛ, i, j>/[a] bilakabidearen aldaera diptongatuen ([ɛ] eta [j]) eta ez diptongatuen ([e] eta [i]) arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.309701022	0.4417342	2.964907752	3.027737e-03
Arnegi-Lasa	-0.348839233	0.4902225	-0.711593699	4.767164e-01
Irulegi-Anhauze	0.001383321	0.4882702	0.002833105	9.977395e-01
Ezterenzubi	-0.091781427	0.4909885	-0.186931919	8.517140e-01
Hergarai	0.217593160	0.4914720	0.442737659	6.579555e-01
Gamarte-Ainhiza	-1.100436301	0.4995395	-2.202901429	2.760170e-02

44. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

[j] aldaeraren ehuneko altuenak Ezterenzubin, eta batez ere, Hergarain ditugu. Apalena, berriz, Gamarte-Ainhizan. Azken eremu hauxe da, bestalde, [ɛ]-ren alde garbien egiten duen eremua. Azken aldaera honen ehuneko apalenak dituztenak Ezterenzubi eta Hergarai dira, [j]-ren alde egiten duten eremuak, hain zuzen ere. [e] eta [i]-k ehuneko biziki apalak dituzte eremu guztietan, baina [e]-ren aldeko joera nabariena Arnegi-Lasa, eta batez ere, Gamarte-Ainhizan dugu. [i]-ren ehuneko altuena, berriz, Irulegi-Anhauzek du.

Estatistikoki, batetik aldaera diptongatuen eta ez diptongatuen arteko aldea izartzea erabaki dugu, eta bestetik, goiko eta arteko aldaeren artekoa. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak aldaera diptongatuen eta ez diptongatuen artean, Goiko eta arteko aldaeren artean, Luzaide eta Gamarte-Ainhizaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.



53. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaerei dagozkien lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera


Lehenik eta behin, erran dezagun, aldaera ez diptongatuen kopurua aise apalagoa dela diptongatuena baino, eta horrek lekukoen ehunekoen sakabanaketan baduela islarik, multzoak trinkoagoak baitira.

[e] aldaeraren kasuan, Arnegi-Lasak du erdiko balio altuena, eta ondotik heldu da Gamarte-Ainhiza. Azken eremu hau da, halaber, sakabanaketa handiena duena, 4.3.2.1. §-ean ikusiko dugun bezala, eremurik berritzaileena. [e] aldaerari dagokionez ere, eremu hau da erdiko balio altuena eta sakabanaketa handiena duena. Ezterenzubi da Hergarairekin batera, erdiko balio apalena duena, baina lehenak sakabanaketa handia du. [i] aldaeraren adibide gutxi dugu, baina Arnegi-Lasak du erdiko balio altuena eta baita sakabanaketa handiena ere. Azkenik, [j] aldaerari helduz, Gamarte-Ainhiza eremu berritzailea da Luzaiderekin batera erdiko balio apalena duena, baina lehenak du sakabanaketarik handiena, erdiko balioaren eta minimoaren artean, bereziki. Ezterenzubi da erdiko balio altuena duena, eta ondotik heldu da Hergarai, baina lehen eremua sakabanatuagoa da eta bigarrena, berriz, trinkoagoa. Eremu gordetzaileenak, baina batez ere berritzaileenak sakabanaketa handia duela ageri dute datuek. Beraz, aldakortasun handia atzeman genezake eremu hauetako hiztunen artean.

4.3.2. Adinaren arabera

	[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	13	2,5	113	21,73	42	8,08	352	67,69
Helduak	16	3,78	71	16,78	21	4,96	315	74,47
Gazteak	119	12,4	439	45,73	27	2,81	375	39,06

45. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



54. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.39581318	0.3521650	6.80309770	1.023932e-11
Helduak	0.19806307	0.3324615	0.59574733	5.513440e-01
Gazteak	-0.41293646	0.2732056	-1.51144920	1.306740e-01

46. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaera diptongatuen ([ɛ] eta [j]) eta ez diptongatuen ([e] eta [i]) arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.309701022	0.4417342	2.964907752	3.027737e-03
Helduak	0.110730126	0.4047835	0.273553944	7.844274e-01
Gazteak	-1.810002596	0.3496473	-5.176652808	2.259020e-07

47. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoei erreparatuz, argi ikus dezakegu aldaera diptongatuek eta batez ere goikoak, hots, [j]-k duten nagusitasuna. Helduek [j] aldaera honen alde egiten jarraitzen

dute, baina egoera erabat uzkaitez da gazteengana jauzi eginez gero. [ɛ] arteko aldaera diptongatua [j] goikoari nagusitzen zaio, [e] ez diptongatu eta artekoaren ehunekoa ere zertxobait igotzen da, eta [i]-rena jaisten. Datuek adierazten dutenez, aldaera ez diptongatuen ehunekoa gazteengan igotzen bada ere, adinekoekiko aldea ez da estatistikoki esanguratsu. Alabaina, bokala goikoa edo artekoa izateari dagokionez, adinekoen eta gazteen arteko aldea esanguratsua da estatistikoki.

Bokal aferesiaren kasuan bezala, arlo fonikoko hizkuntza-aldagai honen kasuan ere, euskara idatziaren eragina aipatu beharra dago, *e* idazten baita eta ez *i*. Horrek eragin zuzena du [ɛ] aldaera gazteen artean nagusitzean.



55. irudia: [e] → <ɛ, i, j> / [a] bilakabidearen aldaerei dagozkien lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adin talde bakoitzak aldaera bakoitzean dituen erdiko balioak bat datoz 45. taulan eta 54. irudian erakutsi ehunekoekin: [e]-ren erdiko balioa handitu egiten da adinekoengandik helduengana, eta batez ere, helduengandik gazteengana; [ɛ]-rena, berriz, apaldu egiten da adinekoengandik helduengana, eta ikaragarri hazten da helduengandik gazteengana bitartean; [i]-ren erdiko balioa apaldu egiten da belaunaldi batetik bestera, eta azkenik, [j]-rena handitu egiten da adinekoengandik helduengana bitartean, baina gero izugarri apaltzen da helduengandik gazteengana. [j] da adineko eta helduek gehien erabiltzen duten aldaera, eta [ɛ] da gazteen artean nagusi dena. Lau aldaeratarik hirutan, gazteen adin taldea da sakabanatuena. Erdiko balioaren eta maximo-minimoen arteko sakabanaketa berdintsua da, oro har, [ɛ] eta [j] aldaeren kasuan, eta handixeagoa erdiko balioaren eta maximoaren artean [e] aldaerari

dagokionez. Gazteen sakabanaketa handiak erakusten digu biziki talde heterogeneoa dela, eta beraz, badirela izaera berritzailea duten zenbait, baina era berean, baita adineko eta helduen ehunekoetara hurbiltzen diren gordetzaileak ere.

4.3.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	[e]					
	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	6	5,66	1	1,12	17	8,9
Arnegi-La.	3	4,41	2	3,23	27	15,61
Irulegi-An.	2	2,33	1	1,64	8	5,97
Ezterenzubi	1	1,19	7	9,21	13	9,63
Hergarai	1	1,35	3	4,84	15	9,49
Gamarte-A.	0	0	2	2,74	39	23,08

48. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [e]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen [e] aldaerari dagokionez

	[e̞]					
	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	35	33,02	12	13,48	79	41,36
Arnegi-La.	17	25	14	22,58	72	41,62
Irulegi-An.	16	18,6	18	29,51	56	41,79
Ezterenzubi	16	19,05	5	6,58	62	45,93
Hergarai	6	8,11	13	20,97	58	36,71
Gamarte-A.	23	22,55	9	12,33	112	66,27


49. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [e̞]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen [e̞] aldaerari dagokionez

	[i]					
	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	6	5,66	2	2,25	12	6,28
Arnegi-La.	7	10,29	6	9,68	2	1,16
Irulegi-An.	15	17,44	4	6,56	8	5,97
Ezterenzubi	6	7,14	3	3,95	2	1,48
Hergarai	5	6,76	4	6,45	2	1,27
Gamarte-A.	3	2,94	2	2,74	1	0,59


50. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [i]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen [i] aldaerari dagokionez

[j]						
	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	59	55,66	74	83,15	83	43,46
Arnegi-La.	41	60,29	40	64,52	72	41,62
Irulegi-An.	53	61,63	38	62,3	62	46,27
Ezterenzubi	61	72,62	61	80,26	58	42,96
Hergarai	62	83,78	42	67,74	83	52,53
Gamarte-A.	76	74,51	60	82,19	17	10,06


51. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [e]→<ɛ, i, j>/[_a] bilakabidearen [j] aldaerari dagokionez




56. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [e]→<ɛ, i, j>/[_a] bilakabidearen [e] aldaerari dagokionez



57. irudia: adinaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [e]→<ɛ, i, j>/[a] bilakabidearen [ɛ] aldaerari dagokionez



58. irudia: adinaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [e]→<ɛ, i, j>/[a] bilakabidearen [i] aldaerari dagokionez



59. irudia: adinaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [e]→<e, i, j>/[a] bilakabidearen [j] aldaerari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.00729718	0.4293604	4.67508716	2.938288e-06
Arnegi-Lasako helduak	-1.19696527	1.0171930	-1.17673368	2.393018e-01
Arnegi-Lasako gazteak	-0.01287678	0.7430523	-0.01732957	9.861737e-01
Irulegi-Anhauzeko helduak	-0.34734180	1.0349482	-0.33561273	7.371629e-01
Irulegi-Anhauzeko gazteak	0.76556182	0.7370192	1.03872714	2.989317e-01
Ezterenzubiko helduak	-1.85580664	1.0242722	-1.81182963	7.001253e-02
Ezterenzubiko gazteak	-0.19112710	0.7930087	-0.24101514	8.095434e-01
Hergaraiko helduak	-1.75080474	1.0618169	-1.64887627	9.917299e-02
Hergaraiko gazteak	-0.26057209	0.8082411	-0.32239401	7.471542e-01
Gamarte-Ainhizako helduak	-2.09842666	1.1779549	-1.78141516	7.484465e-02
Gamarte-Ainhizako gazteak	-2.21523525	0.8825197	-2.51012553	1.206883e-02

52. taula: [e]→<e, i, j>/[a] bilakabidean, aldaera diptongatuen ([e] eta [j]) eta ez diptongatuen ([e] eta [i]) artean, geografiaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.2384909	0.5384417	0.4429280	0.6578177929
Arnegi-Lasako helduak	-0.9990560	1.1167136	-0.8946394	0.3709798691
Arnegi-Lasako gazteak	-1.0541740	0.9427052	-1.1182436	0.2634629833
Irulegi-Anhauzeko helduak	-2.0060161	1.1128073	-1.8026626	0.0714412131
Irulegi-Anhauzeko gazteak	-1.1141839	0.9472698	-1.1762054	0.2395127952
Ezterenzubiko helduak	-0.9582150	1.1213683	-0.8545051	0.3928251633
Ezterenzubiko gazteak	-1.5151056	0.9493963	-1.5958622	0.1105195604
Hergaraiko helduak	-2.5700048	1.1511439	-2.2325660	0.0255775764
Hergaraiko gazteak	-2.0446049	0.9864428	-2.0727051	0.0381997358
Gamarte-Ainhizako helduak	-0.8456972	1.1144372	-0.7588559	0.4479387904
Gamarte-Ainhizako gazteak	-3.5061856	0.9690144	-3.6183009	0.0002965436
53. taula: [e]→<e, i, j>/[a] bilakabidean, goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren artean, geografiaren eta adinaren elkarreaginari dagokion analisi estatistikoa				


Datu hauetan guztietan, zerbait nabarmentzekotan, Gamarte-Ainhiza eremuaren izaera berritzailea da. Gazteen artean, eremu guztietan igotzen dira anitz [e] eta [ɛ] aldaeren ehunekoak, eta [j]-renak, batez ere, apaltzen. Joera hori beste eremuetan baino handiagoa da Gamarte-Ainhizan. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira bai aldaera dipongatuen eta ez diptongatuen artean, eta baita goikoei eta artekoei dagokienez ere.

4.3.1. §-ean ikusi dugun bezala, [j] aldaeraren alde egiten dute Hergarain, eta eremu trinkoa osatzen dute, gainera. Homogeneotasun hori dela eta, eremu honetako heldu eta gazteen balioak ere estatistikoki esanguratsu dira goiko eta erdiko aldaeren arteko aldeari dagokionez.

4.3.3. Generoaren arabera

	[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	91	9,61	330	34,85	33	3,48	493	52,06
Gizonak	57	5,96	293	30,65	57	5,96	549	57,43

54. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera



60. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.39581318	0.3521650	6.80309770	1.023932e-11
Gizonak	0.06555407	0.2254353	0.29078882	7.712128e-01

55. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaera diptongatuen ([ɛ] eta [j]) eta ez diptongatuen ([e] eta [i]) arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.309701022	0.4417342	2.964907752	3.027737e-03
Gizonak	0.381054551	0.2860691	1.332036915	1.828481e-01

56. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Ikusi berri ditugun talde sozial berritzaileen joera bera dute emazteek ere, [e] eta [ɛ] aldaeren alde egiten baitute. Zernahi gisaz, gizonetik alde ez da handia, eta ez da estatistikoki esanguratsua.




61. irudia: [e]→<e, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaerei dagozkien lekuko bakoitzaren ehunekoan erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

61. irudiak erakusten digun bezala, bi generoen erdiko balioak elkarri biziki hurbil daude, eta beraz, ehunekoetan dituzten desberdintasunak beraien sakabanaketan aurki genitzake. Nagusitzen ari diren aldaeretan, emazteek sakabanaketa handiagoa dute erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren artean. Indarra galtzen ari den [j] aldaeraren kasuan, kontrakoa gertatzen da: berritzaile diren emazteek sakabanaketa handiagoa dute erdiko balioaren eta lahenbiziko kuartilaren artean.

4.3.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	59	13,26	249	55,96	5	1,12	132	29,66
Publikokoak	60	11,65	190	36,89	22	4,27	243	47,18

57. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




62. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.9235689	0.4666671	-4.1219295	3.757122e-05
Publikokoak	0.2943297	0.6072620	0.4846832	6.279011e-01

58. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

4.3.2. §-ean ikusi bezala, gazteen adin taldea biziki heterogeneoa da. Hemen eta hurrengo atalean ikusiko dugu heterogeneotasun hori zertan datzan. Ikastolakoek arteko aldaeren alde egiten dute, baina publikokoan artean, ehuneko bertsuak dituzte arteko eta goiko aldaerek. Ikastolan aise gehiago lantzen da euskara, eta logikoa da talde honetako hitzungen euskara idatziaren eragina nabariagoa izan dadin. Aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsu. Aldaera diptongatuen eta ez diptongatuen arteko aldea txikia da biziki bi taldeen artean. Analisi estatistikorik ez dugu erakutsiko modeloak ematen dizkigun singularitate arazoak direla eta.




63. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaerei dagozkien lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

[e] aldaeraren kasuan, ikastolakoek eta publikokoek erdiko balioa berdintsua da. Nagusitzen ari den [ɛ] aldaeraren kasuan, alabaina, ikastolakoek dute erdiko balio altuena. Kontrakoa gertatzen da gibelera buruz ari diren [i] eta [j] aldaeren kasuan. Publikoko lekukoek ehunekoak, lau aldaeratarik hirutan, sakabanatuago daude ikastolakoek baino. Talde heterogeneoagoa da, beraz, publikokoena.

4.3.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	[e]		[ɛ]		[i]		[j]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	62	21,6	173	60,28	3	1,05	49	17,07
Komiteetakoak	40	8,3	187	38,8	12	2,49	243	50,41
Luzaidarrak	17	8,9	79	41,36	12	6,28	83	43,46

59. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




64. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.9235689	0.4666671	-4.1219295	3.757122e-05
Komiteetakoak	1.6996379	0.6947400	2.4464373	1.442759e-02
Luzaidarrak	1.9770860	0.7975103	2.4790728	1.317244e-02

60. taula: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen goiko ([j] eta [i]) eta arteko ([ɛ] eta [e]) aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Kasu honetan ere, praktika-komunitateen arabera, azterketa zehatzagoa egin dezakegu hezkuntza-ereduaren arabera baino. Gaztetxeakoena da talderik berritzaileena, eta luzaidarrena, baina batez ere, komiteetakoena gordetzaileena. Azken bi talde hauetan, ehuneko bertsua dute goiko eta arteko aldaerek, nahiz eta komiteetakoaren artean, goikoena altuxeagoa izan. Gaztetxeakoaren artean, berriz, arteko aldaerak erabat nagusitzen dira. Kasu honetan, arteko eta goiko aldaeren arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira. Gaztetxeakoek, gainera, beste bi taldeek baino sarriago darabiltzate aldaera ez diptongatuak, bereziki [e], ez baitute ia inoiz ere erabiltzen [i]. Azken aldaera


honek Luzaiden du ehunekorik handiena. Aldaera diptongatuen eta ez diptongatuen arteko analisi estatistikoa ez dugu erakutsiko modeloak eman singularitate arazoak direla eta.



65. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen aldaerei dagozkien lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeoek dute nagusitzen ari diren [e] eta [ɛ] aldaeren erdiko baliorik altuena, luzaidarrek dute [i]-rena, eta [j]-ren kasuan, komiteetakoek erdiko balioa da besteei nagusitzen zaiena. Multzoen sakabanaketari dagokionez, [e] aldaeraren kasuan, gaztetxeoena da sakabanatuena, eta luzaidarrena [ɛ]-ren kasuan. Beste aldaeretan, ez dago alde aipagarririk.

4.3.6. Cluster analisia



66. irudia: [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabideari dagokion cluster analisia

9. multzoan, lekukoek [j] aldaeraren %75-%90 bitarteko ehunekoak dituzte gutxi gorabehera, eta [ɛ]-ren %10-%20 ingurukoak. Gainerako aldaeren ehuneko apalak dituzte biziki. Adineko batzuk eta batez ere helduak ditugu bertan. Baita Gamarteko publikoko eta komiteetako gizon gaztea ere, gordetzaile ageri zaiguna.

10. multzoan, lekukoek [j] aldaeraren %60-%70 inguruko ehunekoak dituzte, eta [ɛ]-ren %25-%35 bitartekoak. Aldaera ez diptongatuen ehuneko apalak dituzte hauek ere. Adinekoak eta helduak ditugu bertan, baina baita gazterik gordetzaileenak ere, denak komiteetakoak, Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea salbu. Azken hiztun hau euskalkia erabiltzeaz biziki kontzientziatua dago eta euskal ikasketak ere egin ditu euskararen munduan sakontzeko asmoz. Hori izan liteke gordetzaile

izatearen arrazoia. Bi multzo hauek 5. multzoa osatzen dute, eta 4.a Ezterenzubiko gizon helduarekin elkartzean. Lekuko honek [e] aldaeraren %17 inguruko ehunekoak du. Beste guztiek, aldiz, horrelako ehunekoak [ɛ] aldaeran dituzte.

6. multzoan, [j] aldaeraren %50-60 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek, eta [i] aldaerari dagokionez, aitzineko taldekoek baino ehuneko altuagoak dituzte, %10 ingurukoak. [ɛ] aldaeraren %5 eta %30 bitarteko ehunekoak dituzte. Adinekoek eta helduek osatzen dute talde hau, batez ere gizonak. Bi gazte ditugu, biak ere biziki gordetzailerak, laborantza munduari biziki lotuak daudenak: Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gaztea eta Luzaideko publikoko gizon gaztea. 6. multzoa 4. arekin elkartzen da 3. multzoa osatuz. Ondoren, Irulegiko adineko gizonarekin elkartuz, lehen multzoa osatzen du. Gizon honek [i] aldaeraren %30 inguruko ehunekoak du. Lehen multzo honetan, [j] aldaeraren alde egiten duten lekukoak ditugu, beraz.


7. multzoa aski heterogeneoa da. Barneko gaineko multzoan [ɛ] eta [j] aldaeren ehuneko bertsuak dituzten lekukoak ditugu, %30-%55 bitartekoak. Batzuetan aldaera bata nagusitzen da eta besteetan bestea. Azpiko multzoan, berriz, [ɛ]-ren ehunekoak (%60-%75) altuagoak dira [j]-renak baino (%20-%30). Komiteetakoak eta luzaidar gazteak dira 7. multzo honetan dauden lekuko gehienak, eta baita gaztetxeko bi ere: Irulegi-Anhauzeko eta Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak.

Azkenik, 8. multzoan, lekukoek [j] aldaeraren %0-%20 bitarteko ehunekoak dituzte, [ɛ] aldaeraren %50-%80 bitartekoak, eta [e] aldaeraren %20tik gorakoak. [i] aldaeraren adibide biziki gutxi edo batere ez dute. Gaztetxekoek osatzen dute multzo hau, batez ere. Azken bi multzo hauetako lekukoek [ɛ] aldaera nagusi duen 2. multzoa osatzen dute.

4.4. Goranzko *diptongoak*: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidea

[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
129	9,12	1279	90,39	4	0,28	3	0,21

61. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




67. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

[ɔ] aldaera da Garaziko hiztunek gaur egun gehien erabiltzen dutena. [o] aldaera ez diptongatuaren ehunekoa apala da biziki. Goiko aldaerak, aldiz, ia ez dira inoiz ere erabiltzen.

4.4.1. Geografiaren arabera

	[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	12	4,49	253	94,76	2	0,75	0	0
Arnegi-Lasa	32	12,17	229	87,07	1	0,38	1	0,38
Irulegi-Anhauze	18	8,07	205	91,93	0	0	0	0
Ezterenzubi	17	8,02	195	91,98	0	0	0	0
Hergarai	24	11,88	178	88,12	0	0	0	0
Gamarte-Ainhiza	26	10,48	219	88,31	1	0,4	2	0,81

62. taula: [o] → <ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




68. irudia: [o] → <ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.5984008	0.4222341	-8.522289	1.564307e-17
Arnegi-Lasa	1.2108849	0.4042051	2.995719	2.737986e-03
Irulegi-Anhauze	0.7812184	0.4338822	1.800531	7.177680e-02
Ezterenzubi	0.6301149	0.4388901	1.435701	1.510875e-01
Hergarai	1.0644569	0.4242930	2.508778	1.211496e-02
Gamarte-Ainhiza	1.0280856	0.4139408	2.483653	1.300423e-02

63. taula: [o] → <ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremu guztietan, [ɔ] da erabat nagusi den aldaera. [o] ez diptongatuaren presentzia txikiena Luzaiden dugu. Gordetzaile ageri zaigu, beraz, eremu hau. Aldaera

ez diptongatua gehien erabiltzen dutenak, berriz, arnegiarrak eta lasarrak, hergaraitarrak eta gamartear eta ainhizarrak ditugu. [e]→<ɛ, i, j>/_[a] bilakabidearen kasuan ere, [e] aldaera ez diptongatuaren aldeko agertu zaigu Arnegi-Lasa, eta berritzaile agertzen da, oro har, Ainhiza-Gamarte. Bilakabide honen kasuan ere hala da. [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldea baino ez dugu izartu estatistikoki, goiko aldaerek duten ehuneko apala dela eta. Luzaideren eta Arnegi-Lasaren, Hergaraireren eta Gamarte-Ainhizaren arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




69. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [ɔ] aldaerari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

[ɔ] aldaeraren datuak baino ez ditugu erakutsi 69. irudian, goiko aldaerek duten ehuneko apala dela eta, [o]-renak datu hauen justu aurkakoak bailirateke. Luzaidetik du erdiko baliorik altuena, eta apalena, berriz, Arnegi-Lasa eta Hergarai. Azken eremu honetan, ordea, lekukoaren ehunekoak biziki sakabanaturik daude. Gamarte-Ainhizaren erdiko balioa Ezterenzubikoarenaren eta Irulegi-Anhauzekoarenaren iduria da. Eremu honetan, hiztun gehienek ehuneko altuak dituzte, baina sakabanaketa handiagoa du minimora bitartean maximora bitartean baino, eta gainera, lekuko urrundu bat ere bada, besteei konparaturik, ehuneko apala duena. Hori dela eta, eremu honek besteek baino ehuneko apalagoa du. Berritzaile diren eremuak dira sakabanatuena. Aipagarria da, hala ere, eremu guztiak, oro har, aski trinkoak direla; beraz, ehunekoen artean alde txikia egonagatik, emaitzak estatistikoki esanguratsu dira.

4.4.2. Adinaren arabera

	[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	22	5,12	404	93,95	2	0,47	2	0,47
Helduak	23	7,08	302	92,92	0	0	0	0
Gazteak	84	12,73	573	86,82	2	0,3	1	0,15

64. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




70. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.5983364	0.4222528	-8.521759	1.571475e-17
Helduak	0.4260926	0.3475884	1.225854	2.202537e-01
Gazteak	1.0399566	0.2849107	3.650114	2.621240e-04

65. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

[o] aldaera ez diptongatuaren ehunekoa adinekoengandik helduengana zertxobait handitzen bada ere, helduengandik gazteengana hazten da gehien. Euskara idatziak edota Euskara Batuak eragin dukete aldaera ez diptongatuaren aldeko joera. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




71. irudia: [o] → <ɔ, u, w> /_[a] bilakabidearen [ɔ] aldaerari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen erdiko balioa da handiena, apalagoa helduena, eta apalagoa oraindik gazteena. Kasu honetan ere multzoak trinkoak dira, baina gazteena da sakabanatuena, eta beraz, heterogeneoena, orain arteko hizkuntza-aldagaien joerarekin bat eginez.

4.4.3. Generoaren arabera

	[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	81	11,31	630	87,99	3	0,42	2	0,28
Gizonak	48	6,87	649	92,85	1	0,14	1	0,14

66. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




72. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.5983364	0.4222528	-8.521759	1.571475e-17
Gizonak	-0.5622841	0.2231055	-2.520261	1.172677e-02

67. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak dira kasu honetan ere, berritzaileenak [o] aldaera ez diptongatuaren ehuneko altuagoa baitute. Gizonekiko aldea, gainera, estatistikoki esanguratsua da.




73. irudia: [o] → <ɔ, u, w> / _[a] bilakabidearen [ɔ] aldaerari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino apalagoa da, baina gizonen taldea sakabanatuagoa da. Bi taldeak dira, oro har, aski trinkoak.

4.4.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	39	11,24	307	88,47	0	0	1	0,29
Publikokoak	45	14,38	266	84,98	2	0,64	0	0

68. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_ [a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




74. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_ [a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.7128834	0.2219075	-7.718906	1.173323e-14
Publikokoak	0.6189600	0.3393579	1.823915	6.816495e-02

69. taula: [o]→<ɔ, u, w>/_ [a] bilakabidearen [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Esperoko genukeenaren aurka, publikokoek [o] aldaeraren ehuneko altuagoa dute ikastolakoek baino. Aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsu.




75. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/_[a] bilakabidearen [ɔ] aldaerari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

75. irudiak ematen digu publikokoaren [o] aldaeraren ehunekoa ikastolakoa baino handiagoa izatearen arrazoa. Publikokoek [ɔ] aldaeraren erdiko balio altuagoa dute ikastolakoek baino. Alabaina, sakabanaketa handiagoa dute erdiko baliotik minimora bitartean. Era berean, ikastolakoaren artean, [ɔ] aldaeraren biziki ehuneko altua duen lekuko urrundu bat dago. Horrek guztiak publikokoek ikastolakoek baino [ɔ] aldaeraren ehuneko apalagoa (eta beraz, [o]-ren ehuneko altuagoa) izatea eragiten du.

4.4.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	[o]		[ɔ]		[u]		[w]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	37	17,21	177	82,33	0	0	1	0,47
Komiteetakoak	38	12,18	274	87,82	0	0	0	0
Luzaidarrak	9	6,77	122	91,73	2	1,5	0	0

70. taula: [o]→<ɔ, u, w>/[a] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




76. irudia: [o]→<ɔ, u, w>/[a] bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.7128834	0.2219075	-7.718906	1.173323e-14
Komiteetakoak	-0.7960287	0.3578387	-2.224546	2.611174e-02
Luzaidarrak	-1.1530642	0.4289440	-2.688146	7.184996e-03

71. taula: [o]→<ɔ, u, w>/[a] bilakabidearen [o] eta [ɔ] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Gazteen artean dagoen heterogeneotasuna azaltzen digu, beste behin praktika-komunitateen arabera eginiko azterketak. Gainera, hezkuntza-ereduaren arabera eginak baino zehaztasun gehiago eskaintzen digu. Gaztetxeakoek dute aldaera ez diptongatu berriaren ehunekorik altuena. Ondotik heldu dira komiteetakoak, eta azkenik, beste behin, gordetzailen diren luzaidarrak. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.



77. irudia: [o] → <ɔ, u, w> / _[a] bilakabidearen [ɔ] aldaerari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoen erdiko balioa da apalena guztietan. Komiteetakoena eta luzaidarrena iduria da biziki. Beraz, ehunekoetan bi talde hauek duten desberdintasuna, multzoen sakabanaketan aurki genezake: komiteetakoaren multzoan sakabanaketa handiagoa da erdiko baliotik minimora bitartean, eta luzaidarren multzoan, erdiko baliotik maximora bitartean. Hala ere, hiru multzoak dira trinkoak.

4.4.6. Cluster analisia



78. irudia: [o]→<q, u, w>/_[a] bilakabideari dagokion cluster analisia

10. multzoan, lekukoek [q] aldaeraren %90-%95 bitarteko ehunekoak dituzte. Bertan ditugun lekukoak adinekoak, helduak eta komiteetako gazteak dira. Beste behin, beste kasu batzuetan ere gordetzaile agertu diren Ezterenzubi eta Irulegiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak hemen ditugu, baita Luzaideko publikoko gizon gaztea ere.

11. multzoan, berriz, %95 eta %100 bitartean erabiltzen dute [q] aldaera. Lekuko gehienak adinekoak dira, badira heldu zenbait ere, eta baita gazte gordetzaile batzuk ere: [e]→<g, i, j>/_[a] bilakabidean ere gordetzaile agertu den Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gatzetxeko gizon gaztea eta Luzaideko ikastolako gizon gaztea. Bi multzo hauek 8. multzoan elkartzen dira. Multzo honi, ondoren, Gamarteko adineko gizona elkartzen


zaio. Lekuko honek [o] aldaeraren %95,12 ehunekoak du, baina [u] aldaera ahoskatzen du %2,44an. Lekuko honekin 8. multzoak 6.a osatzen du. Ondoren gehitzen zaizkio Gamarte-Ainhizako adineko emaztea eta Arnegi-Lasako adineko gizona. Lehen lekukoak [o] aldaera %97,62 aldiz ahoskatzen du, eta [w] %2,38 aldiz. Bigarren lekukoak, berriz, [o] %87,5 aldiz ahoskatzen du eta [w] %3,12 aldiz. Bi lekuko hauekin, 5. multzoa osatzen da, [o] aldaera gehien ahoskatzen dutenena, hain zuzen ere.

9. multzoan [o] aldaeraren ehunekoak %80 eta %87 bitartekoak dira. Multzo honetako lekuko gehienak gazteak dira, gaztetxeak, komiteetakoak eta luzaidarrak. Ezterenzubiko emazte heldua eta Irulegi-Anhauzeko gizon heldua ere bertan dira. Multzo honi gehitzen zaio Arnegi-Lasako adineko emaztea, 7. multzoa osatuz. [o] aldaera darabil 81,82n, eta [u] %2,27n. 7. multzoa 5. arekin biltzen da 4.a osatuz. Azken multzo honi hiztun banakak gehitzen joaten zaizkio, multzo orokorrak sortuz. Besteengandik aparte dauden hiztunak dira: Gamarteko ikastolako eta gaztetxeak emazte gaztea, Hergaraiko gizon heldua, Gamarteko publikoko eta gaztetxeak emazte gaztea, eta azkenik, mailarik orokorrean, Luzaideko publikoko emazte gaztea. Lehenak [w] %6,67n du, bigarrenak [o] %73,33n darabil, hirugarrenak %61,29n, eta azkenik, laugarrenak [u] darabil %7,41en.

4.5. [o]→<u>/_[n] bilakabidea

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
1499	80,72	358	19,28

72. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




79. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

Bilakabide hau oraindik ere osagarri onean dago Garazin, datu hauek erakusten dutenez. [o] hegoaldeko aldaera berria, ordea, sartua da ibarrean.

4.5.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	286	79,89	72	20,11
Arnegi-Lasa	232	77,33	68	22,67
Irulegi-Anh.	225	76,01	71	23,99
Ezterenzubi	280	95,89	12	4,11
Hergarai	225	79,51	58	20,49
Gamarte-Ai.	251	76,52	77	23,48

73. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




80. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.9850489	1.1777928	-3.3834889	0.0007157111
Arnegi-Lasa	0.7679687	0.9351923	0.8211881	0.4115391494
Irulegi-Anhauze	1.0489392	0.9316551	1.1258879	0.2602129853
Ezterenzubi	-1.4206286	1.0151135	-1.3994775	0.1616698315
Hergarai	0.6274975	0.9326913	0.6727815	0.5010862801
Gamarte-Ainhiza	0.9089128	0.9188853	0.9891471	0.3225911819

74. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremu guztietan aurki genitzake ehuneko bertsuak. Denetan du bilakabide honek osagarri ona, eta %20 inguruko ehunekoan erabiltzen da [o] berria. Ezterenzubi da,

beste eremuei konparaturik, eremurik gordetzailleena. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsu.




81. irudia: [o]→<u>/_</u>[n] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko enerdiko balioak eta sakabanaketa geografian arabera

Ezterenzubiko erdiko balioa da denetan altuena. Apalenak, berriz, beste behin, berritzaile ageri diren Arnegi-Lasa eta Gamarte-Ainhizakoak dira. Eremurik gordetzailleena da denetan trinkoena, Ezterenzubi, hain zuzen ere. Sakabanatuena, berriz, Hergarai da.

4.5.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	610	85,2	106	14,8
Helduak	391	86,12	63	13,88
Gazteak	498	72,49	189	27,51

75. taula: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




82. irudia: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.9850489	1.1777928	-3.3834889	0.0007157111
Helduak	1.6629624	0.7961444	2.0887699	0.0367284424
Gazteak	2.6531933	0.7035003	3.7714176	0.0001623228

76. taula: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoengandik hasita, ez dute denek bilakabide hau sistematikoki gauzatzen, izan ere, 4.5.6.1. §-ean ikusiko dugun bezala, hitz batzuek joera handiagoa dute bilakabidea gauzatzeko beste batzuek baino. Alderik handiena helduen eta gazteen artean dago, gazteek baitute bilakabidea ez gauzatzeari dagokion [o] aldaeraren ehuneko altuena. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Beste behin, gazteek darabilten euskara idatziaren eragina aipatu ahal izango genuke, baina ez dugu ahaztu behar eremu honetan *o* beharrean, *u* idaztea oso ohikoa dela hitz jakin batzuetan; errate batera, *untsa*, *arrunt*, *nun* eta *huntan*. Ikusi dugu Lafittek ere erakusleetan eta *nun* hitzean *u* idazten zuela. Gure hipotesia da *o*-z idazten diren hitzetan ari dela galtzen gehienik. 4.5.6.1. §-ean ikusiko dugu hala den edo ez.




83. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen erdiko balioa da altuena, ondotik heldu da helduena eta bereziki apala da gazteena. Adinekoen taldea trinkoa da biziki, eta aise sakabanatuagoak dira beste biak, batez ere, gazteena; hots, berritzaileenena. Ez dago alde handirik adinekoen eta helduen erdiko balioen artean, baina helduen kasuan, sakabanaketa aise handiagoa da erdiko balioaren eta minimoaren artean. Hori dela eta, bi talde hauen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.

4.5.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	666	78,35	184	21,65
Gizonak	833	82,72	174	17,28

77. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




84. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.9850489	1.1777928	-3.3834889	0.0007157111
Gizonak	-0.6408061	0.5552936	-1.1539951	0.2485021632

78. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Generoaren arabera, aldea txikia da biziki eta ez da estatistikoki esanguratsu. Hala ere, Emazteak berritzaile ageri zaizkigu beste behin, bilakabidea gutxien gauzatzen dutenak baitira.




85. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

85. irudiak azaltzen digun bezala, emazteen erdiko balioa gizonena baino apalagoa da, eta gainera, anitzez multzo heterogeneoagoa osatzen dute emazteek gizonen konparaturik.

4.5.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	241	63,59	138	36,41
Publikokoak	257	83,44	51	16,56

79. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




86. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.4388503	1.765483	0.2485724	0.803691568
Publikokoak	0.2420529	1.060407	0.2282642	0.819440854

80. taula: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek publikokoek baino aise bakanago gauzatzen dute aztergai dugun bilakabidea. Ikastolan lantzen den euskarak badu beraz, hizkuntza-aldaera hau gibelatzean eraginik. Aldeak ez dira, hala ere, estatistikoki esanguratsuak.




87. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoaren erdiko balioa publikokoena baino anitzez apalagoa da. Ikastolakoak sakabanatuago badaude ere, ez dago bi taldeen artean alde handirik. Hala ere, argi ikusten dugu publikoko gazteek ehuneko altuak dituztela, oro har, erdiko balioa eta maximoa hurbil baitaude. Talde honetako lekukoaren ehunekoaren sakabanaketa aise handiagoa da erdiko balioaren eta minimoaren bitartean.

4.5.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	146	55,73	116	44,27
Komiteetakoak	274	83,79	53	16,21
Luzaidarrak	78	79,59	20	20,41

81. taula: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




88. irudia: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.4388503	1.765483	0.2485724	0.803691568
Komiteetakoak	-2.7243191	1.199102	-2.2719652	0.023088610
Luzaidarrak	-3.5377927	1.368823	-2.5845516	0.009750572

82. taula: [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Praktika-komunitateek, hezkuntza-ereduak baino analisi zehatzagoa egitea ahalbidetzen digute. Gazteen taldeak duen sakabanaketa ulertzeko ere balio digute. Gaztetxeakoak dira denetan berritzaileenak, alde handiarekin, gainera. Bilakabidea ez gauzatzearen ehunekoa ia gauzatzearenaren parera heltzen da. Ondotik heldu dira luzaidarrak, eta azkenik, komiteetakoak, gordetzaileenak direnak. Azken bi taldeen ehunekoak bertsuak dira. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira




89. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Erdiko baliorik apalena gaztetxeak dute. Gero heldu dira luzaidarrak, eta azkenik komiteetakoak. Azken bi taldeen erdiko balioak ez daude elkarrengandik biziki urrun. Luzaidarren multzoa oso trinkoa da. Sakabanatuagoa da gaztetxeakoa, baina komiteetako lekukoaren ehunekoak dira denetan sakabanatuen daudenak. Azken hau dugu, beraz, talderik heterogeneoa.

4.5.6. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Nun	533	99,81	1	0,19
Erakuslea	451	95,35	22	4,65
Hun	207	56,4	160	43,6
Kundatu	29	24,58	89	75,42
Hundar	93	85,32	16	14,68
Besteak	186	80,01	70	19,99

83. taula: [o]→<u>/[_n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hitzaren arabera




90. irudia: [o]→<u>/[_n] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hitzaren arabera

Hitz bakoitzaren arabera, bilakabidea gauzatzean edo ez gauzatzean alde handia dagoela dakusagu. *Nun* hitzean, eta 1. graduko erakuslearen gainean eraikitako formetan ia beti dugu [u]. Hauek dira tradizio idatzian *u-z* idazten direnak, eta hedadura zabalena dutenak. *Hundar* hitzean ere osagarri ona du bilakabideak. *Hun* eta *kundatu*-ri dagokienez, berriz, joera erabat alderantzizkoa da.

4.5.6.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Nun	158	99,37	128	100	247	100
Erakuslea	190	96,45	120	96	141	93,38
Hun	109	75,69	33	61,11	65	38,46
Kundatu	17	44,74	10	40	2	3,64
Hundar	34	79,07	39	86,67	20	95,24
Besteak	102	89,8	61	77,62	23	60,86

84. taula: hitzaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [o]→<u>/[_n] bilakabidea gauzatzeari dagokionez




91. irudia: hitzaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [o]→<u>/[_n] bilakabidea gauzatzeari dagokionez

Nun eta lehen graduko erakuslearen gainean eraikitako formetan apenas dagoen adinaren arabera alderik. Gazteek ere bilakabidea ia beti gauzatzen dute hitz horietan. Eredu idatzi nafar-lapurarrak hitz hauetan bilakabidea mantentzen lagundu du, dudarik gabe. *Hun* eta *kundatu*-ren ehunekoak anitz apaltzen dira belaunaldi batetik bestera, batez ere, *kundatu*-renak. *Hundar*-enak igo egiten direla erakusten digu 91. irudiak, baina kontuan izan behar dugu gazteek bakan erabiltzen dutela hitz hau, horren ordez, *azken* erabiltzen baitute. *Hundar* erabiltzen dutenak, beraz, gazterik gordetzaileenak dira. Gordetzaile direnez, [u]-ren alde egiten dute, eta horregatik igotzen da hitz honetan [u]-ren ehunekoa.

4.5.6.2. *Kundatu* hitzaren eta geografiaren arteko elkarreragina

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	0	0	18	100
Arnegi-Lasa	0	0	17	100
Irulegi-Anh.	1	6,25	15	93,75
Ezterenzubi	9	90	1	10
Hergarai	6	26,09	17	73,91
Gamarte-Ai.	13	38,24	21	61,76


85. taula: *kundatu* hitzaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzeari dagokionez



92. irudia: *kundatu* hitzaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [o]→<u>/_ [n] bilakabidea gauzatzeari dagokionez

Erran dugu bilakabide honen sistematikotasuna handitu egiten dela Euskal Herriko ipar-mendebaldetik ipar-ekialdera goazen ber. *Kundatu* hitzak ere hori erakusten du; izan ere Garazi mendebaldean [o]-rekin ahoskatzen da beti. Bizkitartean, ibarraren ekialdean [u]-dun aldaerak ageri dira, batez ere, izaera gordetzailea duen Ezterenzubi herrian. Hergarai eta Gamarte-Ainhizan [o]-dun aldaerak hartzen dio gaina, gaur egun, [u]-dunari.

4.5.7. Cluster analisia



92. irudia: [o]→<u>/_[n] bilakabideari dagokion cluster analisia

4. multzoan %55-%70 bitartean gauzatzen dute lekukoek bilakabidea. Berritzaile ageri diren Arnegi-Lasako emazte heldua eta Luzaideko adineko emaztea multzo honetan ditugu. Beste guztiak gazteak dira.

%70-%77 artean gauzatzen dute bilakabide hau 5. multzokoek. Lau gazte eta lau helduz osatua dago. 4. multzoarekin elkartzean, 2. multzoa osatzen dute.

6. multzokoek %38-%50 bitartean gauzatzen dute bilakabidea. Gaztetxeko hiru gaztez, berritzaile den Irulegi-Anhauzeko emazte helduaz eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonaz osatua dago multzo hau. Gure buruari galdetzen diogu Luzaideko adineko emazteak eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak bilakabidea hain ehuneko

apaletan gauzatzearen arrazoa, oro har, berritzaile izatea ote den, edota geografikoki Garazi ibarraren mendebaldeko muturrean egoteak baduen eraginik. Ez dugu lehen aukeraren alde egiten, beste hizkuntza-aldagai batzuen kasuan hiztun hauek ez baitira bereziki berritzaile ageri. Bigarren hipotesia frogatzeko, ordea, mendebaldeko ibarretako euskararen berri zehatza izan beharko genuke. 6. eta 2. multzoek elkarrekin, lehen multzoa osatzen dute, bilakabidea ehuneko apalenean gauzatzen dutenena.

9. multzoan %85-%90 bitartean gauzatzen dute lekukoek aztergai dugun bilakabidea. Arnegi-Lasa eta Gamarte-Ainhizako adineko gizonak ditugu multzo honetan, baita Ezterenzubiko gizon heldua eta Gamarte-Ainhizako emazte heldua ere. Gainerako denak komiteetako gazteak dira. Multzo honi Luzaideko ikastolako gizon gaztea, Luzaideko adineko gizona eta Irulegiko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea gehitzen zaizkio eta 7. multzoa osatzen da. Azken hauek %82-%85 bitartean gauzatzen dute bilakabidea.


%95 eta %100 bitartean gauzatzen dute bilakabidea 10. multzokoek, multzorik gordetzaileena dugu, beraz. Adinekoak, Luzaideko gizon heldua, beste behin gordetzaile den Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gaztea, eta Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea ditugu. Azken hiztun hau berritzaile agertu zaigu beste hizkuntza-aldagai batzuetan. Kasu honetan, gordetzaile izatearen arrazoa genuke, erabiltzen dituen hitz guztiak bilakabidea beti edo ia beti gauzatzearen aldekoak direla.

Azkenik, 11. multzoan, bilakabidea %90-%95en gauzatzen dute. Multzo hau batez ere helduek osatzen dute, baita Irulegi-Anhauze eta Gamarteko adineko emazteek, eta beste behin, gordetzaile ageri den Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak ere. 10 eta 11. multzoak 8. multzoan elkartzen dira. Era berean, 8. eta 7. multzoek bilakabide hau gehien gauzatzen duen 3. multzoa osatzen dute. 3. multzoa bilakabidea gutxiagotan gauzatzen dutenen lehen multzoa baino homogeneoagoa da, azpimultzoak lehenago elkartzen baitira.

4.6. Dardarkariak

Hobikari		Ubular	
Kop.	%	Kop.	%
2978	29,89	6986	70,11

86. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehuneko orokorrak




93. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehuneko orokorrak

Dardarkari ubularrak dira Garazin XXI. mende hasiera honetan nagusitu direnak. Hobikarien presentzia, hala ere, ez da txikia, %30era heltzen baitira ia-ia.

4.6.1. Geografiaren arabera

	Hobikari		Ubular	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	1497	100	0	0
Arnegi-Lasa	409	22,84	1382	77,16
Irulegi-Anh.	402	27,33	1069	72,67
Ezterenzubi	28	1,64	1678	98,36
Hergarai	166	9,88	1514	90,12
Gamarte-Ai.	476	26,17	1343	73,83

87. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



94. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehunekoak geografiaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-9.5696484	3.293263	-2.90582550	3.662857e-03
Irulegi-Anhauze	5.6711345	3.856695	1.47046505	1.414358e-01
Ezterenzubi	5.0472069	3.509227	1.43826737	1.503582e-01
Hergarai	3.0592795	3.838341	0.79703169	4.254326e-01
Gamarte-Ainhiza	0.1726489	2.985432	0.05783045	9.538837e-01

88. taula: dardarkari hobikari eta ubularren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin Luzaide eremuarekin, bariazio falta dagoelako (aldaera hobikaria erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, luzaidarren taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Azpimarragarria da Luzaide eta beste eremuen artean dagoen aldea. Gainerako eremuetan frantsesaren eraginez hedatzen ari den aldaera ubularra hobikariari erabat nagusitu bazaio ere, ez dugu ubularraren adibide bakar bat ere Luzaiden. Frantsesak izan du historikoki Luzaideko mintzoan eraginik, batez ere lexikoan, baina XX. mendean zehar hasi, eta XXI.aren hasiera honetan burura heltzen ari den aldaketa honen kasuan ez da hala izan. Hain zuzen ere, muga politikoa hizkuntza-muga zurrun bihurtu da frantsesaren eragin honendako. Horrek erran nahi luke Luzaidek ez duela garai batean zuen bezainbeste kontaktu Garazi ibarrarekin. Gaztelaniaren presentzia ere izugarri handitu da azken urteetan herrian, eta horrek ere geldiarazi du frantsesaren eragina.

Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze eta Gamarte-Ainhizan dardarkari hobikariaren ehuneko bertsuak ditugu, eta apalena Hergarain, eta batez ere Ezterenzubin ditugu. Gordetzaile agertu da Ezterenzubi orain arteko datuetan, baina kasu honetan berritzaile ageri da. 4.6.2.1. §-ean eskainiko diogu afera honi arreta handiagoa. Luzaide ez beste eremuen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsu.



95. irudia: dardarkari hobikariaren lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera


95. irudia bitxi ageri zaigu orain arte ikusi ditugunei konparatuta. Horren arrazoia bi aldaerak batera erabiltzen duen hiztunik ia ez gotea da. Ia denek erabiltzen dute dardarkari hobikaria edo ubularra, baina biziki bakan biak batera. Hori dela eta, Luzaideko balio guztiak %100en ditugu. Gainerako eremuen kasuan, %0-ren inguruan biltzen dira hiztun gehienak, baina badira lekuko urrunduak, aldaera hobikaria

darabilten adinekoak, hain zuzen ere. Bi adinekoek aldaera hobikaria erabiltzen dutelarik, hirugarren kuartila %25eko mailara hurbiltzen da. Ikus litekeen bezala, Ezterenzubiko eta Irulegi-Anhauzeko adineko banak nahasian darabiltzate bi aldaerak. Irulegi-Anhauzekoak hobikaria darabil batez ere, eta Ezterenzubikoak ubularra.

4.6.2. Adinaren arabera

	Hobikari		Ubular	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1868	69,13	834	30,87
Helduak	437	18,01	1989	81,99
Gazteak	673	13,92	4163	86,08

89. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



96. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehunekoak adinaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-9.5696484	3.293263	-2.90582550	3.662857e-03
Helduak	13.4065593	3.419230	3.92092899	8.820825e-05
Gazteak	20.4763364	3.972213	5.15489444	2.537738e-07

90. taula: dardarkari hobikari eta ubularren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen artean, oraindik ere aldaera hobikaria nagusitzen da argiki. Helduengana jauzi eginez gero, ordea, egoera erabat *uzkailtzen* da eta hobikariak hartzen du nagusitasun osoa. Gazteen kasuan, helduen egoera bertsua dugu. Hobikaria

darabilten gazte guztiak luzaidarrak dira. Helduen kasuan ere, ia denak luzaidarrak dira, baina gainerako eremuetako helduek inoiz aldaera hobikariren bat ahoskatzen dute. Horregatik da helduen ehunekoa zertxobait goragoa. Eten garbia ageri da, kasu honetan, adinekoen eta helduen belaunaldiaren artean. Helduen belaunaldian hasi da, batez ere, eskola indarra hartzen. Ordura arte, adinekoek ez zuten urte anitz egiten eskolan, eta adineko hauen aitzineko belaunaldiko anitz ez ziren batere ibiliak eta doi-doia zekiten frantsesez mintzatzen.

Luzaidarrak ez beste lekuko kasuan, belaunaldi batetik besterako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




97. irudia: dardarkari hobikarien lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

97. irudiak ere muturreko balioak erakusten dizkigu. Helduen eta gazteen ehunekoak %0ren inguruan biltzen dira, eta %100 duten lekuko urrundak luzaidarrak dira. Adinekoak, berriz, %100en inguruan biltzen dira, baina %0 duten lekukoak eta bi aldaerak darabiltzaten bi lekuko ere badirenez, lehen kuartila %75etik behera kokatzen da.

4.6.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	409	100	416	100	672	100
Arnegi-La.	407	100	2	0,5	0	0
Irulegi-An.	402	95,04	0	0	0	0
Ezterenzubi	24	4,46	3	0,73	1	0,13
Hergarai	162	35,14	4	1,09	0	0
Gamarte-A.	464	100	12	2,7	0	0

91. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak dardarkari hobikarietan



98. irudia: adinaren eta geografiaren arteko elkarreraginaren ehunekoak dardarkari hobikarietan

Analisi estatistikokorik ez dugu hona ekarriko modeloak eman konbergentzia arazoak direla eta.

Atal honetako datuei esker, hizkuntza-aldagai honen bilakaera zehatzago uler dezakegu. Luzaide, Arnegi-Lasa eta Gamarte-Ainhizako adinekoek %100en darabilte aldaera hobikaria. Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak ubular zenbait ditu, eta horregatik jaisten da pixka bat erermu honetako ehunekoa. Hergarairen kasuan, adineko emazteak baizik ez du aldaera hobikaria erabiltzen, eta Ezterenzubiren kasuan, bi aldinekoen artean, ubularra nagusi bada ere, adineko emazteak hobikari batzuk ahoskatzen ditu. Adin talde bakoitzean, eremuko bi lekuko baino ez ditugunez, ez ditzakegu datuak joera orokortzat har, batez ere, lekukoek beti aldaera bat edo bestea

erabiltzen baitute. Beraz, elkarrizketatzen den lekukoaren arabera, beti ubularra jaso dezakegu edo beti hobikaria. Hots, arriskutsua litzateke Ezterenzubiko adinekoak dardarkariei dagokienez, berritzaile direla erratea. Hori baieztatzeko, anitzez lekuko gehiagoren informazioa beharko genuke. 4.6.2. §-ean ikusi dugun bezala, helduen kasuan, aldaera hobikaria erabiltzen dute %100en Luzaideko helduek, baina gainerako eremuetan ere badugu adibideren bat edo beste. Gazteen kasuan, banaketa erabatekoa da: %100 hobikari Luzaiden vs. ia %100 ubular gainerako eremuetan.


Datu hauek ikusita, dardarkarien hizkuntza-aldagaiak Garaziko estratifikazio soziolinguistikoa azaltzeko berebiziko garrantzia duela iruditzen zaigu. Maiztasun biziki handia dute, eta jada aipatu dugun moduan, lekukoek beti aldaera bat edo beti bestea erabiltzen dute. Mugatik iparraldeko hiztun heldu eta gazteendako ezohikoa da norbaitek beti dardarkari hobikaria ahoskatzea, beraiek beti ubularra erabiltzen baitute. Gauza bera gertatzen da mugatik hegoaldera, baina kontrako zentzuan. Beraz, beti ubularra erabiltzen duten talde sozialen artean, aldaera hobikariak trantsizio probabilitate apala izanen du eta kognitiboki deigarria edo *salient* izanen da; baita aldaera ubularra ere, beti hobikaria erabiltzen dutenen artean. Aldaera bakoitza talde sozial jakin batekin lotzen denez gero, sozialki ere deigarri edo *salient* bihurtu dira, Labov-en terminologia erabiliz gero, *markatzaile*. Hain zuzen ere, Garaziko belaunaldi gazteenentzat, ubularra darabilena iparraldekoa da, eta hobikaria darabilena, berriz, hegoaldekoa. Hala frogatu ahal izan dugu 5.3. eta 5.4. §-etan, Luzaide ez beste eremuetako gazteek, adinekoek ez bezala, hobikaria erabiltzen duten luzaidar hiztun guztiak, adinekoa barne, mugaz bestalde kokatu baitituzte kasurik gehienetan. Luzaidar gehienek, berriz, ubularra darabilten gainerako garaztarrak mugatik iparraldekoak direla erran dute; ez ordea, hobikaria darabilena. Kokapen horren zergatiaz galdetu diegunean, “erreengatik” dela ihardetsi digute, usu. Iparralde nahiz Hegoaldeko gazte batzuekin dardarkarien gaiaz izan ditugun solasaldiek ere, dardarkari ubularra, gaur egun, Iparraldeko izatearen *shibboleth*-tzat hartzen dela pentsatzera garamatzate.³¹ Gauza bera gertatzen da dardarkari hobikariarekin Hegoaldean.

³¹ Honela definitzen dute Chambers eta Trudgille (1998 [1980]: 13) *Shibboleth* kontzeptua: “The word *shibboleth* has entered English and many other languages with the meaning ‘test word’ or more generally ‘a distinguishing trait’. A more recent (and less fatal) example: United States customs officers are said to identify Canadians crossing the border by their use of *eh* in sentences like, ‘Let’s hope we have this kind of weather all the way to Florida, eh?’”.

4.6.3. Generoaren arabera

	Hobikari		Ubular	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1731	34,67	3262	65,33
Gizonak	1247	25,09	3724	74,91

92. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




99. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-9.5696484	3.293263	-2.90582550	3.662857e-03
Gizonak	1.0281928	2.246659	0.45765413	6.472009e-01

93. taula: dardarkari hobikari eta ubularren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Kasu honetan, emazteak gordetzaile ageri zaizkigu, aldaera hobikariaren ehuneko altuagoa baitute gizonak baino. Aldea, ordea, ez da estatistikoki esanguratsua.




100. irudia: dardarkari hobikarien lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

100. irudiak erakusten digun bezala, bi generoetan, lekuko gehienek aldaera hobikariaren adibiderik ez dute edo biziki gutxi dituzte. Badira batzuk, ordea, beti hobikaria darabiltenak, batez ere emazteak.

4.6.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1128	83,49	207	17,91	396	15,93
Gizonak	740	54,77	230	18,11	277	11,79

94. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak dardarkari hobikarrietan



101. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak dardarkari hobikarrietan

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-11.1207323	3.472854	-3.2021882	1.363878e-03
Gizon helduak	-8.8197266	4.870683	-1.8107783	7.017517e-02
Gizon gazteak	-17.7819856	14.680249	-1.2112864	2.257857e-01


95. taula: dardarkarrietan generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Aldaera hobikaria erabiltzen duten heldu ia guztiak eta gazte guztiak luzaidarrak direnez, ez dago alderik generoaren arabera adin talde horietan. Emazteak gordetzaile ageri dira, alabaina, adinekoen kasuan, Euskal Herrian eta landa-eremuko gizarteetan adineko emazteak gordetzaile izaten direla dioen hipotesiarekin bat eginaz. Aldeak ez dira, hala ere, estatistikoki esanguratsuak.

4.6.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Hobikari		Ubular	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	348	15,14	1951	84,86
Publikokoak	325	12,81	2212	87,19

96. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




102. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

Hezkuntza-ereduaren arabera, azterketak ez digu deus azaltzen. Aldaera hobikaria erabiltzen duten ikastolakoak nahiz publikokoak, denak luzaidarrak dira. Luzaidarren daturik gabe, analisi estatistikoa egiteak ez du zentzurik, gainerako garaztar gazteek beti aldaera ubularra baitarabilte. Arrazoi beragatik, ez dugu lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa erakusten dituen irudirik hona ekarriko.

4.6.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera


	Hobikari		Ubular	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	0	0	1595	100
Komiteetakoak	1	0,04	2568	99,96
Luzaidarrak	672	100	0	0

97. taula: dardarkari hobikari eta ubularren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



103. irudia: dardarkari hobikari eta ubularren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera


Aldea erabatekoa da, gaztetxeakoek eta komiteetakoek beti baitarabilte aldaera ubularra, eta luzaidarrek, berriz, hobikaria. Datu hauek 4.6.2.1. §-ean erran duguna berrestera garamatzate. Análisi estatistikoa kasu honetan egiteak ere ez du zentzurik, beren baitan aldakortasunik ez duten hiru multzoren aitzinean baikaude.



104. irudia: dardarkari hobikarien lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

104. irudian ere, gaztetxeakoak eta komiteetakoak vs. luzaidarrak taldeen artean dagoen erabateko aldea ikusten dugu beste behin.

4.6.6. Cluster analisia



105. irudia: dardarkariei dagokien cluster analisia

Gaineko multzoan aldaera hobikaria darabilten lekukoak ditugu: luzaidarrak, Arnegi-Lasa eta Gamarte-Ainhizako adinekoak eta Irulegi-Anhauzeko eta Hergaraiko adineko emazteak. Ondoren elkartzen zaie Irulegi-Anhauzeko adineko gizona. Ia beti hobikaria badarabil ere, noizean behin ubularrak ere ahoskatzen ditu.


Azpiko multzoan, berriz, beti edo ia beti aldaera ubularra erabiltzen duten lekukoak ditugu. Multzo zabal eta oinarrizkoenean ubularra % 100en erabiltzen dutenak ditugu: Luzaide ez beste eremuetako gazteak eta helduak denak, eta baita Ezterenzubiko adineko gizona ere. Ondoren aldaera hobikariaren adibideren bat edo beste dutenak gehitzen zaizkie: helduak ia denak, Hergaraiko adineko gizona eta Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea. Maila goragoan gehitzen zaio multzo honi

Gamarte-Ainhizako gizon heldua, hobikariaren adibide gehiago baititu. Azkenik, Ezterenzubiko adineko emaztea elkartzen da, ubularra nagusi izan arren, hobikariaren adibide gehien duen lekukoa baita.

4.7. [t]→<t̥>/_[i, j] bilakabidea

Apikari		Lepokari	
Kop.	%	Kop.	%
2257	89,03	278	10,97

98. taula: [t]→<t̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




106. irudia: [t]→<t̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

Aldaera apikaria da oraindik ere Garazin ia erabat nagusi dena. Frantsesaren eraginez hedatzen ari den aldaera lepokaria, ordea, sartzen hasia da bertako mintzoan.

4.7.1. Geografiaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	456	100	0	0
Arnegi-Lasa	428	88,07	58	11,93
Irulegi-Anh.	335	82,72	70	17,28
Ezterenzubi	385	93	29	7
Hergarai	296	82,22	64	17,78
Gamarte-Ai.	357	86,23	57	13,77

99. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




107. irudia: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.8488393	1.5145611	-4.5219960	6.125922e-06
Irulegi-Anhauze	0.2932891	1.0886320	0.2694107	7.876137e-01
Ezterenzubi	-0.6231217	1.1215892	-0.5555703	5.785046e-01
Hergarai	0.7924897	1.0817303	0.7326130	4.637945e-01
Gamarte-Ainhiza	0.8543002	1.0917743	0.7824880	4.339279e-01

100. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin Luzaide eremuarekin, bariazio falta dagoelako (aldaera apikaria erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, luzaidarren taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Dardarkarien kasuan bezalaxe, bilakabide honen kasuan ere, Luzaide eta beste eremuen arteko muga politikoa hizkuntza-muga bihurtu da azken hamarkadetan Iparraldean zehar, frantsesaren eraginez nagusitzen ari den aldaera lepokariarendako, ez baitugu ale bakar bat ere aurkitu bertan. Beste eremuei dagokienez, ez dago ehunekoetan batetik bestera alde nabarmenik. Ereku gordetzaileena, beste behin, Ezterenzubi dugu, eta berritzaileenak, berriz, Irulegi-Anhauze eta Hergarai. Luzaide ez beste eremuen arteko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




108. irudia: [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa geografien arabera

108. irudian ikus dezakegunez, % 100i hurbiltzen zaizkio eremu guztietako aldaera apikariaren erdiko balioak. Arnegi-Lasakoa, ordea, besteak baino apalagoa da. Luzaide ez beste eremuei dagokienez, eremurik gordetzaileena da trinkoena, Ezterenzubi hain zuzen ere. Berritzaileenak dira sakabanatuena: Arnegi-Lasa, eta batez ere Irulegi-Anhauze.

4.7.2. Adinaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	713	99,86	1	0,14
Helduak	661	93,36	47	6,64
Gazteak	883	79,34	230	20,66

101. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




109. irudia: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.8488393	1.5145611	-4.5219960	6.125922e-06
Helduak	4.1206184	1.4375244	2.8664684	4.150796e-03
Gazteak	6.1924742	1.3678599	4.5271262	5.979124e-06

102. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Datuek adierazten digutenez, adinekoek ia %100en erabiltzen dute aldaera apikaria. Helduengan hasten da sartzen frantsesaren eraginez hedatzen ari den aldaera lepokaria, aski ehuneko apalean, hala ere. Helduengandik gazteengana, ordea, lepokariaren ehunekoa ia hirukoiztu egiten da. Hiru belaunaldietan apikariak nagusi badira ere, belaunaldi batetik bestera lepokarien ehunekoa hazten doa. Adin taldeen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




110. irudia: [t̪]→<t̪>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen eta helduen erdiko balioa biziki iduria da, baina bigarrenen taldea sakabanatuagoa da. Gazteen erdiko balioa besteena baino apalxegoa da, baina taldearen sakabanaketa da egiazki handitzen dena. Izugarri multzo heterogeneoa da gazteena, ia %0tik %100era bitarteko apikarien ehunekoak baitituzte adin talde honetako lekukoek.

4.7.3. Generoaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	889	79,45	230	20,55
Gizonak	1368	96,61	48	3,39

103. taula: [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




111. irudia: [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.8488393	1.5145611	-4.5219960	6.125922e-06
Gizonak	-2.7991437	0.7034976	-3.9788958	6.923607e-05

104. taula: [t]→<t>/[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Alde handia dago emazteengandik gizonengana. Gizonen lepokarien ehunekoa biziki apala bada ere, %20ko langa gainditzen du emazteengan. Emazteak berritzaile dira, beraz, baina areago, gaude hizkuntza-aldaera hau, Garazin bederen, feminitatearen markatzaile ere ez ote den. Hizkuntza-jarreraren inguruko azterketa zehatzagoa egin behar genuke, zernahi gisaz, hipotesi hau frogatzeko. Aldea estatistikoki esanguratsua da.




112. irudia: [t] → <ɰ> / [i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Gizonen aldaera apikariaren erdiko balioa %100en dago, sakabanaketa biziki txikia dute, baina lekuko urrundu ugari daude. Emazteen erdiko balioak, apalagoa izanagatik, ehuneko biziki altua du, baina oso talde sakabanatua da beraiena, beste muturreraino, hots, %0raino heltzen baita.

4.7.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	358	100	249	84,98	282	60,26
Gizonak	355	99,72	412	99,28	601	93,18

105. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [t]→<t>/_ [i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagokionez



113. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [t]→<t>/_ [i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagokionez


Analisi estatistikokorik ez dugu hona ekarriko modeloak eman konbergentzia arazoak direla eta.

Adinekoetan, generoaren arabeko bariazioa hutsala da. Helduei dagokienez, aldaera leporari ia guztiak, guztiak ez esateko, emazteek emanak dira. Generoaren arabera, aldea oraindik ere handiagoa da gazteen kasuan. Gizonen aldaera apikariaren ehunekoa pixka bat jaisten da, baina emazteena aise gehiago, %60,26ra, hain zuzen ere. Adin talde bakoitzeko datuok ere aldaera leporariak emazteekin duen lotura estua frogatzen digute.

4.7.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	409	73,56	147	26,44
Publikokoak	474	85,1	83	14,9

106. taula: [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




114. irudia: [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.4390108	0.8805213	-0.4985805	0.6180749
Publikokoak	-1.4423962	1.3819210	-1.0437616	0.2965957

107. taula: [t]→<t>/[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek publikokoek baino aldaera lepokariaren adibide aise gehiago dituzte. Aldea ez da, ordea, estatistikoki esanguratsua. Kontraerrana dirudi euskara gehien lantzen duen taldea izatea frantsesaren eraginez hedaturiko aldaera hau gehien erabiltzen duena. Ikastolakoak, ordea, iparraldean zehar gehiago mugitzen dira eta beste eskualde batzuetako jendearekin ere harreman gehiago dute; besteak beste, kolegiara ibarretik kanpo joan beharra baitute Larzabale edo Kanbora. Zer erranik ez, ondoren, Baionako Etxepare lizeora joaten badira. Publikokoak, berriz, etxeko inguruari eta ibarrari lotuago daude, oro har; besteak beste, ibarrean berean ikasteko duten

aukeragatik. Mugikortasun handiagoagatik da indartsuagoa, gure ustez, frantsesaren eragin hau ikastolakoengan.




115. irudia: [t]→<t̥>/[_i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

115. irudian ikusten dugunez, ikastolakoaren erdiko balioa aise apalagoa da komiteetakoena baino. Gainera, erdiko balioaren eta minimoaren arteko sakabanaketa ere handiagoa da ikastolakoaren kasuan.

4.7.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	214	64,26	119	35,74
Komiteetakoak	464	80,7	111	19,3
Luzaidarrak	205	100	0	0

108. taula: [t]→<t>/[_i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




116. irudia: [t]→<t>/[_i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.4390108	0.8805213	-0.4985805	0.6180749
Komiteetakoak	-0.9884723	1.3985132	-0.7068023	0.4796893

109. taula: [t]→<t>/[_i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

4.7.1. §-ean ikusi bezala, luzaidarrek ez dute aldaera lepokariaren alerik ere. Gaztetxeakoak dira beste behin hedatzen ari den aldaera berriaren alde gehien egiten dutenak. Talde honen eta komiteetakoaren arteko aldea ikastolakoaren eta publikokoaren artekoa baino handiagoa da ehunekoaren aldetik, baina P. balio handiagoa du. Ikastolakoaren inguruan erran dugunak are gehiago balio du gaztetxeakoendako. Nafarroa-Behere eta Lapurdin edota Iparralde osoan dute talde honetakoek beraien lagun sarea, eta eremu horretan hara-hona ibiltzen dira besten egiteko tenorean ere. 2.3.3.3. §-ean ikusi dugun bezala, sare sozial zabalenak eta kanpo-lotura gehien dituztenak dira

berrikuntzak hedatzen hasten direnak, eta horrelakoxea da gaztetxeoen praktika-komunitatea. Horregatik dira gaztetxeoak frantsesetik heldu den eragin honetan ere berritzaile.




117. irudia: [t̥]→<t̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarrek %100en dabilte aldaera apikaria. Komiteetakoak erdiko balioa ere %100etik hurbil dago. Gaztetxeoena, aldiz, aise apalagoa da. Beste behin ere, gaztetxeoen multzoa trinkoagoa da komiteetakoena baino. Bigarren talde hau da, beraz, heterogeneoena.

4.7.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
[i] aitzin	1444	89,3	173	10,7
[j] aitzin	813	88,56	105	11,44

110. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera




118. irudia: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.8488393	1.5145611	-4.5219960	6.125922e-06
[j] aitzin	0.3491197	0.1940637	1.7989957	7.201936e-02

111. taula: [t]→<t>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera

Gure hasierako hipotesiaren aurka, testuinguru fonikoak ez du eraginik aldaera bat edo bestea ahoskatzean. Ehunekoetan ez dago ia alderik, eta estatistikoki ere aldea ez da esanguratsua.

4.7.7. Cluster analisia



119. irudia: [t]→<t>/_ [i, j] bilakabideari dagokion cluster analisia

1. multzoaren azpiko multzoan aldaera apikaria % 100en erabiltzen dute lekukoek. Adineko ia guztiak, helduak eta Luzaideko gazteak ditugu bertan. Baita Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gazteak eta Arnegiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea ere. Ia %100en erabiltzen dute apikaria 1. multzoaren gaineko multzokoek. Bertan ditugu Hergaraiko adineko gizona, Gamarte eta Ezterenzubiko gizon helduak eta Irulegi-Anhauze eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak.

Ondoren, lau gazte gehitzen zaizkio lehen multzoari, 2.a osatuz. %90-%97 bitartean erabiltzen dute aldaera apikaria. Jarraian, Arnegi-Lasa, Ezterenzubi eta Hergaraiko emazte helduak, Arnegiko ikastolako eta gatzetxeko emazte gaztea eta

Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizona gehitzen zaizkio 2. multzoari, 3.a osatuz. %77-%85 bitartean erabiltzen dute aldaera apikaria.


4. multzoa gaztez osatua dago, eta bertan dugu berritzaile den Irulegi-Anhauzeko emazte heldua ere. %50-%65en darabilte aldaera apikaria. 3. multzoari elkartzen zaio 4. hau, 6.a sortuz.

Ikusten dugunez, multzo handiena aldaera apikaria beti erabiltzen dutenena da. Hortik goiti, multzo orokorrakoak sortuz, hiztun talde txikiak gehitzen eta gehitzen joaten dira. Horretan azkenak 5. multzokoak dira. %22tik beherako ehunekoa dute hauek. Multzo honetan ditugu Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea, Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea eta Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea.

4.8. [d]→<d̥>/_[i, j] bilakabidea

Apikari		Lepokari	
Kop.	%	Kop.	%
2303	95,76	102	4,24

112. taula: [d]→<d̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




120. irudia: [d]→<d̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

[t]→<t̥>/_[i, j] bilakabideari konparatuta, [d]→<d̥>/_[i, j] bilakabide honetan, aldaera lepokaria ehuneko apalagoan erabiltzen da Garazin.

4.8.1. Geografiaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	478	100	0	0
Arnegi-Lasa	344	95,03	18	4,97
Irulegi-Anh.	330	97,63	8	2,37
Ezterenzubi	466	98,31	8	1,69
Hergarai	337	91,58	31	8,42
Gamarte-Ai.	348	90,39	37	9,61

113. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




121. irudia: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.33766352	1.8060258	-4.0628785	4.847127e-05
Irulegi-Anhauze	0.14825631	1.3870699	0.1068845	9.148806e-01
Ezterenzubi	-0.51633509	1.4152599	-0.3648341	7.152352e-01
Hergarai	0.04305241	1.4014408	0.0307201	9.754928e-01
Gamarte-Ainhiza	1.50011455	1.3098539	1.1452533	2.521042e-01

114. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin Luzaide eremuarekin bariazio falta dagoelako (aldaera apikaria erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, luzaidarren taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

[t]→<ɰ>/_[i, j] bilakabidearen kasuan bezalaxe, ez dugu aldaera lepokaririk Luzaiden; beraz, muga politikoa harresi izan da aldaera hau hedatzeko tenorean. Gainerakoan, Ezterenzubi da kasu honetan ere eremurik gordetzaileena. Berritzaileenak Hergarai eta Gamarte-Ainhiza dira. Azken eremu hau berritzaile agertu zaigu beste hizkuntza-aldagai batzuen kasuan ere. Luzaide ez beste eremuen arteko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




122. irudia: [d]→<ɰ>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztien erdiko balioak %100ekoak dira, Gamarte-Ainhizakoa salbu, hau apalxeagoa baita. Multzo guztien sakabanaketa txikia da biziki, baina Gamarte-Ainhizakoa da handiena. Luzaidek salbu, beste eremu guztiek lekuko urrunduak dituzte.

4.8.2. Adinaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	680	99,85	1	0,15
Helduak	560	99,29	4	0,71
Gazteak	1063	91,64	97	8,36

115. taula: [d]→<d>/[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




123. irudia: [d]→<d>/[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.33766352	1.8060258	-4.0628785	4.847127e-05
Helduak	1.85051278	1.7208874	1.0753247	2.822294e-01
Gazteak	4.68492116	1.5404272	3.0413129	2.355489e-03

116. taula: [d]→<d>/[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoek eta helduek aldaera apikaria darabilte ia %100en. [t]→<t>/[i, j] bilakabidearen kasuan bezalaxe, gazteak dira aldaera lepokaria gehien erabiltzen dutenak, beste adin taldeekiko alde handiarekin, gainera. Hauen ehunekoa, ordea, aitzineko bilakabideari konparatuz, txikiagoa da. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




124. irudia: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoan erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Hiru adin taldeetako erdiko balioak %100ekoak dira. Gazteen taldea, besteak ez bezala, sakabanatua da, eta gainera, lekuko urrunduak ere baditu. Horietarik zenbaitek ehuneko aski apala dute.

4.8.3. Generoaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1055	92,14	90	7,86
Gizonak	1248	99,05	12	0,95

117. taula: [d]→<d>/[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




125. irudia: [d]→<d>/[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.33766352	1.8060258	-4.0628785	4.847127e-05
Gizonak	-2.97543127	0.9629698	-3.0898489	2.002583e-03

118. taula: [d]→<d>/[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Kasu honetan ere, emazteak berritzaile ageri dira gizonei konparatuz. Aldea ez da, ordea, aitzineko hizkuntza-aldagaiaren kasuan bezain handia. Hala ere, estatistikoki esanguratsua izaten jarraitzen du. 4.7.3. §-ean emazteen inguruan erran dugunak kasu honetarako ere balio liezaguke.




126. irudia: [d]→<d̥>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi generoen erdiko balioa %100en dago. Emazteek, ordea, gizonak ez duten sakabanaketa dute. Gainera, emazteen lekuko urrunduek gizonenak baino ehuneko apalagoak dituzte, oro har.

4.8.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	565	92,32	47	7,68
Publikokoak	498	90,88	50	9,12

119. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




127. irudia: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.343841	1.041505	-3.2105857	0.001324648
Publikokoak	1.180772	1.640877	0.7195982	0.471772440

120. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Aitzineko kasuan ez bezala, honakoan, bi taldeen arteko aldea txikia da biziki, eta ez da estatistikoki esanguratsua.




128. irudia: [d] → $\langle d \rangle$ / _ [i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

128. irudiak erakusten digunez, publikokoen erdiko balioa ikastolakoena baino apalxeagoa da. Hala ere, ikastolako lekukoaren ehunekoak publikokoenak baino sakabanatuago daude.

4.8.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	293	86,94	44	13,06
Komiteetakoak	534	90,97	53	9,03
Luzaidarrak	236	100	0	0

121. taula: [d]→<ɖ>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




129. irudia: [d]→<ɖ>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.343841	1.041505	-3.2105857	0.001324648
Komiteetakoak	-1.853597	1.665400	-1.1130039	0.265706735

122. taula: [d]→<ɖ>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarrek ez dute aldaera lepokaririk. Gainerakoan, gaztetxeakoek, kasu honetan ere, komiteetakoek baino aldaera lepokariaren ehuneko altuagoak dituzte. Kasu honetan, gaztetxeakoen eta komiteetakoaren arteko aldeari dagokion P. balioa txikiagoa da ikastolakoaren eta publikokoaren artekoari dagokiona baino. 4.7.5. §-ean gaztetxeakoen izaera berritzaileaz erran dugunak kasu honetarako ere balioko liguke.




130. irudia: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaera apikariari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarren erdiko balioa %100ekoa da. Apalxeagoa da komiteetakoena eta alde handiagoarekin apalena gaztetxeakoena da. Gaztetxeakoen taldea da sakabanatuena, talderik berritzaileena, beraz.

4.8.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	Apikari		Lepokari	
	Kop.	%	Kop.	%
[i] aitzin	1376	95,09	71	4,91
[j] aitzin	927	96,76	31	3,24

123. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera




131. irudia: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidearen aldaeren ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.33766352	1.8060258	-4.0628785	4.847127e-05
[j] aitzin	0.52571888	0.3133128	1.6779364	9.335951e-02

124. taula: [d]→<d>/_[i, j] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera

Aitzineko bilakabidearen kasuan bezala, kasu honetan ere testuinguru fonikoak ez du eraginik bilakabidea gauzatzean edo ez gauzatzean. Aldea ez da estatistikoki esanguratsu.

4.8.7. Cluster analisia



132. irudia: [q]→<q>/_[i, j] bilakabideari dagokion cluster analisia

1. multzoaren barneko azpiko multzoa da denetan zabalena. Bertan aldaera apikaria % 100en darabilten lekukoak ditugu. Aitzineko bilakabidearen kasuan bezala, multzo honi lekuko multzo txikiak gehitzen joaten zaizkio, geroz eta multzo orokorragoak osatuz. Heterogeneoa da biziki, adinekoak helduak eta gazteak baititugu bertan. Ondoren gehitzen zaizkio Ezterenzubiko adineko emaztea eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gaztea. Hauen aldaera apikariaren ehunekoa ia % 100ekoa da.

2. multzoan, %90-%95en darabilte aldaera apikaria. Gazteek eta berritzaile diren Hergaraiko eta Irulegi-Anhauzeko emazte helduek osatzen dute. Lehen multzoarekin elkartuta, 3.a osatzen dute. Jarraian, Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko


emazte gaztea, Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea eta Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gaztea dira gehitzen direnak. %70-%87 bitarteko ehunekoak dituzte. Denen artean, 4. multzoa osatzen dute.

Azkenik, aise maila orokorragoan, gazterik berritzaileenak elkartzen dira: Gamarteko ikastolako eta gaztetxeko eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak. Lehenbizikoaren ehunekoa %31,71koa da eta bigarrenarena %43,14koa.

4.9. $\emptyset \rightarrow \langle \text{ə} \rangle / C_##$ bilakabidea

\emptyset		[ə]	
Kop.	%	Kop.	%
4715	84,33	876	15,67

125. taula: $\emptyset \rightarrow \langle \text{ə} \rangle / C_##$ bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




133. irudia: $\emptyset \rightarrow \langle \text{ə} \rangle / C_##$ bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

\emptyset aldaera da, oraindik ere, Garazin nagusitzen dena erranaldi bukaeran kontsonante bat dagoenean. Frantsesaren eraginez hedatzen ari den [ə] aldaerak, ordea, %15eko langa gaitua du.

4.9.1. Geografiaren arabera

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	1032	98,01	21	1,99
Arnegi-Lasa	647	76,21	202	23,79
Irulegi-Anh.	723	85,77	120	14,23
Ezterenzubi	888	89,43	105	10,57
Hergarai	704	75,37	230	24,63
Gamarte-Ai.	721	78,45	198	21,55

126. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




134. irudia: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.6791321	1.0776607	-6.1978060	5.725565e-10
Arnegi-Lasa	3.9126949	0.8992096	4.3512603	1.353572e-05
Irulegi-Anhauze	3.1809377	0.9029244	3.5229278	4.268075e-04
Ezterenzubi	2.5866941	0.9062252	2.8543614	4.312345e-03
Hergarai	4.3063488	0.8955711	4.8084947	1.520710e-06
Gamarte-Ainhiza	3.4825198	0.9009270	3.8654851	1.108686e-04

127. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Frantsesaren eragin honen aitzinean ere, Luzaide eta gainerako herri garzatarren arteko muga politikoa muga linguistiko bihurtu da azken hamarkadetan hedatzen ari den frantseseko aldaerarendako. [ə]-ren ehunekoak ez da %0 kasu honetan, baina biziki apala

da. 4.9.7. §-ean ikusiko dugun bezala, Luzaideko publikoko gizon gazteak darabil gehien aldaera berria, eta horretan baduke eraginik hiztun hau azken urteotan Arnegin bizitzeak. Luzaidetik landa, Ezterenzubi da, beste behin, eremurik gordetzailena. [ə]-ren ehuneko bertsuak dituzte berritzaile diren Arnegi-Lasa, Hergarai eta Gamarte-Ainhizak. Luzaide eta gainerako eremuen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




135. irudia: Ø → <ə>/C_## bilakabidearen Ø aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Ø aldaeraren erdiko baliorik altuena Luzaidereña da. Ondotik, Ezterenzubi, Irulegi-Anhauze eta Arnegi-Lasakoak iduriak dira, eta aski altuak dira hauek ere. Apalenak Hergarai eta Gamarte-Ainhizakoak dira. Luzaiden ez dago ia sakabanaketarik, lekuko urrundua den publikoko gizon gaztea salbu. Ezterenzubi ere eremu trinkoa da. Gainerako laurak sakabanatuagoak dira, eta sakabanaketa iduria dute, gainera. Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze eta Hergarairen kasuan, sakabanaketa handiagoa da erdiko balioaren eta minimoaren artean maximoaren artean baino. Deigarria da, halaber, Hergaraiko maximoa beste eremuetakoa baino apalagoa dela.

4.9.2. Adinaren arabera

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1540	92	134	8
Helduak	988	77,19	292	22,81
Gazteak	2187	82,94	450	17,06

128. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




136. irudia: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.6791321	1.0776607	-6.1978060	5.725565e-10
Helduak	2.0175337	0.6694560	3.0136911	2.580904e-03
Gazteak	1.7128628	0.5882070	2.9120069	3.591147e-03

129. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoetan, jadanik, ia %10era heltzen da [ə] aldaeraren ehunekoa. Ez da arrotza, beraz, adin talde honendako. Helduen kasuan ia hirukoiztu egiten da, baina berriro ere, ehunekoa pixka bat apaldu egiten da gazteen kasuan. Adinekoen eta beste bi adin taldeen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




137. irudia: $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Espero bezala, adinekoen \emptyset aldaeraren erdiko balioa da hiru adin taldeetan altuena. Orain arte ikusi ditugun datuei azalpen hobea ematen die 137. irudiak. Helduen eta gazteen erdiko balioak iduriak dira, eta gainera, gazteena apalxeagoa da. Bi adin talde hauen ehunekoaren artean, espero ez genuen aldearen arrazoia sakabanaketan aurki genezake. Helduen kasuan, erdiko balioaren eta lehen kuartilaren arteko sakabanaketa aise handiagoa da hirugarren kuartilaren artekoa baino. Gazteen kasuan, berriz, erdiko balioaren eta bi kuartilen arteko sakabanaketa uniformeagoa da. Aldaera honen ehuneko altuak dituen gazte gehixeago dago, beraz.

4.9.3. Generoaren arabera

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	2464	82,27	531	17,73
Gizonak	2251	86,71	345	13,29

130. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




138. irudia: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.6791321	1.0776607	-6.1978060	5.725565e-10
Gizonak	-0.3242681	0.4607088	-0.7038462	4.815286e-01

131. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Beste behin, emazteak berritzaileago ageri dira gizonak baino, nahiz eta aldea estatistikoki esanguratsua izan ez. Ondoko atalean aztertuko dugu gai hau sakonago.




139. irudia: $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

139. irudiak azaltzen digunez, emazteen erdiko balioa apalagoa da gizonena baino, eta gainera, sakabanaketa handiagoa dute.

4.9.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	872	93,26	410	64,06	1182	83,24
Gizonak	668	90,39	578	90,31	1005	82,58

132. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabidearen aldaeren \emptyset aldaerari dagokionez



140. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabidearen \emptyset aldaerari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.5542133	1.0895349	-6.0156064	1.792146e-09
Gizon helduak	-1.3662731	1.2539319	-1.0895911	2.758933e-01
Gizon gazteak	1.2032189	1.1050118	1.0888742	2.762093e-01

133. taula: $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabidean, generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa


Datuok informazio garrantzitsua ematen digute generoaren arabera dagoen aldeari buruz. Adinekoen artean ez dago ia alderik, anitz handitzen da helduen artean, eta berriz ere berdintzen da gazteen kasuan. Helduen artean dago, beraz, generoaren arabera, desberdintasunik nabariena. Gazteen kasuan, bi generoen artean, iragan belaunaldian baino desberdintasun sozial gutxiago izatea desberdintasun linguistikoa neutralizatzeko arrazoiak izan dela pentsatzera eramaten gaitzakete datuok. Haatik, beste hizkuntza-aldagaien kasuan, generoaren eta adinaren arteko elkarreragina aztertu dugularik,

gazteen artean atzeman dugu generoaren arabera desberdintasunik handiena. Kontraerrana ageri da, beraz, hizkuntza-aldagai honen eta besteen artean. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.9.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	1099	84,54	201	15,46
Publikokoak	1088	81,38	249	18,62

134. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




141. irudia: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.302003	0.4381905	-2.971318	2.965247e-03
Publikokoak	1.210758	0.6353064	1.905786	5.667798e-02

135. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ez dago ia alderik ikastolakoan eta publikokoan artean, nahiz eta publikokoek [ə] aldaera gehiagotan erabiltzen duten. Aldea ez da estatistikoki esanguratsu.




142. irudia: $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C \##$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Beste behin, aitzineko datuak argitzeko balio digu 142. irudiak. Publikokoek dute \emptyset aldaeraren erdiko baliorik altuena. Ikastolakoen kasuan, ordea, sakabanaketa handiagoa da erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren artean. Publikokoek kasuan, berriz, lekukoaren ehunekoak sakabanatuago daude erdiko balioaren eta lehen kuartilaren artean. 142. irudiko datuok 4.7.4. §-koen joera berresten dute.

4.9.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	613	72,8	229	27,2
Komiteetakoak	1126	84,85	201	15,15
Luzaidarrak	448	95,73	20	4,27

136. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




143. irudia: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.302003	0.4381905	-2.971318	2.965247e-03
Komiteetakoak	-1.747179	0.6902178	-2.531344	1.136262e-02
Luzaidarrak	-3.533742	0.8957962	-3.944806	7.986475e-05

137. taula: ∅→<ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Eraitza hobeak ematen dizkigu praktika-komunitateen arabera egindako analisiak hezkuntza-ereduaren arabera egindakoak baino. Nahiz eta frantsesaren eraginez hedatzen ari den aldaera baten aitzinean egon, gaztetxeakoena da, beste behin, talderik berritzaileena; beraz, 4.7.5. §-ko joera errepikatzen da. Komiteetakoaren artean, apalagoa da aldaera berriaren ehunekoak, eta apalena luzaidarrek dute. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




144. irudia: Ø→<ə>/C ## bilakabidearen Ø aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoa da Ø aldaeraren erdiko baliorik apalena. Altuagoa da komiteetakoena, eta altuena luzaidarrena. Azken bi talde hauen erdiko balioak hurbilago daude elkarrengandik gaztetxeakoen eta komiteetakoaren artekoak baino. Luzaidarren taldea da trinkoena. Beste bien sakabanaketa, berriz, bertsua da. Biak dira talde heterogeneoak.

4.9.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	∅		[ə]	
	Kop.	%	Kop.	%
Albokarien ostean	28	84,85	5	15,15
Sudurkari ostean	2221	80,18	549	19,82
Herskari ostean	1602	86,31	254	13,69
Txistukari igurzkarien ostean	646	93,35	46	6,65
Txistukari afrikatuaren ostean	64	86,49	10	13,51
Dardarkari anitzaren ostean	154	92,77	12	7,23

138. taula: ∅→ <ə>/C_## bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera




	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-6.6791321	1.0776607	-6.1978060	5.725565e-10
Sudurkarien ondotik	0.3856004	0.6140421	0.6279706	5.300232e-01
Herskarien ondotik	-0.2733667	0.6162471	-0.4435991	6.573324e-01
Txistukari igurzkarien ondotik	-1.2319890	0.6339395	-1.9433858	5.196956e-02
Txistukari afrikatuaren ondotik	-0.1828450	0.7618406	-0.2400043	8.103269e-01
Dardarkarien ondotik	-1.0070499	0.6961124	-1.4466772	1.479873e-01

139. taula: ∅→ <ə>/C_## bilakabidearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera

Aldaera berria gehien sudurkari ostean erabiltzen da, eta gutxien, berriz, txistukari igurzkarien eta dardarkarien ondotik. Aldeak, hala ere ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.9.7. Cluster analisia



146. irudia: $\emptyset \rightarrow \langle \emptyset \rangle / C_{##}$ bilakabideari dagokion cluster analisia

Lehen multzoak \emptyset aldaera darabil %100en edo ia %100en. Bertan luzaidarrak eta gainerako eremuetako adineko ugari ditugu. Bertan ditugu Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea eta herri bereko ikastolako eta komiteetako gizon gaztea ere. 2. multzoa sortuz elkartzen dira Arnegiko adineko gizona eta komiteetako gazte gordetzaille ugari, tartean Irulegiko eta Ezterenzubiko publikoko gizonak. Hauengan, erabilera %90eraino jaisten da.


3. multzoaren azpialdean, %74-%80n darabilte Ø aldaera. Bertan daude Ezterenzubiko adineko emaztea eta Gamarte-Ainhizako emazte heldua. Beste hirurak gazteak dira. Gainerako aldean, berriz, %85-%90ekoa da erabilera. Multzo honen parte dira Arnegiko eta Hergaraiko adineko emazteak. Gainerakoak gizonak dira, gehienak helduak eta baita komiteetako gazte zenbait ere. Bere eremurako berritzaile den Luzaideko publikoko gaztea ere bertan dago. 3. eta 2. multzoek Ø aldaeraren ehuneko altuena duen 4. multzoa osatzen dute.

5. multzoan berritzaile diren Hergaraiko adineko gizona eta Hergaraiko, Ezterenzubiko eta Irulegiko emazte helduak ditugu. Gainerakoak gazteak dira. %43-%74 bitarteko ehunekoa dute. Talde heterogeneoa da, beraz. 4. multzoarekin elkartzean, 6.a osatzen du. Azken-azkenik, Arnegiko emazte heldua elkartzen da. Honek Ø aldaeraren biziki ehuneko apala du, beste lekukoei konparatuz, %10,78koa, hain zuzen ere. Lekuko honek euskara gutxi darabil egunerokoan, eta hori dela eta, frantsesaren eragina nabaria da bere mintzoan.

4.10. Hasperena hitz hasieran

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
1404	20,13	5572	79,87

140. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehuneko orokorrak




147. irudia: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren ehuneko orokorrak

Gaur egun hasperenik eza erabat nagusitzen zaio hasperenari Garazin. Erran liteke azken hatsetara ari dela heltzen hasperena ibar honetan.

4.10.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	234	19,58	961	80,42
Arnegi-Lasa	216	17,65	1008	82,35
Irulegi-Anh.	110	11,62	837	88,38
Ezterenzubi	317	24,9	956	75,1
Hergarai	215	19,76	873	80,24
Gamarte-Ai.	312	24,98	937	75,02

141. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




148. irudia: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.42893829	0.42445704	-1.0105576	3.122282e-01
Arnegi-Lasa	-0.03382971	0.49177026	-0.0687917	9.451554e-01
Irulegi-Anhauze	0.59968883	0.50803629	1.1804055	2.378390e-01
Ezterenzubi	-0.60874866	0.47839782	-1.2724738	2.032048e-01
Hergarai	-0.21419772	0.48740272	-0.4394676	6.603227e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.54666000	0.48185392	-1.1344932	2.565877e-01

142. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhiza dira hasperen gehien gauzatzen duten eremuak, eremurik gordetzailenak, beraz. Berritzaile agertu zaigu orain arte Gamarte-Ainhiza, baina gordetzaile ageri da hizkuntza-aldagai honen kasuan. Eremu hau gordetzaile

izatearen arrazoia geografian aurki genezake. Ibarren ipar-ekialdean dago Gamarte-Ainhiza, eta hain zuzen ere, mugakide dituen Oztibarre eta Arberoa aldean ohikoagoa da hasperena Garazin baino. Hasperen gutxien dagoen eremua Irulegi-Anhauze da; hots, mendebaldekoa. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




149. irudia: hitz hasierako hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztietako hasperena gauzatzearen erdiko balioak iduriak dira. Gamarte-Ainhizakoa da bestea baino altuagoa dena. Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhiza dira eremurik sakabanatuena; hain zuzen ere, bertan daudelako hasperen gehien gauzatzen duten lekukoak.

4.10.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	949	48,57	1005	51,43
Helduak	422	24,07	1331	75,93
Gazteak	33	1,01	3236	98,99

143. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




150. irudia: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.42893829	0.42445704	-1.0105576	3.122282e-01
Helduak	1.54844753	0.34083192	4.5431411	5.542212e-06
Gazteak	4.96355772	0.35067388	14.1543412	1.755755e-45

144. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Belaunaldien arteko aldeak biziki handiak dira. Adinekoetan ehuneko bertsua dute hasperenak eta hasperenik ezak. Helduen kasuan, hasperenaren ehunekoa adinekoenaren erdia inguru da. Azkenik, gazteen kasuan, hasperenak behea jotzen du erabat. Datu hauek ikusita, arrazoi soziolinguistikoetarik landa, Jauregi eta Epeldek (2013) bezala, arrazoi artikulatorioak ere badirela pentsatzen dugu guk ere. Izan ere, frantsesaren eta gaztelaniaren eragina baino ez balego, gazteen artean, nolabaiteko aldakortasuna esperoko genuke berritzaileen eta gordetzaileen diren lekukoen artean. Alabaina, ez

dugu halakorik. Artikulatorioki, hasperenik eza naturalagoa da hasperena baino, eta horrek baduke eraginik, kanpo-erdarekin batera, noski, hasperena ibar honetan desagertzean. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira. Gazteen artean dagoen aldakortasun txikia ikusita, ez dugu hezkuntza-ereduaren eta praktika komunitatearen arabera analisirik egin.




151. irudia: hitz hasierako hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

%50 inguruan dago adinekoen erdiko balioa, %20raino jaisten da helduena, eta %0tik hurbil dago gazteena. Sakabanaketa bertsua dute adinekoek eta helduek, ez ordea, gazteek, denak %0ren inguruan baitaude.

4.10.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	709	22,34	2465	77,66
Gizonak	695	18,28	3107	81,72

145. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




152. irudia: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.42893829	0.42445704	-1.0105576	3.122282e-01
Gizonak	-0.21092664	0.28709546	-0.7346917	4.625273e-01

146. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteen eta gizonen ehunekoak bertsuak dira, nahiz eta lehenbizikoak bigarrenak baino zertxobait gordetzaileagoak izan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




153. irudia: hitz hasierako hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

153. irudiak ere bi taldeak bertsuak direla erakusten digu. Gizonen erdiko balioa altuxeagoa da emazteena baino. Hala ere, emazteen taldea gizonena baino sakabanatuxeagoa da.

4.10.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	709	22,34	140	19,1	10	0,68
Gizonak	695	18,28	282	27,65	23	1,28

147. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak hasperena ahoskatzeari dagokionez



154. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak hasperena ahoskatzeari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.94741236	0.41112725	-2.3044261	2.119874e-02
Gizon helduak	-1.54394298	0.59911691	-2.5770312	9.965295e-03
Gizon gazteak	-1.62272029	0.64479287	-2.5166536	1.184753e-02


148. taula: hitz hasierako hasperenean, generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Generoaren eta adineraren arteko elkarreraginak emaitza interesgarriak erakusten dizkigu. Adineko emazteak, alde txikiarekin bada ere, gordetzaileagoak dira gizonak baino. Haatik, helduen kasuan, ohiko joerari segituz, emazteak berritzaileago dira gizonak baino. Kopuruak biziki apalak badira ere, joera bera dugu gazteen kasuan ere. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

4.10.4. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Erranaldi hasieran	557	27,77	1449	72,23
Kontsonante ostean	241	14,36	1437	85,64
Bokal ostean	606	18,41	2686	81,59

149. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera




155. irudia: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.42893829	0.42445704	-1.0105576	3.122282e-01
Kontsonante ostean	1.42404451	0.10736689	13.2633491	3.776461e-40
Bokal ostean	0.88275554	0.08756335	10.0813357	6.681163e-24

150. taula: hitz hasierako hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera

Gure hipotesiak egiaztatzen dituzte datuek. Erranaldi hastapenean dugu hasperen gehien. Gutxien, berriz, aitzineko hitza kontsonantez bukatzen delarik dugu. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

4.10.5. Cluster analisia



156. irudia: hitz hasierako hasperenari dagokion cluster analisia

3. multzoan, hasperen batere ez edo oso gutxi gauzaten duten lekukoak ditugu. Denak gazteak dira eta bertan dago berritzaile den Irulegi-Anhauzeko emazte heldua ere. %5 eta %12 bitartean gauzaten dute hasperena, hirugarren multzoarekin elkartuz, 4.a osatzen duten Irulegi-Anhauze eta Ezterenzubiko gizon helduek eta Arnegi-Lasako emazte helduak. Ondoren elkartzen dira berritzaile ageri den Luzaideko adineko gizona eta Hergaraiko gizon heldua. Lehenbizikoak %18,79n gauzaten du hasperena eta bigarrenak %15,04ean. Denek batera, 5. multzoa osatzen dute.


6. multzoan, adinekoak eta helduak ditugu. %24-%37 bitartean gauzaten dute hasperena. 5. multzoarekin elkartuta, hasperen gutxien gauzaten dutenen 8. multzoa osatzen dute.

Azkenik, 7. multzoa hasperena gehien gauzatzen dutenena da. Bertan ditugun gehienak adinekoak dira, eta baita Arnegi-Lasako gizon heldua ere. %45 eta %70 bitartean gauzatzen dute gutxi gorabehera hasperena.

4.11. Hasperena bokal artean

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
95	3,76	2434	96,24

151. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehuneko orokorrak




157. irudia: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren ehuneko orokorrak

Garazin, hitz hasierako hasperen gutxi badago, bokal artean oraindik ere gutxiago dago, %10era ere ez baita heltzen.

4.11.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	14	3,08	441	96,92
Arnegi-Lasa	11	2,63	408	97,37
Irulegi-Anh.	14	3,8	354	96,2
Ezterenzubi	13	2,83	447	97,17
Hergarai	24	4,97	459	95,03
Gamarte-Ai.	19	5,52	325	94,48

152. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




158. irudia: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.4274413	0.6035627	4.0218542	5.774179e-05
Arnegi-Lasa	0.5864015	0.8000784	0.7329300	4.636011e-01
Irulegi-Anhauze	-0.1425183	0.7502423	-0.1899630	8.493381e-01
Ezterenzubi	0.3283089	0.7713964	0.4256034	6.703969e-01
Hergarai	-0.3331519	0.7294004	-0.4567476	6.478525e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.7836705	0.7119539	-1.1007320	2.710133e-01

153. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremuen arteko aldeak txikiak dira oso eta ez dira estatistikoki esanguratsu. Hitz hasierako hasperenaren kasuan bezalaxe, Gamarte-Ainhiza da, kasu honetan ere, eremurik gordetzailleena.




159. irudia: bokal arteko hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztietako erdiko balioak %0n daude, Irulegi-Anhauzekoa eta Gamarte-Ainhizakoa salbu, hauek ehuneko pixka bat altuagoa baitute. Azken eremu hau da, era berean, sakabanatuena, bertan baitago hasperena gauzatzen duen lekuko gehien. Ia denetan daude lekuko urrunduak.

4.11.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	78	11,34	610	88,66
Helduak	16	2,29	684	97,71
Gazteak	1	0,09	1140	99,91

154. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




160. irudia: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.4274413	0.6035627	4.0218542	5.774179e-05
Helduak	2.1966014	0.5301861	4.1430762	3.426780e-05
Gazteak	5.2959217	1.0726359	4.9372968	7.921288e-07

155. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen artean bertan ere, ehuneko biziki apala du bokal arteko hasperenak. %3tik behera kokatzen da helduen kasuan, eta ia %0ra heltzen da gazteen kasuan. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira. Gazteen artean, bokal arteko hasperenik ia ez baitugu, ez dugu hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera analisi estatistikorik eginen.




161. irudia: bokal arteko hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

%10 inguruan kokatzen da adinekoen erdiko balioa eta %0ra erortzen da helduen eta gazteen kasuan. Adinekoen taldea da sakabanatuena, bertan baitugu aldakortasun gehien. Trinkoena gazteena da, ia inork ez baitu hasperen bihirik ere.

4.11.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	48	3,98	1159	96,02
Gizonak	47	3,56	1275	96,44

156. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




162. irudia: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.4274413	0.6035627	4.0218542	5.774179e-05
Gizonak	-0.4231664	0.4543741	-0.9313171	3.516895e-01

157. taula: bokal arteko hasperenaren eta hasperenik ezaren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera


Generoaren arabera, aldea hutsala da eta ez da estatistikoki esanguratsua.



163. irudia: bokal arteko hasperenaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi generoen erdiko balioa %0n dago. Gizonen taldea sakabantuagoa da, oro har, baina emazteen kasuan lekuko urrundu gehiago daude eta dauden horiek urrunduago daude.

4.11.4. Cluster analisia




164. irudia: bokal arteko hasperenari dagokion cluster analisia

Lehen multzoa batere hasperenik ez edo biziki gutxi gauzatzen dutenena dugu. Bertan dauden guztiak gazteak eta helduak dira. 2. multzoa osatuz, hiru adineko eta Gamarte-Ainhizako emazte heldua elkartzen dira. %3 eta %5 artean gauzatzen dute hasperena. 3. multzoa eratuz, beste lau adineko eta gordetzaile ageri den Luzaideko gizon heldua elkartzen dira. %6 eta %10 bitarteko ehunekoak dute hauek. 4. multzoa osatuz, adineko gehiago eta gordetzaile den Gamarte-Ainhizako gizon heldua elkartzen dira. %12 eta %17 bitarteko bokal arteko hasperenaren ehunekoak dituzte. Azkenik, hasperen gehien gauzatzen dituen lekukoa gehitzen zaio 4. multzoari, 5.a osatuz: Hergaraiko adineko emaztea. %35,71ko ehunekoak du lekuko honek.

4.12. Herskari hasperendunak

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
5	0,22	2223	99,78

158. taula: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen kopuru eta ehuneko orokorrak




165. irudia: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen ehuneko orokorrak

Herskari hasperendunen ehunekoa hutsala da Garazin, eta beraz, galdutzat eman ditzakegu ia. Bost adibide baino ez ditugu jaso 2228ren artean.

4.12.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	0	0	348	100
Arnegi-Lasa	0	0	454	100
Irulegi-Anh.	0	0	312	100
Ezterenzubi	0	0	343	100
Hergarai	0	0	324	100
Gamarte-Ai.	5	1,12	442	98,88

159. taula: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




166. irudia: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen ehunekoak geografiaren arabera

Gamarte-Ainhizan bildu ditugu jaso ditugun herskari hasperendun guztiak. Bai Oztibarren eta bai Arberoan herskari hasperendunak maiztasun handiagoarekin entzun izan ditugu, eta Gamarte eta Ainhiza-Monjolose herriak ibar huez inguratutik egoteak badu horretan eraginik, gure ustez. Ez dugu analisi estatistikorik egin ez geografiaren arabera, eta ezta adinaren eta generoaren arabera ere, herskari hasperendunen kopuru hain apalagatik. Lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa ere ez ditugu erakutsiko, talde guztiak %0-ren inguruan bilduko balirateke.

4.12.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	2	0,35	573	99,65
Helduak	3	0,59	508	99,41
Gazteak	0	0	1142	100

160. taula: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




167. irudia: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen ehunekoak adinaren arabera

Herskari hasperendun horietarik batzuk Gamarte-Ainhizako adineko emazteak gauzatuak dira, eta beste batzuk, berriz, Gamarte-Ainhizako gizon helduarengandik jaso ditugu. Gazteen artean, ez dugu bihirik ere atzeman.

4.12.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	2	0,18	1081	99,82
Gizonak	3	0,26	1142	99,74


161. taula: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera



168. irudia: herskari hasperendunen eta hasperen gabeen ehunekoak generoaren arabera

Herskari hasperendun horietarik bi emazte batek gauzatuak dira, eta hiru gizon batengandik jaso ditugu.

4.12.4. Cluster analisia




169. irudia: herskari hasperendunei dagokien cluster analisia

Cluster analisia sinplea da: Gamarte-Ainhizako adineko emaztea eta gizon heldua dira herskari hasperendun bakar batzuk gauzatu dituzten bakarrak. Biek elkarrekin multzo bakarra osatzen dute. Gainerako hitun guztiek %0ko ehunekoa dute.

4.13. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: [β] → <∅, f>/V_V bilakabidea

∅		[β]		[f]	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
958	62,7	568	37,17	1	0,13

162. taula: [β] → <∅, f>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




170. irudia: [β] → <∅, f>/V_V bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

∅ aldaera osasuntsu dago Garazin, hau baita besteei aise nagusitzen zaiena. [f]-ri dagokionez, berriz, adibide bakarra baino ez dugu jaso, hasperenak Garazin duen indar ahularen erakusgarri.

4.13.1. Geografiaren arabera

	∅		[β]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	158	74,53	54	25,47	0	0
Arnegi-La.	171	61,29	108	38,71	0	0
Irulegi-An.	147	66,82	73	33,18	0	0
Ezterenzubi	195	66,55	97	33,11	1	0,34
Hergarai	113	49,78	114	50,22	0	0
Gamarte-A.	174	58,59	123	41,41	0	0

163. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




171. irudia: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5095055	0.5561121	-4.5125894	6.404092e-06
Arnegi-Lasa	0.3642399	0.5973968	0.6097118	5.420527e-01
Irulegi-Anhauze	0.3598888	0.6029993	0.5968313	5.506200e-01
Ezterenzubi	0.4587361	0.5939282	0.7723764	4.398915e-01
Hergarai	1.2659440	0.5930435	2.1346563	3.278910e-02
Gamarte-Ainhiza	0.9096360	0.6021117	1.5107429	1.308540e-01

164. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [β] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Luzaide da [β] hurbilkaria gutxien ahoskatzen duen eremua. Gehien, berriz, Hergarain eta ondoren, Gamarte-Ainhizan ahoskatzen da. Lehen eremu honen kasuan, [β] aldaeraren ehunekoa ∅-renaren parera heltzen da. Bere presentzia apala dela eta, [h]

ez dugu kontuan hartu analisi estatistikoa egiterako orduan. Luzaide eta Hergaraien arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




172. irudia: $|\beta| \rightarrow \langle \emptyset, f_i \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

172. irudiak erakusten digunez, Luzaidereana da erdiko baliorik altuena. Apalenak Hergaraikoa eta Gamarte-Ainhizakoa dira. Erdiko balioaren eta bi kuartilen artean sakabanaketa gutxien duen taldea Hergaraikoa da, baina erdiko balioaren eta maximo-minimoen artean sakabanaketa gutxien duena Arnegi-Lasa da. Gamarte-Ainhizakoa da denetan talderik sakabanatuena. Horrek erran nahi du, lekuko gordetzailleak izatetik landa, berritzaile anitz ere badirela bertan.

4.13.2. Adinaren arabera

	∅		[β]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	315	86,78	47	12,95	1	0,28
Helduak	270	69,95	116	30,05	0	0
Gazteak	373	47,88	406	52,12	0	0

165. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




173. irudia: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5095055	0.5561121	-4.5125894	6.404092e-06
Helduak	1.4184916	0.5013818	2.8291643	4.666973e-03
Gazteak	2.3942162	0.4416745	5.4207712	5.934247e-08

166. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [β] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

[β] aldaera osotuaren ehunekoa biziki apala da adinekoen artean. Helduen ehunekoa adinekoenaren bikoitza baino handiagoa da. Azkenik, gazteen artean, ∅ aldaera gainditzen du [β]-k. Beste behin, euskara idatziaren eraginaren aitzinean gaudela iruditzen zaigu. Forma osotuak idazteak, forma horiek ahozkoan ere erabiltzea ekarri du, batez ere gazteengan. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




174. irudia: [β] → <∅, fi>/V_V bilakabidearen ∅ aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen ∅ aldaeraren erdiko balioa da denetan altuena, gero heldu da helduena, eta azkenik, gazteena. Adinekoen taldea da, beste behin trinkoena, eta beraz, aldakortasun gutxien duena. Sakabanaketa bertsua dute helduek eta gazteek, baina azken hauena handiagoa da, halere, ia %0 eta %100 bitartekoa baita.

4.13.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	37	80,43	58	89,23	63	62,38
Arnegi-La.	41	75,93	46	85,19	84	49,12
Irulegi-An.	52	94,55	26	53,06	69	59,48
Ezterenzubi	69	90,79	55	59,14	71	57,26
Hergarai	36	72	14	37,84	63	45
Gamarte-A.	80	97,56	71	80,68	23	18,11

167. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, \mathbf{f} \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaerari dagokionez



175. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, \mathbf{f} \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaerari dagokionez


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.1177806	0.6668936	-1.6761005	0.093718500
Arnegi-Lasako helduak	0.6865065	1.3461611	0.5099735	0.610070012
Arnegi-Lasako gazteak	1.0301904	1.1332261	0.9090775	0.363309194
Irulegi-Anhauzeko helduak	3.5345049	1.3791253	2.5628599	0.010381393
Irulegi-Anhauzeko gazteak	1.7356717	1.2133439	1.4304862	0.152577522
Ezterenzubiko helduak	3.1050640	1.3102626	2.3698029	0.017797571
Ezterenzubiko gazteak	1.6571071	1.1500210	1.4409364	0.149602661
Hergaraiko helduak	2.3914442	1.3026137	1.8358813	0.066375215
Hergaraiko gazteak	0.6274418	1.1063650	0.5671201	0.570632582
Gamarte-Ainhizako helduak	3.1317192	1.4364002	2.1802554	0.029238536
Gamarte-Ainhizako gazteak	4.7994077	1.2922382	3.7140270	0.000203987
168. taula: $\beta \rightarrow \langle \emptyset, \hat{\eta} \rangle / V_V$ bilakabidean, \emptyset eta β aldaeren artean, geografiaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa				

Adinekoen artean, Irulegi-Anhauzekoak, Ezterenzubikoak eta Gamarte-Ainhizakoak dira \emptyset aldaeraren alde gehien egiten dutenak. Lehen bi eremuen kasuan, helduak, adinekoak ez bezala, berritzaile dira beste eremuetakoei konparatuta. Hergaraiko helduek ere nabarmen egiten dute $|\beta|$ -ren alde. Gazte gehienak heldu berritzaileen mailara jaisten dira \emptyset aldaerari dagokionez. Gamarte-Ainhizako gazteak, bereziki, biziki berritzaile ageri dira. Irulegi-Anhauzeko, Ezterenzubiko eta Gamarte-Ainhizako helduen balioak estatistikoki esanguratsuak dira, baita Gamarte-Ainhizako gazteenak ere.

4.13.3. Generoaren arabera

	\emptyset		[β]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	413	56,73	315	43,27	0	0
Gizonak	545	68,12	254	31,75	1	0,12

169. taula: [β] → $\langle \emptyset, h \rangle / V_V$ bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




176. irudia: [β] → $\langle \emptyset, h \rangle / V_V$ bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5095055	0.5561121	-4.5125894	6.404092e-06
Gizonak	-0.7139627	0.3441096	-2.0748119	3.800397e-02

170. taula: [β] → $\langle \emptyset, h \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset eta [β] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak, beste behin, berritzaile ageri dira, [β] aldaera osotuaren alde egiten baitute. Aldea, gainera, estatistikoki esanguratsua da.




177. irudia: $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, f_i \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino aski apalagoa da. Halaber, lehenbiziko hauen taldea sakabanatuagoa da; izan ere, lehen eta hirugarren kuartilen artean, emazteen kasuan, gizonenean baino alde handiagoa dago. Emazteei dagokienez, erdiko balioaren eta maximoaren arteko sakabanaketa handiagoa da, eta gizonei dagokienez, berriz, erdiko balioaren eta minimoaren artekoa.

4.10.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	155	86,59	138	73,4	120	33,24
Gizonak	160	86,96	132	66,67	253	60,53

171. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak $[\beta] \rightarrow <\emptyset, f_i >/V_V$ bilakabideren \emptyset aldaerari dagokionez



178. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak $[\beta] \rightarrow <\emptyset, f_i >/V_V$ bilakabideren \emptyset aldaerari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.84089042	0.6047538	-4.69759842	2.632383e-06
Gizon helduak	0.42046255	0.9307868	0.45172808	6.514649e-01
Gizon gazteak	-1.52174764	0.8193049	-1.85736419	6.325936e-02


$[\beta] \rightarrow <\emptyset, f_i >/V_V$ bilakabidean, \emptyset eta $[\beta]$ aldaeren artean, generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Adinekoen eta helduen kasuan alde txikia dago emazteen eta gizonen artean. Helduen kasuan, gainera, emazteak pixka bat gordetzailleago ageri dira. Gazteen artean ageri da bi generoen arteko alderik handiena, eta gainera, emazteak dira anitzez berritzaileago direnak. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsu.

4.13.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	∅		[β]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	173	46,51	199	53,49	0	0
Publikokoak	200	49,14	207	50,86	0	0

172. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




179. irudia: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.6974562	0.4649721	1.4999958	0.13361548
Publikokoak	0.3350227	0.6396496	0.5237598	0.60044563

173. taula: [β]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [β] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoan eta publikokoan arteko aldea txikia da biziki. Ikastolakoak dira, hala ere, berritzaileenak, [β] aldaeraren alde egiten baitute.




180. irudia: $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, f_i \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Bi taldeen erdiko balioak eta sakabanaketa iduriak dira biziki. Ikastolakoan kasuan, lehen eta hirugarren kuartilen arteko sakabanaketa publikokoena baino handiagoa da. Haatik, erdiko balioaren eta maximoaren arteko sakabanaketa handiagoa da publikokoan artean.

4.13.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	\emptyset		[β]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	101	37,97	165	62,03	0	0
Komiteetakoak	209	50,73	203	49,27	0	0
Luzaidarrak	63	62,38	38	37,62	0	0

174. taula: [β] \rightarrow < \emptyset , h >/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




181. irudia: [β] \rightarrow < \emptyset , h >/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.6974562	0.4649721	1.4999958	0.13361548
Komiteetakoak	-1.0261543	0.7136662	-1.4378631	0.15047290
Luzaidarrak	-1.6166340	0.8413590	-1.9214556	0.05467429

175. taula: [β] \rightarrow < \emptyset , h >/V_V bilakabidearen \emptyset eta [β] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Praktika-komunitateen arteko aldeak ikastolako eta publikoko artekoak baino handiagoak dira. Gaztetxeakoak dira, ohiko joerari jarraituz, berritzaileenak eta luzaidarrak gordetzaileenak. Lehenbizikoen artean, [β] aldaera da nagusi. \emptyset eta [β] aldaerek ehuneko bertsua dute komiteetakoaren artean, eta luzaidarrek \emptyset -ren alde egiten dute. Gaztetxeakoen artean, forma osotuak dira nagusi, beste behin. Euskal kultura gehien kontsumitzen duten gazteak dira hauek, baita beste ibar eta probintzia batzuetako gazte euskaldunekin harreman gehien dutenak ere. Ikastolako gazteek, oro har,


erregistro idatziaren bidez baino ez dute harremana forma osotuekin. Gaztetxeoek, aldiz, iturri gehiagotarik jasotzen dituzte forma hauek.



182. irudia: $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, f_i \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeoekoen \emptyset aldaeraren erdiko balioa da apalena, altuagoa da komiteetakoena eta altuena luzaidarrena da. Taldeen sakabanaketa bertsua izan arren, komiteetakoak sakabanatuago daude besteak baino. Berriro ere, talde hau da hiruretan heterogeneoena.

4.13.6. Cluster analisia



183. irudia: $[\beta] \rightarrow \langle \emptyset, \text{h} \rangle / V_V$ bilakabideari dagokion cluster analisia

1. multzoan, %60-%75 bitartean darabilte \emptyset aldaera lekukoek. Sozialki, talde heterogeneoa da, adinekoak, helduak eta gazteak; emazteak eta gizonak; eta eremu anitzetakoak baitaude bertan.

2. multzoan, berriz, %35-%50en erabiltzen dute \emptyset aldaera. Helduz eta gaztez osatua dago multzo hau. Lehenbizikoarekin elkartzean, 6.a osatzen du.

%82 eta %88 bitarteko ehunekoa dute 3. multzokoek. Hau osatzen dutenak adinekoak, helduak eta komiteetako gazteak dira. 4. multzoan, berriz, %93 eta %100 bitarteko ehunekoa dute lekukoek. Bertan, adinekoak, Luzaideko emazte heldua, eta Irulegiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea ditugu. 3. eta 4. multzoez elkartu eta


8. multzoa osatzen dute, \emptyset aldaeraren ehunekorik altuena dutenen multzoa, hain zuzen ere.

Multzorik berritzaileena 5.a da. \emptyset aldaeraren %10 eta %30 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Gazteek eta Luzaideko gizon helduak osatzen dute. 8. multzoarekin elkartzean, 9. multzoa osatzen dute. Azkenik, Ezterenzubiko adineko gizona gehitzen zaio taldeari, lekuko honek, behin, [h] aldaera erabiltzen baitu. \emptyset aldaera, berriz, %95,12n erabiltzen du.

4.14. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
798	65,3	424	34,7

176. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




184. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

Aitzineko hurbilkariaren kasuan bezalaxe, bilakabide honetan ere, ∅ aldaera da nagusitzen dena Garazin; hots, bilakabidea gauzatzen da.

4.14.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	158	62,95	93	37,05
Arnegi-Lasa	127	67,55	61	32,45
Irulegi-Anh.	135	59,47	92	40,53
Ezterenzubi	126	72,83	47	27,17
Hergarai	147	66,22	75	33,78
Gamarte-Ai.	105	65,22	56	34,78

177. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




185. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.004707629	1.3904120	-0.00338578	0.997298543
Arnegi-Lasa	-0.257542742	0.5841534	-0.44088202	0.659298409
Irulegi-Anhauze	0.317864740	0.5660675	0.56153151	0.574435257
Ezterenzubi	-0.636546477	0.5887820	-1.08112424	0.279641851
Hergarai	-0.332172180	0.5722630	-0.58045375	0.561608666
Gamarte-Ainhiza	-0.208991972	0.5932968	-0.35225538	0.724646748

178. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Kasu honetan, Ezterenzubi da [ð] aldaera osotuaren ehuneko apalena duen eremua. Ehuneko altuena duena, berriz, Irulegi-Anhauze da. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




186. irudia: [ð] → <∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Gamarte-Ainhizak du bilakabide hau gauzatzearen, hots, ∅ aldaeraren erdiko baliorik altuena. Apalena, berriz, Luzaide eta Irulegi-Anhauzek dute. Halaber, Gamarte-Ainhiza da talde sakabanatuena, eta horrek erran nahi du lekuko gordetzaileekin batera, berritzaile diren anitz ere badirela. Beste talde guztiek sakabanaketa iduria dute.

4.14.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	249	80,84	59	19,16
Helduak	143	63,84	81	36,16
Gazteak	407	58,99	283	41,01

179. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




187. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.004707629	1.3904120	-0.00338578	0.997298543
Helduak	0.739191320	0.4957406	1.49108493	0.135939198
Gazteak	1.148866925	0.4205687	2.73169828	0.006300881

180. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoek gauzatzen dute bilakabidea gehien. Adin talde honen kasuan, ∅ aldaera aise nagusitzen zaio [ð]-ri. Helduen kasuan, [ð]-ren ehunekoa anitz igotzen da. Gazteengan igoera handiagoa gertatzen da oraindik ere, baina aldea handiagoa da adinekoen eta helduen artean, orain arte ikusi dugunaren kontra. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




188. irudia: [ð] → <∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Bilakabide hau gauzatzearen, hots, ∅ aldaeraren adinekoen erdiko balioa da altuena denetan, eta apalena, berriz, gazteena. Helduen erdiko balioa, ehunekoa ez bezala, hurbilago dago adinekoenarengandik gazteenarengandik baino. Helduen taldea da denetan sakabanatuena, eta beraz, heterogeneoena.

4.14.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	430	62,41	259	37,59
Gizonak	368	69,04	165	30,96

181. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




189. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.004707629	1.3904120	-0.00338578	0.997298543
Gizonak	-0.605121206	0.3389105	-1.78548951	0.074181952

182. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek, kasu honetan ere, [ð] aldaera gizonek baino gehiago erabiltzen dute, baina aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




190. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoan erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa apalagoa da gizonena baino. Emazteen lehen eta hirugarren kuartilen arteko sakabanaketa aise handiagoa da gizonena baino.

4.14.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	160	55,75	127	44,25
Publikokoak	247	61,29	156	38,71

183. taula: [ð]→<ø>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




191. irudia: [ð]→<ø>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.8883210	1.0713091	0.8291921	0.4069957
Publikokoak	-0.4477919	0.5219662	-0.8578943	0.3909508

184. taula: [ð]→<ø>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Aitzineko hurbilkariaren kasuan bezalaxe, honen kasuan ere, besteak beste, euskara idatziaren ondorioz, ikastolakoak berritzaileago ageri dira publikokoak baino. Aldea ez da, zernahi gisaz, estatistikoki esanguratsu.




192. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoek erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Erdiko balioek ehunekoek aurkako zentzua dute; hots, bilakabidea gauzatzearen (∅ aldaeraren) ikastolakoek erdiko balioa publikokoena baino altuagoa da. Hala ere, ikastolakoek kasuan, erdiko balioaren eta lehen kuartilaren artean sakabanaketa handiagoa dago publikokoek kasuan baino. Gainera, publikokoek erdiko balioaren eta maximoaren artean sakabanaketa handiagoa dute. Hori dela eta, ikastolakoek ehunekoak publikokoena baino apalagoa da.

4.14.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	118	59,6	80	40,4
Komiteetakoak	237	61,56	148	38,44
Luzaidarrak	52	48,6	55	51,4

185. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




193. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.8883210	1.0713091	0.8291921	0.4069957
Komiteetakoak	-0.4189389	0.5808158	-0.7212939	0.4707287
Luzaidarrak	-0.1962743	0.6703455	-0.2927957	0.7696783

186. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoen eta komiteetakoen artean ez dago ia alderik. Bi taldeen kasuan bialakabidea aise gehiagotan gauzatzen da. Hau da, ∅ aldaera da nagusitzen dena. Luzaidarren taldea ez da kasu honetan, gordetzailleena, bi aldaerak ehuneko bertsuan baitarabiltzate. Aldeak ez dira, kasu honetan ere, estatistikoki esanguratsuak.




194. irudia: [δ]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Komiteetakoek dute erdiko baliorik altuena, eta talde hau da, gainera, denetan sakabanatuena, ohiko joerari jarraikiz. Gaztetxeak eta luzaidarren erdiko balioak biziki iduriak dira. Hala ere, Gaztetxeak lehen eta hirugarren kuartilen artean sakabanaketa handiagoa dute luzaidarrek baino.

4.14.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru foniko vs. morfologikoa

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Bokal artean	766	78,24	213	21,76
-t(z)en_ad. lag.	32	13,17	211	86,83

187. taula: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak testuinguru foniko vs. morfologikoaren arabera




195. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak testuinguru foniko vs. morfologikoaren arabera

Alde handia daukagu testuinguru fonikoaren eta morfologikoaren artean. Bokal artean aise gehiagotan galtzen da [ð] hotsa -t(z)en [-burutu, -geroaldi] markaren eta aditz laguntzailearen artean baino.

4.5.6.1. Testuinguru foniko vs. morfologikoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bokal artean	247	92,16	141	76,22	378	71,86
-t(z)en_ad. lag.	2	5	2	5,13	29	17,68


188. taula: testuinguru foniko vs. morfologikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagokionez



196. irudia: testuinguru foniko vs. morfologikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea gauzatzeari dagokionez

Datuek erakusten digutenez, bi testuinguruen arteko aldeak txikitu egiten dira, batez ere, gazteen artean. Gazteen kasuan, helduei eta batez ere adinekoei konparaturik, gutxiagotan galtzen da [ð] hotsa bokal artean. Alabaina, beste bi adin taldeen kasuan baino gehiagotan galtzen da hots hori -t(z)en markaren eta aditz laguntzailearen artean.

4.14.7. Cluster analisia



197. irudia: [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabideari dagokion cluster analisia

1. multzoan, %37-%43 bitartean gauzatzen dute lekukoek [ð]→<∅>/V_V, -t(z)en_ad. lag. bilakabidea. Lau gazte eta Hergaraiko emazte heldua ditugu bertan. %25 eta %29 bitartean gauzatzen dute, berriz, 2. multzokoek. Hemen ere, denak gazteak dira, Irulegi-Anhauzeko gizon heldua salbu. Bi talde hauek 9. taldea osatzen dute.

%63-%67 bitartean gauzatzen dute bilakabidea 3. multzokoek. Multzo hau ere gaztez osatua dugu. Bertan ditugu Irulegi-Anhauzeko adineko emaztea eta Arnegi-Lasako gizon heldua ere. 4. multzoan, berriz, %50-%52ko ehunekoak dute bertan dauden Luzaide eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonen, Luzaideko publikoko gizon gazteak, Irulegi-Anhauzeko emazte helduak eta Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko

emazte gazteak. Bi multzoek elkarrekin, 10.a osatzen dute. Era berean, 10. eta 9. multzoek bilakabidea ehuneko apalenean gauzatzen dutenen 12. multzoa osatzen dute.


%85 eta %90 bitarteko ehunekoa dute 5. multzokoek. Adinekoak, helduak, eta gordetzaile diren Hergaraiko eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gazteak daude bertan. Ondoren gehitzen zaie Gamarte-Ainhizako adineko gizona %100ekin. Denek batera 6. multzoa osatzen dute.

%68 eta %75 bitarteko ehunekoak ditu Arnegi-Lasako adineko gizonak eta heldu eta gazte batzuek osatzen duten 7. multzoak. 8. multzoa adinekoz eta gazte gordetzailez osatua dago. %78-%83 bitarteko ehunekoa dute. Bi multzo hauek 11.a osatzen dute. Halaber, 11.ak eta 6.ak bilakabidea ehuneko altuenean gauzatzen dutenen 13. multzoa osatzen dute.

4.15. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: [y]→<∅>/V_V bilakabidea

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
2444	71,23	987	28,77

189. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




198. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

Aitzineko bi hurbilkarien ber joerari jarraikiz, [y]→<∅>/V_V bilakabide hau gauzatzea ere osasun onean dago; hots, ∅ da gehienetan garaztarrek erabiltzen duten aldaera.

4.15.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	472	76,87	142	23,13
Arnegi-Lasa	482	78,25	134	21,75
Irulegi-Anh.	329	69,7	143	30,3
Ezterenzubi	454	70,83	187	29,17
Hergarai	356	63,8	202	36,2
Gamarte-Ai.	351	66,23	179	33,77

190. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




199. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.80699074	0.3926637	-4.6018792	4.186961e-06
Arnegi-Lasa	-0.06281481	0.4341070	-0.1446989	8.849486e-01
Irulegi-Anhauze	0.56605293	0.4306236	1.3144958	1.886794e-01
Ezterenzubi	0.56907181	0.4263024	1.3349016	1.819086e-01
Hergarai	0.70704065	0.4281907	1.6512286	9.869191e-02
Gamarte-Ainhiza	0.78778655	0.4301848	1.8312748	6.705954e-02

191. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

4.13.1. §-ean [β]-rekin ikusi bezala, Hergarai da, kasu honetan ere, [y] aldaera gehien erabiltzen duena. Gutxien erabiltzen dutenak, berriz, Arnegi-Lasa eta Luzaide

dira. Hala ere, eremu guztietan bilakabidea gauzatzea ez gauzatzeari nagusitzen zaio. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




200. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztietako erdiko balioak aski iduriak dira, ez baitago alde nabaririk batetik bestera. Arnegi-Lasak du erdiko baliorik altuena, eta apalena, berriz, Gamarte-Ainhizak du, nahiz eta ehunekorik apalena Hergarairena izan. Gamarte-Ainhiza da, halaber, eremurik sakabanatuena, bertan baitago lekuko gordetzailen eta berritzaileen arteko kontrasterik handiena. Eremurik trinkoena, beste kasu batzuetan bezala, Luzaide da.

4.15.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	719	85,09	126	14,91
Helduak	732	77,71	210	22,29
Gazteak	993	60,4	651	39,6

192. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




201. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.80699074	0.3926637	-4.6018792	4.186961e-06
Helduak	0.32564108	0.3553706	0.9163423	3.594874e-01
Gazteak	1.38048838	0.3060862	4.5101298	6.478798e-06

193. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Aitzineko hurbilkarien kasuan bezalaxe, honetan ere, bilakabidea ez da erabat sistematikoki gauzatzen adinekoengan. Bilakabidea ez gauzatzearen ehunekoa pixka bat igotzen da helduen kasuan, eta igoera handia gertatzen da, beste behin, gazteen kasuan. Azken adin talde honek du euskara idatziaren eraginik handiena, eta hori hurbilkaria ez desagertzean ageri da. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




202. irudia: [y]→\emptyset/V_V bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoek dute erdiko baliorik altuena. Helduena apalagoa izanagatik, ez du adinekoekiko alde nabarmenik. Gazteen erdiko balioa da denetan apalena, alde handiarekin. Gazteena da, halaber, talderik sakabanatuena. Adinekoen taldea biziki trinkoa da, baina helduena ia gazteena bezain sakabanatua da.

4.15.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1043	62,68	621	37,32
Gizonak	1401	79,29	366	20,71

194. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




203. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.80699074	0.3926637	-4.6018792	4.186961e-06
Gizonak	-0.97214542	0.2477403	-3.9240502	8.707256e-05

195. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak dira [y] aldaera osotuaren alde gehien egiten dutenak eta 4.13.3. §-ean bezala, aldea esanguratsua da gizonei konparatuz.




204. irudia: [y]→\emptyset/V_V bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino aise apalagoa da, eta gainera, anitzez talde sakabanatuagoa osatzen dute, ohiko joerari segituz.

4.15.4.1. Adinaren eta generoaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	338	81,84	316	71,98	389	47,91
Gizonak	381	88,19	416	82,7	604	72,6

196. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [y]→<math>\phi>/V_V bilakabidea gauzatzeari dagokionez



205. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [y]→<math>\phi>/V_V bilakabidea gauzatzeari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.03015762	0.4361509	-4.6547140	3.244307e-06
Gizon helduak	-0.16727054	0.6934109	-0.2412286	8.093779e-01
Gizon gazteak	-0.82366407	0.5977298	-1.3779874	1.682072e-01


197. taula: [y]→<math>\phi>/V_V bilakabidean generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Adinaren eta generoaren arteko elkarreragina izarturik, adinekoei eta helduei dagokienez, bi generoen arteko aldea ez da hain handia, bai ordea, gazteen kasuan. Hiru adin taldeetan, emazteak dira bilakabidea ez gauzatzearen alde gehien egiten dutenak. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.15.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	418	57,89	304	42,11
Publikokoak	575	62,36	347	37,64

198. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




206. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.1640447	0.3239923	0.5063227	0.612630110
Publikokoak	0.2658697	0.4439056	0.5989329	0.549217611

199. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Kasu honetan ere, ikastolakoena da talderik berritzaileena, euskara idatzia egunerokoan lantzen duena, eta beraz, [y] aldaera osotuaren alde egiten duena. Publikoekiko aldea ez da estatistikoki esanguratsu.




207. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek erdiko balioa aise apalagoa da publikokoena baino. Gainera, lehenbiziko talde hau da sakabanatuena. Ikastolakoek erdiko balioaren eta maximoaren arteko sakabanaketa publikokoena baino handiagoa izateak eragiten du bi taldeen ehunekoek artean, erdiko balioen artean baino alde txikiagoa izatea.

4.15.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	189	44,68	234	55,32
Komiteetakoak	565	63,27	328	36,73
Luzaidarrak	239	72,87	89	27,13

200. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




208. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.1640447	0.3239923	0.5063227	0.612630110
Komiteetakoak	-1.0178790	0.4962274	-2.0512350	0.040244070
Luzaidarrak	-1.6101142	0.5818816	-2.7670823	0.005656048

201. taula: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Hezkuntza-ereduak baino azterketa xeheagoa eskaintzen digute praktika-komunitateek. Gaztetxeakoen taldea da denetan berritzaileena, alde handiz, gainera. Luzaidarrena da, berriz, hiruretan gordetzailena. Komiteetakoaren ehunekoak luzaidarrenetak hurbilago daude gaztetxeakoenetak baino. Gaztetxeakoen artean, bilakabidea ez gauzatzea bilakabidea gauzatzeari nagusitzen zaio, beste behin, talde honetakoek duten forma osotuen aldeko joera agerian jarritz. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.



209. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko enerdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Biziki hurren daude komiteetako en eta luzaidarren enerdiko balioak. Apalena gaztetxeakoena da. Azken talde hau da denetan trinkoena, eta beraz, homogeneoena. Sakabanatuena komiteetakoena da, beste behin.

4.15.6. Cluster analisia



210. irudia: [y]→<∅>/V_V bilakabideari dagokion cluster analisia

Lehenbiziko multzoan, %89-%97 bitarteko ehunekoa dute lekukoek, bilakabide hau gauzatzeari dagokionez. Gehienbat adinekoak daude bertan, baita heldu zenbait eta gazterik gordetzaileenak ere; kasu honetan, Luzaideko ikastolako gizon gaztea eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea.

2. multzoan, %80-%87n gauzatzen dute bilakabidea. Kasu honetan ere, multzoa adinekoz, helduz eta komiteetako gaztez osaturik dago. Usaian, gordetzaile den Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gatzetxeiko gizon gaztea ere multzo honetan dago. Bi multzo hauek elkartuta, 6.a osatzen dute.


3. multzoan, %59 eta %75 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Multzo hau osatzen dutenak [y]-ren alde gehien egiten duten adinekoak, helduak eta gazteak ditugu. Talde heterogeneoa da. 6. multzoarekin elkartzean, bilakabidea ehunekorik altuenean gauzatzen dutenen 7. multzoa osatzen dute.

4. multzoan, %36-%53 bitarteko ehunekoak dituzten lekukoak ditugu, gazteak denak, Irulegi-Anhauzeko gizon heldua salbu. Multzo honi gazte gehiago eta Hergaraiko emazte heldua gehitzen zaizkio bilakabidea ehunekorik apalenean gauzatzen duen 5. multzoa osatzeko. Azken lekuko hauek %27-%33 bitarteko ehunekoak dituzte.

4.16. Bokal arteko hurbilkariak desagertzea: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidea

∅		[r]		[h]	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
5133	63,97	2889	36	2	0,02

202. taula: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




211. irudia: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidearen aldaeren ehuneko orokorrak

Aitzineko hurbilkarietan bezalaxe, [r]→<∅, fi>/V_V bilakabide honetan ere, ∅ da nagusitzen den aldaera. [h] aldaeraren bi adibide baino ez ditugu jaso, hasperenaren egoera ahularen marka.

4.16.1. Geografiaren arabera

	∅		[r]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	918	69,97	394	30,03	0	0
Arnegi-La.	873	56,8	664	43,2	0	0
Irulegi-An.	707	62,35	427	37,65	0	0
Ezterenzubi	988	71,65	391	28,35	0	0
Hergarai	801	62,29	485	37,71	0	0
Gamarte-A.	846	61,48	528	38,37	2	0,15

203. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




212. irudia: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.45333775	0.4003615	-3.6300635	2.833515e-04
Arnegi-Lasa	0.46371852	0.4393376	1.0554948	2.911991e-01
Irulegi-Anhauze	0.28148886	0.4412567	0.6379254	5.235222e-01
Ezterenzubi	-0.05145841	0.4407184	-0.1167603	9.070500e-01
Hergarai	0.11294908	0.4407779	0.2562494	7.977583e-01
Gamarte-Ainhiza	0.37915644	0.4420884	0.8576486	3.910866e-01

204. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [r] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Kasu honetan, Arnegi-Lasa da [r] gehien ahoskatzen duen eremua. ∅-ren alde gehien egiten dutenak, berriz, beste behin, Ezterenzubi eta Luzaide dira. Aldeak ez dira

estatistikoki esanguratsuak. [f̂] aldaeraren ehuneko apala dela eta, ez dugu kontuan hartu analisi estatistikoa egiteko tenorean.




213. irudia: $[r] \rightarrow \emptyset$, f_i / V_V bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Ezterenzubik du \emptyset aldaeraren erdiko baliorik altuena. Apalena, berriz, Arnegi-Lasarena da. Eremu trinkoena, beste behin, Luzaide da. Ezterenzubik, erdiko balio altua izanagatik, sakabanaketa handia du. Eremurik sakabanatuena, zernahi gisaz, Gamarte-Ainhiza da, beste eremuetan baino lekuko gordetzaille eta berritzaile gehiago baitaude bertan.

4.16.2. Adinaren arabera

	∅		[r]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1802	81,13	417	18,78	2	0,09
Helduak	1502	70,95	615	29,05	0	0
Gazteak	1829	49,62	1857	50,38	0	0

205. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




214. irudia: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.45333775	0.4003615	-3.6300635	2.833515e-04
Helduak	0.54103636	0.3616013	1.4962236	1.345954e-01
Gazteak	1.58955934	0.3125627	5.0855691	3.665254e-07

206. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [r] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Kasu honetan ere, ∅ aldaera ez da erabat sistematikoa adinekoen kasuan. [r]-ren ehunekoa helduen artean, baina batez ere, gazteen artean igotzen da. Adin talde honek, beste behin, forma osotuen alde egiten du, eta beraz, ehuneko bertsuan darabiltza ∅ eta [r] aldaerak. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




215. irudia: $[r] \rightarrow \langle \emptyset, fi \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Hurbil daude adinekoen eta helduen erdiko balioak. Helduen taldea, ordea, adinekoena baino sakabanatuagoa da. Adinekoena, berriz, biziki trinkoa da. Gazteen erdiko balioa da hiruretan alde handiz apalena, eta talde hau da, era berean, sakabanatuena eta heterogeneoena.

4.16.3. Generoaren arabera

	∅		[r]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	2262	58,33	1616	41,67	0	0
Gizonak	2871	69,25	1273	30,7	2	0,05

207. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




216. irudia: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.45333775	0.4003615	-3.6300635	2.833515e-04
Gizonak	-0.57646315	0.2555591	-2.2556937	2.408982e-02

208. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [r] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Hurbilkari honen kasuan ere, emazteek aldaera osotua gizonak baino gehiago erabiltzen dute, eta aldea, oraingoan ere, estatistikoki esanguratsua da.




217. irudia: $[r] \rightarrow \langle \emptyset, fi \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino aise apalagoa da, eta talde sakabanatuagoa osatzen dute.

4.16.4.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	968	79,47	670	68,3	624	37,16
Gizonak	834	83,15	832	73,24	1205	60,04

209. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [r]→\emptyset, fi>/V_V bilakabideren \emptyset aldaerari dagokionez



218. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [r]→\emptyset, fi>/V_V bilakabideren \emptyset aldaerari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.64724362	0.4419298	-3.7273873	1.934750e-04
Gizon helduak	0.12014698	0.6967985	0.1724272	8.631017e-01
Gizon gazteak	-0.84673099	0.6046067	-1.4004658	1.613739e-01


210. taula: [r]→\emptyset, fi>/V_V bilakabidean, \emptyset eta [r] aldaeren artean, generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Adinekoengan eta helduengan, generoaren arabera alde txikia dugu biziki. Gazteen artean handitzen da bereziki bi generoen arteko aldea. Hiru adin taldeetan, emazteak dira aldaera osotuaren alde gehien egiten dutenak. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.16.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	∅		[r]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	768	44,14	972	55,86	0	0
Publikokoak	1061	54,52	885	45,48	0	0

211. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




219. irudia: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.7960354	0.3433447	2.3184730	0.02042363
Publikokoak	0.2699512	0.4679967	0.5768229	0.56405911

212. taula: [r]→<∅, h>/V_V bilakabidearen ∅ eta [r] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoan artean, [r] aldaera osotua nagusitzen da, eta publikokoan artean, berriz, ∅ aldaera laburtua. Euskara idatziaren eragina nabaria da kasu honetan ere. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




220. irudia: $[r] \rightarrow \langle \emptyset, f_i \rangle / V_V$ bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Publikokoek dute \emptyset aldaeraren erdiko baliorik altuena. Ikastolakoena talde sakabanatuagoa da, eta erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren arteko sakabanaketa da publikokoei konparatuz handiena.

4.16.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	∅		[r]		[h]	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	346	29,88	812	70,12	0	0
Komiteetakoak	1171	58,52	830	41,48	0	0
Luzaidarrak	312	59,2	215	40,8	0	0

213. taula: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




221. irudia: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.7960354	0.3433447	2.3184730	0.02042363
Komiteetakoak	-1.3297488	0.5239630	-2.5378678	0.01115301
Luzaidarrak	-1.2906384	0.6090809	-2.1189935	0.03409101

214. taula: [r]→<∅, fi>/V_V bilakabidearen ∅ eta [r] aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Praktika-komunitateek azterketa zehatzagoa eskaintzen digute hezkuntza-ereduak baino. Komiteetakoan eta luzaidarren ehunekoak iduriak dira biziki. Bietan ∅ aldaera da nagusi. Gaztetxeakoan taldea guztiz aurkakoa da: [r] aldaera osotua da, alde handiarekin erabiliena. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.



222. irudia: [r]→\emptyset, fi>/V_V bilakabidearen \emptyset aldaeraren lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Komiteetakoek eta luzaidarren erdiko balioak hurrak daude. Urrunduena eta apalena gaztetxeakoa da. Azken hauen, eta batez ere, luzaidarren taldeak biziki trinkoak dira. Sakabanatuena komiteetakoena da, eta horrek erran nahi du talde honen barnean badaudela gordetzailak direnak, eta baita berritzaile direnak ere.

4.16.6. Cluster analisia



223. irudia: $[r] \rightarrow \langle \emptyset, \text{fi} \rangle / V_V$ bilakabideari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, \emptyset aldaeraren %67-%77 bitarteko ehunekoa dute lekukoek. Adineko batzuek, Hergaraiko gizon helduak eta komiteetako gazte batzuek osatzen dute. 2. multzoan, %78 eta %85 bitarteko ehunekoak dituzte. Multzo hau osatzen dutenak adinekoak, helduak eta, beste behin, gordetzaile ageri den Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gatzetxeko gizon gaztea dira. Bi multzo hauek 6.a osatzen dute.

%85 eta %95 bitartean gauzatzen dute bilakabidea 3. multzokoek. Bertako partaide dira adinekoak, helduak eta gordetzaile den Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea. 6. multzoarekin batera elkaturik, bilakabidea ehuneko altuenean gauzatzen dutenen 7. multzoa osatzen dute. Hemendik goiti, zenbat eta multzo orokorragoan elkartu lekukoak, orduan eta berritzaileagoak izanen dira.


4. multzoan, %45 eta %60 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Heldu berritzaileek eta gazteek osatzen duten multzoa da. 7. multzoarekin elkartzean, 8.a osatzen dute.

Azkenik, 5. multzoan, bilakabidea ehuneko apalenean gauzatzen duten lekukoak ditugu, denak gazteak. %6 eta %37 bitarteko ehunekoak dituzte. 8. multzoarekin elkartzean, 9.a osatzen dute. Azkenik, Gamarteko adineko gizona gehitzen zaio multzorik orokorrenari. Hau da [h] aldaera erabili duen lekuko bakarra. %89,91en darabil \emptyset aldaera.

4.17. [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
2068	87	309	13

215. taula: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




224. irudia: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

[u]→<i>/_[a, e] bilakabideak osagarri ona du, oro har, Garazin, %87n erabiltzen baita [i] aldaera.

4.17.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	371	90,93	37	9,07
Arnegi-Lasa	389	95,81	17	4,19
Irulegi-Anh.	286	86,93	43	13,07
Ezterenzubi	388	96,04	16	3,96
Hergarai	281	85,93	46	14,07
Gamarte-Ai.	353	70,18	150	29,82

216. taula: [u]→[i]/[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




225. irudia: [u]→[i]/[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.628897	1.6834785	-5.1256353	2.965362e-07
Arnegi-Lasa	0.684220	1.5033638	0.4551260	6.490186e-01
Irulegi-Anhauze	2.753320	1.4493249	1.8997259	5.746909e-02
Ezterenzubi	1.224037	1.4680415	0.8337889	4.043999e-01
Hergarai	1.947938	1.4622539	1.3321476	1.828117e-01
Gamarte-Ainhiza	3.523573	1.4473959	2.4344226	1.491557e-02

217. taula: [u]→[i]/[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Ezterenzubi eta Arnegi-Lasa dira eremurik gordetzailenak bilakabide honi dagokionez. Eremurik berritzaileena, berriz, alde handiarekin, Gamarte-Ainhiza da. Luzaide eta azken eremu honen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




226. irudia: [u]→[a, e] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Bilakabidea gauzatzearen, hots, [i] aldaera erabiltzearen erdiko baliorik altuena Luzaide eta Arnegi-Lasak dute. Luzaideko erdiko balioa, gainera, %100ekoa da, nahiz eta talde honen ehunekoa ez izan hain altua. Erdiko baliorik apalena, berriz, Gamarte-Ainhizak du. Arnegi-Lasa eta Ezterenzubi dira eremurik trinkoenak, eta sakabanatuena, alde handiz, Gamarte-Ainhiza. Bertan daude, beraz, lekukorik berritzaileenak.

4.17.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	748	99,6	3	0,4
Helduak	601	94,79	33	5,21
Gazteak	719	72,48	273	27,52

218. taula: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




227. irudia: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.628897	1.6834785	-5.1256353	2.965362e-07
Helduak	3.469318	1.3683011	2.5354933	1.122891e-02
Gazteak	5.860377	1.2762638	4.5918226	4.393918e-06

219. taula: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoengan badago bilakabidea ez gauzatzearen adibide bakarren bat edo beste. Helduengan ehunekoa zertxobait hazten da, baina igoerarik handiena, zernahi gisaz, gazteengan gertatzen da. Beste behin, agerian gelditzen da erregistro idatziak azken adin talde honengan duen indarra, *u* idazten baita, eta ez *i*. Hiru adin taldeen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




228. irudia: [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

%100en biltzen dira adinekoen ehuneko ia guztiak. Erdiko balioa zertxobait apalagoa da helduen kasuan, eta sakabanaketa ere handiagoa da. Gazteen erdiko balioa oraindik ere apalagoa da, baina kasu honetan, ez dago aztertu berri ditugun ehunekoetan ikusi dugun bezalako alde handirik helduekiko. Hori bai, biziki talde sakabanatua da gazteena, %100tik %0rainokoa. Sakabanaketarik handiena erdiko balioaren eta minimoaren artean dauka talde honek. Horrek gazteen ehunekoa, erdiko balioa ez bezala, helduena baino aise apalagoa izatea eragiten du.

4.17.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	162	100	108	100	101	73,19
Arnegi-La.	109	100	125	99,21	155	90,64
Irulegi-An.	121	99,18	47	74,6	118	81,94
Ezterenzubi	118	98,33	133	97,79	137	92,57
Hergarai	81	100	45	80,36	155	81,58
Gamarte-A.	157	100	143	98,62	53	26,37

220. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzeari dagokionez



229. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzeari dagokionez


Ez dugu analisi estatistikorik erakutsiko modeloak ematen dizkigun konbergentzia arazoak direla eta.

Bilakabidea ia %100en gauzatzen dute eremu guztietako adinekoek, eta hala egiten dute Luzaide, Arnegi-Lasa, Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhizako helduek ere. Irulegi-Anhauze eta Hergaraiko helduak berritzaile dira besteei konparatuz. Eremu hauetako gazteek ere, gutxi gorabehera, helduen ehunekoei eusten diete eta Luzaideko gazteen ehunekoa heldurik berritzaileen parera jaisten da. Arnegi-Lasa eta Ezterenzubiko gazteak besteak baino gordetzaileago ageri dira, eta Gamarte-Ainhizakoak, berriz, besteak baino anitzez berritzaileago.

4.17.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1012	83,98	193	16,02
Gizonak	1056	90,1	116	9,9

221. taula: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




230. irudia: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.628897	1.6834785	-5.1256353	2.965362e-07
Gizonak	-1.445235	0.7880993	-1.8338238	6.668016e-02

222. taula: [u]→<i>/_[a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak, bilakabide honen kasuan ere berritzaile dira, nahiz eta gizonekiko aldea ez den oso handia eta ez den estatistikoki esanguratsu.




231. irudia: [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino zertxobait apalagoa da, baina bi taldeen ehunekoak artean dagoen aldea emazteen taldearen sakabanaketari zor zaio, hauen erdiko balioa eta minimoa elkarrengandik anitzez distantziatuago baitaude gizonen kasuan baino.

4.17.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	362	74,49	124	25,51
Publikokoak	357	70,55	149	29,45

223. taula: [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




232. irudia: [u]→<i>/_ [a, e] bilakabidea gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
Hergaraiko gazteak	0.65620923	0.9054553	0.7247285	4.686186e-01
Gamarte-Ainhizako helduak	-0.57520974	1.0319637	-0.5573934	5.772587e-01
Gamarte-Ainhizako gazteak	0.72188042	0.9020680	0.8002506	4.235656e-01
372. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren arteko aldeari dagokionez, geografiaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa				

Geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginari erreparaturik ere, ez dugu ikusten alde aipagarriarik. Eremu guztietan aski ehuneko bertsuan erabiltzen dute *-rat* aldaera hiru adin taldeek. Luzaidarren balioak, hori bai, besteenak baino apalagoak dira hiru adin taldeetan, baina ez dira apaltzen adin talde batetik bestera. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.28.3. Generoaren arabera

	-rat		-ra		-la	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1296	61,8	800	38,15	1	0,05
Gizonak	1221	64,5	670	35,39	2	0,11

373. taula: adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




379. irudia: adlatiboko aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.58400660	0.9757406	0.5985265	5.494887e-01
Gizonak	0.06988507	0.2379218	0.2937312	7.689633e-01

374. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Generoaren arabera ere, aldea txikia da biziki, eta ez da estatistikoki esanguratsua.




380. irudia: adlatiboko *-rat* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Gizonen *-rat* aldaeraren erdiko balioa emazteena baino zertxobait altuagoa da, eta gainera, talde hau sakabanatuagoa da. Aldea ez da handia, halere.

4.28.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-rat		-ra		-la	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	604	62,98	355	37,02	0	0
Publikokoak	557	66,87	275	33,01	1	0,12

375. taula: adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




381. irudia: adlatiboko aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.23245242	0.7768770	-0.2992140	0.7647768
Publikokoak	-0.06880659	0.4046236	-0.1700509	0.8649701

376. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Hezkuntza-ereduaren arabera ere, aldea apala da biziki eta ez da estatistikoki esanguratsua.




382. irudia: adlatiboko -rat aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

382. irudiari erreparaturik, publikokoaren erdiko balioa ikastolakoena baino altuagoa da, eta talde hau da, halaber, trinkoena.

4.28.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-rat		-ra		-la	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	369	66,37	187	33,63	0	0
Komiteetakoak	597	67,92	281	31,97	1	0,11
Luzaidarrak	195	54,62	162	45,38	0	0

377. taula: adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




383. irudia: adlatiboko aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.23245242	0.7768770	-0.2992140	0.7647768
Komiteetakoak	0.34337335	0.4558680	0.7532297	0.4513119
Luzaidarrak	0.71955595	0.5199834	1.3838056	0.1664180

378. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Ez dago alde handirik gaztetxeakoen eta komiteetakoen artean. Luzaidarrek usuago erabiltzen dute *-ra* aldaera, baina horren zergatietarik bat zein izan daitekeen aipatuko dugu 4.28.7.2. §-ean. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




384. irudia: adlatiboko *-rat* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoen erdiko balioa da denetan altuena, pixka bat apalagoa da komiteetakoena, eta apalena luzaidarrena da. Komiteetakoena taldea da denetan trinkoena, eta sakabanatuena, berriz, gaztetxeakoen. Horrek erran nahi du badirela talde honen barruan *-ra* aldaeraren alde egiten dutenak ere.

4.28.6. Baldintza linguistikoaren arabera: testuinguru fonikoa

	-rat		-ra	
	Kop.	%	Kop.	%
Erranaldi bukaeran	994	75,42	324	24,58
Kontsonantearen aitzinean	433	31,63	936	68,37
Bokalaren aitzinean	1090	83,85	210	16,15

379. taula: adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera



385. irudia: adlatiboko aldaeren ehunekoak testuinguru fonikoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.58400660	0.9757406	0.5985265	5.494887e-01
Kontsonantearen aitzinean	2.50156031	0.1061914	23.5570816	1.062179e-122
Bokalaren aitzinean	-0.57980529	0.1167243	-4.9673061	6.788938e-07


380. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa testuinguru fonikoaren arabera

Testuinguru fonikoak berebiziko eragina du *-rat* edo *-ra* erabiltzean. Espero genuen bezala, ondoko hitza bokalez hasten delarik erabiltzen da gehienik *-rat* aldaera. *-ra* aldaeraren ehuneko handiena, berriz, ondoko hitza kontsonantez hasten delarik dugu. Azkenik, erranaldi bukaeran uste baino aise handiagoa da *-rat* aldaeraren ehunekoa. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

4.28.6.1. Testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Erranaldi bukaeran	304	73,43	261	83,12	429	72,71
Kontsonantearen aitzinean	106	23,45	85	25	242	41,94
Bokalaren aitzinean	346	88,27	254	89,44	490	78,53

381. taula: testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak adlatiboko -rat aldaerari dagokionez



386. irudia: testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak adlatiboko -rat aldaerari dagokionez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.4802782	0.9160635	0.5242848	6.000805e-01
Kontsonantearen aitzinean helduetan	0.6762486	0.2823406	2.3951517	1.661349e-02
Kontsonantearen aitzinean gazteetan	-1.0489917	0.2312485	-4.5362093	5.727433e-06
Bokalaren aitzinean helduetan	0.6148281	0.3441761	1.7863765	7.403831e-02
Bokalaren aitzinean gazteetan	0.4899082	0.2692249	1.8196983	6.880496e-02

382. taula: adlatiboko -rat eta -ra aldaeren artean, testuinguru fonikoaren eta adinaren arteko elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa


Adinean behera joan ahala, testuinguru fonikoari dagozkion desberdintasunak neutralizatzen doaz. Adinekoengandik helduengana, -rat erranaldi bukaeran erabiltzearen ehunekoa bokal aitzineko testuinguruari hurbiltzen zaio. Gazteen kasuan,

berriz, bi posizio hauen ehunekoak jaitsi egiten da, eta kontsonante aitzinekoa igo. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

4.28.7. Baldintza linguistikoaren arabera: hitza

	rat		ra		la	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Aditzaren erregimena	201	40,85	291	59,15	0	0
Izen bereziak	620	66,95	306	33,05	0	0
<i>Gainera</i> hitza	15	10,27	131	89,73	0	0
Gainerakoak	1681	69,29	742	30,59	3	0,12

383. taula: adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak hitzaren arabera




387. irudia: adlatiboko aldaeren ehunekoak hitzaren arabera

Gainera lokailuan *-ra* aldaera da erabat nagusitzen dena, eta aditzaren erregimenari dagokionez ere, aldaera hau da nagusitzen dena. Izen bereziek gainerako hitzen joera bera dute. Azken hauen kasuan, beraz, ez da gure hipotesia frogatu.

4.28.7.1. Hitzaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Aditzaren erregimena	35	23,18	68	48,92	98	48,51
Izen bereziak	146	67,91	147	67,43	327	66,33
<i>Gainera</i> hitza	1	25	0	0	14	10,22
Gainerakoak	574	64,49	385	66,84	722	75,21

384. taula: hitzaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak adlatiboko -rat aldaerari dagokionez




388. irudia: hitzaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak adlatiboko -rat aldaerari dagokionez

Datuek erakusten digutenez, adinekoek aditzaren erregimenean *-ra* erabiltzen dute gehienik, baina *-rat*-en ehunekoa handitu egiten da helduen eta gazteen kasuan. *Gainera* lokailuari dagokionez, adinekoek ia ez dute erabiltzen, *aitzina* baita, *gainera*-ren ordez, beraien artean ohikoa dena. Helduek usuago erabiltzen dute, baina gazteak dira gehien darabiltenak. Hori dela eta, adinaren arabera, aldeek ez digute kasu honetan informazio anitz ematen. Azkenik, gazteek izen berezien kasuan *-ra* erabiltzeko joera zutelako hipotesia genuen, baina datuek erakusten digute ez dela hala.

4.28.7.2. Aditzaren erregimenaren eta geografiaren arteko elkarreragina

	-rat		-ra	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	4	2,94	132	97,06
Arnegi-Lasa	38	54,29	32	45,71
Irulegi-Anhauze	23	50	23	50
Ezterenzubi	58	63,04	34	36,96
Hergarai	42	57,53	31	42,47
Gamarte-Ainhiza	36	48	39	52


385. taula: aditzaren erregimenean adlatiboko aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



389. irudia: aditzaren erregimenean adlatiboko aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

Datuek argi eta garbi erakusten digute, Luzaiden, beste eremuetan baino anitzez gutxiago erabiltzen dela *-rat* aditzaren erregimenean. Aztertu ditugun kasuen ia %100en *-ra* erabili dute lekuko luzaidarrek kasu honetan, baita gazteek ere. Ikusi dugu 4.28.1. eta 4.28.5. §-etan, *-ra* aldaera erabiliagoa dela Luzaiden, baina hori aditzaren erregimenean aldaera hau baino ez erabiltzeagatik da, hein batean, bederen.

4.28.8. Cluster analisia



390. irudia: adlatiboari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan %54-%59 bitartean erabiltzen dute lekukoek *-rat*. Multzo honetan, batez ere luzaidarrak ditugu eta baita Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako neska gaztea ere. Ondoren, Luzaideko emazte gazteak eta Gamarte-Ainhizako adineko emaztea elkartzen dira 4. multzoa osatuz. %44 eta %48 bitartean erabiltzen dute *-rat* aldaera.

2. multzoan, berriz, %62-%71en erabiltzen dute aldaera hau. Bertan daudenak adinekoak, helduak eta komiteetako gazteak dira gehienak. 4. multzoarekin elkartzean, biek 7.a osatzen dute. Ondoren, multzo honi gehitzen zaizkio *-ra* besteak baino usuago erabiltzen duten Luzaideko adineko gizona, Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizona eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea. %32,88,


%32 eta %31,58ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren. Denek batera 8. multzoa osatzen dute.

3. multzoan, %78 eta %83 bitartean erabiltzen dute *-rat*. Sozialki multzo heterogeneoa da, eta ez da bereizketa garbirik egiten ahal. Ondoren multzo honetara gehitzen direnen artean ere ez da aldagai sozial jakin bat edo bestea nagusitzen. 5. multzoa osatuz gehitzen direnek %70-%75en erabiltzen dute *-rat*, eta 6. multzoa osatuz gehitzen direnek, berriz, %89,55 eta %85,29ko ehunekoak dituzte.

4.29. [o]/[e]-dun aldaerak *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrietan

[o]		[e]	
Kop.	%	Kop.	%
799	90,59	83	9,41

386. taula: *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




391. irudia: *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrien aldaeren ehuneko orokorrak

[o]-dun aldaerak dira Garazin, egungo egunean, ia erabat nagusitzen direnak. Presentzia biziki apala dute [e]-dunek.

4.29.1. Geografiaren arabera

	[o]		[e]	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	105	75,54	34	24,46
Arnegi-Lasa	203	92,69	16	7,31
Irulegi-Anh.	84	94,38	5	5,62
Ezterenzubi	169	98,26	3	1,74
Hergarai	117	91,41	11	8,59
Gamarte-Ai.	121	89,63	14	10,37

387. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




392. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.1725804	1.1366463	-1.0316141	0.30225292
Arnegi-Lasa	-1.5059648	1.2369458	-1.2174865	0.22341915
Irulegi-Anhauze	-2.2530074	1.3982253	-1.6113336	0.10710703
Ezterenzubi	-2.8867939	1.3458013	-2.1450373	0.03194986
Hergarai	-0.9418837	1.2103684	-0.7781794	0.43646326
Gamarte-Ainhiza	-1.2218701	1.2259643	-0.9966604	0.31892937

388. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Luzaiden dugu [e]-dun aldaera gehien, eta gutxien, berriz, Ezterenzubin. Luzaideren izaera berritzaile edo gordetzailari buruz zehatzago arituko gara 4.29.2.1. eta 4.29.3.1. §-etan. Luzaide eta Ezterenzubiren arteko aldea esanguratsua da

estatistikoki. Luzaide ez beste eremuetan, oro har, presentzia biziki apala dute [e]-dun aldaerek. Euskara Batuak eta nafar-lapurterak ez dute izan, beraz, berebiziko eraginik.




393. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaeren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Luzaideko erdiko balioa da denetan apalena, baina ez du beste eremuenarekiko alde handirik, denak baitaude %100en inguruan. Luzaide da, era berean, eremurik sakabanatuena; besteak baino anitzez gehiago.

4.29.2. Adinaren arabera

	[o]		[e]	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	207	87,71	29	12,29
Helduak	260	98,48	4	1,52
Gazteak	332	86,91	50	13,09

389. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




394. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.1725804	1.1366463	-1.0316141	0.30225292
Helduak	-2.1001239	1.2127561	-1.7316952	0.08332784
Gazteak	1.2039733	0.9082525	1.3255931	0.18497450

390. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

%12,29ko ehunekoa dute [e]-dun aldaerek adinekoengan; ia %0raino jaisten dira helduen kasuan; eta berriz ere adinekoen ber heinera igotzen dira gazteengan. [o]-dun aldaerak aspaldiko berrikuntzak dira. Beraz, adineko zenbaitek [e]-dun aldaera zaharragoak gordetzen dituztela uste dugu. Zernahi gisaz, gerta liteke adineko horiek prestigioa izan duen elizako eta liburuetakoko euskara lapurtarrera hurbiltzeko indarra egitea ere. Halaber, egungo egunean, berriz ere [e]-dun aldaerak hedatzen ari dira nafar-lapurteraren eta Euskara Batuaren eraginez. Hori dela eta, gazteak, aldaera hauek

helduek baino gehiago erabiltzean, berritzaile izaten ari direla uste dugu. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




395. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaeren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen eta helduen erdiko balioak %100ekoak dira. Gazteena, aldiz, beste biena baino apalagoa da. Lehen bi adin taldeak trinkoak dira biziki, batez ere helduena. Lekuko urrunduak dira adinekoen [o]-dun aldaeren ehunekoa jaisten dutenak. Gazteen taldea da denetan sakabanatuena.

4.29.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	16	44,44	58	98,31	31	70,45
Arnegi-La.	37	94,87	89	100	77	84,62
Irulegi-An.	31	100	19	100	34	87,18
Ezterenzubi	56	100	38	97,44	75	97,4
Hergarai	32	86,49	21	91,3	64	94,12
Gamarte-A.	35	94,59	35	100	51	80,95

391. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaerei dagokienez



396. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaerei dagokionez


Ez dugu analisi estatistikorik erakutsiko, modeloak ematen dizkigun konbergentzia arazoak direla eta.

Eremu gehienetan, ia beti [o]-dun aldaerak erabiltzen dituzte. Luzaide eta Gamarte-Ainhiza dira aldakortasun handiena erakusten dutenak. Luzaideko adinekoek [e]-dun aldaeren alde egiten dute, eta hein aski apalagoan baita Hergaraiakoek ere. Luzaide inguruko eremuetan (Aldudeko ibarrean, Aezkoan, Auritzen eta Erroibarren) [e]-dun aldaerak erabiltzeak eragin duke, gure iritziz, adinekoen ehuneko apala. Gazteen kasuan, berriz, beste behin, luzaidarrak ageri dira berritzaile, eta baita Gamarte-Ainhizakoak ere. Ezterenzubiarrak dira [o]-dun aldaerak hobekien atxiki dituztenak.

4.29.3. Generoaren arabera

	[o]		[e]	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	298	84,18	56	15,82
Gizonak	501	94,89	27	5,11

392. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




397. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.1725804	1.1366463	-1.0316141	0.30225292
Gizonak	-1.9862911	0.7721422	-2.5724420	0.01009839

393. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek [e]-dun aldaerak gizonek baino usuago erabiltzen dituzte, eta aldea, gainera, estatistikoki esanguratsua da.




398. irudia: *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrien [o]-dun aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

398. irudiak erakusten digunez, bi generoen erdiko balioak biziki hurrak daude. Emazteen taldea, ordea, aise sakabanatuagoa da, eta horrek [o]-dun aldaeren ehunekoa apalagoa izatea eragiten du.

4.29.3.1. Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	67	69,79	141	97,92	67	69,79
Gizonak	265	92,66	119	99,17	265	92,66

394. taula: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaerei dagokienez



399. irudia: generoaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaerei dagokienez

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.5205587	1.304219	-1.1658765	0.24366436
Gizon helduak	0.4286167	2.418143	0.1772504	0.85931173
Gizon gazteak	-1.4300344	1.845079	-0.7750531	0.43830830


394. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta zonbait/zenbait hitzetan, generoaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa

Datuetan ikus dezakegunez, adineko emazteak eta emazte gazteak dira [e]-dun aldaeren alde egiten dutenak. Ez dago generoaren arabera ia alderik helduei dagokienez. Adineko emazteak gordetzaille eta emazte gazteak berritzaile direla uste dugu. Zernahi gisaz, 4.29.2. §-ean aipatu bezala, adineko emazte zenbait prestigioa izan duen elizako euskara lapurtarrari jarraitzea ere litekeena da. Aldeak ez dira, hala ere, estatistikoki esanguratsuak.

4.29.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	[o]		[e]	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	135	81,33	31	18,67
Publikokoak	197	91,2	19	8,8

395. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




400. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.33774629	0.8828522	-1.51525511	0.12970781
Publikokoak	0.18354829	1.2837873	0.14297406	0.88631067

396. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek erabiltzen dituzte gehien [e]-dun aldaerak. Aldera hauek dira ikastolan lantzen den Euskara Batuan erabiltzen direnak, eta horrek eragina du bertan ikasten duten gazteengan. Aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsua.




401. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaeren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

%100ekoa da publikoko gazteen [o]-dun aldaeren erdiko balioa. Ikastolakoena, aldiz, apalagoa da. Hala ere, ikastolako taldea publikokoena baino aise trinkoagoa da.

4.29.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	[o]		[e]	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	73	71,57	29	28,43
Komiteetakoak	228	96,61	8	3,39
Luzaidarrak	31	70,45	13	29,55

397. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




402. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.33774629	0.8828522	-1.51525511	0.12970781
Komiteetakoak	-2.59107190	1.4180538	-1.82720277	0.06766929
Luzaidarrak	0.09619388	1.5333883	0.06273289	0.94997920

398. taula: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Bai nafar-lapurtera idatzian eta bai Euskara Batuan, [e]-dun aldaerak dira erabiltzen direnak. Hori dela eta, hauek hedatuago daude gaztetxeoen eta luzaidarren artean, komiteetakoei konparatuz gero, bederen. Kasu honetan, ez da aise jakitea gaztetxeoengan nafar-lapurterak bakarrik duen eragina, edota baita Euskara Batuak ere. Dena den, erran beharra da, talde guztietan nagusitzen direnak [o]-dunak direla. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.



403. irudia: zoin/zein, zonbat/zenbat eta eratorrien [o]-dun aldaeren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Ehuneko bertsua izanagatik, luzaidarren [o]-dun aldaeren erdiko balioa gaztetxeoena baino apalagoa da. Haatik, bi taldeek sakabanaketa bertsua dute. Komiteetakoaren erdiko balioa %100ekoa da, eta talde hau da, gainera, trinkoena.

4.29.6. Cluster analisia




404. irudia: *zoin/zein, zonbat/zenbat* eta eratorrien [o]-dun eta [e]-dun aldaerei dagokien cluster analisia

Lehen multzoan, beti edo ia beti [o]-dun aldaerak erabiltzen dituzten Garaziko lekuko gehienak ditugu. 2. multzoan, berriz, %75 eta %87 bitartean erabiltzen dituzte aldaera hauek. Multzo honetan, Hergaraiko adineko emaztea eta emazte heldua, gaztetxeko gazteak eta Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako emazte gaztea daude. Bi multzo hauek 4.a osatzen dute. 3. multzoa biziki heterogeneoa da, %9 eta %50 bitarteko ehunekoak baitituzte bertako lekukoek. Multzo honetan ditugu Luzaideko adineko emaztea, herri honetako emazte gazteak, gaztetxeko gazteak, ohi bezala berritzaile ageri den Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea eta Arnegiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea.

4.30. Datibo plurala

-er		-eri		-ei	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
281	93,36	7	2,33	13	4,32

399. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




405. irudia: datibo pluralaren aldaeren ehuneko orokorrak

-er da datibo pluralean erabiliena den aldaera Garazin, %90ko langa gainditzen baitu. Ehuneko biziki apalak dituzte bai -eri eta bai -ei aldaerek.

4.30.1. Geografiaren arabera

	-er		-eri		-ei	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	26	76,47	0	0	8	23,53
Arnegi-Lasa	58	95,08	3	4,92	0	0
Irulegi-Anh.	42	91,3	0	0	4	8,7
Ezterenzubi	48	96	2	4	0	0
Hergarai	52	98,11	0	0	1	1,89
Gamarte-Ai.	55	96,49	2	3,51	0	0

400. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




406. irudia: datibo pluralaren aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.648167	1.678555	-1.577647	0.11464672
Arnegi-Lasa	-2.473279	1.578261	-1.567092	0.11709329
Irulegi-Anhauze	-2.493651	1.691117	-1.474559	0.14033123
Ezterenzubi	-3.939745	1.995847	-1.973972	0.04838495
Hergarai	-3.935409	1.978976	-1.988608	0.04674444
Gamarte-Ainhiza	-3.712952	1.844640	-2.012833	0.04413220

401. taula: datibo pluralaren -er, eta -eri eta -ei aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Luzaide salbu, beste eremu guztietan *-er* aldaera da erabat nagusi dena. Beste inon baino presentzia handiagoa du Luzaiden Euskara Batuko *-ei* aldaerak, nahiz eta Irulegi-Anhauze eta Hergarain ere baditugun adibideak. Hauetarik, ia denak gazteek emanak

dira. Arnegi-Lasa, Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhizan atzeman ditugu *-eri*-ren adibideak, baina aldaera honen presentzia biziki apala da. *-eri* aldaera hauxe da tradizio nafar-lapurtarrean erabiliena izan dena; beraz, Luzaide ez beste eremuetan *-er* aldaerak duen ehuneko altuak Garaziko euskarak nafar-lapurtera literarioaren, eta areago, iparraldeko batuaren aitzinean, hizkuntza-aldagai zenbaitetan, bere identitatea atxikitzen duela pentsatzera eramaten gaitu. *-eri* eta *-ei* aldaerek duten adibide kopuru apala dela eta, elkarrekin batera hartu ditugu kontuan analisi estatistikoa egiteko tenorean. Luzaide eta Ezterenzubi, Luzaide eta Hergarai eta Luzaide eta Gamarte-Ainhizaren arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.



407. irudia: datibo pluralaren *-er* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografien arabera


Beste bi aldaeren adibide kopuru apala dela eta, *-er* aldaerari dagozkion datuak baino ez ditugu erakutsiko lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioez eta sakabanaketaz aritzean.

Eremu guztietako erdiko balioak %100ekoak dira. Taldeen sakabanaketari dagokionez, lekuko gehienen ehunekoak ere %100ekoak dira eremu gehienetan. Luzaide biziki eremu sakabanatua da besteei konparatuz. Arnegi-Lasa ere besteak baino sakabanatuagoa da; Luzaide baino hein apalagoan, halere.

4.30.2. Adinaren arabera

	-er		-eri		-ei	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	96	100	0	0	0	0
Helduak	82	98,8	1	1,2	0	0
Gazteak	103	84,43	6	4,92	13	10,66

402. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.648167	1.678555	-1.577647	0.11464672
Gazteak	3.896176	1.654671	2.354653	0.01854000

403. taula: datibo pluralaren -er, eta -eri eta -ei aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin adinekoen talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako (-er erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, adinekoen taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

-er da adinekoek erabiltzen duten aldaera bakarra. Helduen kasuan, -eri-ren adibide bakar bat dugu. Bi aldaera berriak gazteek erabiltzen dituzte gehienik; batez ere, -ei. Dena den, adin talde honetakoan artean ere, -er aldaera da nagusi. Helduen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




409. irudia: datibo pluralaren *-er* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Hiru adin taldeen erdiko balioa %100ekoa da *-er* aldaerari dagokionez. Gazteen taldea da, helduengan dugun lekuko urrundua aparte utzirik, sakabanaketa duen talde bakarra.

4.30.3. Generoaren arabera

	-er		-eri		-ei	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	123	89,13	4	2,9	11	7,97
Gizonak	158	96,93	3	1,84	2	1,23

404. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




410. irudia: datibo pluralaren aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.648167	1.678555	-1.577647	0.11464672
Gizonak	-1.810400	1.073536	-1.686391	0.09172058

405. taula: datibo pluralaren -er, eta -eri eta -ei aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek dute *-er* aldaeraren ehuneko apalena. *-ei* da talde honetakoek gehien darabilten aldaera berria. Aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsua.




411. irudia: datibo pluralaren *-er* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi taldeen erdiko balioak %100ekoak dira *-er* aldaerari dagokionez. Emazteen taldea gizonena baino sakabanatuagoa da, baina gizonek lekuko urundu anitz dituzte.

4.30.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-er		-eri		-ei	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	49	84,48	4	6,9	5	8,62
Publikokoak	54	84,38	2	3,12	8	12,5

406. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




412. irudia: datibo pluralaren aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.9891357	1.160938	-2.5747580	0.01003102
Publikokoak	-0.7752708	1.648377	-0.4703237	0.63812376

407. taula: datibo pluralaren -er, eta -eri eta -ei aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Alde txikia dago ikastolakoan eta publikokoan artean, nahiz eta lapurteran eta tradizio nafar-lapurtarrean erabilia izan den *-eri* ohikoagoa izan ikastolakoan kasuan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




413. irudia: datibo pluralaren *-er* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoaren erdiko balioa publikokoena baino apalagoa da, eta gainera, publikokoei konparaturik, talde sakabanatuagoa osatzen dute ikastolakoek.

4.30.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-er		-eri		-ei	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	43	89,58	4	8,33	1	2,08
Komiteetakoak	56	90,32	2	3,23	4	6,45
Luzaidarrak	4	33,33	0	0	8	66,67

408. taula: datibo pluralaren aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




414. irudia: datibo pluralaren aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.9891357	1.160938	-2.5747580	0.01003102
Komiteetakoak	0.1466858	1.779375	0.0824367	0.93429945
Luzaidarrak	4.7492052	2.306865	2.0587271	0.03952039

409. taula: datibo pluralaren -er, eta -eri eta -ei aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Biziki iduriak dira gaztetxeoen eta komiteetakoaren taldeak. Bietan *-er* da nagusi den aldaera eta %10etik beherako ehunekoa dute aldaera berriek. Gaztetxeoen kasuan, lapurteraz eta tradizio nafar-lapurtarrean erabili izan den *-eri*-ren ehunekoa altuxeagoa da, halere. Zernahi gisaz, hizkuntza-aldagai honen kasuan, badirudi tradizio honek ez duela eragin handirik izan, Iparralde barnealdean (Zuberoa, Nafarroa Behere eta Lapurdi ekialdean) ohikoa den *-er* baita gaztetxeoek eta komiteetakoek gehien erabiltzen duten aldaera. Luzaidarren kasuan, erabat egoera desberdina dugu, *-ei* baita hauek gehien erabiltzen duten aldaera, Iparraldean baino areago, Hegoaldean erabiltzen


den Euskara Batuak hala eraginda. Beste behin, muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari dela erakusten digu datibo pluralak; izan ere grabitazio indar desberdinen arabera funtzionatzen dute Iparraldeak eta Hegoaldeak. Gaztetxekoen eta luzaidarren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.



415. irudia: datibo pluralaren -er aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxekoen eta komiteetakoak -er aldaeraren erdiko balioak %100etik hurbil daude; luzaidarrena, aldiz, %0ra hurbiltzen da. Azken talde hau da, era berean, sakabanatuena. Trinkoena, berriz, komiteetakoena da.

4.30.6. Cluster analisia



416. irudia: datibo pluralari dagokion cluster analisia


Multzorik zabalenean, Garaziko lekuko gehienek *-er* aldaera erabiltzen dute %100en. Ondoren, Irulegiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea eta Hergaraiako publikoko eta komiteetako gizon gaztea elkartzen dira lehen multzoa sortuz. %83,33 eta %75eko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren. *-er* aldaerarekin batera erabiltzen dutena *-ei* da. 2. multzoan elkartzen diren Arnegi-Lasako emazte helduak eta eremu bereko ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak, berriz, %85,71n eta %83,33n erabiltzen dute *-er*, eta %14,29n eta %16,67n *-eri*. Maila goragoan, 3. multzoan elkartzen dira Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea, Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea eta Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea. %60 eta %72 bitartean erabiltzen dute *-er*, eta %28 eta %40 bitartean *-eri*.

Elkartzen azkenak Luzaideko hiru gazte eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gaztea dira. %100en erabiltzen dute *-ei* Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak eta Luzaideko ikastolako gazteek. Luzaideko publikoko emazte gazteak, berriz, %80n darabil *-ei* eta %20n *-er*.

4.31. Sozietatiboa

-kilan		-kin	
Kop.	%	Kop.	%
604	19,05	2566	80,95

410. taula: sozietatiboaren aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




417. irudia: sozietatiboaren aldaeren ehuneko orokorrak

Ehuneko aski apala du ekialdeko *-kilan* aldaerak. *-kin* da erabat nagusitzen dena, %80tik gorako ehunekoarekin.

4.31.1. Geografiaren arabera

	-kilan		-kin	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	37	6,02	578	93,98
Arnegi-Lasa	65	12,75	445	87,25
Irulegi-Anh.	104	20,59	401	79,41
Ezterenzubi	227	46,9	257	53,1
Hergarai	19	3,93	465	96,07
Gamarte-Ai.	152	26,57	420	73,43

411. taula: soziatiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




418. irudia: soziatiboaren aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.60981686	1.4669671	2.46073469	0.013865286
Arnegi-Lasa	0.06937546	1.6406825	0.04228451	0.966271893
Irulegi-Anhauze	-2.19461311	1.5516889	-1.41433836	0.157262578
Ezterenzubi	-4.55968128	1.5532888	-2.93550137	0.003330091
Hergarai	1.23845159	1.6655332	0.74357667	0.457132623
Gamarte-Ainhiza	-1.12861099	1.5921999	-0.70883748	0.478425336

412. taula: soziatiboaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Ezterenzubi da ekialdeko *-kilan* aldaerari hobekien eusten dion eremua. Luzaide, eta batez ere, Hergarai dira, bestalde, *-kin* gehien erabiltzen dutenak. Kontuan izanik Baigorri ez dugula *-kilan*-ik, deigarria da Irulegi-Anhauze hirugarren postuan egotea

aldaera hau gehien erabiltzen duten eremuen artean. Luzaide eta Ezterenzubiren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




419. irudia: sozietiboaren -kilan aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu gehien erabiltzen duten eremuen artean. Luzaide eta Ezterenzubiren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da. Eremu gehien erabiltzen duten eremuen artean. Luzaide eta Ezterenzubikoa da %25eko langa gainditzen duen bakarra. Bestalde, Irulegi-Anhauze da eremurik sakabanatuena. Eremu guztiek dituzte -kilan usu erabiltzen duten lekuko urrunduak.

4.31.2. Adinaren arabera

	-kilan		-kin	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	275	34,9	513	65,1
Helduak	173	23,96	549	76,04
Gazteak	156	9,4	1504	90,6

413. taula: sozietiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




420. irudia: sozietiboaren aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.60981686	1.4669671	2.46073469	0.013865286
Helduak	1.35359748	1.2772901	1.05974162	0.289262164
Gazteak	2.41003045	1.0809232	2.22960377	0.025773759

414. taula: sozietiboaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen artean, jada, *-kilan* ekialdekoaren ehunekoa *-kin* orokorraren erdia inguru da. Adin taldetik adin taldera jaisten doa, baina batez ere, helduen eta gazteen artean gertatzen da jaitsierarik handiena. Zernahi gisaz, *-kilan* adinekoengan batere sistematikoa ez izanik ere, ez da erabat galtzera heltzen gazteen artean. Ez Euskara Batuan, ez tradizio nafar-lapurtarrean ez da *-kilan* erabiltzen. Horrek, dudarik gabe, aldaera honen atzerakadan badu eraginik. Adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




421. irudia: soziatiboaren -kilan aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Adinekoen erdiko balioa %25 ingurukoa da. %0tik hurbil dago, ordea, bai helduena eta bai gazteena. Adinekoen eta helduen taldea biziki sakabanatua da, %0tik %100eraino. Gazteena, berriz, aise trinkoagoa da. Horrek erran nahi du aldakortasuna handia dela lehen bi adin taldeetan, baina batez ere, adinekoen kasuan. Gazte gehienek, aldiz, ez dute ia aldakortasunik, eta ia beti *-kin* da erabiltzen duten aldaera. Hala ere, bost lekuko urundu daude gazteen artean.

4.31.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	37	6,02	0	0	15	4
Arnegi-La.	65	12,75	42	38,18	3	0,96
Irulegi-An.	104	20,59	28	18,92	17	7,33
Ezterenzubi	227	46,9	85	68	85	38,12
Hergarai	19	3,93	17	22,08	1	0,36
Gamarte-A.	152	26,57	1	0,75	35	14,83

415. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak sozietatearen -kilan aldaerari dagokionez



422. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak sozietatearen -kilan aldaerari dagokionez


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.5837657	1.9056853	1.88056535	0.06003107
Arnegi-Lasako helduak	-17.2136299	30.1003022	-0.57187565	0.56740622
Arnegi-Lasako gazteak	3.1886845	3.2634500	0.97709005	0.32852457
Irulegi-Anhauzeko helduak	-14.1025101	30.0365891	-0.46951104	0.63870440
Irulegi-Anhauzeko gazteak	2.8159471	3.0136757	0.93438956	0.35010298
Ezterenzubiko helduak	-18.8100403	30.0881115	-0.62516520	0.53186264
Ezterenzubiko gazteak	-0.2041484	2.9974763	-0.06810677	0.94570064
Hergaraiko helduak	-20.0948488	30.0801357	-0.66804382	0.50410562
Hergaraiko gazteak	0.6129299	3.4841814	0.17591790	0.86035844
Gamarte-Ainhizako helduak	-10.8240440	30.0352711	-0.36037777	0.71856465
Gamarte-Ainhizako gazteak	3.7146960	3.1092672	1.19471753	0.23219741
416. taula: soziatiboaren aldaeren arteko aldeari dagokionez, geografiaren eta adinaren elkarreraginari dagokion analisi estatistikoa				

Lehenik eta behin, aipatu beharra dugu, hizkuntza-aldagai honen kasuan, aldaera baten edo bestearen erabilera anitz aldatzen dela lekuko batetik bestera: posible da beti *-kin* darabilen adineko bat atzematea, eta ber eremuan, *-kilan* usu darabilen gazte bat ere izatea. Adinekoen kasuan, eremuak homogeenagoak dira. Helduen kasuan, berriz, *-kilan* anitz erabiltzen duten eremu batzuk ditugu, eta beste batzuk, berriz, batere erabiltzen ez dutenak. Azkenik, gazteen artean, Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhiza dira %10eko langa gaitzen duten bakarrak. Deigarria da belaunaldi guztietan, Luzaidek duen ehuneko apala eta deigarria da, halaber, kasu honetan, Gamarte-Ainhizako gazteak ez direla berritzaile. Eremu hau ekialdean egoteak izan lezake zerikusirik *-kilan* beste eremuetan baino hobeki atxikitzean. Ezterenzubikoak dira, hiru adin taldeetan, *-kilan*-en alde gehien egiten dutenak. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.31.3. Generoaren arabera

	-kilan		-kin	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	293	17,37	1394	82,63
Gizonak	311	20,97	1172	79,03

417. taula: sozietiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




423. irudia: sozietiboaren aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.60981686	1.4669671	2.46073469	0.013865286
Gizonak	-0.92718730	0.9070946	-1.02215061	0.306709621

418. taula: sozietiboaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Generoaren arabera, aldea biziki apala da eta ez da estatistikoki esanguratsua.




424. irudia: sozietiboaren *-kilan* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Gizonen *-kilan* aldaeraren erdiko balioa emazteena baino zertxobait altuagoa da. Emazteen taldeko lekuko urrunduak gorabehera, gizonena talde sakabanatuagoa da.

4.31.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-kilan		-kin	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	30	3,37	861	96,63
Publikokoak	126	16,38	643	83,62

419. taula: sozietiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




425. irudia: sozietiboaren aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	5.7391082	0.9438327	6.0806412	1.197029e-09
Publikokoak	0.4578065	1.0934410	0.4186842	6.754470e-01

420. taula: sozietiboaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Publikokoek ikastolakoek baino usuago erabiltzen dute *-kilan*. Ikastolan lantzen den Euskara Batuan eta eredu nafar-lapurtarrean *-kin* dugu, eta hori eredu honetan ikasi duten gazteen artean, ageri da. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




426. irudia: sozietiboaren -kilan aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Bi taldeen erdiko balioak elkarri hurrin daude, biziki. Publikokoek, ordea, anitzez talde sakabanatuagoa osatzen dute.

4.31.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-kilan		-kin	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	4	0,73	545	99,27
Komiteetakoak	137	18,61	599	81,39
Luzaidarrak	15	4	360	96

421. taula: soziatiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




427. irudia: Soziatiboaren aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	5.7391082	0.9438327	6.0806412	1.197029e-09
Komiteetakoak	-3.4069040	1.3205356	-2.5799410	9.881719e-03
Luzaidarrak	-2.2495391	1.4398500	-1.5623426	1.182073e-01

422. taula: soziatiboaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Gaztetxeakoen eta komiteetakoen arteko aldea ikastolakoaren eta publikokoaren artekoa baino handiagoa da eta estatistikoki esanguratsua da. Kasu honetan ere, gaztetxeakoen artean eragina duena Euskara Batua edo nafar-lapurtera den jakitea ez da erraza, bietan erabiltzen den forma *-kin* baita. Luzaidarrek gaztetxeak baino arduraxeago erabiltzen dute *-kilan*, baina bi taldeen ehunekoak iduriak dira, eta aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Izen morfologiako hizkuntza-aldagai honetan, beste behin, komiteetakoen izaera gordetzailer frogatzen da.



428. irudia: sozietiboaren *-kilan* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Hezkuntza-ereduaren kasuan baino alde handiagoa dago gaztetxeen eta komiteetako erdiko balioen artean. Bien tartean dago luzaidarra. Zernahi gisaz, aski iduriak dira hiru erdiko balioak. Gaztetxeen eta luzaidarren sakabanaketa biziki txikia da, bakan erabiltzen baitute *-kilan*. Komiteetakoek, berriz, biziki talde sakabanatua osatzen dute.

4.31.6. Cluster analisia



429. irudia: soziatiboari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, %44 eta %67 bitartean erabiltzen dute *-kilan* aldaera. Adinekoek, helduek eta Gamarte-Ainhiza eta Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gazteek osatzen dute multzo hau. 2. multzoan, berriz, Gamarte-Ainhizako adineko emazteak %97,41eko ehunekoak du, Ezterenzubiko emazte helduak %100ekoa eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak %80,7koa. Bi multzoek batera, aski maila goran, 6.a osatzen dute.


3. multzoan, %12 eta %35 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Hiru adinekoek eta komiteetako hiru gazteek osatzen dute multzo hau. 4. multzoan, %3 eta %10 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Sozialki talde heterogeneoa da, baina ez dago gaztetxeko gazterik. Azkenik, 5. multzoan beti edo ia beti *-kin* erabiltzen duten lekukoak ditugu.

Hemen, eremu, adin talde, genero, hezkuntza-eredu eta praktika-komunitate guztietako lekukoak aurki genitzake.

4.32. Aditz laguntzaile ditransitiboetako erroa

*eradun		*i	
Kop.	%	Kop.	%
1096	88,39	144	11,61

423. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehuneko orokorrak




430. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehuneko orokorrak

*eradun erroa da Garazin erabat nagusi dena. Batuan erabilia den *i erroak, berriz, % 11,61eko ehunekoa du.

4.32.1. Geografiaren arabera

	*eradun		*i	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	202	62,35	122	37,65
Arnegi-Lasa	167	98,82	2	1,18
Irulegi-Anhauze	167	93,3	12	6,7
Ezterenzubi	220	98,21	4	1,79
Hergarai	174	99,43	1	0,57
Gamarte-Ainhiza	166	98,22	3	1,78

424. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




431. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.232198	1.725533	-1.8731595	0.061046366
Arnegi-Lasa	-4.835356	1.932663	-2.5019133	0.012352417
Irulegi-Anhauze	-1.231829	1.523288	-0.8086647	0.418708054
Ezterenzubi	-4.017096	1.851670	-2.1694449	0.030048924
Hergarai	-5.394560	2.067844	-2.6087849	0.009086434
Gamarte-Ainhiza	-2.981723	1.589042	-1.8764282	0.060596509

425. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Luzaide ez beste eremuetan, *i erroaren adibide banaka batzuk baino ez ditugu. Luzaidek, berriz, aldaera honen ehuneko aise goragoa du. Beste behin, Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batuaren eragina salatzen digute datuok. Literatur tradizio luzea

du **eradun* erroak nafar-lapurteraz, eta biziki ohikoa da gaur egungo Iparraldeko euskalaritzan ere. Hori dela eta, osagarri bete-betean dago Luzaide ez beste eremuetan. Badira hamarkada batzuk Luzaide eredu nafar-lapurtarretik aparte dabilela. Gaur egungo gazteek, eredu horren ordez, Euskara Batua lantzen dute herriko eskolatik beretik haste, Iruñean edota Nafarroako beste zeinahi herritan lantzen den bera. Luzaide eta Arnegi-Lasa, Luzaide eta Ezterenzubi eta Luzaide eta Hergaraiaren arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




432. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako **eradun* erroaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztietako erdiko balioak %100ekoak dira. Luzaide eta Irulegi-Lasa dira erdiko balioaren eta lehen kuartilaren artean sakabanaketa duten eremu bakarrak. Hori bai, beste eremu guztietan badira lekuko urrunduak.

4.32.2. Adinaren arabera

	*eradun		*i	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	497	100	0	0
Helduak	191	98,96	2	1,04
Gazteak	408	74,18	142	25,82

426. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




433. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.232198	1.725533	-1.8731595	0.061046366
Gazteak	3.861697	1.578992	2.4456730	0.014458207

427. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin adinekoen talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako (*eradun erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, adinekoen datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Adinekoek %100en erabiltzen dute *eradun, beraz. Helduen ehunekoa ere ez dago hortik urrun; aldiz, gazteen artean, aldaera berria hedatu da. Helduen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.




434. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako **eradun* erroaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

%100ekoa da hiru adin taldeen erdiko balioa. Gazteen taldea da sakabanatua den bakarra, eta bertan daude lekukorik urrundenak ere. Datu hauek erakusten digute lekukorik gehienek %100en erabiltzen dutela **eradun*.

4.32.3. Generoaren arabera

	*eradun		*i	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	617	81,18	143	18,82
Gizonak	479	99,79	1	0,21

428. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




435. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-3.232198	1.725533	-1.8731595	0.061046366
Gizonak	-4.718705	1.611046	-2.9289696	0.003400876

429. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak dira **i* erroa erabiltzen duten ia bakarrak, eta horrek beraien izaera berritzailea agerian jartzen du. Aldea estatistikoki esanguratsua da.




436. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako **eradun* erroaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Gizon guztiek ia %100en darabilte **eradun* erroa. Emazteen erdiko balioa ere %100ekoa da. Alabaina, gizonak baino sakabanatuago daude emazteak, eta biziki urrundurik dauden bi lekuko dituzte.

4.32.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	*eradun		*i	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	229	64,69	125	35,31
Publikokoak	179	91,33	17	8,67

430. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




437. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-4.487923	1.433680	-3.1303511	0.001745975
Publikokoak	1.190498	1.900753	0.6263297	0.531098716

431. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek aise ardurago darabilte *i* erroa publikokoei konparaturik, Euskara Batuak hezkuntza-eredu honetan duen presentziaren adierazgarri. Aldea ez da, ordea, estatistikoki esanguratsu.




438. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako **eradun* erroaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Bi taldeen erdiko balioak %100ekoak dira. Erdiko balioaren eta minimoaren arteko sakabanaketa handiagoa da publikokoen kasuan. Alabaina, Ikastolakoaren artean, lekuko urrundu gehiago eta urrunduagoak daude.

4.32.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	*eradun		*i	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	184	93,88	12	6,12
Komiteetakoak	190	95,96	8	4,04
Luzaidarrak	34	21,79	122	78,21

432. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




439. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-4.487923	1.433680	-3.1303511	0.001745975
Komiteetakoak	-2.053079	2.156938	-0.9518492	0.341173485
Luzaidarrak	2.805331	2.168578	1.2936272	0.195794222

433. taula: aditz laguntzaile ditransitiboetako erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Ia elkarren aurkakoak dira gaztetxeak eta komiteetak datuak batetik eta luzaidarrenak bestetik. Lehen bi talde hauetan, presentzia apala du *i erroak. Luzaidarren kasuan, berriz, *eradun erroari gailentzen zaio. Mugaren bi aldeetara, gazteak grabitazio indar desberdinen eraginpean daudela erakusten digute datuek: eredu nafar-lapurterrera eta handik eratorritako iparraldeko batura begira daude mugatik iparraldera, eta Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batura so Luzaiden. Aldeak ez dira

estatistikoki esanguratsuak, baina P. balioa hezkuntza-ereduaren arabera egin analisiskoa baino txikiagoa da.




440. irudia: aditz laguntzaile ditransitiboetako *eradun erroaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Elkarri hurrin daude gaztetxeakoen eta komiteetakoen erdiko balioak. Luzaidarrena, berriz, aise apalagoa da. Lehen bi talde hauek trinkoak dira biziki, ia beti *eradun erabiltzen baitute. Luzaidarrena, berriz, biziki sakabanatua da, %100tik %0rainokoa, hain zuzen ere.

4.32.6. Luzaiden, **eradun* erroaren gainean eraikitako aditz laguntzaile ditransitiboak datiboa lehen pertsona singularra edo bigarren pertsona singular *z/xukakoa* delarik

-au-		-ai-	
Kop.	%	Kop.	%
48	76,19	15	23,81


434. taula: Luzaiden, **eradun* erroaren gainean eraikitako aditz laguntzaile ditransitiboaren aldaeren kopuru eta ehunekoak datiboa lehen pertsona singularra edo bigarren pertsona singular *z/xukakoa* delarik



441. irudia: Luzaiden, **eradun* erroaren gainean eraikitako aditz laguntzaile ditransitiboaren aldaeren ehunekoak datiboa lehen pertsona singularra edo bigarren pertsona singular *z/xukakoa* delarik

Datuetan ikus dezakegun bezala, Luzaiden **eradun* erroaren gainean eraikiriko aditz laguntzaile ditransitiboetan, datiboa lehen pertsona singularra edo bigarren pertsona singular *z/xukakoa* delarik, *-au-* ordeaz, *-ai-* dugu zenbait aldiz: *dait* (dit), *daixut* (dizut), etab. Luzaiden eta Luzaidereana izana den Ondarrola auzoan baino ez dugu atzeman berezitasun hau Garaziri dagokionez.

4.32.7. Cluster analisia




442. irudia: aditz laguntzaile ditrantsitiboetako erroari dagokion cluster analisia

Multzo oinarrizko eta zabalenean Garaziko lekuko gehienak ditugu eta %100en erabiltzen dute **eradun* aldaera. Ondoren, Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea, Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea eta beste behin berritzaile den Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea gehitzen dira. Lekuko hauek %92 eta %97 bitartean erabiltzen dute **eradun*. Maila goragoan elkartzen dira berritzaile den Irulegi-Anhauzeko emazte heldua, eremu horretako neska gazteak, Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko neska gaztea eta Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea. %76-%86n darabilte **eradun*. Elkartzen azkenak Luzaideko emazte gazteak dira. Publikokoak %56,25en erabiltzen du **eradun*, eta ikastolakoak, berriz, %100en erabiltzen du **i*.

4.33. *Edin eta *ezan/*iron baldintzan

*Edin eta *ezan/*iron		Baldintzako izan eta edun		Iraganaldi arrunteko formak	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
118	49,17	94	39,17	28	11,67

435. taula: baldintzan erabiltzen diren erroen kopuru eta ehuneko orokorrak




Gaur egun, oraindik, **edin* eta **ezan/*iron* dira erabilienak baldintzan.³² Baldintzako *izan* eta *edun* ere ez ditugu urrun, halere, eta iraganaldi arrunteko formek %10eko langa gainditua dute.

³² **iron* apodosian erabiltzen duten lekukoak Ezterenzubiko adineko gizona, Ezterenzubiko gizon heldua, Hergaraiko adineko biak, Gamarteko adineko emaztea eta Gamarteko emazte heldua dira.

4.33.1. Geografiaren arabera

	<i>*Edin eta *ezan/*iron</i>		Baldintzako <i>izan eta edun</i>		Iraganaldi arrunteko formak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	4	11,11	19	52,78	13	36,11
Arnegi-Lasa	20	50	16	40	4	10
Irulegi-Anh.	9	42,86	8	38,1	4	19,05
Ezterenzubi	30	81,08	3	8,11	4	10,81
Hergarai	22	47,83	21	45,65	3	6,52
Gamarte-Ai.	33	55	27	45	0	0

436. taula: baldintzan erabiltzen diren erroen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



444. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.5317563	1.900016	-0.2798694	0.7795777412
Arnegi-Lasa	-1.2298228	1.943401	-0.6328199	0.5268512667
Irulegi-Anhauze	-1.1245799	2.047823	-0.5491588	0.5828964489
Ezterenzubi	-5.1030265	2.317973	-2.2015042	0.0277003500
Hergarai	-1.2563019	1.931629	-0.6503847	0.5154437853
Gamarte-Ainhiza	-3.2539581	2.063068	-1.5772423	0.1147397763


437. taula: *edin eta *ezan/*iron eta baldintzako izan eta edun erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.811963	2.876845	0.9774468	0.32834799
Arnegi-Lasa	-8.851001	5.427204	-1.6308583	0.10292022
Irulegi-Anhauze	-3.956860	3.748695	-1.0555298	0.29118308
Ezterenzubi	-7.130824	3.915626	-1.8211199	0.06858863
Hergarai	-7.123870	4.341591	-1.6408431	0.10082999

438. taula: *edin eta *ezan/*iron eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

*Edin eta *ezan/*iron eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokionez, *Generalized linear model* modeloak ezin du konparaziorik egin Gamarte-Ainhiza eremuarekin, bariazio falta dagoelako (ez da iraganaldi arrunteko formarik jaso). Beraz, geografiaren, adinaren eta generoaren arabera egin analisi estatistikoan, eremu honetako datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Ezterenzubi dugu eremurik gordetzailleena, bertan baitugu inguru honetako *base dialect*-ean ohikoak diren *edin eta *ezan/*iron gehien. Baldintzako izan eta edun-i eta iraganaldi arruntekoei aise nagusitzen zaizkie bertan. Eremurik berritzaileena, berriz, Luzaide da beste behin. Eremu honetan, baldintzako izan eta edun dira erabat nagusi, ondotik heldu dira iraganaldi arrunteko formak, eta azkenik, *edin eta *ezan/*iron. Beste eremu guztietan, *edin eta *ezan/*iron nagusitzen dira, hurbil daude baldintzako izan eta edun, eta ehuneko apalena dutenak iraganaldi arrunteko formak dira. Luzaide eta Ezterenzubiren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da *edin eta *ezan/*iron eta baldintzako izan eta edun-en arteko aldeari dagokionez.




445. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroei dagokienez, lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

**Edin* eta **ezan/*iron*-i dagokienez, Gamarte-Ainhizarena da erdiko baliorik altuena; baldintzako *izan* eta *edun*-en kasuan, berriz, Arnegi-Lasarena da; eta Luzaideren erdiko balioa da altuena iraganaldi arrunteko formei dagokienez. Talde guztien sakabanaketa oso handia edo oso txikia da, izan ere hizkuntza-aldaera bakoitzaren adibide aski gutxi dugu, eta horrek lekukoek %0 eta %100 ehunekoak usu izatea dakar. Arnegi-Lasa da **edin* eta **ezan/*iron*-i eta baldintzako *izan* eta *edun*-i dagokienez, eremurik sakabanatuena, eta Luzaide da sakabanatuena iraganaldi arrunteko formen kasuan.

4.33.2. Adinaren arabera

	<i>*Edin eta *ezan/*iron</i>		Baldintzako <i>izan eta edun</i>		Iraganaldi arrunteko formak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	46	93,88	3	6,12	0	0
Helduak	23	63,89	7	19,44	6	16,67
Gazteak	49	31,61	84	54,19	22	14,19

439. taula: baldintzan erabiltzen diren erroen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



446. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.5317563	1.900016	-0.2798694	0.7795777412
Helduak	2.1319897	1.605955	1.3275524	0.1843260148
Gazteak	5.0999985	1.526783	3.3403550	0.0008367137

440. taula: *edin eta *ezan/*iron eta baldintzako izan eta edun erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.811963	2.876845	0.9774468	0.32834799
Gazteak	5.613381	3.693197	1.5199245	0.12852996

441. taula: *edin eta *ezan/*iron eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

**edin eta *ezan/*iron eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokionez, Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin adinekoen talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako (ez dugu adinekoengandik iraganaldi arrunteko*

formarik jaso). Beraz, geografiaren, adinaren eta generoaren arabera egin analisi estatistikoan, adinekoen datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Adinekoek ia beti **edin* eta **ezan/*iron* erroak erabiltzen dituzte. Helduek ere, nagusiki, erro hauek erabiltzen dituzte, baina baldintzako *izan* eta *edun*-en ehunekoak handitu egiten da. Bi aldaera horiekin batera, iraganaldi arrunteko formak erabiltzen hasten dira helduak. Gazteen kasuan, azkenik, **edin* eta **ezan/*iron* erroen ehunekoak izugarri apaltzen da eta baldintzako *izan* eta *edun*-ena igotzen. Iraganaldi arrunteko formena bere horretan mantentzen da. **Edin* eta **ezan/*iron*-i eta baldintzako *izan* eta *edun*-i dagokienez, adinekoen eta gazteen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da. Eskolaren eta Euskara Batuaren eragina azpimarragarria da gazteen kasuan. **Edin* eta **ezan* ahalerako erroak direla ikasten dute gazteek eskolan euskara lantzean. Hori dela eta, baldintzan, baldintzako *izan* eta *edun* zuzenagotzat dauzkatela uste dugu, eta beraz, *base dialect*-eko forma hauek baztertzen ari direla. Horrez gain, baldintzako *izan* eta *edun*-en gainean eraikiriko formak errazagoak dira ikasteko **edin* eta **ezan/*iron*-en gainean eraikirikoak baino; izan ere, lehenbizikoak iraganaldi arrunteko formetarik abiatuta eraikitzen dira. Gainera, **edin* eta **ezan/*iron* dituzten ahalerako formak galtzear dira, horien ordez, *-t(z)en ahal* erako perifrasiak erabiltzen baitira.



447. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroei dagokienez, lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera


**Edin* eta **ezan/*iron* erroei dagokienez, adinekoen eta helduen erdiko balioak %100ekoak dira, eta %0tik hurbil dago gazteena. Baldintzako *izan* eta *edun*-en kasuan, berriz, %0koak dira adinekoen eta helduen erdiko balioak, eta aise altuagoa da gazteena.

Azkenik, iraganaldi arrunteko formei dagokienez, hiru adin taldeen erdiko balioak dira %0koak. Oro har, gazteen taldea da sakabanatuena, hiru aldaerak erabiltzen baitituzte. Hala ere, **edin* eta **ezan/*iron*-en kasuan, helduen sakabanaketa ere handia da.

4.33.3. Generoaren arabera

	<i>*Edin</i> eta <i>*ezan/*iron</i>		Baldintzako <i>izan</i> eta <i>edun</i>		Iraganaldi arrunteko formak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	38	31,93	62	52,1	19	15,97
Gizonak	80	66,12	32	26,45	9	7,44

442. taula: baldintzan erabiltzen diren erroen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera



448. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroen ehunekoak generoaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.5317563	1.900016	-0.2798694	0.7795777412
Gizonak	-3.8399416	1.240414	-3.0956944	0.0019635260

443. taula: **edin* eta **ezan/*iron* eta baldintzako *izan* eta *edun* erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.811963	2.876845	0.9774468	0.32834799
Gizonak	-5.374046	3.459431	-1.5534481	0.12031611

444. taula: **edin* eta **ezan/*iron* eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Alde handia dago emazteen eta gizonen artean. Izan ere, emazteen kasuan, gizonenean ez bezala, baldintzako *izan* eta *edun* dira nagusitzen direnak, eta iraganaldi arrunteko formen ehunekoa ere goragoa da. **Edin* eta **ezan/*iron* eta baldintzako *izan* eta *edun*-en arteko aldea estatistikoki esanguratsua da bi generoen artean.




449. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroei dagokienez, lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Alde handia dago emazteen eta gizonen erdiko balioen artean. **Edin* eta **ezan/*iron* erroei dagokienez, gizonen erdiko balioa %100ekoa da, eta emazteena, berriz, %25etik beherakoa. Baldintzako *izan* eta *edun*-en kasuan, gizonen erdiko balioa %0koa da eta emazteena %25etik gorakoa. Azkenik, iraganaldi arrunteko formen erdiko balio biak %0koak dira. Emazteen taldea gizonena baino sakabanatuagoa da hiru kasuetan.

4.33.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	<i>*Edin eta *ezan/*iron</i>		Baldintzako <i>izan eta edun</i>		Iraganaldi arrunteko formak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	18	18	73	73	9	9
Publikokoak	31	56,36	11	20	13	23,64

445. taula: baldintzan erabiltzen diren erroen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera



450. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.486832	1.127538	3.0924288	0.001985259
Publikokoak	-1.834325	1.309193	-1.4011114	0.161180752

446. taula: *edin eta *ezan/*iron eta baldintzako izan eta edun erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.77024139	4.404777	-1.764048912	0.07772374
Publikokoak	0.53273067	3.470265	0.153512965	0.87799377

447. taula: *edin eta *ezan/*iron eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Datuok 4.34.2. §-ean erran duguna berrestera garamatzate. Ikastolan lantzen den Euskara Batuak gazteek baldintzan, baldintzako *izan eta edun* erabiltzea eta **edin eta *ezan* ahalerarekin lotzea eragiten du. Iraganaldi arrunteko formak, berriz, publikokoek erabiltzen dituzte gehienik. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




451. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroei dagokienez, lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Publikokoek dute erdiko baliorik altuena **edin* eta **ezan/*iron* erroei dagokienez. Baldintzako *izan* eta *edun* eta iraganaldi arrunteko formen kasuan, berriz, ikastolakoek dute erdiko baliorik altuena. Publikokoek talde sakabanatuagoa osatzen dute **edin* eta **ezan/*iron* erroetan eta ikastolakoek iraganaldi arrunteko formetan. Azken forma hauen kasuan, publikokoek ikastolakoek baino ehuneko altuagoa dute, nahiz eta ikastolakoen erdiko balioa eta sakabanaketa handiagoa izan. Alde hori eragiten duena publikokoek lekuko urrundu da. Baldintzako *izan* eta *edun*-i dagokienez, azkenik, bi taldeak dira biziki sakabanatuak, baina ikastolakoen taldearen sakabanaketa uniformeagoa da erdiko balioaren eta maximo-minimoen artean. Taldeak hain sakabanatuak izateak erran nahi du bai ikastolako eta bai publikoko lekukoendako, oro har, ez dela ezezaguna aldaera bat edo bestea.

4.33.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	<i>*Edin eta *ezan/*iron</i>		Baldintzako <i>izan eta edun</i>		Iraganaldi arrunteko formak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	4	6,67	54	90	2	3,33
Komiteetakoak	44	64,71	12	17,65	12	17,65
Luzaidarrak	1	3,7	18	66,67	8	29,63

448. taula: **edin eta *ezan/*iron* eta baldintzako *izan eta edun* erroen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



452. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	3.486832	1.127538	3.0924288	0.001985259
Komiteetakoak	-4.094687	1.435000	-2.8534403	0.004324865
Luzaidarrak	0.345456	2.002245	0.1725343	0.863017473


449. taula: **edin eta *ezan/*iron* eta baldintzako *izan eta edun* erroen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-7.77024139	4.404777	-1.764048912	0.07772374
Komiteetakoak	0.01769613	4.203361	0.004209996	0.99664092
Luzaidarrak	16.32955113	7.485954	2.181358690	0.02915690

450. taula: **edin eta *ezan/*iron* eta iraganaldi arrunteko formen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

**Edin eta *ezan/*iron* eta baldintzako *izan eta edun*-en arteko aldea ikastolakoan eta publikokoan artekoa baino handiagoa da gaztetxeakoen eta komiteetakoan artean.


Baldintzako *izan* eta *edun* dira gaztetxeok erabiltzen dituzten ia bakarrak. Gazte hauek euskal mundu aktiboarekin duten lotura estua dela eta, baldintzan “zuzentzat” hartuak diren formen alde egiten dute. Komiteetakoak dira Garaziko *base dialect*-eko **edin* eta **ezan/*iron* gehien erabiltzen dituztenak, euren euskararen erabilera etxeko eta ibarreko eremuari mugaturik baitago gehienetan. Luzaidarren artean, **edin* eta **ezan/*iron*-en ehunekoa biziki apala da. Iraganaldi arrunteko formen ehunekoa, berriz, beste taldeetako baina handiagoa da luzaidarrengan. Komiteetakoek eta luzaidarrek ez dute euskara gaztetxeok bezainbeste erabiltzen, oro har. Hori dela eta, lehen bi praktika-komunitate hauen artean, hizkuntza-atrizioaren eraginez, aditz-paradigmak sinplifikatu direla iruditzen zaigu, iraganaldi arrunteko formen ehuneko altuagoa eraginez. **Edin* eta **ezan/*iron* eta baldintzako *izan* eta *edun*-en artean, gaztetxeoen eta komiteetakoaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da. **Edin* eta **ezan/*iron* eta iraganaldi arrunteko formen artean, berriz, gaztetxeoen eta luzaidarren arteko aldeak dira estatistikoki esanguratsu direnak.



453. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroi dagokienez, lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

**Edin* eta **ezan/*iron*-i dagokienez, komiteetakoaren erdiko balioa da, alde handiarekin, altuena. Gaztetxeoena da baldintzako *izan* eta *edun*-i dagokienez, eta Luzaidarrena da iraganaldi arrunteko formetan. Komiteetakoek osatzen dute talderik sakabanatuena **edin* eta **ezan/*iron*-i eta iraganaldi arrunteko formei dagokienez; horrek, beraz, talderik heterogeneoena osatzen dutela erran nahi du. Baldintzako *izan* eta *edun*-en kasuan, berriz, luzaidarrak dira sakabanatuenak.

4.33.7. Cluster analisia



454. irudia: baldintzan erabiltzen diren erroei dagokien cluster analisia

Lehen multzoan, %25 eta %50 bitartean erabiltzen dituzte hiru aldaerak. Lekuko batzuen artean aldaera bat da nagusitzen dena eta beste batzuen artean, berriz, bestea. Irulegiko emazte helduak, komiteetako hiru gaztek eta Luzaideko publikoko gizon gazteak osatzen dute multzo hau.

2. multzoan, berriz, %65 eta %85 bitartean erabiltzen dituzte **edin* eta **ezan/*iron* eta %15 eta %35 bitartean baldintzako *izan* eta *edun*. Adinekoz, helduz eta gaztez (gaztetxekez, nahiz komiteetako) osatua dago multzo hau. Bere azpiko oinarritzko multzoan, %100en erabiltzen dituzte **edin* eta **ezan/*iron* lekukoek. Adinekoak, helduak eta komiteetako gazteak ditugu bertan. Bi multzo hauek elkarrekin

3.a osatzen dute. Era berean, 3.ak eta lehenak **edin* eta **ezan/*iron* gehien erabiltzen dutenen 7. multzoa osatzen dute.


5. multzoaren mailarik oinarrikoenean, %100en baldintzako *izan* eta *edun* erabiltzen dituzte lekukoek. Maila altuagoan elkartzen direnek, berriz, %75etik gora erabiltzen dituzte. Berritzaile ageri diren Luzaideko adineko emaztea, Hergaraiko emazte heldua eta gaztetxeko gazteak ditugu multzo honetan. 6. multzoa osatzen dutenak Luzaideko publikoko emazte gaztea, Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztea, eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gaztea dira. Lekuko hauek ehuneko bertsuetan darabiltzate baldintzako *izan* eta *edun* eta iraganaldi arrunteko formak. 5. eta 6. multzoek elkarrekin, baldintzako *izan* eta *edun* gehien erabiltzen dituztenen 8. multzoa osatzen dute. Era berean, 8.ak eta 7.ak 9.a osatzen dute

Azkenik, %100en iraganaldi arrunteko formak darabiltzaten lekukoak ditugu. Luzaideko emazte heldua, Luzaideko ikastolako gizon gaztea eta komiteetako gazteak ditugu multzo honetan.

4.34. *an(aditzoina)+ten→aiten*

-aiten		-aten	
Kop.	%	Kop.	%
2792	96,74	94	3,26

452. taula: *an(aditzoina)+ten→aiten* hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




455. irudia: *an(aditzoina)+ten→aiten* hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehuneko orokorrak

-aiten ia % 100en erabiltzen da Garazin. *-aten* aldaeraren ehunekoa, berriz, txikia da biziki.

4.34.1. Geografiaren arabera

	-aiten		-aten	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	505	84,59	92	15,41
Arnegi-Lasa	562	100	0	0
Irulegi-Anh.	329	99,7	1	0,3
Ezterenzubi	447	100	0	0
Hergarai	443	99,77	1	0,23
Gamarte-Ai.	506	100	0	0

453. taula: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




456. irudia: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.9706175	4.424618	-2.02743307	0.04261814
Irulegi-Anhauze	-1.5595053	3.370275	-0.46272351	0.64356257
Hergarai	-2.2579767	3.710497	-0.60853747	0.54283106

454. taula: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin Arnegi-Lasa, Ezterenzubi eta Gamarte-Ainhiza eremuekin, bariazio falta dagoelako (-aiten erabiltzen da %100en). Beraz, geografia, generoaren eta adinaren arabera egin den analisi estatistikoan, eremu hauetako datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Luzaide salbu, beste eremu guztietan, *-aiten* da erabiltzen den aldaera bakarra edo ia bakarra. Luzaiden ere *-aiten* da nagusi, baina *-aten*-en ehunekoia beste eremuetakoa baino anitzez goragoa da. Euskara Batuan *-aten* da onartua dagoen aldaera bakarra, eta *-aten* da lapurtera prestigiodun dialektoan erabiltzen dena. Lafittek ere, erran dugun bezala, bi formak dakartza nafar-lapurtera literariorako. Alabaina, gaur egun, *-aiten* Iparraldeko euskal munduan biziki erabilia da, eta osasun betean dagoela dirudi. Hori erakusten dute Luzaide ez beste eremuetako datuek ere. Beste behin, mugaren bi aldeetan eragin desberdinak dituztela erakusten digute datuek: Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batura begira daude Luzaiden, eta iparraldeko batura beste eremuetan. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




457. irudia: *an(aditzoina)+ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren *-aiten* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoien erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Eremu guztietako ia hiztun orok %100en *-aiten* erabiltzen duela erakusten digu 457. irudiak. Luzaiden baino ez ditugu besteengandik nabarmenki urruntzen diren lekukoak.

4.34.2. Adinaren arabera

	-aiten		-aten	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	865	99,88	1	0,12
Helduak	642	99,84	1	0,16
Gazteak	1285	93,32	92	6,68

455. taula: *an(aditzoina)+ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




458. irudia: *an(aditzoina)+ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.9706175	4.424618	-2.02743307	0.04261814
Helduak	0.1346677	4.185531	0.03217458	0.97433283
Gazteak	1.2643305	3.396461	0.37224935	0.70970720

456. taula: *an(aditzoina)+ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen eta helduen kasuan, *-aten* aldaeraren adibide bana baino ez dugu. Gazteen ehunekoa zertxobait igotzen da, baina %10era heldu gabe. *-aten* erabiltzen duten lekuko gazte ia guztiak luzaidarrak dira. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




459. irudia: *an*(aditzoina)+*ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren *-aiten* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Kasu honetan ere, %100ekoak dira lekuko ia guztien ehunekoak, Luzaideko bi lekuko urrundu gazterenak salbu.

4.34.3. Generoaren arabera

	-aiten		-aten	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	1553	94,35	93	5,65
Gizonak	1239	99,92	1	0,08

457. taula: $an(aditzoia)+ten \rightarrow aiten$ hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




460. irudia: $an(aditzoia)+ten \rightarrow aiten$ hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.9706175	4.424618	-2.02743307	0.04261814
Gizonak	-2.0409673	3.230528	-0.63177517	0.52753380

458. taula: $an(aditzoia)+ten \rightarrow aiten$ hizkuntza-aldagaiaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteak dira *-aten* aldaera erabiltzen duten lekuko ia bakarrak. Gizonekiko aldea ez da, ordea, estatistikoki esanguratsua.




461. irudia: *an*(aditzoina)+*ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren *-aiten* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen artean ditugun bi lekuko urundu dira emazteen *-aiten* aldaeraren ehunekoa gizonena baino handiagoa izatea eragiten dutenak.

4.34.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera


	-aiten		-aten	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	705	89,47	83	10,53
Publikokoak	580	98,47	9	1,53

459. taula: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera



462. irudia: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek publikoek baino usuago darabilte *-aten* aldaera, baina aldea luzaidarren artekoa da; ondoko atalean ikusiko dugun bezala, beste eremuetako gazteek ez baitute aldaera hau erabiltzen. Aldakortasuna duen talde bakarra luzaidarrena baino ez denez, ez du zentzurik hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera analisi estatistikoa egiteak.




463. irudia: *an*(aditzoina)+*ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren *-aiten* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoehunekoagoragoaizateaeragiten duenatalde honetan dugun lekuko urrundua da.

4.34.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera


	-aiten		-aten	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	465	100	0	0
Komiteetakoak	578	100	0	0
Luzaidarrak	242	72,46	92	27,54

460. taula: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



464. irudia: an(aditzoina)+ten→aiten hizkuntza-aldagaiaren aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera


Luzaidarren artean baino ez dugu *-aten* aldaera. Muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari dela frogatzen digu hizkuntza-aldagai honek ere, 4.32.1. §-ean azaldu bezala.



465. irudia: *an*(aditzoina)+*ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiaren *-aiten* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarren erdiko balioa da %100ekoa ez den bakarra, eta luzaidarrena da, era berean, talde sakabanatu bakarra.

4.34.6. Cluster analisia




466. irudia: *an(aditzoina)+ten*→*aiten* hizkuntza-aldagaiari dagokion cluster analisia

Lekuko ia guztiek % 100en erabiltzen dute *-aiten*. Hergaraiko emazte helduak eta Irulegi-Anhauzeko adineko gizonak *-aten* aldaeraren adibide bana dute. Adibide gehiago ditu Luzaideko publikoko emazte gazteak. Luzaideko ikastolako emazte gaztearen *-aten* aldaeraren ehunekoa, berriz, beste lekuko guztiena baino aise goragoa da.

4.35. -a(u)- vs. -ai- datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan

-a(u)-		-ai-	
Kop.	%	Kop.	%
494	89,33	59	10,67

461. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




467. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehuneko orokorrak

Datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- aldaera da erabiliena Garazin. -ai- aldaera, berriz, %10,67ra baino ez da heltzen.

4.35.1. Geografiaren arabera

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	57	57,58	42	42,42
Arnegi-Lasa	88	97,78	2	2,22
Irulegi-Anh.	69	88,46	9	11,54
Ezterenzubi	104	97,2	3	2,8
Hergarai	117	99,15	1	0,85
Gamarte-Ai.	59	96,72	2	3,28

462. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




468. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.4077551	4.165456	-0.3379594	0.73539375
Arnegi-Lasa	-2.7300861	4.443109	-0.6144540	0.53891537
Irulegi-Anhauze	2.7111953	5.007610	0.5414150	0.58822156
Ezterenzubi	-0.8608698	4.891807	-0.1759820	0.86030810
Hergarai	-2.8752446	5.068650	-0.5672605	0.57053723
Gamarte-Ainhiza	-2.5960303	5.282181	-0.4914694	0.62309450

463. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Luzaide da, beste eremuei konparatuta, alde handiz, datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan *-ai-* aldaeraren ehuneko altuena duena. Berrito ere Hegoaldean

erabiltzen den Euskara Batuak Luzaiden morfologiaren alorrean duen indarra aipatu beharrean gara. Beste eremuetan, berriz, osagarri biziki ona du bertako *base dialect*-eko *-a(u)-* aldaerak. Eremu murrizta du aldaera honek eta Euskara Batuan eta tradizio idatzi nafar-lapurtarrean *-ai-* erabili izan da. Hala ere, biziki erabilia da Garazin. Horrek iparraldeko batuaz genuen ideia birpentsatzera eramaten gaitu: erregiolekto bera erabiltzen ote dute, konparazio batera, Azkaine eta Donibane Garazin? Edo Garazin, bertako eta inguruko ibarretako hizkuntza-aldaera batzuei eusten jarraitzen dute? Lehen galderaren arrapostua ezezkoa bada eta bigarrenarena baiezkoa, Iparraldean gertatzen ari den *levelling* edo berdintzea ez da guk hasiera batean uste genuen bezain handia, eta Garazi eta inguruko ibarrek, hein batean, beren identitateari eusten diote.




469. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, *-a(u)-* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Luzaideko *-a(u)-* aldaeraren erdiko balioa da besteei konparatuta %100ekoa ez den bakarra. Eremu guztiak dira biziki trinkoak Irulegi-Anhauze, eta batez ere, Luzaide salbu. Azken honek %100tik %0rainoko sakabanaketa du.

4.35.2. Adinaren arabera

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	169	100	0	0
Helduak	154	96,25	6	3,75
Gazteak	171	76,34	53	23,66

464. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



470. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak adinaren arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.4077551	4.165456	-0.3379594	0.73539375
Gazteak	3.5780560	2.800838	1.2774947	0.20142764

465. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin adinekoen talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako (-a(u)- aldaera erabiltzen da %100en). Beraz, analisi estatistiko osoan, adinekoen taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Adinekoek -a(u)- aldaera baino ez dute erabiltzen. Helduen kasuan, -ai- aldaeraren adibide banaka batzuk baino ez ditugu, eta -a(u)-k jarraitzen du nagusi

izaten. Aldaera “berriaren” ehunekoa gazteen artean handitzen da gehienik.³³ Helduen eta gazteen arteko aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsua.



471. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera


Hiru adin taldeen erdiko balioa %100ekoa da. Gazteen taldea, ordea, bestek baino sakabanatuagoa da. Helduen taldean ere badira lekuko urrundu zenbait.

³³ Aldaera “berria” diogu -ai-gatik; izan ere, 2.10.25 §-ean erran bezala, Etxeparek erabiltzen zuen, baina aspalditik nagusitua da -a(u)-, eta horixe da adinekoek erabiltzen duten bakarra. Kanpotik sartzen ari da azkenaldian, berriz ere, garai batean Garazin erabiltzen zen -ai-.

4.35.3. Generoaren arabera

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	248	82,12	54	17,88
Gizonak	246	98,01	5	1,99

466. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




472. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-1.4077551	4.165456	-0.3379594	0.73539375
Gizonak	-6.0513451	3.346613	-1.8082000	0.07057539

467. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek, beste behin, aldaera “berriaren” alde egiten dute. Gizonekiko aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsua.




473. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi generoen erdiko balioa %100ekoa da. Emazteen taldea gizonena baino sakabanatuagoa da, baina hala ere, lekuko urrundu ugari daude gizonen artean.

4.35.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	125	73,96	44	26,04
Publikokoak	46	83,64	9	16,36

468. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




474. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.4057550	3.337228	-2.51878356	0.0117761
Publikokoak	-0.1459472	3.316756	-0.04400301	0.9649020

469. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolako gazteek publikokoek baino *-ai-* aldaeraren ehuneko altuagoa dute; hezkuntza-eredu honetakoengan eredu nafar-lapurtarrak edota Euskara Batuak duten eraginaren seinale. Aldea ez da, ordea, estatistikoki esanguratsua.




475. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, $-a(u)$ - aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoekoen erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek $-a(u)$ - aldaeraren erdiko balioa publikokoena baino zertxobait apalagoa da. Haatik, publikokoek taldea ikastolakoena baino sakabanatuagoa da.

4.35.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	103	96,26	4	3,74
Komiteetakoak	59	88,06	8	11,94
Luzaidarrak	9	18	41	82

470. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




476. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-8.4057550	3.337228	-2.51878356	0.0117761
Komiteetakoak	1.1497728	3.483737	0.33004007	0.7413697
Luzaidarrak	13.3386841	8.118183	1.64306277	0.1003699

471. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoek erabiltzen dute *-a(u)-* aldaera gehien. Horrek erakusten digu praktika-komunitate honetakoak ez daudela beti nafar-lapurtera literariora begira. Kasu honetan, Nafarroa Behereko eta Lapurdi ekialdeko hizkuntza-aldaera hau gehien erabiltzen dutenak dira gaztetxeakoak. Gaztetxeakoek datibo pluraleko *-er* aldaera eta *-a(u)-* aldaera hain ehuneko altuan erabiltzeak, gazte hauen artean ere, Iparralde barnealdeko identitate bat badela pentsatzera eramaten gaitu, kostaldekotik desberdina dena. Nafarroa Beherea eta Lapurdi mendebaldea hartzen ditu bere barnean Iparraldeko

barnealdea deitzen dugun horrek, Zuberoa bere ber baitoa oraindik, gaur egun. 5. §-ean, hizkuntza-jarrerei buruz egin galderetan gaztetxekoek eman erantzunek ere hori pentsatzera eramaten gaituzte. Komiteetakoek aldaera berria gaztetxekoek baino arduraxeago erabiltzen dute, baina aldea txikia da. Luzaiden, berriz, *-ai-* da aldaerarik erabiliena. Morfologiako beste hizkuntza-aldagai batzuen kasuan bezalaxe, honetan ere, Luzaiden Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batuak du eragina. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, nahiz eta P. balioa hezkuntza-ereduaren arabera egin analisisian baino txikiagoa den.




477. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, *-a(u)-* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarren talde berritzaileak du erdiko baliorik apalena denetan; eta hau da, halaber, talderik sakabanatuena.

4.35.6. Baldintza linguistikoaren arabera: datiboaren pertsona Luzaiden

	-a(u)-		-ai-	
	Kop.	%	Kop.	%
Datiboa 1.p.s. edo 2.p.s. z/xukakoa	11	24,44	34	75,56
Gainerakoak	46	85,19	8	14,81

472. taula: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren kopuru eta ehunekoak datiboaren pertsonaren arabera Luzaiden




478. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, -a(u)- vs. -ai- aldaeren ehunekoak datiboaren pertsonaren arabera Luzaiden

Datuek adierazten duten bezala, *-ai-* aldaeraren ehunekoa *-a(u)-*rena baino aise altuagoa da datiboa 1. persona singularra edo 2. persona singular *zukakoa/xukakoa* delarik. Gainerako pertsonen kasuan, kontrakoa gertatzen da. Hala ere, berehala, 4.35.6.1. §-ean ikusiko dugun bezala, *-ai-* aldaera erabiltzen duten ia guztiak gazteak dira. Hain zuzen ere, Luzaideko ikastolako emazte gaztearen adibide guztiak *-ai-* aldaerarenak dira, eta gainera, beste lekukoek baino aise ardurago erabiltzen du datiboko 1. pertsona singularra eta 2. pertsona singular *zukakoa*. Horrek eragiten du gehienik, pertsona hauen kasuan, *-ai-* aldaeraren hain ehuneko altua izatea.

4.35.6.1. Datiboaren pertsonaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Datiboa 1.p.s. edo 2.p.s. z/xukakoa	0	0	1	50	33	86,84
Gainerakoak	0	0	0	0	8	66,67


473. taula: datiboaren pertsonaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak Luzaiden, datibodun aditz laguntzaile irangaitzetako -ai- aldaerari dagokionez



479. irudia: datiboaren pertsonaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak Luzaiden, datibodun aditz laguntzaile irangaitzetako -ai- aldaerari dagokionez

Adinekoen artean ez dugu *-ai-* aldaeraren adibide bakar bat ere. Helduen kasuan, datiboa 1. persona singular neutroa (ez alokutiboa) edo 2. persona singular *z/xukakoa* den bi adibide baino ez ditugu, eta horietarik bat *-ai-* aldaera da. Kopuru apalegia da, zernahi gisaz, ondorio sendorik ateratzeko. Azkenik, gazteek biziki ardura erabiltzen dute *-ai-* persona hauetan, baina baita gainerakoetan ere.

4.35.7. Cluster analisia



480. irudia: datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, *-a(u)-* vs. *-ai-* aldaerei dagokien cluster analisia


Beheko multzorik oinarrizkoenean eta bere gainekoan, beti edo ia beti *-a(u)-* erabiltzen dute lekukoek. Garaziko gehienak bertan ditugu. Luzaideko ikastolako gizon gazteak, Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak eta Ezterenzubiko ikastolako eta komiteetako emazte gazteak *-a(u)-* aldaeraren %70-%80 bitarteko ehunekoa dute. Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gazteak %50eko ehunekoa du, baina hizkuntza-aldagai honen bi adibide baino ez ditu. *-ai-* aldaeraren adibidea, gainera, 1. pertsona singular neutrokoa da. Lekuko hau Ondarrolakoa da, elizaz Luzaide den auzokoa, eta hemen, pertsona honekin *-ai-* aldaera erabiltzeko joera dago. Azkenik, goiko multzoan beti erabiltzen da *-ai-*. Multzo honetan, Luzaideko

emazte gazteak, Irulegi-Anhauzeko emazte heldua, eta Irulegi-Anhauzeko eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak ditugu.

4.36. Tratamenduak

xuka		toka		toka ez erregulararki		noka		zuka ez erregulararki		neuroa baino ez	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
27	44,26	11	18,03	4	6,56	2	3,28	1	1,64	16	26,23

474. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




481. irudia: tratamenduen ehunekoak geografiaren arabera

Xuka da gehien entzun ahal izan dugun tratamendua Garazin. Ondotik heldu da neutro hutsa. Jarraian, *toka* eta azkenik, *noka* eta *zuka* ez erregularra.

4.36.1. Geografiaren arabera

	xuka		toka		toka ez erregulararki		noka		zuka ez erregulararki		neutroa baino ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	6	60	2	20	0	0	0	0	0	0	2	20
Arnegi-Lasa	3	30	3	30	1	10	1	10	0	0	2	20
Irulegi-Anh.	3	30	2	20	1	10	0	0	0	0	4	40
Ezterenzubi	4	40	2	20	0	0	0	0	0	0	4	40
Hergarai	6	54,55	1	9,09	2	18,18	1	9,09	0	0	1	9,09
Gamarte-Ai.	5	50	1	10	0	0	0	0	1	10	3	30

475. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



482. irudia: tratamenduen ehunekoak geografiaren arabera

Xuka da Luzaide, Hergarai eta Gamarte-Ainhizan gehien entzun dugun tratamendua. Arnegi-Lasan, *toka*ren ehuneko berean entzun ahal izan dugu *xuka*, Ezterenzubin neutro hutsaren ehuneko berean, eta Irulegi-Anhauzen neutroa baino ez entzutea gailentzen zaio. *Noka* Arnegi-Lasa eta Hergarain baino ez dugu entzun ahal izan, eta *zuka* alokutiboa, erabat erregulararki ez bada ere, Gamarte-Ainhizan. Oztibarren ohikoa da adinekoen artean, batez ere, ezezagunekin *zuka* alokutiboa erabiltzea; zer erranik ez Amikuzen. Gamarte-Ainhiza Oztibarrerri hurrari izateak azalduko luke *zuka* alokutiboa entzutea.


Hizkuntza-aldagai hau berezia da, ez baitugu lekuko bakoitzak tratamendu bakoitza zer maiztasunekin erabiltzen duen kalkulatu, baizik eta zenbat aldiz entzun

ahal izan dugun talde bakoitzeko. Hori dela eta, ez dugu atera lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balio eta sakabanaketarik, ez dugu analisi estatistikorik egin eta ezta cluster analisisirik ere.

4.36.2. Adinaren arabera

	xuka		toka		toka ez erregulararki		noka		zuka ez erregulararki		neuroa baino ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	12	60	5	25	0	0	2	10	1	5	0	0
Helduak	8	50	5	31,25	0	0	0	0	0	0	3	18,75
Gazteak	7	28	1	4	4	16	0	0	0	0	13	52

476. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




483. irudia: tratamenduen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoen eta helduen ehunekoak iduriak dira, baina bigarrenen artean ez dugu *xuka* alokutiborik eta *nokarik* entzun ahal izan. Era berean, ez dugu neutroa bakarrik erabiltzen duen adinekorik atzeman; bai ordea, helduak. Gazteen artean, *xukaren* eta *tokaren* ehunekoak jaitsi egiten dira eta neutro hutsarenak igo. Halaber, gazteek *toka* mintzatzeko nahia badutela ere ageri da, baina anitzek ez dute lortzen erabateko erregularitasunarekin erabiltzerik

4.36.3. Generoaren arabera

	xuka		toka		toka ez erregularki		noka		zuka ez erregularki		neutroa baino ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	13	44,83	3	10,34	0	0	2	6,9	0	0	11	37,93
Gizonak	14	43,75	8	25	4	12,5	0	0	1	3,12	5	15,62

477. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




484. irudia: tratamenduen ehunekoak generoaren arabera

Xukaren ehunekoa bertsua da bi generoetan. Haatik, usuago entzun dugu toka gizonen artean, gu gizon gazteei toka mintzatu baikatzaizkie, eta hala zuzendu baitzaizkigu beraietarik anitz guri ere. Toka mintzatzen entzun ditugun emazte guztiak gutarik landako beste norbaiti zuzendu zaizkie. Noka emazteak baino ez ditugu entzun, eta beraien alabekin mintzatu dira hala.

4.36.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	xuka		toka		toka ez erregulararki		noka		zuka ez erregulararki		neutroa baino ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	2	15,38	0	0	3	23,08	0	0	0	0	8	61,54
Publikokoak	5	41,67	1	8,33	1	8,33	0	0	0	0	5	41,67

478. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




485. irudia: tratamenduen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

Datuek erakusten digutenez, oro har, alokutiboak osagarri hobea du publikokoan artean ikastolakoan artean baino. Ikastolan lantzen den euskaran, alokutiboak ez du ia presentziarik eta horrek bertan ikasiek ehuneko apalak izatean eragina du. Publikokoan euskara, oro har, etxeko inguruari lotuago dagoenez, hobeki atxikitzen dute alokutiboa.

4.36.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	xuka		toka		toka ez erregulariki		noka		zuka ez erregulariki		neutroa baino ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	1	12,5	0	0	2	25	0	0	0	0	5	62,5
Komiteetakoak	4	30,77	1	7,69	2	15,38	0	0	0	0	6	46,15
Luzaidarrak	2	50	0	0	0	0	0	0	0	0	2	50

479. taula: tratamenduen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




486. irudia: tratamenduen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

Alde bertsua dago gaztetxeakoen eta komiteetakoen eta ikastolakoakoen eta publikokoakoen artean. Komiteetakoeak, kasu honetan ere, gaztetxeakoeak baino hobeki atxikitzen dute Garaziko *base dialet*-a. Gaztetxeakoen mugikortasuna handiagoa da, eta ibarretik kanpo ere, harreman gehiago dituzte. Hori dela eta, *xuka* erabiltzen dutenak gutxiago dira. Luzaidarrei dagokienez, berriz, publikoko emazte gaztea *xuka* mintzatu zitzaigun, publikoko gizon gaztea *xuka* mintzatu zen auzoarekin eta ikastolako gazteak neutroan mintzatzen baino ez genituen entzun. Ikastolako gizon gazteak erran zigun *xuka* mintzo zela etxean, baina guk ez dugu egiaztatu ahal izan.

4.37. Aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile irangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea izatea

Ahostuna		Ahoskabea	
Kop.	%	Kop.	%
416	72,22	160	27,78

480. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




487. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehuneko orokorrak

Aldaera ahostuna da Garazin batez ere erabiltzen dena, baina ahoskabea ere aski hedatua da.

4.37.1. Geografiaren arabera

	Ahostuna		Ahoskabea	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	99	98,02	2	1,98
Arnegi-Lasa	65	74,71	22	25,29
Irulegi-Anh.	24	42,11	33	57,89
Ezterenzubi	156	89,66	18	10,34
Hergarai	42	45,16	51	54,84
Gamarte-Ai.	30	46,88	34	53,12

481. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




488. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-10.3039325	2.240967	-4.5979847	4.265973e-06
Arnegi-Lasa	3.1994068	2.016734	1.5864293	1.126419e-01
Irulegi-Anhauze	5.9549609	2.099135	2.8368644	4.555896e-03
Ezterenzubi	3.3901458	1.950837	1.7377906	8.224771e-02
Hergarai	3.7756345	1.865464	2.0239658	4.297367e-02
Gamarte-Ainhiza	4.2381844	1.944708	2.1793421	2.930627e-02

482. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Irulegi-Anhauzen dugu aldaera ahoskabearen ehuneko altuena. Apalena, berriz, Luzaiden. Usaian bezala, Ezterenzubik, eta hein apalagoan, Arnegi-Lasak aski ongi

eusten diote oinarri dialektaleko aldaera ahostunari. Aldaera ahoskabea biziki hedatua da, erran bezala, Irulegi Anhauzen eta baita Hergarai eta Gamarte-Ainhizan ere. Aldaera ahoskabea da idatzizko tradizio nafar-lapurtarrean erabili izan dena eta baita gaur egun, Iparraldeko euskal munduan erabiltzen dena ere. Horrek eremu guztietan izan du eragina, Iparraldeko ereduatarik aspalditxoan urrundurik dabilen Luzaiden izan ezik. Kontuan hartu beharra da hiztun gazte anitzek, batez ere berritzaileenek, *i erroa eta -ai- aldaera erabiltzen dituztela herri honetan (Luzaideko ikastolako emazte gazteak %100en darabiltza), eta hizkuntza-aldagai hau **eradun* eta -*a(u)*- aldaerekin baino ez dezakegula izartu. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Luzaide eta Irulegi-Anhauze, Luzaide eta Hergarai eta Luzaide eta Gamarte-Ainhizaren artean.




489. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaera ahostunaren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Irulegi-Anhauzekoa da aldaera ahostunaren erdiko baliorik apalena, %0koa, hain zuzen ere. Altuena, berriz, Luzaidekoa da. Eremu honek talde biziki trinkoa osatzen du beste guztiei konparaturik. Gainerakoen sakabanaketa ikaragarria da.

4.37.2. Adinaren arabera

	Ahostuna		Ahoskabea	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	260	99,62	1	0,38
Helduak	120	83,92	23	16,08
Gazteak	36	20,93	136	79,07

483. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




490. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-10.3039325	2.240967	-4.5979847	4.265973e-06
Helduak	4.8024307	1.740876	2.7586285	5.804447e-03
Gazteak	9.3690674	1.925660	4.8653808	1.142366e-06

484. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adin taldeen artean biziki alde handiak ditugu. Adinekoek aldaera ahostuna darabilte ia % 100en; helduen aldaera ahoskabearen ehunekoa % 16,08ra heltzen da; eta gazteen kasuan, azkenik, helduen ehunekoak alderantziz agertzen zaizkigu; hots, erabateko haustura gertatu da helduen eta gazteen artean. Hain zuzen ere, aldaera ahostuna erabat sistematikoa izatetik galzorian egotera igaro da. Erran dugun bezala, tradizio idatzi nafar-lapurtarrean, ahoskabea erabiltzen da. Horrez gainera, Euskal Herriko ipar-ekialdean, ahostuna eremu murrizteko aldaera ere bada, aztertu ditugun

guztien artean eremu murriztena duena, hain zuzen ere. Bi faktore horiek egoera erabat uzkaileza eragin dute. Adinekoen eta helduen eta adinekoen eta gazteen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




491. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaera ahostunaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

%100ekoa da adinekoen erdiko balioa, helduena ere %100i hurrant dago, baina %0koa da gazteena. Ia adineko guztiek %100eko ehunekoak dituzte; talde aise sakabanatuagoa osatzen dute helduek; eta gazteen taldea, azkenik, denetan sakabanatuena da, %100etik %0rainokoa. Gazte gehienek %0 inguruko ehunekoak dituzte, beraz, baina oso talde heterogeneoa osatzen dute.

4.37.3. Generoaren arabera

	Ahostuna		Ahoskabea	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	239	70,71	99	29,29
Gizonak	177	74,37	61	25,63

485. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




492. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-10.3039325	2.240967	-4.5979847	4.265973e-06
Gizonak	-0.6207164	1.034892	-0.5997889	5.486470e-01

486. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Generoaren arabera, aldea biziki txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.




493. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaera ahostunaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Bi taldeen erdiko balioak biziki iduriak dira, nahiz eta gizonena altuxeagoa izan. Bi taldeek dute, gainera, sakabanaketa bertsua; biziki handia biena ala biena.

4.37.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Ahostuna		Ahoskabea	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	10	10,2	88	89,8
Publikokoak	26	35,14	48	64,86

487. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




494. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	4.8867523	1.293626	3.777561	0.0001583716
Publikokoak	-0.3571262	1.414535	-0.252469	0.8006785893

488. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek aldaera ahoskabea publikokoek baino aise ardurago dabilte; ikastolan, Iparraldean nagusi den ereduak duen eraginaren adierazgarri. Aldea ez da, hala ere, estatistikoki esanguratsua.




495. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaera ahostunaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Erdiko balioei eta sakabanaketari dagokionez, alde handia dago talde batetik bestera: Ikastolakoaren erdiko balioa publikokoena baino anitzez apalagoa da, eta gainera biziki talde trinkoa osatzen dute. Aldaera ahoskabearen alde egiten dute, beraz, ikastolako lekuko gehienek. Dena dela, bi lekuko urrundu daude, gainerakoetarik aski urrundurik daudenak, gainera. Publikokoaren taldea biziki heterogeneoa da, %0tik %100era bitartean hedaturik baitago.

4.37.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Ahostuna		Ahoskabea	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	2	2,41	81	97,59
Komiteetakoak	25	31,65	54	68,35
Luzaidarrak	9	90	1	10

489. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




496. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	4.8867523	1.293626	3.777561	0.0001583716
Komiteetakoak	-3.0618713	1.657636	-1.847131	0.0647281544
Luzaidarrak	-7.5482441	2.437270	-3.097007	0.0019548495

490. taula: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Gaztetxeakoen artean, aldaera ahostuna ia galdurik dago. Komiteetakoaren artean egoera hobea du, baina luzaidarrak dira, batik bat, alde handiarekin, gainera, aldaera hau gehien erabiltzen dutenak. Muga politikoa hizkuntza-muga bihurturik ageri zaigu beste behin, eremu desberdinetarik heldu baitira eraginak mugaren alde banatara. Kasu honetan, beste behin, gaztetxeakoen nafar-lapurteraren eta honen ondorengo den iparraldeko batuaren eragina dute. Gaztetxeakoen eta luzaidarren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da.



497. irudia: datiboaren morfemako lehen kontsonantearen aldaera ahostunaren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoen eta komiteetakoakoen erdiko balioak %0n edo %0tik hurbil daude. Luzaidarren kasuan, egoera kontrakoa da, %100en baitago. Gaztetxeakoen taldea biziki trinkoa da, lekuko guztiek ia beti erabiltzen baitute aldaera ahoskabea; luzaidarreka sakabanatuagoa da; baina sakabanatuena, alde handiz, komiteetakoakoen taldea dugu.

4.37.6. Cluster analisia



498. irudia: Aditz laguntzaile ditrantsitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea izateari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, Luzaideko publikoko gizon gaztea, Gamarte-Ainhizako gizon heldua eta Hergaraiko ikastolako eta komiteetako gizon gaztea ditugu. %50, %57,14 eta %40ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren. Bigarren lekuko hau aski gordetzaile ageri da usaian, baina kasu honetan, aldaera ahostunaren aski ehuneko apala du. Arrazoa diatopikoa izan daiteke, bere etxaldea Suhuskuneri biziki hurren baita. Ez dugu ahaztu behar, Irisarritik goiti, usaiakoa dela aldaera ahoskabea. Bigarren multzoan, berriz, Hergaraiko emazte heldua, Ezterenzubiko gizon heldua, Gamarte-Ainhizako publikoko eta komiteetako gizon gaztea eta Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte

gaztea ditugu. Hauek %63,64, %62,5, %66,67 eta %73,91ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren. Bi multzoek elkarrekin 5. multzoa osatzen dute.


3. multzoan, berriz, beti edo ia beti aldaera ahostuna erabiltzen duten lekukoak ditugu, gehienak adinekoak eta helduak dira, baita Luzaideko ikastolako gizon gaztea eta publikoko emazte gaztea ere. Multzo honetan ditugu, halaber, gordetzailerak diren Ezterenzubiko eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gazteak. 3. eta 5. multzoek aldaera ahostuna gehien erabiltzen dutenen 6.a osatzen dute.

4. multzoan, azkenik, beti edo ia beti aldaera ahoskabea erabiltzen dutenak ditugu. Gazteak daude bertan, batez ere gaztetxeak, eta baita Irulegi-Anhauzeko helduak ere. Aipatu beharra dugu Luzaideko ikastolako emazte gaztea ez dela cluster analisi honetan ageri, %100en *i erroa eta -ai- aldaera erabiltzen baititu.

4.38. TOGen fenomenoa

Bai		Ez	
Kop.	%	Kop.	%
740	55,76	587	44,24

491. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehuneko orokorrak




499. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehuneko orokorrak

TOGen fenomenoa gauzatzea ez gauzatzeari nagusitzen bazaio ere, elkarri hurbil daude bi aldaeren ehunekoak.

4.38.1. Geografiaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	70	43,75	90	56,25
Arnegi-Lasa	121	53,54	105	46,46
Irulegi-Anh.	86	59,72	58	40,28
Ezterenzubi	153	68,92	69	31,08
Hergarai	149	56,65	114	43,35
Gamarte-Ai.	161	51,6	151	48,4

492. taula: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




500. irudia: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.7207543	0.9999930	-0.7207594	4.710576e-01
Arnegi-Lasa	-0.4815092	0.5972906	-0.8061556	4.201531e-01
Irulegi-Anhauze	-0.5295393	0.6172343	-0.8579227	3.909351e-01
Ezterenzubi	-0.7337648	0.5920594	-1.2393434	2.152184e-01
Hergarai	-0.4420743	0.5980859	-0.7391485	4.598169e-01
Gamarte-Ainhiza	-0.2723373	0.5833420	-0.4668570	6.406022e-01

493. taula: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Ezterenzubi da eremurik gordetzailleena, bertan gauzatzen baita gehien TOGen fenomenoak. Luzaide da berritzaileena, bertan baino ez baitaio gailentzen TOGen fenomenoak.

fenomenoa ez gauzatzea gauzatzeari. Kasu honetan, hala ere, ez dugu ikusten Luzaide eta beste eremuen arteko alde nabarmenik. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




501. irudia: TOGen fenomeno gaizatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa geografien arabera

Ehuneko kasuan bezalaxe, Luzaidek du erdiko baliorik apalena eta Ezterenzubik altuena. Talde guztiak dira biziki sakabanatuak, bereziki Irulegi-Anhauzekoa.

4.38.2. Adinaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	241	86,38	38	13,62
Helduak	157	66,24	80	33,76
Gazteak	342	42,17	469	57,83

494. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




502. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.7207543	0.9999930	-0.7207594	4.710576e-01
Helduak	1.6124226	0.5082572	3.1724539	1.511566e-03
Gazteak	2.4132187	0.4358173	5.5372250	3.073016e-08

495. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen artean, jada, TOGen fenomeno hau ez da erabat sistematikoa. Helduen kasuan, fenomeno ez gauzatzearen ehunekoa bikoiztu baino gehiago egiten da. Gazteen artean, oraindik ere, gehiago igotzen da TOGen ez gauzatzea, eta TOGen gauzatzeari nagusitzen zaio. Tradizio idatzi nafar-lapurtarrean usaiakoa izan da TOGen fenomeno, eta hedadura aski zabala du, gainera. Euskara Batuan, ordea, ez da batere ohikoa. Euskara Batuak izan duke eraginik gazteen artean gertatu den galeran, baina horrek ez digu azaltzen adinekoen eta helduen artean dagoen alde handia. Gure ustez,

fenomenoa adinekoen artean erabat sistematikoa ez izatea eta egitura gramatikal konplexua sinplifikatzea ere badira gibelatzearen arrazoiak. Ikusi dugun bezala, egitura gramatikalak sinplifikatzea estuki loturik dago hizkuntzaren erabilera faltak eragindako atrizioarekin. Ideia honek badu zentzurik, helduek adinekoek baino gutxiago erabiltzen baitute euskara, oro har.




503. irudia: TOGen fenomeno gaiztzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa adinaren arabera

Ehunekoen norabide berean, adinekoena da erdiko baliorik altuena, ondotik heldu da helduena, eta azkenik, gazteena. Talderik trinkoena, ohi bezala, gordetzaile diren adinekoena da, eta sakabanatuena, berriz, berritzaile diren gazteena. Beste behin, biziki talde heterogeneoa osatzen dute gazteek; hiztun gordetzaileak eta berritzaileak nahasian daude, beraz.

4.38.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	29	85,29	12	54,55	29	27,88
Arnegi-La.	22	88	33	80,49	66	41,25
Irulegi-An.	25	92,59	5	21,74	56	59,57
Ezterenzubi	50	80,65	46	71,88	57	59,38
Hergarai	68	88,31	13	65	68	40,96
Gamarte-A.	47	87,04	48	71,64	66	34,55

496. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak TOGen fenomenoak gauzatzeari dagokionez



504. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak TOGen fenomenoak gauzatzeari dagokionez


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-9.263096e-01	1.1863818	-7.807854e-01	0.434928728
Arnegi-Lasako helduak	-1.592091e+00	1.6329156	-9.749992e-01	0.329560677
Arnegi-Lasako gazteak	-1.852728e-01	1.4091126	-1.314819e-01	0.895394090
Irulegi-Anhauzeko helduak	2.573789e+00	1.7715865	1.452816e+00	0.146274831
Irulegi-Anhauzeko gazteak	-4.374397e-02	1.5248252	-2.868786e-02	0.977113537
Ezterenzubiko helduak	-9.426454e-01	1.5339950	-6.145036e-01	0.538882622
Ezterenzubiko gazteak	-1.203304e+00	1.3311992	-9.039246e-01	0.366035407
Hergaraiko helduak	-1.040432e-01	1.6224549	-6.412702e-02	0.948869091
Hergaraiko gazteak	-1.976713e-01	1.3364988	-1.479024e-01	0.882419822
Gamarte-Ainhizako helduak	-6.515150e-01	1.5314625	-4.254201e-01	0.670530423
Gamarte-Ainhizako gazteak	-7.339306e-02	1.3294635	-5.520502e-02	0.955975131
497. taula: TOGen fenomeno gaizatzeari eta ez gaizatzeari dagokionez, geografiaren eta adinaren elkarreaginari dagokion analisi estatistikoa				

Eremu guztietako adinekoen ehunekoak bertsuak dira, denak dira %80tik gorakoak. Helduen kasuan, eremu guztietan gertatzen da beherakada, baina batez ere, Luzaiden eta Irulegi-Anhauzen. Gazteen artean, Irulegi-Anhauzen eta Ezterenzubin eusten diote hobekien TOGen fenomenoari. Irulegi-Anhauzeko lekuko gazteak helduak baino gordetzaileagoak dira, ohi bezala.

4.38.3. Generoaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	382	54,89	314	45,11
Gizonak	358	56,74	273	43,26

498. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




505. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-0.7207543	0.9999930	-0.7207594	4.710576e-01
Gizonak	-0.1963209	0.3402474	-0.5769946	5.639431e-01

499. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Generoaren arabera, aldea biziki txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.




506. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen erdiko balioa gizonena baino apalxeagoa da eta talde sakabanatuagoa osatzen dute. Aldea ez da, hala ere, handia.

4.38.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	165	34,59	312	65,41
Publikokoak	177	52,99	157	47,01

500. taula: TOGen fenomeno gaiztatzearen eta ez gaiztatzearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




507. irudia: TOGen fenomeno gaiztatzearen eta ez gaiztatzearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.0159583	1.1010813	1.8308895	0.06711703
Publikokoak	-0.5142673	0.5510950	-0.9331737	0.35073031

501. taula: TOGen fenomeno gaiztatzearen eta ez gaiztatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

TOGen fenomeno gaiztatzea ez gaiztatzeari nagusitzen zaio publikokoen artean, alde txikiarekin bada ere. Ikastolakoan artean, berriz, fenomeno hau ez gaiztatzeak du ehunekorik altuena. Beraz, gazteen kasuan, hizkuntza-atrivotik landa, Euskara Batuaren eragina ere badugu. Aldea ez da, zernahi gisaz, estatistikoki esanguratsua.




508. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoak erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek erdiko balioa publikokoena baino apalagoa da. Publikokoek sakabanaketa, berriz, handiagoa da lehen eta hirugarren kuartilen artean; talde heterogeneoagoa osatzen dute, beraz.

4.38.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	121	32,01	257	67,99
Komiteetakoak	192	58,36	137	41,64
Luzaidarrak	29	27,88	75	72,12

502. taula: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




509. irudia: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	2.0159583	1.1010813	1.8308895	0.06711703
Komiteetakoak	-0.7947646	0.6007951	-1.3228547	0.18588370
Luzaidarrak	0.1535244	0.7353012	0.2087912	0.83461125

503. taula: TOGen fenomenoaren gauzatzearen eta ez gauzatzearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Biziki iduriak dira gaztetxeak eta luzaidarren praktika-komunitateen ehunekoak. Bietan TOGen ez gauzatzea gauzatzeari aise nagusitzen zaio. Komiteetakoaren artean, berriz, ehunekoak beste praktika-komunitateen aurkakoak dira. Luzaidarren datuak hizkuntza-atrizioaren bidez azal litezke, oro har aski gutxi erabiltzen baitute euskara; ez ordea, gaztetxeak, hauek baitira euskal munduan aktiboak daudenak. Hori dela eta, gazteen artean, Euskara Batuaren eragina ere nahitaez aipatu beharra dago. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




510. irudia: TOGen fenomenoaren gaitzeari dagozkion lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Komiteetakoek dute erdiko baliorik altuena, ondotik luzaidarrek, eta azkenik, gaztetxeakoek. Eremu trinkoa osatzen dute gaztetxeakoek, linguistikoki talde uniforme delako marka; komiteetakoek, eta luzaidarrek, berriz, aski talde sakabanatua osatzen dute.

4.38.6. Baldintza linguistikoaren arabera: objektu zuzenaren aditzarekiko kokapena

	Bai		Ez	
	Kop.	%	Kop.	%
Aditzaren aitzinean	726	59,07	503	40,93
Aditzaren ondoren	14	14,29	84	85,71


504. taula: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak objektu zuzenaren aditzarekiko kokapenaren arabera



511. irudia: TOGen fenomenoa gauzatzearen eta ez gauzatzearen ehunekoak objektu zuzenaren aditzarekiko kokapenaren arabera

Objektu zuzenaren aditzarekiko kokapenak TOGen fenomenoaren gauzatzean edo ez gauzatzean berebiziko eragina du. Aditzaren aitzinean gauzatzea ohikoagoa da, baina aditzaren ondoren, ez gauzatzea da erabat nagusi.

4.38.7. Cluster analisia



512. irudia: TOGen fenomenoari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, %64 eta %80 bitartean gauzatzen da TOGen fenomenoa. Sozialki multzo heterogeneoa da, ez baitugu talde sozial argirik bereizten ahal. Bigarren multzoan, berriz, %47-%58n gauzatzen dute fenomenoa. Helduak eta gazteak ditugu bertan, tartean hiru luzaidar. Lehen eta bigarren multzo hauek 7.a osatzen dute.


3. multzoan, %92 eta %100 bitartean gauzatzen dute TOGen fenomenoa. Adinekoek eta gordetzaile diren Ezterenzubiko emazte helduak eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gazteak osatzen dute talde hau. 4. multzoan, berriz, %82 eta %90 bitarteko ehunekoak dituzte bertan dauden adineko, heldu eta komiteetako eta luzaidar gazteek. Bi multzo hauek 8.a osatzen dute, eta azken honek 7.arekin elkartzean, fenomenoaren usuen gauzatzen dutenen 9. multzoa osatzen du.

5. multzoan, %0 eta %22 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Berritzaile den Irulegiko emazte helduak eta gazteek osatua da; bai luzaidar, bai komiteetako eta bai gaztetxeek. 6. multzoan, azkenik, %25 eta %42 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek. Bertan daude berritzaile den Ezterenzubiko gizon heldua eta hiru praktika-komunitateetako gazteak. 5. eta 6. multzoek TOGen gutxien gauzatzen dutenen 10. multzoa osatzen dute.

4.39. Uste izan aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzailea

-en		-ela	
Kop.	%	Kop.	%
104	40,31	154	59,69

505. taula: uste izan aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehuneko orokorrak




513. irudia: uste izan aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehuneko orokorrak

Ziurgabetasuna eta ziurtasuna adierazten duten perpausak batera kontuan harturik, *-(e)la* da nagusitzen den konplementatzailea, baina altua da *-(e)n*-en ehunekoa ere.

4.39.1. Geografiaren arabera

	-en		-ela	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	13	36,11	23	63,89
Arnegi-Lasa	18	40,91	26	59,09
Irulegi-Anh.	10	22,73	34	77,27
Ezterenzubi	25	62,5	15	37,5
Hergarai	26	47,27	29	52,73
Gamarte-Ai.	12	30,77	27	69,23

506. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




514. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5994813	1.953947	-1.3303746	0.1833948710
Arnegi-Lasa	-0.9092495	1.968853	-0.4618169	0.6442126337
Irulegi-Anhauze	3.7498570	2.133265	1.7578015	0.0787812952
Ezterenzubi	-1.0559653	1.991869	-0.5301381	0.5960162133
Hergarai	0.5756942	1.956124	0.2943035	0.7685260191
Gamarte-Ainhiza	1.3937189	1.929972	0.7221446	0.4702055808

507. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremurik gordetzaileena, beste behin, Ezterenzubi da, bertan baitago *-(e)n* aldaera gehien. Berritzaileena, berriz, Irulegi-Anhauze da kasu honetan, beste eremuetan baino

aise gehiago erabiltzen delako *-(e)la*. Ezterenzubi ez beste eremu guztietan, *-(e)la* nagusitzen zaio *-(e)n*-i. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




515. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen *-en* konplementatzailearen lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Nahiz eta ehunekoaren kasuan hala ez izan, Arnegi-Lasaren *-(e)n* aldaeraren erdiko balioa da altuena. Ondotik heldu da Ezterenzubirena. Irulegi-Anhauzekoa, berriz, %0koa da. Eremu guztiak dira biziki sakabanatuak, Irulegi-Anhauze salbu, eremu guztietan bi aldaerak nahasian erabiltzen direlako marka.

4.39.2. Adinaren arabera

	-en		-ela	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	38	86,36	6	13,64
Helduak	30	58,82	21	41,18
Gazteak	36	22,09	127	77,91

508. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




516. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5994813	1.953947	-1.3303746	0.1833948710
Helduak	2.9596110	1.709115	1.7316626	0.0833336621
Gazteak	5.9994457	1.803688	3.3262095	0.0008803572

509. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Alde handia dago hiru adin taldeen artean. Adinekoen artean, erabat nagusi da *-(e)n*, guztiz sistematikoa ez bada ere. Helduen kasuan ere, *-(e)n* gailentzen zaio *-(e)la*-ri, nahiz eta bi aldaeren ehunekoak ez dauden elkarrengandik biziki urrun. Azkenik, gazteen ehunekoak adinekoen alderantzizkoak dira, *-(e)la* aldaera baita nagusi dena. Tradizio nafar-lapurtarrean *-(e)n* erabili izan da, *-(e)la*-rekin batean betiere (lehenbizikoa zalantza adierazteko eta bigarrena ziurtasuna adierazteko); hedadura zabala du, gainera, Euskal Herri ekialde osoan zehar. Alta, Euskara Batuan *-(e)la*

aldaera baino ez dugu eta ukaezina da estandarrak duen eragina, batez ere gazteengan. Hortarik landa, kasu honetan ere, sinplifikazioa gertatu dela iruditzen zaigu, aldaera bat edo bestea erabiltzeak duen ñabardura semantikoa desagertzen joan baita helduen, eta batez ere, gazteen artean; azken hauengan, *-(e)la* erabat nagusitu baita. Sinplifikazio hori Euskara Batuan erabiltzen den formara buruz gertatu da bai kasu honetan, eta baita TOGen fenomenoaren kasuan ere.




517. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen *-(e)n* konplementatzailearen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoen erdiko balioa %100ekoa da eta gazteena %0koa. Helduen erdiko balioa, berriz, adinekoenarengandik gazteenarengandik baino hurbilago dago. Hiru multzoak biziki sakabanatuak dira, baina helduena da erdiko balioaren eta maximo-minimoen artean sakabanaketa uniformeena duen bakarra.

4.39.3. Generoaren arabera

	-en		-ela	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	38	29,23	92	70,77
Gizonak	66	51,56	62	48,44

510. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




518. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	-2.5994813	1.953947	-1.3303746	0.1833948710
Gizonak	-2.4735136	1.210292	-2.0437321	0.0409800208

511. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek gizonak baino anitzez usuago erabiltzen dute *-(e)la* aldaera. Bi generoen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da, gainera.




519. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen *-(e)n* konplementatzaileen lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Emazteen *-(e)n* aldaeraren erdiko balioa %0koa da, eta gizonena, berriz, %50 baino altuagoa. Bi taldeak dira biziki sakabanatuak, baina emazteen kasuan, sakabanaketa erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren artean baino ez dezakegu atzeman. Gizonen taldeak, aldiz, sakabanaketa uniformeagoa du erdiko balioaren eta maximo/minimoen artean.

4.39.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-en		-ela	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	17	15,89	90	84,11
Publikokoak	19	33,93	37	66,07

512. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




520. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.09864214	1.863028	0.05294721	0.9577740
Publikokoak	0.74425016	2.103643	0.35379112	0.7234954

513. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

-(*e*)la aldaera ikastolakoan artean publikokoan artean baino anitzez ohikoagoa da. Horrek Euskara Batuak ikastolako gazteen artean duen eragina salatzen du. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




521. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen *-en* konplementatzailearen lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ez dago alde handirik bi taldeen erdiko balioen artean, baina hala ere, ikastolakoena publikokoena baino apalagoa da, %0koa, hain zuzen ere. Bestalde, publikokoena taldea ikastolakoena baino anitzez sakabanatuagoa da, eta horrek ikastolako gazte gehienek ia beti *-(e)la* erabiltzen dutela erran nahi du.

4.39.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-en		-ela	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	0	0	62	100
Komiteetak	31	40,79	45	59,21
Luzaidarrak	5	20	20	80

514. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



522. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.09864214	1.863028	0.05294721	0.9577740
Luzaidarrak	1.41945977	2.324797	0.61057372	0.5414818

515. taula: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen dituen konplementatzaileen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin gaztetxeoen talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako (-*ela* aldaera erabiltzen dute %100en). Beraz, hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitateen arabera egin analisi estatistikoan, gaztetxeoen taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Gaztetxeoena da praktika-komunitaterik berritzaileena, %100en erabiltzen baitute -(*e*)la konplementatzailea. Talde honetakoek dute, kasu honetan, Euskara Batuaren eraginik handiena. Beste behin, komiteetakoak dira gordetzaileena, baina


talde honengan ere, *-(e)la* da nagusi dena. Luzaidarren artean, halaber, aldaera hau da ohikoena. Komiteetakoan eta Luzaidarren arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua, nahiz eta P. balioa ikastolakoan eta publikokoan artekoa baino apalagoa izan.



523. irudia: *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen *-(e)n* konplementatzailearen lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxekoan erdiko balioa %0koa da, altuagoa da luzaidarrean, eta altuena komiteetakoan da. Azken talde hau da, beste kasu anitzetan bezala, talderik sakabanatuena.

4.39.6. Cluster analisia



524. irudia: Uste izan aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzaileari dagokion cluster analisia


Lehen multzoan %30 eta %50 bitartean erabiltzen dute *-(e)n* konplementatzailea. Multzo honetan, adinekoak, helduak eta Luzaideko ikastolako gizon gaztea ditugu. 2. multzoan, berriz, beti edo ia beti *-(e)la* konplementatzailea erabiltzen dutenak ditugu. Gazteak dira denak, gehienak gaztetxeakoak, eta baita Irulegi-Anhauze eta Ezterenzubiko emazte helduak, Luzaideko gizon heldua eta Irulegi-Anhauzeko adineko emaztea ere. Lehen eta 2. multzoek *-(e)n* gutxien erabiltzen dutenen 5. multzoa osatzen dute.

3. multzoan, berriz, %66 eta %75 bitartean erabiltzen dute *-en*. Bertan, helduak eta Gamarte-Ainhiza eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gazteak ditugu. Azkenik, 4. multzoan, beti edo ia beti *-(e)n* konplementatzailea erabiltzen dute bertan dauden adineko, heldu eta komiteetako gazteek, baita Luzaideko publikoko gizon gazteak ere. 3. eta 4. multzo hauek, berriz, *-(e)n* gehien erabiltzen dutenen 6. multzoa osatzen dute.

4.40. Atributuan artikulurik eza

Ez		Bai	
Kop.	%	Kop.	%
652	27,93	1682	72,07

516. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehuneko orokorrak




525. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehuneko orokorrak

Atributuan artikulua izatea ez izateari nagusitzen zaio gaur egun Garazi ibarrean, alde handiz, gainera.

4.40.1. Geografiaren arabera

	Ez		Bai	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	76	29,12	185	70,88
Arnegi-Lasa	116	24,95	349	75,05
Irulegi-Anh.	112	23,58	363	76,42
Ezterenzubi	130	40,5	191	59,5
Hergarai	121	29,88	284	70,12
Gamarte-Ai.	97	23,83	310	76,17

517. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




526. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.9255415	0.3173618	2.9163610	0.003541405
Arnegi-Lasa	0.2087788	0.3342624	0.6245955	0.532236549
Irulegi-Anhauze	0.3836126	0.3352490	1.1442618	0.252515084
Ezterenzubi	-0.3465066	0.3387781	-1.0228129	0.306396310
Hergarai	-0.2898620	0.3441547	-0.8422431	0.399651885
Gamarte-Ainhiza	0.3333025	0.3415703	0.9757947	0.329166230

518. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Eremu guztietan nagusitzen zaio artikulua artikulurik ez izateari. Ezterenzubian, hala ere, beste inon baino artikulurik gutxiago dugu, eremu honen izaera gordetzailerik salatuz. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuek.




527. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Hergaraik du erdiko baliorik altuena, eta ondotik, Ezterenzubik. Eremu guztiak aski trinkoak dira. Hergarai eta Ezterenzubi eremu gordetzaileak dira salbuespena. Bien sakabanaketa aski bertsua da, baina Ezterenzubiren kasuan, Hergaraikoa baino handiagoa da erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren artean.

4.40.2. Adinaren arabera

	Ez		Bai	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	126	29,44	302	70,56
Helduak	146	34,11	282	65,89
Gazteak	380	25,71	1098	74,29

519. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




528. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.9255415	0.3173618	2.9163610	0.003541405
Helduak	-0.3110442	0.2792526	-1.1138454	0.265345533
Gazteak	0.1957162	0.2391568	0.8183595	0.413151931

520. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Hiru adin taldeen ehunekoak bertsuak dira. Kasu bakarrenetakoa da aztertu ditugun hizkuntza-aldagaien artean. Artikulurik eza ez da batere sistematikoa adinekoen artean, baina hala ere, ehunekoa ez da sobera apaltzen ondoko belaunaldietan, areago, helduen kasuan pixka bat igotzen da. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.




529. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen ehunekoak adinaren arabera

Helduen artikulurik ezaren erdiko balioa adinekoena baino zertxobait altuagoa da, eta gazteena, berriz, apalxeagoa. Adinekoen taldea biziki trinkoa da. Beste biak, berriz, aise sakabanatuagoak dira.

4.40.3. Generoaren arabera

	Ez		Bai	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	341	26,35	953	73,65
Gizonak	311	29,9	729	70,1

521. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




530. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.9255415	0.3173618	2.9163610	0.003541405
Gizonak	-0.1803510	0.1933327	-0.9328530	0.350895867

522. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Gizonen artikulurik ezaren ehunekoa emazteena baino zertxobait altuagoa da. Aldea, ordea, ez da handia eta ez da estatistikoki esanguratsua.




531. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen lekuko bakoitzaren ehunekoak eta sakabanaketa generoaren arabera

Ez dago alde handirik bi taldeen erdiko balioari eta sakabanaketari dagokionez. Emazteen erdiko balioa zertxobait apalagoa da eta talde sakabanatuxeagoa osatzen dute.

4.40.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	Ez		Bai	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	205	24,17	643	75,83
Publikokoak	175	27,78	455	72,22

523. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




522. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.4867693	0.2390818	6.218663	5.014087e-10
Publikokoak	0.4564262	0.3481880	1.310861	1.899047e-01

524. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek publikoak baino artikulurik ezaren ehuneko apalxeagoa dute. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




533. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoaren erdiko balioa publikokoena baino apalxeagoa da. Erdiko balioaren eta maximoaren artean, ordea, sakabanaketa handiagoa dute ikastolakoek.

4.40.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	Ez		Bai	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	134	19,51	553	80,49
Komiteetakoak	205	32,28	430	67,72
Luzaidarrak	41	26,28	115	73,72

525. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera




534. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	1.4867693	0.2390818	6.218663	5.014087e-10
Komiteetakoak	-1.0354644	0.3835404	-2.699753	6.939099e-03
Luzaidarrak	-0.6836198	0.4432820	-1.542178	1.230304e-01

526. taula: atributuan artikulurik ez izatearen eta izatearen arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera


Gaztetxeakoek dute artikulurik ezaren ehunekorik apalena, eta altuena, berriz, Komiteetakoek dute. Aldeak handiak ez izanik ere, estatistikoki esanguratsuak dira gaztetxeakoen eta komiteetakoaren artean. Ohi bezala, komiteetakoena da praktika-komunitaterik gordetzailleena, eta kasu honetan, berritzialeena gaztetxeakoena da. Luzaidarrak ez dira besteengandik anitz aldentzen hizkuntza-aldagai honi dagokionez.



535. irudia: atributuan artikulurik ez izatearen lekuko bakoitzaren ehuneko erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Gaztetxeakoen erdiko balioa da apalena, eta hauen taldea da trinkoena. Komiteetakoen eta luzaidarren erdiko balioak bertsuak dira. Erdiko balioaren eta bi kuartilen arteko sakabanaketa aski uniforme da Luzaidarrengan. Komiteetakoen sakabanaketa, ordea, handiagoa erdiko balioaren eta hirugarren kuartilaren artean. Gainera, maximotik landa, bada lekuko urrundu bat ere. Horrek guztiak artikulurik ezaren ehuneko goraxeagoa izan dezaten eragin du.

4.40.6. Cluster analisia



536. irudia: Atributuan artikulurik ezari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, %46 eta %56 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoek atributuan artikulurik ez izateari dagokionez. Sozialki multzo heterogeneoa da. Hala da 2. multzoa ere, ez baita talde sozial bat besteen artean nagusitzen. Bertan, lekukoek %31 eta %40 arteko ehunekoak dituzte. Lehen eta bigarren multzoek elkarrekin, 7.a osatzen dute. 3. multzoan, berriz, Ezterenzubiko emazte heldua, Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea eta Hergaraiko gizon heldua daude. %66,67, %65,57 eta %72,73ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren. 7. multzoarekin elkartzean, artikulurik ezaren ehunekorik altuena dutenen 9. multzoa osatzen dute.

4. multzoan, batez ere adinekoak eta helduak ditugu, baita komiteetako gazteak ere. %24 eta %32 bitarteko ehunekoak dituzte. 5. multzoan, berriz, %17 eta %23


bitarteko ehunekoak dituzte bertan dauden Gamarte-Ainhizako gizon helduak eta gazteek. Azken hauen artean, gehienak gaztetxeakoak dira. 5. eta 4. multzoek 8.a osatzen dute.

Azkenik, 6. multzoan, Irulegi-Anhauzeko adineko gizona, Arnegi-Lasako emazte heldua eta gazte zenbait ditugu: hiru gaztetxeako eta komiteetako bat. %5 eta %15 bitarteko ehunekoak dituzte hauek. 8. multzoarekin elkartzean, artikulurik ezaren ehunekorik apalena dutenen 10. multzoa osatzen dute.

4.41. Zehar galdera

-(e)nez		-(e)n	
Kop.	%	Kop.	%
179	45,32	216	54,68

527. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehuneko orokorrak




537. irudia: zehar galderaren aldaeren ehuneko orokorrak

Bi aldaerek ehuneko bertsua dute, baina hala ere, gaur egun, *-(e)n* nagusitu egin zaio *-(e)nez*-i Garazi ibarrean.

4.41.1. Geografiaren arabera

	-(e)nez		-(e)n	
	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	1	2,08	47	97,92
Arnegi-Lasa	20	25,97	57	74,03
Irulegi-Anh.	11	20,75	42	79,25
Ezterenzubi	64	71,91	25	28,09
Hergarai	52	86,67	8	13,33
Gamarte-Ai.	31	45,59	37	54,41

528. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera




538. irudia: zehar galderaren aldaeren ehunekoak geografiaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	4.26172719	1.3005231	3.27693301	1.049413e-03
Arnegi-Lasa	-2.84566529	1.3068531	-2.17749439	2.944370e-02
Irulegi-Anhauze	-2.77315921	1.3222419	-2.09731617	3.596560e-02
Ezterenzubi	-5.53031096	1.3096244	-4.22282209	2.412623e-05
Hergarai	-6.98329887	1.4060589	-4.96657646	6.814519e-07
Gamarte-Ainhiza	-4.72717630	1.3255587	-3.56617663	3.622273e-04

529. taula: zehar galderaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa geografiaren arabera

Uste genuenaren kontra, hizkuntza-aldaigai honek ere mendebalde vs. ekialde zatiketa sortzen du Garazi ibarrean. Luzaide, Arnegi-Lasa eta Irulegi-Anhauzen -(e)n aldaera da nagusi. Ezterenzubi eta Hergarain, berriz, -(e)nez. Gamarte-Ainhizan -(e)n

aldaeraren ehunekoa *-(e)nez*-ena baino altuagoa izatera heldu da. Hala ere, ez dago bien aldaeren artean alde handirik. Ikusi dugun bezala, Baigorri ez dugu *-(e)nez*-ik, eta horrek eragiten duke aldaera honek Garaziko mendebaldean hain presentzia apala izatea. Luzaiden erabiltzen da *-(e)nez* aldaera gutxien eta Hergarain gehien. Luzaide eta beste eremu guztien arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.




539. irudia: zehar galderaren *-(e)nez* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa geografiaren arabera

Luzaideren erdiko balioa da apalena, %0koa, hain zuzen ere. Altuena, berriz, Hergaraikoa da, %100i hurbiltzen zaiona. Eremurik trinkoena Luzaidek osatzen du, hiztun gehienek %0ko ehunekoa baitute. Aski eremu trinkoak dira Ezterenzubi eta Hergarai ere, oinarri dialektaleko aldaera ongi atxikitzen dutelako marka. Sakabanatuena, berriz, Gamarte-Ainhiza da, eta horrek adierazten du ber eremuan bi aldaerak erabiltzen dituzten lekukoak daudela.

4.41.2. Adinaren arabera

	-(e)nez		-(e)n	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	61	57,01	46	42,99
Helduak	38	36,54	66	63,46
Gazteak	80	43,48	104	56,52

530. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehunekoak adinaren arabera




540. irudia: zehar galderaren aldaeren ehunekoak adinaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	4.26172719	1.3005231	3.27693301	1.049413e-03
Helduak	0.07223576	0.6969514	0.10364534	9.174508e-01
Gazteak	0.05860291	0.6004642	0.09759601	9.222531e-01

531. taula: zehar galderaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa adinaren arabera

Adinekoen artean, *-(e)nez* aldaera *-(e)n*-i nagusitzen zaio, baina bi aldaeren artean ez dago alde handirik. Helduen kasuan, egoera adinekoen kontrakoa da, baina gazteen kasuan, *-(e)nez* aldaeraren ehunekoa berriro ere zertxobait igotzen da. Aldeak, beste behin, ez dira estatistikoki esanguratsuak. Ondoko atalean datu hauek zehatzago aztertuko ditugu.




541. irudia: zehar galderaren -(e)nez aldaeraren ehunekoak adinaren arabera

Alde txikia dago hiru adin taldeen erdiko balioen artean. Altuena gazteena da, eta apalena, berriz, helduena. Hiru taldeak biziki sakabanatuak dira, aldaera bat edo bestearen alde egiten duten eremuetako lekukoak nahasian baitaude talde bakoitzean.

4.41.2.1. Geografiaren eta adinaren arteko elkarreragina

	Adinekoak		Helduak		Gazteak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	0	0	1	7,14	0	0
Arnegi-La.	2	11,11	0	0	18	46,15
Irulegi-An.	2	25	4	26,67	5	16,67
Ezterenzubi	29	76,32	16	72,73	19	65,52
Hergarai	18	90	9	90	25	83,33
Gamarte-A.	10	62,5	8	34,78	13	44,83

532. taula: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren kopuru eta ehunekoak zehar galderaren -(e)nez aldaerari dagokionez



542. irudia: geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginaren ehunekoak zehar galderaren -(e)nez aldaerari dagokionez

Ez dugu geografiaren eta adinaren arteko elkarreraginari dagokion analisi estatistikorik erakutsiko, modeloak ematen dizkigun konbergentzia arazoak direla eta.


Adinekoen kasuan ageri da argien mendebalde vs. ekialde bereizketa. Oro har, Ezterenzubin, Hergarain eta Irulegi-Anhauzen ehuneko bertsuak dituzte hiru adin taldeek, nahiz eta gazteen kasuan pixka bat apaltzen diren. Gamarte-Ainhizako helduen ehunekoa jaitsi egiten da baina berriro ere pixka bat igotzen da gazteen kasuan. Luzaiden, hiru adin taldeen artean, biziki ehuneko apala du -(e)nez aldaerak. Hala da Arnegi-Lasako adineko eta helduen kasuan ere, baina anitz igotzen da gazteengan. -(e)nez aldaera tradizio nafar-lapurtarrean erabilia izan da -(e)n-ekin batera, eta Iparraldean ohikoa izaten jarraitzen du gaur egun ere. Gure ustea da eredu

nafar-lapurtarra dela eta, Garaziko ekialdean *-(e)nez* aldaerari eutsi diotela gazteek, nahiz eta hauen ehunekoak adinekoenak baino apalxeagoak izan. Horrez gain, eredu honen eraginez, *-(e)nez* adinekoek bakan erabiltzen duten eremu batzuetara ere hedatu dela iruditzen zaigu, Arnegi-Lasako datuek erakusten duten moduan. Hori dela eta, mendebalde vs. ekialde bereizketa hori gazteen artean pixka bat neutralizatu da. Luzaide mugaz bestalde dagoenez, ez da bertaraino heldu eragin nafar-lapurtar hori.

4.41.3. Generoaren arabera

	<i>-(e)nez</i>		<i>-(e)n</i>	
	Kop.	%	Kop.	%
Emazteak	83	47,7	91	52,3
Gizonak	96	43,44	125	56,56

533. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehunekoak generoaren arabera




543. irudia: zehar galderaren aldaeren ehunekoak generoaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	4.26172719	1.3005231	3.27693301	1.049413e-03
Gizonak	0.44500134	0.4984216	0.89282115	3.719530e-01

534. taula: zehar galderaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa generoaren arabera

Emazteek gizonak baino gehixeago darabilte *-(e)nez* aldaera, baina aldea txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.




544. irudia: zehar galderaren *-(e)nez* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoaren erdiko balioak eta sakabanaketa generoaren arabera

Ehunekoaren artean baino alde handiagoa dago erdiko balioei dagokienez, eta emazteena da erdiko baliorik altuena. Bi taldeak biziki sakabanatuak dira, baina erdiko balioaren eta maximoaren arteko sakabanaketa handiagoa da gizonen kasuan, eta horrek bi generoen ehunekoaren artean aldea txikiagoa izatea eragiten du.

4.41.4. Gazteak hezkuntza-ereduaren arabera

	-(e)nez		-(e)n	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikastolakoak	41	39,81	62	60,19
Publikokoak	39	48,15	42	51,85

535. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera




545. irudia: zehar galderaren aldaeren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.6194598	0.7658321	0.8088715	0.4185891
Publikokoak	0.5782542	1.2246385	0.4721836	0.6367958

536. taula: zehar galderaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa hezkuntza-ereduaren arabera

Ikastolakoek publikokoek baino bakanago erabiltzen dute *-(e)nez* aldaera. Aldea ez da, hala ere, handia eta ez da estatistikoki esanguratsua.




546. irudia: zehar galderaren *-(e)nez* aldaeraren ehunekoak hezkuntza-ereduaren arabera

Bi taldeen erdiko balioen artean ehunekoaren artean baino alde handiagoa dago. Publikokoengan, erdiko balioaren eta minimoaren arteko sakabanaketa ikastolakoena baino handiagoa da. Ikastolakoen kasuan, berriz, erdiko balioaren eta maximoaren arteko sakabanaketa publikokoena baino handiagoa da. Horrek ehunekoaren arteko aldea erdiko balioen artekoa baino txikiagoa izatea eragiten du.

4.41.5. Gazteak praktika-komunitatearen arabera

	-(e)nez		-(e)n	
	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	24	38,1	39	61,9
Komiteetakoak	56	59,57	38	40,43
Luzaidarrak	0	0	27	100

537. taula: zehar galderaren aldaeren kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



547. irudia: zehar galderaren aldaeren ehunekoak praktika-komunitatearen arabera


	Estimate	Std. error	Statistic	P. value
(Intercept)	0.6194598	0.7658321	0.8088715	0.4185891
Komiteetakoak	-1.4706618	1.2426805	-1.1834593	0.2366272

538. taula: zehar galderaren aldaeren arteko aldeari dagokion analisi estatistikoa praktika-komunitatearen arabera

Generalized linear model modeloak ezin du konparaziorik egin luzaidarren talde sozialarekin, bariazio falta dagoelako *-(e)n* aldaera erabiltzen dute %100en). Beraz, hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera egin analisi estatistikoan, luzaidarren taldeko datuak kontuan ez hartzea erabaki da.

Gaztetxeakoen kasuan, *-(e)n* aldaera nagusitzen zaio *-(e)nez*-i. Komiteetakoaren artean, kontrakoa gertatzen da, *-(e)nez* baita nagusi. *-(e)nez* aldaera bai/ez erantzuna duten zehar galderetan baino ez da erabiltzen. Beste kasu guztietan, *-(e)n* da aukera bakarra. Aitzineko hizkuntza-aldagaietan bezala, hein apalean bada ere, paradigma


gramatikala sinplifikatu dela iruditzen zaigu. Gaztetxekoek ezaguna eta landua duten Euskara Batuak, gainera, sinplifikazio horretan lagundu du. Haatik, eredu nafar-lapurterra ere hor dago, eta honek gaztetxekoek *-(e)nez* aldaera, hein batean, atxikitzea eragin du, *-(e)n* baino ehuneko apalagoan bada ere. Gaztetxekoen eta komiteetakoek arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Luzaidar gazteek, adinekoek bezala, *-(e)n* aldaera erabiltzen jarraitzen dute, %100en, gainera. Muga politikoak eta Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batuak *-(e)nez* herri honetako gazteengana ez hedatzea eragin dute.



548. irudia: zehar galderaren *-(e)nez* aldaeraren lekuko bakoitzaren ehunekoen erdiko balioak eta sakabanaketa praktika-komunitatearen arabera

Luzaidarrena da *-(e)nez* aldaeraren erdiko baliorik apalena, eta altuena, berriz, komiteetakoena da. Azken praktika-komunitate honek du, gainera, ohi bezala, sakabanaketarik handiena.

4.41.6. Cluster analisia




549. irudia: zehar galderari dagokion cluster analisia

Lehen multzoan, %7 eta %19 bitartean erabiltzen dute *-(e)nez* aldaera. Garazi mendebaldeko adineko, heldu eta gazteak ditugu bertan, baita Gamarte-Ainhizako gizon heldua eta ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea ere. Bere azpiko multzoan, bien artean 5. multzoa osatuz, beti *-(e)n* aldaera erabiltzen duten lekukoak ditugu, Garazi mendebaldeko adineko, heldu eta gazteak. 2. multzoan, berriz, %33-%50en erabiltzen dute *-(e)nez*. Multzo honetan, Irulegi-Anhauze eta Gamarte-Ainhizako adineko emazteak, eta Garazi mendebaldeko nahiz ekialdeko gazteak ditugu. 2. eta 5. multzoek *-(e)nez* aldaera gutxien erabiltzen dutenen 7. multzoa osatzen dute.

3. multzoan, %60 eta %80 bitarteko ehunekoak dituzte lekukoak. Hauek Gamarte-Ainhizako eta Ezterenzubiko adineko gizonak, Ezterenzubiko gizon heldua eta Garazi

mendebalde nahiz ekialdeko gazteak dira. 4. multzoan, Garazi ekialdeko adineko eta helduak ditugu, eta baita Gamarte-Ainhizako publikoko eta komiteetako gizon gaztea ere. %85-%93 bitarteko ehunekoa dute. 4.aren azpiko multzoan, beti *-(e)nez* aldaera erabiltzen dutenak daude, Garazi ekialdeko heldu eta komiteetako gazteak. 4. multzoarekin batera, 6.a osatzen dute, eta honek 3.arekin elkartzean, *-(e)nez* aldaera gehien erabiltzen dutenen 8. multzoa osatzen du.

4.42 Cluster analisi orokorra



550. irudia: cluster analisi orokorra

8. multzoa da besteei beranduen lotzen zaiena. Garaziko lekukorik berritzaileenek osatzen dute. Alde batetik, lehen multzoan, Luzaideko ikastolako eta publikoko emazte gazteak ditugu. Bestetik, berriz, 2. multzoan, Gamarte-Ainhizako gazte guztiak ditugu, publikoko eta komiteetako gizon gaztea salbu. Datuen azterketa osoan zehar ikusi dugu eremu honetako gazteak denetan berritzaileenak direla. Hauekin batera, Hergaraiiko publikoko eta komiteetako emazte gaztea eta Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gaztea ditugu. Bat salbu, beste guztiak gatzetxeakoak dira. Alde handia dute Luzaideko emazte gazteekin. Mugaren eragina agerikoa da, beraz.

11. multzoan, heldurik berritzaileenak, gatzetxeako gazteak, komiteetako gazterik berritzaileenak eta Luzaideko ikastolako gizon gaztea ditugu. Heldurik berritzaileenak

Irulegi-Anhauzeko, Hergaraiko eta Arnegi-Lasako emazteak dira eta baita Ezterenzubiko gizona ere. Gaztetxekoen artean, Irulegi-Anhauze, Arnegi-Lasa eta Hergaraiko emazteak ditugu. Komiteetakoen artean, azkenik, Ezterenzubiko ikastolako eta Irulegi-Anhauzeko, Arnegi-Lasako eta Ezterenzubiko publikoko emazte gazteak ditugu, baita Gamarte-Ainhizako publikoko gizon gaztea ere. Multzo honetan berritzaileenak, oinarrizko 4. multzoari lotzen azkenak, Luzaideko ikastolako gizon gaztea, Ezterenzubiko publikoko emazte gaztea eta Arnegi-Lasako emazte heldua ditugu.

6. multzoan, Garazi mendebaldeko adinekoak, heldurik gordetzaileenak (Arnegi-Lasako gizona eta Luzaideko biak) eta Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako gizon gaztea dugu, biziki gordetzaile dena. 5. multzoan, 6.ekoan baino lekuko berritzaileagoak ditugu, denak gizonak: Hergaraiko, Irulegi-Anhauzeko eta Gamarte-Ainhizako helduak eta Arnegi-Lasako eta Hergaraiko publikoko eta komiteetako gazteak, Ezterenzubiko eta Hergaraiko ikastolako eta komiteetako gazteak eta Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gaztetxeko gaztea. Denekin elkartzen azkena Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gaztea da.

7. multzoan, azkenik, Garazi ekialdeko adinekoak eta Gamarte-Ainhiza eta Ezterenzubiko emazte helduak ditugu. Ageri denez, Ezterenzubiko lekuko batzuk ekialdekoekin batera ditugu, eta beste batzuk mendebaldekoekin batera, herri hau bien bitartean dagoela frogatuz.

8. multzokoek ez beste lekuko guztiek 14. multzoa osatzen dute, eta honetara lotzen azkena Irulegi-Anhauzeko adineko gizona dugu, besteek erabiltzen ez dituzten aldaera batzuk baitarabiltza.

5. Hizkuntza-jarreraren eta hiztunen oharmenaren emaitzak

2.4. eta 2.5 §-etan ikusi dugu hizkuntza-jarreraren eta hiztunen oharmenaren berri izatea funtsezkoa dela hizkuntza-aldaketa hobeki ulertzeko. Atal honetan aurkeztuko ditugun emaitza subjektiboek datuen azterketatik lortu ditugun emaitza objektiboak interpretatzeko balioko digutelakoan gaude. Lehenik eta behin, hizkuntza-aldaketaren inguruko galdera irekiak egin dizkiegu lekukoei. Ondoren, beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmena ikertu dugu, hurbilen eta urrunen sentitzen dituzten hizkerei buruz galdetuz. Azkenik, kontzientzia-mailaren azpitik dauden usteen berri jaso nahi izan dugu. Horretarako, erreakzio subjektiboen testak egin dizkiegu lekukoei, grabaketa batzuk entzun eta horietan mintzatzen diren hiztunak beraien ustez nongoak diren errateko eskatuz.

5.1. Galdera irekiak

Galdera hauetan, arrapostuak nahi duten beste garatzen utzi diegu lekukoei, beraien iritzien berri ahalik eta osoena izan dezagun. Hauek izan dira galdegin dizkiegunak:


- 1) Garaziko euskara adinekoengandik gazteengana aldatzen ari dela uste duzu?
- 2) Zeini ematen diozu balio handiagoa? Euskara Batuari, bertako euskarari edo biei berdin?
- 3) Garaziko parte kontsideratzen duzu Luzaide?
- 4) Berdin mintzo zarete luzaidarrak eta gainerako garaztarrak?

5.1.1. Garaziko euskara adinekoengandik gazteengana aldatzen ari dela uste duzu?

%68,75ek uste du baietz, %14,58k ezetz, %14,58k uste du kasu batzuetan baietz eta beste batzuetan ezetz, eta %2,08k ez daki.

	Bai		Ez		Bai eta ez		Ez daki	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	6	50	3	25	2	16,67	1	8,33
Helduak	7	58,33	3	25	2	16,67	0	0
Gazteak	20	83,33	1	4,17	3	12,5	0	0

539. taula: Garaziko euskara adinekoengandik gazteengana aldatzen ari dela uste duzu? galderari dagozkion arrapostuen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



551 irudia: Garaziko euskara adinekoengandik gazteengana aldatzen ari dela uste duzu? galderari dagozkion arrapostuen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoen artean, gehienek Garazin euskara aldatzen ari dela uste dute, baina aldaketarik ez dagoela uste dutenen ehunekoa ere ez da apala. Aldaketa hautematen dutenen ehunekoa igo egiten da adinean beheiti joan arau.

Adineko eta heldu anitzek ikastolako euskara ezberdina dela uste dute, eta ez dute biziki ongi ulertzen. Batzuei euskara berri hori beraiena baino hobea iruditzen zaie, frantsesezko hitz anitzen ordeztu, euskarazkoak erabiltzen baitituzte. Arnegi-Lasako adineko emazteak dio, adibidez, beraiek “cours élémentaire” direla, ez dutela euskararen inguruan ikasi, eta hitz anitz frantsestuak dituztela.

Beste batzuek ez dute inguruko gazteen artean alde biziki handirik ikusten; errate batera, Arnegi-Lasako gizon helduak. Berak dioenez, bada euskara batua, eta batzuek hori mintzo dute, baina bere inguruan ez zaio iruditzen oraino euskara hainbeste aldatzen ari denik. Ildo berekoa da Hergaraiko gizon helduaren iritzia ere. Honen ustez, bere alabek hitz berriak ikasi dituzte ikastolan, baina etxeko euskara aski ongi atxiki dute.

Luzaideko emazte helduak bi aldeak azpimarratzen ditu: betiko euskara etxean ikasi duten gazteengan ez dago aldaketarik, baina bai eskolan ikasi dutenengan, horiek Batua baitute. Gazte guztiak nahasten direnean batuaz ari dira.

Luzaiden gazteek ikasten duten Euskara Batua, erdialdeko euskararen oinarriturik dagoela erran dugu lan honetan zehar, eta hala iruditzen zaio Luzaideko gizon helduari ere. Bere ustez, ikastoletan ikasi duten haur horien euskara desberdina da, eta berak gauza anitz ez ditu ulertzen. Gipuzkoan bere inguruan baino gehiago hitz egiten da euskaraz, eta beraz, hango euskara da hedatzen ari dena. Errientsek dakitena ere Euskara Batu hori da eta hori irakasten dute.

Gazte zenbaitek adinekoen euskara garbiagoa dela uste dute, frantsesaren edo gaztelaniaren bahetik iragan gabeko euskara. Luzaideko ikastolako gizon gaztearen arabera, zaharrek euskaraz pentsatzen dute eta euskaraz mintzo dira. Beraz, euskara aberatsagoa dute, errazago eta hobeki ari dira. Aldatzen ari da, galtzen ari baita.

Ildo beretik, Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gazteak uste du adinekoen euskara ederrago eta naturalago dela. Adinekoek beti ahoskatzen dute dardarkari hobikaria eta ez dute frantsesezko hainbeste hitz sartzen.

Beste batzuek afera konplexuagoa dela uste dute. Hergaraiko ikastolako eta komiteetako gizon gaztearen arabera, zaharren hitzak batzuetan zuzenagoak dira, gauzak izendatzeko euskarazko hitz espresak baitituzte, baina beste batzuetan, frantsesetik heldu diren hitzak erabiltzen dituzte; adibidez, *bluia*.

Aipagarria da Luzaideko ikastolako emazte gaztearen testigantza ere. Bere ustez, eskolan, Euskara Batuarekin Luzaideko euskara anitz galdu dute gazteek, ez errateko dena. Pena ematen dio. Iruñean batxilergoa egiten ari zelarik, Luzaideko euskara mintzatzean ez zioten ulertzen. Batuan mintzatzera bortxatua ikusten du bere burua horregatik. Orain, Nafarroa Behereko herrietan ateratzen baita, hango euskara ikasi nahi

du, Luzaidekotik hurbil baitago. Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako emazte gazteak Luzaideko hizkuntza-aldaketaren adin muga bere ustez zein den zehaztu zuen, 33-35 urte, hain zuzen ere.

Aldaketaren zentzu positiboa aipatzen duenik ere bada, garrantzitsuena euskaraz mintzatzea dela azpimarratuz. Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztea ez da batere iraganari so, gauzak gertatzen diren bezala onartu beharra dago. Euskara atxikitzea da beharrena, nahiz eta moldatua izan. Hizkuntza bat bizirik egon dadin, aldatu beharra du.

Gazte batzuei beraien euskarak Batuaren eragina baduela iruditzen zaie, baina euskalkia beste eskualde batzuetan baino hobeki atxikitzen dutela uste dute. Honela diosku Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak: “zaharrek hemengo euskalkia dute, hemengo errateko manerak”. Beraiek arrunt galdu dute hori. Erdi euskalki eta erdi Batuan ari dira. Hala ere, Lapurdiko anitz herritan baino gehiago atxikitzen dute euskalkia. Ereku bereko ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak ez du uste gazteak Batuan mintzo direnik. Lizeoan, Batura buruz lerratzen direla iruditzen zaio, baina lizeoa finitu eta, berriro ere, euskalkira itzultzen direla. Lapurdin aise gehiago mintzo dira Batuan, bere ustez. Irulegi-Anhauzeko publikoko eta komiteetako emazte gaztearen ustez ere, gazte guziek ez dute baitezpada Batua mintzatzen, bertako aditzak erabiltzen baitituzte.


Beste gazte zenbaitek, publikoan ikasiek, batez ere, euskara ikastolan ikasi dutenen eta etxean ikasi dutenen (hots, publikoan ibili direnen) arteko desberdintasuna egiten dute. Lehenbizikoek Batuaren eragin handiagoa dutela uste dute. Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako gizon gazteak dio ez duela ikastolako euskara hori ulertzen.

5.1.2. Zeini ematen diozu balio handiagoa? Euskara Batuari, bertako euskarari edo bie berdin?

%50ek bertako euskarari balio handiagoa ematen dio. Horietarik zenbaitek ez dute Batua biziki atsegin. Beste batzuek, ordea, Batuaren balioa aitortzen dute, baina bertako euskara sustatzeko neurri gehiago hartzeko beharra azpimarratzen dute. %39,58k bie balio berdina ematen die: bertako euskara erabili behar da kasu jakin batzuetan eta Euskara Batua beste batzuetan. Hauen ustez, biek funtzio desberdinak dituzte. %8,33k, azkenik, ez du bertako euskararen kontra deus erraten, baina Batuaren onurak baino ez dituzte aipatzen. %2,08k ez du erantzunik eman.

	Bertako euskara		Biak berdin		Batuari		Ez du arraposturik eman	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	3	25	5	41,67	4	33,33	0	0
Helduak	5	41,67	7	58,33	0	0	0	0
Gazteak	16	66,67	7	29,17	0	0	1	4,17

540. taula: Zeini ematen diozu balio handiagoa? Euskara Batuari, bertako euskarari edo bie berdin? galderari dagozkion arrapostuen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



552. irudia: Zeini ematen diozu balio handiagoa? Euskara Batuari, bertako euskarari edo bie berdin? galderari dagozkion arrapostuen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoak dira Euskara Batuaren garrantzia gehien aipatzen dutenak. Bertako euskarari balio gehiago ematen diotenak gutxiengoa dira. Zenbat eta gazteago izan, eta orduan eta balio handiagoa aitortzen diote bertako euskarari.

Honela aipatzen digu Hergaraiko adineko gizonak: Euskara Batua ongi dago denek elkar ulertzeko. Pilotari bizkaitarrak ulertzeko arretaz segitu behar du erraten dutena. Ez da normal Zuberoatik has eta Bizkaiko zokoraino ez dezagun elkar uler.

Beste zenbaitek, Gamarteko adineko emazteak kasu, bien beharra azpimarratzen du, baina bertako euskarari azpimarra berezia eginez: Ikastoletan Euskara Batua erakusten dute, baina Euskara Batu horrek ez luke bertako lehengo euskara estali behar. Bertako euskara atxiki beharra dago. Batua ongi iruditzen zaio bi aldeetako euskaldunek elkar konpreni dezaten. Hala ere, lekuan lekuko mintzoa atxiki beharra dago.

Bertako euskarari balio handiagoa ematen diotenen artean, badira, erran bezala, Batua sobera atsegin ez dutenak. Arnegiko emazte helduak, errate batera, nahiago du bertan, bertako euskara atxikitzea eta gehiago mintzatzea. Batua ikastoletan eta ikasten den euskara da. Ez du deus ere konprenitzen eta ez zaio hain polita iruditzen. Espainiar euskara da gehiago.

Ezterenzubiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak ere, etxeko euskara nahiago du, etxeari eta historia jakin bati lotua baita. Eskolako euskara arauen bidez ikasia da. Nahiz eta bateko eta besteko euskarak desberdinak izan, indar bat eginez gero, elkar uler daiteke. Gainera, leku bakoitzeko euskarak identitatea ematen du.

Gazteen artean, bertako euskara desagertzeko beldurra dago, eta hori dela eta, babesteko eta bultzatzeko beharra sentitzen dute. Luzaideko ikastolako emazte gazteak dioenez, Euskara Batua denek dakite mintzaten. Luzaidekoa bezala, euskalki gehienak ari dira galtzen, eta beraz, indarra egin beharra dago horiek irakasteko eta mintzatzeko. Luzaideko ikastolako gizon gaztearen ustez, Luzaideko euskararen mintzaturik ere, bizkaitar batek ulertzen ahal du. Ez du uste Batuak Luzaideko euskarak baino ate gehiago irekiko dituenik. Azken batean, euskara euskara da.


Gamarte-Ainhizako publikoko eta gaztetxeko emazte gaztearen ustez, domaia da ez baita deus egiten *xuka* eta *toka/noka* atxikitzeko. Denbora baten buruan galduko direla iruditzen zaio, eta penagarri da. Bertako euskara erabiltzearen alde da, eta Hegoaldeko jendeekin ere bere euskara erabiltzen du. Euskara Batua nazio ikuspuntutik iruditzen zaio beharrezko. Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteari, berriz, ikastoletan edo bertako irratietan, euskalkia erabiltzea garrantzitsu iruditzen zaio, etxean ikasirik ez baita aski. Batua garrantzitsua da, baina euskalkia ere lantzen ahal da. Beharbada, lizeotik goiti hasten ahal da Batua lantzen. Euskal Herriko hainbat bazterretako jendea komunika dadin behar da Batua.

5.1.3. Garaziko parte kontsideratzen duzu Luzaide?

%27,08k baietz erantzun du, %56,25ek ezetz, %8,33k kasu batzuetan baietz uste du baina beste batzuetan ezetz, eta azkenik, %8,33k ez du erantzunik eman.

	Bai		Ez		Bai eta ez		Erantzunik ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	8,33	9	75	0	0	2	16,67
Helduak	5	41,67	5	41,67	0	0	2	16,67
Gazteak	7	29,17	13	54,17	4	16,67	0	0

541. taula: Garaziko parte kontsideratzen duzu Luzaide? galderari dagozkion arrapostuen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



553. irudia: Garaziko parte kontsideratzen duzu Luzaide? galderari dagozkion arrapostuen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoek Garazitik aparte dakusate Luzaide, helduek eta gazteek baino aise gehiago. Hala ere, beraiek dira mugaren bi aldean artean harreman handienak izan dituztenak. Gazteen belaunaldia da, aldiz, sozialki berezian dagoena. Aipatu beharra da ezetz ihardesten duten gehienek muga horren logikarik eza azpimarratzen dutela eta Luzaide Garazi izan beharko litzatekeela dio batek baino gehiagok.

Irulegi-Anhauzeko emazte helduak Luzaide eta Garaziren arteko harreman praktikoa azpimarratzen du, mugaz bi aldeetako beste herri batzuen artean ez dagoena. Bere ustez, Baigorri eta Elizondoren artean beti izan dira harremanak, batez ere, abertzaleen artean. Luzaide eta Garaziren arteko harremana, ordea, bestelakoa da. Luzaiden ez dira abertzaleak, Garazin ere ez biziki. Beste harreman mota bat da,

betidanikoa eta praktikoa. Fisikoki ere hurbilago daude Garazitik, nahiz eta ardura Iruñera abian diren Luzaidetik.

Ildo beretik, honela dio Luzaide eta Arnegiren artean dagoen Ondarrola auzoko publikoko eta komiteetako gizon gazteak (Arnegi-Lasa eremuan sailkatu dugu): Bi jende mota dira Luzaiden: batere abertzale ez direnak eta beti gaztelaniaz ari direnak, eta euskaldunak eta abertzaleak. Horien kasuan, Garaziren barruan sartzen du Luzaide. Gauza ofizialetarako Espainia dira, baina Garazira buruz egiten dituzte beren joan-jin gehienak. Egiatzko muga naturala mendia dute. Espainian daudelako, kolegiara-eta, Garraldara joan beharra dute haurrek, eta horrek du Luzaide beraiengandik zatitzen. Irulegi-Anhauzeko emazte helduak ere, Luzaiden guardia zibilekin ibiltzen zirenak eta “besteak” zeudela aipatzen du.

Luzaidarrak beraiek ere, duten egoera bereziaz kontziente dira, eta zenbaitek negatibotzat dute mugaz bestalde egotea; adineko emazteak, adibidez. Bere ustez, Luzaide Garazi izan behar zen. Muga horrek ez du zentzurik, urrun dira gaineko herrietarik, eta hor berean dute Garazi. Herrian berean gelditzera behartzen ditu mugak; izan ere, Donibanera dentistarenera edo zerbait erostera joaten dira, baina ez dute bizia han egiten. Gauza anitzetarako Iruñera joan beharra dute, medikuarenera joateko edo paper aferetarako, adibidez. Luzaideko ikastolako gizon gaztearen arabera ere, logikak erraten du Luzaide Garazi izan behar litzatekeela, baina aparte dago. Ez da berdin, beraiek dena Espainiatik hartzen baitute. Ez dute Garaziko jendea Garazikoek bezain ontsa ezagutzen. Oro har, Garazirekin baino harreman handiagoa izan du Luzaidek Arnegirekin. Hala uste du Luzaideko publikoko gizon gazteak.

Muga politikoak eragin handia izan du mugatik iparraldekoendako ere. Hergaraiko emazte helduak dioenez, luzaidarrak Garazira heldu dira Iruñera baino errazago. Halere, aparte dakusa. Haur denboratik muga fisikoa ezagutu du Luzaidera pasatzeko, aduana eta guzti. Horrek aparte egotea eragin du.

Historiak, geografiak eta logikak dioenaren kontra, muga soziala antzematen du Irulegi-Anhauzeko ikastolako eta gatzetxeko gizon gazteak ere. Luzaidarrak baxe nafartarrak direla uste du. Orain ez hainbeste, Iruñera joaten baitira gazte guztiak ikastera. Mendiz distantzia handia egin beharra daukate Iruñera, baina beheiti jaisten ahal dira Garazira, Donibane hor berean baitute. Muga harrigarri da, iduri baitu hesi bat dagoela Luzaideren inguruan; hala ere, muga hori biziki presente dago gizartean. Errate

batera, beraiek ere errazago joaten dira Baionara Iruñera baino. Bertako euskararen egoera katastrofikoa dela iruditzen zaio. Denek ikasten dute eskolan, baina hala ere, ez dute erabiltzen. Gainera, adin erdikoek ez dakite euskaraz. Anitz Espainiarrak sentitzen direla eta herri burgesa dela uste du.

Ildo beretik, Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak biziki hurbil ikusten du, baina desberdin. Familia du han eta usu joaten da, baina ez dute hainbeste harreman horko gazteekin. Berak eta bere lagunek badakite nor diren, eta bestetan ikusten dituzte, baina ez dute harremanik. Pena da, hor berean baita. Errazkiago joaten dira Itsasura Luzaidera baino, nahiz eta Luzaide hurbilago dagoen.


Hergaraiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak kultura desberdintasun handia atzematen du Luzaide eta Arnegiren artean. Ostatueta joateko usaia aise handiagoa dago Luzaiden. Han jendea kanpoan egoten da, ez dira bata bestearen etxeetara joaten.

5.1.4. Berdin mintzo zarete luzaidarrak eta gainerako garaztarrak?

%52,08k uste du baietz, bietan ber euskara mintzatzen dela; %12,5ek ezetz, desberdinki mintzo direla; %20,83ri desberdintasun txiki batzuk badaudela iruditzen zaio; %4,17k adin batetik goitikoen artean alderik ez dagoela uste du, baina bai gazteen artean (bai eta ez); %4,17k ez daki eta %6,25ek ez du erantzunik eman.

	Bai		Ez		Pixka bat desberdin		Bai eta ez		Ez daki		Erantzunik ez	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	10	83,33	0	0	1	8,33	0	0	0	0	1	8,33
Helduak	5	41,67	0	0	3	25	1	8,33	1	8,33	2	16,67
Gazteak	10	41,67	6	25	6	25	1	4,17	1	4,17	0	0

542. taula: Berdin mintzo zarete luzaidarrak eta gainerako garaztarrak? galderari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



554. irudia: Berdin mintzo zarete luzaidarrak eta gainerako garaztarrak? galderari dagozkion erantzunen ehunekoak adinaren arabera

Adineko gehienek ustez, iduria da luzaidarren eta gainerako garaztarren euskara. Baiezkoaren kopurua apaldu egiten da helduen artean eta pixka bat desberdina dela uste dutenena igo. Helduen arrapostu horien ehunekoak mantendu egiten dira gazteen kasuan, baina ezezkoa ematen dutenak agertzen hasten dira. Lekuko iritziek bat egiten dute gure datuekin, adinekoen artean atzematen ahal ez den muga linguistikoa sortu baita gazteen artean.

Arnegiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gaztearen ustez, bi euskarak ez dira hain desberdin. Desberdintasun horiek kanpoko eraginek sortuak dira (frantsesak eta gaztelaniak).

Arnegiko publikoko eta komiteetako emazte gazteak dioenez, berdintsu mintzo dira. Azentuan dago desberdintasuna, frantsesaren eta gaztelaniaren eraginez. Bere mutil lagunaren (luzaidarra) kusi batzuk entzuten dituelarik, bere aita mintzo dela iruditzen zaio. Auritzen jada, desberdintasuna atzematen du.

Gamarteko ikastolako eta gaztetxeko gizon gaztearen arabera, desberdinak dira bi mintzoak: Luzaiden hegoaldetarrez bezala mintzo dira, erreekin (hobikariarekin) eta intonazio desberdinarekin. Udan Luzaideko bestetara joan da, eta euskaraz mintzatu dira beraien adinekoekin eta zaharragoekin. Gazteagoekin, aldiz, batere ez. Luzaidar gazte horiek ez zuten beraien euskalkia ulertzen ere ia.

Ezterenzubiko gizon helduaren ustez, Luzaidekoa arrunt Garaziko euskara da, baina gazteengan desberdintasun pixka bat ageri da. “Jota” hotsa erabiltzen hasi dira gazteak, eta Garazin ez da sekula “jota” hori baliatu. Ildo beretik, Irulegiko ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak dio zaharrak entzunik, Garaziko euskara iduri duela, baina gazteak entzunik ez.

5.1.5. Galdera irekien ondorioak

Gazteen artean, Garazin hizkuntza-aldaketa gertatzen ari delako kontzientzia handiagoa da adinekoen artean baino. Hala ere, garaztar gazteek euskalkia lapurtarrek baino hobeki gordetzen dutela uste dute. Bertako hizkera gorde beharra azpimarratzen dute gazte gehienek, adinekoek eta helduek baino gehiagok.

Luzaide Garazitik aparte dagoela uste dute lekuko gehienek. Bizkitartean, adinekoek alde linguistiko txikia edo hutsala ikusten dute Luzaide eta gainerako herrien artean. Gazteek, berriz, linguistikoki urunduago ikusten dute mugatik hegoaldera dagoen herri hau. Iritzi horrek bat egiten du lortu ditugun datuekin.

5.2. Hiztunek beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmena

Datozen lerrootan, hiztunek beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmena ikertuko dugu hizkuntza-aldaketaren norabidea zein den jakiten lagun gaitzakeelakoan. Honako galdera hauek egin dizkiegu hiztunei:

- 1) Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa?
- 2) Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina?

Ondoren, desberdina dela irizten dioten lekuko euskararen eta beraienaren artean dagoen desberdintasun bat aipatzeko galdegin diegu. Hauek dira gure hipotesiak:

- Adinekoek batasuna ikusiko dute Garaziko mintzoen artean, baina gazteek ibarra baino maila orokorragoan kokatuko dute batasun hori.
- Adinekoek inguruko herriak eta ibarrak izendatuko dituzte desberdintasun linguistikoaz galdetzean. Gazteek, berriz, batasuna ikusiko dute Nafarroa Beherean eta Lapurdin, baina desberdintasuna Zuberoan eta Hegoaldean.

Adinetik landa, aldagai geografikoari ere eskainiko diogu arreta. Ereku bakoitzeko arrapostuak desberdinak izanen direlakoan gaude, linguistikoki aldea baitago batetik bestera, eta inguruan dituzten ibarrak ere desberdinak baitira.


Hiztunek eman arrapostu guztiak zenbatu ditugu, horregatik hiztun baino arrapostu gehiago dugu. Tauletan eta grafikoetan usuen aipatu diren arrapostuak baino ez ditugu erakutsiko, eta gainerakoak azpian zerrendatuko ditugu.

5.2.1. Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa?

5.2.1.1. Geografiaren arabera

	Garazi		Baigorri		Banka		Oztibarre	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	5	33,33	1	6,67	3	20	0	0
Arnegi-Lasa	5	33,33	0	0	0	0	1	6,67
Irulegi-Anhauze	5	27,78	6	33,33	0	0	0	0
Ezterenzubi	5	33,33	1	6,67	0	0	0	0
Hergarai	7	53,85	1	7,69	0	0	2	15,38
Gamarte-Ainhiza	6	46,15	0	0	0	0	4	30,77

543. taula: Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa? galderaren erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



555. irudia: Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa? galderaren erantzunik ohikoenen ehunekoak geografiaren arabera

Lekukoek eman dituzten gainerako erantzunak zerrendatuko ditugu jarraian:

- Luzaiden: Aldude, Urepele, Arnegi eta Iparraldea.
- Arnegi-Lasan: Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Hergarai, Ezterenzubi, Lapurdi, Nafarroa-Beherea, Luzaide eta Lasa.
- Irulegi-Anhauze: Hazparne, Orzaize, Bidarrai, Iholdi, Armendaritze, Aldude eta Urepele.
- Ezterenzubin: Nafarroa-Beherea, Eihalarre, Hergarai, Irisarri, Urepele, Orbaizeta, Arnegi eta Luzaide.


- Hergarai: Iholdi, Donapaleu eta Ezterenzubi.
- Gamarte-Ainhiza: Iholdi, Lakarra eta Hergarai.

Emaitzak ikusirik, erran genezake eremu guztietan, Garazi osoan batasuna ikusten dutela lekukoek. Horretarik landa, eremu bakoitzak bere ondokoen artean ere batasuna dakusa: Luzaidek Bankarekin, eta hein apalagoan baita Urepele eta Alduderekin ere; Irulegi-Anhauzek Baigorri-Orzaize ibarrarekin; eta Gamarte-Ainhizak Oztibarrerekin. Halaber, eremu gehienek hurbil dakusate Iholdi inguruko eremua ere.

5.2.1.2. Adinaren arabera

	Garazi		Baigorri		Hergarai		Oztibarre		Urepele	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	12	66,67	3	14,29	0	0	0	0	0	0
Helduak	9	42,86	4	8	0	0	0	0	0	0
Gazteak	12	24	0	0	4	8	5	10	4	8

544. taula: Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa? galderaren erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



556. irudia: Nongo euskara da zure herrikoa bezalakoa? galderaren erantzunik ohikoenen ehunekoak adinaren arabera

Hauk dira lekukoek eman dituzten gainerako erantzunak:

- Adinekoak: Hazparne, Orzaize, Bidarra, Iholdi eta Armendaritze.
- Helduak: Banka, Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Nafarroa-Beherea, Iholdi eta Oztibarre.

- Gazteak: Baigorri, Banka, Aldude, Arnegi, Ezterenzubi, Lapurdi, Luzaide, Uharte-Garazi, Lasa, Eiheralarre, Irisarri, Orbaizeta, Donapaleu eta Lakarra.


Adinekoek dakusate Garaziren barneko batasunik handiena, eta hein aise apalagoan, baita Baigorriren artean ere. Helduen artean, Garaziren ehunkoa apaltzen da, eta gehiago oraindik gazteen kasuan. Guk uste genuenaren kontra, gazteek ez dute batasuna eremu zabalagoan ikusten, lokalagoan baizik. Garazi barneko eremu edo herri bat aipatzen dute gazteek, baita ondoko ibar edo herriren bat ere. Lapurdi arrapostua Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko gizon gazteak baino ez du eman. Oro har, gazteen artean dugun erantzun aniztasun honek Garaziko gazteen mintzoaren izaera heterogeneoa salatzen digu, ez baitute uste Garazi osoan jendea berdin mintzo denik.

5.2.2. Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina?

5.2.2.1. Geografiaren arabera

	Baigorri		Zuberoa		Ibañetaz bestalde		Oztibarre	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Luzaide	0	0	0	0	3	21,43	0	0
Arnegi-Lasa	3	14,29	4	19,05	0	0	3	14,29
Irulegi-Lasa	0	0	3	30	0	0	1	10
Ezterenzubi	3	18,75	7	43,75	0	0	0	0
Hergarai	4	22,22	4	22,22	0	0	1	5,56
Gamarte-Ainhiza	5	38,46	0	0	0	0	1	7,69

545. taula: Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina? galderaren erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak geografiaren arabera



557. irudia: Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina? galderaren erantzunik ohikoenen ehunekoak geografiaren arabera

Hona hemen, behin edo bi aldiz eman dituzten beste arrapostu guztiak:

- Luzaide: Hazparne, Banka, Gipuzkoa, Zuberoa, Orzaize, Irisarri, Ezpeleta, Maule eta Elizondo.
- Arnegi-Lasa: Gipuzkoa, Urepele, Donibane-Lohizune, Lapurdi, Aiherra, Amikuze, Sara eta Ezterenzubi.
- Irulegi-Anhauze: Amikuze, Hazparne, Bizkaia, Urepele eta kosta.
- Ezterenzubi: Biriatu, kosta, Urepele, Lapurdi eta Hazparne.

- Hergarai: Senpere, Hazparne, Sara, Bizkaia, Ondarroa, Lapurdi, Amikuze eta Pagola.
- Gamarte-Ainhiza: Hazparne, Heleta, Amikuze, kostea, Donapaleu eta Senpere.

Luzaide eta Irulegi-Anhauze salbu, beste eremu guztietan antzematen dute Baigorrirekiko aldea. Harreman handia dute, oro har, Garazik eta Baigorri, eta herri elkargo beraren parte ere izan dira urte luzez. Elkarrekin halako harremana duten bi eremuren artean ohikoa izaten den legez, desberdintasun linguistiko txiki bat aski da bien arteko aldea azpimarratzeko. Hori da, adibidez, Azpeitia eta Azkoitiaren artean gertatzen dena *-ye* eta *-xe* bukaerei dagokienez. Kasu honetan, *xuka* edo *zuka* (kasu honetan, eztabadako tratamendu neutrotzat ulertuz) mintzatzean jartzen dute arreta lekukoek. 4.6.2.1. §-ean errana dugu desberdintasun horri *shibboleth* deitu ohi zaiola. Anitzek *zuka* mintzatze hori ederresten dute. Funtsean, Baigorriko euskara, erdialdeko hizkeretarik hurbilago dagoen aldetik, lapurteraren iduriagoa da, Garazikoari konparatuz, bederen. Lapurtera izan da mendez mende prestigiodun euskara, besteak beste, elizan erabili izan baita. Hori da, gure ustez, Baigorriko euskara ederrestearren arrazoia.

Irulegi-Anhauzen eta Luzaiden, hurbil ikusten dute Baigorri. Funtsean, Luzaide eta Irulegi-Anhauze ez daude Garaziko kantonamenduan. Baigorrikoaren barnean dago Irulegi-Anhauze, eta Aldude-Baigorri ibarrarekin mendiz harreman handia izan du Luzaidek. Horrek hango mintzoa hurbil sentitzean badu eraginik.


Zuberoako euskara ere desberdin ikusten dute Gamarte-Ainhiza ez beste eremu guztietan, eta [y] hotsa da bertako bereizgarri nagusia. Horietarik landa, eremu guztietan ikusten dute Hazparne, Lapurdi eta kostako mintzoarekiko distantzia linguistikoa. Baigorriren kasuan bezalaxe, lekukoek alderdi hauetako euskarak ederresten dituzte, adinekoek, batez ere.

Aipagarria da Luzaiden desberdintzat jotzen dutela Ibañetaz bestaldeko euskara. Inguru honekin beste eremu guztiek baino aise harreman handiagoa du Luzaidek, estatu berean baitaude. Haatik, desberdina zaie hango euskara.

5.2.2.2. Adinaren arabera

	Baigorri		Urepele		Zuberoa		Hazparne		Lapurdi		Oztibarre	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	5	19,23	0	0	4	15,38	3	11,54	0	0	1	3,85
Helduak	5	25	0	0	6	30	0	0	0	0	0	0
Gazteak	5	10,87	3	6,52	10	21,74	1	2,17	3	6,52	3	6,52

546. taula: Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina? galderaren erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



558. irudia: Nongo euskara da zure herrikoaren desberdina? galderaren erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera

Behin edo bi aldiz eman diren arrapostuak erakutsiko ditugu ondoren:

- Adinekoak: Ibañetaz bestalde, Banka, Gipuzkoa, Biriatu, kosta, Senpere, Sara, Bizkaia, Heleta, Amikuze eta Oztibarre.
- Helduak: Gipuzkoa, Urepele, Donibane-Lohizune, Oztibarre, Lapurdi, Hazparne eta Bizkaia.
- Gazteak: Ibañetaz bestalde, Orzaize, Irisarri, Ezpeleta, Maule, Elizondo, Aiherra, Amikuze, Sara, Banka, Ezterenzubi, Donibane-Garazi, Hazparne, Ondarroa, Bizkaia, Pagola, Donapaleu, Senpere eta kosta.

Adin talde guztietan, Baigorri ingurukoak (Aldude, Banka, Urepele, Orzaize) eta Zuberoakoak dira lekukoek urrunen ikusten dituzten hizkerak. Erran dugun bezala, Garazi eta Baigorriko inguruaren arteko alde linguistikoa ez da biziki handia, eta gainera, 4.36. §-ean ikusi dugun bezala, aipatzen duten *xuka/zuka* desberdintasun hori

desagertzen ari da, gazteek ez baitute adinekoek bezainbeste erabiltzen *xuka*. Hori dela eta, gazteek, hein batean bederen, aitzineko belaunaldiengan hain ohikoak diren iritzi linguistikoak ikasi eta erreproduzitzen dituztela iruditzen zaigu. Bestelakoa da Zuberoaren kasua, gazteak, oraindik ere, zubereraz mintzo baitira han, eta alde ederra baitago gazte horien euskaratik Garaziko gazteenera.

Hazparne, Lapurdi eta kosta aldekoak ere, linguistikoki urrun ikusten dituzte gazteek, oro har. Han Batua gehiago egiten dutela aipatu digute gazte zenbaitek.

Aipagarria da, halaber, gazte batzuek urrun ikusten dutela Oztibarreko euskara. Beraien ustez, Oztibarrerekiko desberdintasuna han *xuka* eta *toka/noka* ari direla da. Garazin ere tratamendu horiek ezagunak dira, baina Oztibarreko gazteek, Garazikoek ez bezala, ikastolan landu egiten dituzte, eta erabili egiten dituzte, gainera. Hori dela eta, ibar honetako gazteen bereizgarri bihurtzen ari dira tratamenduok.

Gazte batzuek lanean aztergai ditugun hizkuntza-aldagaiak aipatu dituzte desberdintasunak zehazterako orduan, eta garrantzitsua iruditzen zaigu hona ekartzea. Gamarte-Ainhizako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak bere eremuan *nien* erraten dutela dio, eta Baigorri, berriz, *nin*. Irulegi-Anhauzeko mutil gazteak, berriz, kostan *dit* eta *zait* bezalako aditzak erabiltzen direla dio, eta beraiek, berriz, *daut* eta *zaut* bezalakoak erabiltzen dituztela.³⁴

5.2.3. Hitzunek beraien mintzoaren aldakortasun diatopikoaz duten oharmenaren ondorioak

Geografiari dagokionez, eremu guztietan Garaziko euskararen batasuna nabarmentzen da, baina hurbil ikusten dituzte ondoko ibarretako euskarak ere. Ia eremu guztietan urrunen ikusten dituztenak Baigorri eta Zuberoakoak dira.

Adinari dagokionez, ez dira gure hipotesiak frogatu. Adinekoek batasun handia dakusate Garazin. Gazteek, berriz, beraien herriaren eta ondokoren baten artean dakusate batasun hori, baita ondoko ibar baten artean ere. Gazteen artean, oro har, beraienetik hurbil dauden hizkerak aipatzerako orduan, aniztasuna antzeman dugu, adin talde honen mintzoa heterogeneoa delako marka. Hiru adin taldeek Baigorri eta Aldude ibarretako mintzoak eta Zuberoakoa ikusten dituzte urrunen, baita Lapurdi ingurukoa

³⁴ *Daut* eta *zaut* erako aditz laguntzaileak gazteen artean ari dira nagusitzen, adinekoen artean *daat* eta *zaat* bezalakoak erabiltzen baitira Garazin.

ere. Baigorri inguruari dagokionez, ordea, gazteek adineko eta helduen artean ohikoak diren iritzi linguistikoak erreproduzitzen dituztela iruditzen zaigu. Deigarria da gazteek adinekoek eta helduek baino urrunxeago dakusatela Oztibarreko euskara. Baigorri eta Aldude ibarretako mintzoaren artean, desberdintasun nagusia *xuka/zuka* dela aipatu digute. Zuberokoaren artean, berriz, [y] hotsa.

5.3. Erreakzio subjektiboen testak Luzaide ez beste eremuetan

Erreakzio subjektiboen test honetan, grabaketa batzuk entzunarazi dizkiegu lekukoei, eta hauek entzuten dituzten hiztunak nongoak diren erran behar dute. Beraiek bezala mintzo direla uste dutenak hurbil kokatuko dituztela uste dugu, eta desberdin mintzo direla uste dutenak, berriz, urrun.

Sei grabaketa entzunarazi dizkiegu, orotara. Horietarik lau desberdinak izan dira Luzaiden eta gainerako eremuetan. Mugatik iparraldeko eremuetan, Luzaideko adineko emaztearen, Luzaideko emazte helduaren, Luzaideko emazte gazte gordetzaile baten (lan honetan gure lekuko izan ez dena) eta Luzaideko emazte gazte berritzailearen (ikastolako gure lekukoa) grabaketak izan dira. Luzaiden, berriz, Gamarte-Ainhizako adineko emaztearen, Gamarte-Ainhizako emazte helduaren, Hergaraiko emazte gazte gordetzailearen (ikastolakoa eta gaztetxekoa) eta Gamarte-Ainhizako emazte gazte berritzailearen (ikastolakoa eta gaztetxekoa) grabaketak entzunarazi ditugu. Gamarte-Ainhiza eta Hergarai eremuak aukeratu ditugu Luzaidetik urrunen daudenak direlako, eta beraz, lekukoek hiztunak ezagutuko ez dituztela espero baitugu. Luzaideko lekuko guztiek eta Gamarte-Ainhizako adineko emazteak dardarkari hobikaria darabilte. Gazte berritzailetzat hartu ditugunak ez beste guztiak, berriz, *xuka* mintzo dira. Grabaketa guztiak geuk eginak izan dira eta hiztunek pasadizoren bat kontatzen dute. Minutu bat pasatxo irauten dute.

Azken grabaketak berak izan dira Luzaiden eta beste eremuetan: iparraldeko batuaren ordezkartzat hartu dugun bat eta hegoaldeko batuaren ordezkartzat hartu dugun beste bat. Lehena Kanaldudek emazte aski gazte bati egin elkarrizketaren zati bat da. Ez dakigu hiztuna zehazki ze herritakoa den, baina Lapurdi edo Nafarroa Beherekoa da. Bigarrena www.ahotsak.eus webgunean atzeman dugun elkarrizketa zati bat da, Uztarrozen familia duen Iruñeko Txantreako neska gazte bati egina. Biek minutu pasatxoko luzera dute. Erran behar dugu lekukoek gogotik hartu dutela parte zeregin

honetan, jolastzat hartu baitute, eta maite baitute jendea bere hizkeragatik nongoa den erratea.

Lekukoei aske erantzuten utzi diegu, eta gero geu arduratu gara beraien arrapostuak multzokatzeaz. Adibidez, “Luzaide-Arnegi” arrapostuaren barnean sartu ditugu “Luzaide”, “Arnegi”, “Luzaide-Arnegi” edota “hemen muga ondoko herri batekoa”. Garazi arrapostuaren barnean sartu ditugu Garaziko herriren bat ihardetsi dutenak.³⁵ “Lapurdi-Nafarroa Beherea” barnean sartu ditugu, berriz, “Garazi eta Kanbo bitartean”, “Iparraldekoa baina ikastolakoa” edota “Iparraldean nonahikoa” (suposatzen baita ez dutela zuberotartzat hartzen). Ibar honetan jende gutxi bizi denez, behin baino gehiagotan gertatu zaigu lekukoek grabaketetako hiztunak ezagutzea. Kasu horiek zein izan diren aipatu dugu.

Hauek dira gure hipotesiak:

- Mugaz bi aldeetako adinekoek beren herrian edo herritik hurbil kokatuko dute lehen grabaketako hiztunaren (Luzaideko edo Gamarte-Ainhizako adineko emaztearen) mintzoa, beraienaren berdina dela kontsideratzen baitute.
- Mugaz bi aldeetako gazteek adinekoek baino urrunago kokatuko dute lehen grabaketako mintzoa, beraien mintzoarengandik hein batean desberdina dela uste baitute.
- Grabaketetako hiztunak zenbat eta gazteago eta berritzaileago izan, orduan eta urrunago kokatuko dituzte lekukoek.
- Adinekoek urrun ikusiko dute iparraldeko batuaren/hegoaldeko batuaren ordezkaria, baina hurbil gazteek (Iparraldekoek iparraldeko batua mintzo duena eta Hegoaldekoek hegoaldeko batua mintzo duena), beraiek erabiltzen duten mintzotik hurbil baitago.
- Gaztetxeek komiteetakoek baino hurbilago kokatuko dute iparraldeko batuaren ordezkaria, gaztetxeen eta grabaketa honetako hiztunaren mintzoak iduriak baitira.

Adina izan da arrapostu hauek guztiak aztertzerakoan kontuan izan dugun aldagai soziala, eta laugarren grabaketaren kasuan, hots, iparraldeko batuaren ordezkariaren

³⁵ “Arnegi” arrapostua “Luzaide-Arnegi”ren barruan sartu dugu, arnegiar batek eman duenean salbu. Kasu horretan “Garazi” arrapostuaren barnean sartu dugu, bere hurbileko mintzoari egin nahi baitio erreferentzia, eta ez gaztelania kutsua duen mugako herrietako mintzoari. Kasu hau Arnegiko emazte helduarekin eta lehen grabaketan baino ez zaigu gertatu.


kasuan, baita praktika-komunitatea ere (gaztetxeakoak vs. komiteetakoak). Erantzun kopurua hartu dugu aintzat; beraz, hiztun baino erantzun gehiago dugu, batzuek bi erantzun eman baitituzte.

Lehenik eta behin, ohikoenak izan diren arrapostuen kopuru eta ehunekoen taula erakutsiko dugu. Taula handiegia ez izateko, ez ditugu arrapostu guztiak erakutsiko. Ondoren, arrapostu guztien ehunekoak erakusten dituen grafikoa etorriko da, eta azkenik, gure iruzkinak. Luzaide ez beste eremuetako arrapostuak etorriko dira lehendabizi, eta Luzaidekoak ondoren.

5.3.1. Lehen grabaketa (Luzaideko adineko emaztea)

	Luzaide-Arnegi		Garazi		Garazi edo ondoko ibar bat	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	9	90	1	10
Helduak	3	30	4	40	1	10
Gazteak	9	45	6	30	2	10

547. taula: Luzaide ez beste eremuetan, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuruak eta ehunekoak



559. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Adineko lekuko guztiek Luzaideko adineko emaztea garaztarra dela uste dute. Garazi edo ondoko ibar bat erantzun dutenen artean, ibar hori Oztibarre eta Landibarre izan da. Garazi ihardetsi dutenen kopurua anitz apaltzen da helduen artean eta beste erantzun batzuk agertzen hasten dira; batez ere, Luzaide-Arnegikoa dela. Batzuek Luzaide diote, beste batzuek Arnegi eta beste batzuek, berriz, Luzaide-Arnegi. Hiru erantzunok bildu ditugu “Luzaide-Arnegi” izenburupean. Aipagarria iruditzen zaigu mugatik iparraldeko garaztarrek, gazteek barne, batasuna dakusatela Arnegi eta Luzaideren artean, nahiz eta muga erdian izan. Gazteen artean, “Luzaide-Arnegi” erantzuna “Garazi”-ri nagusitzen zaio. Beraz, argi erran genezake, adinekoek beraien mintzoarekin identifikatzen dutela emazte honen euskara. Ez hainbeste helduek, eta gutxiago gazteek.


Hitzuna eremu jakin batean kokatzearen arrazoia eman dutenen artean, *xuka* mintzo dela erran dute “Garazi” arrapostua eman duten anitzek. Luzaide-Arnegikoa dela

erran duten anitzek *bueno* hitza, intonazioa, *oh-là-là* espresioa, dardarkari hobikariak eta *xuka* aipatu dituzte beraien kokapenaren arrazoitzat. Hain zuzen ere, ezaugarri hauen konbinazioa da arrapostu hori ematera bultzatzen dituen.

5.3.2. Bigarren grabaketa (Luzaideko emazte heldua)

	Luzaide-Arnegi		Garazi	
	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	5	50	3	30
Helduak	8	80	0	0
Gazteak	15	75	1	5

548. taula: Luzaide ez beste eremuetan, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak



560. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Adinekoek beraiek ere aldea nabaritzen dute Luzaideko adineko hiztunarengandik helduarengana. Gehienek Luzaide-Arnegikoa dela diote, baina oraindik handia da garaztarra dela dioten adinekoen kopurua. Helduengana igaroz geroz, ia denek jotzen dute Luzaide edo Arnegikotzat. Ber gauza gertatzen da gazteen kasuan ere, nahiz eta bestelako erantzun ugari ere badiren; kopuru apalean, betiere.


Hiztun hau Luzaide edo Arnegikoa dela diotenak, arrapostu hori emateko tenorean, lexikoan oinarritzen dira, batez ere. *Ya, pues, jolín* gaztelaniazko hitzak

aipatzen dituzte, baita *uso* eta *urrita* ere,³⁶ ez baitute uste Garazikoak direnik. Kamino eta Salaberrik (2007: 184) *uso* dakarte Luzaiderako, eta Caminok (2004a: 456) Garazin *urzo* eta *ur(t)xo* erabiltzen direla dio. Horiez gain, intonazioa eta dardarkari hobikariak ere aipatzen dituzte.

5.3.3. Hirugarren grabaketa (Luzaideko emazte gazte gordetzailea)

	Luzaide-Arnegi		Luzaide-Auritz/Aezkoa		Garazi		Ez daki	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Adinekoak	2	20	0	0	5	50	2	20
Helduak	6	50	1	8,33	2	16,67	0	0
Gazteak	13	65	1	5	3	15	0	0

549. taula: Luzaide ez beste eremuetan, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak



561. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Luzaideko emazte heldua ez bezala, adineko gehienek ere, garaztartzat jotzen dute emazte gazte gordetzailea. Adinekoa baino hein apalagoan, halere. %20k Luzaide-Arnegikoa dela dio eta beste %20k ez daki. Heldu gehienek, beste behin, Luzaide-Arnegikoa dela diote, baina bestelako erantzun anitz ere ematen dituzte, ziurgabetasunaren marka. Gazte gehienek, aski uniformeki, Luzaide-Arnegikoa dela ihardesten dute.


³⁶ Lekukoak *octubre* ematen du itzulpentzat, baina *udazken* adierarekin bildu zuten Kamino eta Salaberrik (2007: 183).

Garaztarra dela diotenek *xuka* aipatzen dute kokapenerako arrazoitzat. Luzaide-Arnegikoa dela erraten dutenek, berriz, *xuka*, intonazioa, dardarkari hobikariak eta *potreta ateratzeko mekanika* hitza ematen dituzte arrazoitzat.

5.3.4. Laugarren grabaketa (Luzaideko emazte gazte berritzailea)

	Luzaide-Arnegi		Baztan		Hegoaldea		Aezkoa		Zugarramurdi		Gipuzkoa	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Adinekoak	2	20	0	0	2	20	1	10	0	0	1	10
Helduak	1	10	4	40	2	20	0	0	2	20	1	10
Gazteak	6	30	4	20	4	20	1	5	0	0	1	5

550. taula: Luzaide ez beste eremuetan, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak



562. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Arrapostu anitz eman dituzte lekukoek, ziurgabetasuna dutelako marka. Hala ere, inork ez du hitzuna Garazikoa dela erran. Adineko gehienek Luzaide-Arnegikoa edo Hegoaldekoa dela erran dute. Adinekoak dira Oztibarre, Donapaleu eta Heleta-Hazparne erantzun dutenak ere. Iparraldeko lekuak dira hirurak, baina argi ageri da adinekoek ere, erantzun horien bidez, beraiengandik aski urrun kokatu nahi dutela hitzuna. Mugatik hegoaldekoak dira helduek eta gazteek eman dituzten kokapen guztiak. Hegoaldekoa dela uste badute ere, mugatik aski hurbil kokatzeko nahia ageri da. Hori dela eta, Luzaide-Arnegiz gain, Baztan, Aezkoa, Zugarramurdi edota Hendaia

bezalako erantzunak jaso ditugu. Horiez gain, adin talde bakoitzean, lekuko banak Gipuzkoa erantzuna ere eman du.


Hegoaldeko kokapen horren arrazoiak *ya* eta *pues* gaztelaniazko hitzak eta dardarkari hobikariak direla aipatzen dute.

5.3.5. Bosgarren grabaketa (iparraldeko batua)

5.3.5.1. Adinaren arabera

	Garazi		Kanbo-Itsasu		Lapurdi-Nafarroa Beherea		Kosta		Hiztuna ezagutu duela uste du	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	10	0	0	4	40	1	10	2	20
Helduak	2	20	1	10	3	30	1	10	1	10
Gazteak	8	40	2	10	6	30	0	0	1	5

551. taula: Luzaide ez beste eremuetan, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak adinaren arabera



563. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak adinaren arabera

Adinekoen artean, lau hiztunek, %40k, hain zuzen ere, hiztuna Lapurdi-Nafarroa Beherekoa dela erantzun du. Adineko batzuek, hala ere, Garazi edo ondokoa dela ere ihardetsi dute. Garazikoa dela erantzun duten helduen ehunekoak handitu egiten da, eta zer erranik ez gazteena. Horrek gazteak mintzo honekin identifikatzen direla erakusten du. Helduen gehiengoak Lapurdi-Nafarroa Beherekoa dela erantzun du, baita Kostakoa,


Lapurdi-kostakoa edota Kanbo-Itsasukoa dela ere. Erantzun hauek ere, mintzo honen izaera orokorra adierazi nahi dutela iruditzen zaigu; hots, ez dela Garazikoa bezain mintzo lokala. Gazteen artean, %30ek Lapurdi-Nafarroa-Beherea erantzun du eta %10ek Kanbo-Itsasu. Hala ere, Garazikoa dela diotenen ehunekoak hartzen du gaina. Lapurdi-Nafarroa Beherea izenburuaren baitan bildu ditugunek mintzo honen izaera orokorra azpimarratu digute: edonongoa izaten ahal dela, irratiko mintzoa dela, ikastolan ikasia, Iparraldeko euskara berria, nortasunik gabeko mintzoa, “xori galdu bat”. Irulegi-Anhauzeko emazte helduak eta Hergaraiko ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak, gainera, beraiek ere horrela mintzo direla erran digute.

5.3.5.2. Praktika-komunitatearen arabera

Hiztun honen kasuan, praktika-komunitatearen arabera, Luzaide ez beste eremuetako gazteek eman dituzten arrapostuak aztertzea ere beharrezko ikusi dugu; izan ere, datuen azterketan ikusi dugun bezala, gaztetxeakoak komiteetakoak baino aise berritzaileago dira. Hori dela eta, gure hipotesia da gaztetxeakoek komiteetakoek baino usuago erranen dutela hiztun hau garaztarra dela, mintzo honekin identifikatzen baitute beren burua. Komiteetakoek, berriz, Lapurdi-Nafarroa Beherekoa arrapostuaren alde eginen dutela uste dugu.

	Garazi		Kanbo-Itsasu		Lapurdi-Nafarroa Beherea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gaztetxeakoak	2	25	1	12,5	3	37,5
Komiteetakoak	6	50	1	8,33	3	25

552. taula: Luzaide ez beste eremuetan, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak praktika-komunitatearen arabera



564. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak praktika-komunitatearen arabera

Datuak gure hipotesiaren kontra doaz. Gaztetxeakoen artean, “Lapurdi-Nafarroa Beherea” erantzunak ehuneko altuagoa du “Garazi” arrapostuak baino. Komiteetakoaren artean, berriz, anitzez gehiagok uste dute hiztuna Garazi edo ondoko ibarren batekoa dela. Horrek erran nahi du gaztetxeakoak kontziente direla beraien mintzoaren izaera orokorraz, eta badakite Lapurdi eta Nafarroa Behereko beraien lagunak eta ingurukoak ere berdintsu mintzo direla. Komiteetako gehienek, berriz, bertakotzat hartzen dute


mintzo hau, eta beraz, ez dute beraiek hobekien gordetzen duten oinarri dialektal horrekiko alde handirik hautematen. Horrek komiteetakoek aldaketa onartua dutela adierazten du, eta beraz, etorkizunean, praktika-komunitate honen barnean ere, aldaera berriak bizkor hedatzen joanen direla pentsatzera eramaten gaitu.

Garaztarra dela erantzun duen Arnegi-Lasako publikoko eta komiteetako gizon gazteak dardarkari ubularrak erabiltzea aipatu du arrazoitzat. Arnegi-Lasako ikastolako eta gaztetxeko emazte gazteak, berriz, frantsesezko hitzak erabiltzea.

5.3.6. Seigarren grabaketa (hegoaldeko batua)

	Luzaide		Baztan		Gipuzkoa		Hegoaldea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	10	2	20	1	10	6	60
Helduak	1	9,09	3	27,27	0	0	7	63,64
Gazteak	1	5	2	10	1	5	8	40

553. taula: Luzaide ez beste eremuetan, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunik ohikoenen kopuru eta ehunekoak



565. irudia: Luzaide ez beste eremuetan, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Adineko gehienek hitzuna Hegoaldekoa dela diote, baina ez dira gai nongoa den errateko. Batzuek aski hurbil ikusten dute, Luzaiden edo Baztanen, hain zuzen ere. Datuak berdintsuak dira helduen kasuan ere. Gazte guztiek ere Hegoaldean kokatzen dute, baina beste belaunaldiek baino gaitasun handiagoa erakusten dute Hegoaldearen

barruan, zein lekutakoa izan litekeen identifikatzeko tenorean. Horrek erran nahi du adinekoek eta helduek baino hobeki ezagutzen dituztela Hegoaldea eta hango hizkerak.


Ya, claro eta jolín bezalako gaztelaniazko hitzak eta intonazioa aipatzen dituzte Hegoaldean kokatzeko arrazoitzat. Gainera, aipagarria da anitzendako intonazio hori irrigarria dela. Baztan, Auritz-Aezkoa eta Luzaiden kokatzen duten anitzek mugari aski hurranekoa dela diote, aise ulertzen baitute.

5.4. Erreakzio subjektiboen testak Luzaiden

5.4.1. Lehen grabaketa (Gamarte-Ainhizako adineko emaztea)

	Luzaide edo Arnegi		Mugaz bestalde baina ondokoa		Garazi	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	1	50	0	0
Helduak	2	100	0	0	0	0
Gazteak	3	75	0	0	1	25

554. taula: Luzaiden, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak



566. irudia: Luzaiden, lehen grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak


Bina lekuko ditugu adineko eta helduetan, eta lau gazteetan. Hori dela eta, ehunekoaren arteko aldeak handiak dira. Lekuko gehienek hiztun hau Luzaide edo Arnegikoa dela diote. Gainerakoek mugatik hurbil kokatzen dute. Horretarako arrazoi nagusia *xuka* ari dela da. Publikoko gizon gazteak erran digu dardarkari hobikariak

erabiltzen dituela, baina Iparraldeko adinekoek ere halakoak darabiltzatela, eta beraz, ez dela aise mugaren alde batean edo bestean kokatzea. Luzaidarren eta gainerako eremuetako adinekoen oharrenaren artean batasuna ageri da mugaren bi aldeetako adinekoen mintzoari dagokionez. Luzaide ez beste eremuetako helduak eta gazteak dira, Luzaideko adinekoarekiko desberdintasun linguistikoa hautematen dutenak.

5.4.2. Bigarren grabaketa (Gamarte-Ainhizako emazte heldua)

	Baigorri-Banka-Orzaize		Garazi		Hazparne		Baiona	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	0	0	1	50	0	0
Helduak	2	100	0	0	0	0	0	0
Gazteak	1	25	2	50	0	0	1	25

555. taula: Luzaiden, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak



567. irudia: Luzaiden, bigarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunen ehunekoak


Luzaidar ia guztiek Gamarte-Ainhizako hitzun heldua adinekoa baino urrunago kokatzen dute. Luzaide eta Arnegiko ibarretik atera eta Baigorri eta Garazi (Donibane Garazi inguruaren adierarekin ulertuta) aldean kokatzen dute gehienek. Adineko emaztea da Hazparnen kokatzen duena eta ikastolako emazte gaztea da Baionan gaindi kokatzen duena. Dardarkari ubularra da gehien aipatzen duten arrazoa, baita [ə] hotsa edota [televizjonja] hitzaren ahoskera ere. Ikusten dugu mugaren bi aldeetan, lekuko

oharmenari dagokionez, alde handia dagoela adineko hiztunaren eta helduaren kokapenaren artean.

5.4.3. Hirugarren grabaketa (Hergaraiko emazte gazte gordetzailerak)

	Garazi		Garazi-Baigorri		Kostaldea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	2	100	0	0	0	0
Helduak	1	50	1	50	0	0
Gazteak	3	75	0	0	1	25

556. taula: Luzaiden, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak




568. irudia: Luzaiden, hirugarren grabaketaren erreakzio subjektiboaren testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Kasu honetan ere, luzaidar gehienek Luzaide-Arnegiko hurbiltasun erradiotik urrunxeago ikusten dute hiztun honen mintzoa. Heldua baino hurbilago kokatzen dute, halere, Garazi baita gehien errepikatzen den erantzuna. Ikastolako gizon gazteak Kostaldekoa dela uste du. Publikoko gizon gazteak kokapenaren arrazoia *xuka* erabiltzea dela dio.

5.4.4. Laugarren grabaketa (Gamarte-Ainhizako emazte gazte berritzailea)

	Garazi		Garazi-Baigorri		Banka-Aldude-Urepele		Oztibarre-Amikuze		Hazparne		Kosta		Zuberoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	1	50	0	0	1	50	0	0	0	0	0	0	0	0
Helduak	0	0	0	0	0	0	0	0	1	50	1	50	0	0
Gazteak	0	0	1	25	0	0	1	25	0	0	1	25	1	25

557. taula: Luzaiden, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak



569. irudia: Luzaiden, laugarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak


Adinekoek hiztun hau ere aski hurbil ikusten dute, Garazi eta Banka-Aldude-Urepelen,³⁷ hurrenez hurren. Helduek eta gazteek aski urrun ikusten dute. Hitztun bakoitzak erantzun bat ematen du, eta horrek beraien ziurgabetasuna erakusten du. Aipatzen dituzten kokapen guztiak daude aski urrun publikoko emazte gaztearen “Garazi-Baigorri” salbu.

³⁷ Kontuan izan beharra da hiru herri hauekin mendiz lotura sendoa duela Luzaidek aspalditik.

5.4.5. Bosgarren grabaketa (iparraldeko batua)

	Garazi		Garazi-Baigorri		Mugaz bestalde nonahi		Itsasu eta kostaldea artean	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	0	0	1	50	1	50
Helduak	0	0	1	50	0	0	1	50
Gazteak	1	25	0	0	1	25	2	50

558. taula: Luzaiden, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak




570. irudia: Luzaiden, bosgarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Mugaz bestaldeko garaztarrak bezala, luzaidarrak ere hiztun honen mintzoaren izaera orokorraz ohartzen dira. Hori dela eta, Itsasu eta kostaldea bitartean kokatzen dute edota mugaz bestalde nonahikoa izan litekeela diote. Emazte helduak Garazi-Baigorri kokatzen du eta ikastolako emazte gazteak Garazin. Luzaidar batzuek hiztun hau Garazin gairi kokatzeak mintzo “orokor” hau duten garaztarrekin harremana badutela erran nahi du, Garaziko euskara hango adinekoen mintzoarekin lotuko balute, hiztun honena urrunago kokatuko bailukete.

5.4.6. Seigarren grabaketa (hegoaldeko batua)

	Luzaide-Auritz		Luzaide-Iruñea		Batua		Baztan		Aezkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Adinekoak	0	0	0	0	1	50	0	0	1	50
Helduak	1	50	0	0	0	0	1	50	0	0
Gazteak	0	0	2	50	2	50	0	0	0	0

559. taula: Luzaiden, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen kopuru eta ehunekoak



571. irudia: Luzaiden, seigarren grabaketaren erreakzio subjektiboen testari dagozkion erantzunen ehunekoak

Luzaidar batzuek (adineko emazteak barne) Batuarekin lotzen dute mintzo hau. Hori ez da gertatzen mugatik Iparraldera dauden kasuan. Mugatik hegoaldera daudenendako Batua dena Hegoaldeko euskara da iparraldekoendako. Ez dute, beraz, euskara hau beraien aldaera estandartzat hartzen. Luzaide-Iruñea erantzun dute ikastolako gazteek. Erran dutenez, hiztuna Luzaidarra izan liteke inongo arazorik gabe, baina ez du Luzaideko euskararik. Luzaide eta Iruñea berdintasun maila berean ezartzeak luzaidar gazte zenbait Iruñekoak bezala mintzo direla erran nahi du. Publikoko emazte gazteak, Iparraldeko zenbaitek bezala, hiztun honen mintzoaz irri egiten du eta imitatzen saiatzen da. Intonazioan jartzen du arreta, bereziki. Ez zaio iruditzen euskaraz biziki ongi ari denik. Ikastolako emazte gazteak berriz, frantsesezko hitzik ez erabiltzea eta dardarkari hobikariak izatea ematen ditu bere kokapenaren arrazoitzat. Aezkoa eta Baztan arrapostuak adinekoek eta helduek eman dituzte, baina gazteek argi dute zein den hiztun honek darabilen barrietatea.

5.5. Erreakzio subjektiboen testaren ondorioak

Hasieran proposatu ditugun hipotesiak betetzen diren edo ez ikusiko dugu jarraian:

- Mugaren bi aldeetako adinekoek bertakotzat jotzen dute lehen grabaketako adineko hiztunaren mintzoa. Ez dute muga politikoaren arabera desberdintasun linguistikorik ikusten.
- Mugatik iparraldeko gazteek adinekoek baino urrunago dakusate lehen grabaketako adineko hiztunaren mintzoa. Adineko gehienek garaztarra dela erantzun dute, baina gazteek Luzaide-Arnegikoa dela erran dute gehienetan. Gazteendako, beraz, adinekoendako ez bezala, distantzia linguistikoa dakar muga politikoak. Ez dago alde aipagarririk Luzaideko adinekoen eta gazteen arroposten artean.
- Oro har, grabaketetako hiztunak adinean beheiti joan ahala urrunago kokatu dituzte lekukoek, baina gazte gordetzailea heldua baino hurbilago kokatu dute mugatik iparraldekoek zein hegoaldekoek. Adinean beheiti joan ahala, oro har, muga politikoak eragiten duen desberdintasun linguistikoa handitzen doala hautematen dute lekukoek ere.
- Mugatik iparraldeko adineko gehienek iparraldeko batuaren ordezkarietat hartu dugun hiztuna Lapurdi edo Nafarroa Beherekoa dela erran dute. Gazte gehienek, aldiz, garaztarra dela ihardetsi dute. Gazteak mintzo honekin gehiago identifikatzen direla erran nahi du horrek. hegoaldeko batuari dagokionez, Luzaideko adineko emazteak argi du Batua dela, baina Aezkoakoa dela dio adineko gizonak eta baztandarra dela gizon helduak. Gazte guztiek, ordea, Euskara Batua dela edota Luzaideko euskaraz mintzo ez den herriko norbait izan litekeela erran dute argiki.
- Gaztetxeko gehienek, guk espero ez bezala, Lapurdi-Nafarroa Beherean kokatu dute bosgarren grabaketako hiztuna. Komiteetako gehienek, berriz, Garazin kokatu dute. Gaztetxekoak ohartzen dira beraien mintzoaren izaera orokorraz. Komiteetakoek, berriz, gertatzen ari den hizkuntza-aldaketa onartua eta barneratua dutela ageri da, ez baitute desberdintasunik sentitzen mintzo honekiko.

Aipagarria iruditu zaigu, era berean, hegoaldeko batuaren ordezkarietat hartu dugun emaztearen mintzoa Hegoaldeko euskaratzat dutela mugatik iparraldeko lekuko

gehienek. Luzaiden, berriz, Euskara Batua dela aipatzen dute lekuko zenbaitek. Horrek erran nahi du Luzaide ez beste eremuetan, ez dutela mintzo hau aldaera estandartzat hartzen.

Erreakzio subjektiboen testaren emaitzek bat egiten dute datuen azterketan lortu ditugunekin. Hain zuzen ere, muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari da adinean beheiti goazen ber. Mugatik iparraldera dauden gazteak iparraldeko batuarekin, hots, Lapurdi eta Nafarroa Beherea bitartean garatzen ari den erregiolektoarekin identifikatzen dira gero eta gehiago. hegoaldeko batuak, berriz, ukaezineko eragina du Luzaideko gazteen artean.

6. Ondorioak

Ondorioen atal honetan, lehenik eta behin, aldakortasunik handiena hizkuntzaren zein alorrek duen ikusiko dugu. Ondoren, gure hipotesiak frogatzen diren ala ez ikusteko, aldagai aske bakoitzak hizkuntza-aldakortasunean duen eragina aztertuko dugu. Gaztetzekoan eta luzaidarren praktika-komunitatez aritzean, iparraldeko batuari eta hegoaldeko batuari buruzko gogoetak ere egingen ditugu. Sare sozialen teoria, behetik gorako eta goitik beherako aldaketak, hizkuntza- eta dialekto-heriotza, eta deigarritasuna ere izanen ditugu hizpide.

6.1. Hizkuntza-aldakortasuna hizkuntza-alorraren arabera

Hizkuntza-alorrari dagokionez, ez da argi ageri alor bat bestea baino gehiago aldatzen denik. Denek aldakortasun bertsua dutela ikusten dugu.

6.2. Aldagai askeak eta hizkuntza-aldakortasuna

Adina da aldagai sozial guztien artean, estatistikoki esanguratsu gehienetan gertatu dena, 33 aldiz, hain zuzen ere. Ondotik heldu da geografia, 19 aldiz izan baita esanguratsu. Geografiatik hurbil dago praktika-komunitatea, 18 aldiz izan delako esanguratsu. Generoa 13 aldiz izan da esanguratsu, eta azkenik, hezkuntza-eredua pare bat aldiz baino ez da izan.

Ondorengo lerroetan, hasierako hipotesiak betetzen diren edo ez ikusiko dugu. Horretarako, aztertu ditugun aldagai aske guztiak banan-banan aletuko ditugu.

6.2.1. Hizkuntza-aldakortasuna geografiaren arabera

Uste genuen bezalaxe, datuek Luzaide eta beste herrien arteko muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari dela adierazten digute.

Alde batetik, frantsesaren eraginez hedatzen ari diren hizkuntza-aldakortasun adibiderik ez dugu Luzaiden. Hala gertatzen da dardarkari ubularrarekin, [t̪] → <t̪> / _[i,j] bilakabidearen [t̪] aldaerarekin eta [d̪] → <d̪> / _[i,j] bilakabidearen [d̪] aldaerarekin. Ø → <ə> / C_## bilakabidearen kasuan, berriz, [ə] aldaeraren adibide gutxi batzuk baino ez ditugu Luzaiden, gehienak azken urteetan Arnegin bizi den bertako publikoko gizon gaztearenak. Dardarkarien eta Ø → <ə> / C_## bilakabidearen kasuan, mugaren bi aldeetako adinekoren artean, jada, badago desberdintasunik, mugatik iparraldera daudenen artean, frantsesetik heldu diren aldaerak hedatzen hasiak daudelako. Helduen kasuan, mugatik hegoaldekoekiko aldea anitz handitzen da; batez ere dardarkariei

dagokienez. [t]→<t̥>/_[i,j] eta [d]→<d̥>/_[i,j] bilakabideen kasuan, mugatik iparraldeko helduen artean hasten dira frantsesetikako aldaeren lehen adibideak agertzen, baina gazteen kasuan handitzen da gehien hauen kopurua.

Bestetik, Luzaide eta gainerako eremuak barietate supralokal desberdinen eraginpean daude: Luzaiden Euskara Batua da eragina duena, eta hau, usu, erdialdeko, eta zenbait aldiz, erdialde-mendebaldeko hizkeretan oinarritua dago. Euskara Batu honen eragina gazteengan baino ez dugu atzematen. Beraz, horrek erran nahi du Hegoaldera begira jartzen hasi direla Luzaideko gazteak, nahiz eta geografikoki Iparraldean egon. Beste eremuetan (Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze, Ezterenzubi, Hergarai eta Gamarte-Ainhiza), Iparraldetik heldu den nafar-lapurteraren eragina azpimarratu behar da, baita Iparraldeko beste eremu batzuen ere. Eragin hau helduengan hasten da agertzen, baina gazteen artean du presentziarik handiena. Mugaren arabera, barietate supralokalen eraginez gertatu desberdintasunik handiena gazteen artean dagoenaz gain, praktika-komunitateei heltzen diegunean emanen dugu honi buruzko xehetasun gehiago.

Muga politikoa hizkuntza-muga bihurtzen ari dela hautematen dute Garaziko lekukoek berek ere. 5.1.4. §-ean ikusi dugu gazteek, adinekoek ez bezala, Luzaideko euskara mugaren iparraldeko Garazikotik desberdina dela uste dutela. Hori frogatu ahal izan dugu erreakzio subjektiboen testen bidez ere. Luzaide ez beste eremuetako adineko gehienek garzartzat dute Luzaideko adineko lekukoa, eta ehuneko apalagoan, baita gazte gordetzailerak ere; ez ordea, heldua eta gazte berritzailea. Lekuko heldua Luzaide-Arnegin kokatzen dute, eta gazte berritzailea, berriz, Luzaide-Arnegin edo Hegoaldean. Luzaide ez beste eremuetako gazteek, berriz, Luzaideko adinekoa Luzaide-Arnegin kokatzen dute, beraienarengandik desberdina den mintzoa darabilela hautematen baitute. Luzaidar anitzek Gamarte-Ainhizako adineko emaztea luzaidarra izaten ahalko litzatekeela erran dute, baina beste lekukoak urrunago kokatu dituzte, batez ere, gazterik berritzaileena. Lekukoan oharmenari dagokionez ere, batasuna dakusagu mugaren bi aldeetako adinekoen mintzoren artean, baina desberdintasuna heldu eta gazteen artean.

6.2.1.1. Hizkuntza-aldakortasuna hizkuntza-aldagaien hedaduraren arabera

Ez dugu eragin nabarmenik ikusten hizkuntza-aldagaien hedadura-eremuaren eta aldaketaren abiaduraren artean. *Levelling*-a gertatzen delarik, eremu murrizteneko aldaerak izan ohi dira galtzen lehenak eta eremu zabalenerako azkenak. Eremu aski

murrizta duen hizkuntza-aldagai bat baino ez dugu aztertu, aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostuna edo ahoskabea den, hain zuzen ere. Kontsonante ahostuna Garazi eta inguruko ibar batzuetan baino ez da erabiltzen, eta kasu honetan bai, aldaketa handia gertatzen da, gazteen artean ia erabat desagertzen baita ahostuna Luzaide ez beste eremuetan. Hedadura zabalxeagoa duten hizkuntza-aldagaien kasuan, denetarik ikusi dugu: aldaketa handia jasaten du eremu aski murrizteko bustidurak Luzaide ez beste eremuetan, baina, aldaketa txikia jasaten dute [t]ik (ablatiboa) → <d>ik/[n]_ bilakabideak eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako *za(u)t* edo *zauzu* bezalako aldaerek. Badira, halaber, hedadura zabala izanagatik, aldaketa handia jasaten dutenak ere; adibidez, destinatiboak Luzaide ez beste eremuetan eta ablatibo pluralak Luzaiden.

6.2.1.2. Hizkuntza-aldakortasun diatopikoa Garazin

Hizkuntza-aldagai batzuek Garazi ibarra bitan banatzen dutela ikusi dugu. Mendebaldean ditugu Luzaide, Arnegi-Lasa eta Irulegi-Anhauze; ekialdean, berriz, Hergarai eta Gamarte-Ainhiza; eta azkenik, Ezterenzubi, usu, trantsizioko eremua dela jakin ahal izan dugu. Bereizketa hori adinekoen artean ageri da argien. Adinekoengandik helduengana, ordea, berdindu egiten da; areago helduengandik gazteengana bitartean. Hala ere, kasurik gehienetan, bereizketa honek bizirik jarraitzen du gazteen artean ere. Bustiduraren kasuan gertatzen da berdintzerik handiena, eremurik murrizteneko hizkuntza-aldagai banatzailean, hain zuzen ere.

6.2.1.3. Eremurik gordetzaileena vs. eremurik berritzaileena

Eremurik gordetzaileena Ezterenzubi dela ikusi dugu behin eta berriz. Herri hau mendiek bakaturik dago eta identitate handia du. Besta komite handia du biziki, eta egungo egunean ere, gazte anitz laborantzatik bizi da. Gazte biziki gutxi ikasten du ikastolan, nahiz eta badiren gazte euskaldunak herrian, euskara etxean ikasi dutenak, hain zuzen ere. Elkarrizketatu ditugun bertako gazte guztiak komiteetakoak dira, eta horixe da herriko errealitatea, ez baitago gaztetxeko gazterik. Luzaide ere biziki gordetzaile agertu da; batez ere, arlo fonikoari eta frantsesetik eta iparraldeko batutik heldu den eraginari dagokienez.

Eremurik berritzaileena Gamarte-Ainhiza da. Garaziko beste gazte batzuek diotenez, aski herri “euskaldunak” dira Ainhiza-Monjolose eta Gamarte. Aspalditik da

Gamarte abertzale, eta egungo egunean, bertako gazte gutiz gehienak ikastolan ikasten ari dira. Gaztetxeoak dira eremu honetan elkarrizketatu ditugun lau gazteetarik hiru. Cluster analisi orokorrean ikusi dugunez, gaztetxeo beste gazte gehienak baino berritzaileagoak dira gamartear eta ainhiztarrak.

Izen eta aditz morfologiari dagokienez, Luzaide beste eremuak baino berritzaileago da, oro har, erdialdeko (eta erdialde-mendebaldeko) euskaretan oinarrituriko Euskara Batua dela eta.

Adinekoen artean, ez dago eremu geografiko gordetzaileago edo berritzaileagorik; hauen artean dagoen desberdintasuna diatopikoa baino ez da. Eremu geografikorik gordetzaileenaren eta berritzaileenaren arteko alde hauek, batez ere, gazteei dagozkie. Eremurik gordetzaileenak osatzen du, oro har, talderik trinkoena, eta beraz, homogeenoa. Horrek erran nahi du alde linguistiko txikia dagoela eremu horretako adineko lekukoengandik gazteengana; hori dela eta, gordetzaile dira hango gazteak. Eremurik berritzaileenak, ordea, biziki talde sakabanatua osatzen du; beraz, heterogeneoa da, alde handia baitago gordetzaile diren adineko lekukoengandik berritzaile diren gazteengana.

6.2.2. Hizkuntza-aldakortasuna adinaren arabera

Adinari helduko diogu orain. Adinekoak dira Garaziko oinarri dialektala ordezkatzan dutenak. Berrikuntzak helduen artean hasten dira agertzen, ehuneko altuagoan kasu batzuetan eta apalagoan beste batzuetan, baina gazteen artean heltzen dira mailarik gorenera. Oro har, alde handiagoa dago helduen eta gazteen artean, adinekoen eta helduen artean baino. Berrikuntzen ehunekorik altuenak gazteen artean ditugunez, argi dago frantsesaren eta Iparraldeko eta Hegoaldeko barietate supralokalen eragina adin talde honetakoen artean dela handiena. Hori horrela den ber, Luzaide eta gainerako eremuen arteko alderik handiena ere gazteen artean dago. 5.3. eta 5.4. §-etan ikusi dugun bezala, lekukoek oharmenak ere horixe baieztatzen digu.

Adinekoek talde trinko eta homogeenoa osatzen dute, banatzaileak diren hizkuntza-aldagaietan eta adinekoengandik beraiengandik hasita gibelera ari den hasperenaren kasuan salbu. Gazteena da, ardurenean, talderik sakabanatuena eta heterogeneoa. Horrek erran nahi du ia adinekoak bezain gordetzaileak diren gazteak badirela, eta baita izugarri berritzaile direnak ere. Cluster analisi orokorrean ere hori ikusi ahal izan dugu. Helduengan denetarik atzeman ahal izan dugu: kasu gehienetan,

adinekoek baino talde sakabanatuagoa osatzen dute, baina batzuetan ia adinekoena bezain trinkoa da beraien taldea. Beste batzuetan, berriz, gazteena bezain sakabanatua.

6.2.2.1. Hizkuntza-aldakortasuna, adina eta hizkuntza-aldagaien sistematikotasuna

Adinekoen artean sistematikoak ez diren aldaerak ote dira gazteen artean galtzen lehenak? Ez dirudi beti hala denik. *-kilan* aldaera ez da sistematikoa adinekoen artean, eta ia erabat galtzen da gazteen artean. Atributuan artikulurik ez ibiltzea ere ez da batere sistematikoa adinekoen artean, baina hala ere, gazteen artean, aldaera honen ehunekoak irauten du. Hori dela eta, aldaketaren arrazoiak beste batzuk direla uste dugu: erdaren, eta batez ere, barietate supralokalen eraginak.

6.2.3. Hizkuntza-aldakortasuna generoaren arabera

Generoari dagokionez, emazteak dira ia kasu guztietan berritzaile direnak. Batzuetan, gizonetik alde txikia da eta ez da esanguratsua, baina beste batzuetan, aldiz, handiagoa da eta estatistikoki esanguratsua da. Generoaren arabera, alde estatistikoki esanguratsu gertatu den kasu guztietan, adinekoen eta gazteen artekoa ere hala izan da, eta emazteek gazteen ber norabidean gauzatu dituzte berrikuntzok.

Generoaren eta adinaren arteko elkarreragina izartu dugun aldi guztietarik hirutan baino ez dira izan adineko emazteak gizonak baino gordetzaileago: *zoin/zein*, *zonbat/zenbat* hitzetan eta horien eratorrietan, hitz hasierako hasperenean eta dardarkarrietan. Azken bi hauen kasuan, hala ere, emazteen eta gizonen arteko alde ez da estatistikoki esanguratsua izan. Kasurik gehienetan, adinekoen artean generoaren arabera dagoen alde txikia da biziki. Handixeagoa da helduen kasuan, baina gazteen kasuan da handiena. Ikusi dugun bezala, adinekoen taldea biziki homoginoa da, aldakortasun gutxikoa. Gazteen taldea, berriz, heterogeneoena eta aldakortasunik handiena duena da. Adinekoen artean dugun landa-eremuko gizartetik gizarte urbanora igarotzen ari gara gazteen artean Garazin, eta halako gizarteetan ohikoa den joera jarraitzen dute emazte gazteek. Genero bakoitza sozialki ongi desberdindurik dago Garazin, beste leku anitzetan bezala, ezaugarri jakin batzuk atxikitzen baitzaizkie gizoni eta beste batzuk emazteei. Gizarte osoan bezala, Garazin ere, urrun gaude berdintasuna lortzetik. Hori dela eta, estatusa erdiesteko bidean, gizonak ez bezala, hizkuntza erabiltzen dute emazteek, Garazin nagusitzen ari diren formen alde eginez. Oro har, gizoni konparaturik, aise talde sakabanatuagoa osatzen dute emazteek. Beraz,

Garazin, emazteen artean, gizonak bezain gordetzaile direnen eta berritzaile direnen arteko kontrastea dugu.

6.2.4. Hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren arabera

Hezkuntza-ereduari helduz, biziki bakan izan da aldagai sozial hau estatistikoki esanguratsu. Kasurik gehienetan ikastolakoak, publikokoei konparatuta, berritzaile dira, baina batzuetan aurkakoa ere gertatzen da. Oro har, aldagai sozial honek ez digu xehetasun handirik eskaintzen Garaziko gazteen aldakortasunari buruz.

6.2.5. Hizkuntza-aldakortasuna praktika-komunitatearen arabera

Azkenik, praktika-komunitateari dagokionez, erran dezagun kategoria mesosozial honek hezkuntza-eredua kategoria makrosozialak baino anitzez azterketa zehatzagoa eskaini digula Garaziko gazteen mintzoa aztertzeko. Hezkuntza-eredua bi aldiz baino ez da estatistikoki esanguratsu gertatu, eta praktika-komunitatea, berriz, 18 aldiz.

Komiteetakoena da ardurenean gordetzaileena den praktika-komunitatea. Berritzaileenak, berriz, gaztetxeak dira, eta baita luzaidarrak ere, bereziki izen eta aditz morfologiari dagokienez. Gaztetxeak eta luzaidarrek, ordea, berrikuntza desberdinen alde egiten dute, grabitazio eremu desberdinen menpe baitaude. Arlo fonikoan eta morfonologian, berriz, luzaidarrak izan ohi dira gordetzaileenak; zenbait aldiz, alde handiarekin.

Beste aldagai sozialen kasuan, talderik berritzaileenak dira sakabanatuena, eta beraz, heterogeneoena. Praktika-komunitateen kasuan, aldiz, ardura, komiteetakoek osatzen dute hiruren artean talderik sakabanatuena; batez ere, arlo fonikoan. Horrek erran nahi du, beste taldeetan baino areago, gordetzaile eta berritzaile diren lekukoak ditugula komiteetakoaren artean. Gaztetxeak, usu, talderik homogeneoena osatzen dutenez (batez ere arlo fonikoan), kide guztiak dira berritzaile, ez dago gordetzaile den lekukorik gaztetxearen artean.

6.2.5.1. *Gaztetxearen izaera berritzailea eta iparraldeko batuaz gogoeta*

Eredu idatzi nafar-lapurterra da gaztetxearen artean eragina duena. XIX. mendetik goiti landu da erredu hau; besteak beste, *Eskualduna* aldizkarian. XX. mendean, aitzina jarraiki du erredu honek. 1944an Lafittek deskribatu egin zuen *Grammaire basque navarro-labourdin littéraire* gramatikaren bidez, eta lan hau hainbat idazlerendako oinarri izan da. XX. mendearen bigarren erditik goiti, Iparraldean gertatu den euskararen

berpizkundean ere, eredu hau hartu dute oinarritzat iparraldeko batua deitzen dena eratzeko. Eredu nafar-lapurtarrean oinarritu dira *Herria* aldizkarian edota Donibane Garazin dagoen Irulegiko Irratian ere.

Behin eta berriz errepikatu dugu gaztetxekoena dela euskara gehien erabiltzen duen taldea, euskal kultura gehien kontsumitzen duena, euskal munduan aktiboki bizi dena eta Euskal Herrian, baina batez ere, Iparralde guztian gaindi, gehien mugitzen dena. Eredu nafar-lapurtar honetarik edaten dute, eta eredu honek du eragina beren mintzoan.

Hori dela eta, arlo fonikoari dagokionez, idatzizko formei eta forma osotuei hurbiltzen zaizkie, beste bi praktika-komunitateak ez bezala. Interesgarria da [o]→<u>/_[n] bilakabidearen kasua; izan ere, eredu nafar-lapurtarrean *u*-rekin idatzi izan diren hitzetan (*nun* eta lehen graduko erakuslearen gainean eraturikoetan), [u] erabiltzen jarraitzen dute gazteek, eta beraz, baita gaztetxekoek ere; ez, ordea, *o*-z idazten direnetan.

Izen eta aditz morfologiari dagokionez, Garazin adinekoek erabiltzen duten aldaera bat eredu nafar-lapurtarrean erabiltzen denaren bera bada, aldakortasuna biziki apala da gaztetxekoen artean. Hala erakusten digu aditz laguntzaile ditransitiboetako erroak, ablatibo pluralak, eta baita adlatiboak ere. Eredu nafar-lapurtarrean erabiltzen den aldaera bat Garazin erabiltzen denaren bera ez bada, eredu nafar-lapurtarrekoa gailentzea gerta liteke; errate batera, destinatiboko *-entzat* aldaera edota **eradun* erroaren gainean eraikitako aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonante ahoskabea.

Beste batzuetan, aldiz, eredu nafar-lapurtarrean erabiltzen ez den bertako aldaeraren alde egiten dute. Hori gertatzen zaigu datibo pluraleko *-er* eta datibodun aditz iragangaitzetako *zat/zaat* (adinekoak)/*zaut* (gazteak) edota *zauzu* bezalako aldaerekin. Lehenak ekialde muturretik has eta Lapurdi erdialderainoko hedadura du, eta bigarrenak Nafarroa-Beherea eta Lapurdiko erdialdea bitartekoa. Lafittek deskribatu nafar-lapurteran *-eri* eta *zait*, *zaizu* erabiltzen dira, eta gaur egun ere, ohikoa da aldaera horiek Euskal Irratietan, Kanalduden edota Herria astekarian entzutea, *-er*, *zaut* edota *zauzu*-rekin batera, betiere. Hala ere, gaztetxekoek Garaziko eta inguruko ibarretako oinarri dialektaleko aldaerak erabiltzen dituzte. Gure ustez, gazte hauen artean, hiztun

ugarik “barnealdea” deitzen dutenak identitatea izaten segitzen du. “Barnealde” honen barnean genituzke Nafarroa Beherea eta Lapurdiko ekialdea, baina ez Zuberoa, azken hau bereiz baitoa. Identitate hori hizkuntzan islatu izan da eta islatzen da oraindik ere, aldaera hauetan ikusten dugun bezala. Usu aipatzen da Garazin barnealdea vs. kostaldea oposizioa. Gazte zenbaitek, gainera, barnealde horren muga Luhuso edo Itsasun eta Hazparnen dagoela aipatu digute.

Deigarria da [t]ik (ablatiboa)→<d>ik/[n]_ bilakabidearen [t] aldaeraren kasua ere. Eremu murrizteko aldaera da [t], Baigorritik goiti [d] erabiltzen baita (*hemendik, handik, hurrundik*). Hala ere, osagarri aski ona du Garaziko gazteengan, baita gaztetxekoen artean ere, adinekoen eta gazteen arteko aldea ez baita estatistikoki esanguratsu, ezta praktika-komunitateen artekoa ere. Ez zaigu iruditzen aldaera hau garaztar izatearen markatzaile denik, ez baitugu hori pentsatzera garamatzen iritzirik jaso; baina hala ere, gazteek erabiltzen dute. Horrek, gure iritziz, hein batean bada ere, identitate lokala ematen dio Garaziko gazteen mintzoari.

Hizkuntza-jarrerei eta oharrenari dagokionez, 5.3.5. §-ean, erreakzio subjektiboen testen bidez, ikusi dugu mugatik iparraldeko gazte gehienek iparraldeko batutzat hartu dugun mintzoa garaztartzat jotzen dutela, eta horrek Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskarak berdintzeari buruz gertatzen ari den hizkuntza-aldaketa barneratua eta onartua dutela erran nahi du. Alabaina, 5.2.2.2. §-ean, gazteek Lapurdi aldeko euskara hein batean urrun ikusten dutela ere erran dugu. Gainera, 5.1.1. §-ean ikusi dugunez, gazte zenbaitek Lapurdin Euskara Batua Garazin baino hedatuago dagoela uste dute.

Hori guztia dela eta, lan honetan iparraldeko batua erregiolektoari buruz zerbait gehiago zehaztu nahi bagenuen ere, gauzak uste baino korapilatuago ageri zaizkigula iduri du. Garaziko gazteengan eredu nafar-lapurteak eragina du, baina baita Iparraldeko barnealdea deitu dugun horrek ere. Gainera, eremu murrizteko hizkuntza-aldaeraren bat bizirik izateak lekuan lekuko hizkerek, hein batean bada ere, beren identitatea mantentzen dutela pentsatzera garamatza. Berdintzea eta *Levelling*-a gertatzen ari da, baina ez erritmo berean Lapurdi eta Nafarroa Behereko leku guztietan zehar. Beraz, zehaztu behar litzateke iparraldeko batu baten edo anitzen aitzinean gauden.

6.2.5.2. *Gaztetxekoen izaera berritzailea eta sare sozialen teoria*

Paradoxa dirudi euskara gehien erabiltzen duen gaztetxekoen praktika-komunitateak izatea frantsesaren eraginez hedatzen ari diren aldaeren ehunekorik altuena; erranaldi amaieran kontsonante osteko [ə]-rena, eta [t̪] eta [d̪] lepokariena, hain zuzen ere. Horren arrazoa beraien mugikortasunean dago, gure ustez. Mugikortasun handia dute gaztetxekoek, eta hori dela eta, ibarretik kanpokoekin lotura anitz dituzte; horietarik anitz ahulak. Hori frogatu ahal izan dugu 2.8.2.1. eta 2.8.2.2. §-etan. Sare sozialen teoria milroytarrari segituz, era honetako loturak dituzten hiztunak dira berrikuntzak hedatzen lehenak. Hauxe da gaztetxekoek komiteetakoek baino eredu nafar-lapurarraren eragin handiagoa izatearen arrazoiatarik bat ere.

6.2.5.3. *Luzaidarren izaera berritzailea eta hegoaldeko batuaz gogoeta*

Luzaidarregana ez da heldu eredu nafar-lapurarraren eragin handirik. Ez dugu kontsonante ahoskabe anitz aditz laguntzaile ditransitiboetako eta datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako datiboaren lehen pertsonako morfeman, eta sintaxiari dagokionez, Garazi ekialdean nagusi den *-(e)nez* ez da heldu luzaidar gazteengana; bai ordea, arnegiar eta lasar gazteengana. Bestelako eragina jasaten dute luzaidarrek, (Hegoaldeko) Euskara Batuarena, hain zuzen ere. Aldaera bat eredu nafar-lapurarrean eta Euskara Batuan, bietan erabiltzen bada, gaztetxekoak eta luzaidarrak, biak dira berritzaile. Hori gertatzen da *zein*, *zenbat* aldaeren eta horien eratorrien kasuan edota sozietiboko *-kin* aldaeran. Beste batzuetan, aldiz, ez da hala; errate batera, destinatiboari dagokionez: *-entzat* erabiltzen dute gaztetxekoek eta *-endako-ri* lotzen zaizkio luzaidarrak.

Euskara Batuaren eragina agertzen da Luzaideko gazteengan aditz laguntzaile ditransitiboetako **i* erroan eta *-aten* aldaeran (eta ez *-aiten*). Beste hizkuntza-aldagai batzuen kasuan, berriz, eragina duen Euskara Batu hori erdialdeko euskararen oinarritua dago (aldagai horietarik zenbaiten kasuan, erdialdearekin batera doa mendebaldea ere); errate batera, Euskara Batuan, datibo pluraleko *-etarik* edota etorkizuneko *-en* onarturik daude, baina Euskal Herriko erdialdean *-etatik* eta *-go* erabiltzen dira, baita mendebaldean ere. Aldaera hauek erdialdetik aski urrun dauden luzaidarregan hedatzen ari dira. Bustidura ere, Euskal Herri erdialdean erabiltzen da, ez ekialdean (ez bada [j]_ testuinguruan eta adinekoen artean) eta ezta mendebaldeko muturrean ere. Bustidurarik gabeko formak onartuak daude Euskara Batuan, baina bustiduradunak ari dira indarra hartzen Luzaiden, bai [j]_ eta baita [i]_ testuinguruan ere, nahiz eta eremu

honetan *huñez* eta *ollo* hitzetan baino ez izan ohikoa bilakabide hau. Azpimarragarria da erdialdeko euskararen eragina, Euskara Batuan onarturik ez dagoen erdialdeko aldaera bat ere atzeman baitugu Luzaiden: *nuen* → *nun*, *genuen* → *genun*, *zenuen* → *zenun* erako laburdura, hain zuzen ere. Orain arte, bederen, Malerrekatik mendebaldera erabiltzen zen aldaera hau Luzaideraino heldu da.

Garrantzitsua da Erdialdeko euskara Euskara Batuan izaten ari den eragina. Erdialdeko euskara horrekin batera doa mendebaldekoa ere hizkuntza-ezaugarri zenbaitetan. Donostia da Hego Euskal Herriko hiririk euskaldunena eta Gipuzkoa herrialderik euskaldunena. Horrez gainera, Gipuzkoa eta Bizkaia dira ekonomikoki eta demografikoki beste lurraldeei nagusitzen zaizkienak. Hori dela eta, Hegoaldean, Gipuzkoa inguruko euskarari begira dago, geroz eta gehiago, Euskara Batua. Bestela ez genezake konpreni hain urrunekoak diren aldaerak Luzaideraino heltzea.

Orainokoa, bederen, Garraldan egiten dute DBH luzaidar gehienek, eta batxilergoa, berriz, Iruñean. Hegoaldetik heldu dira, halaber, irakasleak Luzaideko eskolara. Iruñearekiko menpekotasuna dute hainbat gauzatarako, eta administrazioaren aldetik ere, hura da beraien hiriburua. Halaber, Hegoaldetik heldu dira gazteek telebistaren edota interneten bidez kontsumitzen dituzten produktuak. Horrek guztiak erdialdeko euskararen eragin nabaria duen hegoaldeko batua Luzaideraino heltzea eragiten du.

Eta Hegoaldean erabiltzen den Euskara Batu horrek ba ote du eraginik mugatik iparraldera? Eragina ez da hutsa, gehienbat Luzaiden erabiltzen diren aldaera horiek komiteetakoen eta gaztetzekoen artean ere ageri dira, baina kopuru apala dute, oro har. 5.4.6. §-ean ikusi dugu mugaz iparraldeko gazteek ez dutela hegoaldeko batutzat hartu dugun mintzoa Euskara Batutzat jotzen, Hegoaldeko euskaratzat baizik. Luzaidarrek, berriz, mintzo hau hartzen dute beraien bariedade estandartzat. Luzaiden ere erabiltzen dela kontziente dira, eta ez dute desberdintasunik ikusten Iruñeko gazteek erabiltzen dutenarekiko.

Barietate supralokalen eragina hizkuntzaren alor desberdinetan gertatzen da mugaren alde banatan. 5.1.2. §-ean ikusi dugu ibarreko gazte guztiek dutela bertako euskara atxikitzearen aldeko jarrera argia. Jarrera horren baitan, morfologian jartzen dute arreta gaztetzekoek. Eredu nafar-lapurarrak, gainera, horretan laguntzen die, aldaera batzuk bi bariedadeetan berak baitira. Gamarte-Ainhizako publikoko eta

gaztetxeko emazte gazteak zioskunez, berak Hegoaldeko lagunekin bertako aditzak erabiltzen omen ditu bertako identitatearen erakusgarri. Luzaidarrek, berriz, etxean ikasi euskararen ahoskera atxikitzen dute hobekien. Euskara horretara, eskolatik eta Hegoaldearekiko kontaktutik heldu dira Ibañetaz bestaldeko interferentziak, morfologiara eta syntaxira, batez ere.

6.3. Hizkuntza-aldakortasuna eta hizkuntza-/dialekto-heriotza

Hizkuntza-heriotzak badu eraginik Garaziko euskarari. Kasurik argiena baldintzan erabiltzen diren erroena da. **Edin* eta **ezan*/**iron* galbidean daude gaztetxekoen artean, eta baldintzako *izan* eta *edun* dira nagusitzen ari direnak, baldintzan “zuzenagoak” direlakoan. Komiteetakoen eta luzaidarren artean, ordea, iraganaldi arrunteko formak ere erabiltzen dira, euskara gutxien lantzen duten taldeen artean, hain zuzen ere. Forma hauek erabiltzea paradigma gramatikala sinplifikatu delako marka da, formarik sinpleenen eta maiztasun handienarekin erabiltzen direnen alde egin baita.

Hizkuntza-heriotza frantsesetik mailegatu diren hots eta fonemetan ere atzematen da; batez ere, dardarkari ubularraren kasuan, baina baita erranaldi bukaeran kontsonante ondorengo [ə] hotsean, eta [ʧ, ɟ] aldaera lepokarietan ere. Halaber, frantsesa eta gaztelania dira hasperena galtzearen arrazoia, baina ez bakarria, arrazoi artikulatorioak ere badira eta.

Hizkuntza-heriotzaz baino hobe, dialekto-heriotzaz aritu beharko ginatke TOGen fenomenoan eta *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak hartzen duen konplementatzailearen kasuan gertatzen den sinplifikazioa azaltzeko. Lehenbizikoaren kasuan, TOGen fenomenoak gauzatzea ez gauzatzea baino konplikatuagoa izateak eragiten du sinplifikatze hori. *Uste izan*-en kasuan berriz, aldaera bat ala bestea (-*en* ala -*ela*) erabiltzeak dakarren ñabardura semantikoa (ziurgabetasuna vs. ziurtasuna) desagertzearen eraginez gertatzen da sinplifikatzea. Bi kasuetan, zernahi gisaz, Euskara Batuak TOGen fenomenoak ez gauzatzea eta *uste izan* aditzarekin menpeko aditzak -*ela* konplementatzailea hartzea bultzatzen du. Euskara Batuarekin duten harremanagatik dira gaztetxekoak bi hizkuntza-aldagai hauetan aldaera berria gehien erabiltzen dutenak. Euskara Batuaren alde egiten dute eredu nafar-lapuritarra alde batera utziz, baina paradigma gramatikala sinplifikatzea ere badago horren gibelean.

6.4. Behetik gorako eta goitik beherako aldaketak Garazin

Garrantzitsua da aipatzea, halaber, Garazin ez dugula behetik gorako aldaketarik aurkitu; hots, ez dugu Garaziko edo Garaziko eta inguruko ibarretako gazteen artean, espontaneoki sorturiko aldaketarik. Denak dira komunitatearen kanpoaldetik inportatuak: frantsesetik, Euskara Batutik edota barietate supralokaletarik. Goitik beherakoak dira, beraz. Horrek, hein batean, ibarreko eta inguruko euskarak duen indar falta salatzen du.

6.5. Hizkuntza-aldakortasuna eta deigarritasuna

Garrantzitsua iruditu zaigu deigarritasunari edo *salience*-ari buruzko bi hitz egitea. Kate mintzatuan, hizkuntza-aldaera bat ezohikoa denean, eta beraz, trantsizio probabilitate apala duenean, sorpresa balio handia du eta linguistikoki deigarria da hiztunarendako. Talde sozial jakin batekin lotzen bada, markatzaile sozial bihurtzen da eta hizkuntza-aldaketa zedarritzen du. 5.2., 5.3. eta 5.4. §-etan ikusi dugu besteekin konparaturik, biziki deigarri zaizkien hizkuntza-aldaerek berebiziko garrantzia dutela hiztunek beren hizkeraz duten oharmenean eta identitatea eratzean. Gure lanean, maiztasuna eta sistematikotasuna deigarritasuna atzemateko funtsezkoak direla ikusi dugu.

Dardarkariak kate mintzatuan ardura gertatzen dira. Sistematikoki aldaera ubularra erabiltzen duten talde sozialendako ezohikoa da sistematikoki aldaera hobikaria erabiltzen duen hiztun batekin topo egitea; hots, trantsizio probabilitate apala izanen du aldaera hobikariak ubularra erabiltzen dutenendako. Fonetikoki, gainera, kontraste handia dago bi hotsen artean. Kognitiboki deigarria den aldaera hobikaria erabiltzen duten hiztun horien ezaugarri sozialetarik, Hegoaldekoa izatea da ubularra darabiltenendako nabarmentzen dena, nahiz eta Garaziko adinekoek ere hobikaria erabili. Beraz, aldaera hobikaria Hegoaldeko izatearekin lotu dute mugaz iparraldeko gazteek. Kontrakoa gertatu da Luzaiden aldaera ubularrarekin. Areago, Iparraldeko gazteek ubularra erabiltzea Iparraldeko izatearen identitate-markatzat dutelakoan gaude, eta Hegoaldekoek, berriz, hobikaria Hegoaldekotzat dutelakoan. *Shibboleth* izaera hartu dute, beraz, dardarkari ubular eta hobikariak

Xuka tratamendua da deigarri den beste kasu bat. Sistematikoa da biziki, aditz guztiei eragiten baitie (menpekoei eta galderetakoei izan ezik), eta maiztasun handia du aditzak etengabe erabiltzen baititugu mintzatzen garelarik. Elkarren ondoan dauden eta

elkarrekin harreman handia duten ibarrak dira Baigorri eta Garazi. *Xuka*-ko aditzak entzutea ezohikoa da baigorriar batendako; hau da, trantsizio probabilitate apala dute. Nahiz eta *xuka* beste ibar anitzetan ere mintzatu, hurbiltasun geografikoagatik, *xuka* mintzatzen duena garaztarra da baigorriarrarendako. Ez da kontrakoa gertatzen; erran nahi baita, tratamendu neutroa edo eztabadakoa, Garazin *zuka* deitzen dutena, ez da baigorriar izatearen markatzailetzat hartzen, tratamendu hori delako prestigioa duena eta hedatuena ere badelako. 5.2.2.1. §-ean ikusi dugun bezala, garaztarrek beren ibarreko mintzoaren *shibboleth*-tzat dute *xuka*, eta horretan oinarritzen dira norbait garaztarra den edo ez errateko. Identitate marka hori Garaziko kantonamenduan baino ez dugu atzeman, Irulegi, Anhaize edota Luzaiden, Baigorri ibarreko herriak ere beraien mintzotik hurbil daudela baiteritzote. Gaur egun, tratamendu hau gazteen artean gibelera doala ikusi dugu. Oztibarreko ikastolan, ordea, landu eta erabili egiten dute; beraz, gaur egun, *xuka* Oztibarreko gazteen markatzaile sozial bihurtzen ari da.

7. Aitzina so

Dialektologia tradizionaletik edan du ikerlariak eta dialektologia tradizionala izan du abiapuntu. Bidean, ordea, oinarri dialektalaren aldakortasun diatopiko hutsa aztertzean, komunitatean gertatzen ari diren fenomeno anitzek ihes egiten digutela ohartu gara, eta horien berri emateko nahitik atera da lan hau. Ez genuen zalantzarik adinaren arabera Garazin hizkuntza aldatuko zela, beste ia leku guztietan ere hala gertatzen baita, baina beste faktore sozial batzuei dagokienez, ekarpen batzuk egin ditugula uste dugu.

Hain zuzen ere, muga politikoa euskarari izaten ari den eragin handiaren berri eman ahal izan dugu eta eragin hori ze heinetakoa den eta zein norabidetan gertatzen ari den ere jakin ahal izan dugu. Ondorengo urteetan etorriko diren ikerketek sendotuko edo baztertuko dituzte guk atera ahal izan ditugun emaitza eta ondorioak.

Generoari dagokionez, gurean, nazioarteko beste anitz lekutan bezala, generoak hizkuntza-aldakortasunean eragin garrantzitsua duela ikusi dugu. Gainera, emakumeek berritzaile izateko joera dutela frogatu ahal izan dugu, garaztar gazteenen artean, batez ere.

Praktika-komunitateen eta kategoria mesosozialen kontzeptuak ekarri ditugu euskal bariasionismora. Pozgarria iruditzen zaigu euskaraz bizi diren hainbat praktika-komunitate badirela jakitea; izan ere, usu, estilo, zaletasun eta jarduera jakin batzuekin lotzen da euskaraz mintzatzea, eta badirudi horietarik aparte dabiltzanak erdaraz bizi direla. Hizkuntza-aldakortasuna aztertzeko, praktika-komunitateek zehaztasun handia eskaintzen digutela ere frogatu dugulakoan gaude, eta interesgarria litzateke hemendik goiti ere, kategoria mesosozial hauekin azterketak egiten jarraitzea.

Metodologiari dagokionez, garrantzi handia eman diogu mintzo espontaneoaren lortzeari. Horregatik, komunitatean integratzen eta hango euskara ikasten saiatu ginen lan hau egiten hasi baino bi urte eta erdi lehenago. Bertan ere bizi izan gara, gainera, bi urtez. Hiztunak lagunak edota lagunak izatea bilatu dugu uneoro eta mintzo librea eta arduragabea jaso nahi izan dugu. Horretarako, elkarrizketa libreak eta erdigidatuak egin ditugu. Iruditzen zaigu lortu dugula helburua, eta aitzina so ere, bide hauek ahal bezainbeste hobetu eta sakondu beharra dagoela iruditzen zaigu.

